

I. XEDAPEN OROKORRAK**ESTATUKO BURUZAGITZA**

9268 6/2018 Legea, uztailaren 3koa, 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrena.

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek lege hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala:

HITZAURREA

I

Estatuaren Aurrekontu Orokorren oinarriko arau-esparrua 1978ko abenduaren 27ko Espainiako Konstituzioak, Aurrekontuei buruzko Lege Orokorrak eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoak osatzen dute.

Konstituzio Auzitegia Estatuaren Aurrekontu Orokorren urteroko legeak izan beharreko edukia zehazten joan da, eta derrigorrean ondoko alderdi hauek xedatu behar dituela adierazi du: dagokion urtean, Estatuak eta hari lotutako edo haren mendeko erakundeek izango dituzten diru-sarreraren aurreikuspena eta gastuetarako baimena. Nahitaezko eduki horrekin batera, beste alderdi batzuk ere xeda ditzake legeak; betiere, diru-sarreraren aurreikuspenarekin, gastuetarako gaikuntzarekin edo politika ekonomiko orokorraren irizpideekin lotura zuzena badute, eta Estatuaren Aurrekontu Orokorrak nahiz Gobernuaren politika ekonomikoa errazago interpretatzeko eta efikazia handiagoz gauzatzeko ezinbesteko osagarri badira.

Bestalde, Konstituzio Auzitegiak adierazi du denborazkotasun-irizpidea ez dela erabakigarria arau jakin bat konstituzionala izateko edo ez izateko, arau hori aurrekontu-lege batean sartzeari begira. Horregatik, Aurrekontuei buruzko Legea funtsean aldi baterako araua den arren, ez dago inolako eragozpenik inoiz edo behin bertan zenbait urtetarako edo epemugarik gabeko manuak sartzeko.

Bestalde, zergen alorrean, Konstituzioaren 134. artikuluko 7. apartatuaren arabera, Aurrekontuei buruzko Legeak ezin du zergarik sortu, baina aldatu bai, ordea; hain zuzen ere, zerga-lege substantibo batek aukera hori jasotzen duen kasuetan.

Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legetik kanpoko arloak dira aurreikuspen horietatik kanpo gelditzen direnak. Hortaz, Legearen edukia Konstituzioak berak mugatzen du —gainerako legeekin ez da halakorik gertatzen, haien edukia, printzipioz, mugagabea baita—: Estatuaren eskumenen eremuko ia izango da, eta ez ditu lege organikoari erreserbatutako gaiak xedatuko.

Horrenbestez, 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak nahitaezko edukia eta Konstituzio Auzitegiaren doktrina errespetatzen dituzten xedapenak soilik jasotzen ditu.

2017ko ekitaldiko aurrekontuak amaitu baino gutxienez hiru hilabete lehenago, Gobernuak ez ditu Diputatuen Kongresuan aurkeztu 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrak (betebehar hori Espainiako Konstituzioaren 134.3 artikuluan ezarrita dago); hori dela eta, EKren 134.4 artikuluan xedatutakoa erabat aplikatu ahal da. Hauxe xedatzen du artikuluko horrek: «aurrekontuen legea kasuan kasuko ekitaldi ekonomikoaren lehen egunerako onesten ez bada, ulertuko da aurreko ekitaldiko aurrekontuak zuzenean luzatu direla, berriak onetsi arte».

2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokor hauek Aurrekontuei buruzko Lege Orokorra (47/2003 Legea, azaroaren 26koa) aintzat hartuta egin dira, eta aurrekontu-prozesuaren arrazionalizazio handiagoa lortzea dute helburu.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak Espainiako Konstituzioaren 135. artikuluan jasotako agindua garatzeaz gain, berau 2011ko irailaren 27an erreformatuta, Diru-Batasunaren Egonkortasun, Koordinazio eta Gobernantzarako Tratua, 2012ko martxoaren 2koa, bete ere egiten du, Europako araudira etengabe eta automatikoki egokitzea bermatuz. Arau-esparru horren barruan, Estatuaren Aurrekontu Orokor hauetan aurreko ekitaldietan zegoen helburu bera dago; hau da, herri-administrazio guztien finantza-iraunkortasuna bermatzea, Espainiako ekonomiaren egonkortasunarekiko konfiantza sendotzea, eta aurrekontu-egonkortasunaren arloan Espainiak Europar Batasunarekin hartutako konpromisoa indartzea. Hiru helburu horiek betez gero, sendotu egingo da hazkunde ekonomikoa bultzatzera eta enplegua sortzera zuzendutako politika ekonomikoaren esparrua.

Ildo horretan, 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren lehentasunezko helburuak bi dira: defizit publikoa murrizten jarraitzea eta Europar Batasunarekin sendotze fiskaleko konpromisoak betetzea; hori guztia, hazkunde ekonomiko sendoa gertatzen ari dela, tributu-baliabideak areagotuz doazela, eta Espainian merkatuen konfiantza handituz doala, konpromiso horri berari eta Gobernuak azken urteetan hartutako neurriei esker.

Hazkunde ekonomikoko egoera dela eta, aurrekontuen eta zor publikoaren egonkortasuna 2018-2020 aldian ere egonkortze aldera, defizita murrizteko helburuei eutsi zaie, eta, horren arabera, administrazio publiko guztiek 2020an lortuko dute aurrekontuen egonkortasuna. Aurrekontuen eta zor publikoaren egonkortasuna lortzeko helburuak Ministroen Kontseiluak ezarri zituen 2017ko uztailaren 3ko akordioan, eta autonomia-erkidegoen eta Gizarte Segurantzaren egonkortasuna lortzeko helburua, zehatz-mehatz, 2017ko uztailaren 7ko akordioan berrikusi zen. Helburu horiek guztiak Kongresuaren 2017ko uztailaren 11ko osoko bilkuran eta Senatuaren uztailaren 12ko osoko bilkuran onartu ziren. Akordio horrek BPGren ehuneko 2,2ko defizit-helburua ezartzen du administrazio publiko guztientzat, honela banakatuta: Estatuak ehuneko 0,7ko defizita izango du; Gizarte Segurantzak ehuneko 1,1ekoa; autonomia-erkidegoek ehuneko 0,4koa; eta toki-korporazioek zero defizita izango dute hurrengo urtearen amaierarako. Zor publikoaren helburua BPGren ehuneko 70,8koa izango da administrazio zentralarentzat 2018an. 2018rako Estatuaren Aurrekontuaren gastu ez-finantzarioaren muga 119.834 eurokoa da, hots, 2017ko Aurrekontuko baino 100eko 1,3 handiagoa. Horrez gain, gastu-maila 1.497 milioi euro handiagoa da, 2017ko aurrekontuaren aldean.

II

Aurrekontu Legearen funtsezko zatia I. tituluan dago («Aurrekontuak onartzea eta aldatzea»). Bertako I. kapituluan, «Hasierako kredituak eta haien finantzaketa» izenburupean, Estatuko sektore publikoaren diru-sarrera eta gastu guztiak onesten dira, eta Estatuaren tributuetan eragina duten zerga-onuren zenbatekoa kontsignatzen da.

I. kapitulu honetan, Estatuaren Aurrekontu Orokorren eremua zehazten da, kontuan hartuta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak egiten duen sailkapena, zeinak eragina izaten baitu legearen gainerakoan.

Estatuaren Aurrekontu Orokorren esparrua Espainiako Bankuaren funtzionamendugastuen eta inbertsioen aurrekontuarekin osatzen da; aurrekontu hori, daukan berariazko legediaren arabera, ez da Estatuko sektore publikoko gainerako aurrekontuekin bateratzen.

II. kapituluan jasota daude aurrekontu-kredituak aldatzeko eta betearazteko arauak, aurrekontuen mugak, aurrekontuen aldaketen arloko ahalmen espezifikoak, lege honen indarraldian gauzatu behar diren kreditu lotesleak, bai eta kreditu-gehikuntzak eta -txertaketak ere, zeinak legearen eranskinetan baitaude zerrendatuta.

«Gizarte Segurantza»ri buruzko III. kapituluan arautzen da osasun-laguntzaren finantzaketa.

III

Aurrekontuei buruzko Legearen II. titulua, «Aurrekontuen kudeaketa» helburu duena, hiru kapitulutan egituratuta dago.

I. kapituluak irakaskuntzako aurrekontuen kudeaketa arautzen du. Ikastetxe itunduak sostengatzeko funts publikoak banatzeko modulu ekonomikoa finkatzen du, bai eta Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalako (UNED) langileen kostuei dagokienez baimendutako zenbatekoa ere.

II. kapituluan («Osasunaren eta gizarte-zerbitzuen aurrekontu-kudeaketa»), bai Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren, bai Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren eremuan aurrekontu-aldaketak egiteko berariazko eskumenak daude jasota. Diruzaintza-geldikinak Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren aurrekontuan aplikatzeko arauak ere bertan biltzen dira.

III. kapituluak «Aurrekontu-kudeaketarako beste arau batzuk» jasotzen ditu, eta Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren partaidetza-portzentajea zehazten du, bere jardueragatik bildutako diru-kopuru gordinari dagokionez. Portzentaje hori ehuneko 5ekoa izango da 2018rako.

IV

Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legearen III. titulua «Langile-gastuak» ditu helburu, eta hiru kapitulutan egituratuta dago.

I. kapituluan «sektore publiko»aren definizioa ondore horietarako ematen da, eta langileen gastuak jorratzen dira. Kapitulu horretan enplegu publikoaren eskaintza ere arautzen da, artikulua bakarrean; hargatik eragotzi gabe martxoaren 31ko 6/2017 Errege Lege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa. Errege lege-dekretu horren bidez, unibertsitate kanpoko irakasleen, unibertsitate-irakasleen, Indar Armatuaren, Estatuaren Segurtasun Indar eta Kidegoen eta autonomia-erkidegoen mendeko polizia-kidegoen 2017ko lan-eskaintza publikoa onartzen da.

II. kapituluak, «Ordainsarien araubideak» izenburupean, xedatzen du honako kargu hauen ordainsarien 2018ko eguneraketa: Estatuko Gobernuko eta kontseilu-organoetako goi kargudunena, Estatuko Administrazio Orokorreko kideena, Estatu Kontseiluko goi-kargudunena, Ekonomia eta Gizarte Kontseilukoena, bai eta Kontuen Auzitegiko, Konstituzio Auzitegiko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko kideena ere, eta Indar Armatuetakoa, Poliziako eta Guardia Zibileko goi-kargudunena, eta Botere Judizialeko eta Fiskaltzako kargudun jakin batzuenak. Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legearen halako aurreikuspenak sartu dira organo horien aurrekontuak eta, ondorioz, aipatutako ordainsarienak, Gorte Nagusiek onetsi behar dituztelako. Aurrekontuaren batasun- eta unibertsaltasun-printzipioek agintzen dutenarekin bat, Estatuaren gastu guztiak bilduko dituen dokumentu bakar bati eman behar zaio onespenean; hain zuzen ere, Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legea da dokumentu hori.

Kapitulu hori osatzen dute, 30/1984 Legearen aplikazio-eremuan, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 7 laugarren terminoetan, sartuta dauden Estatuko funtzionarioen, Estatuko sektore publikoko lan-kontratadun langileen, Indar Armatuaren langileen, Guardia Zibilaren Kidegoko langileen eta Poliziaren Kidego Nazionalako langileen eta Gizarte Segurantzako estatutupekoak diren eta estatutupekoak ez diren langileen ordainsariei buruzko arauak.

Karrera Judizialeko eta Fiskaleko kideen, Justizia Administrazioiko Letraduen Kidegoko kideen eta Justizia Administrazioaren zerbitzurako kideen ordainsariei buruzko arauak aipamen berezia egiten zaie.

Titulu horretako III. kapituluan, «Langile aktiboen araubidearen alorreko beste xedapen batzuk» izenburupean, honako hauek bildu dira, aurrekontuei buruzko aurreko legeetan bezala: ohiz kanpoko diru-sarrerak galarazteari buruzkoak; eta sariak, gurutzeak, dominak eta mutilazio-pentsioak emateagatik jaso behar diren zenbatekoak eguneratzeari buruzkoak. Era berean, lan-kontratadun langileen eta funtzionarioak ez diren ordainsariak zehazteko edo aldatzeko baldintzak ezartzen dira; hartarako, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko

Ministerioak aldeko txostena eman beharko du. Inbertsio-kredituetan zorduntzeko langile lan-kontratadunen kontratazioa arautzen da, bai eta Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak sektore publikoaren zerbitzura jarduten duten langileen kostuen arloan duen eskumena ere, negoziazio kolektiboaren eremuan.

V

Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legearen IV. titulua, «Pentsio publikoak» izenburupean, sei kapitulutan banatuta dago.

I. kapituluak ezartzen dira Gizarte Seguratasunaren sistemaren arabera ordaindutako pentsioen errebalorizazioa eta klase pasiboak.

II. kapituluak Estatuak Klase Pasiboen Araubideko pentsioen eta gerrako pentsio berezien hasierako zehaztapena arautzen du.

III. kapituluak pentsio publikoen hasierako zehaztapenaren mugak jasotzen ditu.

IV. kapituluak «Pentsio publikoen balioak handitzea eta aldatzea» arautzen du, eta Gizarte Segurantzako sistemaren arabera ordaintzen diren kotizaziopeko pentsioen eta klase pasiboen errebalorizazioari heltzen dio. Halaber, goratuko ez diren pentsioak zehazten ditu, eta pentsio publikoak goratzeko zenbatekoaren muga ezartzen du.

V. kapituluak gutxienekorako osagarrien sistema jasotzen du, bi artikulutan: bata Klase Pasiboen pentsioei buruzkoa da; eta bestea, Gizarte Segurantzako sistemako pentsioei buruzkoa.

VI. kapituluak jasotzen du, alde batetik, Gizarte Segurantzako kotizaziopekoak ez diren pentsioen hasierako zehaztapena eta balioa handitzea, eta, bestetik, iraungitako Zahartzaro eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruari dagozkion pentsioen zenbatekoa finkatzea.

VI

«Finantza-eragiketak» izeneko V. titulua hiru kapitulutan egituratuta dago, eta honako gai hauek lantzen dira: zor publikoa, abal publikoak eta beste berme batzuk, eta Estatuaren eta Kreditu Ofizialeko Institutuaren arteko harremanak.

Titulu horren xede nagusia Estatuak eta erakunde publikoek zorduntze-eragiketak egiteko gehieneko zenbateko bat baimentzea da. Zorduntzeak I. kapituluak daude araututa, «Zor Publikoa» izenburupean.

VII

Tributuen esparruan, hainbat neurri jasotzen ditu Aurrekontuen Legeak.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arloan sakon jorratu dira zergaren erreforma berria inspiratu duten helburuak, eta, zehazki, errenta txikiagoa duten langileei eta familia-zama handiagoak —hala nola emakumezko langileenak, familia ugariak edo desgaitasuna duten pertsonak— dituzten zergadunei zerga-ordainketa murriztea.

Horretarako, errenta txikiagoak dituzten langileen zerga-zama murrizte aldera, lortutako lan-etekinen arabera murrizketa handitu egin da. Hori horrela, kolektibo horrek eskuragarri duen errenta hobetu egiten da, eta, zergen ordainketaren ataria, hau da, zerga ordaintzea eragiten duen urteko soldata gordinaren zenbatekoa, handitu egiten da.

Amatasunaren, familia ugariaren edo desgaitasuna duten eta zergadunak bere kargu hartu dituen pertsonen ziozko kenkariak handituz hobetzen da familia-fiskalitatea.

Amatasunaren ziozko kenkariaren arloan handitu egin da zerga-pizgarria, baldin eta zergadunak hiru urtetik beherako seme-alaba zaintzeagatik haurtzaindegien edo hezkuntza-zentro baimenduen gastuak ordaindu behar baditu. Neurri horrek emakumeei lan-merkatuan sartzen lagunduko die, baina, horrez gain, gastu horiek aintzat hartuta, familia- eta lan-bizitza uztartzen lagunduko die langileei, eta, aldi berean, hiru urtetik beherako seme-alabari ere haur-hezkuntzako lehenengo zikloan sartzen lagunduko dio.

Zergadunak bere kargura dituen eta desgaitasuna duten pertsonen zioz sortzen diren kenkariak ere aldatu dira, eta kenkaria kasu gehiagotan aplikatzen da. Zehatzago esanda,

legez bananduta ez dagoen ezkontidea ere sartu da, baldin eta ezkontideak desgaitasuna badauka, eta ekonomikoki zergadunaren mende baldin badago.

Era berean, jaiotza-tasa pizte aldera, familia ugaria izateagatik ezarritako kenkariaren mugen zenbatekoa handitu da, zerga sortzen den egunean familia ugari arrunt orokor edo familia ugari berezi gisa, egokia dena, sailkatzeko gutxienez eskatzen diren seme-alaben zenbatekoa gainditzen duen seme-alaba bakoitzeko.

Azkenik, Europar Batasunaren Zuzenbidearen araudia egokitze aldera, familia bateko gainerako kideak Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu batean bizi badira, eta, horregatik, baterako aitortpena aurkeztu ezin badute, zergadun horien aldeko kenkaria ezartzen da. Horrela, haiek ordaindu beharko duten kuota eta, familiako kide guztiak Espainian bizi izan balira, ordaindu beharko zuketena parekatzen dira.

Bestalde, Ceutan eta Melillan errentak lortzegatik ezarritako kenkariaren ehunekoak handitu da, hiri autonomo horietako egoiliarrek zerga txikiagoak ordainduko dituzte, eta, hartara, errenta handiagoa erabilgarri izango dute, hiri horietako jardun ekonomikoa bultzatzeko.

Aldaketa horrekin batera, kontura ordaintzeko sisteman egin behar diren aldaketak ere egin dira, neurri horrek hiri autonomoetan izango duen inpaktu ekonomikoari aurrea hartzeko.

Era berean, zerga horren ondoriozko aitortpena egiteko betebeharra ere ezartzen da. Alde batetik, aitortpena aurkeztetik salbuesteko zenbateko-muga bat ezartzen da, kopuru txikiko laguntza publikoen ondoriozko ondare-irabaziak lortzen direnean; horrela, dirulaguntza horiek jasotzeak ez du zergaduna behartuko zerga horren aitortpena aurkeztera, horrek izaten dituen ondorio ekonomikoekin batera. Beste alde batetik, lan-etekinak lortzen dituztenei aitortpena egiteko betebeharra sortzeko beheko ataria handitzen da, aurrez aipatu diren lan-etekinak lortzeagatik aplikatutako murrizketaren hobekuntzaren ondorioz.

Sozietateen zergaren arloan, zenbait aktibo ukiezinak sortutako errenten murrizketa eta dagokien araubide iragankorra aldatzen dira. Horren bidez, batetik, Europar Batasunean eta Ekonomiako Lankidetzan eta Garapenerako Erakundearen «*patent box*» deituriko araubideei buruz hartu diren erabakietara moldatu nahi izan da arauketa hori; eta, bestetik, Ekonomiako Lankidetzan eta Garapenerako Erakundearen BEPS deituriko planaren 5. ekintzari buruzko txostenean ezarritakoa bete nahi izan da, bereziki. Txosten horretan loturaren irizpidea («*nexus approach*», ingelesez) biltzen da, kaltegarria ez den eta, nazioarteko estandar horri jarraikiz, kaltegarria ez den ukiezinen lehentasunezko araubidea osatzeko irizpidetzat hartuta.

Gainera, enpresa handiei gutxienez aplikatu ahal zaien ordainketa zatikatua egitetik salbuesten zaie arrisku-kapitaleko erakundeei, haiek salbuetsita dituzten errentak direnean. Horrela, zerga-ordainketa txikia duten beste erakunde batzuei emandako tratamenduarekin erkatuta, egun arte egon den asimetria zuzenduko da.

Defizit publikoa murrizten laguntze aldera, ondarearen gaineko zergaren karga 2018. urtea arte luzatu da.

Balio erantsiaren gaineko zergaren arloan nabarmentzekoa da zerga tipoa murriztu dela, eta zinema-aretoetan sartzeko txartelari aplikatu behar zaion tipoa ehuneko 10 dela, aurreko ehuneko 21eko tasaren ordez.

Salbuespenen arloan, ordea, batasunak, taldeak edo erakunde autonomoak direla eta, kideei zuzenean egin dakizkiekeen zerbitzuengatik salbuespena aldatu da, arauketa Europar Batasunaren Zuzenbidearen arabera egokitzeko.

Kontseiluaren 2017/2455 (EB) Zuzentarauak —2017ko abenduaren 5ekoa, eta duela gutxi onartua— 2006/112/EE Zuzentaraua eta 2009/132/EE Zuzentaraua aldatzen ditu, zerbitzuak emateari eta ondasunen urruneko salmentari buruzko betebeharrak jakin batzuen arloan. Horrez gain, zuzentarau horrek BEZari buruzko zuzentarau harmonizatua aldatu du; zehazki, bide elektronikoz, telekomunikazioen bitartez, irrati edo telebistaz ematen diren zerbitzuen zerga-arauak aldatu ditu, hartzailea ez denean enpresaburu edo profesional gisa jarduten duen enpresaburua edo profesionala.

Estatu kide bakarrean ezarrita dauden mikroenpresek beste estatu kide bateko azken kontsumitzaileei noizean behingo zerbitzuak egiten dizkietenean, zergak ordaindu behar izaten dituzte hartzailea bizi den estatu kidean, eta horrek administrazio- eta zerga-kargak ekartzen dizkie; hortaz, karga horiek arintze aldera, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera ondoreak izanik, guztientzako atari bat ezartzen da Europar Batasunean, urteko 10.000 euro artekoa. Muga hori gainditu ezean, prestazioen emailea zer estatu kidean ezarrita dagoen, estatu horretako balio erantsiaren gaineko zergaren mende egongo dira zerbitzuon prestazioak.

Bestalde, zerga-betebeharrak borondatez betetzea eta leihatila bakarreko sistema erraztua erabiltzeko aukera bultzatzeko, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, lehen ez bezala, Europako Erkidegoan ezarrita ez dauden baina BEZaren ondoretarako estatu kide batean erregistraturik dauden enpresaburuek edo profesionalek —adibidez, noizean behin estatu kide horretan BEZaren mendeko eragiketak egiten dituztelako— erabili ahalko dituzte Europako Erkidegoan ezarrita ez dauden enpresaburuei aplikatu ahal zaien erregimen berezia, bai eta Erkidegoan ezarrita dauden enpresaburuei edo profesionalei aplikatu ahal zaien araubide berezia ere.

Horren ondorioz, barneko araudia aldatu behar da, behintzat, bide elektronikoz, telekomunikazioen bidez, irratiz edo telebistaz ematen diren zerbitzu horien zerga aplikatzeko lurraldea zein den zehazten duten arauei dagokienez. Halaber, Erkidegoan ezarrita dauden edo ezarrita ez dauden enpresaburuek edo profesionalek ematen dituzten telekomunikazio, irradi edo telebista bitarteko zerbitzuei aplikatu ahal zaien araubide bereziaren arauketa ere aldatu behar da.

Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruz, handitasunak eta noble-tituluak eskualdatzea eta birgaitzea zergapetzen dituen eskala eguneratu da, eta ehuneko 1ekoa da.

Estatuaren kirol eta ongintzako elkarrekiko apustuen eta ausazko konbinazioen salbuespen bikoitza eginda, jokoei lotutako gainerako kasu guztietan, sarien bidezko diru-sarrerara garbiek osatuko dute oinarria, eta haien gainean karga bakarra aplikatuko da. Horrela, operadoreek arrazoi gehiago izango dituzte jarduerak lege-esparruan egiteko, eta sektore horretan gertatzen diren legez kanpoko jarduketarik ez egitea bultzatuko da. Gainera, joko moten arteko edozein zerga-diskriminazio ezabatuko da; hori, gainera, bat etorriko da Europako Batzordeak defendatzen duen jokoen arteko diskriminaziorik ezaren printzipioarekin.

Gainera, Ceuta eta Melilla Hiri Autonomoen lurraldearen berezitasunaren ondorioak leuntze aldera, hiri horietan eska daitezkeen motak ezartzen dira, ehuneko 50eko hobariarekin batera; izan ere, espainiar zerga-sistemako gainerako zergetarako antzekoa eskatzen da Espainiako gainerako lurraldetan.

Zerga berezien arloan, hidrokarburoen gaineko zergari dagokion zerga-tasa autonomikoa estatu-tasa berezian sartzen da, erregaien arloko merkatuaren batasuna bermatze aldera. Hala eta guztiz ere, neurri hori ez da izango autonomia-erkidegoen baliabideen kaltetan, eta betiere Europar Batasuneko araudien esparruan egin beharko da.

Gainera, hidrokarburoen gaineko zergan eta ikatzaren gaineko zerga berezian zenbait zerga-onura aplikatzen direnean, bete egin beharko dira erregelamenduz ezarri ahal diren baldintzak. Horrela ziurtatuko da zerga-onura horiek behar bezala aplikatu izana, eta, hori ziurtatuko bada, ezinbestean egiaztatu beharko da kontsumoa baimendutako erabilera batean egin izana.

Bestalde, biogasaren fabrikazioan eta inportazioan aplikatzeko salbuespena ezartzen da, baldin eta biogasa elektrizitate-energia sortzen edo elektrizitatea eta beroa batera sortzen jarduten duten azpiegituretan erabiltzen bada, edo sortu diren azpiegituretan kontsumitzeko erabiltzen bada. Horren bitartez, ingurumen-helburuak betetzen lagunduko da.

Elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren gainean zenbait neurri hartu dira; besteak beste, nabarmentzekoa da lurreko sarearen elektrizitatea erabiltzeko pizgarri berria. Horren helburua portu-hirietan garraioen ondorioz sortzen den kutsadura atmosferikoa murriztea

da, baina, Europar Batasunaren ordenamenduaren mesedeetan, beharrezkoa da Europako Kontseiluaren baimena jasotzea, hura indarrean jarri arte.

Halaber, doiketa teknikoak ere egin dira: batetik, zergaren araudia aurreko aldaketaren arabera moldatzeko; eta, bestetik, gutxieneko zerga-tasen aplikazioa argitzeko eta, elektrizitate-zerga indargabetuaren testuarekin bat, araubide berezien araberrako azpiegituren titularrei lehen aplikatzen zitzaizen salbuespena titular horiei aplikatzen jarraitzeko.

Berotegi-gas fluoratuen gaineko zergaren arloan, zerga-tasak murriztu dira, eta balioak erakusten ditu 2020-2030 aldirako ezarri diren CO₂ isurtzeari buruzko azken prezio-aurreikuspenak.

Era berean, zergaren xedea diren gasen berotze atmosferikoaren potentzialak eguneratu dira, eta erreferentziatzat hartu da Europar Batasuneko araudian jasotako azken eguneraketa.

Azkenik, gasen erregenerazioa eta birziklatzea sustatze aldera, gas horiei aplikatu behar zaien zerga-tasa murriztu da.

Tokiko tributuen arloan, jarduera ekonomikoaren gaineko zergan aldaketa batzuk egin dira.

Lehenik eta behin, edukia eta sailkatzen dituzten produktuen fabrikazioaren gaur egungo egoera bateratzeko aldaketak egin dira, besteak beste, segurtasun juridikoa areagotzeko. Bigarrenik, Sociedad Estatal de Correos y Telégrafos SAREN aldeko kuotaren ehuneko 50eko murrizketa kendu da, ez baita bateragarria posta-zerbitzuen sektoreko gaur egungo liberalizazio-egoerarekin, ezta Europar Batasuneko araudiarekin ere. Azkenik, aginduaren 4. arauan onartzen diren ahalmenen artean, hauxe ezarri da: eskudirua ateratzea eta eskuratutako ondasunak edo zerbitzuak ordaintzea ahalbidetzen dituen zerbitzu konbinatua («*cashback*» zerbitzua), baldin eta finantza-erakundeek beren jarduera tarifen lehen ataleko 811. eta 812. taldeetan sailkatuta badute.

Tasei dagokienez, oro har, eguneratzen dira Estatuko Ogasuneko zenbateko finkoko tasak, 2017ko urtarrilaren 1etik emandako arauen bidez berariaz sortutako edo eguneratutako tasak izan ezik.

Trafikoko Buruzagitza Nagusiak eska ditzakeen tasak euroaren 10 zentimoren goiko multiplo hurbilenaren arabera doituko dira, doitu beharreko kopurua euroaren 10 zentimoren multiploa denean salbu.

Jokoaren gaineko tasen zenbatekoak ehuneko 50 txikiagotu dira. Tasa horiek otsailaren 25eko 16/1977 Errege Lege Dekretuan, hau da, apustu bidezko jokoen zehapen-, administrazio- eta zerga-alderdiak arautzen dituen dekretuan jasota daude. Horren bitartez, Ceuta eta Melilla hiri autonomoetara eramane nahi dira beste zerga batzuetan haietarako ezarrita dauden zerga-onurak.

Ez da aldatzen katastro-erregularizazioaren tasaren zenbatekoa.

Oro har, mantendu egiten da jabari publiko irrati-elektrikoa erreserbatzeagatiko tasaren zenbatekoa zehazteko behar diren parametroen kuantifikazioa.

Halaber, portu-tasen oinarritzko zenbatekoak mantentzen dira, 2018rako. Interes orokorreko portuetan itsasontzien, bidaiarien eta salgaien okupazio-tasei aplikatu beharreko hobariak eta koefiziente zuzentzaileak ezartzen dira; hori guztia, Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testu bateginean (irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) ezarritakoarekin bat.

VIII

VII. titulua bi kapitulutan egituratuta dago; bata toki-erakundeei buruzkoa da; eta beste, autonomia-erkidegoei buruzkoa.

I. kapituluan, toki-erakundearen finantzaketari buruzko arauak daude; hots, udalak, probintziak, uharteetako kabildo nahiz kontseiluak eta probintzia bakarreko autonomia-erkidegoak finantzatzeari buruzkoak.

Oinarri-oinarrian, toki-erakundeek Estatuaren tributuetan duten partaidetzaren artikulazioa dago, hala zenbatekoa zehaztean, nola tributu horiek ordainaraztean. Tresna gisa nabarmendu behar dira: zerga jakin batzuen bilketan (PFEZa, BEZa eta alkoholaren

eta edari alkoholduen, hidrokarburoen eta tabako-laboreen gaineko zerga bereziak) lagapen bidez parte hartzea; Finantzaketarako Funts Osagarriaren bidez, ekonomia-jardueren gaineko zergaren bilketako galerak toki-erakundeei konpentsatzeko sisteman parte hartzea; eta Osasun Laguntzarako Ekarpén Funtsean parte hartzea, diputazioen, probintzialak ez diren autonomia-erkidego uhartetarren, eta uharteko kontseilu eta kabildoen osasun-zentro ez-psikiatrikoak mantentzeko.

Partaidetza-araubide berezien arauketa jasotzen da, bai Ceutakoa eta Melillakoa, bai Kanarietako toki-erakundeetako, bai Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako eta Nafarroako toki-erakundeei dagokiena.

Dena den, arauketa hori beste transferentzia batzuekin osatzen da: hiri-garraio kolektiboen zerbitzuetarako dirulaguntzak, eta tokiko zergetan pertsona fisiko edo juridikoei emandako zerga-onuren konpentsazioa udalentsat, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onesten duenak, 9. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

II. kapituluak arautzen ditu araubide erkideko autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa buruzko alderdi jakin batzuk.

2018ko indarreko finantzaketa-sistema 2009ko uztailaren 15eko bileran onetsi zuen Zerga eta Finantza Politikako Kontseiluak, eta bi modutara sartu zen ordenamendu juridikoan: Autonomia Erkidegoak Finantzatzeko Lege Organikoa aldatuz, eta abenduaren 18ko 22/2009 Legea onartuz, araubide erkideko autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa-sistema arautzen duena eta zerga-arau batzuk aldatzen dituena.

Sistemak autonomia-erkidego bakoitzaren finantzaketa-premia globalak estaltzeko esleitzen dituen finantza-baliabideak hauexek dira: Nahikotasun Globalaren Funtsa, Oinarrizko Zerbitzu Publikoak Bermatzeko Funtsearen Transferentzia eta tributu-ahalmena. Estatuaren Gastu Aurrekontuak Nahikotasun Globalaren Funtsa eta Estatuak Berme Funtsera egindako ekarpén jasotzen ditu. Hala ere, Estatuak guztiz edo partzialki lagatako zergen bilketa ez da Estatuaren Aurrekontu Orokorretan ageri, haien izaera dela-eta.

Gainera, autonomia-erkidegoen arteko konbergentzia eta per cápita errenta txikiagoa dutenen garapena sustatzeko, 22/2009 Legeak konbergentzia autonomikorako bi funts arautzen ditu, Estatuaren baliabide gehigarriez hornituak daudenak: Lehiakortasun Funtsa eta Lankidetzaren Funtsa.

Bestalde, 2018an gauzatuko da 2016ko ekitaldiari dagokion finantzaketa-sistemaren likidazioa, eta aipatutako kapituluak arautzen dira hura kuantifikatzeko behar diren alderdiak.

Kapitulu horretan bertan arautzen dira, halaber, autonomia-erkidegoek 2018an bere gain hartutako zerbitzuen benetako kostuari dagokion transferentzia-araubidea eta transferentzia berriak onesteko errege-dekretuen gutxieneko edukia.

Amaitzeko, lurraldearteko konpentsazio-funtsekin araudia jasotzen da; funts horien artean, Konpentsazio Funtsa eta Funts Osagarria bereizten dira. Bi funtsen helburua autonomia-erkidegoek egindako inbertsio-gastuak finantzatzea da. Hala ere, Funts Osagarria Estatuaren Aurrekontu Orokorren 33. atalaren kontura egindako inbertsioak abian jartzeko gastuak finantzatzeko erabil daiteke.

IX

Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak, VIII. tituluan, «Gizarte-kotizazioak» izenburupean, Gizarte Segurantzako araubide desberdinetan kotizatzeko oinarriak eta tasak jasotzen ditu, eta eguneratu ere egiten ditu.

Tituluak bi artikulatu ditu: bata «Gizarte Segurantzari, langabeziari, jarduera uzteagatik babesari, Soldadak Bermatzeko Funtseari eta Lanbide Heziketari egindako kotizazio-oinarriak eta -tasak, 2018an»; eta bestea, «Funtzionarioen eskubide pasiboetarako eta mutualitate orokorretarako kotizazioa 2018rako».

X

Aurrekontuei buruzko Legeak zenbait xedapen ere baditu (gehigarriak, iragankorrak, indargabetzaileak eta amaierakoak), eta xedapen horietan askotariko manuak daude jasota. Nolanahi ere, arloen eta dagozkien Legearen tituluei egindako erreferentzien arabera taldekatu dira, sistematizazio hobea lortzeko. Segidan, nabarmentzekoak diren legearen xedapen batzuk aipatuko ditugu.

Hala, aurrekontu-kudeaketarekin lotutako arau osagarri modura, Estatuako sektore publikoak hitzarmenak aipatutako moduan sina ditzan aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren edo gastuaren araua bete ez duten autonomia-erkidegoekin, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren txostena beharko da oraindik ere —aldekoa, nahitaezkoa eta loteslea izango da txostena— hitzarmen horien bidez Estatuaren baliabideen transferentzia egiten denean edota gastua egiteko konpromisoa sortzen denean edo bi inguruabarrak batera gertatzen direnean.

Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura finantzatutako maileguei eta aurrerakinei dagokienez, aurrekontu-kudeaketaren arloko xedapen batzuk ere badira, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak bete daitezten. Hori horrela, kontuan hartzen da aurrekontu luzatuaren gastu-eragiketak 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei egozte.

Gobernuak, Gizarte Segurantzaren Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiaren txostena aurrez jasota, adierazitako urteko muga handienera arteko mailegu bat emango dio Gizarte Segurantzaren Altxorrari, Gizarte Segurantzaren betebeharrak behar bezala betetzeko eta Gizarte Segurantzaren aurrekontuen oreka bermatzeko. Maileguaren deuseztapena gehienez ere hamar urteko epean gertatuko da, 2019tik aurrera zenbatzen hasita.

2014-2020 aldirako, Eskualde Garapeneko Europako Funtsa (EGEF) behar bezala xurgatzea aurreikusita dago.

Herri Administrazioaren Institutu Nazionalari baimena ematen zaio diruzaintzako geldikinarren zati lotutik lotuta ez dagoen zatira 2017ko ekitaldiaren amaieran erabili ez diren zenbatekoak intsuldatzeko, 302.410,00 euroko gehieneko muga ezarrita, finkatutako terminoetan.

Halaber, luzatu egiten da Gizarte Segurantzari emandako maileguak deuseztatzeko epea. Arautu egiten da, halaber, autonomia-erkidegoek eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalak lankidetzeta-hitzarmen egokiaren bitartez aldi baterako ezintasuna kontrolatzeko eta jarraipena egiteko egin beharreko jarduketan finantzaketa. Administrazio publikoen edo irabazi asmorik gabeko erakundeen titulartasunaren mende dauden osasun-erakundeen Gizarte Segurantzarekiko zorren ordainketa arautzen da. Erakunde horiek Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorri eskatu ahalko diote eskainitako gabetasuna luza dakiela ezarritako baldintzetan. Gainera, Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroaren aurrekontua betearazteko arauak jasotzen dira, baita ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-politikaren kredituen kontura izango diren mailegu nahiz aurrerakinak ere; izan ere, halakoek ez dute baimenik beharko interes-tasa urtebeterako Euriborraren berdina edo handiagoa denean.

Aktiboak Berreskuratu eta Kudeatzeko Bulegoak lortutako baliabideen xedeekiko lotura-ehunekoa ezartzen da; zehazki, ehuneko 50ekoa izango da.

Halaber, aurreikusita dago irakasleen prestakuntza, hobekuntza eta mugikortasuna sustatzeko prestakuntzako beken eta dirulaguntzen ondorioz, aurrekontu-ekitaldian osatuko diren diru-sarrerek eta ikasten laguntzeko beka eta dirulaguntza pertsonalizatuen ondoriozkoek kreditua sortuko dutela.

Film luzeak amortizatzen laguntzeko azken deialdiko ordainketen araubidea ezartzen da. Bestalde, energiaren aldetik eraginkorra eta jasangarria den mugikortasuna sustatzeko, baimena ematen zaio Gobernuari, dirulaguntzen sistema bat ezar dezan.

Ohikoa denez, alderdi politikoen funtzionamendu- eta segurtasun-gastuetarako Estatuaren urteko dirulaguntza ere ezartzen da 2018rako, Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoan xedatutakoa betez.

Langile-gastuen esparruari dagokionez, legearen xedapen gehigarrietan, gehieneko muga ezartzen da karrera judizial eta fiskalean sartzeko Enplegu Publikoaren Eskaintzari dagokionez, eta, era berean, ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31ko tropako militar eta marinel profesionalen gehieneko plantillak ere ezartzen dira.

Gainera, 2018an Enaire enpresa-entitate publikoari ezohiko eskaintza egitea aurreikusitako da. Enpresari dagozkion lanpostuak baino 70 lanpostu gehiago izango dira, legearekin bat etorrita. Halaber, Burdinbide Azpiegituren Kudeatzaileari ere egingo zaio, eta, zehazki, lege honen arabera dagozkion lanpostuak baino 183 lanpostu gehiago eskainiko zaizkio. Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen eskalako ezohiko eskaintza ere ezartzen da.

Sociedad Estatal Servicios y Estudios para la Navegación Aérea y la Seguridad Aeronáutica (SENASA) estatu-sozietateak, 2018an eta salbuespen moduan, 109 lan-kontratu mugagabe egin ahal izango ditu, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak aurrez baimenduta. Era berean, Sociedad Mercantil Estatal Instituto Nacional de Ciberseguridad de España SAMP sozietateak, salbuespen moduan, hirurogeita hamar lan-kontratu mugagabe egin ahal izango ditu, hiru urteko epean, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak aurrez baimenduta.

Ezartzen da ezen Estatu Administrazio Orokorraren mendeko organismoen osasun-zentro eta -zerbitzuetako estatutupeko langileen plantillen aldaketak onetsi beharko direla, aurrez Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren aldeko txostena —Aurrekontu eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren bitartez— dutela.

Jasotako mugekin eta baldintzekin, arautzen da merkataritza-sozietate publikoek, Aurrekontuei buruzko Legearen Bat apartatuko 18. artikuluan aipatzen diren enpresa-entitate publikoek eta sektore publikoko fundazioek eta partzuergoek aukera izan dezatela langile berriak kontratatu ahal izateko. Ezarri egiten da zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten edo lehentasunezko zatitza adierazitako sektoreetan sartutako jarduerak egiten dituzten sozietateek kasuan kasuko lehentasunezko sektoreari dagokion berrezarpen-tasa bera izan dezatela.

Estatuko sektore publikoaren esparruan dauden zuzendaritzako langileen lanpostuen kopurua ezin handituko da aurreko urtekoarekiko, baina ezartzen da azkeneko hiru ekitaldietako bitan irabaziak izan dituzten Estatu merkataritza-sozietateek eta enpresa-entitate publikoek, zabalpen prozesuan daudenean, eta azkeneko hiru ekitaldietako bitan aurrekontu-emaitza positiboa izan duten Estatu sektore publikoko fundazioek zuzendaritzako langileen kopurua handitzea, aurrez Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak baimena emanda, Aurrekontu eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren bitartez.

Gainera, eguneratu egiten dira Gizarte Segurantzarekin elkarlanean jarduten duten mutualitateetako nahiz horien zentro mankomunatuak zuzendari-karguen eta gainerako langileen ordainsariak, bai eta bake-epaitegietako bake-epaile eta idazkarien jardueragatik konpentsazio ekonomikorako moduluak ere.

Berritasun gisa, toki-korporazioetako kideen ordainsarien araubidearen arloan sartzeko da toki-korporazioetako kideek ordainsari-kontzeptu guztiengatik eta bertaratzeengatik jaso dezaketenen diru-kopuruaren guztirako gehieneko muga, alde batera utzita kasuan-kasuan zerbitzu berezietako egoeran dauden karrerako funtzionarioek, eskubidea dutelako, jasotzeko dituzten hirurtekoak.

Halaber, ekitaldi honetan ere etenda egongo da Zerbitzuen Ondoriozko Kalte-ordainei buruzko maiatzaren 24ko 462/2002 Errege Dekretuaren 26.3 artikuluan xedatutakoa, atzerrian destinatutako langileei dagokionez.

Azkenik, arlo horri dagokionez, hainbat arau ezartzen dira, langile-gastuen kudeaketa hobeto kontrolatzeko asmoz, estatu-agentzietako errendimendu-pizgarriekin lotuta.

Azaldutako terminoetan, militarrei aukera ematen zaie beren administrazio-egoera aldatzeko eta Administrazio Zibilean zerbitzuak egiten dituztenen egoera baliatzeko (egoera hori Karrera Militarraren Legearen 113. bis artikuluan araututa dago).

Aurrekontu Egonkortasuna Bermatzeko eta Lehiakortasuna Bultzatzeko Neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretua betetzearen ondorioz, aparteko ordainsaria eta berariazko osagarriaren ordainsari gehigarria edo ordainsari gehigarri

baliokideak, 2012ko abenduari dagozkionak, kentzeagatik egiazki jaso ez diren zenbatekoak osorik ordaindu ez dituzten administrazioei eta sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateei gaikuntza ematen zaie, xedapen honetan zehaztutako irismenarekin eta mugekin, itzulketa hori onets dezaten, beren egoera ekonomiko-finantzarioa kontuan hartuta.

Estatuko oinarrizko arauetan ezarrita ez zeuden zenbatekoen arabera txikiagotutako ordainsariak berrezartzen dira, eta administrazio publikoetan eta haien mendeko erakundeetan lan-kontratazioa erantzukizunez erabiltzeko eskaerari eusten zaio.

Azkenik, arlo horri dagokionez, itxierarako arau gisa, hauxe xedatzen da: ministerio-sailek ekitaldian zehar proposatzen duten jarduerak ez handitzea Administrazioaren zerbitzurako langileen gastu garbia, ezarritako terminoetan.

Pentsio publikoei eta laguntza-prestazioei dagokienez, honako prestazio hauen zenbatekoak ezarri dira: Gizarte Segurantzako familia-prestazioenak, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginean jasotako sorospen ekonomikoenak eta laguntza-pentsioenak. Horrez gain, eguneratu egin ditu Gerra Zibilean atzerrira joandako espainiarrei martxoaren 18ko 3/2005 Legearen babesean aintzatetsitako prestazio ekonomikoak. Horrez gain, Indar Armatuen Araubide Berezian baliaezintasun handiari dagozkion pentsioak handitzeko arauak ere badira legean, eta giza immunoeskasiaren birusak (GIB) kutsatuta daudenenetzako gizarte-laguntzen zenbatekoa finkatzen da, 2018rako.

Gizarte Segurantzako Sistema Eguneratzeari, Egokitzeari eta Modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen hogeita zortzigarren xedapen gehigarriaren aplikazioa geroratzeari eusten zaio.

Ekonomiari lotutako arauak, lehenik eta behin, diruaren lege-interesari, berandutze-interesari eta dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 38.2 artikuluan aipatutako berandutze-interesari buruzkoak dira (38/2003 Legea, azaroaren 17koa).

Estatuaren Bermeari buruzko manuak jasotzen dira aldi baterako lagatutako kultura-intereseko obrei dagokienez, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eskumen eskusiboko erakundeetan eta hari atxikitako organismoetan erakusgai jartzearren.

Estatuak Espainiako ekonomia nazioartekotzearen arriskuak estaltzeari dagokionez, hauxe xedatzen da: lege honen indarraldian, CESCEk kontratazio berrirako aseguru eta banatu ahal izango duen estaldura gehienez ere 9.000.000,00 mila eurokoa izango dela, Epe Laburreko Poliza Irekiak alde batera utzita, dokumentu-kredituak salbu. Ezarri egiten da atzerrian inbertsio espainiarra sustatzeko espainiar interesa duten funtsak zuzkitzea.

Baimena ematen zaio Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuari (IDAE) 2018ko ekitaldian 50.000,00 mila euro bitarteko abalak eman ditzan, Energia Efizientziaren Funts Nazionalaren (FNEE) kargura, Kreditu Ofizialeko Institutuaren (ICO) funtsekin emandako maileguren arriskuaren % 50 estaltzeko. Turismo Estatu Idazkaritzari baimena ematen zaio 2018an 15.000,00 mila euro arteko abalak mailegatzeko, Turismo Azpiegiturak modernizatzeako Estatuaren Finantza Funtsean zorduntzeko, eta, zehazki, Kreditu Ofizialeko Institutuaren funtsetan zorduntzeko ostalaritza-sektoreko enpresei eman zaizkien maileguren arriskuaren % 50 estaltzeko.

Aduana-zergarik gabeko eremuko partzuergo guztien baliabideak berriro banatze aldera, Aduana-zergarik gabeko Partzuergoak konpentsatzeko Funtsa osatu da.

Bestetik, legearen xedapen gehigarrietan bere isla egokia dauka ikerketa zientifikorako eta garapen teknologikorako laguntzak. Hartara, oinarri teknologikoa duten enpresen enpresa-proiektuak laguntzeko linearen gehieneko zenbatekoa ezartzen da —linea hori Familien aurrezpena eta enpresa txiki eta ertainak suspertzeko presako zerga-neurriak onesten dituen abenduaren 13ko 6/2000 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren 2. zenbakian sortu zen—; zehazki, 20.500,00 mila eurokoa izango da. 2005erako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 2/2004 Legearen hogeita bosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitako finantzaketa-lerroari 57.500,00 mila euroko zuzkidura eginez arautzen da enpresa txiki eta ertainentzako finantza-babesa. Ekintzaile gazteentzako laguntza ere arautzen da; hala, 2011rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren

22ko 39/2010 Legearen hogeita hirugarren xedapen gehigarrian sortutako finantzaketalarroari 20.500,00 mila euroko ekarpena egiten zaio.

Ezari egiten da Autonomia eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren Azpiegiturak eta Zerbitzuak Sustatzeko eta Garatzeko Laguntza Funtza zuzkitzea.

ADIF-Alta Velocidad erakunde publikoak Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren baimena beharko du zorpetzeko eragiketak egin ahal izateko, zorpetzeko modua edozein izanda ere. Honako helburu hauek lortu nahi dira: batetik, Kontu Nazionalen Europako Sistemaren araudi arautzailearen arabera izatea; eta, bestetik, aurrekontuen egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren arloko helburuak eta konpromisoak betetzea.

Zergei dagokienez, lehentasuna duten mezenasgo-jarduerak zehazten dira, eta ezohiko interes publikokotzat jotzen diren hainbat gertakariri aplikatu beharreko zerga-onurak arautzen dira. Gainera, Europar Batasuneko aduanen araudia betetzeko eta Espainiako aduana-zergarik gabeko zenbait eremu eguneratzeko eta martxan jartzeko, bidezkoa da eremu horiei baliabideak ematea, behar beste finantza-nahikotasuna izan dezaten, eta, bereziki, sozietateen gaineko zerga biltzeko. Zerga hori ordaintzen dute aduana-zergarik gabeko eremuetan ezarrita dauden subjektu pasiboek, kontura egindako atxikipenak eta diru-sarrerak alde batera utzita.

Nortasun-agiri nazionala eta pasaporteak igortzeko tasen bilketa Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionala-Monetaren Errege Etxeak egindako jardueren finantzaketari lotzeko ehunekoak ezartzen dira, Barne Ministerioaren zentroek dokumentu horiek igortzeko egiten dituzten kudeaketa-enkarguak bete ahal izateko.

Ezari egiten da Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalera egiteko transferentzia: helburua 6.1.b) (Ordainlekua) kentzearen ondorioz elektrizitate-sisteman murriztu diren diru-sarrerak konpentsatzea da.

Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen manu jakin batzuen aplikazioaren etendurari eusten zaio. Bestalde, 2018ko ekitaldian, ondorioz gabe gelditzen da Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzko eta Atzerritar horiek Gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren 2 ter 4 artikuluan xedatutakoa.

Gizarte-interesa duten interes orokorreko jardueri zenbatekoak esleitzeari buruzko xedapenak biltzen dira. Baimendu egiten dira Kataluniako Gobernuari eskualdatutako aldirietako eta eskualdeko zerbitzuengatik konturako ordainketak.

Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko Ministerioaren eta ikatz-meatzaritzaren itxiturak ukitutako autonomia-erkidegoen artean esparru-hitzarmenak sustatzea ezartzen da, meatzte-eskualdeen garapen ekonomikoa bermatze aldera.

Lurraldeko erakundeei dagokienez, ezari egiten dira zergen bidez lortutako Estatuaren diru-sarreraren bilakaera-indizea kalkulatzeko irizpideak (lege honetako VII. tituluaren I. kapituluan aipatzen da indize hori). Horrez gain, Estatuaren 2016ko zergetan tokiko erakundeek izan duten partaidetza likidatzeko, Estatuaren diru-sarreraren bilakaera-indizea kalkulatzeko irizpideak ere ezartzen dira.

Araupetu egiten dira, era berean, Madrilgo, Bartzelonako eta Kanarietako bidaiarien garraio publiko erregularra finantzatzeko dirulaguntza izendunak. Bestetik, xedapen gehigarri bat mantentzen da ekitaldi honetan, irizpideak ezartzen dituen autonomia-erkidegoak eta autonomia-estatutua duten hiriak finantzatzeko araubideetako baliabideen kenkariak edo atxikipenak indarrean dagoen araudiaren arabera egiteko. Ondasun higiezinaren gaineko zergaren hobaria Lorca udalerrirako (Murtzia) ezartzen da.

EAEko kupoak konpentsatzeko ordainketen ezarpen operatiboa arautzen da, eta zenbateko gordinetan egingo da.

Askotariko ondorioak dituen adierazle publikoa (IPREM) 2018rako zehazten da. Xedapen gehigarri batean arautzen da Gazte Bermea Sistema Nazionalan inskribaturik dauden gazteei laguntzeko dirulaguntza, baldin eta gazteek prestakuntzako eta ikasketak egiteko kontratu bat sinatzen badute. Halaber, prestakuntzako eta ikasketarako kontratuak

kontratu mugagabe bihurtzeko hobaria ere ezartzen da, kontratuok gazteei laguntzeko dirulaguntzaren onuradun gazteekin sinatuta baldin badaude.

Bestalde, enpresa-kotizazioan ehuneko 50eko hobaria izateko aukerari eusten zaio, haurdunaldian edo edoskialdi naturalean arriskua izateagatik lanpostua aldatzen den kasuetan, edota gaixotasun profesionala izaten denean.

Azkenik, turismo-sektorearen eta turismo-jarduerari lotutako sektoreen zabalpena kontratazioa indartzeko neurrien bidez sustatu behar denez, aldizkako kontratu finkoak dauzkaten langileen jarduera-aldia luzatzen laguntzeko neurriak ezartzen dira, turismo-sektorean eta turismo-jarduerari lotutako merkataritza- eta ostalaritza-sektoreetan.

Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoari dagokionez, Enpleguari buruzko Legearen testu bateginaren (urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) 18. artikulua h) letran aurreikusitako zerbitzuak eta programak kudeatzeari buruzko arauak jasotzen dira.

Beste alde batetik, lanbide-heziketaren kuotatik eratorritako funtsak langabeentzako lanbide-heziketa finantzatzera bideratuko direla aurreikusten du, enpresek, langileek eta langabeek beren premiei erantzungo dien prestakuntza jaso dezaten, eta ezagutzan oinarritutako ekonomia gara dadin.

Bestalde, Elizaren ondasun higigarrien inbentarioari dagokionez, ekainaren 25eko 16/1985 Legean ezarritako epearen urtebeteko luzapena 2018an aplikagarritzat jotzen da; luzapen hori 2016rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legearen laurogeita hamargarren xedapen gehigarrian ezartzen da.

Sektore elektrikoa 2018ko ekitaldian finantzatzeko ekarpenak arautzen dira.

Landa-azpiegiturak egiteko obrak interes orokortzat jo dira. Zehazki, honako hauek: bide naturalen izendapena duten bideak egitekoak, ureztapen-xedeak betetzeko azpiegitura hidraulikoko zenbait lan egitekoak eta adierazitako hornidura-lanei lotuta daudenak.

Garagardogintza Sareari lotutako Hornidura Teknikoen Funtsaren zuzkidura ere ezartzen da.

Espainiako Gazteen Kontseilu Gorena deituriko erakunde autonomoa iraungitzat jotzen da, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Larrialdietarako izapide-araubidearen bitartez, kontratazio-organoak Ordezko Kontu-hartzaitzari jarduketan hasiera jakinarazi behar berria ezartzen da. Kontu-hartzaitza hori izango da jarduketa gauzatzeko egin behar den gastua onartu behar duen agintaritzari dagokion eskumen organikoa edo lurralde-eskumena duena.

Halaber, honako erabaki hau ere berria da: Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren Langileen Kostu eta Pentsio Publikoetako Zuzendaritza Nagusiak edo Defentsa Ministerioaren Langileen Zuzendaritza Nagusiak, bakoitzak bere eskumenen arloan, ziurtagiri bat igorri beharko dute, sektore publikoan bidegabeko koadraketak egiteagatik ondare-erantzukizuneko prozeduretan sortzen den kaltea zehazteko.

Ezartzen da aukera egon dadila sistema elektrikoarekin lotutako energia berriztagarrien iturriekin sortzen den energia elektrikoa ekoizteko instalazioetan inbertsioak egiteko laguntzak emateko prozeduretarako deia egiteko, lege hau indarrean jarri arte sortu den superabit elektrikoaren kargura, EGEF funtsekin batera finantzatu daitezkeen proiektuetan, sistema elektrikoaren kargura izango den 60 milioi euroko gehieneko zenbatekoarekin.

Aparteko izaeraz, 2018rako aurreikusten da sistema elektrikoaren diru-sarreraren superabitak erabili ahal daitezela sektore elektrikoaren arauditik etorri diren eta Estatuaren Aurrekontu Orokorren kargura edo sistema elektrikoaren kargura ordaindu beharrekoak diren epaiak betearazteko kalte-ordainak ordaintzeko. Gainera, kontuan hartu dira honako bi aukera hauek: sistema elektrikoaren bidezko diru-sarreraren superabitak sistemaren zorra amortizatzeko erabili ahal izatea, edo, bestela, sistema elektrikoaren aldizkako diru-sarrera integraltzat hartzea, aipatutako zorra amortizatzeko balio parekideak izanik.

Gizarte Txartel Unibertsala informazio-sistema gisa sortu da, administrazio publikoek bultzatutako gizarte-babeserako politikak hobetzeko eta koordinatzeko. Azkenik, nabarmentzekoa da sektore publikoko lanaldia jorratzen duen xedapena.

Horrekin batera, legean xedapen gehigarri bat bildu da, pentsioen igoera osagarriari buruzkoa. 2018. eta 2019. urteetan pentsio publikoetan aplikatzeko salbuespenezko gehikuntza bat ezartzen da xedapen gehigarri horretan. Halaber, kontuan hartu behar da Toledoko Itunaren Erabakien Jarraipena eta Ebaluazioa egiteko Batzordeak arduratu behar duela Gizarte Segurantzaren sistemaren egoera aztertzeaz eta behar bezalako gomendioak egiteaz, sistemaren finantza-jasangarritasuna epe ertainera eta epe luzera bermatzeko.

Pentsioen igoerak gauzatu ahal izan dira: batetik, ekonomiaren hazkunde-egoerarengatik; eta, bestetik, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko helburuak betetzeagatik. Toledoko Itunaren Erabakien Jarraipena eta Ebaluazioa egiteko Batzordeak Gizarte Segurantzaren sistemaren defizita ezabatzea bermatzeko akordioak hartu arte, 2018. eta, hala dagokionean, 2019. urteetarako araubide iragankorra ezartzen da, pentsioak igotzeko.

Zenbait xedapen iragankor ezartzen dira, besteak beste, honako gai hauek jorratzeko: batetik, Estatuko sektore publikoaren zerbitzurako langileei egoitzaren zioz emateko kalte-ordaina, osagarri pertsonal eta iragankorretan gehitzeko; Gizarte Prestazio Publikoen Erregistroa; klase pasiboan arloko erreklamazio ekonomiko-administratiboak; Toki Ogasunak arautzen dituen testu bategina, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua, aldatzea; telekomunikazio-operadoreen tasa orokorra; eta administrazio publikoen eta haien mendeko erakunde eta entitate publikoen zerbitzurako langileen aldi baterako ezintasun-egoeran emateko prestazio ekonomikoa.

Gainera, matrikula turistikoaren araubideak zenbait zerga-onura arautu ditu, zeinek gaur egun ez baitute inolako lege-babesik izaten balio erantsiaren gaineko zergan, ezta aduanen araudian ere. Kontrolatzeko zaila da, araubide horren titularrak egoiliarrek ez direlako, eta, hartara, ez du betetzen bere sorrera bultzatu zuen helburua, hots, ibilgailu nazionalen salmenta bultzatzea. Izan ere, araubide hori gaur egun baliatzen duten ibilgailuen eta ontzien kopurua oso txikia da, eta araubidearen onuradun gehienak Espainian egin ez diren garraiobideen titularrak dira.

Azaldu berri diren arazoak direla eta, araubide hori indargabetuko da; hala ere, beharrezkotzat jo da aldi iragankor bat ezartzea, lege hau indarrean jartzean matrikula turistikoaren babespean egongo ziren ibilgailuei eta ontziei aplikatzeko.

Xedapen indargabetzaileei dagokienez, honako hauek indargabetzen dira: maiatzaren 21eko 7/1993 Errege Lege-dekretuaren bigarren xedapen gehigarria (dekretuok balio erantsiaren gaineko zerga, garraiobide jakin batzuen gaineko zerga berezia, Kanarietako zeharkako zerga, Kanariar Uharteetako ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko ariela eta salgaien sarreraren gaineko ariel irlatarraren tarifa berezia egokitzeko eta aldatzeko premiazko neurriak ezartzen ditu); irailaren 10eko 1571/1993 Errege Dekretua, Matrikula turistikoari buruzko araudia barne-merkatuaren harmonizazio fiskalaren ondorioei egokitzekoa; Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 72. artikulua (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen testu bategina); Tributuei buruzko Legearen hamaikagarren xedapen xedapenaren 1.c) letra (abenduarien 17ko 58/2003 Legea); eta 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legearen hirurogeita hamaikagarren xedapen gehigarria (ekainaren 29ko 2/2012 Legea).

Legeak, bukaera aldean, azken xedapen batzuk ditu, lege jakin batzuetan egindako aldaketen berri emateko. Legeak, zehatz mehatz, honako hauek aldatzen ditu: urtarrilaren 8ko 4/1986 Legea, Sindikatu-ondare Metatuaren Ondasunak lagatzeari buruzkoa; Estatuko Klase Pasiboari buruzko Legearen testu bategina, apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuta; uztailaren 10eko 851/1992 Dekretua, ekintza terroristen ondorioz sortutako pentsio jakin batzuk arautzekoa; abenduaren 11ko 35/1995 Legea, Indarkeriazko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntzeko; urtarrilaren 10eko 5/1996 Legea, Zuzenbide Publikoko Erakunde jakin batzuk sortzeari buruzkoa; azaroaren 27ko 52/1997 Legea, Estatuari eta herri-erakundeei laguntza juridikoa emateari buruzkoa; azaroaren 27ko 54/1997 Legea, Sektore Elektrokoari buruzkoa; abenduaren 23ko 1/1999 Legegintzako Errege Dekretua, 1929ko ekainaren 11ko Errege Lege-dekretuaren 9. oinarriaren hirugarren apartatuan ezarritako

baliabidearen araudia egokitzen duena (1929ko ekainaren 11ko Errege Lege-dekretuak portuak, eremuak eta aduana-zergarik gabeko eremuak indarreko zerga-sistemara egokitzen ditu); Justizia Administrazioaren zerbitzurako langileen Gizarte Segurantzaren araubide bereziari buruzko indarreko lege-xedapenen testu bategina, ekainaren 23ko 3/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartuta; Estatuko Funtzionario Zibilen Gizarte Segurantzaren Legearen testu bategina, ekainaren 23ko 4/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartuta; abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa, Unibertsitatei buruzkoa; uztailaren 7ko 21/2003 Legea, Aire-segurtasunari buruzkoa; azaroaren 3ko 33/2003 Legea, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa; azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Dirulaguntzen Lege Orokorra; azaroaren 26ko 47/2003 Legea, Aurrekontuei buruzko Lege Orokorra; Higiezinaren Katastroari buruzko Legearen testu bategina, martxoaren 5eko 1/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartuta; abenduaren 29ko 14/2000 Legea, Arau Fiskal, Administrazio-arau eta Gizarte Arauei buruzkoa; apirilaren 24ko 8/2006 Legea, Tropako Militar eta Marinelena; azaroaren 19ko 39/2007 Legea, Karrera Militarrari buruzkoa; Estatuko Portuei eta Merkataritza Nabigazioari buruzko Legearen testu bategina, irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuta; uztailaren 5eko 17/2011 Legea, Elikagaien Segurtasunaren eta Elikadurarena; ekainaren 29ko 2/2012 Legea, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrena; maiatzaren 9ko 9/2014 Legea, Telekomunikazioei buruzko Lege Orokorra; abenduaren 26ko 36/2014 Legea, 2015erako Estatuko Aurrekontu Orokorrena; Langileen Estatuaren Legearen testu bategina, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartuta; Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatuaren Legearen testu bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartuta; irailaren 29ko 38/2015 Legea, Trenbideen Sektoreari buruzkoa; urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; urriaren 29ko 48/2015 Legea, 2016rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrena; Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrenaren testu bategina, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartuta; ekainaren 27ko 3/2017 Legea, 2017rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrena.

Legea ohikoa den xedapenarekin amaitzen da, zeinaren bidez Gobernuari baimena ematen baitzaio lege honek eskatzen duen erregelamenduzko garapena egiteko.

I. TITULUA

Aurrekontuak onartzea eta aldatzea

I. KAPITULUA

Hasierako kredituak eta haien finantzaketa

1. artikulua. *Estatuaren Aurrekontu Orokorren eremua.*

2018ko ekitaldirako Estatuaren Aurrekontu Orokorretan, honako aurrekontu hauek biltzen dira:

a) Erakunde batzuek aurrekontu mugatzaileak dituzte. Hona hemen erakundeok:

1. Estatu.
2. Erakunde autonomoak.
3. Gizarte Segurantzaren sistema osatzen dutenak.
4. Estatuko sektore publikoko gainerako erakundeak, baldin eta Aurrekontuen 47/2003 Lege Orokorrean —azaroaren 26ko 47/2003 Legean— araututako espezifikazioen eta aldaketen araubidea aplikatu ahal bazaie, edo araudi espezifikoko batek haien aurrekontua mugatzen badie.

b) Erakunde batzuek gutxi gorabeherako aurrekontuak dituzte. Hona hemen erakundeok:

1. Enpresa-entitate publikoak, Estatuaren merkataritza-sozietateak, Estatuako sektore publikoko fundazioak eta Estatuako sektore publikoko gainerako erakundeak, baldin eta Merkataritza Kodean eta Espainiako enpresen Kontabilitate Plan Orokorrean eta hura garatzen duten egokitzapenetan eta xedapenetan ezarritako printzipioak eta arauak aplikatzen badituzte.

2. Partzuergoak, transferitu ez diren unibertsitate publikoak, nortasun juridikorik gabeko funtsak eta Estatuako sektore publiko administratiboan gutxi gorabeherako aurrekontua ezarrita duten zuzenbide publikoko gainerako erakundeak.

2. artikulua. *Lege honen 1. artikulua a) letran adierazitako erakundeen gastuen eta diru-sarreraren egoerak onartzea, hau da, aurrekontu mugatzailea duten erakundeak.*

Bat. Aurreko artikulua a) letran adierazitako erakundeen aurrekontuetako gastuen egoeran integratutako programak gauzatzeko, 368.369.027,86 mila euroko kredituak onesten dira I.tik VIII.era bitarteko kapitulu ekonomikoetan, lege honen I. eranskinean zehaztutako programen arabera banaketari jarraikiz. Programa horiei dagozkien kredituak honako hauek dira, politiken arabera multzokatuta:

	Milaka euro
Justizia.	1.780.744,41
Defentsa.	8.400.561,54
Herritarren segurtasuna eta espetxeak.	8.418.138,71
Kanpo-politika.	1.581.443,50
Pentsioak.	144.834.305,66
Beste prestazio ekonomiko batzuk.	14.388.365,95
Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-sustapena.	2.630.336,56
Enpleguaren sustapena.	5.716.143,35
Langabezia.	17.702.180,62
Etxebizitza eskuratzea eta eraikuntzaren sustapena.	481.242,38
Gizarte Segurantzaren kudeaketa eta administrazioa.	17.296.740,17
Osasuna.	4.253.251,86
Hezkuntza.	2.581.904,73
Kultura.	856.152,14
Nekazaritza, arrantza eta elikadura.	7.500.180,83
Industria eta energia.	5.768.827,92
Merkataritza, turismoa eta ETEak.	896.202,75
Garraiorako dirulaguntzak.	2.148.762,09
Azpiegiturak.	5.656.508,44
Ikerketa, garapena eta berrikuntza.	7.050.074,76
Izaera ekonomikoa duten beste jarduketak batzuk.	639.474,99
Organo konstituzionalak, Gobernu eta beste batzuk.	681.462,60
Izaera orokorreko zerbitzuak.	24.658.607,36
Finantza- eta zerga-administrazioa.	1.389.528,85
Transferentziak beste administrazio publiko batzuetara.	49.510.401,92
Zor publikoa.	31.547.483,77

Bi. Aurreko zenbakian adierazitako erakundeen diru-sarreraren egoeran jasota daude aurrekontu-ekitaldian likidatzekoak diren eskubide ekonomikoen zenbatespenak. Finkatutako zenbatekoen banaketa, mila eurotan adierazita, honako hau da:

Erakundeak	Kapitulu ekonomikoak		
	I.etik VII.a arteko kapituluak Diru-sarrera ez-finantzarioak	VIII. kapitulua Aktibo finantzarioak	Diru-sarrerak, guztira
Estatua	140.710.012,71	1.779.223,76	142.489.236,47
Erakunde autonomoak	35.665.187,72	664.307,09	36.329.494,81
Gizarte Segurantza	116.178.366,43	5.066.813,95	121.245.180,38
Administrazioaren sektore publikoko gainerako entitateak, aurrekontu mugatzailea dutenak	644.692,62	194.606,88	839.299,50
Guztira	293.198.259,48	7.704.951,68	300.903.211,16

Hiru. Artikulu honetako Bat zenbakian adierazitako erakundeen arteko barne-transferentzietarako, 28.752.569,12 mila euroko zenbatekoa osatzen duten kredituak onesten dira, erakundeen arabera honela banatuta:

Milaka euro

Transferentziak, jatorriaren arabera	Transferentziak, helburuaren arabera				
	Estatua	Erakunde autonomoak	Gizarte Segurantza	Administrazioaren sektore publikoko gainerako entitateak, aurrekontu mugatzailea dutenak	Guztira
Estatua	–	2.351.731,84	14.893.811,13	6.639.811,07	23.885.354,04
Erakunde autonomoak	319.370,56	70.659,71	–	1.918,46	391.948,73
Administrazioaren sektore publikoko gainerako entitateak, aurrekontu mugatzailea dutenak	104.502,72	1.183,14			105.685,86
Gizarte Segurantza	172.890,96	16.332,50	4.180.357,03		4.369.580,49
Guztira	596.764,24	2.439.907,19	19.074.168,16	6.641.729,53	28.752.569,12

Lau. Artikulu honetan onetsitako gastu-egoerei dagokienez, azpisektoreen arteko programetan eta transferentzietan jasotako kredituak honela banatzen dira organikoki eta ekonomikoki, milaka eurotan adierazita:

Erakundeak	Kapitulu ekonomikoak		
	I.etik VII.a arteko kapituluak Gastu ez-finantzarioak	VIII. kapitulua Aktibo finantzarioak	Gastuak, guztira
Estatua	157.934.519,22	38.819.694,57	196.754.213,79
Erakunde autonomoak	38.739.251,05	7.698,07	38.746.949,12
Gizarte Segurantza	152.564.538,64	1.584.866,40	154.149.405,04
Administrazioaren sektore publikoko gainerako entitateak, aurrekontu mugatzailea dutenak	7.469.073,02	1.956,01	7.471.029,03
Guztira	356.707.381,93	40.414.215,05	397.121.596,98

Bost. Finantza-pasiboak amortizatzeko, Bat apartatuan adierazitako erakundeen gastu-egoerei buruzko IX. kapitulan 81.416.056,11 mila euroko zenbatekoa osatzen duten

kredituak onesten dira. Haien banaketa, programen arabera, lege honen I. eranskinean zehazten da.

3. artikulua. *Zerga-onurak.*

Estatuko zergetan eragina duten zerga-onurak 34.825.110,00 mila eurokoak direla kalkulatzeko da. Haien antolaketa sistematikoa eranskin gisa jasotzen da, Estatuaren diru-sarreraren egoeran.

4. artikulua. *Lege honen 2. artikuluan onetsitako kredituak finantzatzea.*

Lege honen 2. artikuluko Bat apartatuan onetsitako kredituak, guztira 368.369.027,86 mila eurokoak, honela finantzatuko dira:

a) Ekitaldian likidatu beharreko eskubide ekonomikoekin (dagozkien diru-sarreraren egoeretan zehaztuta daude, eta 300.903.211,16 mila eurokoak izango direla zenbatesten da); eta

b) Lege honen V. tituluaren I. kapituluaren araututako eragiketetatik sortutako zorpetze garbiarekin.

5. artikulua. *Lege honen 1. artikuluan b) letran adierazitako erakundeen aurrekontuak, gutxi gorabeherako aurrekontuarekin.*

Bat. Onetsi egiten dira IX. eranskinean adierazitako Merkataritza Kodean, Espainiako Enpresen Kontabilitate Plan Orokorrean, haien egokitzapenetan eta haiek garatzeko xedapenetan aipatzen diren kontabilitate-printzipio eta -arauak aplikatzen dituzten zuzenbide publikoko erakundeen aurrekontuak, aplikatzekoak diren xedapenetan jasotako kontrol-mekanismoak ezertan eragotzi gabe. Aurrekontu horietan, aipaturiko erakundeen gastuen zenbatespenak eta diru-sarreraren aurreikuspenak daude jasota, bai eta finantza-egoerak ere.

Bi. Onetsi egiten dira Estatuako merkataritza-sozietateen aurrekontuak, gastuen zenbatespenak eta diru-sarreraren aurreikuspenak jasotzen dituztenak, banaka aurkeztuak edo bakoitzari dagokion enpresa-taldearekin finkatuak; azken kasu horretan, aurkezpen finkatuari dagokion sozietate-zerrenda adierazi da. Aurrekoa hala izanik ere, bereiz jasotzen dira dirulaguntzak Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura jasotzen dituzten Estatuako merkataritza-sozietateen aurrekontuak.

Hiru. Onetsi egiten dira Estatuako sektore publikoko fundazioen aurrekontuak; horien gastuen zenbatespenak eta diru-sarreraren aurreikuspenak X. eranskinean daude jasota.

Lau. Onetsi egiten dira XI. eranskinean zerrendatuta ageri diren nortasun juridikorik gabeko funtsen aurrekontuak, aplikatzekoak diren xedapenetan jasotako kontrol-mekanismoak ezertan eragotzi gabe. Aurrekontu horietan, aipaturiko funtsen gastuen zenbatespenak eta diru-sarreraren aurreikuspenak daude jasota, bai eta finantza-egoerak ere.

Bost. Onetsi egiten dira VII. eranskinean zerrendatuta ageri diren partzuergoen eta Estatu-administrazioako sektore publikoko gainerako erakundeen aurrekontuak, aplikatzekoak diren xedapenetan jasotako kontrol-mekanismoei kalterik egin gabe. Aurrekontu horietan, aipaturiko erakundeen gastuen zenbatespenak eta diru-sarreraren aurreikuspenak daude jasota, bai eta finantza-egoerak ere.

6. artikulua. *Espainiako Bankuaren aurrekontua.*

Espainiako Bankuaren Autonomiari buruzko ekainaren 1eko 13/1994 Legearen 4.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, onetsi egiten da Espainiako Bankuaren funtzionamendu-gastuen eta inbertsioen aurrekontua, eta lege honekin bat egiten du.

II. KAPITULUA

Aurrekontu-kredituak aldatzeko eta betearazteko arauak7. artikulua. *Printzipio orokorrak.*

Aurrekontu hauen indarraldian, honako arau hauek bete beharko dira, lege honetan baimendutako aurrekontu-kredituen aldaketak gauzatzeko:

Lehenengoa. Aurrekontu-kredituen aldaketek lege honetan xedatutakoa bete beharko dute, bai eta azaroaren 26ko 47/2003 Legeak, Aurrekontuei buruzko Lege Orokorrak, helburu horretarako xedatutakoa, baldin eta lege honek ez baditu xedapen horiek aldatu.

Bigarrena. Aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren 43. eta 44. artikuluetan ezarritako lotura-mailak edonolakoak izanda ere, aurrekontua aldatzeko akordio orok espresuki adierazi beharko du zer atal, zerbitzu edo organo publikori eragiten dion, eta, hala egokitzuz gero, zer programa, artikulua, kontzeptu eta azpi-kontzeptutan duen eragina.

Hirugarrena. Gastuaren sailkapen ekonomikoaren 40.etik 43.era eta 70.etik 73.era bitarteko artikuluen kargura egiten diren kreditu-transferentziak eta igorpenak 000X aurrekontu programaren bidez («Barne-transferentziak») egin beharko dira.

Laugarrena. «Ikerketa, garapena eta berrikuntza» deituriko 46. zenbakiko politikaren esparruko deialdi publikoen esparruan egin beharreko gastuak, haien hartzaileak erakunde autonomoak edo aurrekontu mugatzaileak Estatuko administrazioaren sektore publikoko beste entitate batzuk direnean, kasuan kasuko deialdien ematea ebatzen den unetik aurrera «000X Barne Transferentziak» programari egotzi beharko zaizkio, exekuzioaren fase guztietan, bai indarreko aurrekontuari dagozkionean, bai ondorengo ekitaldietako aurrekontuetan eragina dutenean ere.

8. artikulua. *Kreditu lotesleak.*

Bat. Aurrekontu hauen indarraldian, Estatuaren, erakunde autonomoen eta Estatuko administrazioaren sektore publikoko gainerako entitateen aurrekontuetako honako kreditu hauek joko dira lotesletzat:

1. Aurreko ekitaldietako betebeharrei erantzuteko kontsignatutako kredituak, gastuen egoeran duten desagregazio ekonomikoaren mailarekin.

2. 162.00 «Langileen prestakuntza eta hobekuntza» eta 162.04 «Gizarte-ekintza» kredituak.

3. 221.09 kreditua, «Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren Lanak».

Bi. Aurrekontu hauen indarraldian, honako kreditu hauek joko dira lotesletzat:

1. 13. ataleko «Justizia Ministerioa» aurrekontuan, azpi-kontzeptuen mailan kreditu hauek lotetsiko dira: 13.02.112A.227.11 kreditua, «Delituaren biktimak artatzeko eta kriminaltasunaren aurkako borrokako programetarako, eta Prozedura Kriminalaren Legearen seigarren xedapen gehigarrian ezarritako gainerako xedeetarako»; eta 13.02.112A.227.12 kreditua, «Aktiboak berreskuratu eta kudeatzeko bulegoaren funtzionamenduaren eta kudeaketaren ondorioz sortzen diren gastu mota guztiak».

2. 16. ataleko «Barne Ministerioa» aurrekontuan, 16.03.132A.221.10 kreditua, «Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalari, NANaren eta pasaportearen tasen eraginez», loteslea izango da azpi-kontzeptuen mailan.

3. 19. ataleko «Enplegua eta Gizarte Segurantza» aurrekontuan, kontzeptu-mailan lotetsiko dira: 19.01.291M.207 kreditua, «Gizarte-babeseko eraikinen errentamendua»; eta 19.01.291M.628 eta 19.01.291M.638 kredituak «Sindikatu-ondare metatua».

4. «Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko Ministerioa» izeneko 20. ataleko aurrekontuan, kapitulu-mailan lotesleak izango dira, hartzailea edo onuraduna identifikatzen duten zuzkidurak salbu, eta gastu-egoeretan kontzeptu gisa duten espezifikazioari kalterik egin gabe, «Kapital-transferentziak» izeneko 7. kapituluan honako zerbitzu eta programa hauetarako kontsignatutako aurrekontu-kredituak: 12. zerbitzua, «Informazioaren

Gizarterako eta Agenda Digitalerako Estatu Idazkaritza», 467G programa, «Informazioaren Gizartearen Ikerketa eta Garapena» eta 467I programa, «Telekomunikazioen berrikuntza teknologikoa».

5. 23. ataleko «Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa» aurrekontuan, kontzeptu-mailan lotesleak izango dira 23.05.452A.615 kreditua, «Ingurumen-jarduketetako inbertsioak eta PIMA ADAPTA. Isurpen-eskubideen enkanteetatik eratorritako diru-sarrerekin finantzaturako jarduketak», eta 23.06.456D.614 kreditua, «PIMA ADAPTA Kostaldeak. Isurpen-eskubideen enkanteetatik eratorritako diru-sarrerekin finantzaturako jarduketak», eta 23.17.415A.641 kreditua, «PIMA ADAPTA Itsas Erreserbak. Isurpen-eskubideen enkanteetatik eratorritako diru-sarrerekin finantzaturako jarduketak».

23.101 organismoaren aurrekontuan («Parke Nazionalak»), kontzeptu-mailan loteslea izango da 23.101.456C.603 kreditua, «PIMA ADAPTA Plana. Isurpen-eskubideen enkanteetatik eratorritako diru-sarrerekin finantzaturako jarduketak».

6. 26. ataleko «Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioa» aurrekontuan, azpi-kontzeptuen mailan lotesle izango da 26.18.231A.227.11 kreditua, «Droga-trafikoarekin lotutako delituak prebenitzeko, ikertzeko, jazartzeko eta zigortzeko jardueretarako, eta maiatzaren 29ko 17/2003 Legeak adierazitako gainerako xedeetarako».

7. 27.107 organismoaren aurrekontuan («Carlos III.a Osasun Institutua»), kapitulu-mailan lotesleak izango dira, hartzailea edo onuraduna identifikatzen duten zuzkidurak salbu, eta gastuen egoeretan kontzeptu gisa duten espezifikazioa gorabehera, 7. kapituluan («Kapital-transferentziak») 465A programarako («Osasun-ikerketa») kontsignaturako aurrekontu-kredituak.

8. 27.303 organismoaren aurrekontuan («Ikerketarako Estatu Agentzia»), kapitulu-mailan lotesle izango dira honako kreditu hauek: 7. kapituluan («Kapitalaren transferentziak») 463B programarako («Ikerketa zientifiko eta tekniko sustatu eta koordinatzea») kontsignaturako kredituak.

9. *artikulua. Aurrekontu-aldaketan alorreko eskumen espezifikoak.*

Bat. Aurrekontu hauen indarraldian, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroak izango ditu aurrekontuak aldatzeko eskumen espezifiko hauek:

1. Lege honen 8. artikularen bat.3, bi.2 eta bi.5 apartatuetan jasotako kredituetan eragina duten transferentziak baimentzea.

2. 26.18.231A.227.11 kredituaren kontura «Droga-trafikoarekin lotutako delituak prebenitzeko, ikertzeko, jazartzeko eta zigortzeko jardueretarako, eta maiatzaren 29ko 17/2003 Legeak adierazitako gainerako xedeetarako» egin beharreko transferentziak baimentzea, Ministerioko beste sail batzuetara bideratzen direnean.

3. 4. kapituluan («Transferentzia arruntak») eta 7. kapituluan («Kapitalaren transferentziak») kontzeptu berriak sortzen dituzten kreditu-sortzeak baimentzea lege honen 1. artikularen a) letrako 1., 2., eta 4. zenbakietan aipatzen diren erakundeen aurrekontuan, bai eta gainerako kapituluetan ere, sailkapen ekonomikoa zehazten duten kodeetan aldeztatik ageri ez badira.

4. Ministerioko sailen zerbitzu edo erakunde autonomoen artean kreditu-transferentziak baimentzea, baldin eta beharrezkoa bada Ikerketa Zientifikorako Funtz Nazionaleko kredituak banatzeko.

5. Ministerioko sailen zerbitzu edo erakunde autonomoen artean kreditu-transferentziak baimentzea, baldin eta beharrezkoa bada langileak edo lanpostuak modu eraginkorrean berriro banatzeko, esleitzeko edo haien mugikortasunerako, Estatuko Administrazio Orokorrean jarduten duten langileen sarbiderako, lanpostuen hornikuntzarako eta administrazio bereko funtzionario zibilen lanbide-sustapenerako Erregelamendu Orokorren (martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak onetsia) III. tituluaren IV. kapituluan xedaturako kasuetan, bai eta Estatuko Administrazio Orokorreko lan-kontratudun langileen nahitaezko mugikortasuna eraginkorra izan dadin ere, aplikatzeko zaien araudiaren arabera.

6. Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoaren aurrekontuan kreditu-aldaketak baimentzea, aldaketa horrek II. Bigarrena. Bederatzi eranskinean erakunde autonomo horretarako zehaztutako kredituei eragiten Badie.

7. Erakunde autonomoen aurrekontuan kreditu-sortzeak baimentzea, dena delako erakunde autonomoaren jarduerak finantzatzeari legez atxikitako Estatuko diru-sarrerengatik.

8. Lege honen 1. artikulua a) letrako 1., 2., eta 4. zenbakietan aipatzen diren erakunde aurrekontuan, kapital-eragiketarako kredituetatik eragiketa arruntetarako kredituetara egiten diren transferentziak baimentzea.

9. Lege honen 1. artikulua a) letrako 4. zenbakian aipatzen diren erakunde aurrekontuan aldaketak egitea baimentzea, baldin eta aldaketok 500.000 eurotik gorakoak badira.

Muga horrek eragiten dio aurrekontu-ekitaldian egiten diren aldaketen multzoari.

10. Lege honen 1. artikulua a) letrako 1., 2. eta 4. apartatuetan aipatzen diren erakunde aurrekontuan aldaketak egitea baimentzea, baldin eta aldaketok 4. kapituluko kredituei («Transferentzia arruntak»), 7. kapituluko kredituei («Kapitalaren transferentziak») edo 8. kapituluko kredituei («Aktibo finantzarioak») eragiten badiete.

Bi. Aurrekontu hauen indarraldian, Defentsako ministroak izango du Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 53.2.b) artikuluan jasotako kreditu-sortzeak baimentzeko eskumena, farmaziako produktuen salmentek edo ospitale-zerbitzuak emateak eragindako diru-sarreraren ondorio direnean, eta behar bezala baimendutako elikagaiak zein erregaiak hornitu edo janari-prestazioak edota NATOko herrialdeetako armadei eginiko zerbitzu-prestazioak egiteak eragindako diru-sarreraren ondorio, Indar Armatuak Zaldi Hazkuntza atalak egindako zerbitzuen eta salmenten prestazioek eragindakoen ondorio direnean.

Hiru. Aurrekontu hauen indarraldian, Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko ministroak izango du Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 53.2.b) artikuluan xedatutako kreditu-sortzeak baimentzeko eskumena, kreditu horiek Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginak, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoak, hamargarren xedapen gehigarrian adierazitako diru-sarreraren ondorio direnean.

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren hamargarren xedapen gehigarrian aipatutako diru-sarreraren bilketaren ondorioz kreditua sortuz gero Estatuak Gizarte Segurantzari egindako transferentziek Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren gastu-aurrekontuan izan ditzaketen ondorioak adieraztearren, Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko ministroak baimena eman ahal izango du entitate horren gastu-aurrekontuan behar diren kreditu-gehikuntzak egiteko.

Aurreko paragrafoan adierazitako aurrekontu-aldaketak, baimendu ondoren, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko Aurrekontuen Zuzendaritza Nagusiari igorriko zaizkio, jakinaren gainean egon dadin.

Lau. Aurrekontu hauen indarraldian erakunde autonomoetako eta Estatuko sektore publiko administratiboan aurrekontu mugatzailea duten gainerako erakundeetako lehendakari edo zuzendari dagokie azpisektoreen arteko transferentzia arruntei edo kapitalaren transferentziei eragiten dieten kreditu-transferentziak edo aurrekontuen aldaketak beren aurrekontuetan baimentzea, baldin eta horiek deialdi publikoen esparruan erakunde publikoei eman zaizkien dirulaguntzen ondoriozkoak badira, eta 46. politikaren kargura («lkerketa, garapena eta berrikuntza») finantzatzen badira.

Bost. Aurrekontu hauen indarraldian, 1. artikulua a) letrako 4. zenbakian zehaztutako erakunde aurrekontuetan kreditu-aldaketak egiteko, Estatuaren Aurrekontuetan aplikatu beharreko prozedura bera ezarri beharko da bi aldaketa-kasuetan, baldin eta erakunde horiek Estatuaren Gastu Aurrekontuaren kontura finantzatzen badira.

Sei. Gobernuak, bere Aurrekontu Bulegoaren bidez, artikulua honetan aipatutako transferentzia guztiei buruzko informazioa igorriko die Gorte Nagusiei hiru hilean behin, eragindako partidak, zenbatekoa eta xedea zehaztuta. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du dokumentazio hori.

10. artikulua. *Aurrekontuen mugak.*

Bat. Kapital eragiketetatik arruntetara kreditu-transferentziak —Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 52.1.a) artikuluan aipatzen direnak— egiteko muga ez da aplikatuko transferentziak lege honen 9.bat artikulua 8. zenbakian jasotako baimenaz baliatuta egiten direnean eta, Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren nahiz Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren esparruan, 15. artikulua 1 apartatua jasotako baimenaz baliatuta egiten direnean.

Bi. Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 52.1.b) artikuluan adierazitako mugak ez dira aplikatuko transferentziak lege honen 9.bat artikulua 2., 4. eta 5. zenbakietan adierazitako baimenaz baliatuz egiten direnean.

Hiru. Aurrekontu hauen indarraldian, errendimendua sustatzeko kredituen gehikuntza dakarten kreditu-sortzeak baimentzeko eskumena ez baldin badagokio Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroari, sail horren aldeko txostena beharko da alde zuzenetik.

Lau. Aurrekontu hauen indarraldian, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 50. artikulua jasotako mugak ez dira aplikatuko honako aurrekontu-aplikazio hauetan egiten diren kreditu-gehikuntzak finantzatzeari dagokionez: 27.04.923O.351 aurrekontu-aplikazioan («Altxorrek emandako abaletan arriskuak estaltzea, aurreko ekitaldietako arriskuak barne»), eta 27.04.923O.355 aurrekontu-aplikazioan («Altxor Publikoaren aurrean abalak betearaztearen ondoriozko konpentsazioak»), baldin eta honako arau hauetan jasotako finantza-neurrien ondorio badira: Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen hogeita batgarren xedapen gehigarria; Bankuak berregituratzeko eta kreditu-erakundeen bitarteko propioak indartzeko ekainaren 26ko 9/2009 Errege Lege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarria; maiatzaren 28ko 9/2010 Errege Lege Dekretuaren artikulua bakarrean, non Estatu Administrazio Orokorrari baimena ematen zaion finantzaketa-eragiketa jakin batzuetarako abalak eman ditzan, finantzak egonkortzeko Europako mekanismoaren esparruan; 2011rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 22ko 39/2010 Legearen 49. artikulua bi.b) zenbakian; 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen 52. artikulua eta bi.e) zenbakian, eta 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legearen 54. artikulua bi.b) zenbakian; ezta lege honetako II. eranskineko bigarren apartatuko zazpi zenbakiko b) letran bildutako aurrekontu-aplikazioan egiten diren kreditu-gehikuntzak finantzaketari dagokionez, horiek zorpetze bidez finantzatuko dira, eta Estatu Administrazio Orokorrek baimena izango dauka eragiketa horiek gauzatzeko.

Bost. Lege honen 1. artikuluko a) letrako 2. eta 4. apartatuetan zehaztutako erakundeek aurrekusten baldin badute beren diru-sarrerak, finantza-zorpetzearen ondoriozkoak ere barne, hasierako aurrekontuetan ezarritakoak baino txikiagoak izango direla, beren Kontabilitate Bulegoari jakinarazi beharko diote zer kreditu-atxikipen egin behar diren, diru-sarreraren murrizketarengatik aurre egin ezin dieten gastuen aurrekontuaren kredituen zenbatekoa zehaztuta. Kontabilitate Bulegoak igorritako kreditu-atxikipenei buruzko ziurtapenak Ordezko Kontu-hartzaileari eta Aurrekontuetako Zuzendaritza Nagusiarri bidali beharko zaizkie.

Sei. Gobernuak, hiru hilean behin, bere Aurrekontu Bulegoaren bidez, epe horretan egindako kreditu-aldaketen berri emango die Gorte Nagusiei, artikulua honetan xedatutakoa betetzen dela jakinarazteko. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du dokumentazio hori.

11. artikulua. *Kredituak zabalgarritzea eta eranstea.*

Bat. A Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 54. artikulua xedatutakoaren ondoretarako, lege honen II. eranskinean adierazitako kredituak joko dira zabalgarritzat.

Bi. Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 58.a) artikulua xedatutakoaren ondoretarako, lege honen VII. eranskinean adierazitako geldikinak 2018ko ekitaldiko kredituei erantsi ahal izango zaizkie.

III. KAPITULUA

Gizarte Segurantzza

12. artikulua. *Gizarte Segurantzza.*

Bat. Osasun-laguntzaren finantzaketa, Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren aurrekontuaren bidez, Estatuaren bi xede-ekarpenen bidez egingo da: bata, eragiketa arruntak egiteko, 232.687,65 mila eurokoa, eta bestea, kapital-eragiketarako egiteko, 10.141,18 mila eurokoa; halaber, entitate horri lotutako beste edozein diru-sarreraren bidez, 1.097,46 mila eurokoa izatea kalkulatu dena.

Bi. Estatuak 7.329.116,20 mila euroko ekarpena egiten dio Gizarte Segurantzako Sistemari, sistema horretako pentsioen gutxienezko osagarriak finantzatzeko.

Pentsioen gutxienezko osagarriak finantzatzeko kreditu hori betearazteko erritmoa Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren finantza-beharretara egokituko da, bai eta Estatuaren aurrekontua betearazteko eratorritako beharretara ere, eta hiru hilez behin igorriko da, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak aldeko txosten bat egin beharko du ordain-agindu bakoitzeko.

Gainera, Estatuak 1.333.910,00 mila euroko transferentzia egingo dio Gizarte Segurantzari, Gizarte Segurantzaren aurrekontua orekatzen laguntzeko.

Hiru. Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren aurrekontua Estatuaren ekarpenen bidez finantzatuko da 2018ko ekitaldian: eragiketa arruntak egiteko, 4.127.639,99 mila euro, eta kapital-eragiketarako 6.125,00 mila euro, eta entitate horri lotutako beste edozein diru-sarrera, 36.730,68 mila eurokoa izatea kalkulatu dena.

Lau. Itsasoko Gizarte Institutuaren kotizaziopekoa ez den osasun-laguntza finantzatzeko, Estatuak bi ekarpen egingo ditu; bata eragiketa arruntetarako, 2.855,00 mila eurokoa, eta bestea kapitaleko eragiketarako, 20,00 mila eurokoa. Halaber, Estatuaren ekarpenaren bidez finantzatuko dira Institutu horren gizarte-zerbitzuak, 14.277,20 mila euroko transferentzia arrunt baten bidez, eta kapital-eragiketarako 1.225,00 mila euroko transferentzia baten bidez.

II. TITULUA

Aurrekontu-kudeaketa

I. KAPITULUA

Irakaskuntzako aurrekontuen kudeaketa

13. artikulua. *Itunpeko ikastetxeei laguntzeko funts publikoak banatzeko modulu ekonomikoa.*

Bat. Eskola-unitateko modulu ekonomikoaren zenbatekoa, ikastetxe itunduak sostengatzeko 2018ko funts publikoen zenbateko globala banatzeko, lege honen IV. eranskinean finkatutakoa da, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 117. artikulua bigarren eta hirugarren zenbakietan eta hogeita zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

116.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 15.2 artikuluan adierazitakoarekin lotuta, Haur Hezkuntzako irakaskuntzetan itundutako unitateak IV. eranskinean zehaztutako modulu ekonomikoaren arabera finantzatuko dira.

Erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloak IV. eranskinean zehaztutako modulu ekonomikoaren arabera finantzatuko dira. Eskola-unitate bakoitzeko 30 ikasleko beherako ratioa izateko baimena duten lanbide-heziketako unitate itunduen beste gastu batzuetarako partidan, 0,015eko koefiziente murriztailea aplikatuko da dagokion baimenean gehienezko ikasle kopururik kentzen den ikasle bakoitzeko.

Erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloetan, Lantokiko Prestakuntza, enpresek ikasleen praktiketan parte hartzeari dagokionez, ikastetxe publikoetarako ezarrita dagoen bezala finantzatu da.

Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak IV. eranskinean ezarritako modulu ekonomikoaren arabera finantzatu dira. Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloetako itunek izaera orokorra izango dute, Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoaren 116.6 artikuluan ezarritakoaren arabera —Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren hirurogeita hamargarren zenbakiak aldatu egin zuen artikulua hori—.

Halaber, Batxilergoko irakaskuntza ematen duten unitate itunduak lege honen IV. eranskinean zehaztutako modulu ekonomikoaren arabera finantzatu dira.

Autonomia-erkidegoek egokitu egin ahalko dituzte aipaturiko eranskinean ezarritako moduluak, irakaskuntza bakoitzeko ezarritako curriculumaren eskakizunak aintzat hartuta; betiere, hori egitean ez badira murrizten modulu horien zenbatekoak, lege honetan finkatutako kopuru bereizietan.

Irakasleen ordainsariak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak, funts publikoekin guztiz edo zati batez sostengatuko Irakaskuntza Pribatuko Enpresen Hitzarmen Kolektiboak, itunpeko ikastetxeetan hezkuntza-maila bakoitzari aplikatu beharrekoak, sinatzen diren egunari kalterik egin gabe. Administrazioak konturako ordainketak onartu ahal izango ditu dagokion hitzarmena sinatzen den arte, betiere enpresaburuen elkarte guztiek berariaz eta batera eskatuta eta aipatutako hitzarmen kolektiboak negoziatzen dituzten sindikatuak kontsulta eginda; konturako ordainketa horiek 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak. «Beste gastu batzuk» moduluaren osagaiak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Administrazioak zuzenean ordainduko ditu irakasleen soldatetarako zehaztutako zenbatekoak, gizarte-kargak barne, edozein dela ere irakasleen eta dagokion ikastetxearen titularraren arteko lan-harremana. «Gastu aldakorak» osatzen dituzten zenbatekoen banaketa egiteko, itunen araubidea erregulatzeko xedapenetan ezarritakoa beteko da.

«Beste gastu batzuk» zenbatekoa hileroko ordainduko da, eta ikastetxeei, dagokion ekitaldi ekonomikoa amaitzean, ikastetxeko irakaskuntza itundu guztietarako batera justifikatu ahal izango dute haren aplikazioa. Erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloetan, ziklo horiek 1.300 edo 1.400 orduko iraupena baldin badute, hezkuntza-administrazioek erabaki ahal izango dute bigarren mailako beste gastu batzuen partida, IV. eranskineko moduluan zehaztutakoa, lehenengo mailakoarekin batera ordaintzea, baina zenbateko globala handitu gabe.

Bi. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila guztietan unitate itunduak dituzten ikastetxeei finantzaketa emango zaie Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 22.3 artikuluan adierazitako hezkuntza-orientazioko zerbitzuertarako. Zuzkidura hori kalkulatzeko, eginkizun horiek betetzeko profesional baten lanaldi osoa hartuko da oinarritzat, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 25 unitate itunduko. Horrenbestez, ikastetxe itunduek profesional horri dagokion lanaldia jasotzeko eskubidea izango dute, itunduta duten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako unitate kopuruaren arabera. Hezkuntza-administrazioek, beren eskumenen eremuan, eta xedagarri duten aurrekontuaren arabera, handitu egin ahal izango dute hezkuntza-orientazioko zerbitzuen finantzaketa.

Hiru. Hezkuntza-administrazioek, beren eskumenen eremuan, irakasle/unitate itundu erlazio egokiak finkatu ahal izango dituzte, itundutako maila bakoitzean indarrean dagoen ikasketa-plana gauzatzeko. Kalkulu hori egiteko, irakasle bakoitzak astean hogeita bost eskola-ordu ematen dituela joko da.

Administrazioak ez du onartuko ez ordainsarien gehikuntzarik, ez orduen murrizketarik, ez beste inolako egoerarik, halakoan ondorioz IV. eranskineko modulu ekonomikoetan aurreikusitakoa gainditzen bada.

Halaber, Administrazioak ez du onartuko hitzarmen kolektiboan finkatutako ordainsari-gehikuntzarik, irakaskuntza-maila desberdinetako irakaskuntza publikoko irakasleentzat xedatutako portzentajea baino handiagoa izanez gero, non eta Administrazioak ez duen

berariaz baiesten eta horretarako aurrekontu-izendapena egiten, Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, 117.4 artikuluan adierazitako pixkanakako parekatzearen mesedetan.

Lau. Hezkuntza-administrazioek, beren eskumenen eremuan, handitu egin ahal izango dituzte ikastetxe itunduetako irakasle/unitate erlazioak, lege hau indarrean jarri bitartean hartutako birkokatze-neurriek eragindako irakasleen guztirako kopuruaren arabera, ordainketa eskuordetuko nominan baldin badaude, eta irakasle-taldeen mailaz mailako indartzea helburu hartuta. Hori guztia hala izanik ere, unitate-aldaketak egin ahal izango dira ikastetxe itunduetan, hezkuntza-itunen alorrean indarrean dagoen araudiaren ondorioz.

Bost. Ikastetxe itunduei konpentsazio ekonomiko eta profesionalak emango zaizkie, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak 117.3 artikuluan adierazitako zuzendaritza-funtzioa gauzatzeko.

Sei. Irakaskuntza arautuetan, derrigorrezkoak ez diren irakaskuntza-mailetarako sinatutako itun berezien araubiderako esleitutako funts publikoen bidezko finantzaketaren osagarri gisa ikastetxeek ikasleengandik jaso ditzaketen gehienezko zenbatekoak hauek dira:

a) Goi-mailako heziketa-zikloak: 18 eta 36 euro bitartean ikasleko/hileko hamar hilabetez, 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean.

b) Batxilergoa: 18 eta 36 euro bitartean ikasleko/hileko hamar hilabetez, 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean.

Ikastetxeek ikasleei zenbateko horiek kobratzearen ondorioz lortutako finantzaketa Administrazioak «Beste gastu batzuk» finantzatzeko zuzenean emandako zenbatekoaren osagarri izango da.

2017an kuota horiek baino handiagoak kobratzeko baimena zuten ikastetxeek 2018an ere kuota berak kobratzen jarrai dezakete.

Administrazioak emandako zenbatekoa ezin izango da lege honen IV. eranskinean zehaztutako modulu ekonomikoetako «Beste gastu batzuk» osagaiari 3.606,08 euro minoratuta geratzen den kopurua baino txikiagoa izan. Hezkuntza-administrazio eskudunek beharrezkoa den araudia ezarri ahal izango dute, horri dagokionez.

Zazpi. Irakaskuntza itunduaren finantzaketa Ceutan eta Melillan: Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak 117.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, ikastetxeek zuzendaritza-taldeak izan ditzaten, eta, lege horren beraren 22.3 artikuluan adierazitako hezkuntza-orientazioko zerbitzuen finantzaketa handitzearen, funtzio horietarako profesional egoki baten lanaldi osoaren baliokidea oinarri hartuta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 16 unitate itunduko eta Lehen Hezkuntzako 24 unitate itunduko, Ceutako eta Melillako lurralde-eremuko eskola-unitate bakoitzeko modulu ekonomikoaren zenbatekoa lege honen V. eranskinean zehaztutakoa izango da.

14. artikulua. *Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko (UNED) langileen kostuak baimentzea.*

Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoak lehenengo xedapen gehigarrian adierazitakoari jarraituz, eta lege honen III. tituluaren ezarritakoari lotuta, baimendu egiten dira Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko (UNED) irakasleen (funtzionarioak eta kontratadunak) eta administrazioiko nahiz zerbitzuetako langileen (funtzionarioak eta langile lan-kontratadun finkoak) kostuak 2018rako, lege honen VI. eranskinean kontsignatutako zenbatekoetan.

II. KAPITULUA

Osasunaren eta gizarte-zerbitzuen aurrekontu-kudeaketa

15. artikulua. *Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren eta Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren aurrekontuak aldatzeko berariazko eskumenak.*

Lege honen indarraldian, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroak izango du eskumena Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren nahiz Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren aurrekontuetan honako aldaketa hauek baimentzeko:

Bat. Langile-gastuetan edo Aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren 44. artikulua Bi zenbakiak aipatzen dituen gainerako aurrekontu-kredituetan eragina duten kreditu-transferentziak, bai eta kapital-eragiketarako kredituetatik eragiketa arruntetarako kredituetara egiten diren transferentziak ere.

Bi. Aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren 58. artikuluan araututako geldikin-eransketak.

16. artikulua. *Diruzaintza-geldikinak Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren aurrekontuan aplikatzea.*

Urte bakoitzeko abenduaren 31n Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrean Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren alde dauden geldikinak Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren gastu-aurrekontua finantzatzera bideratu ahal izango dira. Hurrengo ekitaldian egin daitezkeen aldaketak finantzatzeko ere erabili ahal izango dira.

Nolanahi ere, Estatuak 2017ko kotizazio gabeko erretiro- eta baliaezintasun-pentsioak finantzatzean dauden geldikinen ondorioz sor litezkeen diruzaintzako geldikinak, Gizarte Segurantzaren Kontu Hartzaitza Nagusiak ziurtatuak, kotizazio gabeko erretiro- eta baliaezintasun-pentsioei erantzuteko kredituetan gerta litezkeen gabeziak finantzatzeko baino ezin izango dira aplikatu.

III. KAPITULUA

Aurrekontu-kudeaketarako beste arau batzuk

17. artikulua. *Zerga Administrazioko Estatu Agentzia.*

Bat. Zerga-bilketaren likidazio- eta kudeaketa-egintzetatik edota Zerga Administrazioko Estatu Agentziak erabakitako edo emandako beste administrazio-egintza batzuetatik 2018an lortutako bilketa gordinaren partaidetza-portzentajea 100eko 5koa izango da.

Bi. Abenduaren 27ko 31/1990 Legearen 103. artikulua bost.b) puntuaren laugarren paragrafoan xedatutakoaren ondoretarako, aipatutako partaidetzaren ondorioz Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren baliabide-aldakuntza Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroak baimendu beharreko kreditu-sortzearen bidez gauzatuko da. Haren zenbatekoa kalkulatzeko, aurreko puntuan adierazitako portzentajea aplikatuko da.

Hiru. Zerga-bilketaren likidazio- eta kudeaketa-ekintzetatik edota Zerga Administrazioko Estatu Agentziak erabakitako beste administrazio-ekintza batzuetatik sortutako bilketa, 2017ko abenduko Estatuak Diru-sarreraren Aurrekontuari aplikatuta, kreditua sortu ahal izango du 2018rako Estatuaren Aurrekontuko kontzeptu berean edo baliokide batean, artikulua honen Bat atalean xedatutako portzentajearen, 1993ko martxoaren 4ko Aginduan xedatutako prozedurari jarraikiz. Agindu horrek 39/1992 Legearen (1993rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legea) 97. artikulua garatzen du.

III. TITULUA

Langile-gastuak

I. KAPITULUA

Sektore publikoaren zerbitzurako langileen gastuak

18. artikulua. *Jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa, sektore publikoaren zerbitzurako langileen gastuen alorrean.*

Bat. A Kapitulu honetan xedatutakoaren ondoretarako, honako hauek osatzen dute sektore publikoa:

- a) Estatuko Administrazio Orokorrak, bere erakunde autonomoek, estatu-agentziek eta haren eskumeneko unibertsitateek.
- b) Autonomia-erkidegoetako administrazioek, haien mendeko organismoek eta haien eskumeneko unibertsitateek.
- c) Toki-korporazioek eta haien mendeko organismoek.
- d) Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileek eta zerbitzu erkideek.
- e) Estatuko konstituzio-organoez, Konstituzioaren 78 artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe.
- f) Merkataritza-sozietate publikoek; hots, artikulua honetan adierazitako administrazioen eta erakundeen aldetik ehuneko 50 baino gehiagoko partaidetza dutenak haien kapital sozialean, zuzenean edo zeharka. Estatuko sektore publikoan, halakotzat joko dira Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 111.1 artikuluan araututakoak.
- g) Enpresa-entitate publikoek eta Estatuko, autonomia-erkidegoko eta tokiko sektore publikoko gainerako erakunde publikoek eta erakundeek.
- h) Sektore publikoko fundazioek eta nagusiki sektore publikoa osatzen duten administrazio nahiz organismoen partaidetza duten partzuergoek.
- i) Espainiako Bankuak, Espainiako Bankuaren Autonomiari buruzko ekainaren 1eko 13/1994 Legeak xedatutako baldintzetan.
- j) Banku Berregituraketa Ordenaturako Funtza (FROB).

Bi. 2018an, sektore publikoaren zerbitzurako langileen ordainsariez ezin izango dute ehuneko 1,5etik gorako gehikuntzarik izan, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin erkatuta, alderatutako bi aldiak homogeneoak izanik, bai langile-kopuruari, bai antzinateari erreparatuta.

Aurrekoaz gain, prezio egonkorretan, 2017an barne-produktu gordina handitu eta ehuneko 3,1 edo handiagoa izatera iritsiko balitz, soldata-gehikuntzaren ehuneko 0,25 ere gehitu beharko litzateke, eta 2018ko uztailaren 1etik aurrera izango litzuke ondorioak.

Apartatu honetan ezarritakoaren ondoretarako, Estatistikako Institutu Nazionalak urte bakoitzean argitaratzen duen BPGren kalkulu-aurrerapena hartuko da aintzat, BPGren gehikuntza aplikatzeko.

Estatistikako Institutu Nazionalak BPGren kalkulu-aurrerapena argitaratu ondoren, eta Enplegu publikoa eta lan-baldintzak hobetzeko 2018ko martxoaren 9ko Akordioaren Jarraipena egiteko Batzordeari aurrez jakinarazita, Ministroen Kontseiluaren erabakiaren bitartez onartu beharko da, hala dagokionean, gehikuntzaren aplikazioa. Akordio horren berri emango zaie autonomia-erkidegoei, hiri autonomoei eta Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioari.

Gainera, soldata-masaren ehuneko 0,2ko osagarri gehigarria baimendu ahalko da, besteak beste, honako neurri hauekarako: produktibitatea edo eraginkortasuna hobetzeko planak edo proiektuak ezartzeko; funtzio parekagarriak dituzten lanpostuen arteko osagarri espezifikoak berrikusteko; destino-osagarriak homologatzeko; edo pentsio-planetan ekarpenak egiteko. 2017ko ekitaldian superabit-egoeran dauden administrazioetan eta

artikulu honetan zehaztutako sektore publikoko gainerako erakundeetan gehikuntza osagarri hori ehuneko 0,3koa izan ahalko da.

Hiru. Enpleguko pentsio-planetan edo aseguru kolektiboak hitzartzeko kontratuetan ekarpenak egin ahalko dira sektore publikoan, betiere aurreko Bi apartatutan zehaztutako gehikuntza globala gainditu gabe.

Lau. Lan-kontratudun langileen soldata-masa artikulu honen bi zenbakian aurreikusitako gehieneko portzentajea igoko da; soldata-masa hori honako hauek osatzen dute: soldatako eta soldataz kanpoko ordainsariek, eta langile horiek aurreko urtean eragindako gizarte-ekintzako gastuek, alderatutako bi aldiak homogeenak izanik.

Nolanahi ere, honako hauek salbuespen izango dira:

- a) Gizarte Segurantzaren prestazioak eta kalte-ordainak.
- b) Enplegatzaileak Gizarte Segurantzako sistemara egindako kotizazioak.
- c) Lekualdatzei, etendurei edo kaleratzei dagozkien kalte-ordainak.
- d) Langileak egindako gastuengatiko kalte-ordainak edo ordezteak.

Horri dagokionez, jotzen da gizarte-ekintzaren kontzeptuan egindako gastuak egindako lanarengatiko kontraprestazioez bestelakoak diren etekin, osagarri edo hobekuntzak direla, eta haien xedea dela langileen inguruabar pertsonalen ondoriozko beharrian jakin batzuk asetzea.

Gizarte-ekintzako gastu horietan, oro har, ezin izango da inongo igoerarik egin 2018an, 2017ko urtearekin alderatuta.

Bost. 1. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia; aurrerantzean, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua) 76. artikuluan zehaztutakoaren mende dauden funtzionarioek, Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurrien abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aplikazio-eremuan jasota daudenean, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren azken xedapenetako laugarrenean edo berau garatzeko emandako Funtzio Publikoaren legeetan xedatutako moduan, honako zenbateko hauek jasoko dituzte soldata eta hirurteko gisa, 2018ko urtarriletik abendura arteko nomina arruntetan, hamabi hilabete-saritan:

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren taldea/azpitaldea	Soldata (euroak)	Hirurtekoak (euroak)
A1	13.780,08	530,16
A2	11.915,28	432,24
B	10.415,52	379,32
C1	8.946,36	327,12
C2	7.445,76	222,60
E (30/1984 Legea) eta profesionalen multzoak (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua)	6.814,80	167,52

2. Aurreko puntuan adierazitako funtzionarioek honako zenbateko hauek jasoko dituzte 2018ko ekaineko eta abenduko aparteko ordainsari bakoitzean, soldata eta hirurteko gisa:

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren taldea/azpitaldea	Soldata (euroak)	Hirurtekoak (euroak)
A1	708,61	27,26
A2	724,16	26,26
B	750,16	27,33
C1	644,35	23,54
C2	614,82	18,37
E (30/1984 Legea) eta profesionalen multzoak (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua)	567,90	13,96

Sei. Aurreko zenbakian xedatutakoaren helburuetarako, funtzionario publikoek jaso beharreko ordainsariak, 2007rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legea onetsi arte, abuztuaren 2ko 30/1984 Legeak 25. artikuluan xedatutako titulazio-taldeen arabera erabakitzen ziren. Harrezkero, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 76. artikuluan eta hirugarren xedapen iragankorrean ezarritako lanbide-sailkapeneko talde eta azpitaldeak hartzen dira oinarri, lege honen bidez egindako aldaketekin. Honako hauek dira bi sailkapen-sistema horien arteko baliokidetasunak:

A taldea (30/1984 Legea): A1 azpitaldea (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua).
B taldea (30/1984 Legea): A2 azpitaldea (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua).
C taldea (30/1984 Legea): C1 azpitaldea (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua).
D taldea (30/1984 Legea): C2 azpitaldea (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua).
E taldea (30/1984 Legea): Profesionalen multzoak (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua).

Zazpi. Aurreko paragrafoetan xedatutakoak ez dio kalterik egingo ohiz kanpoko kasuetan ordainsarrietan egokitzapenak egiteari, beharrezko direnean lanpostuen edukiagatik, programa bakoitzari esleitutako langile kopuruen aldaketagatik, edo programarako finkatutako helburuen lortze-mailagatik.

Zortzi. Ordainsarrietan bi zenbakian zehaztutako igoerak baino gorakada handiagoak eragiten dituzten akordio, hitzarmen edo itunak egokitu egin beharko dira, eta egokitzapen horren kontrakoak diren klausulak ez dira aplikatuko.

Bederatzi. Lege honetan ordainsariei aipamena egiten zaien guztietan, ordainsari osoei egiten zaie.

Hamar. Artikulu honetan ezarritako mugak sektore publikoko langileen merkataritza-kontratuen ordainsariei aplikatuko zaizkie.

Hamaika. Artikulu honek oinarrizko izaera du, eta Konstituzioaren 149.1.13 eta 156.1 artikuluen babesean emana dago. Gainera, hiru zenbakia Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 29. artikuluan xedatutakoa aplikatuz ematen da.

19. artikulua. *Enplegu Publikoaren Eskaintza edo langile-beharrari erantzuteko antzeko kudeaketa-tresna.*

Bat. 1. Aurreko artikuluan zehaztutako sektore publikoan langile berriak sartzten direnean, hurrengo zenbakietan ezarritako muga eta baldintzak bete beharko dira, salbu utzita merkataritza-sozietate publikoak eta enpresa-entitate publikoak, sektore publikoko fundazioak eta nagusiki sektore publikoa osatzen duten administrazioen eta organismoen partaidetza duten partzuergoak —horiek guztiak, hurrenez hurren, lege honen hogeita zazpigarren, hogeita zortzigarren eta hogeita bederatzigarren xedapen gehigarrietan ezarritakoaren arabera arautuko dira—, bai eta Estatuko konstituzio-organismoak ere.

Aurreko paragrafoan xedatutakoan salbuespena izango dira aurreko ekitaldietako lan-eskaintza publikoei dagozkien hautapen prozesuen ondorioz edo hemeretzigarren xedapen gehigarrian finkatutako tropako militar eta marinel profesionalen plantillak betetzeko hautapen- eta erreklutatze-prozesuen ondorioz sartu diren langileak.

Edonola ere, eskaintzak bete beharko ditu gastu-aurrekontuaren I. kapitulan zehaztutako aurrekontuaren mugak.

2. Administrazio publikoek aurreko ekitaldian aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren eta gastu-arauaren helburuak bete baldin badituzte, ehuneko 100eko berrezarpen-tasa izango dute. Gainera, ehuneko 8ko tasa erabilgarri izango dute, efektiboak indartu behar dituzten eremuetan edo sektoreetan aplikatzeko; betiere aurrekontuaren egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren esparruan. Ehuneko gehigarri horri lehentasuna emango zaio, besteak beste, honako egoera hauetako bat gertatzen denean: zerbitzu publikoak ezartzea; jarduera turistikoaren ondorioz, urtaroko jarduera handitzea; edo langile askok erretiroa hartzea. Toki-erakundeek zorpetze-eragiketen arloan bete beharko dituzte Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeetan edo toki-ogasunak arautzeko lege arautzaileetan ezartzen diren zor-mugak.

Tokiko erakundeek % 10eko tasa gehigarria izango dute, baldin eta aurreko ekitaldiko abenduaren 31n zorra amortizatuta badute, aurreko betekizunak betetzeaz gain.

3. Administrazio publikoek ez badituzte bete aurreko ekitaldian aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren eta gastu-arauaren helburuak, ehuneko 100eko berrezarpen-tasa izango dute sektore eta jardun-eremu batzuetan. Hona hemen sektoreok eta jardun-eremuok:

A) Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa, Hezkuntzari buruzkoa, garatzeko hezkuntza-eskumenak dituzten Administrazio Publikoak, irakasle funtzionarioen kidegoan sartzeko lanpostu kopurua zehazteari dagokionez.

B) Osasun-eskumenak dauzkaten Administrazio Publikoak, Osasun Sistema Nazionaleko osasun zerbitzuetako estatutupeko langileen eta langile baliokideen lanpostuei dagokionez.

C) Indar Armatuak, karrerako militarren eta militar osagarrien lanpostuei dagokionez, Karrera Militarri buruzko azaroaren 19ko 39/2007 Legean xedatutakoaren arabera.

D) Administrazio Publikoak, zergen, lanaren, dirulaguntza publikoen nahiz Gizarte Segurantzaren arloetako iruzurra kontrolatzeko eta horien aurka borrokatzeko, bai eta baliabide publikoak modu efizientean esleitzen direla kontrolatzeko ere.

E) Administrazio Publikoak, aholkularitza juridikoari eta baliabide publikoen kudeaketari dagokionez.

F) Justizia Administrazioko Letraduen Kidegoetako eta Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen lanpostuak.

G) Administrazio Publikoak, suteak prebenitzeko eta itzaltzeko zerbitzuetako lanpostuak betetzeari dagokionez.

H) Estatuko Administrazioa, Zientziari, Teknologiarri eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legean zehaztutako ikerketa-erakunde publikoetako ikertzaile doktoreen lanpostuei dagokionez.

Horrez gain, guztira 25 lanpostu baimentzen dira Estatuko Administrazioko ikerketa-erakunde publikoetan, 13 ziurtagiria duten ikertzaile doktoreak lan-kontratudun langile finko gisa kontratatuzko, ikertzaile gailenen modalitatean; betiere, aurrez egiaztatu beharko da lanpostu horien enplegu publikoaren eskaintzak ez diela eragiten Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan finkatutako mugei.

Era berean, berrezarpen-tasaren gehieneko muga ehuneko 100 izanik, beste Administrazio Publikoetako ikerketa-organismo baimena ematen zaie 13 ziurtagiriaren baliokidea den ebaluazioa gaingitu duten ikertzaile doktoreak organismo horietan lan-kontratudun langile finko gisa kontratatuzko, ikertzaile gailenen modalitatean; betiere, aurrez egiaztatu beharko da lanpostu horien enplegu publikoaren eskaintzak ez diela eragiten Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan finkatutako mugei.

I) Unibertsitateko Katedradunen eta Unibertsitateko Irakasle Titularren Kidegoetako lanpostuak, Unibertsitateko irakasle doktore kontratatuak, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 52. artikuluan arautuak, eta unibertsitateetako administrazioko eta zerbitzuetako langileen lanpostuak; betiere, haien ardura duten Administrazio Publikoek dagozkien deialdiak baimentzen badituzte, eta alde zuzenetik egiaztatzen bada lanpostu horien enplegu publikoaren eskaintzak ez diela eragiten dagokion unibertsitateetako ezarritako aurrekontu-egonkortasunerako helburuak betetzeari, ez eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan ezarritako mugei ere.

Unibertsitateko Katedradunen eta Irakasle Titularren Kidegoei eta irakasle doktore kontratatuei dagokien berrezarpen-tasaren mugaren barruan, aurreko paragrafoan zehaztutako horretan, unibertsitate bakoitzak lanpostuen gutxienez ehuneko 15 bideratu beharko du Ramón y Cajal Programa burutu duten eta 13 ziurtagiria eskuratu duten ikertzaile doktoreak hartzera, egiaztapena daukaten kategorian. Erreserban ezarritako lanpostu guztiak erabiltzen ez baldin badira, bikaintasuneko, Estatuko edo nazioarteko

programetako beste ikertzaile batzuei eskaini ahal izango zaizkie, baldin eta I3 ziurtagiria lortu badute.

Unibertsitateko irakasleen kidego batera sartzearen ondorioz hutsik gelditzen diren irakasle doktore kontratatuen lanpostuak hurrengo ekitaldiko berrezarpen-tasan sartu ahalko dira.

J) Balore-merkatuak eta horietan parte hartzen dutenak ikuskatzeari eta ikertzeari dagozkien lanpostuak.

K) Aire-segurtasunari dagozkion lanpostuak, aire-segurtasuna, hegaldiak, aireportu-eragiketak eta horiekin lotutako jarduketak ikuskatzen eta gainbegiratzen dituzten langileei dagokienez; eta itsas segurtasunarekin lotutako langileen lanpostuetan, itsas salbamendu eta prebentzioko lana eta itsas kutsaduraren aurkako borroka egiten dutenean, baita trenbide-segurtasunarekin eta trenbide-eragiketekin lotutako langileen lanpostuei dagokienez ere.

L) Espetxe Administrazioan.

M) Segurtasun Nuklearerako Kontseilua, instalazio erradioaktibo eta nuklearrak zuzendu, aztertu eta ebaluatu, ikuskatu eta kontrolatzeko eginkizunak betetzen dituzten Segurtasun Nuklear eta Babes Erradiologikorako Kidegoko goi-eskalako funtzionarioen lanpostuei dagokienez.

N) Estatuaren Atzerri Ekintza.

Ñ) Gizarte-zerbitzuen erabiltzaileei laguntza zuzena ematen dieten langileen lanpostuak.

O) Enpleguaren arloan prestazio eta politika aktiboak kudeatzen dituzten langileen lanpostuak.

P) Segurtasuneko eta larrialdietako lanpostuak.

Q) Garraio publikoaren zerbitzuko erabiltzaileentzako zuzeneko prestazioan aritzen diren langileen lanpostuak.

R) Zerbitzu publikoetan herritarrei arreta egiteko langileak.

S) Informazioaren eta komunikazioaren teknologien alorreko zerbitzuak ematen dituzten langileak.

4. 3. atalean bildu ez diren sektoreetan, administrazioek ehuneko 75eko berrezarpen-tasa edukiko dute, baldin eta aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren eta gastu-arauaren helburuak bete ez badituzte.

Horrez gain, aurreko 3. eta 4. zenbakietan sartutako administrazio publikoek berrezarpen-tasa osoaren ehuneko 5ekoaren baliokidea den lanpostu kopurua eskaini ahalko dute, eta efektiboak indartu behar dituzten eremuetan edo sektoreetan erabiliko dira. Ehuneko gehigarri horri lehentasuna emango zaio, besteak beste, honako egoera hauetako bat gertatzen denean: zerbitzu publikoak ezartzea; jarduera turistikoaren ondorioz, urtaroko jarduera handitzea; edo langile askok erretiroa hartzea.

5. Estatuaren Segurtasun Indar eta Kidegoek, Polizia Autonomikoen kidegoek eta tokiko polizia-kidegoek ehuneko 115eko berrezarpen-tasa edukiko dute.

6. Ehuneko 5eko berrezarpen-tasa osagarria baimentzen zaie udalerrri guztiei, baldin eta 2013tik 2017a arteko aldiko ekitaldiren batean, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 26.1 artikulua aplikatuz, zerbitzu publikoen kopuru handiagoa eman behar izan badute, urte horietako udal-eroldaren arabera zuzenbideko biztanleria handitu delako. Erroldak urte horietako urtarrilaren 1ean eguneratuta egon beharko du.

7. Langileen berrezarpen-tasa kalkulatzeko, finkatutako gehieneko ehuneko bi hauen arteko aldeari aplikatuko zaio: aurreko aurrekontu-ekitaldian hurrenez hurrenko sektore, eremu, kidego edo kategoria bakoitzean zerbitzuak emateari utzi dioten langile finkoen kopurua, batetik, eta horrelakoetan aipatutako ekitaldian sartu diren langile finkoen kopurua, bestetik; lan-eskaintza publikotik datozenak edo lanpostuak erreserbatzea ez dakarten egoeretatik itzuli direnak kontuan hartu gabe, betiere. Ondore horietarako, zerbitzu-prestazioa honako arrazoi hauek direla eta uztea hartuko da kontuan: erretiroa, heriotza, uko egitea, lanpostua erreserbatu gabeko eszedentzia-egoeran deklaratzeko, karrerako funtzionarioaren izaera galtzea edo lan-kontratua amaitzea, edota lanpostua

erreserbatzea edo lanpostua uzten den Administrazioaren aldetik ordainsariak jasotzea ez dakarren beste edozer administrazio-egoera. Halaber, kontuan hartuko dira beste administrazio publiko batzuetarako lekualdatze-lehiaketen ondorioz sortutako altak eta bajak.

Barne-sustapeneko prozesuen bidez betetzeko deitzen diren lanpostuak eta epai judizial bidez langile mugagabe ez-finko deklaraturako langileei dagozkienak ez dira kontuan hartuko berrezarpen-tasaren bidez zehaztutako plazen gehieneko mugaren barruan.

8. Eskaintzaren jarraipena egin ahal izateko, autonomia-erkidegoek Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari igorri beharko diote, Aurrekontu eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren bitartez, urte bakoitzeko urtarrilean, eskatzen zaien beste edozein informazioz gainera, berrezarpen-tasa kalkulatzeko kontuan hartu diren bajen eta alten kopuruari buruzko ziurtagiri bat, horren barne direla administrazio publikoen artean aurreko urtean izan diren borondatezko mugikortasuneko prozeduren ondoriozko lekualdatze-lehiaketen ondorioz izan diren altak eta bajak.

9. 2017rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren 3/2017 Legeak —ekainaren 27ko 3/2017 Legeak— 19. artikuluko bat.6 zenbakian ezarritakoaz gain, tasa gehigarria baimentzen da aldi baterako enplegua egonkortzeko. Horretan egiturazko lanpostuak sartuko dira, baldin eta, aurrekontuan zuzkituta egon arren, aldi baterako beteta edo, gutxienez, 2017ko abenduaren 31ren aurreko hiru urteetan etengabe beteta egon badira. Zehazki, honako sektore eta kolektibo hauek hartzen dira barne: administrazio-zerbitzuetako eta zerbitzu orokorretako langileak, ikerkuntza, osasun publikoa, ikuskatzaitzat medikoa, bai eta beste zerbitzu publiko batzuk ere. Unibertsitate publikoetan administrazio eta zerbitzuetako langileak baino ez dira sartuko.

Egonkortze-prozesu horiek artikulatzen dituzten enplegu-eskaintzak 2018tik 2020ra bitarteko ekitaldietako aldizkari ofizialetan onetsi eta argitaratu beharko dira, eta ministerio-sail eskudunek koordinatuko dituzte.

Egonkortze-prozesuetan dauden estalduraren tasak ehuneko 8tik beherakoa izan beharko du aldiaren amaieran, arlo bakoitzean.

Hautatze-prozesu horien artikulazioa —nolanahi ere lehia askearen, berdintasunaren, merezimenduaren, gaitasunaren eta publikotasunaren printzipioen betetzea bermatuko ditu— Estatu Administrazio Orokorren lurralde-esparru bakoitzean, autonomia-erkidegoetan eta toki-erakundeetan negoziatu ahalko da, eta haien garapenean administrazioen arteko koordinazioa bideratzen duten neurriak hartu ahalko dira.

Prozesu horien ebaztetik ezin izango da eratorri, inolaz ere, ez gastuaren ez langileen handitzerik, eta prozesu hauetan guztietan, nahitaez, egiturazkoak diren lanpostuak eskaini beharko dira, aldi baterako lotura duten langileek betetzen dituztenak.

Eskaintzaren jarraipena egin ahal izateko, administrazio publikoek Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari egiaztatu beharko diote, Aurrekontu eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren bitartez, ukitutako esparru bakoitzean zenbat lanpostu dauden aldi baterako kontratuekin betetzen ari direnak. Era berean, administrazio publikoek aldi baterako enplegua egonkortzeko edozein prozesuri buruzko estatistika-datuak eman beharko dituzte, administrazioko langileen soldatari buruzko informazioa emateko sistemaren bidez (ISPA).

10. Administrazio publikoek langile finkoentzako lanpostuak betetzeko deialdiak egin ahalko dituzte, berrezarpen-tasen ondorioetarako zenbatuko ez diren arren, eta honako hauei zuzenduta egon beharko dute: bereziki, tropako militar eta marinel profesionali, baldin eta profesional horiek iraupen luzeko konpromisoaren azken hamar urteetan badaude, bai eta prestasun bereziko erreserbagileei ere, baldin eta dagozkien deialdiak egiten diren arte prestasun-ordainsaria 8/2006 Legearen 19.1 artikuluan ezarritako zenbatekoan eta baldintzetan jaso badute (apirilaren 24ko 8/2006 Legea, Tropako Militar eta Marinelen). Halaber, betetzeko zailak diren eremuetan erabili beharko dira. Horretarako, beharrezkoa izango da hitzarmen horietan eta kategoria profesional horietan aske sartzeko txanda bat ezartzea. Dagokion administrazioko sektore publikoko erakundeei

ere aplikatu ahalko zaie aukera hori. Berdintasunaren, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioei jarraitu beharko die prozesu horien garapenak.

Bi. Ezin izango da aldi baterako langilerik kontratatu, ez eta aldi baterako estatutupeko langilerik edo behin-behineko funtzionarioik izendatu ere, ez bada aparteko kasuetan eta larrialdikoak eta ezin geroratzekoak diren beharrianetarako.

Hiru. Estatuko Administrazio Orokorrari dagokion lan-eskaintza publikoa, bere erakunde publikoen eta Estatuko gainerako erakunde publikoen esku dagoenean, Gobernuak onetsi beharko du, eskumena duten sailek edo organismoek hala eskatzen diotenean, eta Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren proposamenari jarraituz. Indar Armaturen kasuan, onartu aurretik, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren txostena beharko da, eta Defentsako ministroak egin beharko du proposamena. Kasu guztietan, langileen kostuetan izango duen eraginari buruzko alde aurreko balioespina eta txostena beharko dira.

Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzari dagokio Estatu Idazkaritza horri atxikitako funtzionarioen kidegoetara eta eskaletara —bai eta Estatuko Administrazio Orokorraren Hitzarmen Bakarreko lan-kontratupeko langileen lanpostuetara ere—, sartzeko hautapen prozesuetarako deia egiteko eskumena.

Ez da baimenik emango Estatuko sektore publikoko erakundeetan lan-kontratudun langileentzako deialdiak egiteko edo hutsik dauden lanpostuak betetzeko, salbuespenezko kasuetan izan ezik, urgentziazko premia atzeraezinak estaltzeko; halako kasuetan, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren aurretiazko baimen espresua jaso beharko da, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren eta Funtzio Publikoko Idazkaritzaren bitartez. Era berean, sektore publikoan erabilgarri dauden baliabideak modurik onenean erabili ahal izateko, Estatuko idazkaritza biek erakunde autonomoi, estatu-agentziei eta erakunde publikoei baimena eman ahalko diete honako hauek kontratatuzko; funtzionarioak edo lan-kontratudun langile finkoak, Estatuko sektore publikoko sailtetako edo erakunde publikoetako lanpostuak edota betetzeko sailak diren eremuko lanpostuak bete ditzaten; prestasun bereziko erreserbagileak, baldin eta, kontratua sinatu arte, prestasun-ordainsaria 8/2006 Legearen 19.1 artikuluan ezarritako zenbatekoan eta baldintzetan jaso badute (apirilaren 24ko 8/2006 Legea, Tropako Militar eta Marinelena). Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak, Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzaren bitartez, zehaztuko du halako kontratazioetan zein prozedura jarraituko den, publikotasuna eta lehia askea bermatzeko. Apartatu honetan ezarritakoaren babesean egindako kontratuak antzinasun-osagarria jasotzen jarraitzeko eskubidea sortuko dute, kontratua gauzatzen den datatik aurrera. Jatorrizko ministerio-sailean edo erakunde publikoan jasotzen zenaren zenbateko bera izango du osagarri horrek.

Lau. Aldi baterako kontratupeko langileak kontratatuzko eta bitarteko funtzionarioak nahiz aldi baterako estatutu-langileak artikuluko honen Bi zenbakian xedatutako baldintzetan izendatzeko, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren alde aurreko baimena beharko da.

Halaber, aldi baterako laneko enpresekin langileak lagatzeko kontratuak artikuluko honetako bi zenbakian adierazitako baldintzetan soilik egin ahal izango dira, eta Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren alde aurreko baimena beharko da.

Atzerrian langile finkoak edo aldi baterakoak tokiko legeriaren arabera edota, hala badagokio, Espainiako legeriaren arabera kontratatuzko, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren alde aurreko baimena beharko da.

Zenbaki honetan aipatzen den Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren baimena, deialdiak eta kontratuak egiteko, Aurrekontu eta Gastuen eta Funtzio Publikoaren estatu-idazkaritzen bitartez emango da.

Bitarteko funtzionarioek bete behar dituzten lanpostu hutsak dagozkien lan-eskaintza publikoan sartu beharko dira, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzak eta Funtzio Publikoko Idazkaritzak izendapen-baimenean jaso duten terminoetan.

Bitarteko funtzionarioek betetzen dituzten lanpostuak hasi berriko karrerako funtzionarioek behin betiko betetzen ez badituzte, eta haien izendapena lan-eskaintza

publikoaren emaitzak betearazteko egiten ez bada, lanpostuak betetzeko, mugikortasuna sustatzeko edota zerbitzu aktiboan berriz sartzeko prozeduren bidez bete ahalko dira.

Bost. Artikulu honen bat apartatuko 2tik 6a arteko zenbakietan baimendutako tasaren baliozkotasunak honako baldintza hau izango du: sortzen diren lanpostuak lan-eskaintza publiko batean jasotzea; betiere, eskaintza hori, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 70. artikulua 2. zenbakian ezarritakoari jarraituz, administrazio publikoaren kasuan kasuko gobernu organoek onetsi beharko dute, eta probintziako, autonomia-erkidegoko edo, kasua bada, Estatuko aldizkari ofizialean argitaratu beharko da urte bakoitza amaitu baino lehen.

Baimen hori baliozkoa izan dadin, halaber, plazen deialdia, probintziako, autonomia-erkidegoko edo, hala badagokio, Estatuko aldizkari ofizialean argitaratuta, hiru urteko epe luzaezinean egin beharko da, aipatutako lanpostu horiek jasotzen dituen Enplegu Publikoaren Eskaintza argitaratzen den egunetik zenbatuta, aurreko paragrafoan ezarritako baldintzekin, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 70. artikuluko 1. zenbakian xedatutakoaren arabera.

Sei. 1. Lehenetasuna duten sektore baten edo batzuen berrezarpen-tasa lehenetasunezko beste sektore edo kolektibo batzuetan metatu ahalko da. Ondore horietarako, administrazio publiko guztietan lehenetasuna eduki behar dute 19. artikuluko Bat.3 eta Bat.5 zenbakietan zerrendatzen direnek. Era berean, lehenetasuna ez duten sektoreen berrezarpen-tasa lehenetasunezko sektoreetan metatu ahalko da.

Aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren eta gastu-arauaren helburuak aurreko ekitaldian bete zituzten tokiko erakundeek berrezarpen-tasa edozein sektore edo kolektibotan metatu ahalko dute, baldin eta 2017ko abenduaren 31n finantza-zorra amortizatuta badute.

2. Sektore publikoak fundazio publikoei eta atxikitako partzuergoei berrezarpen-tasaren zati bat laga ahalko die, baldin eta fundaziook eta partzuergoak Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistema betearazteko agenteak badira, ekainaren 1eko 14/2011 Legean —Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzkoan—ezarritakoarekin bat etorrita; eta, betiere, berrezarpen-tasa aipatutako proiektuetarako bideratu beharko da. Fundazio edo partzuergo bakoitzari eman zaizkion lanpostuen kopurua argi zehaztu beharko da tasa lagatzen duen Administrazioaren edo erakundearen enplegu publikoko eskaintzaren onarpenean, bai eta tasa metatzen duen fundazio edo partzuergoaren ere.

Zazpi. Artikulu honetako bat, bi, bost eta sei zenbakiek oinarrizko izaera dute, eta Konstituzioaren 149.1.13 eta 156.1 artikuluen babesean eman dira.

II. KAPITULUA

Ordainsari-arabideak

20. artikulua. *Estatuko Gobernuko, haren organo aholku-emaileetako eta Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen nahiz zuzendaritzako beste langile batzuen ordainsariak.*

Bat. 2018an, Estatuko Gobernuko eta haren organo aholku-emaileetako goi-kargudunen ordainsariak honako hauek izango dira, hamabi hilabeteri dagozkienak —ez dute izango aparteko ordainsariak jasotzeko eskubiderik, baina bai indarrean dagoen araudiaren arabera dagoen antzinasun-ordainsaria jasotzekoa—:

	Euroak
Gobernuko presidentea	80.953,08
Gobernuko presidenteordea	76.088,04
Gobernuko ministroa	71.424,12
Estatu Kontseiluko presidentea	80.563,68
Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko presidentea	88.013,76

Bi. 2018an, estatu idazkarien, idazkariordeen, zuzendari nagusien eta parekoen ordainsarietiek hamabi hilabeteri dagozkien honako soldata eta destino-osagarri hauek jasoko dituzte, bai eta urteko berariazko osagarria ere, 2008rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 26ko 51/2007 Legearen 26.bi artikuluan xedatutakoari jarraituz.

	Estatu idazkaria eta parekoak – (Euroak)	Idazkariordea eta parekoak – (Euroak)	Zuzendari nagusia eta parekoak – (Euroak)
Soldata	13.450,80	13.516,92	13.582,08
Destino-osagarria	21.863,64	17.685,24	14.304,00
Berariazko osagarria	34.115,34	30.354,28	24.746,42

Ekaineko eta abenduko aparteko ordainsarietako bakoitzean, aurreko paragrafoaren eta koadroaren arabera jasoko duten hileko destino-osagarriaren zenbatekoaz gain, honako koadro honetan soldata gisa zehaztutako zenbatekoa ere jasoko dute:

	Estatu idazkaria eta parekoak – (Euroak)	Idazkariordea eta parekoak – (Euroak)	Zuzendari nagusia eta parekoak – (Euroak)
Soldata	679,07	728,30	778,06

Goi-kargudun horietako bakoitzak saileko titularrak esleitutako produktibitate-osagarria jasoko du, hala badagokio, lege honen 22.bat.E) artikuluan xedatutakoaren arabera, xede horretarako aurreikusitako kredituen barruan. Goi-kargudunei esleitutako zenbatekoak 18.bi artikuluan ezarritako gehikuntza jasoko dute, urtean eta kargu kopuruaren eta motaren termino homogeneoetan, 2017ko abenduaren 31n esleituta zeukatenaren aldean; hargatik eragotzi gabe ordainduko diren banakako zenbatekoak desberdinak izan ahal izatea, osagarri hori arautzen duen araudiari jarraituz.

Hiru. 2018an, 18.bi artikuluan ezarritako ehunekoan handituko dira, gehienez, honako pertsona hauek jasoko dituzten ordainsariak, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeukatenaren aldean: estatu-agentzietako presidentee; enpresa-entitate publikoetako eta gainerako erakunde publikoetako presidente eta presidenteordeek; eta, hala badagokio, aipatutako organismoetako zuzendari nagusiek eta zuzendari orokorrek, maila goreneko funtzio betearazleak gauzatzea baldin badagokie. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroari dagokio ordainsari horiek finkatzea. Ordainsari horiek ezin izango dituzte gainditu martxoaren 5eko 451/2012 Errege Dekretuak, enpresa-sektore publikoko eta beste entitate batzuetako arduradun eta zuzendari nagusien ordainsari-araubidea jasozten duenak, eta hura aplikatzeko emandako aginduek xedatzen dituzten gehienezko mugak. 2017ko abenduaren 31n indarrean dauden zenbateko horien mugak 18.bi artikuluan ezarritako ehunekoan handituko dira.

Estatuko sektore publikoko fundazioen eta nagusiki Estatuko Administrazio Orokorren eta haren organismoen partaidetza duten partzuergoen arduradun gorenaren ordainsariak finkatzeko, martxoaren 5eko 451/2012 Errege Dekretuak eta hori aplikatuz emandako aginduek xedatutakoa hartuko da kontuan, 18.bi artikuluan ordainsarien gehikuntzari ezarritako mugak aintzat hartuta.

Lau. Artikulu honetako bi eta hiru zenbakietan xedatutakoak ez dio eragingo indarrean dagoen araudiaren arabera legokiekkeen antzinasun-ordainsaria hamalau hilabete-saritan jasotzeari.

Bost. 1. 2018an, Estatu Kontseiluko kide iraunkorren eta idazkari nagusiaren ordainsarietiek hamabi hilabeteri dagozkien honako soldata hau eta honako destino-osagarri hauek izango dituzte, eta urteko berariazko osagarria jasoko dute, abenduaren 26ko 51/2007 Legearen 26.lau.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

	Euroak
Soldata	13.516,92
Destino-osagarria	23.625,24
Berariazko osagarria	36.779,34

Ekaineko eta abenduko aparteko ordainsarietako bakoitzean, aurreko koadroaren arabera jasoko duten hileko destino-osagarriaren zenbatekoaz gain, ondorengo koadroan soldata gisa zehaztutako zenbatekoa ere jasoko dute:

	Euroak
Soldata	728,30

2. Estatu Kontseiluko presidenteak produktibitate-osagarria esleitu ahal izango die bertako kide iraunkorrei eta idazkari nagusiarri, lege honen 22.bat.E) artikuluan xedatutakoari jarraituz. Kargu horietarako xedatutako zenbatekoak 18.bi artikuluan ezarritako gehikuntza izango du, 2017ko abenduaren 31n esleituta zegoenaren aldean.

3. Goi-kargudun horiek, gainera, organoak berak antzinasuna egokitzeko onartutako akordioetan finkatutako ordainsariak jasoko dituzte, hala badagokie. Aldez aurretik funtzionario publiko izan badira —funtzionario gisa aktiboan edota erretiratuta egoteari erreparatu gabe—, egoera hartan aitortu zitzaizkien hirurtekoak jasotzen jarraitzeko eskubidea izango dute, kasu bakoitzean aplikatu beharreko araudiari jarraituz; eta araudi horren araberrako zenbatekoa handiagoa izanez gero aipatutako akordioetan onetsitakoa baino, alde hori jasotzeko eskubidea izango dute, hamalau hilabete-saritan.

21. artikulua. *Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko, Konstituzio Auzitegiko eta Kontuen Auzitegiko kideen ordainsariak.*

Bat. 2018an, honako hauek izango dira Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko, Konstituzio Auzitegiko eta Kontuen Auzitegiko kideen ordainsariak:

1. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.

1.1 Kargua eskusiboki betetzen dutenak:

1.1.1 Auzitegi Goreneko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidentea:

	Euroak
Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa)	27.384,98
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak)	107.375,76
Guztira	134.760,74

1.1.2 Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko kidea:

	Euroak
Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa)	28.995,82
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak)	87.228,00
Guztira	116.223,82

1.1.3 Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko idazkari nagusia:

	Euroak
Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa)	27.775,30
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak)	85.769,40
Guztira	113.544,70

1.2 Kargua modu eskusiboan betetzen ez duten kideek dietak jasoko dituzte osoko bilkuretara edo batzordeetara joateagatik, eta ez dute karguari dagokion bestelako ordainsaririk jasotzeko eskubiderik izango, zerbitzuarekin lotutako kalte-ordainak izan ezik.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak gehienez ere 364.368 euro izango ditu xedagarri, dieta horiek ordaintzeko.

2. Konstituzio Auzitegia.

2.1 Konstituzio Auzitegiko presidentea:

	Euroak
Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa)	42.894,88
Beste ordainsari batzuk (14 hilabete-saritan jasotzekoak)	106.112,30
Guztira	149.007,18

2.2 Konstituzio Auzitegiko presidenteordea:

	Euroak
Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa)	42.894,88
Beste ordainsari batzuk (14 hilabete-saritan jasotzekoak)	97.166,44
Guztira	140.061,32

2.3 Konstituzio Auzitegiko atal-presidentea:

	Euroak
Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa)	42.894,88
Beste ordainsari batzuk (14 hilabete-saritan jasotzekoak)	90.313,72
Guztira	133.208,60

2.4 Konstituzio Auzitegiko magistratua:

	Euroak
Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa)	42.894,88
Beste ordainsari batzuk (14 hilabete-saritan jasotzekoak)	83.461,14
Guztira	126.356,02

2.5 Konstituzio Auzitegiko idazkari nagusia:

	Euroak
Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa)	35.845,74
Beste ordainsari batzuk (14 hilabete-saritan jasotzekoak)	74.922,68
Guztira	110.768,42

3. Kontuen Auzitegia.

3.1 Kontuen Auzitegiko presidentea:

Urteko ordainsariak (14 hilabete-saritan jasotzekoak): 116.564,00.

3.2 Kontuen Auzitegiko ataleko presidentea:

Urteko ordainsariak (14 hilabete-saritan jasotzekoak): 116.564,00.

3.3 Kontuen Auzitegiko kontu-aholkularia:

Urteko ordainsariak (14 hilabete-saritan jasotzekoak): 116.564,00.

3.4 Kontuen Auzitegiko idazkari nagusia:

Urteko ordainsariak (14 hilabete-saritan jasotzekoak): 100.353,12.

Bi. Kargudun horiek, aurreko zenbakian xedatutakoaren arabera zehaztutako zenbatekoek gainera, organoak berak antzinasuna dela eta onartutako akordioetan finkatutako ordainsariak jasoko dituzte, hala badagokie, 1.2 puntuan jasotako kargudunak alde batera utzita. Aldez aurretik funtzionario publiko izan badira —funtzionario gisa aktiboan edota erretirata egoteari erreparatu gabe—, egoera hartan aitortu zitzaizkien hirurtekoak jasotzen jarraitzeko eskubidea izango dute, kasu bakoitzean aplikatu beharreko araudiari jarraituz; eta, araudi horren arabera zenbatekoa handiagoa izanez gero aipatutako akordioetan onetsitakoa baino, diferentzia hori jasotzeko eskubidea izango dute, hamalau hilabete-saritan.

22. artikulua. *Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aplikazio-eremuan dauden Estatuako funtzionarioen ordainsariak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatuaren azken xedapenetako laugarrenean adierazitakoaren arabera.*

Bat. 2018an, funtzionarioen ordainsariak honako hauek izango dira:

A) Funtzionarioari dagokion kidego edo eskala sailkatuta dagoen taldeari edo azpitaldeari dagozkion soldata eta hirurtekoak, lege honen 18.bost.1 artikuluan adierazitako zenbatekoetan.

B) Aparteko ordainsariak —urtean bi izango dira: bata ekainean eta bestea abenduaren—, 1988rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren 33/1987 Legeak, abenduaren 23koak, 33. artikuluan xedatutakoaren arabera emango direnak. Aparteko ordainsari horietako bakoitzak bilduko ditu lege honen 18.bost.2 artikuluan finkatutako soldataren eta hirurtekoen zenbatekoak, bai eta hileko destino-osagarriarena ere.

Funtzionarioek lanaldi murriztua izan badute ekainaren edo abenduaren aurreko sei hilabeteetan, aparteko ordainsariaren zenbatekoa ere proportzio berean murriztuko da.

C) Betetzen den lanpostuari dagokion lanpostu-osagarria, honako zenbateko hauen arabera, hamabi hilabete-saritan:

Maila	Zenbatekoa – Euroak
30	12.036,72
29	10.796,40
28	10.342,56
27	9.888,36
26	8.675,28
25	7.696,92
24	7.242,72

Maila	Zenbatekoa – Euroak
23	6.789,24
22	6.334,80
21	5.881,56
20	5.463,36
19	5.184,48
18	4.905,36
17	4.626,36
16	4.347,96
15	4.068,60
14	3.789,96
13	3.510,60
12	3.231,48
11	2.952,48
10	2.673,96
9	2.534,52
8	2.394,48
7	2.255,28
6	2.115,72
5	1.976,28
4	1.767,12
3	1.558,44
2	1.349,16
1	1.140,12

Unibertsitate-irakaskuntzaren eremuan, aurreko eskalan finkatutako destino-osagarriaren zenbatekoa aldatu egin ahal izango da, indarrean dagoen araudiaren arabera egokia izanez gero; nolahi ere, horrek ez du aldaketarik eragingo lanpostuari esleitutako destino-osagarriaren mailan.

D) Betetzen den lanpostuari esleitutako berariazko osagarria, halakorik balego. Osagarri horren urteko zenbatekoak 18.bi artikuluan ezarritako ehunekoan handituko da, 2017ko abenduaren 31n indarrean zegoena erreferentziazat hartuta, lege honen 18.zazpi artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

Urteko berariazko osagarria hamalau ordainsari berdinetan jasoko da; horietako hamabi hilero jasoko dira, eta bi gehigarriak, hilekoaren zenbateko bera ezarrita, ekainean eta abenduan.

Funtzionario publikoek destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren kontzeptuan jasotzen dituzten ordainsariak, edozelan ere, indarreko araudian aurreikusitako prozeduren arabera betetzen duten lanpostuari dagozkionak izango dira, eta egiten dituzten zeregin zehatzek ezin dute aurrekoa ez betetzea ekarri, aipatutako araudiak bestelako zenbatekoak onartzen dizkien kasuetan izan ezik; eta, nolahi ere, abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen 21.2 artikuluan araututako lanpostu-mailaren bermeari zein dagozkion zenbatekoak jasotzeko eskubideari kalterik egin gabe, 1991rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 31/1990 Legearen 33.bi artikulua aplikatuta.

E) Produktibitate-osagarria, lanpostuetan jardutean errendimendu berezia, aparteko jarduera eta arduraldia, eta interesa edo ekimena saritzeko.

Ministerio-sail bakoitzak erabakiko du, erabil dezakeen guztirako kredituaren barruan —kredituak 18.bi artikuluan ezarritako gehieneko igoera izango du urtean, 2017ko abenduaren 31n ezarritakoaren aldean—, eremu organikoen, lurraldeen, funtzioen edo lanpostu motaren arabera esleitu dituen zenbateko partzialak. Halaber, produktibitate-osagarriaren banakako zenbatekoak banatzeko eta finkatzeko irizpideak ezarriko ditu, arau hauen arabera:

1.a Produktibitatea balioestean, lanpostu motari eta jardunari lotutako inguruabar objektiboak hartu beharko dira aintzat, eta, egoki izanez gero, dagokion programari esleitutako emaitzak edo helburuak lortzean izandako parte-hartze maila.

2.a Produktibitate-osagarri gisa aldi baterako esleitutako zenbatekoek ez dute inola ere banakako eskubiderik sortuko ondorengo aldietarako balioespenetan edo balioigoeretan.

F) Ohiz kanpoko zerbitzuengatik haborokinak; ministerio-sailek edo erakunde publikoek emango dituzte halakoak, xede horretarako esleitutako kredituen barruan, eta gehienez ere 18.bi artikuluan ezarritako gehieneko igoera jasoko dute, 2017ko abenduaren 31n esleitutakoen aldean.

Haborokin horiek ohiz kanpokoak izango dira, eta ohiko lanalditik kanpo emandako aparteko zerbitzuengatik soilik eman ahal izango dira; ezin izango dira finakoak izan, zenbatekoari eta aldizkakotasunari dagokienez, eta ezin izango dute ondorengo aldietarako banakako eskubiderik eragin.

G) Maila pertsonalean, mantendu egiten dira Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuan adierazitako E taldea/profesionalen multzoa delakoari dagozkion ordainsariak, 26/2009 Legearen 24.bat.B).b) artikuluan xedatutakoari jarraituz; ordainsari horien zenbatekoak 18.bi artikuluan ezarritako ehunekoan handituko dira, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean.

Bi. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak aldatu egin ahal izango du produktibitate-osagarriari, ohiz kanpoko zerbitzuengatik haborokinei eta errendimendua sustatzeari dagokien kreditu globalen zenbatekoa, programa bakoitzari esleitutako langile kopuruari eta helburuen lorpen-mailari egokitzeko.

Horretarako, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroak onartu egingo ditu ministerio-sailei eta erakunde publikoei errendimendua bultzatzeko xedez esleitutako zenbatekoak. Horrek inolako aldaketarik eragingo balu Estatuaren Aurrekontu Orokorretan kontsignatutako kredituetan, aurrekontu-aldaketaren espediente onartu beharko da, aldaketa horrek ondoreko ekonomikoak izateko.

Ministerio-sailek pizgarri horiek esleitzeko irizpideen eta banakako zenbatekoen berri emango diote Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari, Aurrekontu eta Gastuetako Estatu idazkaritzaren bitartez, pizgarriak emateko aplikatutako irizpideak zehaztuta.

Hiru. Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren aplikazio-eremuan dauden bitarteko funtzionarioek bitarteko gisa izendatuta dauden kidegoa edo eskala sailkatuta dagoen taldeari edo azpitaldeari dagozkion oinarrizko ordainsariak jasoko dituzte, hiru urtekoak barne hartuta, bai eta betetzen duten lanpostuari dagozkion ordainsari osagarriak ere, karrerako funtzionario izateari lotutakoak izan ezik, edota Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak onetsitakoak, lanposturik betetzen ez duten bitarteko funtzionarioen kasuan. Kolektibo horri artikuluko honen bat zenbakiaren B) letran xedatutakoa aplikatuko zaio.

Lau. Behin-behineko langileek Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak haien funtzioak sailkatzean berdintzat jotako talde edo azpitaldeari dagozkion soldadak eta aparteko ordainsariak jasoko dituzte, eta behin-behineko langileentzat gordetako lanpostuari dagozkion ordainsari osagarriak. Kolektibo horri artikuluko honen Bat zenbakiaren B) letran xedatutakoa aplikatuko zaio.

Aktiboan edo zerbitzu berezietan dauden karrerako funtzionarioek betetzen badituzte behin-behineko langileentzat gordetako lanpostuak, haien sailkapeneko taldeari edo azpitaldeari dagozkion oinarrizko ordainsariak jasoko dituzte, hiru urtekoak barne hartuta, bai eta betetzen duten lanpostuari dagozkion ordainsari osagarriak ere.

Bost. Produktibitate-osagarria esleitu ahal izango zaie, egoki izanez gero, bitarteko funtzionarioei, denboraldi baterako estatutupeko langileei eta aldi baterako langileei, bai eta praktikak egiten ari diren funtzionarioei ere, praktika horiek egitean lanpostu bat betetzen badute, baldin eta baimenduta badago lanpostu berdinak betetzen dituzten karrerako funtzionarioei aplikatzea, osagarri hori karrerako funtzionario izateari lotuta dagoen kasuetan izan ezik.

Sei. Baldin eta praktiketako funtzionarioen izendapena sartu nahi dena baino titulazio txikiagoa duen beste kidego bateko edo talde edo azpitaldeen eskala bateko karrerako funtzionarioei egiten bazaie, praktikaldiari edo hautatzeko ikastaroari dagokion denboran, betetzen dituzten hirurtekoak jasoko dituzte horiek oraindik, eta aldi hori, hirurtekoak betetzeko eta eskubide pasiboetarako, kidego edo eskala berrian betetakotzat hartuko da; betiere, amaieran azken horietan karrerako funtzionario benetan bilakatuz gero.

Zazpi. Lege honetan xedatutakoa atzerrian jarduten duten funtzionarioen ordainsariei ere aplikatuko zaie —Estatuko lurraldean eurotan jasoko luketenari—, indarrean dagoen araudiaren arabera moduluak aplikatzeari kalterik egin gabe.

23. artikulua. *Estatuko sektore publikoko kontratupeko langileak.*

Bat. A Lege honen ondoretarako, Estatuko sektore publikoko lan-kontratudun langileen soldata-masa 18.lau artikuluan zehaztutakoa izango da. Soldata-masa horrek Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak, Aurrekontu eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren bitartez, ezarritako muga errespetatu beharko du.

Bi. Estatuko sektore publikoko lan-kontratudun langileen soldata-masak ezin izango du lege honen 18.bis artikuluan ezarritakotik gorako igoerarik izan; betiere, Estatuko sektore publikoa osatzen duten ministerio-sail, erakunde publiko, gainerako erakunde publiko, Estatuko merkataritza-sozietate, Estatuko sektore publikoko fundazio eta nagusiki Estatuko sektore publikoa osatzen duten administrazioen eta organismoen partaidetza duten partzuergoei esleitutako helburuak lortzeak eragin ditzakeen ondorioei kalterik egin gabe, produktibitatea handitzearen bidez, edo lana antolatzeko nahiz profesionalak sailkatzeko sistemak aldatzearen bitartez, aurreko zenbakian adierazitako txostena egin ostean.

Lan-lotura duten eta hitzarmen bati lotuta ez dauden gainerako langileen ordainsariei ere ez dute 18.bi artikuluan ezarritakotik gorako igoerarik izango, edozein dela ere haien tipologia, modalitatea edo izaera, eta sektore publikoko zuzendaritza-taldeetako langileak barne direla.

Hiru. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak, Aurrekontu eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren bitartez, baimendu egingo du ministerio-sailen, organismoen, estatu-agentzien, enpresa-entitate publikoen eta gainerako erakunde publikoen, eta Estatuko merkataritza-sozietateen soldata-masa, baita Estatuko sektore publikoko fundazioena eta nagusiki Estatuko sektore publikoa osatzen duten administrazioen eta organismoen partaidetza duten partzuergoena ere.

Baimendutako soldata-masa kontuan hartuko da eragindako lan-kontratudun langileen ordainsariei dagozkien kredituak homogeneotasunez zehazteko. Soldata-masa baimentzea ezinbestekoa izango da hitzarmen edo akordio kolektiboak negoziatzen hasteko.

Soldata-masa gordinaren aldaketak urtebeterako eta homogeneotasunez kalkulatu dira alderatutako bi aldietan, bai langileei eta haien antzinatasunari dagokienez, bai lanaren, lanaldiaren, aparteko orduen eta beste lan-baldintza batzuen araubide pribatiboari dagokionez; kontzeptu horiek eragindako aldaketen kopuruak bereiz zenbatuko dira.

Merkataritza-sozietateen eta enpresa-entitate publikoen kasuan, ordainsari aldakorren edo produktibitatearen kontzeptuak zehazteko gehieneko muga hauxe izango da, kontzeptu horien izendapen zehatza edozein dela ere: kontzeptu horietarako 2013ko soldata-masan onartutako zenbatekoa, gehienez ere 18.bi artikuluan ezarritako ehuneko gehituta, eta Estatuaren Aurrekontu Orokorretako legeetan ezarritako gehikuntza-ehunekoen arabera eguneratuta.

Organismoek, estatu-agentziek, enpresa-entitate publikoek eta gainerako erakunde publikoek, Estatuko merkataritza-sozietateek, fundazioek eta partzuergoek itxitako azken ekitaldian, aurreko urtearekin erkatuta, emaitzen kontuan edo kontu baliokide batean hobekuntza bat —hala nola etekinen igoera edo galeren murrizketa— jaso badute, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzak soldata-masaren gehikuntza osagarria baimendu ahalko du, eta ordainsari aldakor gisa eman ahalko zaie berorietako langile guztiei.

Goi-mailako zuzendaritzako arduradunek eta langileek jasoko duten ordainsari aldakorrek ezin izango du inola ere ekarri berorien guztizko ordainsariak 451/2012 Errege Dekretuan ezarritako muga gainditzea (451/2012 Errege Dekretua, martxoaren 5ekoa, enpresa-sektore publikoko eta beste entitate batzuetako arduradun eta zuzendari nagusien ordainsari-sistema arautzen duena), ezta Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak erakundea edo entitatea sailkatzeko eman duen aginduan ezarritakoa ere.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoa soldata-masaren gehieneko muga izango da; soldata-masa horren banaketa eta banakako aplikazioa negoziazio kolektiboaren bidez gauzatuko da, hala badagokio.

Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroari dagokio zenbaki honetan araututako baimen-prozeduraren forma, norainokoa eta ondoreak zehaztea; Aurrekontu eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren proposamenari jarraituz egingo du hori.

Lau. Hitzarmen kolektiboaren mende ez dauden langileak badira, eta haien ordainsariak banakako kontratuen bidez zehaztuta badaude, oso-osorik edo neurri batean, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari komunikatu beharko zaizkio, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren bidez, aurreko urtean ordaindutako eta sortutako ordainsariak.

Bost. Lan-kontratudun langileen kalte-ordain edo osakinek ezin izango dute Estatuko Administrazio Orokorreko lan-kontratudunak ez diren langileentzat ezarritako gehikuntza baino handiagoa izan. Lan-kontratudun langileen kalte-ordain edo osakinek araudi espezifikoak izango dute.

Sei. Ministerio-sailek, organismoek, estatu-agentziek, enpresa-entitate publikoek eta gainerako erakunde publikoek eta Estatuko merkataritza-sozietateek, baita Estatuko sektore publikoko fundazioek eta nagusiki Estatuko sektore publikoa osatzen duten administrazioen eta organismoen partaidetza duten partzuergoek ere, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoaren arabera ezar daitezkeen ordu-kredituak eta bestelako sindikatu-eskubideak igorriko dizkiote Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari, aurretik baimen ditzan. Aurrez onartutako akordioek aipaturiko baimena jaso beharko dute, aplikatu ahal izateko.

Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak zehaztuko ditu zenbaki honetan araututako baimen-prozeduraren forma, irismena eta ondoreak.

24. artikulua. *Indar Armatuetako langileen ordainsariak.*

Bat. 2018an, Indar Armatuetako langileen ordainsariei eta beste lansari batzuei 18.bi artikuluan ezarritako ehunekoa gehituko zaie, dagozkien antzintasun-ordainsariak ezertan galarazi gabe; betiere, langile horien oinarritzako ordainsariak Estatuko eta bere erakunde publikoetako Aurrekontu Orokorretako gastuaren egitura ekonomikoari buruzko 10. artikuluan jasota baldin badaude. Halaber, saileko titularrak esleitzen dizkien osagarriak jasoko dituzte, arduraldi bereziagatik edo produktibitateagatik, horretarako xedatutako kredituetatik. Langile horientzat xedatutako kredituen zenbatekoari 18.bi artikuluan ezarritako ehunekoa gehituko zaio, 2017ko abenduaren 31n esleituta zegoenaren aldean. Termino homogeneoetan aplikatuko da, karguen kopuruari eta motari dagokienez.

Bi. Karrera Militarrari buruzko azaroaren 19ko 39/2007 Legean jasotako militar profesionalak, aurreko zenbakian sartuta ez daudenean, ordainsari hauek jasoko dituzte 2018an:

A) Enplegua sailkatuta dagoen taldeari edo azpitaldeari dagozkien soldata eta hirurtekoak —hirurtekoak alde batera utzita, araudiak hala xedatutako kasuetan—, 18. bost.1 artikuluan ezarritako zenbatekoan.

B) Aparteko ordainsariak; urtean bitan emango dira, eta haietako bakoitzak lege honen 18.bost.2 artikuluan finkatutako soldata eta hirurtekoak bilduko ditu, enpleguari dagokion taldearen edo azpitaldearen arabera, bai eta hilero jasoko den enplegu-osagarria ere.

Hirurtekoen eta aparteko ordainsarien balioespena eta sortzapena langile horiei aplikatu behar zaien berriazko araudiaren arabera gauzatuko da, eta, ordezkio moduan,

abuztuaren 2ko 30/1984 Legea aplikatzeko eremuan dauden funtzionarioen araudiaren arabera, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan adierazitakoari jarraituz.

C) Enplegu-osagarriak, berariazko osagarriak eta egoki diren gainerako ordainsariak 18.bi artikuluan ezarritako ehunekoko gehikuntza jasoko dute, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, lege honen 18.zazpi artikuluan xedatutakoa ezertan eragotzi gabe.

D) Arduraldi bereziari dagokion ordainsaria, arreta etengabearen kontzeptua barne hartuta, eta ohiz kanpoko zerbitzuengatik haborokina. Zenbateko horiek Defentsa ministroak erabakiko ditu, xede horietarako esleituko diren kredituen barruan. Kreditu horiek 18.bi artikuluan ezarritako gehikuntza jasoko dute, urteko zenbatekoari dagokionez, 2017ko abenduaren 31n ezarrita zeudenen aldean, urteko terminoetan.

Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak aldatu egin ahal izango du arduraldi bereziari eta ohiz kanpoko zerbitzuengatik haborokinei dagokien kredituen zenbatekoa, programa bakoitzari esleitutako langile kopuruari eta helburuen lorpen-mailari egokitzeko.

Horretarako, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroak errendimendua bultzatzeko xedea duten zenbatekoak onartuko ditu. Horrek inolako aldaketarik eragingo balu Estatuaren Aurrekontu Orokorretan kontsignatutako kredituetan, aurrekontu-aldaketaren espediente onartu beharko da, aldaketa horrek ondore ekonomikoak izateko.

Arduraldi bereziari dagokion osagarriak edota ohiz kanpoko zerbitzuengatik haborokinak emateko esleitutako zenbatekoek ez dute inolaz ere banakako eskubiderik sortuko ondorengo aldietarako balioespenetan edo balio-igoeretan.

E) Zerbitzuan emandako urteengatik pizgarria. Defentsako ministroak finkatuko ditu pizgarri horren zenbatekoak eta jasotzeko baldintzak, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren bidez, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak aldeko txostena egin ostean.

Hiru. Defentsa Ministerioak itunak sinatu baditu unibertsitateekin Saileko osasun-erakundeak erabiltzeko, urriaren 11ko 1652/1991 Errege Dekretuan haien araubiderako ezarritako oinarrien arabera, zentro horietan lanpostuak betetzen dituzten mediku militarrek eta osasun-alorreko militarrek dagozkien oinarrizko ordainsariak jasoko dituzte, eta, ordainsari osagarri gisa, destino-osagarriak, berariazko osagarriak eta produktibitate-osagarriak jasoko dituzte, aipatutako errege-dekretuko hamahirugarrena.zortzi 4, 5 eta 6.a) eta b) oinarria aplikatuz ezarritako zenbatekoetan.

Langile horiek jantziarako laguntza ere jaso ahal izango dute, bai eta arduraldi bereziari dagokion osagarria ere, etengabeko arretagatik, aurreko zenbakiko D) letran ezarritakoari jarraituz. Gainera, sariengatik pentsioak eta dagozkien familia-prestazioak jaso ahal izango dituzte.

Lau. Ministerioaren edo bere erakunde autonomoen lanpostu-zerrendetan jasotako lanpostuak betetzen dituzten Indar Armatuetakoko kideek beren enplegu militarri dagozkion oinarrizko ordainsariak eta betetzen duten postuari esleitutako osagarriak jasoko dituzte, lege honetan abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aplikazio-eremuan jasotako Estatuko funtzionarioentzat ezarritako zenbatekoen arabera, eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren azken xedapenetako laugarrenean adierazitakoari jarraituz; halere, ordainsari militarren ondoriozko pentsioak eta haborokinak jasotzen jarraituko dute, bai eta jantziarako laguntza ere, Indar Armatuetakoko gainerako langileen zenbateko eta baldintza beretan.

Artikulu honetan xedatutakoak ez du ezertan eragotziko indarrean dagoen araudian Indar Armatuetakoko kontzeptu eta langile zehatz batzuetarako xedatutako araudi espezifikoa.

25. artikulua. *Guardia Zibilaren Kidegoko langileen ordainsariak.*

Bat. 2018an, Guardia Zibileko Kidegoko langileen ordainsariak eta beste ordainketa batzuek, haien oinarrizko ordainsariak Estatuaren Aurrekontu Orokorretako gastuen egitura ekonomikoari buruzko 10. artikuluan jasota baldin badaude, 18.bi artikuluan ezarritako

gehikuntza izango dute, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, dagozkien antzintasun-ordainsariei kalterik egin gabe. Halaber, saileko titularrak esleitzen dien produktibitate-osagarria jasoko dute, hala badagokie, xede horretarako aurreikusitako kredituen bidez. Langile horientzat xedatutako kredituen zenbatekoak 18.bi artikuluan ezarritako gehikuntza edukiko dute, karguen kopuruari eta motari dagokienez, 2017ko abenduaren 31n esleituta zegoenaren aldean.

Bi. Aurreko zenbakian jasota ez dauden Guardia Zibilaren Kidegoko langileek ordainsari hauek jasoko dituzte 2018an:

A) Enplegua sailkatuta dagoen taldeari edo azpitaldeari dagozkion soldata eta hiru tekoak, lege honen 18.bost.1 artikuluan ezarritako zenbatekoetan.

B) Aparteko ordainsariak, urtean bitan emango direnak, haietako bakoitzak barne hartuta lege honen 18.bost.2 artikuluan finkatutako soldatak eta hiru tekoak, enpleguari dagozkion taldearen edo azpitaldearen arabera, eta hilerok jasoko den destino-osagarria.

Hiru tekoen eta aparteko ordainsarien balioespena eta sortzapena langile horiei aplikatu beharreko berariazko araudiaren arabera gauzatuko da, eta, ordezkio moduan, abuztuaren 2ko 30/1984 Legea aplikatzeko eremuan dauden funtzionario publikoen araudiaren arabera, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan adierazitako moduan.

C) Ordainsari osagarri finko eta aldizkakoak 18.bi artikuluan ezarritako ehunekoan handituko dira, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenak erreferentziatzen hartuta, lege honen 18.zazpi artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

D) Produktibitate-osagarria eta ohiz kanpoko zerbitzuengatik haborokinak. Ordainsari horiek lege honen 22. artikuluan aplikazio-eremuko Estatuko funtzionarioentzat ezarritako arauen bidez xedatuko dira, eta Barne Ministerioak finkatuko ditu zenbatekoak, xede horietarako esleituko diren kredituen barruan. Kreditu horiek 18.bi artikuluan ezarritako gehieneko gehikuntza jasoko dute, urteko zenbatekoari dagokienez, 2017ko abenduaren 31n esleituta zeudenak erreferentziatzen hartuta.

26. artikulua. *Polizia Nazionalaren Kidegoko langileen ordainsariak.*

Bat. 2018an, Polizia Nazionalaren Kidegoko langileen ordainsariak eta beste ordainketa batzuek, haien oinarrizko ordainsariak Estatuko eta bere erakunde publikoen Aurrekontu Orokorretako gastuen egitura ekonomikoari buruzko 10. artikuluan jasota baldin badaude, 18.bi artikuluan ezarritako gehikuntza jasoko dute, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, dagozkien antzintasun-ordainsariei kalterik egin gabe. Halaber, saileko titularrak esleitzen dien produktibitate-osagarria jasoko dute, hala badagokie, horretarako xedatutako kredituen bidez. Langile horientzat xedatutako kredituen zenbatekoak 18.bi artikuluan ezarritako gehikuntza jasoko du, karguen kopuruari eta motari dagokienez, 2017ko abenduaren 31n esleituta zegoenaren aldean.

Bi. Aurreko zenbakian jasota ez dauden Poliziaren Kidego Nazionalako funtzionarioek ordainsari hauek jasoko dituzte 2018an:

A) Dagozkion kategoria, ondore ekonomikoetarako, sailkatuta dagoen taldeari edo azpitaldeari dagozkion soldata eta hiru tekoak, lege honen 18.bost.1 artikuluan ezarritako zenbatekoan.

B) Aparteko ordainsariak; urtean bitan emango dira, eta haietako bakoitzak lege honen 18.bost.2 artikuluan finkatutako soldata eta hiru tekoak bilduko ditu, kategoriari dagozkion taldearen edo azpitaldearen arabera, bai eta hilerok jasoko den destino-osagarria ere.

Hiru tekoak eta aparteko ordainsariak balioesteari eta sortzeari dagokienez, langile horiei aplikatu beharreko araudia beteko da, eta, ordezkio moduan, Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurriari buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legea aplikatzeko eremuan dauden funtzionario publikoen araudia, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan adierazitako moduan.

C) Ordainsari osagarri finkoek eta aldizkakoek 18.bi artikuluan ezarritako ehunekoko gehikuntza jasoko dute, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenak erreferentziatzen hartuta, lege honen 18.zazpi artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

D) Produktibitate-osagarria eta ohiz kanpoko zerbitzuengatik haborokinak 22. artikuluan aplikazio-eremuko Estatuko funtzionarioentzat ezarritako arauen bidez xedatuko dira, eta Barne Ministerioak finkatuko ditu zenbatekoak, xede horietarako esleituko diren kredituen barruan. Kreditu horiek 18.bi artikuluan ezarritako gehieneko gehikuntza jasoko dute, urteko zenbatekoari dagokionez, 2017ko abenduaren 31n esleituta zeudenak erreferentziatzen hartuta.

27. artikulua. *Karrera Judizialeko eta Fiskaleko kideen, Justizia Administrazioako Letraduen Kidegoko kideen eta Justizia Administrazioaren zerbitzurako kidegoetako kideen ordainsariak.*

Bat. 2018an, lege honen 18.bi artikuluan xedatutakoari jarraituz, honako hauek izango dira karrera judizial eta fiskaleko kideen ordainsariak:

1. Karrera judizialeko eta fiskaleko ordainsari-araubideari buruzko maiatzaren 26ko 15/2003 Legearen I. eta IV. eranskinetan, hurrenez hurren, aipatzen den soldataren zenbatekoa honako hau izango da 2018an, hamabi hilabete-saritan:

	Euroak
Karrera judiziala	
Auzitegi Nazionaleko presidentea (ez Auzitegi Goreneko magistratua)	24.784,80
Auzitegi Nazionaleko sala-presidentea (ez Auzitegi Goreneko magistratua)	23.479,80
Justizia Auzitegi Nagusiko presidentea	23.926,92
Magistratua	21.269,16
Epailea	18.609,96
Karrera fiskala	
Autonomia Erkidegoko fiskal nagusia	23.926,92
Fiskala	21.269,16
Abokatu fiskala	18.609,96

2. Antzintasunagatik ordainsaria edo hirurtekoak, egoki diren kasuetan.

3. Aparteko ordainsariak abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aplikazio-eremuan jasotako funtzionarioei aplikatu beharreko araudiaren arabera sortuko dira, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren azken xedapenetako laugarrean adierazitakoari jarraituz. Aparteko ordainsari horiek urtean bi izango dira, eta, kasuan-kasuan, soldataren, antzintasunaren edo hirurtekoen hilabete-sari baten zenbatekoa izango du haietako bakoitzak, bai eta 2011rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 22ko 39/2010 Legearen X. eranskinean adierazitako zenbatekoa ere, 2017ko abenduaren 31n indarra zuten balioei erreparatuz, gehienez ere 18.bi artikuluan ezarritako ehunekoa gehituta.

4. Karrera judizial eta fiskaleko kideen ordainsari osagarriak eta ordainsari aldakor zein bereziak; halakoek 18.bi artikuluan ezarritako ehunekoko gehikuntza izango dute 2017ko abenduaren 31n indarrean zeuden aldean.

Karrera judizial eta fiskaleko kideentzako helburuen arabeko ordainsari aldakorretara zuzendutako kreditu osoa —ordainsari horiek Karrera judizial eta fiskaleko ordainsari-araubidea erregulatzen duen 15/2003 Legearen I. tituluko III. kapituluaren eta II. tituluaren daude adierazita— ezin izango da karrera judizialeko eta fiskaleko kideen ordainsari finkoen zenbateko osoaren ehunekoa 5etik gorakoa izan, hurrenez hurren.

5. Zenbaki honetan xedatutakoak ez du ezertan eragotziko aipaturiko 15/2003 Legearen 9.2 artikuluan zehaztutakoa.

Bi. Fiskaltzaren Estatutu Organikoa Arautzen duen abenduaren 30eko 50/1981 Legea aldatzen duen urriaren 9ko 24/2007 Legea garatuz, eremu-fiskaltza bateko fiskalburu izendatzen diren fiskalek, fiskaltza hori probintziako hiriburua ez den beste egoitza batean badago, Probintzia Auzitegiko atal bat dagoen tokian, Probintzia Fiskaltzaren egoitzako fiskalei dagokien populazio-taldearen irizpidearen arabera destino-osagarria jasoko dute, bai eta ordezkartzaren kontzeptuko destino-osagarria, berariazko osagarria eta Probintzia Fiskaltzako fiskalburuordeari dagozkion aparteko ordainsarietan jaso beharreko zenbatekoa ere.

Eremu-fiskaltza bateko gainerako fiskalburuek Probintzia Fiskaltzako fiskalburuordeari dagozkion berariazko osagarria jasoko dute.

Probintzia Fiskaltzako fiskalburuek eta fiskalburuordeek Probintzia Auzitegiko fiskalburuei eta fiskalburuordeei hurrenez hurren dagozkien ordainsari osagarriak eta aparteko ordainsarietan sartu beharreko zenbatekoak jasoko dituzte.

Estatuko Fiskaltza Nagusiko Idazkaritza Teknikoko fiskalburuordeak Estatuko Fiskaltza Nagusiko fiskalburuorde ikuskatzaileari dagozkion ordainsari osagarriak eta aparteko ordainsarietan sartu beharreko zenbatekoak jasoko ditu.

Estatuko Fiskaltza Nagusiko sala-fiskalei atxikitako fiskalek eta Estatuko Fiskaltza Nagusiko Laguntza Unitateko fiskalek Estatuko Fiskaltza Nagusiko Idazkaritza Teknikoko fiskalei dagokien zenbatekoa jasoko dute berariazko osagarri gisa.

Probintzia Fiskaltzako lurralde-ataletako fiskal dekanoezko fiskal koordinatzaileei dagozkien zenbatekoa jasoko dute berariazko osagarri gisa.

Espezializatutako ataletako fiskal dekanoezko fiskal dekanoei dagozkien ordainsari osagarriak eta aparteko ordainsariak jasoko dituzte.

Autonomia-erkidegoko Fiskaltzetako bigarren kategoriako fiskalek, koordinatzaileak ez direnek, baita Fiskaltza horietako lurralde-ataletakoek ere, autonomia-erkidegoko Fiskaltzako fiskalburuordeei dagozkien destino-osagarria eta aparteko ordainsarian jaso beharreko zenbatekoa jasoko dituzte, Fiskaltza organikoki bitan banatuta ez duten autonomia-erkidegoetan izan ezik (Autonomia Erkidegoko Fiskaltza eta egoitza duen probintziako Probintzia Fiskaltza).

Hiru. 2018an, lege honen 18.bi artikuluan xedatutakoari jarraituz, honako hauek izango dira Justizia Administrazioaren Letraduen Kidegoko eta Justizia Administrazioaren zerbitzurako Kidegoetako kideen ordainsariak:

1. Soldata, ondorengo xehetasunen arabera, eta, egoki bada, antzintasunagatik nahiz hirurtekoengatik dagozkien ordainsaria.

a) Justizia Administrazioaren Letraduen Kidegoko kideen soldatak honako zenbateko hauek izango ditu 2018an, hamabi hilabete-saritan:

	Euroak
Justizia Administrazioaren letraduak, lehen kategoriakoak	18.609,96
Justizia Administrazioaren letraduak, bigarren kategoriakoak	17.688,36
Justizia Administrazioaren letraduak, hirugarren kategoriakoak	16.434,12

b) Justizia Administrazioaren zerbitzurako kidegoetako funtzionarioen soldataren zenbatekoa honako hau izango da 2018an, hamabi hilabete-saritan:

	Euroak
Toxikologiaren eta Auzitegi Zientzien Institutu Nazionaleko auzitegi-mediku eta profesionalak	15.951,72
Prozesu- eta administrazio-kudeaketa	13.774,44
Prozesu- eta administrazio-izapidetzea	11.321,52
Laguntza judiziala	10.269,12
Toxikologiaren eta Auzitegi Zientzien Institutu Nazionaleko teknikari espezialistak	13.774,44

	Euroak
Toxikologiaren eta Auzitegi Zientzien Institutu Nazionaleko laborategiko laguntzaileak	11.321,52

c) Abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoak, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatu zuenak, iraungitako Justizia Administrazioaren zerbitzura ari diren Kidegoetan 2004ko urtarrilaren 1a baino lehen osatutako hiru urtekoen zenbatekoak honako hauek izango dira 2018an, hamabi hilabete-saritan:

	Euroak
Ofizialen kidegoa.	551,52
Laguntzaileen kidegoa.	425,28
Agente judizialen kidegoa.	367,20
Teknikari espezialisten kidegoa.	551,52
Laborategiko laguntzaileen kidegoa.	425,28
Laborategiko agenteen kidegoa (iraungitzear).	367,20
7.000 biztanletik gorako udalerrietako bake-epaitegietako idazkarien kidegoa (iraungitzear).	620,52

Auzitegiko medikuen eta medikuntza-teknikarien kidegoetako langileek 1995eko urtarrilaren 1a baino lehen osatutako hiru urtekoak 665,04 eurokoak izango dira urtean, 2018rako, hamabi hilabete-saritan.

2. Aparteko ordainsariak abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aplikazio-eremuan jasotako funtzionarioei aplikatu beharreko araudiaren arabera sortuko dira, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren azken xedapenetako laugarrenean adierazitakoari jarraituz. Aparteko ordainsari horiek urtean bi izango dira, eta, kasuan-kasuan, soldataren, antzinatearen edo hiru urtekoen hilabete-sari baten zenbatekoa izango du haietako bakoitzak, bai eta 2011rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 22ko 39/2010 Legearen XI. eranskinean adierazitako zenbateko osagarria ere, 2017ko abenduaren 31n indarra zuten balioei erreparatuz, gehienez ere 18.bi artikuluan ezarritako ehuneko gehituta.

3.a) Justizia Administrazioako Letraduen Kidegoko funtzionarioei atxikitako lanpostuetarako osagarri orokorra, abenduaren 30eko 2033/2009 Errege Dekretua aplikatu beharreko kasuetan, honako zenbateko hauen arabera izango da 2018an, hamabi hilabete-saritan adierazita:

	Euroak
I. motako lanpostuak	16.677,84
II. motako lanpostuak	14.245,56
III. motako lanpostuak	13.601,40
IV. motako lanpostuak	13.498,68
V. motako lanpostuak	9.761,16

Aurreko paragrafoan azaldutako funtzionarioen ordainsari osagarri finko eta aldizkakoak 18.bi artikuluan ezarritako ehunekoan handituko dira, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenak erreferentziazat hartuta, lege honen 18.zazpi artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

3.a) zenbaki honetako lehenengo paragrafoan adierazitako postuez bestelakoak betetzen dituzten Justizia Administrazioako Letraduen Kidegoko kideek irailaren 5eko 1130/2003 Errege Dekretuan ezarritako ordainsari orokor, aldakor eta bereziak jasoko dituzte, eta 18.bi artikuluan ezarritako ehuneko gehituko zaie, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenak erreferentziazat hartuta.

3.b) Justizia Administrazioaren zerbitzura ari diren kidegoetako funtzionarioei atxikitako lanpostuetarako osagarri orokorraren zenbatekoa, artikuluko honetako hiru.1.b) zenbakian adierazitakoa, uztailaren 20ko 1033/2007 Errege Dekretuan xedatutakoarekin bat, honako hau izango da 2018an, hamabi hilabete-saritan:

	Mota	Azpimota	Euroak
Prozesu- eta administrazio-kudeaketa eta Toxikologiako eta Auzitegi Zientzietako Institutu Nazionalako teknikari espezialistak	I	A	4.124,04
	I	B	4.926,36
	II	A	3.797,16
	II	B	4.599,48
	III	A	3.633,84
	III	B	4.436,16
	IV	C	3.470,52
	IV	D	3.634,20
Prozesu- eta administrazio-izapidetzea eta Toxikologiako eta Auzitegi Zientzietako Institutu Nazionalako laborategiko laguntzaileak	I	A	3.579,48
	I	B	4.381,92
	II	A	3.252,84
	II	B	4.055,16
	III	A	3.089,40
	III	B	3.891,72
	IV	C	2.926,08
	Laguntza judiziala	I	A
I		B	3.614,16
II		A	2.484,72
II		B	3.287,28
III		A	2.321,40
III		B	3.123,84
IV		C	2.158,08
Toxikologiaren eta Auzitegi Zientzien Institutu Nazionalako auzitegi-mediku eta profesionalak		I	
	II		19.223,16
	III		18.971,76
Prozesu- eta administrazio-kudeaketako eskala, 7.000 biztanletik gorako udalerrietako epaitegietako idazkarien kidegotik datozenak (iraungitzeaz).			5.266,20

Aurreko paragrafoan adierazitako funtzionarioen gainerako ordainsari osagarri orokor, aldakor eta bereziek 18.bi artikuluan ezarritako ehunekoko gehikuntza jasoko dute, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenak erreferentziatzat hartuta, lege honen 18.zazpi artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

4. Presidentzia Ministerioaren maiatzaren 18ko 1230/2009 Aginduaren bidez argitaratutako 2009ko maiatzaren 8ko Ministro Kontseiluaren akordioaren bigarren paragrafoan ordainsari gehigarri osagarriaren kontzeptuan aitortutako kopuruak jasota daude aurreko 3.a) eta 3.b) zenbakietan aipatutako ordainsari osagarrietan.

Lau. Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 624. artikuluan adierazitako funtzionarioei dagozkien oinarriko ordainsariak eta ordainsari osagarriak 18.bi artikuluan ezarritako ehunekoko gehikuntza izango dute 2018an, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeuden aldean, lege honen 18.zazpi artikuluan xedatutakoa ezertan eragotzi gabe.

Bost. 2018an, honako hauek izango dira Botere Judizialeko eta Fiskaltzako kideen ordainsariak:

1. Auzitegi Goreneko presidenteordea:

	Euroak
Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa)	30.856,56
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak)	89.727,96
Guztira	120.584,52

Auzitegi Goreneko sala-presidenteak eta Auzitegi Nazionaleko presidentea (Auzitegi Goreneko magistratuak):

	Euroak
Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa)	28.492,52
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak)	85.173,84
Guztira	113.666,36

Auzitegi Goreneko magistratuak eta Auzitegi Nazionaleko sala-presidenteak (Auzitegi Goreneko magistratuak):

	Euroak
Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa)	26.993,12
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak)	83.715,48
Guztira	110.708,60

2. Estatuko fiskal nagusia: 117.869,16 euro, hamabi hilabete-saritan jasotzekoak, aparteko ordainsariak jasotzeko eskubiderik gabe.

Auzitegi Goreneko fiskalburuordea:

	Euroak
Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa)	28.492,52
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak)	85.173,84
Guztira	113.666,36

Fiskalburu ikuskatzailea, Konstituzio Auzitegiaren aurreko Fiskaltzako fiskalburua eta Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzako fiskalburua:

	Euroak
Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa)	26.993,12
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak)	85.173,84
Guztira	112.166,96

Kontuen Auzitegiko Fiskaltzako fiskalburuak, Estatuko fiskal nagusiaren Idazkaritza Teknikoko eta Laguntza Unitateko fiskalburuak, Fiskaltza berezietako fiskalburuak (drogaren, ustelkeriaren eta kriminaltasun antolatuen aurkakoak) eta Auzitegi Goreneko salako fiskalak:

	Euroak
Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa)	26.993,12
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak)	83.715,48

	Euroak
Guztira	110.708,60

3. Zenbaki honetako aurreko puntuetan aipatutako Botere Judizialeko eta Fiskaltzako kideek —Estatuko fiskal nagusia izan ezik— antzinasunagatik edo hirurtekoengatik dagokien ordainsaria jasoko dute, hamalau hilabete-saritan. Halaber, urtean bi ordainsari jasoko dituzte, ekainean eta abenduan. Hona hemen zenbatekoa:

Botere Judizialeko eta Fiskaltzako zenbait kide	Zenbatekoa, eurotan
Auzitegi Goreneko presidenteordea	7.477,33
Auzitegi Goreneko sala-presidenteak eta Auzitegi Nazionaleko presidentea (Auzitegi Goreneko magistratuak)	7.097,82
Auzitegi Goreneko magistratuak eta Auzitegi Nazionaleko sala-presidenteak (Auzitegi Goreneko magistratuak)	6.976,29
Auzitegi Goreneko fiskalburuordea	7.097,82
Fiskalburu ikuskatzailea, Konstituzio Auzitegiaren aurreko Fiskaltzako fiskalburua eta Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzako fiskalburua	7.097,82
Kontuen Auzitegiko Fiskaltzako fiskalburuak, Estatuko fiskal nagusiaren Idazkaritza Teknikoko eta Laguntza Unitateko fiskalburuak, Fiskaltza berezietako fiskalburuak (drogaren, ustelkeriaren eta kriminaltasun antolatuen aurkakoak) eta Auzitegi Goreneko salako fiskalak	6.976,29

Abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aplikazio-eremuan jasotako funtzionarioei aplikatu beharreko aparteko ordainsariei buruzko araudiaren arabekoak izango dira zenbateko horiek.

4. Estatuko fiskal nagusiak, zenbaki honen 2. puntuan adierazitako zenbatekoaz gain, antzinasunagatik edo hirurtekoengatik dagozkion ordainsariak jasoko ditu, 14 hilabete-saritan, bai eta 2008rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 26ko 51/2007 Legearen 32.lau artikuluko 3. zenbakiaren bigarren paragrafoan xedatutakotik eratorritako ordainsariak ere, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenak, 18.bi artikuluan ezarritako ehunekoa gehituta.

Abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aplikazio-eremuan jasotako funtzionarioei aplikatu beharreko aparteko ordainsariei buruzko araudiaren arabekoak izango dira zenbateko horiek.

Estatuko fiskal nagusiak, zenbaki honen 2. puntuan adierazitako zenbatekoaz gain, antzinasunagatik edo hirurtekoengatik dagozkion ordainsariak jasoko ditu, 14 hilabete-saritan, bai eta 2008rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 26ko 51/2007 Legearen 32.lau artikuluko 3. zenbakiaren bigarren paragrafoan xedatutakotik eratorritako ordainsariak ere, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenak, 18.bi artikuluan ezarritako ehunekoa gehituta.

5. Zenbaki honetako 1. eta 2. puntuetan adierazitako Botere Judizialeko eta Fiskaltzako kideen soldata eta ordainsari osagarriak puntu horietan bertan eta zenbaki bereko 3. eta 4. puntuan, hurrenez hurren, finkatutakoak izango dira; ondore horietarako, ez zaie aplikatuko Karrera Judizialeko eta Fiskaleko Ordainsariak arautzen dituen maiatzaren 26ko 15/2003 Legea, baina eskubidea izango dute dagozkien ordainsari bereziak, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeuden zenbatekoekin, jasotzeko, 18.bi artikuluan ezarritako ehunekoa gehituta.

Sei. Artikulu honetan bildutako langileek hirurtekoak dauzkatenean aitortuta lege honen 18. artikulua bost zenbakian ezarritakoaren mende dauden Kidego edo Eskaletan, egoki izanez gero hirurtekoen edo antzinasunaren aparteko ordainsariak jasotzeko, kontzeptu horien hilabete-sari arrunt baten zenbatekoan, zenbateko bereko

hamalau hilabete-saritan banatu ahal izango da aipatutako Kidego edo Eskalatan aitortutako hiru urtekoen (eta/edo antzinasunaren) urteko zenbateko osoa, hamabi hilabete-sariri dagokien hiru urtekoen (eta/edo antzinasunak) gehi hiru urtekoengatiko (eta/edo antzinasunagatiko) aparteko ordainsariek osatuta. Kasu horretan, honako hauek izango dira urteko zenbatekoak, hamabi hilabete-sari arruntetan, gehi aparteko bi ordainsaritan:

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren taldea/azpitaldea	Hiru urtekoak – Euroak
A1	584,68
A2	484,76
B	433,98
C1	374,20
C2	259,34
E (30/1984 Legea) eta profesionalen multzoak (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua).	195,44

28. artikulua. *Estatutupeko langileen eta Gizarte Segurantzako estatutupekoak ez diren langileen ordainsariak.*

Bat. 2018an, Gizarte Segurantzaren Administrazio funtzionarioek, Estatuko Administrazio Orokorreko gainerako langileekin jada homologatuta, lege honen 22. artikuluan xedatutako ordainsariak jasoko dituzte.

Bi. 2018an, Osasunaren Institutu Nazionaleko estatutupeko langileen ordainsariei buruzko irailaren 11ko 3/1987 Errege Lege Dekretuaren aplikazio-eremuan dauden langileek lege honen 22.bat.A), B) eta C) artikuluan kontzeptu horietarako zehaztutako zenbatekoetan jasoko dituzte oinarrizko ordainsariak eta destino-osagarria, ezertan eragotzi gabe aipaturiko errege lege-dekretuaren bigarren xedapen iragankorreko bi zenbakian ezarritakoa eta aipaturiko 22.bat artikuluan C) letran finkatutako destino-osagarria hamalau hilabete-saritan jasotzea.

Aipatutako estatutupeko langileei lege honen 22.bat.B) artikuluan ezarritakoa aplikatzeko, aparteko ordainsari bakoitzari dagokion destino-osagarriaren zenbatekoa ere hamalau hilabete-saritan emango da. Zenbateko hori 22.bat.C) artikuluan adierazitako mailen arabera kopuruen hamabirena izango da.

Langile horiei dagozkien berriazko nahiz etengabeko arretagatiko osagarrien zenbatekoak 18.bi artikuluan ezarritako gehikuntza jasoko dute, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenak erreferentziaz hartuta, lege honen 18.zazpi artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

3/1987 Errege Lege Dekretuaren 2.hiru.c) artikuluan, hirugarren xedapen iragankorrean eta berau garatzeko emandako gainerako arauetan adierazitako irizpideen arabera zehaztuko da produktibitate-osagarriaren zenbateko indibiduala.

Hiru. 2018an, artikulua honen aplikazio-eremuko gainerako funtzionarioen eta estatutupeko langileen ordainsariek 18.bi artikuluan ezarritako gehikuntza jasoko dute, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean.

III. KAPITULUA

Langile aktiboen araubidearen alorreko beste xedapen batzuk

29. artikulua. *Ohiz kanpoko diru-sarrerak jasotzeko debekua.*

Lege honen aplikazio-eremuko enplegatu publikoek, zerga-araubidearen mende daudenak kenduta, ezin izango dute Administrazioari edo edozer botere publikori dagozkion tributuen, komisioen edo diru-sarreraren partaidetzarik jaso edozer zerbitzu edo jurisdikzioren

ordainetan, ez eta edozer partaidetza edo saririk ere ezarritako isunetan, araudian haiei egotzita egonik ere; hala, dagokien ordainsari-araubidean zehaztutako ordainsariak soilik jasoko dituzte, ezertan eragotzi gabe bateraezintasun-sistema aplikatzeak dakarrena, eta betetako lan edo karguagatik etxebizitza edukitzeari buruzko berariazko araudian xedatutakoa.

30. artikulua. *Sariak, gurutzeak, dominak eta mutilazio-pentsioak.*

Bat. 2018an, sari, gurutze, domina eta elbarri-pentsioengatik jasoko diren zenbatekoek 18.bi artikuluan ezarritako gehikuntza izango dute, 2017ko abenduaren 31n baietsita zeudenak erreferentziatzen hartuta.

Bi. San Fernandoren Gurutze Ohoratua eta banakako Domina Militarra euren legeria bereziaren bidez eraenduko dira.

Hiru. San Hermenegildoren Errege Orden Militarren erregelamendua onartzen duen ekainaren 23ko 1189/2000 Errege Dekretuan xedatutakoaren bidez eraenduko dira Konstantziarako Gurutzea eta San Hermenegildoren Errege Orden Militarren kategoriak.

31. artikulua. *Beste arau komun batzuk.*

Bat. Administrazioko kontratupeko langileek, Tokiko Osasun Kidegoetako funtzionarioek, eta 2017ko ordainsariak 3/2017 Legearen (2017rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legea, abenduaren 27koa) III. tituluan orokorrean ezarritakoekin bat etorri ez eta lege honen titulu berean berariaz ezarritakoak aplikatu behar ez zaizkien langileek 2018an ere jasoko dituzte 2017ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariak, 18.bi artikuluan ezarritako ehunekoa gehituta.

Bi. Estatu Administrazio Orokorrean, bere erakunde autonomoetan eta estatu-agentzietan, funtzionarioen bat betetzen ari den lanpostuari dagokion ordainsari-araubideaz bestelako batera atxikita egonez gero, funtzionario horrek betetzen ari den lanpostuari dagozkion ordainsariak jasoko ditu; aurrez, oinarritzko ordainsariak atxikiko zaizkio, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak, Aurrekontu eta Gastuen eta Funtzio Publikoaren estatu idazkaritzen bitartez, baimenduta, interesa duten ministerio-sailen proposamenari jarraituz.

Aurreko paragrafoan adierazitako atxikipenaren ondoretarako, baimena eman ahal izango da antzinatasun-ordainsariaren zenbatekoa funtzionarioaren jatorrizko ordainsari-araubidearen arabera izan dadin.

Hiru. Zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainen zenbatekoa 2017an indarrean zegoen berbera izango da.

32. artikulua. *Kontratupeko langileen eta funtzionarioak ez diren ordainsariak finkatzeko edo aldatzeko baldintzak.*

Bat. Honako erakunde hauetako lan-kontratadun langileen eta funtzionarioak ez diren ordainsariak zehazteko edo aldatzeko, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren aldeko txostena beharko da:

- a) Estatu Administrazio Orokorra eta haren erakunde autonomoak.
- b) Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileak eta zerbitzu erkideak.
- c) Estatu-agentziak, beren berariazko araudiaren arabera.
- d) Gainerako enpresa-entitate publikoak eta gainerako organismo zein erakunde publikoak, Ordainsarien Ministerioarteko Batzordeak horretarako ezarritako baldintzak eta prozedurak betez, haien berariazko ezaugarriak aintzat hartuta.

Bi. Honako haiek izango dira funtzionario ez diren langileen ordainsari-baldintzak zehazten edo aldatzen dituzten jarduketak:

- a) Lanpostu berrien ordainsariak zehaztea.

b) Aurreko bat zenbakian adierazitako organismoek hitzarmen kolektiboak, akordioak edo gisa horretako agiriak sinatzea, bai eta horien berrikuspenak, eranskinak edo luzapenak ere.

c) Estatuko Administrazioako lan-kontratudun langileentzako hitzarmen bakarra eta sektoreko hitzarmen kolektiboak aplikatzea, bai eta horien berrikuspenak, eranskinak edo luzapenak ere.

d) Ordainsariak banakako kontratu bidez finkatzea, langile finkoak edo epe jakin baterako kontratatutakoak izan, betiere hitzarmen kolektibo bidez guztiz edo zati batez araututa ez badaude; horretatik kanpo geratzen dira izaera bereziko lan-harremanari lotutako aldi baterako langileak, lan-harreman hori araututa baitago urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 2. artikuluan 1. zenbakiaren e) letran. Nolanahi ere, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari azken langile horien ordainsariei buruzko informazioa helarazi beharko zaio. Salbuespena izango da, halaber, martxoaren 5eko 451/2012 Errege Dekretuak, enpresa-sektore publikoko eta beste entitate batzuetako arduradun eta zuzendari nagusien ordainsari-erregimena arautzen duenak, adierazitako ordainsariak finkatzea, horretarako aipaturiko arauan xedatutakoa beteko baita.

e) Alde bakarreko edonolako soldata-hobekuntzak ematea, banaka edo kolektiboki, nahiz eta funtzionario publikoen ordainsari-erregimenaren aplikazioa hedatzearen ondorio izan.

f) Kanpoan kontratatutako langileei dagozkien ordainsariak erabakitzea.

Hiru. Artikulu honen bat zenbakian aipatutako txostenak a), b) eta c) letretan adierazitako organismo, entitate eta agentzia guztietan izango du eragina, bai eta d) letran adierazitakoetan ere, Ordainsarien Ministerioarteko Batzordeak erabakitzen duen moduan. Txostena honako puntu hauetan zehaztutako prozedurari jarraituz emango da, eta jarraian adierazitako irismena izango du:

1. Eraginpeko organismoek, hitzarmen kolektiboak edo banakako kontratuak onartu edo sinatu baino lehen, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari igorriko diote dagokion proiektua, alderdi ekonomiko guztien balioespenarekin batera.

2. Hitzarmen kolektibo, akordio eta antzeko tresnei buruzko proiektuen kasuan, gehienez ere hamabost eguneko epean bideratuko da txostena, proiektua eta balioespena jasotzen diren egunetik kontatzen hasita. Txosten horrek urte korronteko zein ondorengo ekitaldietako gastu publikoan zuzeneko nahiz zeharkako ondorioak dauzkaten alderdi guztiak jasoko ditu, eta, bereziki, dagokion soldata-masa zehazteari eta haren hazkundera kontrolatzeari dagokionez; betiere, lege honen 23. artikuluan xedatutakoa ezertan eragotzi gabe.

Lau. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak finkatuko eta, hala badagokio, eguneratuko ditu atzerrian jarduten duten lan-kontratudun langileen ordainsariak, herrialde bakoitzeko inguruabar espezifikoak aintzat hartuta.

Bost. Arlo honetan hartutako akordioak erabat deusezak izango dira, txostena izapidetu ez bada edota ezezko txosten baten kontra hartu badira; erabat deusezak izango dira ondorengo ekitaldietarako soldata-gehikuntzak eragiten dituzten itunak ere, etorkizuneko Estatuaren Aurrekontu orokorretako legeek zehaztutakoaren aurkakoak izanez gero.

Artikulu honetan ezarritako baldintzak bete gabe, ezin izango da baimendu ordainsariak aplikatzeak eragindako gasturik.

Sei. Aurreko zenbakietan ezarritakoa hala izanik ere, honako hauen kasuan Enpresa Publikoen Negoziazio Kolektiboaren Jarraipen Batzordearen nahitaezko txostena beharko da —Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzak zuzendua—, Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Ordezko Batzordeak ezartzen duenarekin bat: Estatuko merkataritza-sozietateak, enpresa-entitate publikoak, Estatuko sektore publikoko fundazioak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 120. artikuluan ezarritakoaren arabera Estatuko sektore publikoari atxikita dauden partzuergoak, Gizarte

Segurantzarekin elkarlanean jarduten duten mutualitateak eta horien zentro mankomunatuak, eta zuzenbide publikoko beste estatu-entitate batzuk.

Arlo honetan hartutako akordioak erabat deusezak izango dira, txostena izapidetu ez bada edo Enpresa Publikoen Negoziazio Kolektiboaren Jarraipen Batzordearen txostenaren kontra hartu badira.

Espainiako Bankuak honako hauen berri emango dio, aldez aurretik, Enpresa Publikoen Negoziazio Kolektiboaren Jarraipen Batzordeari: hitzarmen edo akordio kolektibo baten negoziazioa hasi dela, langileen ordezkariari helaraziko zaien edozein akordio-proposamen, eta adostutako hitzarmen edo akordioak.

33. artikulua. *Kontratupeko langileak inbertsio-kredituen kontura kontratatzea.*

Bat. Ministerio-sailek, erakunde autonomoek, estatu-agentziek, Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileek eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak eta Gizarte Segurantzaren Informatika Kudeatzailetzak aldi baterako langileak kontratatu ahal izango dituzte, obrak egiteko edo zerbitzuak emateko, erakunde bakoitzari dagozkion inbertsio-kredituen kontura, betiere 19.bi artikuluan aipatutako baldintzak eta honako baldintza hauek betez gero:

- a) Kontratuaren xedea obrak zuzenean gauzatzea, Estatuaren kontratuen legedia aplikatuz, edota inbertsio-izaera duten zerbitzuak ematea izatea.
- b) Obra edo zerbitzu horiek Estatuaren Aurrekontu Orokorretan aurreikusita eta onartuta dauden inbertsioekin lotuta egotea.
- c) Obra edo zerbitzu horiek plantillako langile finkoen bidez betearaztea ezinezkoa izatea, eta aurrekontu-kredituan langileak kontratatzeko behar den besteko zuzkidura ez egotea.

Bi. Kontratazioak aurrekontu-ekitaldia gainditu ahal izango du, obra edo zerbitzuek gainditu egin behar dutenean ekitaldi hori, eta urte anitzeko inbertsio-proiektuen barruan badaude; horretaz gain, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorren 47. artikuluan edota Estatuaren Aurrekontu Orokorren kasuan kasuko legean haientzat ezarritako baldintzak ere bete beharko dituzte.

Hiru. Kontratu horiek formalizatu baino lehen, Estatuko Abokatutzak aztertu egin beharko ditu dagokion sailean, organismoan edo entitatean, edota, hala dagokionean, Gizarte Segurantzaren Administrazioako letraduak aztertuko ditu; bereziki, erabilitako kontratazio mota egokia den adieraziko du, eta kontratuaren klausulak lan-legeriak zehaztutako baldintzekin eta formaltasunekin bat ote datozen.

Lau. Beharrezkoa den kasuetan, artikulua honetan araututako kontratuak aldez aurretik fiskalizatuko dira, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorren 152. artikulutik 156. artikulura bitartean xedatutakoaren arabera. Ondorio horietarako, inbertsio-kredituak egokiak izango dira aldi baterako langileak kontratatzeko, aurrekontu-kontzeptuan xede horretarako berariaz esleitutako nahikoa kreditu ez baldin badago.

Kontu-hartzeko eginkizunik ez duten Estatuko erakunde publikoetan, kontratu horiek egiteko, dagokion ikuskatzaile eskuordetuak aldeko txostena eman beharko du. Txosten horretan, adierazi beharko du dagokion kapituluan behin-behineko langileak kontratatzea xedatutako aurrekontu-kontzeptuan ez dagoela krediturik. Erakunde autonomoa edo enpresa-entitate publikoa ez badago txostenarekin ados, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministeriora bidali ahal izango du espedientea, ebatzi dezan.

34. artikulua. *Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak sektore publikoaren zerbitzura jarduten duten langileen kostuen arloan duen eskumena, negoziazio kolektiboaren eremuan.*

Gutziz eraginkorrak izan daitezten ministerio-sailen, organismoen, estatu-agentzien, enpresa-entitate publikoen eta Estatuko sektore publikoaren gainerako erakunde publikoen, Estatuko merkataritza-sozietateen, Estatuko sektore publikoko fundazioen eta

nagusiki Estatuko sektore publikoaren partaidetza duten partzuergoen aurrekontuetako langile-gastuen kapitulari egozteko gastuekin zerikusia duten akordio, hitzarmen, itun edo negoziazio kolektiboko beste edozein antzeko tresna, bai eta horiek betetzeko edo garatzeko hartzen diren neurriak ere, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak aldeko txostena egin beharko du aurrez, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzako titularraren bitartez; hala, erabat deusezak izango dira txosten hori jaso gabe egiten direnak. Adierazitako akordio, hitzarmen, itun, tresna zein neurriek ezin izango dute eragin, zuzenean edo zeharka, langile-kostuen arloko gastu publikoa handitzea eta/edo ordainsariak handitzea, lege honen 18.bi artikuluan baimendutakoaz gaindi.

IV. TITULUA

Pentsio publikoak

I. KAPITULUA

Pentsioak goratzea

35. artikulua. *Pentsioak goratzeko indizea.*

Gizarte Segurantzako sistemak ordaindutako pentsioak eta Estatuko Klase Pasiboenak oro har ehuneko 0,25 igoko dira 2018an, lege honetako dagozkion artikuluetan adierazitako moduan.

II. KAPITULUA

Estatuko Klase Pasiboen Araubideko pentsioen eta gerrako pentsio berezien hasierako zehaztapena egitea

36. artikulua. *Estatuko Klase Pasiboen Araubideko pentsioen hasierako zehaztapena.*

Bat. Artikulu honetan xedatutakoa Estatuko Klase Pasiboen Araubidearen mende dauden langileek euren alde edota familiaren alde sortutako ohiko pentsioei eta ohiz kanpokoei aplikatuko zaie. Araubidearen mende dauden langileak ondorengo zerrendan ageri dira, dagokien legedi arautzailearen arabera multzokatuta:

1. Honako langile hauei aplikatzen zaie Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bateginak, apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak, I. tituluaren ezarritakoa:

a) Estatuko, justiziako, gorte nagusietako eta legedi arautzaileak horrela xedatzen duen Estatuko edo konstituzioko beste organo batzuen administrazioko karrerako funtzionario zibilei, autonomia erkidegoetara eskualdatutakoei, bai eta karrerako langile militarren, langile militar osagarriei eta erretiro-adinera arte indar armatuetan egoteko eskubidea duten tropako militar eta marinel profesionaleko eskaletakoei, betiere 1984ko abenduaren 31ren ostean administrazio-egoeran badaude edo egun hori baino lehen erretiroa hartu ez badute.

b) 1986ko urtarrilaren 1etik aurrera praktikak egiten aritu diren funtzionarioei, eta 1985eko urtarrilaren 1etik aurrera eskola edo akademia militarren bateko ikasle izan, eta zaldun alferrez kadete, alferrez ikasle, sarjentu ikasle edo itsaszain mailetara igo direnei.

c) 1965eko urtarrilaren 1a baino lehen izendatutako bitarteko funtzionarioei, Estatuaren Aurrekontu Orokorretan zehaztutako soldata jaso badute langileentzako partidatik, eta eskubide pasiboak eragin dituen gertakaria 1985eko abenduaren 31tik aurrera gertatu bada.

2. Honako langile hauei aplikatzen zaie 1984ko abenduaren 31n indarrean zegoen legedia, Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bateginaren II. tituluan adierazitako aldaketekin:

a) Estatuko, justiziako, gorte nagusietako eta legedi arautzaileak horrela xedatzen duen Estatuko edo konstituzioko beste organo batzuen administrazioko karrerako funtzionario zibilei, autonomia erkidegoetara eskualdatutako, bai eta karrerako langile militarren, langile militar osagarriei eta erretiro-adinera arte indar armatuetan egoteko eskubidea duten tropako militar eta marinel profesionaleko eskaletako, baldin eta 1985eko urtarrilaren 1 baino lehen hil badira, edo erretiroa hartu badute.

b) 1965eko urtarrilaren 1a baino lehen izendatutako bitarteko funtzionarioei, Estatuaren Aurrekontu Orokorretan zehaztutako soldata jaso badute langileentzako partidatik, eta eskubide pasiboak eragin dituen gertakaria 1986ko urtarrilaren 1a baino lehen gertatu bada.

Bi. Artikulu honen bat.1 zenbakian adierazitako langileek eragindako pentsioen hasierako zehaztapena egiteko, honako hartzeko arautzaile hauek hartuko dira kontuan 2018rako:

a) 1985eko urtarrilaren 1etik aurrera, kidego, eskala, lanpostu, enplegu edo administrazio-kategoriaren batean sartutako langileen hartzeko arautzaileak:

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren taldea/azpitaldea	Hartzeko arautzailea Euro urtean
A1	41.108,90
A2	32.353,74
B	28.330,94
C1	24.848,22
C2	19.659,06
E (30/1984 Legea) eta profesionalen multzoak (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua)	16.760,92

b) 1985ko urtarrilaren 1a baino lehen sartutako langileen hartzeko arautzaileak:

ESTATUKO ADMINISTRAZIO ZIBIL ETA MILITARRA

Proporzionaltasun-indizea	Hartzeko arautzailea Euro urtean
10	41.108,90
8	32.353,74
6	24.848,22
4	19.659,06
3	16.760,92

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA

Indize biderkatzailea	Hartzeko arautzailea Euro urtean
4,75	41.108,90
4,50	41.108,90
4,00	41.108,90
3,50	41.108,90
3,25	41.108,90

Indize biderkatzailea	Hartzeko arautzailea Euro urtean
3,00	41.108,90
2,50	41.108,90
2,25	32.353,74
2,00	28.330,94
1,50	19.659,06
1,25	16.760,92

KONSTITUZIO-AUZITEGIA

Kidegoa	Hartzeko arautzailea Euro urtean
Idazkari nagusia	41.108,90
Letraduak	41.108,90
Kudeatzailea	41.108,90

GORTE NAGUSIAK

Kidegoa	Hartzeko arautzailea Euro urtean
Letraduak	41.108,90
Artxibozain-liburuzainak	41.108,90
Goi-mailako aholkulariak	41.108,90
Erredaktoreak, takigrafoak eta estenotipistak	41.108,90
Teknikari-administrariak	41.108,90
Administraria	24.848,22
Atezainak	19.659,06

Hiru. Artikulu honen Bat.2 paragrafoan adierazitako langileek eragindako pentsioen hasierako zehaztapena egiteko, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera ondorio ekonomikoak izan ditzaten, honako arau hauek aplikatzearen ondorioz ateratzen diren oinarri arautzaileak aintzat hartuko dira:

a) Eragileari soldataren eta, hala badagokio, graduaren kontzeptuengatik dagokion zenbatekoa hartuko da, kidegoaren arabera edota hura sartuta dagoen kidego, karrera, eskala, plaza, enplegu edo kategoriak 1984ko abenduaren 31n esleituta duen indize biderkatzaile edo proportzionaltasun-indizearen eta administrazio-karrera mailaren arabera; horiek honakoak dira:

ESTATUKO ADMINISTRAZIO ZIBIL ETA MILITARRA

Proportzionaltasun-indizea	Maila	Maila berezia	Soldataren eta mailaren araberako zenbatekoa urtean – Euroak
10 (5,5)	8		27.558,38
10 (5,5)	7		26.800,98
10 (5,5)	6		26.043,62
10 (5,5)	3		23.771,43
10	5		23.384,71

Proporzionaltasun- indizea	Maila	Maila berezia	Soldataren eta mailaren araberako zenbatekoa urtean – Euroak
10	4		22.627,36
10	3		21.869,98
10	2		21.112,54
10	1		20.355,15
8	6		19.664,72
8	5		19.058,94
8	4		18.453,11
8	3		17.847,29
8	2		17.241,50
8	1		16.635,67
6	5		14.980,91
6	4		14.526,69
6	3		14.072,54
6	2		13.618,28
6	1	(100eko 12)	14.689,24
6	1		13.164,05
4	3		11.085,15
4	2	(100eko 24)	13.227,32
4	2		10.782,26
4	1	(100eko 12)	11.703,00
4	1		10.479,35
3	3		9.571,26
3	2		9.344,12
3	1		9.117,02

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA

Indize biderkatzailea	Soldataren araberako zenbatekoa urtean – Euroak
4,75	45.003,62
4,50	42.635,00
4,00	37.897,75
3,50	33.160,53
3,25	30.791,95
3,00	28.423,32
2,50	23.686,10
2,25	21.317,48
2,00	18.948,89
1,50	14.211,66
1,25	11.843,06

KONSTITUZIO-AUZITEGIA

Kidegoa	Soldataren araberako zenbatekoa urtean – Euroak
Idazkari nagusia	42.635,00
Letraduak	37.897,75
Kudeatzailea	37.897,75

GORTE NAGUSIAK

Kidegoa	Soldataren araberako zenbatekoa urtean – Euroak
Letraduak	24.801,76
Artxibozain-liburuzainak	24.801,76
Goi-mailako aholkulariak	24.801,76
Erredaktoreak, takigrafoak eta estenotipistak	22.775,79
Teknikari-administrariak	22.775,79
Administraria	13.716,39
Atezainak	10.849,82

b) Aurreko letran xedatutako eragiketarik ateratzen den kopuruari honako biderketa honen emaitza gehitu behar zaio: egiaztatutako hiru urtekoen kopurua bider eragileari zerbitzu emandako kidegoaren, karreraren, eskalaren, lanpostuaren, enpleguaren edo kategoriaren arabera hiru urteko bakoitzeko dagokion balioa. Hala badagokio, honako koadro hauetan esleitutako proportzionaltasun-indizeak edo indize biderkatzaileak hartuko dira kontuan:

ESTATUKO ADMINISTRAZIO ZIBIL ETA MILITARRA

Proportzionaltasun-indizea	Hiru urtekoaren unitate-balioa, urtean – Euroak
10	890,27
8	712,23
6	534,12
4	356,13
3	267,09

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA

Indize biderkatzailea	Hiru urtekoaren balio unitarioa, urteko zenbatekoan – Euroak
3,50	1.658,02
3,25	1.539,61
3,00	1.421,17
2,50	1.184,28

Indize biderkatzailea	Hirurtekoaren balio unitarioa, urteko zenbatekoan – Euroak
2,25	1.067,34
2,00	947,46
1,50	710,59
1,25	592,17

KONSTITUZIO-AUZITEGIA

Kidegoa	Hirurtekoaren unitate-balioa, urtean – Euroak
Idazkari nagusia	1.658,02
Letraduak	1.658,02
Kudeatzailea	1.658,02

GORTE NAGUSIAK

Kidegoa	Hirurtekoaren balio unitarioa, urteko zenbatekoan – Euroak
Letraduak	1.014,10
Artxibozain-liburuzainak	1.014,10
Goi-mailako aholkulariak	1.014,10
Erredaktoreak, takigrafoak eta estenotipistak	1.014,10
Teknikari-administrariak	1.014,10
Administraria	608,47
Atezainak	405,62

Lau. Artikulu honetan araututako pentsioen hileroko zenbatekoa zehazteko, aurreko paragrafoetan xedatutako arauetan eta aplikagarri den legedian oinarrituz kalkulatu den urteko zenbatekoa 14 zatitan banatuko da.

37. artikulua. *Gerrako pentsio berezien hasierako zehaztapena.*

Bat. Gerra Zibilaren ondorioz hildakoen senideen alde pentsioak, laguntza mediko-farmazeutikoa eta gizarte-laguntza aitortzeari buruzko irailaren 18ko 5/1979 Legearen babesean aitortutako pentsioen zenbatekoa ezin izango da, 2018an, Gizarte Segurantzaren sisteman 65 urtetik gorakoentzako alarguntza-pentsioen gutxieneko zenbatekoa baino txikiagoa izan, langile ez-funtzionarioek ezinduta ez dauden umezurtzen alde eragindako pentsioen kasuan izan ezik; azken horien zenbatekoa urtean 1.867,56 eurokoa izango da.

Bi. 1. Errepublikaren eremuko gudari izandako gerra-mutilatuei ekainaren 26ko 35/1980 Legearen babesean aitortutako pentsioak, kausatzaileak Indar eta Institutu Armatuak militar profesionalak ez baziren, honako hauek izango dira 2018an:

a) Elbarri-pentsioa kalkulatu da 5.079,78 euroko urteko zenbatekoari ezintasun-maila bakoitzarentzat ezarritako ehunekoak aplikatuta.

b) Oinarrizko ordainsaria, hirurtekoen ordezkiko ordainsaria, eta jaso ez diren ordainsariak konpentsatzeko ordainsari gehigarriak, guztira, 13.700,05 eurokoak izango dira urtean.

c) Gizarte Segurantzako 65 urtetik gorakoentzako alarguntza-pentsioen gutxieneko zenbateko bera izango dute senideen aldeko pentsioek, ezinduak ez dauden umezurtzen aldeko pentsioen kasuan izan ezik, haien zenbatekoa 1.867,56 eurokoa izango baita urtean.

2. Militar profesional izandako gudari ohien senideen alde 35/1980 Legearen babesean aitortutako pentsioen zenbatekoa ezin izango da, 2018an, Gizarte Segurantzaren sisteman 65 urtetik gorakoentzako alarguntza-pentsioen gutxieneko zenbatekoa baino txikiagoa izan.

Hiru. Gerrako mutilatu zibilentzako oinarritzko ordainsariari buruzko martxoaren 29ko 6/1982 Legearen babesean aitortutako pentsioek honako zenbateko hauek izango dituzte 2018an:

a) Bigarren, hirugarren edo laugarren mailako ezintasuna aitortuta daukatenen oinarritzko ordainsaria urtean 9.590,03 eurokoa izango da.

b) Senideen aldeko pentsioen zenbatekoa Gizarte Segurantzako sisteman 65 urtetik gorakoentzako ezarritako alarguntza-pentsioen gutxieneko zenbateko bera izango da.

Lau. Martxoaren 5eko 670/1976 Dekretuaren babesean gerra-mutilatuen alde aitortutako pentsioak, Aberriaren aldeko gerra-mutilatu zaldunen kidegoan sartu ezin izan zirenen kasuan, urtean 6.086,22 euroko zenbatekoari ezintasun-maila bakoitzerako finkatutako ehunekoak aplikatuta lortzen den zenbatekoa izango du 2018an.

Bost. Gerra Zibilean Indar Armatueta, Ordena Publikoko Indarren eta Errepublikako Karabineroen Kidegoko kide izan zirenen eskubideak eta emandako zerbitzuak aitortzen dituen urriaren 22ko 37/1984 Legeak II. tituluan ezarritakoaren babesean aitortutako pentsioek 2018an izango duten zenbatekoa kalkulatzeko, soldatari eta graduari dagokien zenbatekoa aplikatuko zaio aurreko 36.Hiru.a) artikuluan jasotako edukiori.

Pentsio horien gutxieneko zenbatekoak honako hauek izango dira:

a) Kausatzaileen aldeko pentsioetan, Gizarte Segurantzako sisteman ezkontidea ardurapean daukaten 65 urtetik gorakoentzako ezarritako erretiro-pentsioen gutxieneko zenbatekoa.

b) Alarguntza-pentsioetan, Gizarte Segurantzako sisteman 65 urtetik gorakoentzako ezarritako alarguntza-pentsioen gutxieneko zenbatekoa.

Sei. Artikulu honetan araututako pentsioen hileroko zenbatekoa zehazteko, aurreko zenbakietan xedatutako arauetan eta aplikatzeko den legerian oinarrituz kalkulatu den urteko zenbatekoa 12 zatitan banatuko da.

Ohiko hamabi hilabete-sariekin batera, aparteko bi hilabete-sari ordainduko dira, zenbateko berdinekoak, ekainaren 26ko 35/1980 Legearen babesean aitortutako mutilazio-pentsioetan izan ezik.

Aurreko paragrafoaren azken tartekian xedatutakoa gorabehera, mutilatuak, aipaturiko legean xedatutakoaren arabera gai gisa sailkatuta dagoenean, adierazitako aparteko ordainsariak jasotzeko eskubidea izango du.

III. KAPITULUA

Pentsio publikoen hasierako zehaztapenerako mugak

38. artikulua. *Pentsio publikoen hasierako zehaztapenerako mugak.*

Bat. 1989rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 28ko 37/1988 Legearen 42. artikuluan adierazitako pentsio publikoen hasierako zehaztapenaren ondorioz 2018an jaso beharreko zenbatekoa ezin izango da, orotara, hilean 2.580,13 eurotik gorakoa izan; dena den, titularrak dagozkion aparteko ordainsariak jasoko ditu, baina horien zenbatekoak ere muga hori bera izango du.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, pentsiodunak urtean hamalau ordainsari baino gutxiago edo gehiago jasotzeko eskubidea izanez gero —aparteko ordainsariak barne hartuta—, hilabete-muga hori egokitu egin beharko da, urtean 36.121,82 euroko zenbatekora iristeko edo zenbateko hori ez gainditzeko.

Bi. Titular batek aldi berean bi pentsio publiko edo gehiago jasotzeko eskubidea badu, pentsio horien hasierako zehaztapenaren ondorioz guztira jasoko duen zenbatekoak aurreko paragrafoan adierazitako muga berdinak izango ditu.

Horretarako, lehenik eta behin, pentsio publiko bakoitzaren zenbateko osoa zehaztuko da, eta, guztien batura hilean 2.580,13 eurotik gorakoa izanez gero, proportzionalki murriztuko dira, zenbateko horretara egokituko.

Hala eta guztiz ere, pentsioen bat abenduaren 28ko 37/1988 Legearen 42.1.c) artikuluan adierazitako funtzionarioen mutualitateetako baten funts bereziaren konturakoa izanez gero, murrizketa edo ezabapena pentsio horren zenbateko osoari aplikatuko zaio lehentasunez, eta, ahal izanez gero, aitortzeko garaian. Beharrezkoa izanez gero, ondoren gainerako pentsioak proportzionalki murriztuko dira, guztien baturak gehienezko muga gainditu ez dezan.

Hiru. Pentsio publiko baten hasierako zehaztapena beste pentsio publiko bat edo batzuk jasotzen ari den pertsona baten alde egiten denean, pentsio guztien zenbateko osoen baturak artikuluko honen Bat paragrafoan ezarritako mugak gainditzen baditu, aipatutako muga gainditzen duen zenbatekoa murriztuko da, edo pentsio berriaren zenbateko osoari kenduko zaio.

Hala eta guztiz ere, pentsio berriak, honako edo aurreko ekitaldi ekonomikoetan errenta salbuetsiaren izaera badu, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duen legerian xedatutakoaren arabera, interesdunak lehen eragindako pentsio publikoak minoratu edo kendu egingo dira, titularrak hala eskatuz gero. Kasu horietan, erregularizazioaren ondorioek eskaera egindako urteko urtarrilaren 1era arte egingo dute atzera, edota pentsio berriaren lehenengo ordainketaren datara arte, data hori gerokoagoa izanez gero.

Lau. Aurreko paragrafoetan adierazitako hasierako zehaztapena egitean, erakunde edo entitate eskudunek ezin badute jakin onuradunari dagozkion beste pentsio batzuen zenbatekoa eta izaera zein diren, hasierako zehaztapena behin-behinekoa izango da, dagozkion egiaztapenak egin bitartean.

Behin-behineko zehaztapenak behin betiko erregularizatzean, pentsioaren titularrari, hala badagokio, bidegabeki jasotakoa itzul dezala eskatu beharko zaio. Itzultze hori pentsioaren hurrengo hilabete-sarien kontura egin ahal izango da.

Bost. Artikulu honen bi eta hiru zenbakietan adierazitako hasierako zehaztapenaren zenbatekoa minoratu edo kendu ondoren, aldatu egiten badira, edozein inguruabar dela eta, titularrak jasotzen dituen gainerako pentsio publikoen zenbatekoa edo osaera, egindako mugaketak berraztertu egingo dira, ofizios edota interesdunak hala eskatuta. Berrikuspen horrek aldaketa egin den hilabetearen hurrengoaren lehenengo egunetik hasita izango ditu eraginak.

Beti ere, pentsio publikoak aldi berean jasotzean egindako hasierako zehaztapenak berraztertu egin beharko dira aldian behin.

Sei. Arau mugatzaileak aplikatzearen ondorioz pentsio publikoen hasierako zehaztapenen zenbatekoa minoratzeak edo ezabatzeak ez ditu kaltetuko pentsioa aitortzearekin batera baietsitako beste eskubideak.

Zazpi. Artikulu honetan xedatutako gehienezko muga ez zaie aplikatuko 2018an eragindako pentsio hauei:

a) Ekintza terroristen ondorioz sortutako Gizarte Segurantzako sistemako eta Estatuko Klase Pasiboen Araubideko ohiz kanpoko pentsioei.

b) Zerga, Administrazio eta Gizarte Alorreko Neurriei buruzko 62/2003 Legeak, abenduaren 30ekoak, berrogeita hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren babesean aitortutako ohiz kanpoko pentsioei.

c) Atentatu terroristen ondorioz eragindako ohiz kanpoko pentsioei, ekainaren 23ko 6/2006 Errege Lege Dekretuaren babesean aitortutakoei.

Zortzi. Pentsio publikoen hasierako zehaztapena egitean titular batek aurreko zenbakian adierazitako pentsio bat edo batzuk edota terrorismo-ekintzen ondorioz aitortutakoak jasotzen baditu, uztailaren 10eko 851/1992 Errege Dekretuak, terrorismo-ekintzen ondoriozko aparteko pentsio batzuk arautzen dituenak, II. tituluan xedatutakoaren arabera Gizarte Segurantzako edozein araubide publikotan pentsioa jasotzeko eskubiderik ez dutenen alde, artikulua honetan adierazitako arau mugatzaileak terrorismo-ekintzen ondorio ez direnei soilik aplikatuko zaizkie.

IV. KAPITULUA

Pentsio publikoen balioak goratzea eta aldatzea

39. artikulua. *Pentsio publikoen balioak handitzea eta aldatzea.*

Bat. Gizarte Segurantzaren modalitate kontributiboan ordaindutako pentsioek, bai eta Estatuko Klase Pasiboen pentsioek ere, ehuneko 0,25eko igoera izango dute 2018an, lege honen 35. artikuluan xedatutakoari jarraituz; hala ere, horrek ez ditu ezertan eragotziko kapitulu honen hurrengo artikuluetan jasotako salbuespenak, ez eta aurreko 37. artikuluan Gerra Zibileko legeria bereziaren babesean aitortutako pentsioei dagokienez ageri diren berme-zenbatekoei ere.

1984ko abenduaren 31n indarrean zegoen legeriaren babesean 2018an sortutako Estatuko Klase Pasiboen erretiro- eta alarguntza-pentsioen hasierako zenbatekoa, ekitaldi ekonomiko honetan era horretako pentsioetarako ezarritako oinarri arautzaileen arabera kalkulaturik, 2004, 2006, 2007 eta 2008rako ezarritako ehuneko 1eko eta 2ko portzentajea aplikatuz zuzenduko da, dagokionaren arabera; 2004, 2006, 2007 eta 2008rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 61/2003, abenduaren 29ko 30/2005, abenduaren 28ko 42/2006 eta abenduaren 26ko 51/2007 legeen bosgarren eta seigarren xedapen gehigarrien Lau zenbakian ezarrita dago portzentaje hori, bai eta hamargarren xedapen gehigarrian ere.

Bi. Estatuko Funtzionario Zibilen Gizarte Segurantzaren Legearen testu bateginaren —ekainaren 23ko 4/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartua— seigarren xedapen gehigarriaren Bat puntuan xedatutakoarekin bat, Estatuko Funtzionario Zibilen Mutualitate Orokorren Funts Bereziaren jasotako pentsioek, baldin eta 2012ko abenduaren 31ren ostean eragin badira, 2018ko urtarrilaren 1ean murrizketa izango dute 2017ko abenduaren 31n jasotako zenbatekoekiko; aipatutako murrizketa 1978ko abenduaren 31ko zenbatekoaren —edo Erakunde Sindikaleko Funtzionarioen Montepioaren kasuan, 1977ko abenduaren 31koaren— eta 1973ko abenduaren 31koaren arteko aldearen ehuneko 20koa izango da.

Hiru. Abenduaren 28ko 37/1988 Legearen 42. artikuluan adierazitako aurreikuspen-erregimen edo sistemen kontura ordaintzen diren pentsioek, artikulua honetako aurreko paragrafoetan adierazita ez badaude, dagokien gehikuntza izango dute 2018an, 2017ko abenduaren 31n jasotako zenbatekoekiko, araudiari jarraituz betiere, eta kapitulu honetako ondorengo artikuluetan jasotako salbuespenak aintzat hartuta.

40. artikulua. *Balioa handitu ezin duten pentsioak.*

Bat. Honako pentsio publiko hauek ez dira goratuko 2018an:

a) Abenduaren 28ko 37/1988 Legearen 42. artikuluan adierazitako edozein aurreikuspen-erregimen edo sistemen kontura ordaintzen diren pentsioak, baldin eta haien hileko zenbateko osoa, titularrak jasotzen dituen beste pentsio publiko batzuen hileko zenbateko osoari gehituta, 2.580,13 eurotik gorakoa bada hilean, zenbateko hori aurreko 38. artikuluan azaldutako moduan ulertuta.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko ekintza terroristen ondorioz sortutako Estatuko Klase Pasiboen Araubideko eta Gizarte Segurantzako sistemako ohiz kanpoko pentsioei, ez eta atentatu terroristen ondorioz sortutako eta ekainaren 23ko

6/2006 Errege Lege Dekretuaren babesean aitortutako ezohizko pentsioei, ez eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Alorreko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 62/2003 Legeak berrogeita hirugarren xedapen gehigarrian adierazitakoari jarraiki aitortutako pentsioei ere.

b) Estatuko Bidezainen alde 1985eko urtarrilaren 1a baino lehen aitortutako Klase Pasiboen pentsioak, salbu eta titularrak bidezain gisako pentsio hau bakarrik jasotzen badu.

c) 2017ko abenduaren 31n jada 1973ko abenduaren 31n zegozkion zenbatekoetara iritsitako Estatuko Funtzionario Zibilen Mutualitate Orokorren Funts Berezia sartuta dauden Mutualitateen pentsioak.

Bi. Estatuaren, autonomia-erkidegoen, toki-korporazioen edo erakunde autonomoen partaidetza nagusia duten enpresa edo sozietateetako langileak babesten dituzten mutualitate, montepio edo gizarte-aurreikuspeneko entitateen kasuan, organo edo entitate publiko horien funtsen bidez finantzatzen badira, edota pentsio osagarriak zuzenean ordaintzen badizkiete babes-ekintzan hartutako langileei, edozein kontzeptugatik, aplikatu beharreko araubide orokorreari ordaintzekoez gain, 39. artikuluan adierazitako balio-goratzekak gehieneko mugatzat hartuko dira, eta zilegi izango da pentsio osagarri horiei koefiziente txikiagoak aplikatzea, bai eta unitatea baino txikiagoak ere, bakoitzaren araudiaren edo adostutako itunen arabera.

41. artikulua. *Pentsio publikoen balioa handitzeko muga.*

Bat. 2018 urtean, pentsio publikoen balioa handitzeak ez du urteko 36.121,82 eurotik gorako balio oso bat eragingo.

Bi. Titular batek bi pentsio publiko edo gehiago jasotzen baditu, dagozkien balio-goratzekak egin ondoren haien guztien urteko zenbateko osoen baturak ezin izango du gainditu adierazitako gehieneko muga. Gainditzen badu, balio-goratzekaren zenbatekoa proportzionalki minoratuko da, adierazitako mugara egokitu arte.

Horretarako, pentsioen balioa goratzeko eskumena duen entitate edo organismo bakoitzak bere kontura diren pentsioen urteko gehieneko muga zehaztuko du. Muga hori zifra bat izango da, eta zifra horrek 36.121,82 euroko urteko zenbateko osoarekiko duen proportzioak izan behar du, ezinbestean, pentsioaren edo pentsioen zenbateko horrek titularrak jasotako pentsio publiko guztien baturarekiko duen proportzioaren berdina.

Aipatutako muga (L) honako formula hau aplikatuz kalkulatu da:

$$L = \frac{P}{T} \times 36.121,82 \text{ euro urtean}$$

«P» izanik 2017ko abenduaren 31n erakunde eskudunaren konturako pentsioak edo pentsioek lortutako urteko balio teoriko osoa, eta «T» izanik zifra horri titular berak egun horretan dituen gainerako pentsio guztien urteko balio osoa eranstearen emaitza.

Hala eta guztiz ere, interesdunak jasotzen duen pentsio publikoetako bat abenduaren 28ko 37/1988 Legearen 42.1.c) artikuluan zehaztutako Funtzionarioen Mutualitateetako baten Funts Bereziaren kontura izanez gero, edota lege honen 40.Bi artikuluan adierazitako entitateen baten konturako pentsioa balitz, balioa handituko ez duena, aurreko lerroketan jasotako arauak erregelamendu bidez egokituko dira, jaso daitekeen gehienezko mugara iristeko.

Hiru. Aurreko 38. artikuluko Lautik Zortzira bitarteko paragrafoetan xedatutakoa, biak barne hartuta, batera jasotzeko pentsioen balioa handitzen den kasuetan aplikatuko da, hala badagokio.

V. KAPITULUA

Gutxienekoerako osagarriak

42. artikulua. *Klase Pasiboen pentsioetan gutxienekoerako osagarriak aitortzea.*

Bat. Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bateginaren 27.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, gutxieneko zenbatekora iristeko osagarri ekonomikoak jasotzeko eskubidea izango dute Estatuko Klase Pasiboetako pentsiodunek, baldin eta, 2018an, lanak edo kapitalak eragindako diru-sarrerarik jasotzen ez badute, edota, horiek jasota ere, urtean 7.151,80 euroko zenbatekoa gainditzen ez badute. Xede horietarako, gainbalioak edo ondare-irabaziak diru-sarrera horien artean sartuko dira.

Lanak edo kapitalak eragindako diru-sarrerak egiaztatzeko, haien aitortpena eta, egoki izanez gero, egindako zerga-aitorpenak aurkez ditzala eskatu ahal izango zaio pentsiodunari.

Hala eta guztiz ere, adierazitako kontzeptuengatik zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako zenbatekoa baino gehiago jasotzen duten Estatuko Klase Pasiboen pentsiodunek gutxienekoerako osagarri bat jasotzeko eskubidea izango dute, diru-sarrera horien urteko zenbatekoaren eta balioa goratutako pentsioaren batura txikiagoa izanez gero 7.151,80 euroko zenbatekoari pentsio mota horri xedatutako urteko gutxieneko zenbatekoa erantsita ematen duena baino. Kasu horretan, gutxienekoerako osagarria bi batura horien arteko aldea izango da; betiere, diferentzia horren ondorioz interesdunak hilean guztira jasotzen dituen pentsioa eta osagarria ez badira hilean dagokion gutxieneko pentsioa baino handiagoak.

Aurreko paragrafoetan ezarritako baldintzak betetzen direla joko da interesdunak 2017an jasotako diru-sarrerak 7.133,97 eurokoak edo gutxiagoak direnean. Administrazioak eskuratutako frogen ondorioz, presuntzio hori bertan behera utzi ahal izango da.

Gutxienekoerako osagarriak bermatzeko soilik, gizarte-aurreikuspeneko oinarritzko edozein araubide publikoren kontura ez diren pentsio publikoak lanak eragindako diru-sarrerekin parekatuko dira.

Lege-aurreikuspenei jarraikiz, alarguntza-pentsioaren zati proportzional bat aitortuta dagoen kasuetan, gutxieneko pentsioen osagarria, hala badagokio, pentsioa aitortzeko aintzat hartu zen proportzio berean aplikatuko da.

Osagarriak aitortzearen ondorio ekonomikoak eskaera egindako urteko urtarrilaren 1era arte atzeraeragingo dira, edota pentsioa jasotzen hasitako egunera arte, urtarrilaren 1az gerokoa izanez gero.

Nolanahi ere, hori aitortzeko eskaera aurreko ekitaldiko gertaera eragilea duen pentsio bat kobratzeko eskubidea erabiltzeko unean egiten bada, ondorio ekonomikoak hura hasteko egunekoak izan ahalko dira, eta gehienez urtebeteko atzeraeragina egongo da eskaeratik.

Bi. Interesdunaren adierazpenetan oinarrituz 2018an aitortutako osagarri ekonomikoak behin-behinekoak izango dira, harik eta adierazitakoaren egiazkoa edo eraginkorra dela frogatzen den arte.

Administrazioak, aldi behin, ofizioz edota interesdunak hala eskatuta, berrikusi egin ahal izango ditu osagarri ekonomikoak aitortzeko ebazpenak. Berrikuspen horien ondorioz, pentsioaren titularrari bidegabeki jasotakoa itzul dezala eskatu ahal izango dio, hala badagokio. Itzultze hori pentsioaren hurrengo hilabete-sarien kontura egin ahal izango da.

Hiru. 2013ko urtariletik aurrera eragindako pentsioen kasuan, gutxienekoerako osagarriak jasotzeko eskubidea izateko, beharrezkoa izango da Espainiako lurraldean bizitzea. Adierazitako datatik aurrera eragindako pentsioen kasuan, osagarri horien zenbatekoa ezin izango da handiago izan Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean modalitate ez-kontributiboko erretiro- eta baliaezintasun-pentsioetarako zehaztutako zenbatekoa baino.

Lau. Klase Pasiboen pentsioen gutxieneko zenbatekoek ehuneko 0,25eko gehikuntza izango dute 2018an.

Bost. Artikulu honen aurreko zenbakietan araututako osagarri ekonomikoak ez zaizkie aplikatuko Gerra Zibilaren ondorioz sortutako legeria bereziaren babesean aitortutako pentsioei—horien zenbatekoak lege honen 37. artikuluan finkatzen dira—; hala ere, salbuespen gisa, honako pentsio hauei aplikatu egingo zaizkie: urriaren 22ko 37/1984 Legearen II. tituluaren babesean aitortutako zurztasun-pentsioei, eta irailaren 18ko 5/1979 Legearen eta ekainaren 26ko 35/1980 Legearen babesean ezinduta ez dauden 21 urtetik gorako umezurtzen alde funtzionario ez diren langileek eragindako pentsioei.

43. artikulua. *Gizarte Segurantzako pentsioetan gutxienerako osagarriak aitortzea.*

Bat. Erregelamendu bidez xedatutakoaren arabera, Gizarte Segurantzako sistemako kotizaziopeko pentsiodunek pentsioen gutxienerako zenbatekora iristeko osagarri ekonomikoak jasotzeko eskubidea izango dute, baldin eta 2018an ez badute lanak, kapitalak, jarduera ekonomikoak edo ondare-irabaziak eragindako diru-sarrerarik jasotzen, errenta horiei dagokienez pertsona fisikoen errentaren gaineko zergak ezarritako kontzeptuaren arabera, eta urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 59. artikuluari jarraituz zenbatuta, edota, haiek jasota ere, urtean 7.151,80 euroko zenbatekoa gaintzen ez badute. Gutxienerako osagarri horiek ez dira finkagarriak, eta interesdunak jasotzen dituen zenbatekoen edozein gehikuntzaren bidez (balioak goratzeagatik edo aldian behingo prestazio berriak baiesteagatik) xurga daitezke.

Errentak eta diru-sarrerak egiaztatzeko, haien aitortpena eta, egoki izanez gero, egindako zerga-aitorpenak aurkeztu ditzala eskatu ahal izango dio entitate kudeatzaileak pentsiodunari.

Hala eta guztiz ere, adierazitako kontzeptuengatik paragrafo honen lehenengo lerrokadan zehaztutako zenbatekoa baino gehiago jasotzen duten Gizarte Segurantzako kotizaziopeko modalitateko pentsiodunek gutxienerako osagarri bat jasotzeko eskubidea izango dute, diru-sarrera horien urteko zenbatekoaren eta balioa handitutako pentsioaren batura txikiagoa izanez gero 7.151,80 euroko zenbatekoari pentsio mota horri xedatutako urteko gutxienerako zenbatekoa erantsita ematen duena baino. Kasu horretan, gutxienerako osagarria bi batura horien arteko aldea izango da; betiere, diferentzia horren ondorioz interesdunak hilean guztira jasotzen dituen pentsioa eta osagarria ez badira hilean dagokion gutxienerako pentsioa baino handiagoak. Gutxienerako osagarriak bermatzeko, gizarte-aurreikuspeneko oinarritzko edozein araubide publikoren kontura ez diren pentsio publikoak lanak eragindako diru-sarrerekin parekatuko dira.

Espainiak eta Erresuma Batuak 2006ko irailaren 18an egindako hitzarmenaren babesean Espainiar pentsiodunei konpentsazio gisa emandako oroharreko zenbatekoak eta aldian behingo ordainketak ez dira kontuan hartuko pentsioen gutxienerako zenbatekora iristeko osagarriak aitortzeko ondorioetarako.

Bi. Aurreko zenbakian adierazitako baldintzak betetzen direla joko da, baldin eta interesdunak adierazten badu Bat zenbakian jasotako moduan zenbatutako etekinak eskuratuko dituela 2018an, eta horiek, gehienez, 7.151,80 eurokoak direla.

Gizarte Segurantzako kotizaziopeko pentsiodunek aurreko paragrafoan adierazitako mugatik gorako errenta metatu handiagoak jasotzen badituzte 2018ko ekitaldian, horren berri eman beharko diete entitate kudeatzaileei, gertatzen denetik hilabeteko epean.

Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileek, errentak eta diru-sarrerak egiaztatzeko, haien aitortpena eskatu ahal izango diete gutxienerako osagarrien jasotzaileei, edonoiz, bai eta haien ondare-ondasunen gaineko aitortpen bat ere, eta, hala badagokio, egindako zerga-aitorpenak aurkezteko.

Hiru. Artikulu honetan xedatutakoaren ondoretarako, hauxe izango da pentsioaren titularraren ardurapeko ezkontidea: pentsiodunarekin bizi dena eta ekonomikoki haren mendean dagoena.

Honako baldintza hauek betetzen direnean egongo da mendekotasun ekonomikoa:

a) Pentsiodunaren ezkontidea ez izatea gizarte-aurreikuspeneko oinarritzko araubide publiko baten konturako pentsio baten titularra. Kontzeptu horren barruan, honako hauek

egongo dira: beste Estatu batek aitortutako pentsioak, gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko sorospenak, beste pertsona baten laguntzarako sorospenak —azken biak azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginean xedatuta daude— eta uztailaren 21eko 45/1960 Legean araututako laguntzako pentsioak —lege horren bidez, zergaren eta aurrezkiaren gizarte-aplikaziorako funts nazional zehatz batzuk sortzen dira—.

b) Pentsiodunak edo ezkontideak jasotako edozein errendimendu mota, artikuluko honen Bat paragrafoan adierazitako moduan zenbatuta, urtean 8.342,65 eurotik beherakoak izatea.

Aurreko paragrafoan adierazitako urteko errendimenduen eta osatuko den pentsioaren urteko zenbatekoaren arteko batura txikiagoa izanez gero 8.342,65 euroko zenbatekoaren eta ezkontidea ardurapean izanda dagokion gutxieneko pentsioaren urteko zenbatekoaren arteko batura baino, diferentzia horren kopuru bereko osagarria aitortuko zaio, dagozkion hilabete-saritan banatuta.

Lau. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera eragindako pentsioei dagokienez, pentsioen gutxienekora iristeko osagarriko eskubidea edukitzeko beharrezkoa izango da Espainiako lurraldean bizitzea. Adierazitako datatik aurrera eragindako pentsioetan, aipatutako osagarrien zenbatekoa ezin izango da izan Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginak, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak, 59. artikuluko 2. zenbakian zehaztutakoa baino handiagoa.

Bost. Gizarte Segurantzaren sistemako kotizaziopeko pentsioen gutxieneko zenbatekoek ehuneko 0,25eko gehikuntza izango dute 2018an.

VI. KAPITULUA

Pentsio publikoen alorreko beste xedapen batzuk

44. artikulua. *Gizarte Segurantzako kotizaziopekoak ez diren pentsioen hasierako zehaztapena eta balioa handitzea.*

Bat. 2018an, Gizarte Segurantzaren sistemako erretiro- eta baliaezintasun-pentsioen zenbateko osoa, kotizazio gabeko modalitatean, urtean 5.178,60 eurokoa izango da.

Bi. 2018rako, pentsioaren osagarri bat ezartzen da, urtean 525 eurokoa, pentsiodunak egiaztatuz gero etxebizitzaren jabe ez dela, eta etxebizitza bat alokatu duela bere ohiko bizileku izan dadin. Etxebizitza horren jabea ezin da izan pentsiodunaren ahaide (hirugarren maila arte), ez eta ezkontide ere, ez eta pentsiodunarekin harreman egonkorra eta ezkontideen arteko erlazio afektiboaren antzeko bizikidetzaren partekatzen duen pertsona ere. Kotizazio gabeko pentsioak jasotzen dituzten hainbat pentsioduneko familia-unitateen kasuan, alokatze-kontratuaren titularrak soilik jaso ahal izango du osagarria; titularrak bat baino gehiago izanez gero, berriz, haietatik lehenengoak soilik.

Osagarri hori aitortzeko arauak abuztuaren 3ko 1191/2012 Errege Dekretuan xedatutakoak izango dira; errege-dekretu horrek Gizarte Segurantzako kotizaziopekoak ez diren pentsiodunentzat etxebizitza alokatzeko pentsio-osagarriak aitortzen ditu. Bertan 2012. urteari egiten zaizkion erreferentziak 2018.ari egiten zaizkiola ulertu beharko da.

45. artikulua. *Deuseztatuta dagoen Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruko pentsioak.*

Bat. 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, deuseztatuta dagoen Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruko pentsioen zenbatekoa urtean 5.728,80 eurokoa izango da; betiere, titularrak beste pentsio publiko batzuk jasotzen ez baditu.

Xede horietarako, honako hauek ez dira pentsio konkurrentetzat hartuko: martxoaren 18ko 3/2005 Legearen babesean adingabeak zirela Gerra Zibilaren ondorioz atzerriratutako herritar espainiarrei aitortutako prestazio ekonomikoa, Espainiako Gerra Zibilaren

ondoriozko mutilatu baliagarriek edo lehen graduko ezinduek jasotako pentsioa —legeria arautzailea edozein dela ere—, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginean aurreikusitako beste pertsona baten laguntzarako sorospenak, eta terrorismo-ekintzen ondoriozko aparteko pentsioak.

Bi. Deuseztatuta dagoen Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruko pentsioen zenbatekoa urtean 5.560,80 eurokoa izango da, Gizarte Segurantzaren sistemaren araubideren bateko alarguntza-pentsioekin batera edo horietako pentsio batekin batera jasotzen denean, bai eta, gainera, alarguntzako beste pentsio publiko batekin batera jasotzen denean, horien guztien zenbatekoen baturari Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) bigarren xedapen iragankorrean ezarritako muga aplikatzea eragotzi gabe, eta, betiere, interesdunek ez badute zenbateko handiagorik aitortuta 2005eko irailaren 1a baino lehenago; azken kasu horretan, balio-goratzeari buruzko arau orokorrak aplikatuko dira, baldin eta, arau horien ondorioz, batera jaso beharreko pentsioen zenbatekoen batura oraindik muga horretatik gorakoa bada.

Hiru. Deuseztatuta dagoen Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruari dagozkion pentsioen balioa goratu egingo da 2018an, aurreko zenbakian adierazi gabeko beste pentsio publiko batzuekin batera jasotzen direnean.

Aurreko paragrafoa xedatutakoa gorabehera, batera jasotzen diren pentsioen urteko zenbatekoen (balioa goratu ostean) eta aipatutako Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruari dagozkion zenbatekoen batura txikiagoa izanez gero aseguru horri dagokion pentsioarentzat artikulu honen Bat zenbakian ezarritako zenbatekoa baino, Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruari dagokion pentsioaren balioa goratuko da, bi kopuruen arteko aldearen berdina izango den zenbatekoan. Diferentzia hori ez da finkagarria, eta interesdunak jasotzen dituen zenbatekoen edozein gehikuntzaren bidez (balioak goratzeagatik edo aldi behingo prestazio berriak baiesteagatik) berdindateke.

Lau. Jada iraungita dagoen Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruko pentsio bat aitortzeko, Gizarte Segurantzako nazioarteko arau bidez aurreikusitakoaren arabera Espainiari lotutako beste herrialde batzuetan betetako aseguru-aldiak edo egoitza-aldiak hartu badira kontuan, hainbanatutako pentsiotik Espainiari dagokion zenbatekoa ezin izango da txikiagoa izan une bakoitzean dagokion Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruko pentsioaren zenbatekoaren 100eko 50 baino.

Berre hori bera deuseztatuta dagoen Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruaz bestelako pentsioen titularrei ere aplikatuko zaie, baldin eta pentsio horietako bat jasotzeko eskaera egin badute, eta pentsioa eragin zuen gertaeraren egunean aseguru horrek eskatutako baldintza guztiak betetzen bazituzten.

V. TITULUA

Finantza-eragiketak

I. KAPITULUA

Zor publikoa

46. artikulua. *Zor publikoa.*

Bat. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioari baimentzen zaio estatuaren zorraren saldo biziaren urteko gehikuntza egitea, zehazki, 53.668.213,08 mila eurokoa. Aurrekontu-ekitaldiaren hasierako eta amaierako saldoaren arteko konparazioa termino efektiboetan eginez zenbatuko da.

Bi. Muga horrek ekitaldiaren amaieran izango du eraginkortasuna; hortaz, ekitaldiak irauten duen bitartean, muga hori gainditu ahal izango da. Honako gorabehera hauen bitartez, automatikoki berrikusita geratuko da:

- a) I. kapitulutik VIII.era arteko aurrekontu-kredituen aldaketa garbien zenbatekoa.
- b) Lege honetan jasotako diru-sarreraren aurreikuspenen eta diru-sarrera horien benetako bilakaeraren arteko aldea.
- c) I. kapitulutik VIII.era arteko guztirako aurrekontu-kredituen eta ekitaldian aipatutako kapituluetan baietsitako betebeharren zenbateko osoaren arteko aldea.
- d) Legez aurreikusitako aurrekontukoak ez diren eragiketek sortutako aldaketa garbiak eta diruzaintzako aurrerakinak.
- e) Estatuaren eskubide eta betebeharren bariazio garbia, aitortuta daudenean eta ekitaldian ordaintzeke daudenean, baita aurreko ekitaldietan bildutako eskubideak eta ordaindutako betebeharrak ere.
- f) IX. kapituluaren bildutako kontzeptuei egotzitako zenbateko garbia, kontzeptu horiek ez direnean Zor Publikoaren jaulkipen eta amortizazioko parte.

Berrikuspen horien ondorioz, aurreko zenbakian adierazitako muga handitu edota txikitu egingo da, Estatuaren finantzaketa-premia areagotzen edota murrizten duten, hurrenez hurren.

47. artikulua. *Estatuko instituzio-sektore publikoko erakundeei eta entitateei baimentzen zaizkien kreditu-eragiketak.*

Bat. Lege honen III. eranskinean adierazitako erakunde autonomoei baimena ematen zaie aurrekontu-ekitaldian kreditu-eragiketak ituntzeko, aipatutako eranskinean organismo haietako bakoitzerako adierazitako zenbatekoetan.

Halaber, III. eranskin horretan adierazten diren Estatuko instituzio-sektore publikoko gainerako erakunde eta entitateei baimena ematen zaie aurrekontu-ekitaldian kreditu-eragiketak ituntzeko, aipatutako eranskinean erakunde edo entitate haietako bakoitzerako adierazitako zenbatekoetan. Kasu horretan, baimena urtearen barruan hitzartzen eta kitatzen ez diren kreditu-eragiketarako izango da, Aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren 111.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Bi. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioaren mende dauden Ikerketako erakunde publikoek (Nekazaritzaren eta Elikaduraren arloko Ikerketa eta Teknologia Institutu Nazionala; Ikerketa Zientifikoaren Goi Kontseiluaren Estatu Agentzia; Espainiako Geologia eta Meatzaritza Institutua; Karlos III.a Osasun Institutua; Kanarietako Astrofisika Institutua; Espainiako Ozeanografia Institutua eta, Energia, Ingurumen eta Teknologia Ikerketa Zentroa), Defentsa Ministerioaren mende dagoen Esteban Terradas Teknika Aeroespazialeko Institutu Nazionalak eta Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalak kreditu-eragiketak hitzartu ahal izango dituzte Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioaren aurrekontuko 8 kapituluaren kontura ematen zaizkien aurrerakin itzulgarrien ondorioz.

Baimen hori soil-soilik aplikatu ahal izango zaie Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren edo Europako Gizarte Funtsaren kontura finantzatzen diren gastuak, justifikatu ostean, ordaintzeko funts erabilgarriak egon daitezen ematen diren aurrerakinei.

Hiru. Aipatutako III. eranskinean ageri diren Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren mendeko organismoek, dagozkien eragiketak itundu aurretik eta zorpetzearen xedea egiaztatzeko, baimena eskatu beharko diote Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzari; horrez gain, eragiketa justifikatzen duen ekonomia- eta finantza-plan bat ere aurkeztu beharko dute, bai eta zorpetzea organismoak Europako funtsekin batera finantzatutako eragiketen ordainketen eta ordainketa horiei dagozkien Erkidegoaren itzulkinen arteko desoreken ondorioz gertatzen diren diruzaintza-defizitak estaltzeko eskatzen denean ere.

48. artikulua. *Estatuaren Zorraren bilakaerari buruzko informazioa Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioari, Diputatuen Kongresuari eta Senatuari ematea; eta Altxorrek Espainiako Bankuan edo beste finantza-erakunde batzuetan zabalduko kontuei buruzko informazioa Diputatuen Kongresuari eta Senatuari ematea.*

Estatuaren zorra edo Estatuak bere gain hartutako zorra, hartutakoa finantza-karga bakarrik bada ere, kudeatzeaz arduratzen diren erakunde publikoek honako informazio hau helaraziko diote Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioi Altxorren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiari: hiru hilean behin, egindako ordainketei buruzkoa eta hiruhileko azken egunean Zorrak duen egoerari buruzkoa, eta, urte bakoitzaren hasieran, ekitaldirako finantza-gastuen eta amortizazioen aurreikuspenari buruzkoa.

Gobernuak, hiru hilean behin eta Aurrekontu Bulegoaren bidez, Estatuak eta erakunde autonomoek itundutako finantza-eragiketen saldo zehatza jakinaraziko die Gorte Nagusiei, bai eta Altxorrek Espainiako Bankuan edo beste finantza-erakunde batzuetan irekitako kontu kopurua zein saldoen zenbatekoak eta bilakaera ere. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du dokumentazio hori.

49. artikulua. *Banku Berregituraketa Ordenaturako Funtsekoak ez diren baliabideak.*

Kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuen enpresak berreskuratzeari eta suntsiarazteari buruzko Legearen (ekainaren 18ko 11/2015) 53.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, 2018ko aurrekontu-ekitaldian, Banku Berregituraketa Ordenaturako Funtsekoak ez diren baliabideak ez dira 15.439.260 mila eurotik gorakoak izango.

II. KAPITULUA

Abal publikoak eta beste berme batzuk

50. artikulua. *Estatuaren abalen zenbatekoa.*

Bat. Estatu Administrazio Orokorrek 2018ko ekitaldian emango dituen abalen gehieneko zenbatekoa ez da 500.000 mila eurotik gorakoa izango.

Bi. Aurreko zenbakian adierazitako guztirakoan, abalak emateko honako gehieneko muga hauek aplikatuko dira:

a) 460.000 mila euro, Ministro Kontseiluak baimen ditzakeen abaletarako, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorren 114.2 eta 115. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Muga hori bera aplikatuko zaie azaroaren 26ko 47/2003 Legearen 114.2 artikuluko b) letran jasotako subjektuek itundutako eragiketetan emandako abalei.

b) 40.000 mila euro, egoitza Espainian duten itsasontzi-enpresek itundutako kreditu-eragiketen ondoriozko betebeharrak bermatzeko, Espainiako enpresa armadoreen merkataritza-ontzidia modernizatzerako bideratuta badaude, Espainian edo Europar Batasuneko beste estatu kide batean erregistratuta eta banderatuta dauden itsasontziak eraldatuz, 15 urte baino gehiagoko antzintasuna ez badute, erregai gisa gas natural likidotua erabiltzeko, beren motorren ihes-gasen araztegiak instalatzeko edota lasta-ura ontzian tratatzeko sistemak ezartzeko.

Itsasontziaren eraldaketa formalizatu baino lehen emandako abala eraginkorra izan dadin, formalizazio hori sei hilabeteko epea agortu baino lehen egin beharko da, abala eman izana jakinarazitako egunetik kontatzen hasita.

Bermatutako zenbatekoa ezin izango da izan ontzian finantzatu diren eraldaketa guztien prezio osoaren % 70 baino handiagoa.

Eragiketaren bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren eta arriskuaren ebaluazioa oinarri hartuta baimenduko dira abalak.

Abal horiek eskatzean, ematean nahiz baldintzak finkatzean, honako arau hauetan xedatutakoa beteko da: lege honetan, urriaren 14ko PRE/2986/2008 Aginduan (zeinaren

bidez, Espainiako merkataritza-ontzidia berritzeko eta modernizatzeko kreditu-eragiketak finantzatzeko, Estatuak eman ditzakeen abalak bideratzeko prozedura ezartzen duen Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Ordezko Batzordearen Akordioa argitaratzen den), edota agindu hori aldatzen duten geroko xedapenetan. Abala indarrean dagoen bitartean, ontziak Europar Batasuneko estatu kide batean erregistratu eta banderatu beharko dira.

Hiru. Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiari baimena ematen zaio Estatuak bermatutako obligazioei dagozkien ordainketak altxortegi-eragiketen bidez egiteko, xede horretarako ezarritako kontzeptuaren kontura, ondoko abal hauek gauzatzean: 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen 52. artikuluko Bi.e) zenbakiko abalak, 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legearen 54. artikuluko Bi.b) zenbakiko abalak.

Hala egin ondoren, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiak ekitaldian egindako ordainketak behin betiko sartuko ditu gastuen aurrekontuan, urtero abenduan egindako ordainketak izan ezik, eta abenduko ordainketa horiek hurrengo urteko aurrekontuan sartuko ditu.

51. artikulua. *Aktiboen titulizazio-funtsek jaulkitako errenta finkoko baloreak bermatzeko abalak.*

Bat. Aktiboen titulizazio-funtsak kudeatzen dituzten sozietateek abalen ondorioz Estatuak bere gain hartutako arriskua kontrolatzeko beharrezkoa den informazioa eman beharko diote Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiari; batez ere, aktiboen titulizazio-funtsen bidez jaulkitako errenta finkoko baloreetan amortizatu gabe dagoen printzipalaren guztizko bolumenari buruzkoa, eta titulizatutako zorroko aktibo ordaingabeen edo kobraezinen tasari buruzkoa.

Bi. Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiari baimena ematen zaio, artikulua honetan azaldutako Estatuaren abalak eta aurreko ekitaldietan emandakoak gauzatzean, bermatutako betebeharrei dagozkien ordainketak egin ditzan, aurrekontuak ez diren eragiketen bidez, horretarako berariaz gaitutako kontzeptuaren kontura.

Hala egin ondoren, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiak ekitaldian egindako ordainketak behin betiko aplikatuko ditu gastu-aurrekontuan, ekitaldiaren amaieran egindako ordainketak izan ezik, horiek hurrengo urteko aurrekontuari aplikatuko baitzaizkio.

52. artikulua. *Enpresa-entitate publikoen eta Estatuko merkataritza-sozietateen abalak.*

Estatuko Industria Partaidetzarako Sozietateari baimena ematen zaio 2018ko ekitaldian abalak eman ditzan, gehienez ere 1.210.000 mila euroko mugara arte, itundutako kreditu-eragiketei dagokienez, eta aipaturiko ekitaldian kapitalean zuzeneko edo zeharkako partaidetza duten merkataritza-sozietateek esleitze-lehiaketetatik eratorritako obligazioei dagokienez.

53. artikulua. *Emandako abal publikoei buruzko informazioa.*

Gobernuak, hiru hilean behin, emandako abal publikoen saldoa eta ezaugarri nagusiak jakinaraziko dizkie Gorte Nagusiei, bere Aurrekontu Bulegoaren bitartez. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du dokumentazio hori.

III. KAPITULUA

Estatuaren eta Kreditu Ofizialeko Institutuaren arteko harremanak

54. artikulua. *Garapena Sustatzeko Kooperazio Funtza (FONPRODE).*

Bat. Garapena Sustatzeko Funtserako zuzkidura 199.230,00 mila eurokoa izango da 2018an, 12.03.143A.874 aurrekontu-aplikazioaren kontura («Garapena Sustatzeko Funtza

[FONPRODE]»); diru hori Garapena Sustatzeko Funtsari buruzko urriaren 22ko 36/2010 Legeak 2. artikuluan xedatutako helburuetara bideratuko da.

Bi. Ministro Kontseiluak FONPRODE funtsaren konturako eragiketak egiteko baimena eman ahal izango du, 375.000,00 mila euroko zenbatekora arte.

Hiru. Eragiketa itzulgarriak soilik baimendu ahal izango dira FONPRODE funtsaren kontura, bai eta funtsaren kudeaketatik eratorritako gastuei aurre egiteko beharrezko diren eragiketak ere, edota funtsak formalizatutako eragiketei lotutako bestelako gastuei aurre egiteko beharrezko direnak.

Baimena eman ahal izango da, halaber, aurrez Funtsaren kontura emandako kredituak birfinantzatzea xede duten eragiketak egiteko, herrialde mailegu-hartzaileen kanpo-zorra birnegoziatzearen Espainia parte-hartzaile dela adostutako aldebiko edo alde anitzeko akordioak betetzeko egiten badira.

Lau. Kreditu Ofizialeko Institutuari esleitu zaion funtzioa betetzean sortutako gastuak estaltzeko urtero eman beharreko konpentsazioa, Garapena Sustatzeko Funtsari buruzko urriaren 22ko 36/2010 Legearen 14. artikuluan xedatutakoa, FONPRODE funtsaren baliabideen kontura gauzatuko da, Ministro Kontseiluaren akordioaren bidez baimena jaso ostean.

55. artikulua. *Uraren eta Saneamenduaren Lankidetzaren Funtza.*

2008rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 26ko 51/2007 Legearen hirurogeita batgarren xedapen gehigarrian aipatutako Uraren eta Saneamenduaren Lankidetzaren Funtzaren zuzkidura 15.000,00 mila eurokoa izango da 2018an, eta xedapen gehigarri horren hiru zenbakian aurreikusitako xedeetara bideratuko da.

FCASen programen ordainketetatik datozen itzulketak izango dira FCASerako aurreikusitako zuzkidurarako baliabide gehigarriak. Itzulketa horiek Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioaren ekimenez onetsitakoak izango dira. FCAS funtsaren baliabide izango dira, halaber, kontu korranteetan gordailututako zenbatekoak.

Ministro Kontseiluak Funtzaren konturako eragiketak egiteko baimena eman ahal izango du, 42.000,00 mila euroko urteko zenbatekora arte, kontuan hartuta aurreko paragrafoan jasotako baliabide gehigarriak.

FCASen kargura soilik eragiketa itzulgarriak baimendu ahalko dira, honako salbuespen hauekin:

– Funtzaren kudeaketatik eratorritako gastuei aurre egiteko beharrezko diren eragiketak; hau da, ebaluazio-gastuak, jarraipen-gastuak, ikuskapen-gastuak, laguntza teknikorako gastuak eta funtsak formalizatutako eragiketei lotutako bestelako gastuak.

– Eragiketa ez-itzulgarriak, guztiz edo partzialki aurrera eramaterik izan ez diren programen itzulketetatik heldu diren baliabide bereziekin finantzatzen direnak, bai eta jada amaituta dauden programen gaindikinetatik datozenak ere, eragiketa horiek itzulketa egiten den ekitaldi berean egiten badira. 2018an, salbuespen moduan, 2017an gauzatutako itzuleretatik eratorritako funtsak erabili ahalko dira.

Gobernuak, urtearen lehen seihilekoan, aurreko urtean Ministro Kontseiluak funts horren kontura baimendutako eragiketak jakinaraziko dizkie Gorte Nagusiei, Aurrekontu Bulegoaren bitartez. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du dokumentazio hori.

56. artikulua. *Enpresa Nazioartekotzeko Funtza (FIEM).*

Bat. Lege honen indarraldian, Enpresa Nazioartekotzeko Funtzaren zuzkidura 218.087,60 mila eurokoa izango da, 27.09.431A.871 aurrekontu-aplikazioaren kontura («Enpresa Nazioartekotzeko Funtza [FIEM]»), eta Espainiako enpresa nazioartekotzeko finantza-laguntza sistema eraberritzeari buruzko ekainaren 28ko 11/2010 Legearen 4. artikuluan xedatutako helburuetara bideratuko da.

Bi. FIEMen konturako eragiketak baimen daitezke, 500.000,00 mila euroko urteko zenbatekora arte.

Muga horretatik kanpo geratzen dira, espresuki, funtsaren kontura lehendik emandako kredituak birfinantzatzea xede duten eragiketak, herrialde mailegu-hartzaileen kanpo-zorra birnegoziatzearen Espainia parte-hartzaile dela adostutako alde biko edo alde anitzeko akordioak betetzeko egiten badira.

Ministro Kontseiluak nazioartekotzeari begira garrantzi berezia duten banakako proiektuak baimendu ahal izango ditu, haien zenbatekoari erreparatuta, eta, egoki izanez gero, proiektuaren zati bat zenbaki honen lehen paragrafoan aurreikusitako mugaren barruan egozteari erabaki ahal izango du, eta proiektuaren ondorengo zenbatekoak hurrengo ekitaldietan egozteari, urteko aurrekontuei buruzko legeetan xedatutako mugak aintzat hartuta.

Itzulgarriak ez diren eragiketak ezin izango dira baimendu FIEMen kontura. Muga horretatik kanpo geldituko dira funtsaren kudeaketak eragindako gastuei aurre egiteko beharrezko eragiketak; edozelan ere, jarduera doitu du finantzaketa-beharrik ez izateko, Nazio Kontuen Sistema Europarraren arabera neurtuta.

Hiru. FIEMerako aurreikusitako horniduraz gain, baliabide gehigarriak izango dira indarreko ekitaldi ekonomikoan gauzatuko diren itzulkinak, FIEMen eragiketen edota Garapenerako Laguntza Funtsaren kontura Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioak onetsitako eragiketen ondorio direnak.

Lau. Kreditu Ofizialeko Institutuari esleitu zaion funtzioa betetzean sortutako gastuak estal ditzan urtero eman beharrezko konpentsazioa, ekainaren 28ko 11/2010 Legeak, Espainiako enpresak nazioartekotzeko finantza-laguntzen sistema erreformatzen duenak, 11.4. artikuluan xedatutakoa, FIEM funtsaren baliabideen kontura gauzatuko da, Ministroen Kontseiluaren akordioaren bidez baimena jaso ostean.

Bost. Gobernuak, urtero, FIEM funtsaren kontura baimendutako eragiketa, proiektu eta jardueren berri emango die Gorte Nagusiei, bere Aurrekontu Bulegoaren bidez, eta Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari. Halaber, finantzaketaren helburuen nahiz onuradunen, finantza-baldintzen eta ebaluazioen berri emango die, eta epe horretan abian dauden eragiketen garapenera buruzko xehetasunak emango dizkie. Gorte Nagusietako Aurrekontu Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du dokumentazio hori.

57. artikulua. *Estatuak Kreditu Ofizialeko Institutuari egindako diru-itzulketak.*

Bat. Estatuak Kreditu Ofizialeko Institutuari Interesen Elkarrekiko Doikuntzarako Hitzarmenaren (CARI) sistema kudeatzearen ondorioz egin beharrezko diru-itzulketak.

Lege honen indarraldian, Estatuak honako zenbateko hauek itzuliko dizkio Kreditu Ofizialeko Institutuari: institutuak finantza-erakundeei emandako zenbatekoak —Ekintzaileei eta beren nazioartekotzeari laguntzeko irailaren 27ko 14/2013 Legean aurreikusitako interesak doitzeko eragiketak ordaintzeko— eta eragiketa horien kudeaketak Kreditu Ofizialeko Institutuari eragindako kostuak.

Xede horrekin, indarreko ekitaldi ekonomikorako CARI sistemarako zuzkidura 27.09.431A.444 aurrekontu-partidan ageri dena izango da.

Urteko abenduaren 31n sisteman Kreditu Ofizialeko Institutuaren aldeko saldo positiboak egonez gero, institutuak izan dituen kudeaketa-gastuak kendu ondoren, saldo horiek Altxorrean sartuko dira.

Indarreko ekitaldi ekonomikoan onartutako interesak doitzeko eragiketen barruan, Interesen elkarrekiko doikuntzarako hitzarmenen bidez esportaziorako kredituari babes ofiziala emateko prozedurari buruzko Erregelamenduaren (maiatzaren 7ko 677/1993 Errege Dekretuaren bidez onetsia) 4.2 artikuluan adierazitako esportazio-kredituen zenbatekoari dagokionez, 480.000,00 mila euro onetsi ahal izango dira ekitaldi ekonomiko horretan.

Kreditu Ofizialeko Institutuak, interesen elkarrekiko doikuntzarako eragiketen finantza-kudeaketa optimizatzearen, interes-tasen bilakaerak Altxorrari sor diezaiokeen arriskua estaltzea helburu duten finantza-trukerako eragiketak itundu ahal izango ditu, bere kabuz edo bitartekaritzako finantza-agenteen bidez, aurreko paragrafoan adierazitako diru-sarrerara eta zuzkiduren kontura, eta institutuaren beraren Estatutuetan eta jarduteko

arauetan xedatutakoari jarraituz; aldez aurretik, nolana ere, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiak aldeko txostena egin beharko du, eta Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioko Nazioarteko Merkataritzaren eta Inbertsioen Zuzendaritza Nagusiak baimena eman.

Bi. Estatuak Kreditu Ofizialeko Institutuari beste jarduera batzuen ondorioz egin beharreko diru-itzulketak.

Estatuak diruz lagundutako interesen kasuan, Kreditu Ofizialeko Institutuaren bidez gauzatutako finantza-eragiketetan, Ministro Kontseiluaren edo Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Ordezko Batzordearen akordioek Estatuaren Aurrekontu Orokorretan kredituak erreserbatzeari edo haien ondoriozko gastua finantzatzeko moduari buruzko informazioa ere jasoko dute.

58. artikulua. *Finantza Erakunde Aldeaniztunen akzioak eta partaidetzak eskuratzea.*

Bat. Ezin izango da Finantza Erakunde Aldeaniztunen akzioak eta partaidetzak eskuratzeko eragiketarik egin, ez eta haietan eraturako funtsetarako ekarpenik ere, defizit publikoan eragina badute eta 27.06.923P.895 («Finantza Erakunde Aldeaniztunak») aurrekontu-aplikazioaren kontura finantzatzen badira.

Bi. Aurreko zenbakian aurreikusitakoa betetze aldera, Analisi Makroekonomikoaren eta Nazioarteko Ekonomiaren Zuzendaritza Nagusiak txosten bat aurkeztuko du aurrekontu-aplikazio horren konturako finantzaketa-proposamenekin batera; txosten hori defizit publikoan duen eraginari buruzkoa izango da, eta Estatuako Administrazioiko Kontu-hartzailetza Nagusiak dagokion eskaera egin baino lehen prestatuko da.

VI. TITULUA

Tributu-arauak

I. KAPITULUA

Zuzeneko zergak

1. atala. *Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga*

59. artikulua. *Lan-etekinak eskuratzegatiko murriztapena.*

Lege hau indarrean jartzen denetik eta indarraldi mugagabez, honako aldaketa hauek txertatzen dira azaroaren 28ko 35/2006 Legean (35/2006 Legea, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duen eta sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga partzialki aldatzekoa):

Bat. Aldatu egiten da 20. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«20. artikulua. *Lan-etekinak eskuratzegatiko murriztapena.*

Baldin eta zergadunek 16.825 eurotik beherako lan-etekin garbiak badituzte, betiere lan-errentetatik kanpo 6.500 eurotik gorako errentak ez badituzte (salbuetsiak alde batera utzita), lan-etekin garbia zenbateko hauetan txikiagotuko dute:

a) Zergadunek gehienez 13.115 euroko lan-etekin garbiak badituzte: 5.565 euro urtean.

b) Zergadunek 13.115 eta 16.825 euro arteko lan-etekin garbiak badituzte: 5.565 euro, horri lan-etekinaren eta urteko 13.115 euroko zenbatekoaren arteko aldea bider 1,5 egitean ateratzen dena kenduta.

Ondorio horietarako, lege honen 19.2 artikuluen a), b), c), d) eta e) letretan aurreikusitako gastuetan etekin osoa kentzean lortutako emaitza izango da lan-etekin garbia.

Artikulu honetan aurreikusitako murriztapena aplikatzearen ondorioz, ezingo da saldo negatiborik atera.»

Bi. Erantsi egiten da berrogeita batgarren xedapen gehigarria, eta hona nola gelditzen den idatzita:

«Berrogeita zazpigarren xedapen gehigarria. 2018ko zergaldian lan-etekinak lortzeagatik aplikatzen den murrizketa eta lan-etekinei aplikatzen zaien atxikipen-tasa zehaztea.

1. 2018ko zergaldian 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legea indarrean jarri baino lehen zerga sortu baldin bada, lege honetako 20. artikuluan ezartzen den lan-etekinen ziozko murrizketa 2017ko abenduaren 31n indarrean zegoen araudian ezarritakoa izango da.

2018ko zergaldiko zerga 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legea indarrean jarri eta gero sortu baldin bada, lege honetako 20. artikuluan ezartzen den lan-etekinen ziozko murrizketa honela kalkulatu da: 2019ko urtarrilaren 1ean indarrean dagoen araudia aplikatuz lortzen den lan-etekinen ziozko murrizketari 2017ko abenduko 31n ezarrita zegoen araudiaren arabera kalkulatuak zenbatekoa kenduz lortzen den diferentzia positiboaren erdia gehituko zaio 2017ko abenduaren 31n indarrean zegoen araudiaren arabera kalkulatuak murrizketari.

2. 2018ko zergaldian 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legea indarrean jarri baino lehen ordaindu diren lan-etekinei aplikatu behar zaien atxikipen-tasa edo konturako sarrera zehazteko, 2017ko abenduaren 31n indarrean zegoen araudia aplikatuko da.

2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legea indarrean jarri eta gero, egun hori eta gero ordaintzen diren lan-etekinei aplikatu behar zaien atxikipen-tasa edo konturako sarrera kalkulatzeko, 2017ko abenduaren 31n indarrean zegoen araudia aplikatuko da, honako espezialitate hauek ezarrita:

1) Atxikitzeke betebeharretik salbuesten duten zenbateko-mugak argitzeko koadroa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 81.1 artikuluan jasota, hauxe izango da, salbu eta Gizarte Segurantzaren eta Klase Pasiboaren araubidearen araberrako pentsioak edo hartzeko pasiboak edo langabeziaren ziozko prestazioak edo laguntzak direnean:

Zergadunaren egoera	Seme-alaben eta beste ondorengo batzuen kopurua		
	0 – Euroak	1 – Euroak	2 edo gehiago – Euroak
1. Zergadun ezkongabea, alarguna, dibortziatua edo legez banandua	–	15.168	16.730
2. Zergaduna, zeinaren ezkontideak ez baitu 1.500 eurotik gorako errentak urtean, salbuetsitako errentak alde batera utzita.	14.641	15.845	17.492
3. Beste egoera batzuk	12.643	13.455	14.251

Gizarte Segurantzaren pentsioak edo hartzeko pasiboak direnean, edo langabeziaren ondoriozko prestazioak edo sorospenak direnean, honako koadro hau aplikatuko da:

Zergadunaren egoera	Seme-alaben eta beste ondorengo batzuen kopurua		
	0 – Euroak	1 – Euroak	2 edo gehiago – Euroak
1. Zergadun ezkongabea, alarguna, dibortziatua edo legez banandua	–	15.106,5	16.451,5
2. Zergaduna, zeinaren ezkontideak ez baitu 1.500 eurotik gorako errentak urtean, salbuetsitako errentak alde batera utzita.	14.576	15.733	17.386
3. Beste egoera batzuk	13.000	13.561,5	14.184

2) Pertsona Fisikoen gaineko Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 83. artikuluko 3. apartatuko d) letran aipatzen diren lan-etekinak eskuratzegatiko murriztapena haxe izango da: xedapen gehigarri honetako 1. apartatuko bigarren paragrafoan ezarritakoa.

Hala egitea egokia denetan, aipatutakoaren arabera atxikipen-tasa edo konturako sarrera 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legea indarrean jartzen denetik aurrera ordaintzen diren lehen lan-etekinetan erregularizatu da, betiere Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan jartzen duenarekin bat etorrira.

Edonola ere, beste aukera bat da —ordaintzaileak aukeratu beharko du— aurreko paragrafoko erregularizazio hori 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legea indarrean jarri eta hurrengo hilabetetik aurrera ordaintzen diren lehen lan-etekinetan egitea. Hala bada, data hori baino lehenago ordaindutako lan-etekin gainean praktikatu beharreko atxikipen-tasa edo konturako sarrera zehazteko, kontuan hartuko da 2017ko abenduaren 31n indarrean zegoen araudia.

Erregelamenduz aldatu ahal izango dira apartatu honetan ezarritako zenbatekoak.»

60. artikulua. *Kenkariak, Ceutan edo Melillan lortutako errentengatik.*

2018ko urtarrilaren 1etik aurrera eta indarraldi mugagabez, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari eta sozietateen gaineko zergari, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari eta ondarearen gaineko zergari buruzko azaroaren 28ko 35/2006 Legearen 68. artikuluko 4. apartatuko 1. eta 2. zenbakiak aldatzen dira, eta honela geratuko dira idatzita:

«1. Ceuta edo Melilla hirietan bizi diren zergadunak.

a) Zergadunek ohiko eta benetako bizilekua Ceuta edo Melilla hirietan baldin badute, likidazio-oinarriak zehazteko konputatu ziren Ceutan edo Melillan lortutako errentei proportzioan dagokien estatu- eta autonomia-kuota osoen baturaren zatia ehuneko 60 kenduko diote.

b) Zergadunek ohiko eta benetako bizilekua Ceutan edo Melillan gutxienez hiru urtean eduki badute, epe hori amaitu eta gero hasitako zergaldietan hiri horietatik kanpo lortu dituzten errentei kenkari hori aplikatuko dizkiote, baldin eta zergadunaren ondare garbiaren heren bat hiri horietan baldin badago, eta ondare hori ondarearen gaineko zergaren araudi erregulatzailearen arabera zehaztuta badago.

Kenkari horren mende egon daitekeen hiri horietatik kanpo lortutako errenten gehieneko zenbatekoa hiri horietan lortutako etekinen, irabazien eta ondare-galeren zenbateko garbia izango da.

2. Zergadunek ohiko eta benetako bizilekua Ceuta edo Melilla hirietan baldin badute, likidazio-oinarri positiboak zehazteko konputatu ziren Ceutan edo Melillan lortutako errentei proportzioan dagokien estatu- eta autonomia-kuota osoen baturaren zatiari ehuneko 60 kenduko diote.

Honako errenta hauek direnean, kenkari hori ez da inola ere aplikatuko:

– Inbertsio Kolektiboko erakundeetatik sortu direnak, aktibo guztiak Ceutan edo Melillan inbertituta daudenean izan ezik, erregelamendu bidez zehazten diren terminoetan.

– Hurrengo apartatuko a), e) eta i) letretan aipatzen diren errentak.»

61. artikulua. *Kenkaria, amatasunarengatik.*

2018ko urtarrilaren 1etik aurrera ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duen eta sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga partzialki aldatzen dituen azaroaren 28ko 35/2006 Legearen 81. artikulua. Honela geratzen da idatzita:

«81. artikulua. *Kenkaria, amatasunarengatik.*

1. Hiru urtetik beherako seme-alabak dituzten emakumeek lege honetako 58. artikuluan ondorengoei lotutako minimoa aplikatzeko eskubidea baldin badute, eta, langile autonomoak edo beste batzuen konturako langileak izanik, jarduera horrengatik Gizarte Segurantzaren edo mutualitatean dagokion araubidean alta emanda badaude, zergaren kuota diferentziazetik urtean 1.200 euro arte minoratu ahalko dute, hiru urtetik beherako seme-alaba bakoitzeko.

Adopzioan, adopzio aurreko familia-harreretan eta familia-harreretan, adingabearen adina edozein dela ere, Erregistro Zibilean erregistratu eta hurrengo hiru urteetan baliatu ahalko dute kenkaria.

Inskripziorik egin behar ez denean, ebazpen judizial edo administratiboa eman eta hurrengo hiru urteetan egin ahalko dute kenkaria.

Ama hiltzen baldin bada, eta guardia eta zaintza aitari eskusiboki esleitzen bazaio edo, hala dagokionean, tutoreari esleitzen bazaio, aitak edo tutoreak kenkaria egiteko eskubidea izango du, artikulua honetan ezarritako eskakizunak beteta betiere.

2. Aurreko 1. atalean ezarritako kenkariaren zenbatekoa gehienez ere 1.000 euro handitu ahalko da baldin eta kenkari hori egiteko eskubidea duen zergadunak gastuak zergaldian xede honetarako ordaindu baditu: haurzaindegi edo haur-hezkuntzako zentro baimenduetan hiru urtetik beherako haurra zaindu dezaten.

Haur adingabeak zergaldian hiru urte betetzen baldin baditu, apartatu honetan ezarritako gehikuntza aplikatu ahalko zaie haurrak adin hori betetzen duenetik haur-hezkuntzako bigarren zikloan hasi aurretiko hilabete arte egiten diren gastuei.

Ondore horietarako, honako hauek joko dira zaintza-gastutzat: adingabeak haurzaindegietan edo haur-hezkuntzako zentroetan inskribatzeagatik eta matrikulatzeagatik ordaindutako gastuak, zaintzagatik (ordutegi orokorrean eta zabalduan) eta elikadurarengatik; betiere, baldin eta hilabete osoetan egin badira, eta gauzazko lan-etekintzat hartzen ez baldin badira, azken horiek lege honetako 42. artikuluko 3. apartatuko b) edo d) letretan ezarritakoa aplikatuz salbuetsita daudelako.

3. Aurreko 1. paragrafoan aurreikusitako kenkaria kalkulatzeko, kontuan hartuko da proportzionalki apartatu horretan ezarritako eskakizunak batera zenbat hilabetetan betetzen diren, eta zergaldi bakoitzean sortutako Gizarte Segurantzaren eta Mutualitateetarako kotizazio eta kostu guztiak seme-alaba bakoitzeko mugak izango dira.

Aurreko 2. atalean ezarritako kenkariaren gehikuntza kalkulatzeko, kontuan hartuko da proportzionalki aurreko 1. eta 2. apartatuetan ezarritako betekizunak batera zenbat hilabetetan betetzen diren, hiru urtetik behera izateko eskakizuna izan ezik (aurreko 2. apartatuan jasota dago). Jaiotzaren edo adopzioaren aurretik zergaldi bakoitzean sortutako Gizarte Segurantza eta Mutualitateetarako kotizazio eta kostu guztiak seme-alaba bakoitzeko mugak izango dira, bai eta haurtzaindegian edo haur-hezkuntzako zentroan seme-alaba horri lotuta dirulaguntzarik gabe ordaindu diren benetako gastuen zenbatekoa osoa ere.

Muga horiek kalkulatzeko, kotizazioen eta kuoten zenbateko osoak zenbatuko dira, legozkiekeen hobariak kontuan hartu gabe.

4. Tributu Administrazioako Estatu Agentziari aurreko 1. apartatuan ezarritako kenkariaren zenbatekoa aurrez ordaintzea eskatu ahalko zaio. Kasu horietan, zergaren kuota diferentziala ez da gutxituko.

5. Horrelako kenkariak egiteko eskubiderik edukitzeko prozedura eta baldintzak, haien ordainketa aurrez eska daitezkeen kasuak eta haurtzaindegietan eta haur-ikastetxeetan bete behar diren informazio-betebeharrak erregelamenduz arautuko dira.»

62. artikulua. *Kenkariak, familia ugariagatik edo desgaitasuna duten pertsonak ardurapean edukitzeagatik.*

Lege hau indarrean jartzen denetik eta indarraldi mugagabez, honako aldaketa hauek txertatzen dira azaroaren 28ko 35/2006 Legean (35/2006 Legea, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duen eta sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga partzialki aldatzekoa):

Bat. Aldatu egiten da 81 bis artikulua 1. zenbakia, eta honela idatzita geratzen da:

«1. Zergadunek norbere edo beste inoren konturako jardueraren bat egiten badute, eta jarduera horrengatik Gizarte Segurantzaren edo mutualitatean dagokion araubidean alta emanda badaude, zergaren kuota diferentziala gutxiagotu ahal izango dute, honako kenkari hauek aplikatuz:

a) Lege honen 58. artikuluan aurreikusitako ondorengoengatik minimoa aplikatzeko eskubidea duen ondorengo desgaitu bakoitzeko, gehienez 1.200 euro urtean.

b) Lege honen 59. artikuluan aurreikusitako aurreko ahaideengatik minimoa aplikatzeko eskubidea duen aurreko ahaide desgaitu bakoitzeko, gehienez 1.200 euro urtean.

c) Familia Ugariak Babesteko Legearen arabera (azaroaren 18ko 40/2003), familia ugari bateko kide den aurreko ahaide izateagatik, edo aita eta ama gabeko senide umezurtza, edo legez banandutako aurreko ahaide izateagatik, edo ezkontza-loturarik gabea, elikagaiengatik urte-saria jasotzeko eskubide gabeko bi seme-alabekin eta, beroriek direla eta, lege honen 58. artikuluan aurreikusitako gutxienez osorik jasotzeko eskubidea duena, gehienez 1.200 euro urtean. Kategoria bereziko familia ugarien kasuan, kenkari hori ehuneko 100 handituko da. Gehikuntza hori ez da kontuan hartuko artikulua honen 2. zenbakian aipatutako mugaren ondoretarako.

Era berean, aurreko paragrafoan ezarritako kenkaria gehienez 600 euro urtean izango da, familia ugari arrunt orokor edo familia ugari berezi gisa, egokia dena, sailkatzeko gutxienez eskatzen diren seme-alaben zenbatekoa gainditzen duen seme-alaba bakoitzeko. Gehikuntza hori ez da kontuan hartuko artikulua honen 2. zenbakian aipatutako mugaren ondoretarako.

d) Legez bananduta ez dagoen eta desgaitasuna duen ezkontidearengatik, gehienez 1.200 euro urtean, baldin eta ezkontidearen errentak, salbuetsiak alde batera utzita, 8.000 eurotik gorakoak ez badira, edo aurreko a) eta b) letretan ezarritako kenkariak jasotzeko eskubiderik ez badu.

Era berean, zergaren kuota diferentziala gutxiagotu ahal izango dute lehenago aurreikusi diren kenkarietan, langabeziatik babesteko sistematik ordaindutakoaren araberako eta laguntzako prestazioak edo Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrak eta Araubide Bereziek edo Estatuko Klase Pasiboen Araubideak ordaindutako pentsioak jasotzen dituzten zergadunek; baita beren konturako langile edo autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian sarturik ez dauden profesionalen aipaturako Gizarte Segurantzako araubide bereziaren ordezkotako gisa jarduten duten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek aitortutako eta aurreko horien antzeko prestazioak jasotzen dituzten zergadunek ere; betiere, Gizarte Segurantzaren dagokion pentsiorako aurreikusitako egoera berberetako prestazioak baldin badira.

Zergadun bik edo gehiagok dutenean aurreko kenkariaren bat aplikatzeko eskubidea aurreko ahaide, ondorengo ahaide edo familia ugari berari dagokionez, kenkariaren zenbatekoa haien artean zati berdinetan hainbanatuko da; hala ere, bete egingo da artikuluko 4. zenbakian xedatutakoa.»

Bi. Aldatu egin da berrogeita bigarren xedapen gehigarriko 3. apartatua, eta 4. apartatua gehitzen da. Honela idatzita geratzen dira:

«3. Lege honetako 81 bis artikuluan ezartzen den legez bananduta ez dagoen eta desgaitasuna duen ezkontidearen ziozko kenkariari eta familia ugari arrunt orokor edo familia ugari berezi gisa, egokia dena, sailkatzeko gutxienez eskatzen diren seme-alaben zenbatekoa gaintitzen duen seme-alaba bakoitzeko ematen den kenkariaren igoyerari dagokienez, honako arau berezi hauek bete beharko dira:

a) Kenkariaren zenbatekoa kalkulatzeko aldera, hilabeteak zenbatu behar direnean, hilabete bakoitzeko azken eguneko egoeraren arabera zehaztuko dira zergadunaren egoera zibila eta familia ugari arrunt orokor edo familia ugari berezi gisa, egokia dena, sailkatzeko gutxienez eskatzen diren seme-alaben zenbatekoa gaintitzen duen seme-alaben kopurua.

b) Legez bananduta ez dagoen eta desgaitasuna duen ezkontidearen ziozko aurrez ordaintzen den kenkariaren zenbatekoa 100 eurokoa izango da hilabetean.

Familia ugariak direnean, aipaturako 60.bis artikuluko 4. apartatuko 1. zenbakiko c) letran ezarritako zenbatekoak hilean 50 euro handituko dira, familia ugari arrunt orokor edo familia ugari berezi gisa, egokia dena, sailkatzeko gutxienez eskatzen diren seme-alaben zenbatekoa gaintitzen duen seme-alaba bakoitzeko.

c) Legez bananduta ez dagoen ezkontidearen ziozko kenkariaren ordainketa aurrez jasotzeko, kontuan hartu behar diren urteko errenten zenbatekoa azken zergaldiko errentena izango da, baldin eta errenta horien autolikidazioa aurkezteko epea alde aurretiko ordainketa eskatzen den ekitaldiaren hasieran amaitu bada.

4. Xedapen gehigarri honetako 1. eta 3. zenbakietan ezarritakoa, bai eta xedapen gehigarri honetako 2. zenbakian zehaztutako informazio-aitorpenaren epea, edukia eta formatua ere, erregelamendu bidez aldatu ahalko dira.»

Hiru. Erantsi egiten zaio hogeita hamahirugarren xedapen iragankorra. Honela idatzita geratzen da:

«Hogeita hamahirugarren xedapen iragankorra. 2018ko ekitaldian 81.bis artikuluan ezarritako kenkaria aplikatzea.

2018ko zergaldian, legez bananduta ez dagoen eta desgaitasuna duen ezkontidearen ziozko kenkaria eta familia ugari arrunt orokor edo familia ugari berezi gisa, egokia dena, sailkatzeko gutxienez eskatzen diren seme-alaben zenbatekoa gaintitzen duen seme-alaba bakoitzeko kenkarian egin daitekeen gehikuntza zehazteko, kontuan hartuko dira eskusiboki 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legea indarrean jarri eta gero hasi diren hilabeteak.»

63. artikulua. *Deklaratzeko betebeharra.*

Aldaketa hauek sartuko dira azaroaren 28ko 35/2006 Legean (35/2006 Legea, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzkoan eta sozietateen gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergari buruzko legeen aldaketa partzialari buruzkoa):

Bat. 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da 96. artikulua 2. apartatua. Honela idatzita geratzen da:

«2. Hala eta guztiz ere, zergadunen errentak jasotzeko iturriak hauexek direnean, zergadunak ez dira beharturik egongo aitortpena egitera, zergak banaka ala batera ordainduta ere:

a) Lan-etekin osoak, urtean 22.000 euroko muga ezarrita.

b) Atxikipena edo konturako sarrerak aplikatzen zaizkien kapital higigarriaren eta ondarezko sarreren etekin guztiak, horien guztien arteko zenbatekoa urtean 1.600 eurokoa bada, gehienez ere.

Letra honetan xedatutakoa ez da aplikatuko inbertsio kolektiboko erakundeen partaidetzen edo akzioen errenbolsotik edo eskualdatzetik eratorritako ondarezko diru-sarrerei dagokienez, baldin eta atxikipen-oinarria zerga-oinarrian txertatu beharreko zenbatekoaren arabera zehaztu behar ez bada, betiere erregelamenduan zehazten denari jarraiki.

c) Lege honetako 85. artikulua arabera inputatzen diren higiezin errentak, Altxorraren letretatik sortu diren eta atxikipen-tasarik ezarrita ez duten kapital higigarriaren ondoriozko etekinak, babes ofizialeko etxebizitzak edo prezio tasatuko etxebizitzak erosteko emandako dirulaguntzak eta laguntza publikoen ondoriozko gainerako ondare-irabaziak, batera urtean 1.000 euroko muga ezarrita.

Lan-etekin osoak, kapital-etekinak, jarduera ekonomikoen ondoriozko etekinak eta ondare-irabaziak lortzen dituzten zergadunak ez dira inola ere beharturik egongo aitortpena egitera, batera urtean 1.000 euroko muga ezarrita, eta ondare-galerak 500 eurotik beherakoak direnean.»

Bi. Aldatu egiten da 96. artikuluko 3. apartatua eta xedapen iragankor bat sartzen da, eta lege hau indarrean jartzen denetik aurrera ondorioak izango dituzte. Honela geratzen da idatzita:

«3. Lan-etekin osoak jasotzen dituzten zergadunentzat aurreko 2. apartatuaren a) letran aipatutako muga 14.000 eurokoa izango da honako kasu hauetan:

a) Ordaintzaile batetik baino gehiagotik datozenean. Nolanahi ere, muga urtean 22.000 eurokoa izango da honako kasu hauetan:

1. Bigarren eta gainerako ordaintzaileengandik jasotako zenbatekoen batura, zenbatekoaren hurrenkerari jarraikiz, 1.500 eurotik gorakoa ez baldin bada.

2. Zergadunen lan-etekinak lege honetako 17.2.a) artikuluan ezarritako prestazio pasiboak baino ez badira, eta atxikipen-tasa aplikagarria erregelamenduz ezarritako prozedura bereziaren arabera zehaztu bada.

b) Ezkontidearen aldetik konpentsazio-pentsioak edo lege honen 7. artikuluan aurreikusitakoak ez diren elikagaiengatik urteko tasak jasotzen dituztenean.

c) Erregelamenduz ezarritakoaren arabera, lan-etekinen ordaintzaileak atxiki beharra ez duenean.

d) Atxikipen-tasa finkoari lotutako lan-etekin osoak jasotzen dituztenean.»

«Hogeita hamalagarren xedapen iragankorra. 2018ko zergaldian aitortpena egiteko betebeharra.

2018ko zergaldiko zerga 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legea indarrean jarri eta gero sortu baldin bada, lege honetako 96. artikuluko 3. apartatuko lehen paragrafoan ezarritako 14.000 euroko muga 12.643 euro artekoa izango da.»

64. artikulua. *Ceuta eta Melilla hirietan kontura egiten diren ordainketen zenbatekoa.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondorioak izanik, eta indarraldi mugagabez, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari eta sozietateen gaineko zergari, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari eta ondarearen gaineko zergari buruzko azaroaren 28ko 35/2006 Legearen 101. artikuluko 1., 2., 3., 4., 5., 8. eta 11. apartatuak aldatzen dira. Honela idatzita geratzen dira:

«1. Erregelamenduz ezarritako prozedurari jarraituko zaio, lan- edo estatutu-harremanen eta pentsioen eta hartzeko pasiboen ondoriozko lan-etekinen gaineko atxikipenaren eta konturako sarreraren ehunekoa zehazteko.

Atxikipenaren edo konturako sarreraren ehunekoa zehazteko orduan, zirkunstantzia pertsonalak eta familiarrak eta, hala badagokio, ezkontidearen errentak eta murriztapenak eta kenkariak zein aurreikus daitezkeen ordainsari aldakorrak hartu ahal izango dira kontuan, erregelamenduz ezarritako moduan, eta honako eskala hau aplikatuko da:

Atxikipen-tasa kalkulatzeko oinarria – Euro arte	Atxikipen-kuota – Euroak	Atxikipen-tasa kalkulatzeko oinarriaren gainerakoa – Euro arte	Aplikatu behar den tasa – Ehunekoa
0,00	0,00	12.450,00	19,00
12.450,00	2.365,50	7.750,00	24,00
20.200,00	4.225,50	15.000,00	30,00
35.200,00	8.725,50	24.800,00	37,00
60.000,00	17.901,50	Hortik aurrera	45,00

Ondorio horietarako, aurreikus daitezkeen ordainsari aldakorrak, aurreko urtean lortutakoak gutxienez, daudela joko da, betiere zenbateko txikiagoa modu objektiboan egiaztatzea dakarten zirkunstantziak ez badaude.

Aurreko ekitaldiei egotzi behar zaizkien atzerapenak badira, ehuneko 15 izango da atxikipenaren eta konturako sarreraren ehunekoa, betiere artikuluko honen 2. eta 3. paragrafoetan aurreikusitako ehunekoak aplikatu behar ez badira.

Apartatu honetan aurreikusitako atxikipenaren eta konturako sarreraren ehunekoaren murrizketa ehuneko 60koa izango da, Ceutan edo Melillan lortutako lan-etekinak direnean, baldin eta lege honen 68.4 artikuluan aurreikusitako kuotaren kenkarirako eskubidea badute.

2. Ehuneko 35 izango da lan-etekinen gaineko atxikipenaren eta konturako sarreraren ehunekoa, baldin eta horiek administrazio-kontseiluetako, horiek ordezkatzan dituzten batzordeetako eta bestelako ordezkari-organotako administrazioaile eta kide gisa eskuratu badituzte.

Nolanahi ere, erregelamenduz ezarritako moduan, baldin eta etekinak 100.000 eurotik beherako negozio-zifraren zenbateko garbia duten erakundeetatik badatoz, ehuneko 19 izango da atxikipenaren eta konturako sarreraren ehunekoa.

Apartatu honetan aurreikusitako atxikipenaren eta konturako sarreraren ehunekoaren murrizketa ehuneko 60koa izango da, Ceutan edo Melillan lortutako lan-etekinak direnean, baldin eta Lege honen 68.4 artikuluan aurreikusitako kuotaren kenkarirako eskubidea badute.

3. Ikastaroak, hitzaldiak, solasaldiak, mintegiak eta antzekoak ematearen ondorioz edota literatura-, arte- edo zientzia-lanak egitearen ondorioz lortutako lan-etekinei aplikatu beharreko atxikipenaren edo konturako sarreraren ehunekoak ehuneko 15 izango da, betiere horrelakoak ustiatzeko eskubidea lagatzen bada. Ehuneko horren ehuneko 60 murriztuko da, Ceuta eta Melillan lortutako lan-etekinak direnean, baldin eta lege honen 68.4 artikuluan aurreikusitako kuotaren kenkarirako eskubidea badute.

4. Ehuneko 19 izango da kapital higigarriaren etekinen gaineko konturako sarreraren edo atxikipenaren ehunekoak.

Ehuneko horren ehuneko 60 murriztuko da, lege honen 68.4 artikuluan aurreikusitako kuotaren kenkarirako eskubidea duten etekinei dagokienez, baldin eta etekin horiek aipatutako artikulua 3. zenbakiaren h) letran zehaztutako sozietateetatik badatoz.

5. Jarduera ekonomikoaren ondoriozko etekinen atxikipenaren eta konturako sarreraren ehunekoak hauexek izango dira:

a) Ehuneko 15, erregelamendu bidez ezarritako jarduera profesionalen etekinei dagokienez.

Nolanahi ere, ehuneko 7 aplikatuko zaie erregelamendu bidez ezarritako jarduera profesionalen etekinei.

Ehuneko horiek ehuneko 60 murriztuko dira, etekinek lege honen 68.4 artikuluan aurreikusitako kuotaren kenkarirako eskubidea badute.

b) Ehuneko 2, nekazaritzako edo abeltzaintzako jardueretatik datozen etekinei dagokienez, txerriak gizenzeko eta hegazti-hazkuntzako nekazaritzako jardueren kasuan izan ezik, azken horietan ehuneko 1 aplikatuko baita.

c) Ehuneko 2, baso-jardueretatik datozen etekinei dagokienez.

d) Ehuneko 1, zenbatespen objektiboko metodoaren bidez etekin garbia zehazten duten beste enpresa-jarduera batzuentzat, erregelamenduz ezarritako kasuetan eta baldintzetan.»

«8. Hiri-ondasun higiezinak alokatzeko edo azpierrean ematetik datozen etekinen atxikipen-tasaren eta konturako sarreraren ehunekoak ehuneko 19 izango da, sailkapena edozein izanda ere.

Ehuneko horren ehuneko 60 murriztuko da, ondasun higiezina Ceuta eta Melillan baldin dago, eta lege honen 68.4 artikuluan ezarritako terminoetan.»

«11. Jarduera ekonomikoetan jarduten duten zergadunek ordainketa zatikatu hauen ehunekoak ordaindu beharko dituzte:

a) Ehuneko 20, jardueren etekin garbia zehazteko metodoa zuzeneko zenbatespena denean, edozein modalitatetan.

b) Ehuneko 4, jardueren etekin garbia zehazteko metodoa zenbatespen objektiboa denean, edozein modalitatetan. Ehuneko 3 izango da, jardueretan soldatako langile bat baino gehiago ez dagoenean; eta ehuneko 2, soldatako langilerik ez dagoenean.

c) Ehuneko 2, nekazaritzako, abeltzaintzako, basogintzako edo arrantzako jarduerak direnean, etekin garbia zehazteko metodoa.

Ehuneko horien ehuneko 60 murriztuko da, jarduera ekonomikoek lege honen 68.4 artikuluan aurreikusitako kuotaren kenkarirako eskubidea badute.»

65. artikulua. *Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu kide bateko zerga-egoiliarrek osatutako familia-unitateei aplikatu ahal zaien kenkaria.*

2018ko urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak izanik eta indarraldi mugagabez, xedapen gehigarri bat gehitu da, berrogeita zortzigarrena, azaroaren 28ko 35/2006 Legean —pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duena eta sozietateen gaineko,

ez-egoiliarren errentaren gaineko eta ondarearen gaineko zergen legeak partzialki aldatzen dituena—, eta honela geratzen da idatzita:

«Berrogeita zortzigarren xedapen gehigarria. *Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu kide bateko zerga-egoiliarrek osatutako familia-unitateei aplikatu ahal zaien kenkaria.*

1. Lege honetako 82.1 artikuluan aipatzen den familia-unitateko kideak, batetik, zerga hori ezarrita duten zergadunak eta, bestetik, Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu kide bateko egoiliarrek baldin badira, eta estatu kide horrekin azaroaren 29ko 36/2006 Legeak —Iruzur Fiskala Prebenitzeko Neurri buruzkoak— 4. apartatuan ezartzen dituen terminoetan zergei buruzko informazio-trukea benetan egiten bada, zerga hori ordaindu behar duten zergadunek banakako aitorenari dagokion kuota osoari kendu ahalko diote honako eragiketa hauek eginez lortzen den emaitza, hala dagokionean:

1. Lege honetako 67. eta 77. artikuluetan ezarritako kenkariak kenduta, zerga ordaindu behar duten familiako kideen estatu-kuota eta kuota autonomiko osoak batuko dira, zergaldi berean familiako gainerako kideek Espainiako lurraldean lortu dituzten errentei dagozkien ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kuotekin batera.

2. Zerga familiako gainerako kideekin batera aitortzeko aukera egon izan balitz, lortuko zatekeen kuota likido osoa zehaztuko da; eta ondore horietarako, eskusiboki, familia-unitateko kide guztiek zerga hori ordaindu behar dutela joko da. Kalkulu hori egiteko, errenta-iturri bakoitzeko, kontuan hartuko da soilik familia-unitatearen errenta negatiboak gainditzen dituen familia-unitateko ez-egoiliarren errenta positiboaren zatia.

3. Aurreko 1. zenbakian ezarritako zenbatekoari kenduko zaio aurreko 2. zenbakian ezarritako kuota. Diferentzia negatiboa baldin bada, konputatu behar den zenbatekoa zero izango da.

4. Estatu-kuota eta kuota autonomiko osoei kenduko zaie aurreko 3. zenbakian ezarritako zenbatekoa, lege honetako 67. eta 77. artikuluetan ezarritako kenkariak egin ondoren. Ondore horietarako, zergaren estatu-kuota osoa ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kuoten proportzioan minoratuko da, aurreko 1. apartutako 1. zenbakian ezarritako zenbateko osoa erreferentziatzen hartuta. Gainerakoak estatu-kuota eta kuota autonomikoa zati berdinetan minoratuko du.

Familia-unitateko kide batzuek zerga hori ordaindu behar baldin badute, minorazioa kide horien kuota osoen proportzioan egingo da, lege honetako 67. eta 77. artikuluetan ezarritako kenkariak haietako bakoitzari egin ondoren.

2. Aurreko 1. apartatuan ezarritakoa ez da aplikagarria izango, baldin eta familia-unitateko kideren batek lege honetako 93. artikuluan ezarritakoari jarraikiz edo Ez-egoiliarren errentaren gaineko Zergari buruzko Legearen testu bategineko 46. artikuluan ezarritakoari jarraikiz zerga ordaintzea aukeratu badu, edo identifikazio fiskaleko zenbakirik ez badauka.

3. Kenkaria aplikatzea zehazten duten baldintzak betetzen diren egiaztatze aldera, Administrazioak beharrezkotzat jotzen dituen dokumentu guztiak eskatu ahalko dizkio zergadunari.

Araubidea edota familiaren zein norberaren egoera ziurtatzeko behar diren dokumentuak Espainiako lurraldean ofiziala ez den hizkuntza batean idatzita baldin badaude, dokumentuok itzulpenarekin batera aurkeztuko dira.»

66. artikulua. *Kenkaria, enpresa berri batean edo sortu berri den enpresa batean inbertitzeagatik.*

2018ko urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak izanda eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duen eta sozietateen

gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga partzialki aldatzen dituen azaroaren 28ko 35/2006 Legearen 68. artikulua 1. apartatutako 1. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Zergadunek enpresa berrietan edo sortu berri diren enpresetan akzioak edo partaidetzak harpidetzen badituzte, ordaindutako zenbatekoen ehuneko 30 kendu ahalko dute dagokion zergaldian, baldin eta apartatu honetako 2. eta 3. zenbakietan ezarritakoa betetzen bada. Gainera, aldi baterako kapital-ekarpenaz gain, beren enpresa-ezagutzak edo lanbide-ezagutzak eman ahalko dituzte, inbertsioa egin duten entitatea garatzeko, zergadunaren eta entitatearen arteko inbertsio-akordioan ezarritako terminoei jarraikiz.

Kenkariaren gehieneko oinarria urteko 60.000 eurokoa izango da, eta harpidetutako akzioen edo partaidetzen eskurapen-balioak osatuta egongo da.

Ez dira kenkari-oinarriaren parte izango akzioak edo partaidetzak harpidetzeko ordaindutako kopuruak, baldin eta araubide erkideko autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa-sistema arautzen duen eta zenbait tributu-arau aldatzen dituen abenduaren 18ko 22/2009 Legean aurreikusitako eskumenak erabiliz autonomia-erkidegoak ezarritako kenkari bat aplikatu badu zergadunak kopuru horiei dagokienez.»

67. artikulua. *Loteria eta apustu jakin batzuetako sarien gaineko karga berezia.*

Lege hau indarrean jartzen denetik, eta indarraldi mugagabez, honako aldaketa hauek txertatzen dira azaroaren 28ko 35/2006 Legean (35/2006 Legea, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duen eta sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga partzialki aldatzekoa):

Bat. Aldatu egiten da hogeita hamahirugarren xedapen gehigarriko 2. apartatua. eta honela idatzita geratzen da:

«2. 40.000 euroko edo gutxiagoko sariak karga berezitik salbuetsita egongo dira. 40.000 eurotik gorako sarien kasuan, zenbateko hori gainditzen duen zatia hartuko da aintzat, zergak ordaintzeko.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa aplikatzeko, loteria-dezimo, zatiki edo kupoiaren zenbatekoak edo egindako apustuarenak 0,50 euro izan behar du, gutxienez. 0,50 euro baino gutxiago bada, aurreko lerrokadan adierazitako gehieneko zenbatekoa proportzionalki murriztuko da.

Saria partekatua bada, aurreko lerrokadetan aurreikusitako zenbateko salbuetsia titularkideen artean hainbanatuko da, dagokien kuotaren arabera.»

Bi. Erantsi egiten zaio hogeita hamabosgarren xedapen iragankorra. Honela idatzita geratzen da:

«Hogeita hamabosgarren xedapen iragankorra. *Loteria eta apustu jakin batzuen sarien gaineko karga berezitik salbuetsita dagoen zenbatekoa, 2018ko eta 2019ko ekitaldietan.*

Uztailaren 3ko 6/2018 Legea, 2018rako Estatu Aurrekontu Orokorren Legea, indarrean jarri aurretik egin diren jokoan ondoriozko sariak karga berezitik salbuetsita egongo dira lege honetako hogeita hamahirugarren xedapen gehigarriko 2. apartatuan ezarritako kopuruan, 2017ko abenduaren 31n indarrean zegoen idazketaren arabera.

Zenbateko hori 10.000 eurokoa izango da, baldin eta 2018ko zergaldian eta lege hori indarrean jarri ostean egin diren jokoan ondoriozko sariak badira; eta 20.000 eurokoa, baldin eta 2019ko zergaldian egin diren jokoan ondoriozko sariak badira.»

*2. atala. Sozietateen gaineko zerga*68. artikulua. *Aktibo ukiezin jakin batzuetatik datozen errentak murriztea.*

Ondoreak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legearen 23. artikulua. Honela idatzita geratzen da:

«23. artikulua. *Aktibo ukiezin jakin batzuetatik datozen errentak murriztea.*

1. Patenteak, baliagarritasun-ereduak, medikamentuak eta produktu fitosanitarioak babesteko ziurtagiri osagarriak, legez babestutako marrazkiak eta ereduak, ikerketarako eta garapenerako jardueretatik eta berrikuntza teknologikoko jardueretatik sortuta, eta ikerketarako eta garapenerako jardueretatik sortutako software aurreratu erregistratua erabiltzeko edo ustiatzeko eskubidea lagatzetik datozen errentak direnean, zerga-oinarriari murriztu ahalko diote honako koefiziente honen emaitza bider ehuneko 60z lortzen den ehunekoa:

a) Zenbakitzailean, entitate lagatzaileak aktiboa sortzeko zuzenean izan dituen gastuak, hari lotuta ez dauden hirugarrenen kontratazioa ere barne. Gastu horiei ehuneko 30 gehituko zaie, baina, zenbakitzaileak ezin izango du inola ere gainditu izendatzailea.

b) Izendatzailean, entitate lagatzaileak aktiboa sortzeko zuzenean izan dituen gastuak, hari lotuta ez dauden hirugarrenen kontratazioaren ondoriozkoak, hari lotuta dauden hirugarrenen kontratazioaren ondoriozkoak eta aktiboa erostearen ondoriozkoak ere barne.

Koefiziente horretan ez dira inola ere sartuko finantza-gastuak, ondasun higiezinaren amortizazioa edo aktiboaren sorrerarekin lotura zuzenik ez duten beste gastu batzuk.

Apartatu honetan ezarritako murrizketa aplikatu ahalko zaie aipatutako aktibo ukiezinaren transmisiogatik sortutako errenta positiboari, baldin eta transmisio hori elkarrekin lotuta ez dauden entitateen artean egiten bada.

Apartatu honetan aipatzen den aktibo ukiezinak babesteko lege-araubidea zehazteko ondoreetarako, Espainiako araudian, Europar Batasuneko araudian edo nazioarteko araudian jabetza intelektualari edo industria-jabetzari buruz ezarritakoa beteko da, Espainiako lurraldean aplikatu ahal bada.

2. Murrizketa hori aplikatzeko ondoreetarako, honako hauek hartuko dira murriztu daitezkeen errenta positibotzat: aktiboak erabiltzeko edo ustiatzeko eskubidea lagatzetik datozen diru-sarrerak eta eskubide horiek eskualdatzetik datozen errenta positiboak, baldin eta horiek aktiboen balioan gehitu ez diren eta entitateak izan dituen aktiboa sortzeko zuzeneko gastuen, lege honetako 12.2 artikulua aktiboen arloan aplikatzearen ondorioz kentzen diren zenbatekoen eta aktiboari zuzenean lotuta dauden eta zerga-oinarrian sartuta dauden gastuen batura gainditzen badute.

Zergaldi batean errenta negatiboak lortzen baldin badira, baina entitateak aurreko zergaldietan errenta positiboak lortu bazituen, eta errenta positibo horiei artikulua honetan ezarritako murrizketa aplikatu bazitzairen, zergaldi horretako errenta negatiboari 1. apartatua aplikatzeagatik lortzen den ehunekoa murriztuko zaio.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatzeko, ezinbestekoa da errenta negatiboek aurreko zergaldietan sartutako errenta positiboaren zenbatekoa ez gainditzea, artikulua honetan ezarritako murrizketa aplikatuta. Geldikin osoa zerga-oinarrian txertatuko da, eta, hala denean, aurreko zergaldian lortutako errenta positibo guztiak zenbateko hori arte txertatuko dira, eta geldikinari 1. apartatua aplikatzeagatik lortzen den ehunekoa aplikatu ahalko zaio.

3. 1. apartatuan ezarritako murrizketa aplikatzeko, honako eskakizun hauek bete beharko dira:

a) Lagapen-hartzaileak erabiltzeko edo ustiatzeko eskubideak erabiltzea jarduera ekonomiko baten garapenean, eta erabilera horren emaitzak ez gauzatzea lagapen-hartzaileak erakunde lagatzaileak fiskalki kengarriak diren gastuak sortzen dituzten ondasunak ematean edo zerbitzuak eskaintzean, betiere, azken kasu horretan, entitate hori lagapen-hartzailearekin lotuta badago.

b) Lagapen-hartzailea zergarik gabeko herrialde edo lurralde batean edo paradisu fiskaltzat kalifikatutako batean ez bizitzea, betiere Europar Batasuneko estatu kide batean kokatuta ez badago, eta zergadunak eragiketa baliozko arrazoi ekonomikoen ondorio dela, eta jarduera ekonomikoak gauzatzen dituela egiaztatzen ez badu.

c) Lagapen-kontratu batek zerbitzuen prestazio osagarriak jasotzen baditu, kontratu horretan horiei dagokien ordaina bereizi beharko da.

d) Entitateak beharrezko kontabilitate-erregistroak edukitzea laga behar den aktibo bakoitzari dagozkion sarrera eta artikulua horretan aipatzen diren gastu zuzenak zehaztu ahal izateko.

4. Murrizketa hori kontuan hartu beharko da lege honen 31.1.b) artikulua aipatutako kuota osoaren zenbatekoa zehazteko orduan.

5. Horiek erabiltzeko edo ustiatzeko edo eskualdatzeko eskubidea lagatsetik datozen errentek ez dute inola ere murrizketarako eskubiderik emango: markak, literatura-, arte- edo zientzia-lanak, film zinematografikoak barne, laga daitezkeen eskubide pertsonalak, hala nola irudi-eskubideak, 1. apartatuan aipatu ez diren informatikako programak, industria-, merkataritza- edo zientzia-ekipoak, planoak, formulak edo prozedurak, sekretuak, industria-, merkataritza- edo zientzia-bizipenei buruzko informazioen gaineko eskubideak, ezta 1. paragrafoan adierazita ez dagoen beste edozer eskubide edo aktibo ere.

6. Eragiketak egin aurretik murrizketa hau aplikatu ahal izateko, zergadunak baloratzeko aurretiko akordio bat hartzeko eskatu ahal izango dio Administrazioari aktiboak lagatsetik etorritako sarrerei eta lotutako gastuei dagokienez, bai eta eskualdaketan sortutako errenten gainean ere. Eskaera horrekin batera balorazio-proposamen bat egingo da, merkatuko balioan oinarrituta.

Proposamena ezetsizat joko da, ebazteko epea igarotzen denean.

Apartatu honetan aipatzen diren baloraziorako aurretiko akordioak ebazteko prozedura erregelamenduz finkatuko da.

7. Halaber, eragiketak egin aurretik, aktiboak kalifikatzeko aurretiko akordio bat eskatu ahal izango dio zergadunak zerga-administrazioari (artikulu honen 1. paragrafoan aipatutako kategorietako baten barruan daudela jotzeko), eta baloratzeko akordio bat horien lagapenetik datozen sarrerei eta lotutako gastuei dagokienez, bai eta eskualdaketan sortutako errenten gainean ere. Eskaera horrekin batera balorazio-proposamen bat egingo da, merkatuko balioan oinarrituta.

Proposamena ezetsizat joko da, ebazteko epea igarotzen denean.

Akordio horren ebazpenak txosten lotesle bat beharko du, Tributuen Zuzendaritza Nagusiaren aldetik, aktiboen kalifikazioari dagokienez. Bidezkotzat joz gero, Tributuen Zuzendaritza Nagusiak horren gaineko iritziz ez loteslea eskatu ahal izango dio Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioari.

Apartatu honetan aipatzen diren kalifikatzeko eta baloratzeko aurretiko akordioak ebazteko prozedura erregelamenduz finkatuko da.»

69. artikulua. *Kenkaria ekoizpen zinematografikoetan, ikus-entzunezko serieetan, eta arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunetan inbertsioak egiteagatik.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legearen 36. artikulua 2. apartatua. Honela idatzita geratzen da:

«2. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioko Enpresa Zinematografikoen Erregistroan izena emanda dauden produktoreek, film luze zinematografikoen atzerriko produkzioaz edo seriean eginiko produkzio industrialak egin baino lehenagoko euskarri fisikoa egiteko modua ematen duten ikus-entzunezko obren produkzioaz arduratzen direnean, eskubidea izango dute Espainiako lurraldean egindako gastuen % 20ko kenkaria izateko, baldin eta Espainiako lurraldean egindako gastuak gutxienez ere milioi bat eurokoak izan badira.

Kenkariaren oinarria Espainiako lurraldean egin eta produkzioarekin zuzeneko lotura duten honako gastu hauek osatuko dute:

1. Langile sortzaileen gastuak, horiek helbide fiskala Espainian edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu kideren batean badute; gehienez ere 100.000 euro pertsona bakoitzeko.

2. Industria teknikoak eta beste hornitzaile batzuk erabiltzetik eratorritako gastuak.

Kenkari horren zenbatekoa ez da 3 milioi eurotik gorakoa izango gauzatutako ekoizpen bakoitzeko.

Zenbaki honetan aurreikusitako kenkaria salbuetsita egongo da foru lege honen 39. artikulua 1. zenbakiko azken paragrafoan aipatzen den mugatik. Muga hori kalkulatzearen ikuspegitik, kenkari hori ez da zenbatetsiko.

Kenkari horren zenbatekoak eta zergadunak jasotako gainerako laguntzen zenbatekoak ez dute ekoizpen-kostuaren ehuneko 50 gaindituko.

Honako betebeharrak hauek bete beharko dituzte zerga-pizgarri hori baliatzen duten produktoreek:

1. Produkzioaren kreditu-tituluetan eta publizitatean espezifikoki adierazi behar dute zerga-pizgarria erabili dutela; gainera, eta berariaz zehaztuko dute Espainiako zer tokitan filmatu duten eta Espainiako Gobernuaren, autonomia-erkidegoen, Spain Film Commission batzordearen eta parte hartu duten Film Commission edo Film Office entitateen lankidetzak izan dutela.

2. Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuari honako material hauek bidali beharko dizkiote, artxibatu, sailkatu eta kudeatu dituzan:

- Ikus-entzunezko produkzioaren kopia bat, kalitate handiko formatu digitalean, jatorrizko bertsioan eta Espainian merkaturatu diren bertsioetan.
- Sinopsia, fitxa tekniko eta artistiko eguneratuarekin batera.
- Produkzioa promozionatzeko material grafikoa (kartelak, argazkiak eta abar).
- Lanaren fotogramak, baimen inplizituarekin batera, filmatzeko tokia izan den lurraldean lana promozionatzeko. Promozio-lan hori egiteko behar diren beste emango dira.

3. Enpresa onuradunek ematen dituzten ikus-entzunezko lanen eta material grafikoen zatiak erreproduzitzeko eskumenak lagatzeko konpromisoa hartzen dute, material horiek lana promozionatzeko jarduerak edo promozio-lanak egiteko. Estatuko, eskualdeko, probintziako edota tokiko erakundeek egin ahalko dituzte material horiek, baldin eta kulturaren, turismoaren edota ekonomiaren arloetan eskumena badute, bai eta Spain Film Commission batzordeak edota parte hartu duten Film Commission edo Film Office entitateek ere, bai Espainian, bai atzerrian.

4. Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuari honako datu hauek ematea, estatistiketan erabiltzeko:

- produkzioa egiten noiz hasi eta noiz amaitu zuten;
- produkzioa egiteko Espainian egin den gastuaren zenbateko osoa, azkenean pizgarriaren xeda izanik zein ez.»

70. artikulua. *Administrazioaren ahalmenak, zerga-oinarria eta beste zerga-elementu batzuk zehazteko.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legearen 131. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«131. artikulua. *Administrazioaren ahalmenak, zerga-oinarria eta beste zerga-elementu batzuk zehazteko.*

Zerga-oinarria zehazteko ondorioetarako, zerga-administrazioak Lege honetako 10.3 artikuluan aipatutako arauak aplikatuko ditu.

Aktiboak zerga-administrazioaren aurrean eska daitekeen zerga geroratu bihurtzen baldin badira (lege honetako 130. artikuluan jorratzen da), zerga-administrazioak bihurteta horren inguruabar erabakigarri guztiak egiaztatu ahalko ditu, eta, zehazki, kontabilitate-galerak.»

71. artikulua. *Ordainketa zatikatuen lege-araubidea.*

Hamalagarren xedapen gehigarria aldatzen da Sozietateen Gaineko Zergaren azaroaren 27ko 27/2014 Legean, eta ondoreak izango ditu 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan. Honela idatzita geratzen da:

«Hamalagarren xedapen gehigarria. *Aldaketak ordainketa zatikatuen lege-araubidean.*

1. Zergaldia hasten den egunaren aurreko 12 hilabeteetako negozio-zifraren zenbateko garbia, gutxienez, 10 milioi eurokoa duten zergadunek honako berezitasun hauek kontuan hartu beharko dituzte lege honen 40. artikulua 3. zenbakian aurreikusitako modalitatean egiten diren ordainketa zatikatuei dagokienez:

a) Ordaindu beharreko zenbatekoa ezingo da izan, inolaz ere, Merkataritza Kodearen eta garapenerako gainerako kontabilitate-araudiaren arabera zehaztutako galera-irabazien kontuaren emaitza positiboaren ehuneko 23 baino txikiagoa, eta zergaldi berari dagozkion eta aurretiaz egin diren ordainketa zatikatuetan baino ez da murriztuko. Zergaldia urte naturalarekin bat datorren kasuetan, ekitaldiaren lehen 3, 9 edo 11 hilabeteetako galera-irabazien kontuaren emaitza positiboa aintzat hartuko da; zergaldia urte naturalarekin bat ez datorrenean, berriz, ekitaldiaren zergaldia hasten denetik zatikako ordainketa egiteko epealdi bakoitza hasi baino egun bat lehenagora arteko galera-irabazien kontuaren emaitza positiboa. Lege honen 29. artikulua 6. zenbakiko lehen letran aurreikusitako karga-tasa aplikatu behar zaien zergadunen kasuan, letra honetan ezarritako ehuneko 25ekoa izango da.

Aipatutako emaitza positibo horretatik kanpo geratuko da zergadunaren hartzekodunek egindako akordio baten ondoriozko kita- eta itxaronaldi-eragiketetatik eratorritako errentei dagokien zenbatekoa; emaitza horretan zergaldiko zerga-oinarrian txertatzen den zenbatekoaren zatia gehituko da. Halaber, bazter utziko da, ondore horietarako, kreditu-konpentsazioaren bidez kapitala edo funts propioak handitzeko eragiketen ondoriozko emaitza positiboaren zenbatekoa, zeina lege honen 17. artikulua 2. zenbakia aplikatzearen ondorioz zerga-oinarrian sartzen ez den.

Lege honen VII. tituluko XIV. kapituluaren zehaztutako zerga-araubide berezia aplikatzen zaien eta partzialki salbuespena dauden entitateen kasuan, salbuespena aplikatzen ez zaien errentei dagokien emaitza positiboa hartuko da emaitza gisa. Lege honen 34. artikuluan zehaztutako hobaria aplikatzen zaien entitateen kasuan, emaitza positiboa hobaria aplikatu ez zaien errentei dagokiena izango da.

Letra honetan xedatutakoa ezin izango zaie aplikatu honako entitate hauei: lege honetako 29. artikuluko 3., 4. eta 5. apartatueta aipatzen diren entitateei; Sozietate Anonimo Kotizatuak Higiezin Merkatuan arautzen dituen urriaren 26ko 11/2009 Legean aipatzen direnei; arrisku-kapitaleko erakundeak, inbertsio kolektiboko bestelako erakunde itxiak eta inbertsio kolektiboko erakunde itxien erakunde kudeatzaileak arautzen dituen eta azaroaren 4ko 35/2003 Legea —Inbertsio kolektiboko erakundeena— aldatzen duen azaroaren 12ko 22/2014 Legean aipatzen diren entitateei.

b) Lege honen 40. artikuluko 3. zenbakiko azken paragrafoak jasotzen duen ehunekoa honako eragiketa honen emaitza izango da: handiagora biribildutako karga-tasa bider hemeretzi hogeiren.

2. Xedapen honetan jasotakoa ez zaie ordainketa zatikatuei aplikatuko horien aitortpen-epa irailaren 30eko 2/2016 Errege Lege Dekretua indarrean jarri aurretik abiarazi bada.

22/2014 Legeak arautzen dituen arrisku-kapitaleko erakundeei xedapen honetan ezartzen zaien salbuespena ez da aplikagarria izango ordainketa zatikatuak aitortzeko epea 6/2018 Legea, uztailaren 3koa, 2018rako Estatu Aurrekontu Orokorrena, indarrean jarri aurretik hasi bada.»

72. artikulua. *Aktibo ukiezin jakin batzuetatik datozen sarrerren murrizketaren araubide iragankorra.*

2018ko urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak izanik, eta indarraldi mugagabez, azaroaren 27ko 27/2014 Legearen hogeigarren xedapen iragankorra aldatzen da (Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearena):

«Hogeigarren xedapen iragankorra. *2016ko uztailaren 1a baino lehen erabilgarri zeuden zergadunaren aktibo ukiezin jakin batzuetatik datozen sarrerren murrizketaren araubide iragankorra.*

1. Xedapen honetan ezarritakoa 2016ko uztailaren 1a baino lehen erabilgarri zeuden zergadunaren aktibo ukieziari aplikatu ahalko zaie.

2. Ekintzaileei eta beren nazioartekotzeari laguntzeko irailaren 27ko 14/2013 Legea indarrean jarri aurretik egindako aktibo ukiezin ustiapenari edo erabilera-eskubideari dagozkion lagapenak direnean, dagozkien kontratuak amaitu arte geratzen diren zergaldi guztietan martxoaren 5eko 4/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearen testu bategineko 23. artikuluan zehaztutako araubidea aplikatu ahalko da, kontabilitate arloko merkataritza-legeria eraberritu eta egokitzeko uztailaren 4ko 16/2007 Legearen zortzigarren xedapen gehigarriko 1.zortzi paragrafoan idatzitako moduan, Europar Batasunaren arauetan oinarritutako nazioarteko harmonizatzea gauzatzeko.

Apartatu honetan xedatutakoa 2021eko ekainaren 30a arte aplikatu ahalko da.

2021eko uztailaren 1etik aurrera, apartatu honetan aipatutakoaren arabera egin diren lagapenek lege honetako 23. artikuluan ezarritako araubidea bete beharko dute, eta, zehazki, uztailaren 3ko 6/2018 Legeak, 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrenak, 23. artikuluan araubidea idatzita dagoen moduan.

3. 14/2013 Legea indarrean jarri eta 2016ko ekainaren 30a arte egin diren edo egingo diren erabilera- edo ustiatze-eskubideen lagapenak direnean, dagozkien kontratuak amaitu arte geratzen diren zergaldi guztietan aplikatu ahalko dute lege honetako 23. artikuluan ezarritako araubidea, zehazki, 2015eko urtarrilaren 1ean indarrean zegoen idazkeraren arabera.

Apartatu honetan ezarritakoa 2021eko ekainaren 30a arte aplikagarria izango da, honako egoera honetan izan ezik: 2016ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era lagatzaileari lotutako entitate bati zuzenean edo zeharka erosi zaizkion aktibo ukiezinak baldin badira, eta, aktibook erosi zirenean, ez bazeuden aktibo ukiezin jakin batzuetatik datozen sarreren murrizketaren araubidearen mende, apartatu honetan ezarritakoa 2017ko abenduaren 31 arte aplikatu ahalko zaie.

2021eko uztailaren 1etik edo 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, hurrenez hurren, apartatu honetan ezarritakoaren arabera egin diren lagapenei lege honetako 23. artikuluan ezarritako araubidea aplikatu beharko zaie, zehazki, uztailaren 3ko 6/2018 Legean idatzita dagoen moduan (6/2018 Legea, 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrena).

4. Aurreko bi apartatuetan jasotako aukerak 2016ko zergaldiko aitortpenaren bidez gauzatuko dira.

5. Aktibo ukiezin eskualdaketak 2. edo 3. apartatuetan ezarritako aukera baliatuz laga baldin badira, eta 2016ko uztailaren 1etik 2021eko ekainaren 30a arte egiten badira, lege honetako 23. artikuluan ezarritako araubidea aplikatu ahalko zaie, zehazki, 2015eko urtarrilaren 1eko indarreko idazkeraren arabera, honako salbuespen hau eginda: eskualdaketa egin duenari lotutako entitate bati zuzenean edo zeharka 2016ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era erosi zaizkion aktibo ukiezinak baldin badira, eta, aktibook erosi zirenean, aktibo ukiezin jakin batzuetatik datozen sarreren murrizketaren araubidearen mende ez bazeuden, araubide hori ezin izango zaie aplikatu 2017ko abenduaren 31 arte egiten direnei baino gehiagori.

Eskualdaketa zer zergalditan egin zen, zergaldi horretako aitortpenean gauzatuko da aukera hori.»

3. sekzioa. Ondarearen gaineko zerga

73. artikulua. Ondarearen gaineko zerga 2018ko ekitaldian.

2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izanik, eta indarraldi mugagabez, ondarearen gaineko zerga aldi baterako ezartzen duen irailaren 16ko 13/2011 Errege Lege Dekretuaren artikulua bakarraren bigarren paragrafoa aldatu egin da, eta honela geratzen da idatzita:

«Bigarrena. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak izanik, honako aldaketa hauek izango ditu Ondarearen gaineko Zergaren Legeak (zehazki, ekainaren 6ko 19/1991 Legea):

Bat. Aldatu egiten da 33. artikulua. Honela idatzita geratzen da:

«33. artikulua. *Kuota osoaren hobari orokorra.*

Zergak ordaintzeko betebeharrak pertsonalagatiko edo errealagatiko subjektu pasiboek % 100eko hobaria aplikatuko zaie zergaren kuota osoaren gainean.»

Bi. 6., 36., 37. eta 38. artikulua indargabetu egin dira.»

4. atala. Tokiko zergak

74. artikulua. *Ekonomia-jardueren gaineko Zerga.*

Lege hau indarrean jarri eta gero hasiko diren zergaldietan ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, honako aldaketa hauek izango ditu Jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren tarifak eta erregelamendua ezartzeko irailaren 28ko 1175/1990 Legegintzako Errege Dekretuak:

Bat. Aldatu egiten da ekonomia-jardueren gaineko tarifei buruzko lehen atalaren 251.3 epigrafea:

A) Aldatu egiten da epigrafea, eta honela geratzen da idatzita:

«251.3 epigrafea. Produktu kimiko organikoak fabrikatzea (industria-gasen fabrikazioa barne, gas konprimatuak izan ezik).»

B) Aldatu egiten da epigrafearen oharra, eta honela geratzen da idatzita:

«Oharra: Epigrafe honetan sartzen dira azido sulfurikoa eta azido horren deribatuak (anhidrido sulfurosoa eta haren deribatuak, kobre sulfatoa, aluminio sulfatoa, karbono sulfuro, sodio sulfatoa, sufre sublimatuak, finduak eta prezipitatuak eta abar); industria-gas likido edo gaseosoak fabrikatzea (gas konprimatuak izan ezik; gas konprimatutzat hartzen dira, egoera likidoan edo gaseosoan fabrikatzen diren industria-gasak, zeinak, behin fabrikatuta, 150 bar baino presio handiagoan ontziratzen baitira); elektrokimika; kaltzio karburoa lortzea; fosforoa, kaltzioa, artsenikoa, zianuroa, bromoa edota iodoa lortzea; azido ez-organikoak; baseak, hidroxidoak eta peroxidoak; haluro ez-metalikoak; gatzak eta beste base-produktu kimiko ez-organiko batzuk eta isotopo erradiaktiboak lortzea.»

Bi. Aldatu egiten da ekonomia-jardueren gaineko tarifei buruzko lehen atalaren 253.1 epigrafea:

A) Aldatu egiten da epigrafea, eta honela geratzen da idatzita:

«253.1 epigrafea. Gas konprimatuak eta karbono dioxido solidotua fabrikatzea (izotz lehorra).»

B) Aldatu egiten da epigrafearen oharra, eta honela geratzen da idatzita:

«Oharra: Gas konprimatutzat hartzen da 251.3 epigrafearen mende fabrikatzen den edozein industria-gas, 150 bar baino presio handiagoan ontziratuta.»

Hiru. «Posta eta telekomunikazio zerbitzu integralak» ekonomia-jardueren gaineko tarifei buruzko lehen atalaren 847 taldea aldatu egiten da:

3. oharra kendu da.

Lau. Aldatu egiten da ekonomia-jardueren gaineko tarifak aplikatzeko gidalerroaren 4. araua;

Gidalerroaren 4. arauko 2. ataleko J) letra gehitzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«J) Arau honetako 4. atalean ezarritakoa gorabehera, tarifen edozein errubrikak ahalmena ematen die subjektu pasiboei honako zerbitzu hau bezeroei eskaintzeko: eskudirua ateratzea eta eskuratutako ondasunak edo zerbitzuak ordaintzea ahalbidetzen dituen zerbitzu konbinatua («*cashback*» zerbitzua), baldin eta finantza-erakundeek beren jarduera tarifen lehen ataleko 811. eta 812. taldeetan sailkatuta badute.»

II. KAPITULUA

Zeharkako zergak*1. atala. Balio erantsiaren gaineko zerga*75. artikulua. *Barneko salbuespenak*

2019ko urtarrilaren 1etik ondorioak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egin da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 20. artikulua Bat paragrafoko 6. zenbakia. Honela idatzita geratzen da:

«6. Zergatik salbuetsitako edo zergari atxiki gabeko jarduerak, murrizketarako eskubiderik sortzen ez dutenak, egiten dituzten pertsonak osatutako elkarte, talde edo entitate autonomoek —interes ekonomikoko taldeak barne— euren kideei zuzenean emandako zerbitzuak, honako baldintza hauek ematean:

- a) Zerbitzu horiek jarduera horretan soilik erabiltzea, zuzenean erabiltzea, eta jarduerari dagokionez, beharrezkoak izatea.
- b) Kideek elkarrekin eragindako gastuei dagokien zatia baino ez ordaintzea.
- c) Salbuetsitako jarduera ez da izango artikulua honetako Bat apartatuko 16., 17., 18., 19., 20., 22., 23., 26. eta 28. zenbakietan aipatuetako bat.

Ondoko kasu honetan ere aplikatuko da salbuespena: aurreko b) letran aurreikusitako baldintza betetzen delarik, murrizketaren hainbanaketa ehuneko 10 baino handiagoa ez izatean, eta zerbitzua murrizketarako eskubidea sortzen duten eragiketetan soilik eta zuzenean ez erabiltzean.

Merkataritza-sozietateek emandako zerbitzuak ez dira salbuespenaren barruan sartzen.»

76. artikulua. *Salbuespenak, ondasunen esportazioan.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 21. artikuluko A) apartatuko 2. zenbakiko a) letra. Honela idatzita geratzen da:

- «a) Erosketetan jasandako zergaren itzuleran gauzatuko da salbuespena.»

77. artikulua. *Salbuespena, esportazioekin parekatutako eragiketetan.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 22. artikuluko Hamahirugarren apartatua. Honela idatzita geratzen da:

«Hamahiru. Bidaiarien eta haien bagajea itsasoz edo airez garraiatzea, zergaren espazio-eremutik at dagoen portu edo aireportu bat helmuga edo irteeraleku dutenean.

Lotura-hegaldiak ere barne hartzen dituen garraio-titulu bakarraren arabera airez bidaiatzen duten garraioak apartatu honetan daudela joko da.»

78. artikulua. *Zerga-tasa murriztuak.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 91. artikulua Bat.2 apartatuko 6. zenbakia eta Bi.2 apartatuko 3. zenbakia. Honela idatzita geratzen dira:

«6. Honako hauetarako sarrera: liburutegiak, artxibo eta dokumentazio-zentroak, museoak, arte-galeriak, pinakotekak, zinema-aretoak, antzokiak, zirkuak, zezen-ikuskizunak, kontzertuak eta zuzeneko gainerako kultur ikuskizunak.»

«3. Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak artatzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 15. artikuluko 1. apartatuko b), c), d) eta e) letrak aipatutako telelaguntzako, etxez etxeko laguntzako, eguneko eta gaueko zentroetako zerbitzuak eta egoitzako arreta-zerbitzuak, betiere zentro edo egoitzetako itundutako plazetan eskaintzen badira edo enpresa eskaintzaileei esleitutako administrazio-lehiaketa batetik eratorritako prezioen bidez, edo prezioaren ehuneko 10 baino gehiago estaltzen duen zerbitzu horiei loturiko prestazio ekonomiko baten ondorioz, bi kasuotan lege horretan xedatutakoa betez.»

79. artikulua. *Telekomunikazio-, irrati- edo telebista-zerbitzuei eta elektronikoki emandako zerbitzuak.*

2019ko urtarrilaren 1etik ondorioak izanik eta indarraldi mugagabez, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legean honako aldaketa hauek egiten dira:

Bat. Aldatu egiten dira 70. artikulua Bat apartatuko 4. eta 8. zenbakiak. Honela idatzita geratzen dira:

«4. Elektronikoki ematen diren telekomunikazio-, irrati- eta telebista-zerbitzuak, hartzailea enpresaburu edo profesional gisa diharduen enpresaburua edo profesionala ez denean, eta, betiere, bere ohiko bizilekua edo egoitza zerga aplikatzen den lurraldean badago edo han finkatuta badago. Zehazki, honako kasu hauetan:

a) Honako baldintza hauek betetzen direnean:

a') enpresaburu edo profesional gisa diharduen enpresaburu edo profesional batek gauzatzen baditu, eta beste estatu kide bakar batean ezarrita badago, ekonomia-jarduera han duelako; edo Europako Erkidegoko lurraldeko egoitza bakarra edo egoitzak han daudelako; edo, bestela, ohiko egoitza edo egoitza iraunkorra han dagoelako; eta

b') enpresaburu edo profesional gisa diharduen enpresaburua edo profesionala ez den eta, a') letran aipatutako estatu kidea alde batera utzita, egoitza edo ohiko helbidea Europako Erkidegoko lurraldean duen hartzaile bati egiten zaizkion prestazioen zenbatekoa guztira, zerga salbuetsita, aurreko urte naturalean 10.000 euroko zenbatekoa edo moneta nazionalaren baliokidea den zenbatekoa gainditu badu.

Edonola ere, a) letran ezarritakoa uneko urtean egiten diren zerbitzu-prestazioei aplikatu ahalko zaie, aurreko paragrafoan ezarritako muga kuantitatiboa gainditutakoan.

Era berean, a) letran aipatutako baldintzetan egiten diren zerbitzu-prestazioak zergaren aplikazio-eremuan egin direla joko da, muga hori gainditu ez bada ere, baldin eta enpresaburuek edo profesionalak egoitza edo bizilekua duten estatu-kidea aukeratu badute zergak ordaintzeko leku gisa.

b) Aurreko a) apartatuko a') letran aipatu ez den enpresaburu edo profesional gisa diharduen enpresaburu edo profesional batek egitea.»

«8. Elektronikoki ematen diren telekomunikazio-, irrati- eta telebista-zerbitzuak, baldin eta betekizun hauek betetzen badira:

a) hartzailea enpresaburu edo profesional gisa diharduen enpresaburua edo profesionala ez bada, eta, betiere, bere ohiko bizilekua edo egoitza beste estatu kide batean dauka;

b) enpresaburu edo profesional gisa diharduen enpresaburu edo profesional batek gauzatzen baditu, eta zerga aplikatzen den lurraldean soilik ezarrita badago, ekonomia-jarduera han duelako; edo Europako Erkidegoko lurraldeko egoitza bakarra han dagoelako; edo, bestela, ohiko egoitza edo egoitza iraunkorra han daudelako.

c) a) letran aipatzen diren hartzaileei egin zaizkien zerbitzu-prestazioen zenbatekoa guztira, zerga salbuetsita, urte naturalean 10.000 eurotik gorakoa edo moneta nazionalaren balioidea denetik gorakoa ez izatea.

Zenbaki honetan ezarritakoa aribideko urtean egiten diren zerbitzu-prestazioei aplikatu ahalko zaie, aurreko paragrafoan ezarritako muga kuantitatiboa gainditu arte.

Enpresaburu edo profesional horiek zenbaki honetan ezarritakoa ez aplikatzea erabaki ahalko dute, erregelamenduz ezartzen den moduan, nahiz eta 10.000 euroko muga ez gainditu. Aukera horretan, gutxienez ere, bi urte natural sartuko dira.»

Bi. Aldatu egiten da 163. *octiesdecies* artikuluko bi apartatuko a) letra. Honela idatzita geratzen da:

«a) «Europako Erkidegoan finkatuta ez dagoen enpresaburua edo profesionala»: ekonomia-jardueraren egoitza Europako Erkidegotik kanpo duen eta Europako Erkidegoan egoitza iraunkorrik ez duen enpresaburu edo profesional oro;».

Hiru. Aldatu egiten da 163. *noniesdecies* artikuluaen Bat apartatuko a) letra. Honela idatzita geratzen da:

«a) Araubide berezi honetan sartutako eragiketen hasiera, aldaketa edo amaiera adieraztea. Adierazpen hori elektronikoki aurkeztuko da.

Erkidegoan finkatu gabeko enpresaburuak edo profesionalak bere zergapeko jardueren hasiera aitortzean emandako informazioak honako identifikazio-datu hauek bilduko ditu: izena, posta-helbidea eta helbide elektronikoa, jarduteko darabiltzan interneteko tokien helbide elektronikoa, bere jarduera-egoitza duen hirugarren lurraldeko zerga-administrazioaren aurrean identifikatzeko darabilen zenbakia, eta Europako Erkidegoko lurraldean ekonomia-jardueraren egoitza ezarri ez duela eta bertan egoitza iraunkorrik ez duela ziurtatzen duen aitortzea. Era berean, Erkidegoan finkatu gabeko enpresaburuak edo profesionalak aipatutako informazioan gertatutako aldaketa oro jakinaraziko du.

Kanarietan, Ceutan edo Melillan finkatutako enpresaburuek edo profesionalak zergapeko jardueren hasiera aitortzean eman behar duten informazioan izena, posta-helbidea, helbide elektronikoa, jarduteko darabiltzan interneteko tokien helbide elektronikoa eta Espainiako Zerga Administrazioak esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakia jaso behar dituzte.

Araubide horren ondorioetarako, zerga-administrazioak banako zenbaki baten bidez identifikatuko du Erkidegoan finkatu gabeko enpresaburua edo profesionala.

Zerga Administrazioak elektronikoki jakinaraziko dio Erkidegoan finkatu gabeko enpresaburuari edo profesionalari esleitu zaion identifikazio-zenbakia.»

2. atala. Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga

80. artikulua. Handitasunen eta noble-tituluen eskualdaketen eta birgaitzeen eskala.

Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren Legearen testu bateginak, irailaren 24ko 1/1993 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoak, 43. artikuluaen lehenengo paragrafoan aipatzen duen eskala honako hau izango da, eta lege hau indarrean jartzen denetik aurrera izango ditu ondoreak:

Eskala	Zuzeneko eskualdaketak – Euroak	Zeharkako eskualdaketak – Euroak	Atzerriko tituluak birgaitzea eta aitortzea – Euroak
1. Handitasun-titulu bakoitzeko	2.781	6.971	16.713
2. Titulu gabeko handitasun bakoitzeko	1.988	4.983	11.932
3. Handitasunik gabeko titulu bakoitzeko	793	1.988	4.783

3. atala. Joko-jardueren gaineko zerga

81. artikulua. *Karga-tasak.*

2018ko uztailaren 1etik ondorioak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da Jokoa arautzen duen maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen 48. artikuluko 7. apartatua. Honela idatzita geratzen da:

«7. Karga-tasa.

1. Honako tasa hauek aplikatu ahalko dira:

1. Estatuaren kirol-apustuak, zeinak martxoaren 27ko 419/1991 Errege Dekretutik eratorritako betebeharren mende baitaude (errege-dekretu horrek Estatuaren kirol-apustuetako diru-bilketa eta sarien banaketa arautzen ditu): artikuluko 6. apartatuko a) letran ezarritako zerga-tasaren ehuneko 22.

2. Elkarrekiko kirol-apustuak, kontrapartida-apustuak eta apustu gurutzatuak; elkarrekiko apustu hipikoak eta kontrapartida-apustuak; beste apustu batzuk, kontrapartidakoak eta elkarrekikoak: artikuluko 6. apartatuko b) letran ezarritako zerga-tasaren ehuneko 20.

3. Zozketak: artikuluko 6. apartatuko b) letran ezarritako zerga-tasaren ehuneko 20; onura publikoko edo ongintzako apustutzat hartzen direnak izan ezik, horiek zerga-tasa beraren ehuneko 5 ezarrita baitute.

4. Txapelketak eta beste joko batzuk: artikuluko 6. apartatuko b) letran ezarritako zerga-tasaren ehuneko 20.

5. Ausazko konbinazioak, publizitate- edo promozio-xedeak betetzeko: artikuluko 6. apartatuko berorietarako ezarritako zerga-tasaren ehuneko 10.

2. Zerga-egoitza beren lurraldeetan duten eta benetan Ceuta eta Melilla hiri autonomoetan errotuta dauden operadoreek tasa hauek bete beharko dituzte:

1. Estatuaren kirol-apustuak, zeinak martxoaren 27ko 419/1991 Errege Dekretutik eratorritako betebeharren mende baitaude (errege-dekretu horrek Estatuaren kirol-apustuetako diru-bilketa eta sarien banaketa arautzen ditu): artikuluko 6. apartatuko a) letran ezarritako zerga-tasaren ehuneko 22.

2. Elkarrekiko kirol-apustuak, kontrapartida-apustuak eta apustu gurutzatuak; elkarrekiko apustu hipikoak eta kontrapartida-apustuak; beste apustu batzuk, kontrapartidakoak eta elkarrekikoak: artikuluko 6. apartatuko b) letran ezarritako zerga-tasaren ehuneko 10.

3. Zozketak: artikuluko 6. apartatuko b) letran ezarritako zerga-tasaren ehuneko 10; onura publikoko edo ongintzako apustutzat hartzen direnak izan ezik, horiek zerga-tasa beraren ehuneko 2,5 ezarrita baitute.

4. Txapelketak eta beste joko batzuk: artikuluko 6. apartatuko b) letran ezarritako zerga-tasaren ehuneko 10.

5. Ausazko konbinazioak, publizitate- edo promozio-xedeak betetzeko: artikuluko honetako 6. apartatuko berorietarako ezarritako zerga-tasaren ehuneko 5.

3. Autonomia-erkidegoek zerga-tasak handitu ahalko dituzte, apartatu honetan unean-unean ezarrita dauden tasen ehuneko 20, gehienez ere, egoitza fiskala lurralde horretan duten operadoreek, antolatzaileek edo zerga honek hartzen duen jardueran aritzen direnek betetako jardueren kasuan; gehikuntza aplikatuko zaio, soilik, tasak handitu dituen autonomia-erkidegoan egoitza fiskala dutenek jokoan izandako partaidetzari dagokion zerga-oinarriaren zati proportzionalari.»

4. atala. Zerga bereziak

82. artikulua. *Hidrokarburoen gaineko zerga.*

Lehen. 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta indarraldi mugagabez, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean aldaketa hauek egiten dira:

Bat. Aldatu egiten dira 50. artikuluen 3. eta 4. zenbakiak, eta honela idatzita geratzen dira:

«3. 8. artikuluko 7. apartatuan ezarritako gorabehera, artikuluko honetako ezarritako zerga-tasak aplikatuko dira, baldin eta erregelamenduz ezarri diren eskakizunak betetzen badira, besteak beste, trazadoreak eta markagailuak gehitzea, produktuen benetako erabilera edo ordainketa-baliabide espezifikoaren erabilera, hala dagokionean.

4. Energia elektriko eta energia termiko erabilgarriaren kogenerazio-planta batean erabiltzera bideraturiko gas naturalaren horniduretan —Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen aplikazio-araudiak jasotzen dituen baldintzak bete beharko dira, edo erregelamenduz ezarritako eskakizunak bete beharko dira—, artikuluko honetako 1. paragrafoko 1.10.1 eta 1.10.2 epigrafeetan zehaztutako zerga-tasak aplikatuko dira, energia termiko erabilgarriaren eta elektrizitatearen ekoizpenari (alternadore-borneetan neurtuta) egotzi behar zaion gas naturalaren ehunekoa kontuan hartuta.»

Bi. Aldatu egiten da 51. artikuluen 4. zenbakia, eta honela idatzita geratzen da:

«4. NC 2705 kodean eta biogas-kodean sailkatutako produktuak fabrikatzea eta inportatzea, baldin eta elektrizitatea sortzeko edota elektrizitatea eta beroa batera sortzeko, edota sortuak diren instalazioetan bertan kontsumitzeko erabiltzen badira.

Salbuespen hori aplikatze aldera, elektrizitatea sortzeko jarduera edota elektrizitatea eta beroa batera sortzeko jarduera egin beharko dira energia elektronikoa sortzeko jarduera edo energia elektriko eta geroago erabiltzeko bero erabilgarria sortzeko jarduera gauzatzen dituen instalazio batean, eta instalazioaren jarduera horiek Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen aplikazio-eremuan sartuta egongo dira. Gainera, instalazioaren ezarpenek eta haien funtzionamenduak lege horretako IV. tituluaren arabera baimenduta egon behar dute.»

Bigarrena. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta indarraldi mugagabez, honako aldaketa hauek egiten dira Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean.

Bat. Indargabetu egiten dira 7. artikuluko 13. apartatua; 8. artikuluen 2. apartatuko f) letra; eta 50. artikulua.

Bi. Aldatu egiten da 50. artikuluen 1. apartatuko 1. tarifa eta lehen paragrafoa. Honela idatzita geratzen dira:

«50. artikulua. *Zerga-tasak.*

1. Tasa orokorra eta tasa berezia batuz osatuko da karga-tasa aplikagarria. Tasa orokorra eta tasa berezia zehaztuta ez duten epigrafeak direnean, karga-tasatzat hartuko da epigrafean zehaztutakoa. Honako tarifa eta epigrafe hauek dira tasa horiek zehazten dituztenak:

1. tarifa:

1.1 epigrafea. Gasolina berundunak: 433,79 euro 1.000 litroko (karga-tasa orokorra) eta 72 euro 1.000 litroko (karga-tasa berezia).

1.2.1 epigrafea. 98 OI (oktanaje indizea) edo oktanaje handiagoa duten berunik gabeko gasolinak: 431,92 euro 1.000 litroko (karga-tasa orokorra) eta 72 euro 1.000 litroko (karga-tasa berezia).

1.2.2 epigrafea. Berunik gabeko gainerako gasolinak: 400,69 euro 1.000 litroko (karga-tasa orokorra) eta 72 euro 1.000 litroko (karga-tasa berezia).

1.3 epigrafea. Erabilera orokorreko gasolioak: 307 euro 1.000 litroko (karga-tasa orokorra) eta 72 euro 1.000 litroko (karga-tasa berezia).

1.4 epigrafea. Erregai gisa erabil daitezkeen gasolioak, 54. artikuluko 2. apartatuko erabilerearako, eta, oro har, erregai gisa erabiltzeko: 78,71 euro 1.000 litroko (karga-tasa orokorra) eta 18 euro 1.000 litroko (karga-tasa berezia).

1.5 epigrafea. Fuel-olioak: 14 euro tona bakoitzeko (karga-tasa orokorra) eta 3 euro tona berezi bakoitzeko (karga-tasa berezia).

1.6 epigrafea. Erabilera orokorreko PGL: 57,47 euro tonako.

1.8 epigrafea. Erregaiak besteko erabilera duten PGLak: 15 euro tonako.

1.9 epigrafea. Erabilera orokorreko gas naturala: 1,15 euro gigajoule bakoitzeko.

1.10.1 epigrafea. Erregai-erabilera bideraturiko gas naturala eta motor geldikorren erregai-erabilera bideraturiko gas naturala: 0,65 euro gigajoule bakoitzeko.

1.10.2 epigrafea. Helburu profesioaletara bideraturiko gas naturala, betiere zuzenean nahiz zeharka energia elektrikoaren kogeneraziorako eta sorrerarako erabiltzen ez bada: 0,15 euro gigajoule bakoitzeko.

Epigrafe honetan aurreikusten denaren ondorioetarako, helburu profesioaletara bideraturiko gas natural gisa hartuko da planta eta instalazio industrialetan kontsumitzeko erabiltzen diren gas naturalaren hornikuntzak, energia termiko erabilgarria ekoizteko erabiltzen dena salbu, haren amaierako aprobetxamendua planta edo instalazio industrialen izaera ez duten establezimenduetan edo lokaletan ekoizten denean. Era berean, helburu profesioaletara bideraturiko gas natural gisa hartuko da nekazaritza-laborantzetan erabilitako gas naturala.

1.11 epigrafea. Erabilera orokorreko kerosenoa: 306 euro 1.000 litroko (karga-tasa orokorra) eta 72 euro 1.000 litroko (karga-tasa berezia).

1.12 epigrafea. Erretzeaz bestelako erabilerearako kerosenoa: 78,71 euro 1.000 litroko.

1.13 epigrafea. Bioetanola eta biometanola, erregai gisa erabiltzekoa:

a) Bioetanola eta biometanola 98 OI (oktanaje indizea) edo oktanaje handiagoa duten berunik gabeko gasolinetan nahastua: 431,92 euro 1.000 litroko (karga-tasa orokorra) eta 72 euro 1.000 litroko (karga-tasa berezia).

b) Bioetanola eta biometanola, gainerako berunik gabeko gasolinetan nahastua nahiz hutsik: 400,69 euro 1.000 litroko (karga-tasa orokorra) eta 72 euro 1.000 litroko (karga-tasa berezia).

1.14 epigrafea. Erregai gisa erabiltzeko biodiesela: 307 euro 1.000 litroko (karga-tasa orokorra) eta 72 euro 1.000 litroko (karga-tasa berezia).

1.15 epigrafea. 54. artikulua 2. paragrafoan aurreikusitako erabileretan erregai gisa eta, oro har, erregai gisa erabiltzeko biodiesela, eta erregai gisa erabiltzeko biometanola: 78,71 euro 1.000 litroko (karga-tasa orokorra) eta 18 euro 1.000 litroko (karga-tasa berezia).

1.16 epigrafea. Sektore elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen aplikazio-eremuaren barruko ekoizpen-jarduera duten instalazioetan energia elektrikoa sortzeko edo energia elektrikoa eta beroa batera sortzeko erabiltzen diren gasolioak: 29,15 euro 1.000 litroko.

1.17 epigrafea. Sektore elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen aplikazio-eremuaren barruko ekoizpen-jarduera duten instalazioetan energia elektrikoa ekoizteko edo energia elektrikoa eta beroa batera sortzeko erabiltzen diren fuel-olioak: tona bakoitzeko, 12,00 euro.»

Hiru. Aldatu egiten dira 52.bis artikulua 4. eta 6. zenbakiak, eta honela geratzen dira idatzita:

«4. Itzulketaren oinarria izango da interesdunak erosi duen eta aurreko 2. paragrafoan adierazitako ibilgailuetan erregai gisa erabili duen gasolio-bolumena. Hala ateratzen den oinarria mila litrotan adierazi behar da.»

«6.a) Estatuaren itzulketa-tasa, 1.000 litroko eurotan adierazita, eragiketa hau eginez lortzen den zenbateko positiboa izango da: 1.3 epigrafean jasotako tasa orokorrari 306 euro kenduko zaizkio; eta tasa bereziari, 48 euro (indarrean dauden tasak, itzulketa jasotzeko eskubidea sortzen denean).

b) Estatuaren itzulketa-tasa aldatu ahal izango da Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legearen bidez.

c) Gehienez ere jaso daitekeen itzulketa-zenbatekoa ezin izango da izan 50.000 litroko kopuruari urtean eta ibilgailu bakoitzeko legokiokeena baino handiagoa, taxiak izan ezik. Taxiak baldin badira, itzulketa-zenbatekoa, gehienez ere, 5.000 litroko kopuruari urtean eta taxi bakoitzeko legokiokeena baino handiagoa. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak muga horiek zatikatzea erabaki ahalko du, urtebetea baino epe txikiagoetan aplikatzeko.»

83. artikulua. *Ikatzairen gaineko zerga bereziaren salbuespenak.*

2018ko uztailaren 1etik aurrera ondorioak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 79. artikuluko 4. apartatua. Honela idatzita geratzen da:

«4. 2. apartatuan ezarritakoa gorabehera, artikulua honetan ezarritako salbuespenak aplikatu ahal izateko, erregelamenduz ezartzen diren baldintzak aplikatu ahalko dira.»

84. artikulua. *Elektrizitatearen gaineko zerga berezia.*

2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta indarraldi mugagabez, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean aldaketa hauek egiten dira:

Bat. Aldatu egiten dira 94. artikulua 5. eta 6. zenbakiak, eta honela idatzita geratzen dira:

«5. Teknologia berriztagarriaren bidezko energia elektrikoa sortzeko, kogeneraziorako eta hondakinatarako instalazioen titularrek kontsumitzen duten potentzia gehienez ere 50 megawatt (MW) izango da.»

«6. Erregai-pilek sortuta kontsumitzen den energia elektrikoa.»

Bi. Aldatu egiten da 96. artikulua 2. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«2. Bere xedea dela eta salbuespena edo kenkaria izan duen elektrizitateari emandako erabileraren edo helmugaren justifikazioari lotutako irregulartasunak egonez gero, hornitzaileek zergaren zerga-zorra eta jar litezkeen zehapenak ordaindu beharko dituzte, hornidura bulego-kudeatzaileak zerga-onura horiek izateko baimendutako edo, hala dagokionean, horretarako ahalmena zuen kontsumitzaile bati egin zitzaioala frogatzen ez duten bitartean.»

Hiru. Aldatu egiten da 98. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«98. artikulua. *Likidazio-oinarria.*

1. Likidazio-oinarria, hala badagokio, zerga-oinarriari ehuneko 85eko murriztapena egitearen emaitza izango da; murriztapen hori aplikatu ahalko zaio, erregelamenduz zehaztutako betekizunak eta baldintzak betetzen badira, honako erabilera hauetakoren batera bideratutako energia elektrikoaren kantitateari:

a) Murrizketa kimikoa eta prozesu elektrolitikoak.

b) Prozesu mineralogikoak. Prozesu mineralogikotzat hartzen dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 20ko 1893/2006 (EE) zenbakidun Erregelamenduaren 23. zatian sailkatzen diren prozesuak; arau horren bidez, NACE 2. berrazterketako jarduera ekonomikoen nomenklatura estatistikoa ezartzen da, eta aldatu egiten dira Kontseiluaren 3037/90 (EEE) zenbakidun Erregelamendua eta zenbait alderdi estatistikoren gaineko EEn hainbat erregelamendu.

c) Prozesu metalurgikoak. Prozesu metalurgikotzat hartzen dira metalaren ekoizpenari eta prestakuntzari dagozkion prozesuak, eta produktu metalikoen produkzioaren barnean, forja-pieza, prentsa, trokelaketa eta tenkaketa, eraztun ijestu, eta hautsezko mineral-produktuen ekoizpena, gainazalen tratamendua eta fundizio-termotratamendua, berokuntza, kontserbazioa, distentsioa edo bestelako termotratamenduak.

d) Industria-jarduerak, jarduera horietan kontsumitutako elektrizitatea produktu baten kostuaren ehuneko 50 baino handiagoa denean.

Ondorio horietarako, produktu baten kostua ondasunen eta zerbitzuen erosketak guztien gehi eskulanaren kostuen gehi kapital finkoaren kontsumoaren batura da. Kostua batez beste kalkulatu da unitateko.

Elektrizitatearen kostua elektrizitatearen egiazko erosketak-balioa edo elektrizitatearen ekoizpen-kostua da, enpresan bertan sortzen bada, zerga guztiak barne, BEZ kengarria izan ezik.

e) Nekazaritzako ureztaketak.

f) Industria-jarduerak, jarduera horien elektrizitate-erosketak edo -kontsumoa gutxienez ekoizpenaren balioaren ehuneko 5 direnean.

Ondorio horietarako, honako hauek honela ulertzen dira:

– «Elektrizitate-erosketak edo -kontsumoa»: eskuratutako edo kontsumitutako energia elektrikoaren egiazko kostua, zerga guztiak barne, BEZ kengarria izan ezik.

– «Ekoizpen-balioa»: negozio-zifraren zenbatekoak osatzen du, eta hari izakinen, bidean dauden eta bukatuta dauden produktuen aldakuntza gehituko zaio.

2. Likidazio-oinarria, hala badagokio, zerga-oinarriari ehuneko 100eko murriztapena egitearen emaitza izango da; murriztapen hori aplikatu ahalko zaio, erregelamenduz zehaztutako betekizunak eta baldintzak betetzen badira, aisiako ontzi pribatuak ez diren eta porturatuta dauden ontziei ematen zaien energia elektrikoaren kantitateari.

Ondore horietarako, «aisiako ontzi pribatu»tzat joko dira jabeak edo pertsona fisiko edo juridiko batek, alokairu baten edo beste baliabide baten bidez,

merkataritza-xedeez bestelako xedeetarako erabili ahal dituzten ontziak, eta, bereziki, honako xede hauetarako erabiltzen ez dituztenak: bidariak edo salgaiak garraiatzeko, kostu bidezko zerbitzuak emateko edo zenbait agintari publikoen premia batzuei erantzuteko.»

Lau. Aldatu egiten da 99. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«99. artikulua. *Zerga-tasa.*

1. Artikulu honetako 2. paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, zerga ehuneko 5,11269632ko tasara eskatuko da.

2. 1. apartatuan finkatutako zerga-tasa aplikatuta ateratako kuota osoak ezingo dira izan honako zenbateko hauek baino txikiagoak:

a) 0,5 euro megawatt eta ordu bakoitzeko (MWh), baldin eta hornitutako edo kontsumitutako elektrizitatea industria-erabileratarako edo aisiako ontzi pribatuak ez diren ontzi porturatuen xedeetarako baliatu bada.

b) 1 euro megawatt eta ordu bakoitzeko (MWh), hornitutako elektrizitatea beste erabilera batzuetara bideratzen denean.

Apartatu honetan aurreikusitako baldintza betetzen ez denean, a) eta b) letretan adierazitako zenbatekoak 1. apartatuan ezarritakoaren ordeztatzeko zerga-tasatzat hartuko dira, eta aldiaren osatu den hornidura edo kontsumo osoaren gainean aplikatuko dira (kontsumoa edo hornidura megawatt orduko adierazita).

3. 2. apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek industria-erabileretarako bideratuta daudela joko da:

a) Goi-tentsioan edo industria-instalazioetan egindakoak.

b) Behe-tentsioan egindakoak, nekazaritzako ureztaketetarako badira.

4. 2. apartatuan ezarritakoa ezin izango zaie aplikatu 98. artikuluko 1. apartatuko a), b), c) eta d) letretan ezarritako kasuei.»

Bost. Aldatu egiten da 102. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«2. Zerga honengatik autolikidazioak aurkeztu behar dituztenek, artikulu honetako 4. paragrafoak aipatutako ordezkariak eta lege honetako 94. artikuluko 5., 6. eta 7. paragrafoetan araututako salbuespenen eta 98. artikuluko 1. apartatuak aipatutako kenkariaren onuradunek dagokion lurralde-erregistroan inskribatzeko eskaera egin beharko diote euren jardura gauzatzen duten establezimendua dagoen edo, haren ezean, euren helbide fiskala dagoen tokiko zerga berezien bulego kudeatzaileari.

Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroak zerga hori nahitaez ordaindu behar dutenen erroldaren egitura zehaztuko du, baita horiek lurralde-erregistroan inskribatzeko prozedura eta epea ere.»

Sei. Idatzi egiten da hirugarren xedapen gehigarria, eta honela idatzita geratzen da:

«Hirugarren xedapen gehigarria.

98. artikuluko 2. apartatuan ezarritakoa aplikatzeko, Europako Erkidegoko antolamenduarekin bateragarria izan beharko du.»

5. atala. *Berotegi efektuko gas fluoratuen gaineko zerga*

85. artikulua. *Zerga-tasa.*

2018ko irailaren 1etik aurrera ondorioak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da Ingurumen-fiskalitatearen arloan zenbait neurri ezarri eta beste tributuo- eta finantza-

neurri batzuk onartzen dituen urriaren 29ko 16/2013 Legearen 5. artikulua. Honela idatzita geratzen da:

«Hamaika. Zerga-tasa.

1. 1. tarifa:

Zerga atmosfera berotzeko potentzialaren arabera izango da.

Zerga-tasa kalkulatzeko, 0,015 koefizientea aplikatuko zaio gas fluordun bakoitzak atmosfera berotzeko duen potentzialari; dena den, gehienez ere 100 euro ordainduko dira kilogramo bakoitzeko, honako epigrafe hauei jarraikiz:

Epigrafea	Berotegi-efektuko gas fluoratuak	Atmosfera berotzeko potentziala	Tasa euro kilo bakoitzeko
1.1.	Sufre hexafluoruroa	22.800	100
1.2.	HFC - 23	14.800	100
1.3.	HFC - 32	675	10,13
1.4.	HFC - 41	92	–
1.5.	HFC - 43-10mee	1.640	24,6
1.6.	HFC - 125	3.500	52,5
1.7.	HFC - 134	1.100	16,5
1.8.	HFC - 134a	1.430	21,45
1.9.	HFC - 152a	124	–
1.10.	HFC - 143	353	5,3
1.11.	HFC - 143a	4.470	67,05
1.12.	HFC - 227ea	3.220	48,3
1.13.	HFC - 236cb	1.340	20,1
1.14.	HFC - 236ea	1.370	20,55
1.15.	HFC - 236fa	9.810	100
1.16.	HFC - 245ca	693	10,4
1.17.	HFC - 245fa	1.030	15,45
1.18.	HFC - 365mfc	794	11,91
1.19.	Perfluorometanoa	7.390	100
1.20.	Perfluoroetanoa	12.200	100
1.21.	Perfluoropropanoa	8.830	100
1.22.	Perfluorobutanoa	8.860	100
1.23.	Perfluoropentanoa	9.160	100
1.24.	Perfluorohexanoa	9.300	100
1.25.	Perfluoroziklobutanoa	10.300	100

2. 2. tarifa:

2.1 epigrafea. Prestakinak: zerga-tasa kalkulatzeko, 0,015 koefizientea aplikatuko zaio prestakinetik eratorritako atmosfera berotzeko potentzialari, betiere bosgarren paragrafoko 2. zenbakian xedatutakoa kontutan hartuta eta kilogramo bakoitzeko gehienez ere 100 euro ordainduko direlarik.

3. 3. tarifa:

3.1 epigrafea. 1. tarifako gas birsortuak eta birziklatuak: zerga-tasa kalkulatzeko, 0,50 koefizientea aplikatuko zaio 1. tarifiari zehaztutako tasari.

3.2 epigrafea. 2. tarifako prestakin birsortuak eta birziklatuak: zerga-tasa kalkulatzeko, 0,50 koefizientea aplikatuko zaio 2. tarifiari zehaztutako tasari.»

III. KAPITULUA

Beste tributu batzuk

86. artikulua. *Tasak.*

Bat. Lege honek indarra hartzen duenetik aurrera, Estatuko Ogasunaren tasen zenbateko finkoko tasak handitu egingo dira, 2017an galdagarri zen zenbatekoari 1,01 koefizientea aplikatuz lortzen den zenbatekoraino, 2017rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legearen 64. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa ez zaie aplikatuko 2017an sortutako tasei, ez eta urte horretan emandako agindu bidez berariaz eguneratutakoei ere.

Lehenengo paragrafoan aurreikusitakotik salbuetsita egongo da katastro-erregularizazioaren tasaren zenbatekoa; tasa hori martxoaren 5eko 1/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Higiezinaren Katastroari buruzko Legearen testu bateginaren hirugarren xedapen gehigarriaren Zortzi zenbakiko d) letran dago aurreikusita.

Trafikoko Buruzagitza Zentralak eska ditzakeen tasak, arestian adierazitako koefizientea aplikatu ostean, euroaren 10 zentimoren goiko multiplo hurbilenaren arabera doitu dira, doitu beharreko kopurua euroaren 10 zentimoren multiploa denean salbu.

Bi. Zenbateko finkoko tasatzat jotzen dira oinarriaren portzentaje baten bidez zehazten ez direnak, edota diru-unitatetan zenbatesten ez den oinarria dutenak.

Hiru. Lege hau indarrean jarri eta gero, honela idatzita egongo da otsailaren 25eko 16/1977 Errege Lege Dekretuaren 3. artikuluko lau apartatua (16/1977 Errege Lege Dekretua, Zorte-, enbido-edo zori jokoan alderdi zigortzaile, administratibo eta fiskalak arautzen dituen):

«Laugarrena. Uztailaren 3ko 6/2018 Legea, 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrena, honako tasa eta kuota finkoak bete beharko dira:

Zerga-tasak eta kuota finkoak.

Bat. Zerga-tasak.

- a) Zerga-tasa orokorra 100eko 10 izango da.
- b) Honako tarifa hau aplikatuko da joko-kasinoetan:

Honako hauen arteko zerga-tasaren zatia, eurotan	Aplikatu behar den tasa – Ehunekoak
0 eta 1.322.226,63 artean	10
1.322.226,64 eta 2.187.684,06 artean	17,5
2.187.684,07 eta 4.363.347,88 artean	22,5
4.363.347,88 baino gehiago	27,555

Bi. Kuota finkoak

Jokoak gauzatzeko erabiltzen diren makina edo gailu automatiko egokiak ustiatzen direnean, kuota jolasteko makinaren eta ausazko jokoetarako makinaren erregelamenduaren arabera zehaztuko da. Erregelamendu hori urriaren 2ko 2110/1998 Errege Dekretu bidez onartu da. Zehazki, honako arau hauek ezarrita daude:

A) «B» motako makinak edo jolasteko makinak, saria ematen dutenak:

- a) Urteko kuota: 1.765,5 euro.

b) B motako makina edo gailu automatikoak direnean, eta bi jokalarik edo gehiagok aldi berean parte hartu ahal badute, eta jokalaria bakoitzaren jokoa eta gainerako jokalariena bereizita badago, honako kuota hauek aplikatuko dira:

Bi jokalarientzat prestatutako makinak edo gailuak: Bi kuota, aurreko a) letran ezarritakoaren arabera.

Hiru jokalarientzat edo gehiagorentzat prestatutako makinak edo gailuak: Kuota ehuneko 50 handituko da, gehitzen den jokalaria bakoitzeko, hirugarrenetik aurrera zenbatuta.

B) «C» motako makinak edo ausazko jokoetarako makinak:

a) Urteko kuota: 2.010,38 euro.»

Lau. Lege hau indarrean jarri eta gero ondorioak izanik eta indarraldi mugagabez, hauxe izango da Nortasun Agiri Nazionala eta pasaporteak egiteko tasen zenbatekoa (tasak ezarrita daude Nortasun Agiri Nazionala emateagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen abenduaren 28ko 84/1978 Legean (1979ko urtarrilaren 12ko BOEn argitaratuta) eta martxoaren 10eko 466/1960 Dekretuan, «Pasaporteak egiteko tasa» baliozkotzen duenean (martxoaren 16ko BOEn argitaratuta):

Tasak	urteko tasaren zenbatekoa, eurotan
013 tasa, pasaporteak egiteko.	30,00
014 tasa, NANA egitekoa.	12,00

87. artikulua. *Jabari publiko irrati-elektroko erresebatzeagatik tasa.*

Bat. Telekomunikazioei buruzko maiatzaren 9ko 9/2014 Lege Orokorraren (aurrerantzean, Telekomunikazioen Lege Orokorra) I. eranskinaren 3. zenbakian jabari publiko irrati-elektroko erresebatzeagatik ezarritako tasa honako formula honen arabera kalkulatu behar da:

$$T = [N \times V] / 166,386 = [S \text{ (km}^2\text{)} \times B \text{ (kHz)} \times F (C_1, C_2, C_3, C_4, C_5)] / 166,386$$

Non:

T = urteko tasaren zenbatekoa, eurotan.

N = erreseba irrati-elektroko unitateen kopurua (URR), S x B biderketaren emaitza gisa kalkulaturik; hau da, zerbitzu-eremuaren azalera, kilometro koadrotan, bider banda-zabalera erresebatua, kHz-tan.

V = URR-ren balioa, Telekomunikazioen Lege Orokorrean ezarritako bost C_i koefizienteen arabera zehaztuta; koefiziente horien kuantifikazioa, aipatutako lege horren arabera, Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean ezarriko da.

F (C₁, C₂, C₃, C₄, C₅) = funtzio hau aurretik adierazitako bost koefizienteen emaitza da.

Estatuko lurralde osoan eragiten duten jabari publiko irrati-elektroko erresebetan, *tasa kalkulatzeko behar den S S azaleraren balioa 505.990 kilometro koadrokoa izango da.*

Hala dagokien irrati-komunikazioetako zerbitzuetan, kontuan hartu behar den S azaleraren barruan Espainiako jurisdikziopeko urak edo aire-esparrua ere jaso ahal izango dira.

Jabari publiko irrati-elektroko erresebatzeagatik tasa da, eta ordaindu beharreko gutxieneko zenbatekoa 100 eurotan mantentzen da.

Irrati-komunikazioetako zerbitzu bakoitzean C₁ eta C₅ arteko koefizienteen balioa zehazteko, Telekomunikazioen Lege Orokorra eta berau garatzen duten erregelamendu-arauak ematen dieten esanahia hartu da kontuan; hots:

1. C_1 koefizientea: Banden erabilera- eta pilaketa-maila, eremu geografiko guztietan. Kontzeptu hauek balioesten dira:

Emakida edo baimen bakoitzeko maiztasun kopurua.
Hiriko edo landako gunea.
Zerbitzugunea.

2. C_2 koefizientea: Zerbitzuari emango zaion erabilera mota, eta, bereziki, zerbitzua ematen duena Telekomunikazioen Lege Orokorraren III. tituluaren zerbitzu publikoetarako ezarritako betebeharrak betetzera behartuta dagoen. Kontzeptu hauek balioesten dira:

Beste sare batzuetarako euskarria (azpiegitura).
Hirugarrenentzako prestazioa.
Autoprestazioa.
Eskubide eskusiboak dituzten telefonia-zerbitzuak.
Irrati-difusio-zerbitzuak.

3. C_3 koefizientea: Espektoaren banda edo azpibanda: Kontzeptu hauek balioesten dira:

Bandaren ezaugarri irrati-elektrokoak (eskatutako zerbitzurako banda egokia den).
Bandari emango zaion erabilera.
Azpibandaren erabilera eskusiboa edota partekatua.

4. C_4 koefizientea: Erabiltzen diren tresneria eta teknologia. Kontzeptu hauek balioesten dira:

Sare konbentzionalak.
Ausaz esleitutako sareak.
Irrati-loturako modulazioa.
Erradiazio-diagrama.

5. C_5 koefizientea: Erreserbatutako jabari publikoaren erabilerak edo aprobetxamenduak eragindako balio ekonomikoa. Kontzeptu hauek balioesten dira:

Esperientzia ez-komertzialak.
Zerbitzuaren errentagarritasun ekonomikoa.
Bandaren gizarte-interesa.
Merkatuko eskariaren ondoriozko erabilerak.
Biztanleriaren dentsitatea.

Tasa zehazteko orduan aintzat hartu beharreko faktore guztiak kontuan harturik, zerbitzu bakoitzerako hainbat modalitate ezarri dira, eta horietako bakoitzari identifikazio-kode bat esleitu zaio.

Ondoren, koefizienteak haztatzeko faktoreak datoz adierazita, bai eta erreferentzia-balioarekiko izan dezaketen balioespen-marjina ere. Erreferentzia-balioa lehenetsita hartzen da, eta, zerbitzuaren edo egindako erreserbaren izaeragatik, dagokion koefizientea aplikatzerik ez dagoen kasuetan ezartzen da.

C_1 koefizientea: Koefiziente honen bidez, zerbitzu jakin baterako maiztasun-banden okupazio-maila hartzen da kontuan. Horretarako, maiztasun-marjinetako tabulazio bat egin da; beheko eta goiko muturretan, dagozkien zerbitzuetan erabili ohi diren bandak daude jasota. Koefiziente honek erabilera-eremu geografikoa ere hartzen du kontuan; oro har bi hauek bereizten ditu: interes eta erabilera handiko eremuak (hirigune handiak); eta interes eta erabilera txikiko eremuak (udalerrri txikiak eta landa-guneak, esaterako). Hasteko, pilaketa txikieneko eta erabilera eskaseko eremu geografikoetarako erreferentzia- edo unitate-balio bat finkatzen da, eta kontzeptu hauengatik kostu erlatiboa gehienez bira igotzen da, gehien eskatutako maiztasun-bandetan eta interes edo erabilera handiko eremuetan.

Kontzeptua	Balio-eskala	Oharra
Erreferentzia-balioa.	1	Zerbitzu bakoitzean, modalitate batean edo batzuetan aplikatu beharrekoa.
Balio-marjina.	1 eta 2 artean	–
Erabilera handiko/txikiko eremua.	+ % 25	Eragindako modalitate eta kontzeptuetan, zerbitzu eta maiztasun-bandengatik irizpide espezifikoaren arabera aplikatu beharrekoak.
Bandaren eskaria.	Gehienez + % 20	
Emakidak eta erabiltzaileak.	Gehienez + % 30	

C_2 koefizientea: Koefiziente honen bidez, bereizketa egiten da autoprestazio-sareen eta hirugarrenei, kontraprestazio ekonomiko baten truke, irati-komunikazioen zerbitzu bat emateko xedea duten sareen artean. Azken horien barruan, zerbitzu publiko izaera hartu da kontuan; hala, koefiziente honen balioan, aintzat hartu da Telekomunikazioen Lege Orokorraren I. eranskinean zerbitzu publikoetarako ezarritako hobaria, eta parametro honetarako ezarritako balioan jasota gelditu da.

Kontzeptua	Balio-eskala	Oharra
Erreferentzia-balioa.	1	Zerbitzu bakoitzean, modalitate batean edo batzuetan aplikatu beharrekoa.
Balio-marjina.	1 eta 2 artean	–
Hirugarrenentzako prestazioa / autoprestazioa.	Gehienez + % 10	Eragindako modalitate eta kontzeptuetan, zerbitzu eta maiztasun-bandengatik irizpide espezifikoaren arabera aplikatu beharrekoak.

C_3 koefizientea: C_3 koefiziente bidez, maiztasun jakin baten edo maiztasunen azpibanda jakin baten jabari publiko irati-elektikoaren erreserba emateko modalitateak hartzen dira kontuan, bakarrik edo eremu geografiko zehatz batean beste erabiltzaile batzuekin partekatuta. Aukera horiek zerbitzu mugikorrari ere aplikatzen zaizkio. Beste zerbitzu batzuetan, jabari publiko irati-elektikoaren erreserbak eskusiboa izan behar du, bere izaera dela eta. Maiztasunak Esleitzeko Koadro Nazionaleko (CNAF) erabilera-joeren eta aurreikuspenen arabera zerbitzurako egokiak ez diren bandetan eskatutako erreserbek tasa handiagoa izango dute, erabilera irati-elektikoak harmonizatze joera laguntzarren; hori koefiziente honen balioespenean islatzen da.

Kontzeptua	Balio-eskala	Oharra
Erreferentzia-balioa.	1	Zerbitzu bakoitzean, modalitate batean edo batzuetan aplikatu beharrekoa.
Balio-marjina.	1 eta 2 artean	–
Maiztasun eskusiboa/partekatua.	Gehienez + % 75	Eragindako modalitate eta kontzeptuetan, zerbitzu eta maiztasun-bandengatik irizpide espezifikoaren arabera aplikatu beharrekoak.
Maiztasun-bandaren egokitasuna.	Gehienez + % 60	

C_4 koefizientea: Koefiziente honen bidez, beste modu batean hazta daitezke erabiltako teknologiak edo sistemak, irati-maiztasunen espektroa modu efizienteenean erabiltzen dutenak laguntzeko. Esate baterako, sare mugikorreran, kanala ausaz esleitzeko sistemak erabiltzea hobesten da, esleipen finkoko tradizionalak erabili beharrean. Irati-loturei dagokienez, erabiltako modulazio mota faktore erabakigarria da banda-zabalerako unitate bakoitzak informazioa igortzeko duen gaitasuna balioesteko orduan, eta hori kontuan hartu da, oro har, maiztasun-bandaren arabera erabilgarri dauden teknologiei so eginez. Irati-

difusioan, kontuan hartu dira irradi-difusio soinuduneko sistema berriak, analogiko klasikoez gain.

Kontzeptua	Balio-eskala	Oharrak
Erreferentzia-balioa.	2	Zerbitzu bakoitzean, modalitate batean edo batzuetan aplikatu beharrekoa.
Balio-marjina.	1 eta 2 artean	–
Erabilitako teknologia / erreferentziako teknologia	Gehienez + % 50	Eragindako modalitate eta kontzeptuetan, zerbitzu eta maiztasun-bandengatik irizpide espezifikoaren arabera aplikatu beharrekoak.

C_5 koefizientea: Koefiziente horren bidez, zerbitzu jakin batek ikuspegi irradi-elektrotik antzekoak diren beste zerbitzu batzuen aurrean duen gizarte-garrantzia hartzen da kontuan. Aintzat hartzen du eskainitako zerbitzuaren interes ekonomiko edo errentagarritasun erlatiboa ere; hala, banda-zabalerako unitate bakoitzeko, gehiago kargatzen ditu interes eta errentagarritasun handiko zerbitzuak, ikuspegi irradi-elektrotik antzekoak izanik, oso bestelako errentagarritasuna duten eta hainbesteko gizarte-garrantzirik ez duten beste batzuk baino.

Irradi-difusioan, zerbitzuaren berezitasunak direla kausa, jabari publiko irradi-elektrotik erreserba jakin baten tasa finkatzeko orduan, faktore erabakigarria izan da aipatutako irradiaren zerbitzugunean dagoen biztanleria-dentsitatea.

Maiztasunak emisio esperimentalak egiteko erreserbatu direnean, titularrarentzat kontraprestazio ekonomikorik gabe, eta xedea denbora mugatu eta zehatz batez teknologia berriak ikertu eta garatzea denean, C_5 koefizientearen balioa balio orokorraren % 15 izango da.

Kontzeptua	Balio-eskala	Oharrak
Erreferentzia-balioa.	1	Zerbitzu bakoitzean, modalitate batean edo batzuetan aplikatu beharrekoa.
Balio-marjina.	> 0	–
Errentagarritasun ekonomikoa.	Gehienez + % 30	Eragindako modalitate eta kontzeptuetan, zerbitzu eta maiztasun-bandengatik irizpide espezifikoaren arabera aplikatu beharrekoak.
Zerbitzuaren gizarte-interesa.	Gehienez – % 20	
Biztanleria.	+ % 100 arte	
Esperientzia ez-komertzialak.	– % 85	

Jabari publiko irradi-elektrotik erreserbatzeagatik tasaren kalkulua

Zerbitzu irradi-elektrotik eta kontuan hartutako modalitateak

Honako talde edo sailkapen hauek jaso dira:

1. Zerbitzu mugikorak.
 - 1.1 Lurreko zerbitzu mugikorra eta lotutako zerbitzuak.
 - 1.2 Estaldura nazionaleko lurreko zerbitzu mugikorra.
 - 1.3 Komunikazio elektronikoen zerbitzuak (hirugarrenentzako prestazioa).
 - 1.4 Itsasoko zerbitzu mugikorra.
 - 1.5 Zerbitzu mugikor aeronautikoa.
 - 1.6 Satelite bidezko zerbitzu mugikorra.
 - 1.7 Banda zabaleko lurreko komunikazio mugikorren sistemak.
 - 1.8 Trenbide bidezko komunikazioen Europako sistema (GSM-R).

2. Zerbitzu finkoa.
 - 2.1 Puntutik punturako zerbitzu finkoa.
 - 2.2 Puntutik puntu anitzerako zerbitzu finkoa.
 - 2.3 Satelite bidezko zerbitzu finkoa.
 - 2.4 Zerbitzu finkoa 57-64 GHz bitarteko maiztasun-bandan.
3. Irrati-difusioko zerbitzua.
 - 3.1 Soinudun irrati-difusioa.
 - 3.2 Telebista.
 - 3.3 Irrati-difusioaren zerbitzu osagarriak.
4. Beste zerbitzu batzuk.
 - 4.1 Irrati-nabigazioa.
 - 4.2 Irrati-determinazioa.
 - 4.3 Irrati-lokalizazioa.
 - 4.4 Satelite bidezko zerbitzuak: ikerketa espaziala, eragiketa espazialak, eta abar.
 - 4.5 Aurreko paragrafoetan jaso gabeko zerbitzuak.

Kontuan hartuz gero zerbitzu irrati-elektrokoen talde horiek, zerbitzua eskaintzeko maiztasun-banda posibleak eta bost koefizienteak —zerbitzu jakin bateko jabari publiko irrati-elektrokoaren erreserben tasa kalkulatzeko aintzat hartu beharreko kontzeptuak edo faktoreak barne—, jarraian adierazitako modalitateak lortzen dira.

1. Zerbitzu mugikorak.
 - 1.1 Lurreko zerbitzu mugikorra eta lotutako zerbitzuak.

Sailkapen honen barruan, lurreko zerbitzu mugikorraren sareetarako jabari publiko irrati-elektrokoaren erreserba eta bestelako modalitate batzuk daude jasota, hala nola portuetako eragiketak eta itsasontziak mugitzekoak, eta kanal bakarreko loturak, banda estuko zerbitzu finkoak.

Telekomunikazioen Lege Orokorren I. eranskinaren 3.1 zenbakian ezarritako bost koefizienteetan oinarrituta, hainbat modalitate bereizi behar dira lurreko zerbitzu mugikorraren sareetan, eta bereiz ebaluatu behar dira erreserba jakin baten tasa finkatzeko irizpideak.

Modalitate bakoitzean, tasa kalkulatu ahal izateko nahitaez bereizi behar diren maiztasun-marjinak tabulatu dira, maiztasun-bandaren okupazio erlatiboa aintzat hartzeko, bai eta Telekomunikazioen Lege Orokorrean jasotako beste alderdi batzuk ere; adibidez, maiztasun-banda jakin bat aurreikusitako zerbitzurako egokia den edo ez.

A motako lineak	4,7931	2,3017	4,7931	2,3707	1,2500	1,1055
A motakoak ez diren lineak	0,7247	0,7320	0,7299	1,9752	0,5865	0,1032

1.3 Trakzioko energia elektrikoa eraldatzeko eta banatzeko instalazioak erabiltzeagatik kanona (C modalitatea). Trenbide-linea baten elektrifikazio-instalazioak erabiltzearen akzioagatik eta efektuagatik.

Zenbatekoa zehaztuko da honako eragiketa hau eginez: tarifa bakarra bider elektrifikatutako trenbide-lineetatik zirkulatutako tren-kilometro bakoitzaz. Betiere, linea-mota eta zerbitzu-mota bereiziko dira.

Bi tarifa mota ezartzen dira: bata, A motako lineetan egiten diren zerbitzuetarako; eta bestea, gainerako lineetan egiten direnetarako.

Tren eta km bakoitzeko euroak

C modalitatea	Zerbitzu mota					
	VL1	VL2	VL3	VCM	VOT	M
A motako lineak	0,8020	0,3835	0,8020	0,3950	0,2500	0,1855
A motakoak ez diren lineak	0,2018	0,2039	0,2033	0,5500	0,1635	0,0287

1.4 Ahalmena esleitzeagatiko kanonaren (A modalitatea) gehikuntza, haren erabilera ez-efizienteagatik

Zenbatekoa zehaztuko da honako eragiketa hau eginez: tarifa bakarra bider esleitutako tren-kilometroen kopuruaren eta egindako tren-kilometroen kopuruaren artean dagoen aldeaz, balio absolutuan; betiere, linea motaren eta zerbitzu motaren arabera:

– Bidaiarien zerbitzuetarako, esleitutako ahalmenaren eta hilabete batean erabilitakoaren artean dagoen aldeaz kilometro-tren bakoitzeko, balio absolutuan, linea motaren eta zerbitzu motaren arabera, alde hori esleitutako ahalmenaren ehuneko 2tik gorakoa denean eta ehuneko hori gainditzen duen heinean.

– Salgaien zerbitzuetarako, esleitutako ahalmenaren eta hilabete batean linea motaren arabera erabilitakoaren artean dagoen aldeaz kilometro-tren bakoitzeko, balio absolutuan, alde hori esleitutako ahalmenaren ehuneko 15etik gorakoa denean eta ehuneko hori gainditzen duen heinean.

Gainetik edo azpitik zirkulatutako km-treinei dagozkien euroak

Linea mota	Zerbitzu mota					
	VL1	VL2	VL3	VCM	VOT	M
A lineak	11,0201	3,9888	8,4803	4,4210	1,9850	1,7356
A motakoak ez diren lineak	1,4346	1,4492	1,4450	6,2700	1,1610	0,2043

1.5 Trenbide-lineak erabiltzeagatiko kanonari egindako gehikuntza (B modalitatea) prestazio handiko sareak erabiltzeagatik edo zabalera aldagarriko zerbitzua ustiatzeagatik edo ordutegi-tarte jakin batzuetan gertatzen diren trafiko-intentsitate handiko bestelako egoera batzuegatik.

Zenbatekoa izango da honako eragiketa honetatik ateratzen dena: tarifa bakarra bider kilometro-plaza bakoitzaz, azken hori kalkulatuta erabilerako kilometro-trenaren oinarri hartuta, bider trenak ibilbide bakoitzean dauzkan plaza guztiez, A motako linea bakoitza eta zerbitzu bakoitzeko bereizita.

Euroak/eskaintako 100 km-plaza

A motako lineak	Zerbitzu mota					
	VL1	VL2	VL3	VCM	VOT	M
Mad-Barna-Muga linea	1,7611	0,2317	0,3023	0,4959	0,0000	0,0000
Mad-Toledo-Sev-Málaga linea	0,8647	0,1504	0,1962	0,3218	0,0000	0,0000
A motako gainerako lineak	0,0000	0,0000	0,0000	0,0000	0,0000	0,0000

Tren eta km bakoitzeko euroak

A motakoak ez diren lineak	Zerbitzu mota					
	VL1	VL2	VL3	VCM	VOT	M
B modalitatearen gehigarria	0,0000	0,0000	0,0000	2,3597	0,0000	0,0000

1.6 Trenbideko garraioaren hazkundea sustatzeko hobaria

Trenbide-sarearen ustiatze eraginkorra pizteko xedearekin eta 38/2015 Legearen 97.6 artikuluan ezarritakoaren arabera trenbideko garraioko zerbitzu berriak sustatzeko, hobari bat aplikatuko da Interes Orokorreko Trenbide Sarea osatzen duten lineak, A eta B modalitateetakoak, erabiltzeko kanonean, urteko trafiko-handitzeetarako, honako irizpide hauei jarraituz:

- A lineetan, banakako linearen eta zerbitzu motaren konbinazio bakoitzerako aplikatuko da.
- B, C, D eta E motatako gainerako lineetan, linea motaren eta zerbitzu motaren konbinazio bakoitzerako aplikatuko da. Konbinazio bakoitzean operatzen duten subjektu pasiboen multzoari aplikatuko zaio.

Hobari hori aplikatzeko, trenbide-azpiegituren administratzaileak urtero honako hauek ezarriko ditu sareari buruzko deklarazioan:

- a) Erreferentziako trafikoa, Tref deitutakoa, km-trenetan neurtua, trenbide-azpiegituren administratzaileak normaltzat jotzen duena da, aurrez zegoen egoeraren edo hura dela-eta aurreikusen den bilakaeraren arabera.
- b) Trafiko objektiboa, Tobj deitutakoa, km-trenetan neurtua, trenbide-azpiegituren administratzaileak merkatua dela-eta dauzkan itxaropenen arabera eta azpiegitura horiek erabiltzen dituzten zerbitzuen arabera zehaztutako trafikoa da.
- c) Trafiko inkrementaletarako hobari objektiboaren ehunekoa, Bobj deitutakoa, trafiko inkrementalei aplikatzeko zaiena, trafiko hazkundea dela-eta dauden aurreikuspenen arabera finkatutako trafiko objektibora iristen denean. Trafikoaren handitzea erreferentziako trafikoaren eta trafiko objektiboaren arteko balio bati dagokionean, xedeko hobariari barne hobari bat aplikatuko zaio, sistema progresibo bat aplikatuta.

Hobaria kalkulatu da 38/2015 Legeak 97.6 artikuluan horretarako jasotako formula aplikatuz.

Bi. Trenbide-azpiegituren administratzaile nagusien titulartasunekoak diren zerbitzu-instalazioak erabiltzeagatiko kanona.

1. Modalitateak eta eskatu ahal diren zenbatekoak.

Bidaiari-garraiorako geltokien erabilerarengatiko kanona (A modalitatea).

Kanon-modalitate horren zenbatekoa honela kalkulatu da:

i. 1., 2., 3., 4. edo 5. kategorietako geltokietan, honako eragiketa hau eginez: tarifa unitarioa bider geltoki kopuruaz, geltokiaren kategoria, geldialdi mota eta tren mota aintzat hartuta.

ii. 6. kategoriako geltokietan, aldirietako gune bakoitzari honako hau aplikatuz: kategoria horretako geltokien multzoak dauzkan ustiatze-kostuetatik aldirietako gune bakoitzeko ateratako tarifa-zenbatekoak, haien ordainketa 12 hilekotan zatituta.

iii. Geltokien irekitzeko ordutegiaz kanpoko zerbitzuengatik, honako eragiketa hau aplikatuz: tarifa bakarra bider geltokien irekitze bereziaren orduak edo zatikia, geltoki kategoria bakoitzeko.

Bidaiarien geltokiak erabiltzeagatiko kanon-tarifak -A1. Proposamena:

Tren geldialdi bakoitzeko euroak

Geltokiaren sailkapena	Geldialdi mota	Nazionala/ Nazioartekoa	Hiriartekoa	Hirikoa
1	HELMUGA	164,0000	33,7842	8,1082
1	TARTEKOA	63,7800	13,1383	3,1532
1	JATORRIA	182,2200	37,5380	9,0091
2	HELMUGA	78,1100	16,0904	3,8617
2	TARTEKOA	30,3800	6,2574	1,5018
2	JATORRIA	86,7900	17,8782	4,2908
3	HELMUGA	75,2111	15,0422	3,6101
3	TARTEKOA	29,2487	5,8497	1,4039
3	JATORRIA	83,5678	16,7136	4,0113
4	HELMUGA	33,4830	6,6966	1,6072
4	TARTEKOA	13,0212	2,6042	0,6250
4	JATORRIA	37,2034	7,4407	1,7858
5	HELMUGA	13,4793	2,6959	0,6470
5	TARTEKOA	5,2419	1,0484	0,2516
5	JATORRIA	14,9770	2,9954	0,7189

6. kategoriako bidaiarien geltokiak erabiltzeagatiko kanon-tarifak -A2. Proposamena:

Gunea	Hileko zenbatekoa - Euroak
Asturias	12.851
Bartzelona	146.857
Bilbo	29.945
Cádiz	1.228
Madril	358.874
Málaga	21.413
Murtzia	1.282
Donostia	24.542
Santander	1.630
Sevilla	9.498
Valentzia	13.127
Asturias (ADAR)	16.982
Murtzia (ADAR)	9.254
Kantabria (ADAR)	10.160
Bizkaia (ADAR)	1.854
León (ADAR)	5.995

Gunea	Hileko zenbatekoa – Euroak
Hilean, guztira	665.491

Geltokien irekitze berezia-A3

Euro/ordu

1. kategoriako geltokiak	632
2. kategoriako geltokiak	108
3. kategoriako geltokiak	51
4. kategoriako geltokiak	23
5. kategoriako geltokiak	10
6. kategoriako geltokiak	7

1.1 ADIF-Alta Velocidad bidaiarien geltokietako instalazioen erabilera-intentsitateagatiko gehikuntza.

Gehikuntza hori kalkulatu da honako eragiketa hau aplikatuz: tarifa bakarra bider geltokiko geldialdi bakoitzean egiazki igotako edo jaitsitako bidaiarien kopurua, bidaiari mota bereizita.

ADIF A.V. geltokietako instalazioen erabilera-intentsitateagatiko gehikuntza.

	Euroak bidaiari bakoitzeko		
	Nazionala/ Nazioartekoa	Hiriartekoa	Hirikoa
Igotako eta jaitsitako bidaiari bakoitzeko tasa.	0,4084	0,0871	0,0209

1.2 Zabalera-aldagailuetatik igarotzeagatik ezartzen den kanona (B modalitatea).

Modalitate horretako zenbatekoa izango da honako eragiketa hau aplikatuz ateratzen dena: tarifa bakarra bider trena edozein norabidetan zabalera-aldagailutik igarotzen den aldi kopuruaz.

Zabalera-aldagailuetatik igarotzea-B

Euroak aldagailutik igarotzen den bakoitzean	134,8211
--	----------

1.3 Geltokietan nasa duten trenbideak erabiltzeagatiko kanona, bidaiarien merkataritza-zerbitzuetarako trenak aparkatuta edukitzeko edo beste eragiketa batzuetarako (C modalitatea).

C.1 Bidaiarien merkataritza-zerbitzuetarako trenak aparkatuta edukitzeagatik, bestelako eragiketarik gabe.

Oro har, 15 minutuko denbora-tartea ezartzen da, eta denbora-tarte horretan ez da kanona aplikatu beharrik izango.

Nasetan trenak aparkatzeko denbora zenbatzearen ondoreetarako, ez dira aintzat hartuko merkataritza-ibilbide bateko tarteko geldialdiak, ez eta trenbide-azpiegituretako administratzaileak trenak aparkatze-bidean edukitzea erabakitzen duen kasuak ere.

Kanonaren zenbatekoa izango da tren bakoitzari aparkatze-denborarengatik tarifa unitarioa aplikatuz ateratzen dena, geltokiaren kategoriaren arabera.

Bidaiarien merkataritza-zerbitzuetarako trenak aparkatzea - C1

	Estazionamendu mota (euro eta tren bakoitzeko)		
	A	B	C
1. kategoriako geltokiak	2,2458	3,3688	4,4917
2. kategoriako geltokiak	1,1229	1,6998	2,2458
Aparkatze-mota:			
A 5 minutu gehigarri bakoitzeko, 15 eta 45 minutu bitarte.			
B 5 minutu gehigarri bakoitzeko, 45 eta 120 minutu bitarte.			
C 5 minutu gehigarri bakoitzeko, 120 minututik aurrera.			

C.2 Trenak aparkatzeagatik, beste eragiketa batzuetarako.

Kanonaren zenbatekoa izango da tarifa unitarioa —tarifa hori zehaztuta geltokiaren kategoriaren arabera eta trenean egin beharreko eragiketaren arabera— geratze-denboran zehar egindako mota bakoitzeko eragiketa kopuruari aplikatuz ateratzen dena.

Trenak geratzea beste eragiketa batzuetarako, C-2

	Euroak
Geltokietan trenak garbitzea, 1-2 kategoria	0,6818
Trena garbitzea gainerako geltokietan	0,5681
Trena geltokian dagoela zamalanak egitea, 1-2 kategoria	0,6722
Trean zamalanak egitea gainerako geltokietan	0,5601
Beste eragiketa batzuk	0,3947

1.4 Trenbideak erabiltzeagatik kanona, zerbitzuko beste instalazio batzuetan: trenak apartatzea eta garbitzea, erregaia hornitzea (D modalitatea).

Instalazioko zerbitzuko bidea erabiltzeko denboraren arabera ezartzen da, bideak oinarritzko osagaiak dituela: bidea bera, katenaria, desbideratzeak eta ekipamendu gehigarria.

Modalitate horren zenbatekoa izango da honako hauek zenbatuz ateratzen dena: baimendutako bide osoa erabiltzeagatik kopurua, bide hori zuzkituta dagoen ekipamenduari lotutako kopurua eta eskatutako ekipamendu gehigarriaren kopurua, kontzeptu bakoitzaren kopuru unitarioa bider kasuko unitateak aplikatuta, eskatutako aldirako hainbanatuz eta 38/2015 Legearen 98.4.D) artikuluan ezarritako errendimendu koefizientearen arabera.

Beste instalazio batzuk erabiltzeagatik proposatzen diren kanonen tarifak

Apartatueterako bideak erabiltzeagatiko eta bestelakoengatiko kanona - D

Oinarrizko osagaiak	
C Trenbidea	5,402 euro/trenbideko m eta urtea.
C Katenaria:	1,826 euro/katenariako m eta urtea.
C I. motako desbideratzea (eskuzkoa)	564,755 euro/unit.–urtea.
C II. motako desbideratzea (urrutiko aginte bidezkoa)	2.165,954 euro/unit.–urtea.
Bideari lotutako ekipamendu-osagaiak:	
C Bideen arteko korridorearen kanona:	1,191 euro/trenbideko m eta urtea.
C Trenbideko argiztapena	1,368 euro/trenbideko metroa eta urtea.
C Trenbide-lautadako argiztapena	2,026 euro/trenbideko metroa eta urtea.
C Suteen aurkako babes-sarea	5,953 euro/trenbideko m eta urtea.
C Kargatzeko/deskargatzeko nasa	52,490 euro/trenbideko m eta urtea.
Ekipamendurako aukerako osagaiak:	
C Koipeak jasotzeko bandeja	521,516 euro/unit.–urtea.
C Erregaia jasotzeko bandeja	820,049 euro/unit.–urtea.
C Kabinara sartzeko eskaillerak	20,945 euro/unit./urtea.
C Deskargatzeko isurbide-zuloa	118,050 euro/unit./urtea.
C Mantentze-zuloa (hartunerik gabe)	188,388 euro/unit./urtea.
C Kargatzeko/deskargatzeko arrapala	602,613 euro/unit./urtea.
C Uraren, elektrizitatearen edo aire konprimatuaren hornidurarako hargunea:	43,750 euro/unit.–urtea.

Halaber, 98.4.D) artikulua aplikatuta, honako gutxienerako zenbateko hauek ezartzen dira:

- Erregaia hartzeko zerbitzuaren instalazioak erabiltzeagatiko gutxienerako zenbatekoa, ADIFen erregai-hornidurako gune finko zein mugikor guztietarako, 3,75 eurokoa izango da.
- Modalitate honi lotutako gainerako zerbitzu-instalazioak erabiltzeagatiko gutxienerako zenbatekoa zerbitzu-instalazio bakoitza lau orduz erabiltzeko gutxienerako aldiaren baliokidea izango da.

1.5 Salgaiak kargatzeko tokiak erabiltzeagatiko kanona (E modalitatea).

Modalitate horren zenbatekoa izango da honako hauek zenbatzetik ateratzen dena: baimendutako bide osoa erabiltzeagatiko kopurua, bidearen paraleloan dagoen azalerako zerrenda (bazterra) erabiltzeari lotutako osagaia, bide hori zuzkituta dagoen ekipamenduari lotutako kopurua eta eskatuta ekipamendu gehigarriaren kopurua, kontzeptu bakoitzaren kopuru unitarioa bider kasuko unitateak aplikatuta, eskatutako aldirako hainbanatuz eta 38/2015 Legearen 98.4.E) artikuluan ezarritako errendimendu koefizientearen arabera.

Beste instalazio batzuk erabiltzeagatik proposatzen diren kanonen tarifak

Salgaien kargatze-lanetarako guneak erabiltzeagatiko kanona-E

Oinarrizko osagaiak	
C Trenbidea	5,402 euro/trenbideko m eta urtea.

C Katenaria:	1,826 euro/katenariako m eta urtea.
C I. motako desbideratzea (eskuzkoa)	564,755 euro/unit.–urtea.
C II. motako desbideratzea (urrutiko agente bidezkoa)	2.165,954 euro/unit.–urtea.
C I. motako lautada (hormigoia/galtzada-harria)	19,340 euro/m-urtea.
C II. motako lautada (aglomerazioa)	11,232 euro/m-urtea.
C III. motako lautada (zagorrak)	5,191 euro/m-urtea.
Bideari lotutako ekipamendu-osagaiak:	
C bideen arteko korridorearen kanona:	1,191 euro/trenbideko m eta urtea.
C Trenbideko argiztapena	1,368 euro/trenbideko metroa eta urtea.
C Trenbide-lautadako argiztapena	2,026 euro/trenbideko metroa eta urtea.
C suteen aurkako babes-sarea	5,953 euro/trenbideko m eta urtea.
C Kargatzeko/deskargatzeko nasa	52,490 euro/trenbideko m eta urtea.
Ekipamendurako aukerako osagaiak:	
C Koipeak jasotzeko bandeja	521,516 euro/unit.–urtea.
C Erregai jasotzeko bandeja	820,049 euro/unit.–urtea.
C Kabinara sartzeko eskailerak	20,945 euro/unit./urtea.
C Deskargatzeko isurbide-zuloa	118,050 euro/unit./urtea.
C Mantentze-zuloa (hartunerik gabe)	188,388 euro/unit./urtea.
C Kargatzeko/deskargatzeko arrapala	602,613 euro/unit./urtea.
C Uraren, elektrizitatearen edo aire konprimatuaren hornidurarako hargunea:	43,750 euro/unit.–urtea.

98. artikulua. *Ondare-prestazio publikoak.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, beste era batean idazten da uztailaren 7ko 21/2003 Legearen 87. artikulua azken aurreko paragrafoa (21/2003 Legea, Aire Segurtasunari buruzkoa). Honela idatzita geratzen da:

«Aldi berean pasabide batekin baino gehiagorekin konektatu ahal diren aireontziak badira, horretarako bereziki diseinatu diren pasabideetan paraleloan aparkatzen direnean, konektatzen den pasabide gehigarri bakoitzeko unitate-zenbatekoaren ehuneko hirurogeita hamabost murriztuko da.»

VII. TITULUA

Lurralde-erakundeak

I. KAPITULUA

Toki-erakundeak

1. atala. Estatuaren tributuetan parte hartzeari dagokion 2016ko behin betiko likidazioa

99. artikulua. *Araubide juridikoa eta saldo zordunak.*

Bat. Behin Estatuaren zerga bidezko diru-sarrerek 2004. urtetik 2016ra izandako bariazioa ezagututa, baita beharrezko bestelako datuak ere, Estatuaren tributuetan parte hartzeari dagokion behin betiko likidazioa kalkulatu da, 2016ko ekitaldiari dagokiona.

Horretarako, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginako 111.etik 124.era artikuluetan eta 135.etik 146.era artikuluetan jasotako baldintzak beteko dira (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuz onetsiak), eta kontuan hartuko dira urriaren 29ko 48/2015 Legeak, 2016rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrenak, artikulua hauetan jasotako arauak: 85.etik 88.era, 90. eta 91. artikuluetan, 93.etik 96.era, 98. eta 100. artikuluan.

Bi. Aurreko zenbakian aipatutako likidaziotik sor daitezkeen saldo zordunak, estatu-zergen bidez lortutako diru-sarrerren etekinen lagapenari dagozkion finantzaketarenak, konpentsazio bidez itzuliko dituzte ukitutako toki-erakundeek likidazio horren ostean Estatuko tributuetan parte hartzeari dagokionez jasotzen dituzten konturako ekarpenen kontura, gehienez hiru urteko epean, hileko entrega baten ehuneko 25eko hiruhilekoko atxikipenen bidez, salbu eta, irizpide hori aplikatuta, adierazitako epea gainditzen bada; horrelakoetan, dagozkien atxikipenen maiztasuna eta zenbatekoa egokituko dira egoera hori saihesteko. Parte-hartze hori kapitulu honetako 3. atalean eta 5. ataleko 1. azpiatalean dago araututa.

Hiru. Aurreko Bat zenbakian aipatutako likidaziotik sor daitezkeen saldo zordunak, estatu-zergen bidez lortutako diru-sarrerren etekinen lagapenari dagozkion finantzaketarenak, konpentsazio bidez itzuliko dituzte ukitutako toki-erakundeek, Estatuko tributuetan parte hartzeari dagokion likidazioa egin ondoren sor daitezkeen saldo hartzekodunen kontura. Parte-hartze hori kapitulu honetako 3. atalean eta 5. ataleko 1. azpiatalean dago araututa. Aipatutako konpentsazioa egin ondoren egon litezkeen gainerako saldo zordunak konpentsazio bidez itzuliko dituzte toki-erakundeek, lagapen hartan bildutako estatu-zerga bakoitzeko jasotzen dituzten konturako ekarpenetan; nolana ere, ez zaizkie aplikatuko aurreko zenbakian ehunekoei eta epeei dagokienez adierazitako mugak.

Lau. Artikulu honen Bi zenbakian aipatutako behin betiko likidazioen zenbatekoa Estatuaren aldekoa bada, eskubide gisa adieraziko da Estatuaren Diru-sarrerren Aurrekontuko IV. kapituluan.

Bost. Ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformaren ondorioz probintzia bakarreko autonomia-erkidegoen alde (Kantabria, Madril eta Errioxa) egin beharreko konpentsazioen behin betiko likidazioaren zenbatekoa aurrekontu-kredituetan sartu ahalko da, bidezkoak diren aldaketak eta doikuntzak eginez, eta araubide erkideko autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa-sistema aplikatuz dagokien kopuruaren arabera. Halaber, alde aurretik Toki Administrazioaren Batzorde Nazionalako Ekonomia, Finantza eta Zerga Araubidearen Azpibatzerdeak txosten bat igorri beharko du, eta ondoren Batzorde Mistoak onartu.

Sei. Artikulu honetan aipatutako atxikipenak eta 125. artikuluan araututakoak batera gertatzen direnean, lehenengoek izango dute lehentasuna, eta ez dira aintzat hartuko aipaturiko artikuluen Bi zenbakian zehaztutako ehunekoak kalkulatzeko.

2. atala. 2018an Estatu-zergen bidez bildutakoa udalerriei lagatzea

100. artikulua. *Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren bidez bildutakoaren etekinak lagatzea: Konturako ekarpenak eta behin betiko likidazioa zehaztea.*

Bat. Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuz onetsitakoaren, 111. artikuluan ezarritako eremu subjektiboan bildutako udalerriek 2018an lortutako diru-bilketa likidoan parte hartuko dute; horretarako, behin betiko likidazioaren konturako ekarpen bat egingo dute hileroko, hamabi guztira. Konturako ekarpen horien zenbateko osoa eragiketa honen bidez kalkulatu da:

$$ECIRPF_m = 0,021336 \times CL_{2015m} \times IA_{2018/2015} \times 0,95$$

Non:

- $ECIRPF_m$: Konturako ekarpenen urteko zenbatekoa, m udalerriko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren bidez bildutakoaren etekin lagapena dela eta.
- CL_{2015m} : m udalerrian pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren bidez Estatuak lortutako kuota likidoa, 2015. urteari dagokiona (ezagutzen den azkena).
- $IA_{2018/2015}$: Estatuaren kuota likidoa eguneratzeko indizea, 2015etik —ezagutzen den azkena— 2018ra. Honela kalkulatzen da: atxikipenen, konturako ekarpenen eta zatikako ordainketen bidez 2018rako aurreikusitako aurrekontuaren zenbatekoa zati kontzeptu horien bidez 2015ean likidatutako eskubideen zenbatekoa —urte horretakoak dira udalerrien kuota likidoari dagokionez ezagutzen diren azken datuak—.

Udalerrri bakoitzari eman beharreko zenbatekoa, formula horren arabera zehaztutakoa, diru-sarreraren itzulketa moduan izapidetuko da, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontzeptuan.

Bi. Behin betiko likidazioa honela kalkulatuko da: jasotako konturako ekarpenen eta udalerrri bakoitzari dagokion kuota likidoaren lagapenaren behin betiko balioaren arteko aldea zehaztuz. Kuota likidoaren lagapena Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 115. artikuluan dago xedatuta. Ondore horietarako, aurreko zenbakian adierazitako lagapen-ehunekoa aplikatuko da, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoarekin bat.

101. artikulua. *Balio erantsiaren gaineko zergaren bidez bildutako zenbateko likidoa lagatzea: Konturako ekarpenak eta behin betiko likidazioa zehaztea.*

Bat. Aurreko 100. artikuluan aipatzen diren udalerrriek balio erantsiaren gaineko zergaren bidez lortzen den diru-bilketa likidoan parte hartuko dute; horretarako, behin betiko likidazioaren konturako ekarpen bat egingo dute hiler, hamabi guztira.

Udalerrri bakoitzari dagokion konturako ekarpenaren zenbatekoa honako eragiketa honen bidez kalkulatuko da:

$$ECIVA_m = PCIVA^* \times RPIVA \times ICP^i \times (P_m / P_i) \times 0,95$$

Non:

- $PCIVA^*$: Balio erantsiaren gaineko zergaren bidez bildutakoaren etekin lagapenaren ehunekoa, udalerrien aldekoa. Konturako ekarpen hauen kasuan, ehuneko 2,3266 izango da.
- $ECIVA_m$: m udalerrriaren konturako ekarpenen urteko zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez 2018rako aurreikusitako bilketaren lagapena dela eta.
- $RPIVA$: Estuari balio erantsiaren gaineko zergaren bidez 2018rako dagokion diru-bilketa likidoaren aurrekontu-aurreikuspenaren zenbatekoa.
- ICP^i : Autonomia-erkidegoko kontsumoaren behin-behineko indizea, 2018. urterako. Horretarako, eskuragarri dagoen azken datua kontuan hartuko da; 2015. urteko behin betiko likidazioa kalkulatzeko erabilitakoa, hain zuzen ere.
- P_m eta P_i : m udalerriko biztanleria eta dagokion i autonomia-erkidegoko biztanleria. Ondore horietarako, 2018ko urtarrilaren 1ean indarrean zegoen udal-errolan, Gobernuak ofizialki onartutakoan, zehaztutako zuzenbidezko biztanleria hartuko da kontuan.

Udalerrri bakoitzari eman beharreko zenbatekoa, formula horren arabera zehaztutakoa, diru-sarreraren itzulketa moduan izapidetuko da, balio erantsiaren gaineko zergaren kontzeptuan.

Bi. Behin betiko likidazioa honela kalkulatu da: jasotako konturako ekarpenen eta BEZaren bidez bildutako zenbateko likidoaren lagapenaren behin betiko balioaren arteko aldea zehaztuz. Zenbateko likidoaren lagapena Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 116. artikuluan dago xedatuta. Ondorio horietarako, aurreko paragrafoan adierazitako lagapen-ehunekoa aplikatu da, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoarekin bat.

102. artikulua. *Alkoholaren eta edari alkoholduen gaineko zerga berezien bidez bildutako zenbateko likidoa lagatzea: Konturako ekarpenak eta behin betiko likidazioa zehaztea.*

Bat. 100. artikuluan aipatzen diren udalerriek honako zerga hauen bidez lortutako diru-bilketa likidoan parte hartuko dute: garagardoaren, ardoaren eta edari hartzituen gaineko zergak, tarteko produktuen gainekoak eta alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergak. Horretarako, behin betiko likidazioaren konturako ekarpen bat egingo dute hiler, hamabi gutzira.

Udalerrri bakoitzari dagokion konturako ekarpenaren zenbatekoa honako eragiketa honen bidez kalkulatu da:

$$ECIIEE(h)_m = PCIIEE^* \times RPIIEE(h) \times ICP_i(h) \times (P_m / P_i) \times 0,95$$

Non:

– PCIIEE*: Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga berezien bidez bildutakoaren etekinen lagapenaren ehunekoa. Konturako ekarpen hauen kasuan, ehuneko 2,9220 izango da.

– ECIIEE(h)_m: m udalerrriaren konturako ekarpenen urteko zenbatekoa, zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako produktuen gaineko h zerga bereziaren bidez 2018rako aurreikusitako bilketaren lagapena dela eta.

– RPIIEE(h): Estatuari zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako produktuen gaineko h zerga bereziaren bidez 2018rako dagokion diru-bilketa likidoaren aurrekontu-aurreikuspenaren zenbatekoa.

– ICP_i(h): m udalerrria dagoen i autonomia-erkidegoko kontsumoari dagokion 2018rako behin-behineko indizea, zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako produktuen gaineko h zerga berezia dela eta. Horretarako, eskuragarri dauden azken datuak hartuko dira kontuan; hain zuzen ere, 2015. urteko behin betiko likidazioa kalkulatzeko erabili zirenak.

– P_m eta P_i: m udalerriko biztanleria eta dagokion i autonomia-erkidegoko biztanleria. Ondore horietarako, 2018ko urtarrilaren 1ean indarrean zegoen udal-errolan, Gobernuak ofizialki onartutakoan, zehaztutako zuzenbidezko biztanleria hartuko da kontuan.

Udalerrri bakoitzari konturako ekarpen gisa eman beharreko zenbatekoa, formula horren arabera zehaztutakoa, diru-sarrerren itzulketa moduan izapidetuko da, zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako zerga berezi bakoitzaren kontzeptuan.

Bi. Behin betiko likidazioa honela kalkulatu da: jasotako konturako ekarpenen eta aurreko zenbakiaren lehenengo paragrafoan zehaztutako zerga berezien bidez bildutako zenbateko likidoaren lagapenaren behin betiko balioaren arteko aldea zehaztuz. Zenbateko likidoaren lagapena Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 117. artikuluan 1. eta 2. zenbakietan dago xedatuta. Ondore horietarako, aurreko zenbakian adierazitako lagapen-ehunekoa aplikatu da, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoarekin bat.

103. artikulua. *Hidrokarburoen eta tabako-laboreen gaineko zerga berezien bidez bildutako zenbateko likidoa lagatzea: Konturako ekarpenak eta behin betiko likidazioa zehaztea.*

Bat. 100. artikuluan aipatutako udalerriek parte hartuko dute hidrokarburoen eta tabako-laboreen gaineko zergen bidez bildutako zenbateko likidoan. Horretarako, hamabi hilabetez jaso beharreko ekarpenak zehaztuko dira, behin betiko likidazioaren kontura.

Udalerri bakoitzari dagokion konturako ekarpenaren zenbateko osoa honako eragiketa honen bidez kalkulatu da:

$$ECIIIEE(k)_m = PCIIIEE^* \times RPIIEE(k) \times IP_m(k) \times 0,95$$

Non:

– PCIIIEE*: Hidrokarburoen eta tabako-laboreen gaineko zerga berezien bidez bildutakoaren etekinen lagapenaren ehunekoa. Konturako ekarpen hauen kasuan, ehuneko 2,9220 izango da.

– ECIIIEE(k)_m: m udalerraren konturako ekarpenen urteko zenbatekoa, zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako produktuen gaineko k zerga bereziaren bidez 2018rako aurreikusitako bilketaren lagapena dela eta.

– RPIIEE(k): Estatuari zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako produktuen gaineko k zerga bereziaren bidez 2018rako dagokion diru-bilketa likidoaren aurrekontu-aurreikuspenaren zenbatekoa.

– IP_m(k): m udalerraren 2018rako behin-behineko indizea, gasolina, gasolio eta fuel-olio entregei dagokiena, bai eta tabako-saltokiei saldutakoari ere. Entrega eta salmenta horiek dagozkien zerga-tasen arabera haztatuko dira. Ondore horietarako, eskuragarri dauden indizeen artean, azken urteari dagokiona izango da behin-behineko indizea.

Udalerri bakoitzari konturako ekarpen gisa eman beharreko zenbatekoa, formula horren arabera zehaztutakoa, diru-sarreraren itzulketa moduan izapidetuko da, zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako zerga berezi bakoitzaren kontzeptuan.

Bi. Behin betiko likidazioa honela kalkulatu da: jasotako konturako ekarpenen eta aurreko zenbakiaren lehenengo paragrafoan zehaztutako zerga berezien bidez bildutako zenbateko likidoaren lagapenaren behin betiko balioaren arteko aldea zehaztuz. Zenbateko likidoaren lagapena Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 117. artikuluan dago xedatuta. Ondore horietarako, aurreko zenbakian adierazitako lagapen-ehunekoa aplikatu da, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoarekin bat.

3. atala. Udalerriek Estatuaren tributuetan parte hartzea

1. azpiatala. Udalerriek Finantzaketarako Funts Osagarrian parte hartzea

104. artikulua. *Konturako ekarpenak zehaztea.*

Bat. Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 111. artikuluan adierazitako eremu subjektiboan bildutako udalerri bakoitzak 2018ko Finantzaketarako Funts Osagarrian duen partaidetza dela eta konturako ekarpenen zenbateko osoa ondoko kontzeptu honetan kontsignatutako berariazko kredituaren kontura egingo da: 36. atala, 21. Zerbitzua, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundearen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusia. Toki-erakundeak, 942 M programa, Toki-erakundeei egindako transferentziak, Estatuaren diru-sarreretan duten partaidetzagatik.

Bi. Zenbateko hori honela kalkulatu da: 2004. oinarri-urteko Finantzaketarako Funts Osagarriaren ehuneko 95 bider Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu

bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 121. artikuluan zehaztutakoaren arabera dagokion bilakaera-indizea; guztia ere, arau honen ehun eta hamargarren xedapen gehigarrian zehaztutakoa aintzat hartuta.

Hiru. A Aurreko zenbakian adierazitakoaren arabera udalerrri bakoitzari dagokion zenbatekoari diru-sarreretan izandako murrizketen konpentsazioen ehuneko 95 gehituko zaio, ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformaren ondorioz; zehazki, honako hauek:

a. Behin betiko konpentsazioa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legea Erreformatzen duen abenduaren 27ko 51/2002 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian zehaztutakoa, Estatuak 2018an 2004arekin alderatuta tributuen bidez lortutako diru-sarreraren arabera eguneratua.

b. Erreforma gehigarria, azaroaren 18ko 22/2005 Legearen bigarren xedapen gehigarrian araututakoa, Estatuak 2018an 2006arekin alderatuta tributuen bidez lortutako diru-sarreraren arabera eguneratua.

Lau. Finantzaketarako Funts Osagarrian parte hartzearen ondorioz egin beharreko konturako ekarpenak, 2018ko ekitaldian, hileror ordainduko dira; aurreko zenbakietan jasotako arauen arabera kalkulaturako zenbateko osoaren hamabirena hil bakoitzean, hain zuzen ere.

105. artikulua. *Behin betiko likidazioa.*

Bat. Finantzaketarako Funts Osagarriari dagokionez, 2018an udalerrrien alde egin behar den behin betiko likidazioa honako kontzeptu honetako kredituaren kontura egingo da: 36. Atala, 21. Zerbitzua, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundearen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusia. Tokiko Erakundeak, 942M programa, Tokiko Erakundeei egiteko transferentziak, Estatuaren diru-sarreretan duten partaidetzagatik, 468 kontzeptua, aurreko urteetako behin betiko likidazioari eta finantzaketa-sistema berritik eratorritako konpentsazioei buruzkoa; guztia ere, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 119. eta 121. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

Bi. A Aurreko zenbakian adierazitakoaren arabera udalerrri bakoitzari dagokion zenbatekoari diru-sarreretan izandako murrizketen konpentsazioak gehituko zaizkio, ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformaren ondorioz; zehazki, honako hauek:

a. Behin betiko konpentsazioa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legea Erreformatzen duen abenduaren 27ko 51/2002 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian zehaztutakoa, Estatuak 2018an 2004arekin alderatuta tributuen bidez lortutako diru-sarreraren arabera eguneratua.

b. Erreforma gehigarria, azaroaren 18ko 22/2005 Legearen bigarren xedapen gehigarrian araututakoa, Estatuak 2018an 2006arekin alderatuta tributuen bidez lortutako diru-sarreraren arabera eguneratua.

Hiru. Behin betiko likidazioa honela kalkulaturako da: aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera finkaturako konturako ekarpenen zenbatekoen eta behin betiko partaidetzaren arteko aldea zehaztuz.

2. azpiatala. Gainerako udalerriek parte hartzea

106. artikulua. *Udalerriek 2018ko ekitaldian Estatuaren tributuetan izango duten partaidetza.*

Bat. Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 122. artikuluan adierazitako eremu subjektiboan bildutako udalerrri bakoitzari konturako ekarpenak

ordaintzeko zenbateko osoa hauxe izango da: 2004. oinarri-urtean Estatuaren tributuetan duten partaidetza osoaren ehuneko 95 bider bilakaera-indizea, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 123. artikulua araberakoa; betiere, arau honen ehun eta hamargarren xedapen gehigarria aintzat hartuta. Honako kontzeptu honetan kontsignatutako berariazko kredituaren kontura egingo da ordainketa: 36. atala, 21. zerbitzua, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusia. Toki-erakundeak, 942M programa, Toki-erakundeei egin beharreko transferentziak, Estatuaren diru-sarreretan duten partaidetzagatik.

Bi. Arestian aipatutako udalerrien alde 2018ari dagokion behin betiko likidazioa egiteko, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 123. eta 124. artikuluetan jasotako arauak beteko dira, eta likidazioa 468 kontzeptuan zehaztutako kredituaren kontura egingo da; kontzeptu hori aurreko urteetako behin betiko likidazioari eta finantzaketa-sistema berritik eratorritako konpentsazioei buruzkoa da, eta aurreko zenbakian adierazitako atal, zerbitzu eta programan sartuta dago.

Hiru. Aurreko zenbakietan xedatutako arauak aplikatuz lortzen den zenbateko osoa honako irizpide hauei jarraituz banatuko da:

a. Arau orokor gisa, udal bakoitzak 2003an Estatuaren tributuetan izandako partaidetzaren behin betiko likidazioaren ondorioz lortutako kopuru bera jasoko du. Zenbateko hori 2003rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 52/2002 Legearen 65. artikuluko bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren paragrafoetan xedatutakoaren arabera kalkulatu da.

b. Gainerakoa proportzionalki banatuko da, jarraian adieraziko diren aldagaien eta ehunekoen arabera udal bakoitzak lortuko lukeen kopuruaren eta aurreko lerrokadan aurreikusitako zenbatekoen arteko diferentzia positiboari erreparatuta. Ondorio horietarako, aldagai eta ehuneko hauek aplikatuko dira:

1. Ehuneko 75, udalerrri bakoitzeko zuzenbidezko biztanle kopuruaren arabera — horretarako, 2018ko abenduaren 31n indarrean egongo den udal-errola hartuko da kontuan, Gobernuak ofizialki onartutakoa—, ondorengo koefiziente hauetan haztatuta, biztanleria-geruzak aintzat hartuta:

Geruza	Biztanle kopurua	Koefizienteak
1	50.000etik gora	1,40
2	20.001etik 50.000ra	1,30
3	5.001etik 20.000ra	1,17
4	5.000 arte	1,00

2. Ehuneko 12,5, udalerrri bakoitzak 2016ko ekitaldian egindako batez besteko ahalegin fiskalaren arabera, udalerrri bakoitzeko zuzenbidezko biztanle kopuruaz haztatuta; horretarako, 2018ko abenduaren 31n indarrean egongo den udal-errola hartuko da kontuan, Gobernuak ofizialki onartutakoa.

Ondore horietarako, udalerrrien 2016ko ahalegin fiskaltzat jotzen da honako formula hau aplikatuz lortzen dena:

$$E_{fm} = [\sum a(R_{cO}/R_{Pm})] \times P_i$$

Formula horretan, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

A. a faktoreak tributu bakoitzari dagokion batez besteko pisua adierazten du, 2016ko ekitaldi ekonomikoan lortutako diru-bilketa likido osoari dagokionez, borondatezko epean egina eta honako zerga hauetatik lortua: ondasun higiezin, ekonomia-jardueren eta

trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergetatik. Finantzaketa-forma horretan biltzen diren udalerrri guztiei aplikatuko zaie, eta zerga-bilketa horretatik kanpo geratuko dira ekonomia-jardueren gaineko zergaren kuota nazional eta probintzialen banaketaren ondorioz lortutako etekinak eta probintziako diputazioei egotz dakizkiokeen kuotak.

B. Aurreko lerrokadan aipatutako tributu bakoitzerako, udalerrri bakoitzari dagokion RcO/RPm erlazioa honela kalkulatu da:

i. Landa- eta hiri-ondasun higiezinaren gaineko zergaren kasuan, a faktorea udaleko osoko bilkurak erreferentziatzeko eperako finkatutako zerga-tasa errearekin biderkatuz; gero, kasu bakoitzean gutxieneko tasa galdagarria adierazten duten balioekin zatituz, 0,4 edo 0,3rekin hurrenez hurren, eta, era berean, udalerrri bakoitzeko gehieneko tasa galdagarriarekin zatituz. Ondorio horietarako, zergapetze-tasa erreala eta maximoa aplikatuko dira, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 72. artikuluan 1. eta 3. paragrafoetan xedatutakoa betez.

Hiri-ondasun higiezinaren gaineko zergaren zehaztutako emaitza haztatzeko, kontuan hartuko dira udalerrri bakoitzeko biztanle bakoitzeko zerga-oinarria eta dagokion geruzaren biztanle bakoitzeko batez besteko zerga-oinarria; hala dagokionean, ezaugarri bereziko ondasun higieziari dagokiena ere barne hartuko da. Ondorio horietarako, kontuan hartu behar da Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, bederatzigarren xedapen gehigarrian adierazitakoa. Halaber, populazio-tarteak populazioaren aldagaiari esleitutako ehuneko 75 banatzeko erabili diren berberak izango dira.

ii. Ekonomia-jardueren gaineko zergari dagokionez, a faktorea udal-eroldaren zergaren zenbatekoarekin biderkatuz, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 87. artikuluan aipatzen den egoera-koefizientea aplikatzearen intzidentzia barne, 2016ko zergaldian indarrean zegoena; eta, gero, zergaren tarifetan zehaztutako gutxieneko kuoten baturarekin zatituz, berez dagokion zergarekin alderatuta, eta aipatutako legearen 86. artikuluan jasotako koefizienteekin haztatuta.

iii. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kasuan, a faktorea 1ez biderkatuz.

iv. $\sum a(RcO/RPm)$ batura Pi faktorearekin biderkatuko da. Pi faktorea udalerrriko zuzenbidezko biztanleria izango da, 2018ko abenduaren 31n indarrean egongo den udal-eroldan zehaztutakoa, eta Gobernuak ofizialki onartutakoa.

C. Biztanle bakoitzaren batez besteko ahalegin fiskalaren koefizientea, udalerrri bakoitzari dagokiona, ezin izango da 50.000 biztanletik gorako populazio-geruzan bildutako udaletako biztanle bakoitzaren batez besteko ahalegin fiskalaren koefizientearen balio txikiaren boskoitza baino handiagoa izan.

3. Ehuneko 12,5, tributu-ahalmenaren alderantzizkoaren arabera. Tributu-ahalmena hauxe izango da: udalerrri bakoitzeko biztanle bakoitzak hiri-ondasun higiezinaren gaineko zergaren batez besteko zerga-oinarrien eta dagokion geruzaren artean dagoen loturaren bidez zehaztutakoa. Kopuru hori udalerrri bakoitzeko zuzenbidezko biztanleriarekin eta partaidetza mota honetan bildutako biztanleria osoarekin haztatuko da, kontuan hartuta 2018ko abenduaren 31n indarrean egongo den udal-errola, Gobernuak ofizialki onartutakoa. Ondorio horietarako, populazio-tarteak populazio aldagaiari esleitutako ehuneko 75 banatzeko erabili diren berberak izango dira.

Aldagai hori kalkulatzeko, toki-erakundeetako hiriko eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren gaineko zergaren zerga-oinarriei dagozkien datuak hartuko dira kontuan, 2016ko ekitaldiari dagozkionak.

Lau. Aurreko zenbakiko arauak aplikatuta lortzen den zenbatekoari diru-sarreretan izandako murrizketen konpentsazioak gehituko zaizkio, ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformaren ondorioz:

a. Behin betiko konpentsazioa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legea Erreformatzen duen abenduaren 27ko 51/2002 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian zehaztutakoa, Estatuak 2018an 2004arekin alderatuta tributuen bidez lortutako diru-sarreraren arabera eguneratua.

b. Erreforma gehigarria, azaroaren 18ko 22/2005 Legearen bigarren xedapen gehigarrian araututakoa, Estatuak 2018an 2006arekin alderatuta tributuen bidez lortutako diru-sarreraren arabera eguneratua.

Bost. Udalerrri turistikoen partaidetza Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuz onetsitakoaren, 125. artikuluko 4. zenbakian adierazitakoaren arabera zehaztuko da, eta aurreko Hiru eta Lau zenbakietan xedatutakoa betez. Ondore horietarako, arau honen 103. artikuluan jasotako lagapen-ehunekoak hartuko dira kontuan. Horren arabera kalkulaturako lagapenaren zenbatekoak ezin izango du, inolaz ere, artikuluko honen Hiru eta Lau zenbakietan xedatutakoa betez lortzen den partaidetza minoratu. Udalerrri turistiko izango dira 125. artikulukoaren lehenengo zenbakian jasotako baldintzak betetzen dituztenak, 2016ko urtarrilaren 1i buruzkoak.

Sei. 2016ko urtarrilaren 1ean egindako berrikuspenaren ondorioz udalerrri turistiko gisa aitortuta dauden udalerrrien kasuan, hidrokarburoen eta tabako-laboreen gaineko zergen bidez bildutako zenbatekoaren lagapena, 2004. oinarri-urteari dagokionez, honela kalkulatu da: udalerrri bakoitzak 2016ko ekitaldian hidrokarburoen eta tabako-laboreen gaineko zergaren bidez bildutako zenbateko likidoaren lagapena zati udalerrri horretan Estatuaren tributuen bidez 2004an bildutakoaren aldean bildutako zenbatekoaren bilakaeraz. Zerga horien bidez bildutako zenbatekoaren lagapena Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 125.4 artikuluan aipatzen da.

107. artikulua. *Konturako ekarpenak.*

Bat. Udalei hilero ordainduko zaizkie aurreko artikulukoaren arabera Estatuko tributuetan parte hartzearen ondorioz 2018ko ekitaldian egin beharreko konturako ekarpenak; dagokien kredituaren hamabirena jasoko dute hil bakoitzean.

Bi. Udalerrri bakoitzaren partaidetza behin betiko likidazioa banatzeko ezarritako irizpideen arabera kalkulatu da, aldaketa hauek kontuan hartuz:

a. 2018ko urtarrilaren 1ean indarrean dagoen udal-eroldaren arabeko populazioa hartuko da kontuan, berau Gobernuak ofizialki onartuta. Ahalegin fiskalaren aldagaia eta tributuhahalmenaren alderantzizkoarena egindako behin betiko likidazioetan azkenari dagozkion datuetan oinarrituko dira. Udal bakoitzari Estatuko tributuetan duen partaidetza dela-eta eman beharreko gutxieneko zenbatekoa 2003ari dagokion behin betiko partaidetza osoaren ehuneko 95 izango da. Kopuru hori 2003rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 52/2002 Legearen 65. artikulukoaren Bi, Hiru, Lau eta bost zenbakietan xedatutakoaren arabera zehaztuko da.

b. Udalerrri bakoitzerako aurreko lerrokadaren arabera kalkulaturako zenbatekoari diru-sarreretan izandako murrizketen konpentsazioen ehuneko 95 gehituko zaio, ekonomia-jardueren gaineko zergaren ondoko erreforma hauen ondorioz:

1. Behin betiko konpentsazioa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legea Erreformatzen duen abenduaren 27ko 51/2002 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian zehaztutakoa, Estatuak 2018an 2004arekin alderatuta tributuen bidez lortutako diru-sarreraren arabera eguneratua.

2. Konpentsazio gehigarria, azaroaren 18ko 22/2005 Legearen bigarren xedapen gehigarrian araututakoa, Estatuak 2018an, 2006arekin alderatuta, tributuen bidez lortutako diru-sarreraren arabera eguneratua.

Hiru. Udalerrri turistiko bakoitzaren banakako partaidetza aurreko zenbakian xedatutakoaren arabera zehaztuko da. Ateratzen den zenbatekoari dagokionez, eragiketa

hauek egingo dira: 2004. oinarri-urtean kalkulaturik, hidrokarburoen eta tabako-laboreen gaineko zergen bidez bildutakoaren lagapenaren neurriko zenbatekoa kenduko zaio, 2018an 2004arekin alderatuta Estatuaren tributuen bidezko diru-sarreraren igoera-urreikuspenaren neurri berean handituta, eta aurreko emaitza horri 2018an konturako ekarpenengatik zerga horietan legokiokeen zenbatekoa gehituko zaio —betiere, lege honen 103. artikulua Bat zenbakiko arauak aplikatuta—; nolahi ere, transferitu beharreko zenbatekoa ez da txikiagoa izango aurreko zenbakian xedatutakoaren arabera kalkulaturik baina.

4. atala. Estatuaren zergen bidez bildutakoa probintzietan, probintzia bakarrek autonomia-erkidegoei, eta uharteetako kabilde nahiz kontseiluei lagatzea

108. artikulua. *Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren bidez bildutakoaren etekinak lagatzea: Konturako ekarpenak eta behin betiko likidazioa zehaztea.*

Bat. Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 135. artikuluan adierazitako eremu subjektiboan bildutako probintzietan eta antzeko erakundeek parte hartuko dute 2018an bilduko den zenbateko likidoan, behin betiko likidazioaren kontura hamabi hilabetez ekarpenak jasoz.

Konturako ekarpen horien zenbateko osoa honako eragiketa honen bidez kalkulatu da:

$$ECIRPF_m = 0,012561 \times CL_{2015p} \times IA_{2018/2015} \times 0,95$$

Non:

– $ECIRPF_p$: Konturako ekarpenen urteko zenbatekoa, p probintziako edo pareko erakundeko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren bidez bildutakoaren etekin lagapena dela eta.

– CL_{2015p} : Estatuaren kuota likidoa, probintziako edo antzeko erakundearen esparruko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren bidez lortutakoa 2015ean (ezagutzen den azkenean).

– $IA_{2018/2015}$: Estatuaren kuota likidoa eguneratzeko indizea, 2015etik —ezagutzen den azkena— 2018ra. Indize hori honela kalkulatu da: atxikipenen, konturako ekarpenen eta zatikako ordainketen bidez 2018rako aurreikusitako aurrekontuaren zenbatekoa zati kontzeptu horien bidez 2015ean likidatutako eskubideen zenbatekoa —urte horretakoak dira probintziako edo pareko entitatearen esparruko kuota likidoari dagokionez ezagutzen diren azken datuak—.

Probintzia edo pareko erakunde bakoitzari konturako ekarpen gisa eman beharreko zenbatekoa, aurreko formularen arabera zehaztutakoa, transferentzia bidez ordainduko da, hileroko hamabirena emanez, eta diru-sarreraren itzulketa moduan izapidetuko da, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontzeptuan.

Bi. Behin betiko likidazioa honela kalkulatu da: jasotako konturako ekarpenen eta probintzia edo antzeko erakunde bakoitzari dagokion kuota likidoaren lagapenaren behin betiko balioaren arteko aldea zehaztuz. Kuota likidoaren lagapena Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 137. artikuluan dago xedatuta. Ondorio horietarako, aurreko paragrafoan adierazitako lagapen-ehunekoa aplikatuko da, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoarekin bat.

109. artikulua. *Balio erantsiaren gaineko zergaren bidez bildutako zenbateko likidoa lagatzea: Konturako ekarpenak eta behin betiko likidazioa zehaztea.*

Bat. Aurreko artikuluan aipatzen diren probintziek eta antzeko erakundeek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren bidez lortzen den diru-bilketa likidoan parte hartuko dute, eta horretarako, hileroko ekarpen bat egingo dute behin betiko likidazioaren kontura.

Entitate horietako bakoitzari eman beharreko konturako ekarpenen zenbatekoa honako eragiketa honen bidez kalkulatu da:

$$ECIVA_p = PCIVA^{**} \times RPIVA \times ICP_i \times (P_p / P_i) \times 0,95$$

Non:

– PCIVA^{**}: Balio erantsiaren gaineko zergaren bidez bildutakoaren etekinaren lagapenaren ehunekoa, probintzien eta pareko erakundearen aldekoa. Konturako ekarpen hauen kasuan, ehuneko 1,3699 izango da.

– ECIVA_p: p probintziaren edo pareko erakundearen konturako ekarpenen urteko zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez 2018rako aurreikusitako bilketaren lagapena dela eta.

– RPIVA: Estatuari 2018rako balio erantsiaren gaineko zergaren bidez dagokion diru-bilketa likidoaren aurrekontu-aurreikuspenaren zenbatekoa.

– ICP_i: Autonomia-erkidegoko kontsumoaren behin-behineko indizea, 2018. urterako. Horretarako, eskuragarri dauden azken datuak hartuko dira kontuan; hain zuzen ere, 2015. urteko behin betiko likidazioa kalkulatzeko erabili zirenak.

– P_p eta P_i: p probintziako edo pareko erakunde biziaren biztanleria eta dagokion i autonomia-erkidegoko biztanleria. Ondore horietarako, 2018ko urtarrilaren 1ean indarrean zegoen udal-errolan, Gobernuak ofizialki onartutakoan, zehaztutako zuzenbidezko biztanleria hartuko da kontuan.

Probintzia edo pareko erakunde bakoitzari konturako ekarpen gisa eman beharreko zenbatekoa, aurreko formularen arabera zehaztutakoa, diru-sarreraren itzulketaren moduan izapidetuko da, balio erantsiaren gaineko zergaren kontzeptuan.

Bi. Behin betiko likidazioa honela kalkulatu da: jasotako konturako ekarpenen eta balio erantsiaren gaineko zergaren bidez bildutako zenbateko likidoaren lagapenaren behin betiko balioaren arteko aldea zehaztuz. Zenbateko likidoaren lagapena Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 138. artikuluan dago xedatuta. Ondorio horietarako, aurreko paragrafoan adierazitako lagapen-ehunekoa aplikatu da, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoarekin bat.

110. artikulua. *Alkoholaren eta edari alkoholduen gaineko zerga berezien bidez bildutako zenbateko likidoa lagatzea: Konturako ekarpenak eta behin betiko likidazioa zehaztea.*

Bat. Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 135. artikulua eremu subjektiboan bildutako erakundeek parte hartuko dute honako zerga hauen bidez bildutako zenbateko likidoan: garagardoaren, ardoaren eta edari hartituen gaineko zergak, tarteko produktuen gaineko zergak, eta alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergak. Horretarako, hamabi hilabetez jaso beharreko ekarpenak zehaztuko dira, behin betiko likidazioaren kontura.

Probintzia edo pareko erakunde bakoitzari eman beharreko konturako ekarpenen zenbateko osoa honako eragiketa honen bidez kalkulatu da:

$$ECIIIEE(h)_p = PCIIIEE^{**} \times RPIIEE(h) \times ICP^i(h) \times (P_p / P_i) \times 0,95$$

Non:

– PCIIEE^{**}: Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga berezien bidez bildutakoaren etekinen lagapenaren ehunekoa, probintzien eta pareko erakundeen aldekoa. Konturako ekarpen hauen kasuan, ehuneko 1,7206 izango da.

– ECIIEE(h)_p: p probintziaren edo pareko erakundearen konturako ekarpenen urteko zenbatekoa, zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako produktuen gaineko h zerga bereziaren bidez 2018rako aurreikusitako bilketaren lagapena dela eta.

– RPIIEE(h): Estatuari zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako produktuen gaineko h zerga bereziaren bidez 2018rako dagokion diru-bilketa likidoaren aurrekontu-aurreikuspenaren zenbatekoa.

– ICP_i(h): p probintzia edo pareko erakundea dagoen i autonomia-erkidegoko kontsumoari dagokion 2018rako behin-behineko indizea, zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako produktuen gaineko h zerga berezia dela eta. Horretarako, eskuragarri dauden azken datuak hartuko dira kontuan; hain zuzen ere, 2015. urteko behin betiko likidazioa kalkulatzeko erabili zirenak.

– P_p eta P_i: p probintziako edo pareko erakundeko biztanleria eta dagokion i autonomia-erkidegoko biztanleria. Ondore horietarako, 2018ko urtarrilaren 1ean indarrean zegoen udal-errolan, Gobernuak ofizialki onartutakoan, zehaztutako zuzenbidezko biztanleria hartuko da kontuan.

Probintzia edo pareko erakunde bakoitzari konturako ekarpen gisa eman beharreko zenbatekoa, aurreko formularen arabera zehaztutakoa, diru-sarreraren itzulketa moduan izapidetuko da, zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako zerga berezi bakoitzaren kontzeptuan.

Bi. Behin betiko likidazioa honela kalkulatu da: jasotako konturako ekarpenen eta aurreko paragrafoaren lehenengo lerrokadan zehaztutako zerga berezien bidez bildutako zenbateko likidoaren lagapenaren behin betiko balioaren arteko aldea zehaztuz. Zenbateko likidoaren lagapena Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 139. artikuluan dago xedatuta. Ondorio horietarako, aurreko paragrafoan adierazitako lagapen-ehunekoa aplikatuko da, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoarekin bat.

111. artikulua. *Hidrokarburoen eta tabako-laboreen gaineko zerga berezien bidez bildutako zenbateko likidazioa lagatzea: Konturako ekarpenak eta behin betiko likidazioa zehaztea.*

Bat. Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 135. artikuluan adierazitako eremu subjektiboan bildutako probintziek eta antzeko erakundeek parte hartuko dute hidrokarburoen eta tabako-lanen zergen bidez bilduko den zenbateko likidoan, behin betiko likidazioaren kontura hamabi hilabetez ekarpenak jasoz.

Probintzia edo pareko erakunde bakoitzari eman beharreko konturako ekarpenen zenbateko osoa honako eragiketa honen bidez kalkulatu da:

$$ECIIEE(k)_p = PCIIEE^{**} \times RPIIEE(k) \times IPP(k) \times 0,95$$

Non:

– PCIIEE^{**}: Hidrokarburoen eta tabako-laboreen gaineko zerga berezien bidez bildutakoaren etekinen lagapenaren ehunekoa, probintzien eta pareko erakundeen aldekoa. Konturako ekarpen hauen kasuan, ehuneko 1,7206 izango da.

– ECIIEE(k)_p: p probintziaren edo pareko erakundearen konturako ekarpenen urteko zenbatekoa, zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako produktuen gaineko h zerga bereziaren bidez 2018rako aurreikusitako bilketaren lagapena dela eta.

– RPIIEE(k): Estatuari zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako produktuen gaineko k zerga bereziaren bidez 2018rako dagokion diru-bilketa likidoaren aurrekontu-aurreikuspenaren zenbatekoa.

– IPp(k): p probintziaren edo pareko erakundeen 2018rako behin-behineko indizea, gasolina, gasolio eta fuel-olio entzegei dagokiena, bai eta tabako-saltokiei saldatakoari ere. Entrega eta salmenta horiek dagozkien zerga-tasen arabera haztatuko dira. Ondore horietarako, eskuragarri dagoen azken urteko datuak hartuko dira kontuan.

Erakunde bakoitzari konturako ekarpen gisa eman beharreko zenbatekoa, formula horren arabera zehaztutakoa, diru-sarrereren itzulketa moduan izapidetuko da, zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako zerga berezi bakoitzaren kontzeptuan.

Bi. Behin betiko likidazioa honela kalkulatu da: jasotako konturako ekarpenen eta aurreko artikuluan zehaztutako zerga berezien bidez bildutako zenbateko likidoaren lagapenaren behin betiko balioaren arteko aldea zehaztuz. Zenbateko likidoaren lagapena Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 139. artikuluan dago xedatuta. Ondore horietarako, aurreko zenbakian adierazitako lagapen-ehunekoa aplikatu da, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoarekin bat.

5. atala. Probintziek, probintzia bakarreko autonomia-erkidegoek eta uharteetako kabildo nahiz kontseiluek Estatuaren tributuetan duten partaidetza

1. azpiatala. Finantzaketarako Funts Osagarrian duten partaidetza.

112. artikulua. *Konturako ekarpenak zehaztea.*

Bat. Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 135. artikuluan adierazitako eremu subjektiboan bildutako probintzia edo pareko erakunde bakoitzari 2018ko ekitaldiari dagokion Finantzaketarako Funts Osagarrian duen partaidetza dela-eta eman beharreko konturako ekarpenen zenbateko osoa, arau honen laurogeita hamahirugarren xedapen gehigarria kontuan izanda, Diputazio eta Uharteetako Kabildoei egin beharreko transferentzien kredituaren kargura egingo da. Diputazioen eta Uharteetako Kabildoen konturako ekarpenak, Estatuaren Aurrekontuko I. eta II. kapitulueta diru-sarreretan duten partaidetzagatik, autonomia-erkidegoei laga ezin zaizkien baliabideengatik; honako kontzeptu honetan kontsignatuta: 36. atala, 21. zerbitzua, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusia. Toki-erakundeak, 942M programa, Toki-erakundeei egin beharreko transferentziak, Estatuaren diru-sarreretan duten partaidetzagatik.

Bi. Zenbateko hori honela kalkulatu da: 2004ko Finantzaketarako Funts Osagarriaren ehuneko 95, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 121. artikuluan zehaztutakoaren arabera bilakaera-indizea aplikatuta.

Hiru. Aurreko zenbakian zehaztutakoaren arabera kalkulatu zenbatekoari honako konpentsazio hauen ehuneko 95 gehituko zaio, ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformaren ondorioz diru-sarreretan izandako murrizketengatik:

a. Behin betiko konpentsazioa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legea erreformatzen duen abenduaren 27ko 51/2002 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian zehaztutakoa, Estatuak 2018an 2004arekin alderatuta tributuen bidez lortutako diru-sarrereren hein berean handitua.

b. Erreforma gehigarria, azaroaren 18ko 22/2005 Legearen bigarren xedapen gehigarrian araututakoa, Estatuak 2018an 2006arekin alderatuta tributuen bidez lortutako diru-sarrereren arabera handitua.

Lau. Finantzaketarako Funts Osagarrian parte hartzea dela eta egin beharreko konturako ekarpenak, 2018ko ekitaldian, hileror ordainduko zaizkie artikulu honetan aipatutako toki-erakundeei; aurreko zenbaketan jasotako arauen arabera kalkulaturako zenbateko osoaren hamabirena hil bakoitzean, hain zuzen ere.

113. artikulua. *Behin betiko likidazioa.*

Bat. Finantzaketarako Funts Osagarriari dagokionez 2018an probintzien eta pareko erakundeen alde egin beharreko behin betiko likidazioa honako kontzeptu honetako kredituaren kontura egingo da: 36. atala, 21 zerbitzua, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundearen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusia. Tokiko Erakundeak, 942M programa, Tokiko Erakundeei egiteko transferentziak, Estatuaren diru-sarreretan duten partaidetzagatik, 468 kontzeptua, aurreko urteetako behin betiko likidazioari eta finantzaketa-sistema berritik eratorritako konpentsazioei buruzkoa; guztia ere, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 141. eta 143. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

Bi. Aurreko zenbatekoari, hala badagokio, konpentsazio hauen zenbatekoa gehituko zaio, ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformaren ondorioz diru-sarreretan izandako murrizketengatik:

a. Behin betiko konpentsazioa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legea erreformatzen duen abenduaren 27ko 51/2002 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian zehaztutakoa, Estatuak 2018an 2004arekin alderatuta tributuen bidez lortutako diru-sarreraren arabera eguneratua.

b. Erreforma gehigarria, azaroaren 18ko 22/2005 Legearen bigarren xedapen gehigarrian araututakoa, Estatuak 2018an 2006arekin alderatuta tributuen bidez lortutako diru-sarreraren arabera eguneratua.

Probintzia bakarreko autonomia-erkidegoen alde (Kantabria, Madril eta Errioxa) egin beharreko konpentsazioen behin betiko likidazioaren zenbatekoa aurrekontu-kredituetan sartu ahalko da, bidezkoak diren aldaketak eta doikuntzak eginez, eta araubide erkideko autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa-sistema aplikatuz dagokien kopuruaren arabera. Erabaki hori Batzorde Mistoak hartuko du, Toki Administrazioiko Batzorde Nazionalako Ekonomia, Finantza eta Zerga Araubidearen Azpibatzordearen txostena jaso ondoren.

Hiru. Behin betiko likidazioa honela kalkulaturako da: aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera finkatutako konturako ekarpenen zenbatekoaren baturaren eta aurreko paragrafoetan adierazitako moduan finkatutako behin betiko partaidetzaren arteko aldea zehaztuz.

2. azpiatala. Osasun Laguntzarako Ekarpen Funtsean parte hartzea

114. artikulua. *Konturako ekarpenak zehaztea.*

Bat. Diputazioen, uharte ez diren probintzia bakarreko autonomia-erkidegoen, eta uharteetako kontseilu eta kabildeen osasun-zentro ez-psikiatrikoak mantentzeko, «Uharteetako diputazio eta kabildeen transferentziak» kredituaren kontura egiten da esleipena. Diputazioen eta Uharteetako Kabildeen konturako ekarpenak, Estatuaren Aurrekontuko I. eta II. kapituluetakoko diru-sarreretan duten partaidetzagatik, autonomia-erkidegoei laga ezin zaizkien baliabideengatik; honako kontzeptu honetan kontsignatuta: 36. atala, 21. zerbitzua, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundearen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusia. Tokiko Erakundeak, 942M programa, Tokiko Erakundeei egiteko transferentziak, Estatuaren diru-sarreretan duten partaidetzagatik, 711,6 milioi euroko zenbatekoa, konturako ekarpenen kontzeptuan. Probintziako diputazioek, uharte ez diren probintzia bakarreko autonomia-erkidegoek, eta uharteetako kabildeo nahiz kontseiluek

hilero jasoko dituzte funts horretan duten partaidetza dela eta 2018ko ekitaldian dagozkien konturako ekarpenak; zehazki, kredituaren hamabirena jasoko dute hilabete bakoitzean. Osasun-zentroak mantentzera xedatutako kopurua proportzionalki banatuko da, kontuan hartuz 2004an Estatuaren tributuetan izandako partaidetzaren behin betiko likidazioan kontzeptu horrengatik jasotako zenbatekoa. Kopuru hori Finantzaketarako Funts Osagarrian duten partaidetzagatik dagozkien konturako ekarpenekin batera jasoko dute —ekarpen hori aurreko azpiatalean dago araututa—.

Bi. Ospitaleen kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa, Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrean xedatutako moduan, dagozkien autonomia-erkidegoei eskualdatzen zaienean, zerbitzua eskualdatzen duen erakundearen partaidetzaren konturako ekarpenak esleituko zaizkie erakunde horiei, eta Estatuako tributuetan duten partaidetzan sartu ahal izango dira, dagokion batzorde mistoaren erabakiz, aurrekontu-kredituetan beharrezko aldaketak eta doikuntzak eginda. Hala ere, Toki Administrazioaren Batzorde Nazionalako Ekonomia, Finantza eta Zerga Araubidearen Azpibatzenordeak txostena egin beharko du aurretik.

115. artikulua. *Behin betiko likidazioa.*

Bat. Osasun Laguntzarako Ekarpene Funtsekin 2018ko zuzkiduraren behin betiko likidazioa, probintziei, uharte ez diren probintzia bakarreko autonomia-erkidegoei eta uharteei dagokiena, honako kontzeptu honetako kredituaren kontura egingo da: 36. atala, 21. zerbitzua, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundearen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusia. Tokiko Erakundeak, 942M programa, Tokiko Erakundeei egiteko transferentziak, Estatuaren diru-sarreretan duten partaidetzagatik, 468 kontzeptua, aurreko urteetako behin betiko likidazioari eta finantzaketa-sistema berritik eratorritako konpentsazioei buruzkoa; guztia ere, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 143. eta 144. artikuluetan xedatutakoarekin bat. Kalkulua egiteko oinarri gisa, 2004an Estatuaren tributuetan parte hartzeagatik egindako behin betiko likidazioaren zenbatekoak hartu dira.

Bi. Ospitale-zentroen kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa, Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrean xedatutako moduan, dagozkien autonomia-erkidegoei eskualdatzen zaienean, zerbitzua eskualdatzen duen erakundearen partaidetzari dagozkion konturako ordainketak esleituko zaizkie erakunde horiei, aurretik aipatutako funts berean.

6. atala. Araubide bereziak

116. artikulua. *Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoen eta Nafarroak Estatuaren tributuetan parte hartzea.*

Bat. Euskadiko eta Nafarroako udalerriek Estatuaren tributuetan izango duten partaidetza kapitulu honen 3. ataleko 2. azpiatalean jasotako arauen arabera zehaztuko da; Ekonomia Itunaren eta Hitzarmen Ekonomikoaren esparruan, hurrenez hurren.

Bi. Euskadiko foru-aldundiek eta Nafarroako Foru Komunitateak Estatuaren tributuetan izango duten partaidetza Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 146. artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztuko da; Ekonomia Itunaren eta Hitzarmen Ekonomikoaren esparruan, hurrenez hurren.

117. artikulua. *Kanarietako toki-erakundeek Estatuaren tributuetan parte hartzea.*

Bat. Estatu-zergen bidez bildutakoaren etekinak Kanarietako udalerriei lagatzeko —zehazki, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 111. artikuluan xedatutako eremu subjektiboan bildutakoei—, bai eta uharteetako kabildoei ere, aipatutako arauaren 158. artikuluan xedatutakoa beteko da.

Bi. Aurreko zenbakian aipatutako toki-erakundeek Finantzaketarako Funts Osagarrian izango duten partaidetza zehazteko, kapitulu honen 3. ataleko 1. azpiatalean eta 5. ataleko 1. azpiatalean xedatutakoa beteko da, arestian aipatutako arauaren 158. artikuluan adierazitakoa aintzat hartuta.

Hiru. Kanarietako gainerako udalerriek Estatuaren tributuetan izango duten partaidetza zehazteko, kapitulu honen 3. ataleko 2. azpiatalean jasotako arauak beteko dira, eta araubide erkideko udalerrien proportzio berari helduko zaio.

118. artikulua. *Ceuta eta Melilla hiriek Estatuaren tributuetan parte hartzea.*

Bat. Ceuta eta Melilla hiriek, udalerriei parekatutako erakunde gisa, kapitulu honetan bildutako arau orokorren arabera hartuko dute parte Estatuaren tributuetan.

Bi. Ceuta eta Melilla hiriek, probintzietan parekatutako erakunde gisa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 146. artikuluan adierazitakoaren arabera hartuko dute parte Estatuaren tributuetan.

7. atala. Konpentsazioak, dirulaguntzak eta laguntzak

119. artikulua. *Hiri-garraio kolektiboaren zerbitzua dela eta, toki-erakundeei eman behar zaizkien dirulaguntzak.*

Bat. Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren bosgarren xedapen gehigarrian betetze aldera, 51,05 milioi euroko kreditu bat jasota dago (32. atala; 02 Zerbitzua; Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundearen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusia. Tokiko Erakundeak; 942N programa; 462. kontzeptua. Kredituaren xedea toki-erakundeek ematen dituzten hiru-garraio kolektiboaren zerbitzua diruz laguntzea da, baldin eta hurrengo atalean ezarritako betekizunak betetzen badira.

Bi. Kredituaren banaketan, hiri barruko garraio kolektibo publikoaren zerbitzua duten udalek hartu ahal izango dute parte, zerbitzu hori kudeatzeko modua edozein izanik ere, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Mugikortasun Jasangarriko Plan bat edukitzea, Mugikortasun Jasangarriko Espainiako Estrategiarekin koherentea dena, bat etorritik Ekonomia Jasangarriari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen 102. artikuluan xedatutakoarekin («Mugikortasun jasangarriko planak sustatzea»), 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako hogeita hamaikagarrenak emandako idazketan.

b) Zuzenbidezko 50.000 biztanletik gora izatea; horretarako, 2017ko urtarrilaren 1ean indarrean zegoen udal-errola hartuko da kontuan, Gobernuak ofizialki onartutakoa.

c) Zuzenbidezko 20.000 biztanletik gora izatea; horretarako, 2017ko urtarrilaren 1ean indarrean zegoen udal-errola hartuko da kontuan, Gobernuak ofizialki onartutakoa, eta, aldi berean, aipatutako data horretan, udalerrien hiri-ondasun higiezinaren katastroan errolatutako hiri-unitateak 36.000 baino gehiago izatea.

d) Aurreko b) eta c) letretan jasotako baldintzetakoren bat bete ez arren, probintziako hiriburu izatea.

e) Salbuespen izango dira, aurreko baldintzak bete arren, barne hiri-garraio publikoaren zerbitzua finantzatzeko beste sistema batean parte hartzen duten udalerriak, baldin eta, sistema horretan, Estatuko Administrazio Orokorrek finantzaketa ematen badu. Salbuespen hori aplikatzeko izango da Kanarietako, Madrilgo Garraioen Eskualde Partzuergoko eta Bartzelonako Garraio Metropolitanoaren Agintaritzako eta Valentziako Garraio Metropolitanoaren Agintaritzako lurralde-esparruetan.

Hiru. Epai judizial irmoek agindutako ordainketa-betebeharrak ordaindu ondoren, aurrekontu-zuzkidura ondoko irizpide hauen arabera banatuko da, eta irizpideok artikulua

honen seigarren paragrafoan aipaturiko eredutik ondorioztatzen diren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren datuen arabera aplikatuko dira:

A. Kredituaren ehuneko 5, udal-sareko joaneko bidearen luzeraren arabera, eta kilometrotan adierazita. Joan-etorriko biderik ez duten linea zirkularren kasuan, erdia hartuko da kontuan.

B. Kredituaren ehuneko 5, udal-erri bakoitzeko bidaiari/zuzenbidezko biztanle kopuru erlazioaren arabera, kopuru hori zati 50.000 eginez lortutakoaren arabera haztatuta. Zuzenbidezko biztanleen kopurua zehazteko, 2017ko urtarrilaren 1ean indarrean dagoen udal-errola hartuko da kontuan, Gobernuak ofizialki onartutakoa.

C. Kredituaren ehuneko 5, ingurumen-irizpideen arabera, Klima Aldaketaren eta Energia Garbiaren Espainiako Estrategia aplikatzeko Presazko Neurrien Planak aurreikusten duena betetzeko; plan horren arabera, hiri-garraio publikoari dirulaguntzak emateko, energia-efizientziaren irizpideak hartuko dira kontuan. Neurri hori Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko Ministerioak IDAE institutuaren bidez gauzatutako Energiaren Aurrezpena eta Efizientzia Aktibatzekeo Planean zehaztuta dago, eta garraio publikoaren sistemei aplikatutako energia-efizientzia balioesteko mekanismo bat ezartzean datza, aurrerapausoak homogeneotasunez ebaluatzeko, eta laguntzak banatzeko orduan aintzat hartzeko.

Aurretik aipatutako ehunekoa ingurumen-irizpideak betetzeko orduan lortutako puntuazioaren arabera banatuko da —2017ko ekitaldiari dagokionez—; honako koadro honetan jasotakoak izango dira horiek:

Biztanle-kopuru handiko udal-erriak		Gainerako udal-erriak		Gehieneko puntuazioa
Irizpideak	Betetze-maila	Irizpideak	Betetze-maila	
GNC/GLP/BIOERREGAIA duten hiri-autobusen ehunekoa.	> % 20	GNC/GLP/BIOERREGAIA duten hiri-autobusen ehunekoa.	> % 5	20
Guztira izandako bidaiari kopuruaren igoera, aurreko urtearekin alderatuta.	> % 1	Guztira izandako bidaiari kopuruaren igoera, aurreko urtearekin alderatuta.	BAI/EZ	15
Garraio publikoan eskainitako lekuak-km: aurreko hiru urteetako batez bestekoarekiko izandako gehikuntza.	> % 1	Garraio publikoan eskainitako lekuak-km: aurreko urtearekiko izandako gehikuntza.	BAI/EZ	15
Autobus-flotan ibilgailu elektrikoak edo hibridoak daude.	BAI/EZ	Autobus-flotan ibilgailu elektrikoak edo hibridoak daude.	BAI/EZ	10
Mugikortasun urriko pertsonentzat prestatutako autobusen ehunekoa	> % 50	Mugikortasun urriko pertsonentzat prestatutako autobusen ehunekoa	> % 20	10
Hiriko autobus-lineen dentsitatea (km/1.000 bizt)	> 2	Hiriko autobus-lineen dentsitatea (km/1.000 bizt)	> 1	10
Garraio publikoan egindako bidaien kopuruaren hazkundera, aurreko hiru urteetako batez bestekoarekiko izandako hazkundera.	> % 1	Garraio publikoan egindako bidaien kopuruak aurreko urtearekiko izandako gehikuntza.	BAI/EZ	5
Bidegorri-sarea: bidegorri km bakoitzeko biztanleen kopurua.	< 8.000	Bidegorri-sarea: bidegorri km bakoitzeko biztanleen kopurua.	< 6.000	3
Autobus-erreiaren luzera (sarearen luzera osoarekiko ehunekoa).	> % 2	Autobus-erreiak daude	BAI/EZ	3
Modu efizientean gidatzeko prestakuntza jaso duten hiri-autobusetako gidarien ehunekoa (%).	> % 20	Modu efizientean gidatzeko prestakuntza jaso duten hiri-autobusetako gidarien ehunekoa (%).	> % 15	3
Autobusen etorrera denbora errealean adierazten duten geltokiak (geltoki guztien gaineko ehunekoa).	> % 3	Autobusen etorrera denbora errealean adierazten duten geltokiak (geltoki guztien gaineko ehunekoa).	> % 3	3

Biztanle-kopuru handiko udalerriak		Gainerako udalerriak		Gehieneko puntuazioa
Irizpideak	Betetze-maila	Irizpideak	Betetze-maila	
Flotak energia-efizientziako irizpideekin kudeatzeko gaikuntza duten pertsonak (trebatutako pertsonen kopurua/100 ibilgailu).	> 1	Flotak energia-efizientziako irizpideekin kudeatzeko gaikuntza duten pertsonak (trebatutako pertsonen kopurua/100 ibilgailu).	BAI/EZ	3
GUZTIRA				100

D) Kredituaren ehuneko 85, emandako garraio-titulu bakoitzaren batez besteko defizitaren arabera, honako prozedura hau betez:

a) Udalerri bakoitzari eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, garraio-tituluen kopurua titulu horietako bakoitzari dagokion dirulaguntzarekin biderkatuko da.

b) Titulu bakoitzari dagokion dirulaguntza kalkulatzeko, tituluaren batez besteko defizitari honako eskala honetan zehaztutako zenbatekoak eta ehunekoak aplikatuko zaizkio:

1. tartea: garraio-titulu bakoitzeko batez besteko defizitaren zenbatekoa, udalerri bakoitzari dagokiona, batez besteko defizit osoaren ehuneko 12,5 baino handiagoa ez bada, ehuneko 100ean ordainduko da.

2. tartea: garraio-titulu bakoitzeko batez besteko defizitaren zenbatekoa, udalerri bakoitzari dagokiona, aurreko tartea baino handiagoa bada eta batez besteko defizit osoaren ehuneko 25 gainditzen ez badu, ehuneko 55ean lagunduko da diruz.

3. tartea: garraio-titulu bakoitzeko batez besteko defizitaren zenbatekoa, udalerri bakoitzari dagokiona, aurreko tartea baino handiagoa bada eta batez besteko defizit osoaren ehuneko 50 gainditzen ez badu, ehuneko 27an ordainduko da.

4. tartea: garraio-titulu bakoitzeko batez besteko defizitaren zenbatekoa, udalerri bakoitzari dagokiona, aurreko tartea baino handiagoa bada eta batez besteko defizit osoaren ehuneko 100 gainditzen ez badu, honako eragiketa hau eginez zehaztuko den ehunekoan lagunduko da diruz: aurreko tarteei esleitu ez zaien kredituaren gainerakoa zati tarte honetako defizitaren zenbatekoa, dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten udalerri guztiak aintzat hartuz.

5. tartea: garraio-titulu bakoitzeko batez besteko defizitaren zenbatekoa, udalerri bakoitzari dagokiona, batez besteko defizit osoa baino handiagoa bada, ez da diruz lagunduko.

Eskalako 4. tarteko finantzaketaren portzentajea ez da ehuneko 27 baino handiagoa izango. Murrizketa horren ondorioz kreditu-soberakinik egonez gero, geldikin hori udalerri bakoitzak 2. eta 3. tarteen arabera eskuratutako finantzaketaren proportzio berean banatuko da.

Arau horietan zehaztutakoa betez ematen den dirulaguntza ezin izango da, oro har, xedagarri dagoen kredituaren ehuneko 85etik gorakoa izan. Egoera hori sortuko balitz, 3. eta 2. tarteen ehunekoa beharrezkoa den proportzioan doitu beharko da, eta, hala dagokionean, baita 1. tartekoa ere, 4. tartean xedatutakoa betez; hori guztia, kreditua agortu arte.

c) Udalerri bakoitzaren batez besteko defizita kalkulatzeko, ustiapen-defizita garraio-tituluen kopuruarekin zatituko da. Batez besteko defizit osoa, berriz, honela kalkulatu da: dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten udalerri guztien defizitaren batura zati udalerri horietan guztira dauden garraio-tituluak.

d) Titulu bakoitzeko jaso beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa tarte bakoitzean diruz lagundu beharreko zenbatekoaren batura izango da. Tarte bakoitzari dagokion zenbatekoa honela kalkulatu da: batez besteko defizitari dagokion tarte bakoitzean dagoen zatia bider tarte horri dagokion finantzaketaren ehunekoaz.

Ustiapen-defizita garraio publikoaren zerbitzua ematen duten enpresa edo erakundeen galera eta irabazien kontuetan oinarritzen diren ustiapen-galeren zenbatekoaren araberakoa izango da. Kontu horiek Kontabilitate Planaren arabera egingo dira, kasu bakoitzean aplikatu beharreko kontabilitate-arau eta -printzipioen arabera, honako doikuntza hauek eginez:

a') Ustiapen-gastuen kasuan, tributuei dagozkienak baztertu egingo dira, tributuerlazio juridikoaren subjektu aktiboa edozein dela ere.

b') Ustiapeneko gastuei eta diru-sarrereri dagokienez, baztertu egingo dira jatorria dirulaguntzaren xede den hiriko garraio publikoaz bestelako zerbitzuetan edo jardueretan dutenak. Baztertu egingo dira, halaber, hiri-garraio publikoaren zerbitzua ematen duen enpresa edo erakundeari bertako udalak emandako dirulaguntzak eta ekarpenak.

c') Letra honi dagokion finantzaketa kalkulatzeko, defizitari kendu egingo zaizkio errepide-sarearen luzera, bidaiariak/zuzenbidezko biztanleria erlazioa eta ingurumen-irizpideak aintzat hartuta dirulaguntza gisa emandako zenbatekoak.

Lau. Dirulaguntzak zerbitzu hau ematea finantzatzera bideratu beharko dira.

Bost. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako udalei dagokien dirulaguntza zuzendu egingo da, Estatuaren tributuetan duten partaidetzaren proportzio berean.

Sei. Hiri barruko garraio kolektibo publikoaren zerbitzuak diruz laguntzeko kreditua banatu ahal izateko, toki-erakundeek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute 2018ko maiatzaren 1etik ekainaren 30era bitartean, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko organo eskudunek xedatutako moduan:

1. Kasu guztietan, joaneko bideko errepide-sarearen kilometro kopurua, urteko bidaiari kopurua, urtean eskainitako leku kopurua, eta 2017ko ekitaldian bildutako dirua eta batez besteko prezioak. Hori guztia Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiak prestatutako ereduaren arabera aurkeztu beharko da.

2. Zerbitzua erakundeak berak edo mendeko erakunde autonomoak zuzeneko kudeaketaren bidez ematen badu, garraio-zerbitzuaren 2017ko ekitaldiko diru-sarreraren eta gastuen partiden dokumentu xehatua, bai eta defizitarena edo emaitza errealarena ere. Hori guztia Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiak prestatutako ereduaren arabera aurkeztu beharko da.

3. Zerbitzua udaleko merkataritza-sozietate batek ematen badu, zuzeneko kudeaketaren bidez, edota enpresa edo partikular batek, emakida bidez edo zeharkako kudeaketako beste edozein aldaeraren bidez, urteko kontuak eta kontu-ikuskaritzaren txostena.

Halaber, administratzaileek dokumentu bat prestatu beharko dute, alderdi hauek zehazten dituena: garraio-zerbitzuak 2017ko ekitaldian izandako diru-sarreraren eta gastuen partidak, defizitaren edo emaitza errealaren partidak, eta aipatutako diru-sarrerak eta gastuak egotzeko irizpideak. Hori guztia Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiak prestatutako ereduaren arabera aurkeztu beharko da.

Auditore batek aztertu beharko du aipatutako dokumentua (garraio-zerbitzuak 2017ko ekitaldian izandako diru-sarreraren eta gastuen partidak, defizitaren edo emaitza errealaren partidak, eta aipatutako diru-sarrerak eta gastuak egotzeko irizpideak jasotzen dituena). Dokumentua auditoretza eginda dagoela ulertuko da bertan jasotako informazioa Urteko Kontuen Memorian bilduta badago, eta kontu horien auditoretza jada egin bada.

4. Kasu guztietan, jardueraren finantza-baldintzak arautzen dituzten akordio eguneratuak biltzen dituen dokumentu ofiziala.

5. Kasu guztietan, bai dirulaguntza eskatu duen udalak, bai zerbitzua ematen duen enpresa, organismo edo erakundeak tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituztela frogatzen duen egiaztagiria.

6. Kontu-hartzailearen ziurtagiria, aurreko ekitaldian hiri-garraio kolektiborako dirulaguntza gisa jasotako zenbatekoa 2017rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren

ekainaren 27ko 3/2017 Legearen 95. artikulua Lau zenbakian xedatutako helburuari egokitzen zaiola adierazten duena.

7. Udal-idazkariaren ziurtagiria, ingurumen-irizpideak betetzeari buruzkoa.

8. Udal-idazkariaren ziurtagiria, adierazten duena udalerriak Mugikortasun Jasangarrirako Plan bat daukala, eta plan hori Mugikortasun Jasangarrirako Espainiako Estrategiarekin koherentea dela. Ziurtagiri horretan, espresuki zehaztu beharko du noiz jaso zuen udal-planak behin betiko onespena; data horrek eskaera aurkezteko epea amaitu baino lehenagokoa beharko du izan.

Dokumentazioa artikulua honetan xedatutako moduan igortzen ez duten udalei ez zaie aitortuko bidaiariaren garraio kolektibo publikoaren zerbitzua finantzatzeko laguntza jasotzeko eskubidea; batetik, interes orokorragatik, eta, bestetik, gainerako hartzaileei finantza-kalderik ez eragitearren.

120. artikulua. *Pertsona fisiko edo juridikoei toki-tributueta aitortutako zerga-onurengatik udalei eman beharreko konpentsazioa.*

Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 9. artikuluan ezarritakoa betetze aldera, indarrean dagoen Estatuaren Gastu Aurrekontuan kreditu bat gehitu da, eta, zehazki, hauxe da kontzeptua: 32. atala; 02 Zerbitzua; Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusia. Tokiko Erakundeak; 942N programa; 461.00 kontzeptua. Kredituaren xedea Estatuak lege bidez eman ahal dituen nahitaezko ordainarazpeneko tokiko tributuaren zerga-hobariak konpentsatzea da, aipatutako 9. artikulua bi apartatuan jasotako terminoetan.

Ordainketa egin baino lehen, konpentsazio-eskaerak egiaztatu egingo dira: ekonomia-jardueren gaineko zergaren kasuan, zerga horren matrikularen datu-baseetan dagoen informazioan oinarrituz; ondasun higiezinaren gaineko zergaren kasuan, berriz, higiezinaren katastroko datu-baseetan dagoenean oinarrituz.

Horretarako, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko Zerga Administrazioako Estatu Agentziak eta Katastroaren Zuzendaritza Nagusiak erraztasunak emango dituzte, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiarekin informatikaren bidez komunikatzeko.

Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari baimena ematen zaio barkatutako tributu-zorrek eta legez aitortutako salbuespenak direla eta udalerriak konpentsatzearen kasu bakoitzean jarraitu beharreko prozedura ezartzeko behar diren arauak onetsi ditzen.

121. artikulua. *Toki-erakundeentzako beste konpentsazio eta dirulaguntza batzuk.*

Bat. Ameriketako Estatu Batuekin 1988ko abenduaren 1ean sinatutako Defentsarako Lankidetzaren Hitzarmenean, zeina indarrean baitago, ezarritako zerga-onurak aplikatzearen ondorioz, 2018an barkatzekoak diren kuotak konpentsatu egingo dira trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan, honako kreditu hauen kontura: 32. atala, 02. zerbitzua, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusia. Toki-erakundeak, 942N programa, 461.01 kontzeptua.

Kompentsazio gisa eman beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, ukitutako udalekin sinatutako hitzarmenetan xedatutakoa beteko da.

Bi. Ceuta eta Melilla hiriei 8 milioi euroko laguntza emango zaie, itsasoko ura gezatzeko instalazioen funtzionamendu-kostuei aurre egiteko. Laguntza hori honako kontzeptu honetako kredituen kontura emango da: 32. atala, 02. zerbitzua, Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusia, Toki Erakundeak, 942N programa, Toki Erakundeentzako Beste Ekarpen Batzuk, 464.02 kontzeptua.

Aurreko lerrokadan adierazitako dirulaguntzak ordaintzeko, dagokion tresna arautzaileak xedatutakoari jarraituko zaio. Dirulaguntza izendunaren kasuan, kontuan hartuko dira, batetik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 28. artikuluan

zehaztutakoa, eta, bestetik, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, aipaturiko legea garatzen duen Erregelamendua onartzen duena.

Aipatutako zenbatekoa Ceuta eta Melilla hirien artean banatzeko, udalerrri bakoitzeko zuzenbidezko biztanleria hartuko da kontuan; zehazki, aurreko ekitaldiko urtarrilaren 1ean indarrean zegoen udal-errolan jasotakoa. Ceuta hiriarri 3,96 milioi euro dagozkio, eta Melilla hiriarri 4,04 milioi euro.

Hiru. Ceuta eta Melilla hiriei konpentsazioa emango zaie, ekoizpenaren, zerbitzuen eta inportazioaren gaineko zergaren bilketan izandako galerengatik, tabako-laboreen gaineko inportazioei eta karga osagarriari dagokienez; konpentsazio hori Zerga, Administrazio eta Gizarte Arloko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 53/2002 Legearen 11. artikuluan dago araututa. Galera horiek honako kontzeptu honetako kredituaren kontura konpentsatuko dira: 32. atala, 02 zerbitzua, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusia. Toki-erakundeak, 942N programa, 464.01 kontzeptua.

Hiri horietako bakoitzari ordainketa egingo zaio hilero, aurreko ekitaldian aitortutako behin betiko konpentsazioaren hamabirenaren zenbatekoa aintzat hartuta, 2018ko ekitaldian ordaindu beharreko zenbatekoaren konturako aurrerakinaren kontzeptuan.

Aipatutako 53/2002 Legearen 11. artikuluan ezarritako kalkuluak egiteko behar den dokumentazio guztia aurkeztu ondoren, dagokion likidazioa egingo da, eta behin betiko konpentsazioaren zenbatekoaren eta egindako konturako ekarpenen zenbatekoaren artean dagoen aldea ordainduko da.

Lau. Ceuta eta Melilla hiriei konpentsazioa emango zaie karburanteen eta petrolio-erregaien gaineko karga osagarriari dagokion ekoizpenaren, zerbitzuen eta inportazioaren gaineko zergaren diru-bilketan izandako galerengatik, oinarri gisa 2010eko ekitaldian bildutakoa hartuta. Honako kontzeptu honetako kredituaren kontura emango zaie konpentsazioa: 32. atala, 02 zerbitzua, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusia. Toki-erakundeak, 942N programa, 464.01 kontzeptua.

Kompentsazioaren zenbatekoa hauxe izango da: 2017ko ekitaldian eta 2010ekoan kontzeptu horri dagokionez lortutako diru-bilketa likidoaren arteko aldea; betiere, alde hori negatiboa bada. Horretarako, dagokion autonomia-erkidegoko kontu-hartzailearen ziurtagiria aurkeztu beharko da; ziurtagiri horretan, ekitaldi horietan izandako diru-bilketa likidoa zehaztuko da. Behar den dokumentazioa aurkeztu ostean, dagokion likidazioa egingo da, ordainketa egiteko.

122. artikulua. *Udalen aldeko aurrerakinak, toki-tributuak biltzeko kudeaketan izandako desorekak direla eta.*

Bat. Errolden jaulkipenarekin lotutako inguruabarrak direla eta, ondasun higiezinaren gaineko zerga 2018ko abuztuaren 1a baino lehen likidatzerik ez dagoenean, ukitutako udalerriek aipatutako zergaren konturako aurrerakinak jaso ahal izango dituzte Altxor Publikoaren eskutik, diruzaintzaren arloan dauzkaten gutxieneko beharrak babesteko. Horretarako, dagokion korporazioko osoko bilkurak baimena eman beharko du alde zurretik.

Aurrerakin horiek jaso ahal izateko, udalerriek eskaera egin beharko dute, eta Katastroaren Zuzendaritza Nagusiak txostena eman beharko du horren inguruan. Eskaera horiek Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiak izapidetuko eta ebatziko ditu.

Espedienteak izapidetzean, baldintza hauek hartuko dira kontuan:

a. Aurrerakinak ezin izango dira errolda bakoitzari aurreikuspenaren arabera egotz dakioken zerga-bilketaren zenbatekoaren ehuneko 75etik gorakoak izan.

b. Formula horren bidez korporazio bakoitzari aurreratuko zaion urteko zenbatekoa ez da izango Estatuaren tributuetan izandako partaidetza dela-eta udal horrek azken urtean jasotakoaren bikoitza baino handiagoa.

c. Ezin izango da eskatu tributu berari dagozkion segidako bi zergaldi baino gehiagoren aurrerakinik.

d. Diputazio probintziales, uharteetako kabildo eta kontseiluek, probintzia bakarreko autonomia-erkidegoek eta zergak biltzen dituzten beste erakunde publikoek, erreferentzia-udalei aurrerakinak eman dizkietenean, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginak, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuz onetsitakoak, 149.2 artikuluan aurreikusitako moduan, aurrerakinari dagokion kopurua jaso ahal izango dute —gehienez ere, aurreratu duten zenbateko bera—, diruzaintzako eragiketak osotasunean edota partzialki kitatu ahal izateko, eta, betiere, aldeztu aurretik justifikatuz.

e. Behin betiko ebazpena eman ostean, aurreko d letran aipatutako udalek edo erakundeek aurrerakinaren zenbateko garbia jasoko dute. Urte bakoitzeko irailaren 1etik aurrera, zenbatekoaren laurdena jasoko dute hilero, eta paragrafo honen lehenengo lerrokadan adierazitako hutsuneak konpondu eta hurrengo hilabetean utziko zaio ordainketak egiteari.

Apartatu honetan xedatutakoaren arabera emandako aurrerakinei, egoki bada, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, laugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako atxikipen berberak egingo zaizkie. Aipatutako errolden zuzenketa jakinarazten duen Katastroaren Zuzendaritza Nagusiaren txostena jasotakoan itzuliko dituzte aurrerakinak toki-erakundeek.

Bi. Diruzaintzan premiazko eta ezohiko beharrak dauden kasuetan, ekitaldian bertan itzuli beharreko aurrerakinak eman ahal izango zaizkie udalei, Estatuko tributuetan duten partaidetzaren kontura. Halako aurrerakinak emateko, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiaren ebazpena beharko da. Aurrerakin horiek emateko, baldintza hauek bete beharko dira:

a. Udaleko osoko bilkuraren akordioa, bertako presidenteari aurrerakina eskatzeko baimena ematen diona eta eskaeraren baldintzak zehazten dituen.

b. Udal kontu-hartzailetzaren txostena, toki-erakundearen egoera ekonomiko-finantzarioa zehazten duena eta aurrerakinaren beharrezko ezohiko zergatia zehaztasunez arazoitzen duena.

c. Udal Diruzaintzaren txostena, dena delako ekitaldikoko diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspenari buruzkoa.

8. atala. Kapitulu honetan jasotako xedapenekin lotuta dauden arau instrumentalak

123. artikulua. *Toki-erakundearen aldeko kreditu zehatz batzuen aurrekontu-kudeaketarako arauak.*

Bat. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari baimena ematen zaio gastuak 2019ko ekitaldiaren kargura egiteko. Gastu horiek ezin izango dute 2018rako Aurrekontuan jasotako kredituen hamabirena gainditu, eta udalei eta probintzietako diputazioei edo pareko erakundeek Estatuaren tributuetan duten partaidetzaren 2019ko urtarrileko konturako ekarpenak ordaintzeko erabiliko dira. Aipatutako ekitaldiari egoztekoak diren behin betiko konturako entregak zehaztearekin lotuta sor daitezkeen aldeak doitu dira aipatutako ekitaldiaren otsaileko konturako entregetan.

Bi. Kapitulu honetako aurreko artikuluetan zehaztutako konpromisoak betetzeko xedea duten gastu-espedituek eta ordainketa-aginduak aldi berean izapidetuko dira ukitutako toki-korporazioen alde, eta, funtsen xedagarritasuna aintzat hartuta, aurrekontutik kanpoko hartzekodunen kontuen kargura bete ahal izango dira, kontu horiek Diruzaintzaren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusian xede horietarako gaituta badaude; hala, jasotzaile guztiei batera eta aldi berean ordainduko zaizkie obligazioak, ebazpenen data aintzat hartuta, eta baldintza berdinetan.

Honako hauek presaz izapidetu beharko dira:

Kreditua aldatzeko espedienteak, aipatutako konpromisoei dagokienez.
1995eko abenduaren 27ko Aginduak adierazitako erreferentziazko konpromisoei lotutako gastu-espedienteak.

Horretarako, aurrekontu-kudeaketaren prozeduraren faseak metatu egin beharko dira, eta, era berean, dagozkien eragiketen kontabilitate-erregistroaren prozedura bereziak gauzatu.

Hiru. Aurreko zenbakian aurreikusitako kasuetan, kreditua gehitzeko espedienteak izapidetu behar direnean, kreditua zabaltzeko eskaerak ukitutako toki-erakundeek egindako eskaera osagarrien arabera arrazoituko dira, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 54. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Lau. Gastuen Aurrekontuan aurreko Bat paragrafoan adierazitako helburuetarako xedatutako kredituak beharrezko periodikotasunarekin transferitu ahal izango dira Diruzaintzaren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusian horretarako gaitutako aurrekontuz kanpoko kontura. Prozedura hori toki-erakundeek Estatuaren tributuetan duten partaidetzatik eratorritako betebeharrak aldi berean ordaintzeko aplikatu ahal izango da, konturako ekarpen gisa nahiz behin betiko likidazio modura, bai eta toki-korporazioek egindako eskaeretatik eratorritako betebeharrak aldi berean ordaintzeko ere, Estatuak betebehar horiek aitortzeko dagozkion ebazpenak eman ostean.

124. artikulua. *Toki-korporazioek eman beharreko informazioa.*

Bat. Udalek Estatuaren tributuetan duten partaidetzari dagokionez 2018ko behin betiko likidazioa egiteko, toki-korporazioek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute, 2018ko ekainaren 30a baino lehen, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko organo eskudunek zehaztutako moduan:

1. 2016an honako zerga hauen bidez eskuratutako zenbateko likidoaren ziurtagiria: ondasun higiezinaren gaineko zerga, ekonomia-jardueren gaineko zerga eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga. Ondasun higiezinaren gaineko zergaren kasuan, ezaugarri bereziko ondasun higiezinengatik bildutakoa zehaztu beharko da.

2. 2016ko erroldetatik ondorioztatutako zerga-oinarriak jasotzen dituen ziurtagiria, eta errolda horietan izandako alten gainekoa, hiri-ondasun higiezinaren gaineko zergari dagokionez; horrez gain, aurreko paragrafoan aipatutako zergetan udalerrian galdagarri diren tasen ziurtagiria. Ondasun higiezinaren gaineko zergari dagokionez, ezaugarri bereziko ondasun higieziari dagokien tributu-informazioa zehaztu beharko da. Gainera, 2016an aplikatutako murrizketak zehaztu beharko dira, aplikatu badira; zehazki, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginak, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoak, bederatzigarren xedapen gehigarrian adierazten dituenak.

3. Ekonomia-jardueren gaineko zergan 2016an galdagarri ziren kuoten ziurtagiria, zergaldi hartan indarrean zeudenena; barne hartu beharko da Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginak, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoak, 86. artikuluan aipatutako koefizientea aplikatzearen eragina.

Bi. Dokumentuak, paperean bidali beharrean, modu elektronikoa bidali ahal izango dira, horretarako egokitutako ereduak erabiliz; nolana ere, informazioa bidaltzeko erabilitako euskarriak kontu-hartzailearen edota, hala badagokio, kontabilitate-funtzioa esleituta duen toki-korporazioko organo-titularraren sinadura elektronikoa izan beharko du.

Toki-erakundeak igorritako datuei dagokienez, sinadura elektronikoak, abenduaren 19ko 59/2003 Legeak xedatutako moduan ulertuta, paperean jasotako informazioari dagokionez eskuz egindako sinaduraren balio berbera izango du; hortaz, informazioa modu elektronikoa igorri gero, ez du aipatutako dokumentazioa paperean bidaltzeko betebeharririk izango.

Hiru. Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundearen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiak dagokion ebazpena emango du, behar den informazioaren xehetasunak biltzen

dituzten ereduak ezartzeko, dokumentazioa telematikoki aurkezteko prozedura arautzeko, eta sinadura elektronikoa xedatzeko.

Lau. Kapitulu honen 3. atalaren 2. azpiatalaren aplikazio-esparruan egon arren, aurrez adierazitako dokumentazioa aurkezten ez duten udalerrii haztapen-modulu bat aplikatuko zaie, hala badagokie; zehazki, dagokion biztanleria-gunearen barruan koefiziente txikiena duen udalerriri aplikatzekoa zaion batez besteko ahalegin fiskalaren ehuneko 60ri dagokiona. Hori guztia, Estatuko tributuetan duten partaidetzagatik 2018rako behin betiko likidazioa egiteko.

125. artikulua. *Toki-erakundeei egin beharreko atxikpenak, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginak, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuz onetsitakoak, laugarren xedapen gehigarrian zehaztutakoaren arabera.*

Bat. Zerga-bilketa kudeatzeko eginkizuna legez esleituta duen organo eskudunak hala eskatuz gero, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiak dagozkion atxikpenak aplikatuko ditu udalerriek eta probintziek Estatuaren tributuetan duten partaidetzan, aplikatzekoa den berariazko araudiaren arabera.

Atxikipenean Estatuaren tributuetatik eratorritako zorrak, Gizarte Segurantzaren kuotetatik eratorritako zorrak, eta horien baterako zerga-bilketatik eratorritako zorrak badaude, eta horien guztien baturak atxikitako zenbatekoa gainditzen badu, atxikitako zenbatekoa zor bakoitzaren zenbatekoaren arabera hainbanatuko da.

Bi. Atxikipenaren zenbatekoa dagokion toki-erakundeari esleitutako zenbatekoaren ehuneko 50 izango da, bai konturako ekarpen bakoitzean, bai Estatuko tributuetan duen partaidetzari dagokion urteko behin betiko likidazioan, zorra atxikitako zenbatekoa baino txikiagoa denean izan ezik.

Zorrak legez egotzitako Estatuaren tributuen ondorio direnean, gauzaz ordaindu diren konturako diru-sartzeen ondorio, edozein zergarengatik atxikitako edo atxiki beharreko zenbatekoen ondorio, edota Gizarte Segurantzaren atxikitako edo atxiki beharreko kotizazioen ondorio, atxikipena toki-erakundeari esleitutako zenbatekoaren ehuneko 100ekoa izango da, bai konturako ekarpen bakoitzean, bai Estatuko tributuetan duen partaidetzari dagokion urteko behin betiko likidazioan, zorraren zenbatekoa kopuru hori baino txikiagoa denean izan ezik.

Hiru. Ekitaldi osoan atxiki beharreko zenbatekoa murriztu egin ahal izango da, honako betebeharrak hauek betetzearen ondorioz diruzaintzan desoreka larriak daudela justifikatzen denean:

- a. Langileekin lotutako obligazioak erregularitasunez betetzea;
- b. Udalerriko biztanle-kopuruaren arabera derrigorrezkoak diren zerbitzu publikoak ematea;
- c. Gizarte-zerbitzuak eta babes zibila ematea, eta suteak itzaltzea, baldin eta zerbitzu horien truke kontraprestaziorik eskatzen ez bada prezio publiko bidez edo emandako zerbitzuaren kostuari dagokion antzeko tasa baten bidez.

Atxikipenaren ehuneko ezin izango da konturako ekarpenaren ehuneko 25 baino txikiagoa izan.

Finantzak saneatzeko partzuergoetan sartu diren toki-erakundeei ez zaizkie atxikpenak murriztuko, partzuergo horietan beste administrazio publiko batzuetako erakundeak ere egonez gero.

Atxikipenaren ehuneko murrizteko prozeduretan, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundearen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiak dagokion ebazpena emango du, erakundearen finantza-egoera eta nahitaezko zerbitzu publikoak bermatzeko beharra aintzat hartuz. Horretarako, toki-erakundeak besteak beste honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu, nahitaez:

– Erakunde hartzekodunetako organo biltzaileek igorritako ziurtagiria, ziurtagiria eskatu aurreko hilabetearen aurreko hamabi hilabeteetako zergen ordainketak egunean daudela egiaztatzen duena;

– Uneko finantza-egoerari buruzko txostena, tokiko kontu-hartzaileak sinatua. Bertan, alderdi hauek jaso beharko dira: atxikipenaren ehunekoa murrizteko eskaera egindako egunean diruzaintzan zeuden geldikinen kalkulua, eta egoera horrek zer-nolako eragina duen zenbaki honen lehenengo paragrafoan zehaztutako obligazioak betetzerakoan;

– Udalbatzak onetsitako Saneamendu Plana, indarreko ekitaldia barnean duena. Ondore horietarako, saneamendu-planaren baliokidetzat joko da doikuntza-plana, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak horren aldeko balioespena egin duenean likideziako ezohiko neurrien esparruan; neurri horiei Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren lehenengo xedapen gehigarrian egiten zaie aipamena.

Ebazpenean, atxikipenaren ehunekoa murriztuta izango den epealdia zehaztu beharko da; epealdi hori ezin izango da ekitaldi ekonomikoaren amaieratik aurrera luzatu. Nolanahi ere, murrizketa hori aplikatu ahal izateko, behar-beharrezkoa izango da toki-erakundeak saneamendu-plan bat onartzea edota indarrean den beste bat betetzen duela egiaztatzea.

Lau. Zorra Altxor Publikoaren kargura egindako finantza-aurrerakinak itzultzearen ondorioz sortu denean, atxikipena dagokion aurrerakina emateko ebazpenean zehaztutako baldintzetara egokitu beharko da, zor osoa ordainketa bakarrean kitatuz, edota ondoko ondoko atxikipenen bidez kitatuz, behin betiko iraungi arte.

Bost. Legez zerga-bilketa kudeatzeko eskumena duen organoari dagokio zorrak atxikitako zenbatekoen kargura iraungi direla xedatzen duten ebazpenak ematea, aplikagarri den araudi espezifikoaren arabera; atxikipena egin zen unetik aurrera sortuko dituzte ondorioak, zorrari dagokion zatian.

Sei. Artikulu honetan jasotako arauak aplikatzekoak izango dira toki-erakundeek Kreditu Ofizialeko Institutuarekiko dauzkaten zor irmoen kasuan, institutuak bideratutako kreditu-lerroagatik. Zor horiek uztailaren 1eko 8/2011 Errege Lege Dekretuaren II. kapituluaren bigarren atalean daude jasota. Manu honetako arauak aplikatzekoak izango dira, halaber, Toki Erakundeak Finantzatzeko Funtseko edozein konpartimentutan hartutako zor irmoen kasuan; funts hori Autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen finantza-iraunkortasunerako neurriei eta bestelako neurri ekonomikoei buruzko Errege Lege Dekretuaren (abenduaren 26ko 17/2014) 7. artikulua sortu zuen.

Zazpi. Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 18.5 artikuluan jasotako neurria aplikatzekoa den kasuetan, aplikatu beharreko atxikipen-ehunekoa, gehienez ere, artikulu honen Bi zenbakiaren lehenengo paragrafoan finkatutakoa izango da; betiere, arau hartan aipatutako hornitzaileekiko zorrak ez badira pilatzen toki-erakundeek hartzekodun publikoekin dauzkaten beste zor batzuekin, manu honen mende egonez gero.

Aipatutako zor-pilaketa dagoen kasuetan, aplikatu beharreko atxikipena, gehienez ere, eta oro har, ehuneko 70 izango da, eta ezin izango da murriztu Hiru zenbakian xedatutakoa betez; ehuneko horretatik, ehuneko 50, gehienez ere, hartzekodun publikoei egokituko zaie, eta ehuneko 20, gehienez ere, toki-erakundeen hornitzaileei, 2/2012 Lege Organikoaren 18.5 artikuluan mende dauden kasuan. Aipatutako lehenengo tartea artikulu honen Bat eta Bi zenbakietan jasotako irizpidearen arabera esleituko zaie hartzekodun publikoei.

Pilaketa egonez gero hornitzaileekiko zorren eta legez jasandako Estatuaren tributuetatik eratorritako zorren artean, edo gauzako ordainsariei dagozkien konturako diru-sarreretatik, atxikitako zenbatekoetatik edota edozein zergaren kontura atxiki behar zirenetatik, edota atxikitako edo atxiki beharreko gizarte-kotizazioetatik eratorritako zorren artean, aplikatu beharreko atxikipena dagokion toki-erakundeari esleitutako zenbatekoaren ehuneko 100 izango da, aurreko Hiru zenbakiaren bigarren paragrafoan xedatutakoarekin bat; nolanahi ere, toki-erakundeek hornitzaileei ordaintzeko esleitzen den zenbatekoa ezin izango da izan Estatuaren tributuetan duen partaidetza osatzen duen kontzeptu guztiengatik dagozkien zenbateko gordinaren ehuneko 20tik gorakoa.

II. KAPITULUA

Autonomia-erkidegoak

126. artikulua. *Nahikotasun Globalaren Funtsaren konturako ekarpenak.*

Nahikotasun Globalaren Funtsaren konturako ekarpenak gauzatzeko aurrekontu-kredituak honako kontzeptu honetan jasotakoak izango dira autonomia-erkidego bakoitzerako eta autonomia-estatutua duen hiri bakoitzerako, aplikatzekoak zaizkien atxikipenak, zuzenketak eta gainerako manuak kontuan hartuta: 36. atala «Lurralde-erakundeak finantzatzeko sistemak», 941M programa «Autonomia-erkidegoei egin beharreko transferentziak, Estatuaren diru-sarreretan duten partaidetzagatik», 451 kontzeptua «Nahikotasun Globalaren Funtsa». Konturako ekarpen horiek abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 20. artikuluan daude xedatuta; hots, Araubide erkideko autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa-sistema arautzen duen eta zerga-arau batzuk aldatzen dituen legean.

127. artikulua. *Autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa-sistemako baliabideen behin betiko likidazioa eta Konbergentzia Funtsetako partaidetza.*

Bat. Abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 11. artikulua 2. zenbakiak xedatutakoaren arabera, 2018an lege horretako I. tituluan araututako baliabide guztien 2016ko behin betiko balioak ezagutzen direnean, ekitaldi horretako likidazioa egingo da. Aipaturiko 11. artikulua 3. zenbakian xedatutakoari jarraituz, une horretan zehaztuko da autonomia-erkidego bakoitzak edo autonomia-estatutua duen hiri bakoitzak 2016ko konbergentzia autonomikorako funtsetan izango duen partaidetza, abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 23. eta 24. artikuluetan, lehenengo xedapen iragankorraren Zazpi zenbakiaren hirugarren paragrafoan eta lehenengo xedapen gehigarrian adierazitakoaren arabera. Konbergentzia autonomikorako funtsak lege horren beraren II. tituluan daude araututa.

Bi. 2016ri dagokion likidazioaren saldo globala autonomia-erkidegoaren edo autonomia-estatutua duen hiriaren aldekoa izanez gero, likidazio positiboen ordaintetarako egitean, likidazioen zenbatekoa Estatuaren alde deskontatuko dira, konpentsazio bidez.

Hiru. Likidazioaren saldo globala Estatuaren aldekoa izanez gero, erkidegoaren aldeko likidazioen ordaintetarako egitean honako hauek deskontatuko dira, abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 11.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, ordena honetan: Berme Funtsaren Transferentziako Estatuaren aldeko saldoa, lagatuko tributuen saldoa eta Nahikotasun Globalaren Funtsaren saldoa.

Kompentsatu gabe geratu diren gainerako likidazio-saldoak abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 11.3 artikuluan xedatutakoaren arabera konpentsatuko dira.

Lau. Abenduaren 18ko 22/2009 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituz, Estatuak, legez aurreikusitako kasuan, konpentsatu egingo ditu autonomia-erkidegoak, hala Oinarrizko Zerbitzu Publikoen Berme Funtsaren nola Nahikotasun Globalaren Funtsaren 2016ko transferentzien zenbatekoak negatiboak direnean; Estatuak Bost zenbakian adierazitako aurrekontu-kredituaren bidez egingo du konpentsazio hori. Konpentsazio horrek ikur positiboa izango du, eta zenbateko hauxe, autonomia-erkidego jasotzaile bakoitzerako: Lehiakortasun Funtseko baliabide guztiak banatu ostean, abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 23. artikulua 5 paragrafoan deskribatutako finantzaketa-indizea unitatea izan dadin aukera ematen duena; muga, betiere, Nahikotasun Globalaren Funts negatiboaren behin betiko balioaren zenbatekoa izango da.

Artikulu honen aurreko zenbakietan ezarritakoaren ondoreetarako, konpentsazioaren zenbatekoa autonomia-erkidegoak Lehiakortasun Funtsean duen partaidetzaren behin betiko likidazioan sartuko da.

Bost. Honako zenbateko hauek erantsiko zaizkie 36. ataleko 20. zerbitzuko («Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundearen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusia. Hainbat autonomia-erkidego») 941M Programako («Autonomia-erkidegoei egin beharreko transferentziak, Estatuaren diru-sarreretan duten partaidetzagatik») 452 Kontzeptuko («Autonomia-estatutua daukaten autonomia-erkidegoen eta hirien finantzaketaren aurreko ekitaldietako behin betiko likidazioa») azpikontzeptuen kredituei:

1) Abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 20. artikuluan araututako Nahikotasun Globalaren Funtsaren 2016ko behin betiko likidazioen zenbatekoa, bai eta Estatuak Oinarrizko Zerbitzu Publikoen Berme Funtsari egindako ekarpenaren zenbatekoa ere, autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien aldekoak badira.

Aurreko paragrafoan aipaturiko behin betiko likidazioen zenbatekoa Estatuaren aldekoa izanez gero, eskubide gisa adieraziko da Estatuaren Diru Sarreraren Aurrekontuko IV. kapituluaren.

2) Autonomia-erkidegoek eta autonomia-estatutua duten hiriek abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 23. eta 24. artikuluetan, lehenengo xedapen iragankorraren Zazpi zenbakiaren hirugarren paragrafoan eta lehenengo xedapen gehigarrian araututako konbergentzia autonomikorako funtsetan 2016an izandako partaidetzen behin betiko likidazioen zenbatekoa, artikulua honen bat zenbakian adierazitakoaren arabera zehaztuta.

3) Abenduaren 18ko 22/2009 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian xedatutako konpentsazioa, aplikatzekoa izanez gero, artikulua honetako lau zenbakian adierazitakoaren arabera zehaztuta.

128. artikulua. *Autonomia-erkidegoei egindako transferentziak, eskualdatutako zerbitzu berrien kostua dela kausa.*

2018ko urtarrilaren 1etik aurrera autonomia-erkidegoei zerbitzuen transferentzia berriak egiten bazaizkie, 36. ataleko berariazko kontzeptuetan, Aurrekontuen Zuzendaritza Nagusiak zehazten dituenetan, beharrezko diren kredituak hornituko dira, autonomia-erkidegoei beren gain hartutako zerbitzuen benetako kostua transferitzeko.

Ondore horietarako, zerbitzu-transferentzia berriak onesten dituzten errege-dekretuek alderdi hauek zehaztuko dituzte, gutxienez:

a) Autonomia-erkidegoak zein egunetan hartu behar duen bere gain transferitu zaion zerbitzuaren kudeaketa.

b) 2018ko ekitaldiaren urteko finantzaketa, eurotan, horren barruko gastu-kapituluetan xehatuta.

c) 2007 oinarri-urteari dagokion balioespena, urte horretako benetako kostuari dagokionez, dena delako autonomia-erkidegoaren Nahikotasun Globalaren Funtseko balioa berrikusteko, 22/2009 Legearen 21.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

129. artikulua. *Lurraldearteko konpentsazio-funtsak.*

Bat. Estatuaren Aurrekontu Orokorren 33. atalean lurraldearteko bi konpentsazio-funts ezartzen dira, Lurraldearteko konpentsazio-funtsak arautzen dituen abenduaren 27ko 22/2001 Legeak xedatutakoari jarraituz, zeina abenduaren 18ko 23/2009 Legeak aldatu zuen. Aipatutako bi funtsen batura 432.430,00 mila eurokoa da.

Bi. Konpentsazio Funtsa, 324.330,61 mila eurokoa, 22/2001 Legearen 2. artikuluan aurreikusitako inbertsio-gastuak finantzatzeko erabiliko da.

Hiru. Funts Osagarria, 108.099,39 mila eurokoa, Estatuaren Aurrekontu Orokorren 33. atalaren kontura egindako inbertsioak abiarazteko edo horien funtzionamendurako gastuak finantzatzeko erabili ahal izango dute autonomia-erkidegoek eta autonomia-estatutua daukaten hiriek, 22/2001 Legearen 6.2 artikulua aurreikusitako baldintzetan.

Lau. Autonomia-erkidegoei bideratutako Konpentsazio Funtsaren ehunekoa, inbertsio publikoaren kalkulu-oinarriarekiko, ehuneko 27,80 izango da, aipatutako legearen 2.1.a) artikulua arabera. Gainera, 22/2001 Legearen xedapen gehigarri bakarria betez, autonomia-erkidegoei bideratutako Konpentsazio Funtsaren eta Funts Osagarriaren batura

den portzentajea ehuneko 37,07 izango da; autonomia-estatutua duten Ceuta eta Melilla hiriak barne hartuz gero, ehuneko 37,65; eta 22/2001 Legea aldatzen duen 23/2009 Legean zehaztutako «eskualde ultraperiferikoa» aldagaia aintzat hartuta, ehuneko 38,02.

Bost. Aipatutako funtsen kontura finantza daitezkeen inbertsio-proiektuak 33. atalaren eranskinean zehaztutakoak dira.

Sei. 2018ko ekitaldian, honako autonomia-erkidego hauek izango dira funtsen onuradun: Galizia, Andaluzia, Asturias, Kantabria, Murtziako Eskualdea, Valentziako Erkidegoa, Gaztela-Mantxa, Kanariak, Extremadura, Gaztela eta Leon, eta Ceuta eta Melilla hiriak, abenduaren 27ko 22/2001 Legearen xedapen gehigarri bakarra betez.

Zazpi. Aurreko ekitaldietako lurraldearteko konpentsazio-funtsetako kreditu-geldikinak 2018ko Aurrekontuan txertatuko dira automatikoki, eta 2017ko abenduaren 31n proiektuak gauzatzeko ardura zeukan Administrazio beraren esku egongo dira.

Zortzi. Aurreko ekitaldietako aurrekontu-kredituetako geldikinak indarreko ekitaldian sartzean, Altxor Publikoak diruzaintza-aurrerakinak eman ahal izango dizkie autonomia-erkidegoei, haiek eskatutako funtsen zenbateko berekoak, sarrera hori egitean jaso beharreko baliabideen «kontura».

VIII. TITULUA

Gizarte-kotizazioak

130. artikulua. *Gizarte Segurantzari, langabeziari, jarduera amaitzeagatiko babesari, Soldatak Bermatzeko Funtzari eta Lanbide Heziketari 2018an dagozkien kotizazio-oinarriak eta -tasak.*

Arau honek indarra hartu eta hurrengo hilabetearen lehenengo egunetik aurrera, honako hauek izango dira Gizarte Segurantzari, langabeziari, jarduera amaitzeagatiko babesari, Soldatak Bermatzeko Funtzari eta Lanbide Heziketari dagozkien kotizazio-oinarriak eta -tasak:

Bat. Gizarte Segurantzari kotizatzeke oinarrien gehieneko eta gutxieneko mugak.

1. Arau honek indarra hartu eta hurrengo hilabetearen lehenengo egunetik aurrera, Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarria hilean 3.803,70 eurokoa izango da gehienera, gehienezko oinarria ezarrita duten araubideetan.

2. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginak, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoak, 19.2. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta artikulua honetan zehaztutako gertakariei dagokienez, Gizarte Segurantzako Araubideetako kotizazio-oinarrien gutxieneko muga, 2018an, une bakoitzean indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoa seiren batean areagotuta izango da, kontrakoa adierazten duen xedapen espresik dagoenean salbu.

Bi. Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko kotizazio-oinarriak eta -tasak.

1. Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrek babestutako gertakari eta egoera guztietarako —laneko arriskuak eta gaixotasun profesionalak izan ezik— hileko kotizazio-oinarriek gutxieneko eta gehieneko oinarri hauek izango dituzte, lanbide-kategoria bakoitzean:

a) Gutxieneko kotizazio-oinarriak, lanbide-kategorien eta kotizazio taldeen arabera, lanbide arteko gutxieneko soldata handitzen den ehuneko berean handituko dira arau honek indarra hartu eta hurrengo hilabetearen lehenengo egunetik aurrera, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenez.

Lanaldi partzialeko kontratua duten langileei aplikatzekoak diren gutxieneko kotizazio-oinarriak doitu egingo dira, kontratazio-aldaira horretako kotizazioa denbora-unitate bera eta antzeko ordainsaria duen arduraldi osoko kotizazioarekin parekatzeko.

b) Gehieneko oinarriak, lanbide kategoria eta kotizazio-taldea zein den alde batera utzita, hilean 3.803,70 euroak eta egunean 126,79 eurokoak izango dira, arau hau indarrean jarri eta hurrengo hilabeteko lehen egunetik aurrera.

2. 2018an, honako hauek izango dira Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorreko kotizazio-tasak:

a) Gertakari arrunten kasuan, ehuneko 28,30. Ehuneko horretatik, ehuneko 23,60 enpresaren kontura izango da, eta ehuneko 4,70 langilearen kontura.

b) Lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen kasuan, 2007rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 28ko 42/2006 Legearen laugarren xedapen gehigarrian jasotako primen tarifaren ehunekoak aplikatuko dira. Prima horiek enpresak ordaindu beharko ditu, oso-osorik.

3. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 149. artikuluan ezarritako aparteko orduen kotizazio osagarriko, kotizazio-tasa hauek aplikatuko dira 2018an:

a) Ezinbesteko aparteko orduen kasuan, ehuneko 14,00. Ehuneko horretatik, ehuneko 12,00 enpresaren kontura izango da, eta ehuneko 2,00 langilearen kontura.

b) Aurreko paragrafoan jasota ez dauden aparteko orduen kasuan, ehuneko 28,30. Ehuneko horretatik, ehuneko 23,60 enpresaren kontura izango da, eta ehuneko 4,70 langilearen kontura.

4. Arau honek indarra hartu eta hurrengo hilabetearen lehenengo egunetik aurrera, merkataritza-ordezkariei aplikatzeko gertakari arruntengatiko gehieneko kotizazio-oinarria Bi.1.b) artikuluan oro har xedatutakoa izango da.

5. Artisten kontingentzia arrunten gehieneko kotizazio-oinarria zehazteko, hauxe aplikatuko da, arau hau indarrean jarri eta hurrengo hilabetearen lehen egunetik aurrera:

a) Lanbide-kategoria ezberdinetako talde guztientzako gehieneko kotizazio-oinarria hilean 3.803,70 eurokoa izango da.

Nolanahi ere, artista batek enpresa batentzat edo gehiagorentzat egindako jarduerengatik izango dituen kotizazio-oinarrien gehieneko muga urtekoa izango da, eta adierazitako hileko gehieneko oinarriaren urteko kopuruaz zehaztuko da.

b) Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak, aurreko letran ezarritako gehieneko oinarria eta mugak aintzat hartuta, artisten behin-behineko likidazioak zehazteko kotizazio-oinarriak ezarriko ditu. Likidazio horiek abenduaren 22ko 2064/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren beste eskubide batzuen kotizazioari eta likidazioari buruzko Erregelamendu Orokorren 32.5.b) artikuluan daude jasota.

6. Zezenketa-arloko profesionalen kontingentzia arrunten gehieneko kotizazio-oinarria zehazteko, hauxe aplikatuko da, arau hau indarrean jarri eta hurrengo hilabetearen lehen egunetik aurrera:

a) Lanbide-kategoria ezberdinetako talde guztientzako gehieneko kotizazio-oinarria hilean 3.803,70 eurokoa izango da. Nolanahi ere, zezenketako profesionalen kotizazio-oinarrien gehieneko muga urtekoa izango da, eta adierazitako hileko gehieneko oinarriaren urteko kopuruaz zehaztuko da.

b) Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak, aurreko letran ezarritako gehieneko oinarria eta mugak aintzat hartuta, zezenketako profesionalen behin-behineko likidazioak zehazteko kotizazio-oinarriak ezarriko ditu. Likidazio horiek Gizarte Segurantzaren beste eskubide batzuen kotizazioari eta likidazioari buruzko Erregelamendu Orokorren 33.5.b) artikuluan daude jasota.

Hiru. Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean zehaztutako Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian kotizatzea.

1. 2018an, Sistema Berezi honen barruan dauden eta zerbitzua hilabete osoan ematen duten langileen gertakari arrunt zein profesionalengatiko hileko kotizazio-oinarren zenbatekoak Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 147. artikulua xedatutakoaren arabera zehaztuko dira, eta gutxieneko eta gehieneko oinarri hauek aplikatuko zaizkie:

a) Gutxieneko kotizazio-oinarriak, lanbide-kategorien eta kotizazio taldeen arabera, lanbide arteko gutxieneko soldata handitzen den ehuneko berean handituko dira arau honek indarra hartu eta hurrengo hilabetearen lehenengo egunetik aurrera, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko.

b) Gehieneko oinarriak, lanbide-kategoria eta kotizazio-taldea zein den alde batera utzita, hilean 3.803,70 euroak izango dira, arau indarrean jarri eta hurrengo hilabetearen lehen egunetik aurrera.

Langileek hilabete naturalaren hasierarekin edo amaierarekin bat ez datorren egun batean hasten edo amaitzen badute jarduera, eta jarduera horren iraupena elkarren segidako gutxienez 30 egun naturalekoa bada, kotizazio-modalitate hori Sistema Berezi horretan hilabetearen altan egondako egunekiko proportzionala izango da.

2. 2018an, lanegun errealean gertakari arrunt zein profesionalengatiko eguneko kotizazio-oinarren zenbatekoak, nekazaritza-lanak besteren kontura egiten dituzten langileen talde bakoitzari dagozkionak, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 147. artikulua xedatutakoaren arabera zehaztuko dira, aurreko zenbakian adierazitako kotizazio-modalitatea hautatu ez badute. Horretarako, Hiru.1 zenbakian ezarritako gehieneko eta gutxieneko oinarrien zenbatekoak 23rekin zatituko dira.

Lanegun bakoitzean lanean emandako orduen kopurua edozein dela ere, kotizazio-oinarriaren zenbatekoa ezin izango da 10. kotizazio-taldearen eguneko gutxieneko oinarria baino txikiagoa izan.

Hilabete naturalean 23 lanegun erreal edo gehiago egiten badira, horien kotizazio-oinarria Hiru.1 zenbakian ezarritakoa izango da.

3. 2018an, Sistema Berezi horren barruan dauden besteren konturako nekazaritzako langileen hileko kotizazio-oinarriaren zenbatekoa hauxe izango da, hilabete naturalaren barruan jarduerarik gabe izandako aldietan: Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko kotizazio-taldeen eskalako 7. taldearentzat gertakari arruntengatiko gutxieneko oinarriko ezarritakoa.

Ondore horietarako, hilabete naturalaren barruan jarduerarik gabeko aldiak izan direla joko da, epealdi horretan benetako lanean izandako aldien kopurua txikiagoa denean hilabete horretan langilea Sistema Berezian altan egon den egun naturalen ehuneko 76,67 baino.

Jarduerarik gabeko aldi horiei dagokien kotizazioa zehazteko, honako formula hau aplikatuko da:

$$C = [(n/N) - (jr \times 1,304/N)] bc \times tc$$

Non:

C= Kotizazioaren zenbatekoa.

n= Sistema Berezian kotizatu gabe emandako egunen kopurua bider hileko kotizazio-oinarriak.

N= Hilabete naturalean Sistema Berezian altan egondako egunen kopurua.

jr= Hilabete naturalean benetan lanean izandako egunen kopurua.

bc= Hileko kotizazio-oinarria.

tc= Kotizazio-tasa aplikagarria, Hiru.4.b) zenbakian jasotakoaren arabera.

Aurreko formula aplikatzean lortutako C-ren balioa ezin izango da zerotik beherakoa izan.

Formula hori aplikatzeari dagokionez, langileak ez badira Sistema Berezian hilabete natural osoan altan egon, jarduerarik gabeko aldien kotizazioa hilabete horretan altan egondako egunekiko proportzionala izango da.

4. Sistema Berezian horretan dauden eta besteren kontura lan egiten duten langileen kotizazioari tasa hauek aplikatuko zaizkio 2018an:

a) Jardunean egondako aldietan:

Gertakari arrunteei dagokienez, 1. kotizazio taldeko langileek ehuneko 28,30 kotizatuko dute. Ehuneko horretatik, ehuneko 23,60 enpresaren kontura izango da, eta ehuneko 4,70 langilearen kontura.

2. kotizazio taldetik 11.era artean dauden langileek ehuneko 23,35 kotizatuko dute. Ehuneko horretatik, ehuneko 18,65 enpresaren kontura izango da, eta ehuneko 4,70 langilearen kontura.

Lan-istripuengatik eta gaixotasun profesionalengatik gertakariak kotizatzeari dagokionez, 2007rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 28ko 42/2006 Legearen laugarren xedapen gehigarrian ezarritako primen tarifa-tasak aplikatuko dira. Prima horiek enpresak ordaindu beharko ditu, oso-osorik.

b) Jarduerarik gabeko aldietan, kotizazio-tasa ehuneko 11,50 izango da, eta langileak ordaindu beharko du, oso-osorik.

5. Arau indarrean jarri eta hurrengo hilabetearen lehen egunetik aurrera, honako murrizketa hauek aplikatuko zaizkie enpresek Sistema Berezian honen kotizaziora egindako ekarpenei, jardunean egondako aldietan zerbitzuak eman direnean:

a) 1. kotizazio taldeko langileen kotizazioari dagokionez, kotizazio-oinarriari ehuneko 8,10 puntuko murrizketa aplikatuko zaio; hortaz, gertakari arruntengatik kotizazio-tasa ehuneko 15,50 izango da. Nolanahi ere, enpresak ordaindu beharreko kuota ezin izango da hilean 279,00 eurotik gorakoa edo lanean emandako egun bakoitzeko 12,13 eurotik gorakoa izan.

b) 2. kotizazio taldetik 11.era bitartean dauden langileen kotizazioari dagokionez, murrizketak arau hauek bete beharko ditu:

1.) Hileko kotizazio-oinarria 986,70 eurokoa edo txikiagoa denean, edota lanean emandako egun bakoitzeko 42,90 eurokoa edo txikiagoa, kotizazio-oinarriari ehuneko 7,11 puntuko murrizketa aplikatuko zaio; hortaz, gertakari arruntengatik kotizazio-tasa ehuneko 11,54 izango da.

2) Kotizazio-oinarriak aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoak baino handiagoak direnean, eta gehienez ere hilean 3.803,70 eurokoak edota lanean emandako egun bakoitzeko 165,38 eurokoak, ondoko formula hauek aplikatzean lortutako ehunekoak aplikatuko zaie kotizazio-oinarri horiei:

Hileko kotizazio-oinarrietarako, formula hau aplikatuko da:

$$\% \text{ reducción mes} = 7,11\% \times \left(1 + \frac{\text{Base mes} - 986,70}{\text{Base mes}} \times 2,52 \times \frac{6,15\%}{7,11\%} \right)$$

Lanean emandako egunen kotizazio-oinarrietarako, formula hau aplikatuko da:

$$\% \text{ reducción jornada} = 7,11\% \times \left(1 + \frac{\text{Base jornada} - 42,90}{\text{Base jornada}} \times 2,52 \times \frac{6,15\%}{7,11\%} \right)$$

Nolanahi ere, enpresak ordaindu beharreko kuota ezin izango da hilean 81,67 eurotik beherakoa edo lanean emandako egun bakoitzeko 3,55 eurotik beherakoa izan.

6. Jarduneko aldiko aldi baterako ezintasun, amatasun, aitatasun, haurdunaldiko arrisku nahiz edoskialdi naturaleko arrisku-egoeretan, kotizazioa langileen kontratazio-modalitatearen arabera izango da:

a) Kontratu mugagabea duten nekazaritzako langileen kasuan, aipatutako egoeretako kotizazioa Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko arau orokorrek zehazten dutena izango da. Honako tasa hauek aplikatu beharko dira:

1.) 1. kotizazio taldeko langileen kasuan, gertakari arruntengatiko kotizazio-oinarriari ehuneko 15,50eko tasa aplikatuko zaio.

2.) 2. kotizazio taldetik 11.era bitartean dauden langileen kasuan, gertakari arruntengatiko kotizazio-oinarriari ehuneko 2,75eko tasa aplikatuko zaio.

Langile guztien kasuan, haien kotizazio taldea edozein dela ere, langabezia-kotizazioari dagokion kuotari kotizazio-oinarriaren ehuneko 2,75 puntuko murrizketa aplikatuko zaio.

b) Aldi baterako kontratua eta kontratu finko etena duten nekazaritzako langileen kasuan a) letran ezarritakoa aplikatuko da kontratatutako egunetan zerbitzua ematerik izan ez dutenean, lehen adierazitako egoeretako batean egotearen ondorioz.

Zerbitzu ematea aurreikusi ez den egunei dagokienez, langileek jarduerarik gabeko aldiei dagokien kotizazioa ordaindu beharko dute, amatasun- eta aitatasun-laguntzak jasotzean izan ezik, horiek kotizazio-epeak izango baitira honako prestazio hauei dagokienez: erretiroa, ezintasun iraunkorra, heriotza eta bizirik irautea.

7. Maila kontributiboko langabezia-prestazioa jaso bitartean, Sistema Berezi honetan kotizatu behar izanez gero, kotizazio-tasa ehuneko 11,50 izango da.

8. Sistema Berezi honetako langileei ez zaie aplikatuko Bi.3 zenbakian adierazitako aparteko orduengatiko kotizazio gehigarria.

9. Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioari baimena ematen zaio jarduneko aldien eta jarduerarik gabekoen kotizazioa harmonizatzeko behar diren prozedurak arautzeko eta egokitzapenak egiteko, aurreikusitako murrizketak aplikatzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, eta horietatik eratorritako kotizazioak erregularizatzeko.

Lau. Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean zehaztutako Etxeko Langileentzako Sistema Berezian kotizatzea.

Sistema berezi honetan, arau honek indarra hartu eta hurrengo hilabetearen lehenengo egunetik aurrera, honako hauek izango dira kotizazio-oinarriak eta -tasak:

1. Gertakari arruntengatiko eta profesionalengatiko kotizazio-oinarriak zehazteko, lanbide arteko gutxieneko soldataren igoeraren proportzio berean eguneratuko dira 2017an indarrean zegoen eskalako hileko ordainsariak eta kotizazio-oinarriak.

2. Gertakari arruntengatiko kotizazio-tasa ehuneko 27,40 izango da, aurreko zenbakian adierazitakoaren arabera dagokion kotizazio-oinarriaren gainean kalkulatuta. Ehuneko horretatik, ehuneko 22,85 enplegatzaileak ordaindu beharko du, eta ehuneko 4,55 enplegatuak.

3. Lan-istripuengatiko eta gaixotasun profesionalengatiko gertakariak kotizatzeari dagokionez, Lau.1 zenbakian adierazitakoaren arabera dagokion kotizazio-oinarriaren gainean, 2007rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 28ko 42/2006 Legearen laugarren xedapen gehigarrian ezarritako primen tarifiari zehaztutako kotizazio-tasa aplikatuko da. Zenbateko hori enplegatzaileak ordaindu beharko du, oso-osorik.

Bost. Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian kotizatzea.

Arau honek indarra hartu eta hurrengo hilabetearen lehenengo egunetik aurrera, honako hauek izango dira Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Bereziko gehieneko eta gutxieneko kotizazio-oinarriak eta -tasak:

1. Gehieneko kotizazio-oinarria hilean 3.803,70 eurokoa izango da. Gutxieneko kotizazio-oinarria hilean 932,70 eurokoa izango da.

2. Arau honek indarra hartu eta hurrengo hilabetearen lehenengo egunean 47 urte baino gutxiago dauzkaten langile autonomoen kasuan, haiek hautatuko dute kotizazio-oinarria, aurreko zenbakian zehaztutako gehienezko eta gutxieneko oinarrien barruan. Aukera hori bera izango dute data horretan 47 urte dauzkaten langile autonomoek, baldin eta haien kotizazio-oinarria, 2017ko abenduan, hilean 2.023,50 eurokoa edo gehiagokoa izan bada, edota Araubide Berezian aipatutako datatik aurrera egin badute alta.

Arau honek indarra hartu eta hurrengo hilabetearen lehenengo egunetik 47 urte dauzkaten langile autonomoek ezin izango dute hilean 2.052,00 eurotik gorako oinarria aukeratu, haien kotizazio-oinarria hilean 2.023,50 eurotik beherakoa bada. Nolanahi ere, muga horretatik salbuesita egongo dira, batetik, halako aukera 2018ko ekainaren 30a baino lehen egiten dutenak —aukera horrek urte horretako uztailaren 1etik aurrera sortuko ditu ondoreak—, eta, bestetik, negozioaren titularraren ezkontide alarguna, titularraren heriotzaren ondorioz negozioaren buru jarri behar izan denean, eta Araubide Berezian alta 47 urterekin egin behar izan duenean.

3. Arau honek indarra hartu eta hurrengo hilabetearen lehenengo egunean 48 urte edo gehiago dauzkaten langile autonomoen kotizazio-oinarria hilean 1.005,90 eta 2.052,00 euro artekoa izango da. Salbuespen gisa, negozioaren titularraren ezkontide alargunaren kasuan, titularraren heriotzaren ondorioz negozioaren buru jarri behar izan denean, eta Araubide Berezian alta 45 urterekin edo gehiagorekin egin behar izan duenean, kotizazio-oinarria hilean 932,70 eta 2.052,00 euro artekoa izango da.

Hala ere, 50 urte bete aurretik Gizarte Segurantzako sistemaren erregimenetako batean bost urtez edo gehiagoz kotizatu duten autonomoek arau hauek bete beharko dituzte:

a) Egiaztatutako azken kotizazio-oinarria hilean 2.023,50 eurokoa edo gutxiagokoa izan bada, haien kotizazio-oinarria hilean 932,70 eta 2.052,00 euro artekoa izango da.

b) Egiaztatutako azken kotizazio-oinarria hilean 2.023,50 eurotik gorakoa izan bada, haien kotizazio-oinarria hilean 932,70 euroren eta egiaztatutako azkenaren zenbatekoaren artekoa izango da, ehuneko 1,40 areagotuta, gehieneko kotizazio-oinarriaren mugarekin.

Bost.3.b) zenbakian aurreikusitakoa aplikatu egingo zaie 48 edo 49 urterekin abenduaren 22ko 39/2010 Legearen 132. artikuluaen Lau.2 zenbakiaren bigarren paragrafoan jasotako aukera baliatu duten langile autonomoei ere.

4. Salmenta ibiltarian edo etxez etxe saltzen aritzen diren langile autonomoek (EJSN 4781 Elikagaien, edarien eta tabako-produktuen txikizkako merkataritza salmenta-postuetan eta azoka txikietan; 4782 Ehun-produktuen, janzkien eta oinetako txikizkako merkataritza salmenta-postuetan eta azoka txikietan; 4789 Beste produktu batzuen txikizkako merkataritza salmenta-postuetan eta azoka txikietan eta 4799 Establezimenduetan, salmenta-postuetan edota azoka txikietan egiten ez diren txikizkako beste salerosketa batzuk), arau hau indarrean jarri eta hurrengo hilabetearen lehen egunetik aurrera, Bost.1 zenbakian izaera orokorrarekin ezarrita dagoen oinarria aukeratu ahal izango dute gutxieneko kotizazio-oinarri gisa, edota Araubide Orokorrerako indarrean dagoena.

Salgaiak etxez etxe saltzen aritzen diren langile autonomoek (EJSN 4799), arau hau indarrean jarri eta hurrengo hilabetearen lehen egunetik aurrera, Bost.1 zenbakian izaera orokorrarekin ezarrita dagoen oinarria aukeratu ahal izango dute gutxieneko kotizazio-oinarri gisa, edota horren ehuneko 55en baliokidea den kotizazio-oinarria.

5. Gizarte Segurantzako Araubide Berezi honetako kotizazio-tasa ehuneko 29,80 izango da; interesduna lanbide-kontingentzien babesari atxikita egonez gero edo jarduera utziz gero, berriz, ehuneko 29,30 izango da. Interesdunak aldi baterako ezintasunagatiko babesa estalita ez duenean, kotizazio-tasa ehuneko 26,50 izango da.

Araubide Berezi honen barruan dauden langileek, lan-istripuek eta gaixotasun profesionalek eragindako gertakarietarako estaldurarik ez dutenean, aukeratutako kotizazio-oinarriari ehuneko 0,10 erantsi beharko diote kotizazio gehigarri gisa, Gizarte

Segurantzaren Lege Orokorraren II. tituluko VIII. eta IX. kapituluetan jasotzen diren prestazioak finantzatze aldera.

6. Lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen gertakariei dagokienez, 2007rako Estatuaren Aurrekontu Orokorraren abenduaren 28ko 42/2006 Legearen laugarren xedapen gehigarrian ezarritako primen tarifa-ehunekoak aplikatuko dira.

7. Aldi berean egiten duten besteren konturako lanagatik jarduera-aniztasun araubidean 2018an gertakari arruntengatik 12.917,37 euro edo gehiago kotizatzen duten langile autonomoek, kontuan hartuta bai enpresaren ekarpenak, besteren kontura egiten duen jardueraren arabera dagokion Gizarte Segurantzaren araubidean egiten dituzten ekarpenak, bai eta Araubide Berezian egindakoak ere, aipatutako zenbatekoa gaintitzen duen gehiegizko kotizazioaren ehuneko 50 berreskuratzeko eskubidea izango dute; betiere, aipatutako Araubide Berezian sartutako kuoten ehuneko 50 izango da muga, nahitaez estali beharreko kontingentziengatik kotizazioa dela eta.

Halako kasuetan, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak hurrengo ekitaldiko maiatzaren 1a baino lehen ordainduko ditu itzuli beharreko kopuruak, salbu eta, kotizazioaren berezitasunengatik, ezinezkoa bada epe horren barruan ordainketa egitea edo interesdunak zenbait datu eman behar baditu; halakoetan, esandako eguna baino beranduago egingo da itzulketa.

8. Salgaiak kalean saltzen dituzten lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileei, erosleengandik zuzenean jasotzen dituztenei, Bost.4 apartatuko lehenengo lerrokadan xedatutakoa aplikatuko zaie, kotizazio-ondorioetarako.

Salmenta ibiltaria merkatu tradizionaletan edo azoka txikietan egunean zortzi ordu baino gutxiagoan egiten dutela egiaztatzen dutenek Bost.1 zenbakian ezarritako gutxieneko kotizazio-oinarria aukeratu ahal izango dute, edota oinarri horren ehuneko 55en baliokidea dena. Nolanahi ere, nahitaez kotizatu beharko dute lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen gertakariengatik. Xede horretarako, 2007rako Estatuaren Aurrekontu Orokorraren abenduaren 28ko 42/2006 Legearen laugarren xedapen gehigarrian ezarritako primen tarifa aplikatuko zaio aukeratutako kotizazio-oinarriari.

9. Salmenta ibiltarian aritzen diren lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileek, Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian sartuta geratu direnean, ordaindu beharreko kuotan ehuneko 50eko murrizketa izateko eskubidea izango dute 2018an, 2009rako Estatuaren Aurrekontu Orokorraren abenduaren 23ko 2/2008 Legearen 120.Lau.8 artikuluan xedatutakoa betez.

Murrizketa horretarako eskubidea izango dute, halaber, salmenta ibiltarian aritzen diren lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileek, baldin eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi badira jardueran eta aipatutako Araubide Berezian sartuta geratu badira.

Murrizketa honela zehaztuko da: Bost.8 zenbakian xedatutakoaren arabera aukeratutako gutxieneko oinarriari Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian indarrean dagoen kotizazio-tasa ezarrita.

10. Bost.8 paragrafoaren bigarren lerrokadan xedatutakoa honako hauei aplikatuko zaie: salgaiak merkatu tradizionaletan edo azoka txikietan indibidualki saltzen aritzen direnei, egunean zortzi ordu baino gutxiagoan, establezimendu finko propioa ez badute, eta saltzen dituzten artikulua edo produktuak ekoizten ez badituzte.

11. 2017ko uneren batean euren zerbitzura besteren konturako hamar langile edo gehiago aldi berean kontratatuta izan dituzten langile autonomoei hilean 1.199,10 euroko gutxieneko kotizazio-oinarria ezartzen zaie, arau hau indarrean jarri eta hurrengo hilabetearen lehen egunetik aurrera.

Gutxieneko kotizazio-oinarri hori aplikatu ahalko zaie, arau hau indarrean jarri eta hurrengo hilabetearen lehen egunetik aurrera, araubide berezi honetan bilduta dauden langile autonomoei ere, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 305.2.b) eta e) artikuluan xedatutakoaren babesean. Salbuespen izango dira beren jardueraren hasierako 12 hilabeteetan araubidean alta hartzen duten autonomoak, altaren hasiera-datatik zenbatuta.

Sei. Norberaren Konturako Nekazaritzako Langileen Sistema Berezian kotizatzea, zeina Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian ezarria baitago.

1. Arau hau indarrean jarri eta hurrengo hilabetearen lehenengo egunetik aurrera, Norberaren Konturako Nekazaritzako Langileen Sistema Berezian (Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian ezarria) sartuta dauden langileen kotizazioak honako hauek izango dira:

a) Nahitaez estali beharreko gertakari dagokienez, langileak aukeratutako kotizazio-oinarria hilean 932,70 eta 1.119,30 euro artekoa denean, aplikatu beharreko kotizazio-tasa ehuneko 18,75 izango da.

Langileak aukeratutako kotizazio-oinarria hilean 1.119,30 eurotik gorakoa denean, zenbateko horretatik gorako kopuruari ehuneko 26,50eko kotizazio-tasa aplikatuko zaio.

b) Gertakari arruntengatiko aldi baterako ezintasunaren borondatezko hobekuntzari dagokionez, interesdunaren kotizazio-oinarriaren zenbateko osoari aplikatu beharreko kotizazio-tasa ehuneko 3,30ekoa izango da; interesduna lanbide-gertakarien babes-sistemari atxikita egonez gero edo jarduera uzten badu, berriz, ehuneko 2,80koa izango da.

2. Lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen gertakari dagokienez, Bost.6 zenbakian xedatutakoa beteko da. Interesdunek ez badute lanbide-gertakari guztiak estaltzea hautatu, Sei.1.a) zenbakian adierazitako kotizazio-oinarriari ehuneko 1,00eko tasa aplikatuta lortzen den kuota ordaintzen jarraituko dute, ezintasun iraunkorraren eta heriotzaren nahiz bizirik irautearen gertakarien estaldura gisa.

3. Sistema Berezi honen barruan dauden langileek, lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen gertakari guztiei estaldura ez ematea erabaki badute, aukeratutako kotizazio-oinarriari ehuneko 0,10eko kotizazio gehigarria erantsitako zenbatekoa kotizatuko dute, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren II. tituluko VIII. eta IX. kapituluetan jasotzen diren prestazioak finantzatze aldera.

Zazpi. Itsasoko Langileen Araubide Berezian kotizatzea.

1. Bat eta bi apartatuetan ezarritakoa Itsasoko Langileen Araubide Berezian onartutako langileei eta beste batzuen kontura lan egiten duten langileei aplikatuko zaie; hargatik eragotzi gabe Itsas- eta Arrantza-sektoreko Langileen Gizarte-babesa arautzen duen urriaren 21eko 47/2015 Legearen 11. artikuluan ezarritakoa betetzea, kontingentzia arruntei dagokienez, eta hurrengo 2. apartatuan ezarritakoa betetzea.

2. Urriaren 21eko 47/2015 Legearen 10 artikulua aipatzen dituen bigarren eta hirugarren taldeetako langileei, norberaren zein besteren kontura lan egiten dutenei, dagozkien erregimen Berezi honetan babestutako gertakari eta egoera guztien kotizazioak Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren agindu bidez urtero zehaztutako ordainsarien gainean gauzatuko dira. Itsasoko Gizarte Institutuak egingo du aginduaren proposamena, sektoreko erakunde adierazgarriak entzun ostean. Zehaztapen hori probintzia, arrantza-modalitate eta lanbide-kategoria bakoitzeko egingo da, aurreko urtean jasotako ordainsariaren batez besteko balioetan oinarrituta.

Zehazturiko oinarriak bakarrak izango dira, eta ezin izango dira Bi zenbakiaren 1. paragrafoan xedatutakoaren arabera kategoría profesional bakoitzerako ezarritakoa baino txikiagoak edo handiagoak izan.

3. Langile autonomoei kontingentzia arruntengatik ezarritako kotizazio-tasa ehuneko 29,30 izango da, kontingentzia profesionalen babesaren mende daudelako, nahitaez.

4. Urriaren 21eko 47/2015 Legearen 10. artikuluan aipaturiko lehenengo taldean bildutako langileen babestutako gertakari eta egoera guztien kotizazioak arau honetan xedatutakoaren mende egongo dira: Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezia erregulatzen duen araudiaren mende; betiere, 3. zenbakian ezarritako nahitaezotasuna kontuan hartuta.

Zortzi. Ikatz Meatzaritzako Araubide Berezian kotizatzea.

1. Arau honek indarra hartu eta hurrengo hilabetearen lehenengo egunetik aurrera, Ikatz Meatzaritzako Araubide Berezian dagokion kotizazioa zehazteko, Bi zenbakian aurreikusitakoa aplikatuko da; gertakari arrunten kasuan, hala ere, kotizazio-oinarriak honako arau hauen arabera normalizatuko dira:

Lehenengoa. Kontuan hartuko dira langileek jaso dituzten edota jaso beharko lituzketen ordainsariei dagozkien zenbatekoak. Zenbateko horiek izango dira, lan-istripu eta gaixotasun profesionalengatiko kotizazioei egozteko modukoak, eta 2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartekoak, data biak barne.

Bigarrena. Ordainsari horiek kategorian, talde profesional, espezialitate profesional nahiz meatzaritzako eremuen arabera taldekatuko dira; betiere, Gizarte Segurantzaren Beste Eskubide Batzuen Kotizazioari eta Likidazioari buruzko Erregelamendu Orokorraren 57. artikuluan xedatutakoa aintzat hartuta. Modu horretara lorturiko zenbatekoak dagozkien egunen baturaz zatituko dira.

Hirugarrena. Eraitza hori gertakari arruntengatiko eguneko kotizazio-oinarri normalizatu izango da. Oinarri horren zenbatekoa ezin izango da aurreko ekitaldian lanbide-kategoria horretarako finkatutakoa baino txikiagoa izan, indarreko ekitaldian izandako ehuneko berean handituta, Bat.1 zenbakian aipatzen den gehieneko kotizazioa gehitu ostean. Era berean, ezin izango da aipaturiko gehienekoa urteko zenbateko bihurtu, eta indarreko ekitaldiko egun naturalen artean zatitu ostean lortzen den kopurua baino handiagoa izan.

2. Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak finkatuko du oinarri normalizatuen zenbatekoa, aurreko zenbakian ezarritako arauak aplikatuz.

Bederatzi. Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarria, langile autonomoek maila kontributiboko langabezia-prestazioa jaso bitartean eta jarduera uzteagatiko prestazioa jaso bitartean.

1. Lan-harremana azkentzearen ondorioz langabezia-prestazioa jaso bitartean, Gizarte Segurantzari kotizatzeke betebeharra daukaten langileen kotizazio-oinarria langabezia-prestazioaren oinarri arautzailea izango da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 270. artikuluan 1. zenbakian xedatutakoa, lanbide-kategoria bakoitzerako aurreikusitako gertakari arruntengatiko gutxieneko oinarriaren zenbatekoa aintzat hartuta. Gizarte Segurantzaren prestazioei dagokienez, gertakari arruntengatiko kotizazio-oinarritzat joko da oinarri hori.

Lan-harremana aldi baterako etetearen edota lanaldia aldi baterako murriztearen ondorioz langabezia-prestazioa jaso bitartean, dela enpresaburuak hala erabaki duelako, Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, dela konkurtso-prozedura batean emandako ebazpen judizial batek hala agindu duelako, kotizatzeke legezko betebeharra duten langileek Gizarte Segurantzari kotizatu beharrekoaren oinarria lanean egon bitartean hala gertakari arruntengatik nola lan-istripuengatik zein lanbide-gaixotasunengatik gertakariengatik kotizaturiko azken sei hilabeteetako oinarrien batez bestekoa izango da; zehazki, langabezia-egoera baino lehenagoko edota kotizatzeke legezko betebeharra bukatu baino lehenagoko oinarriena.

Langabezia-prestazioa jasotzeko eskubidea etenda izan ostean berreskuratzen duenak kotizatzeke ekin beharko dio berriz ere, eskubidea berreskuratzeke uneari dagokion kotizazio-oinarriaren arabera, aurreko lerrokatetan adierazitakoa aintzat hartuta.

Langabezia-prestazioa jasotzeko eskubidea azkenduta badago, eta, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 269. artikuluko 3. zenbakian xedatutakoan oinarrituz, langileak hasierako eskubidea berreskuratzea erabakitzen badu, Gizarte Segurantzari egin beharreko kotizazioaren oinarria eskubidea jaio den uneari dagokion langabezia-prestazioaren oinarri arautzailea izango da.

Prestazioa jaso bitartean, honako kasu honetan soilik eguneratuko da aurreko paragrafoetan adierazitako kotizazio-oinarria: oinarri hori txikiagoa denean langilea legez

langabezian gelditzean haren kotizazio taldeari dagokion gutxieneko kotizazio-oinarria baino, aipatutako mugarekin.

2. Maila kontributiboko langabezia-prestazioa jaso bitartean, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean zehaztutako Nekazaritzako Besteren Konturako Langileentzako Araubide Berezian kotizatu behar dutenen kotizazio-oinarria Bederatzi.1 zenbakian oro har adierazitakoa izango da.

3. Langabezia-prestazioa jaso bitartean, Ikatz Meatzaritzako Araubide Berezian kotizatu behar dutenen kotizazio-oinarria hauxe izango da: langilea legez langabezian gelditzean, haren kategoriari edo espezialitate profesionalari dagokion indarreko kotizazio normalizatua.

Kotizazio-oinarria une bakoitzean indarrean dagoen oinarriaren arabera eguneratuko da, langilea legez langabezian gelditzean haren kotizazio taldeari edota kategoría edo espezialitate profesionalari dagokiona aintzat hartuta.

4. Langile autonomoek jarduera uzteagatiko prestazio ekonomikoa jaso bitartean, dagokion araubideko gertakari arruntengatiko kotizazio-oinarria prestazio horren oinarri arautzailea izango da, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 339. artikuluan xedatutako moduan zehaztuta; betiere, aintzat hartuko da dagokion araubidean aurreikusitako gutxieneko kotizazio-oinarriaren edo kotizazio-oinarri bakarraren zenbatekoa.

Gizarte Segurantzako kotizazioak arautzen dituen araubidearekin bat etorritik, jarduerak dirauen bitartean norberaren konturako langileentzako edo langile autonomoentzako gutxieneko kotizazio-oinarri arrunta baino gutxiago kotizatzen duten kolektiboek kotizazio-oinarri murriztuan kotizatuko dute jarduera uzteagatiko prestazioak jaso bitartean.

Hamar. Langile autonomoen langabeziagatiko, Soldatak Bermatzeko Funtsagatiko, lanbide-heziketagatiko eta jarduera uzteagatiko kotizazioa.

Arau honek indarra hartu eta hurrengo hilabetearen lehenengo egunetik aurrera, ondoren adierazitakoarekin bat etorritik gauzatu da langabeziagatiko, Soldatak Bermatzeko Funtsagatiko, lanbide-heziketagatiko eta jarduera uzteagatiko gertakarien kotizazioa:

1. Langabeziagatiko, Soldatak bermatzeko funtsagatiko eta lanbide-heziketagatiko kotizazio-oinarria, horiek estaltzen dituzten Gizarte Segurantzako araubide guztietan, lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen gertakari dagokiena izango da.

Itsasoko Langileen Araubide Bereziko langabeziagatiko kotizazio-oinarriari Itsas eta arrantza sektoreko langileen gizarte-babesa arautzen duen urriaren 21eko 47/2015 Legearen 11. artikuluan xedatutakoa ere aplikatuko zaie, eta, halaber, Zazpi zenbakian adierazitakoa.

Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean zehaztutako Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian dauden langileen langabeziagatiko, Soldatak Bermatzeko Funtsagatiko eta lanbide-heziketagatiko kotizazio-oinarriak Hiru.1 eta Hiru.2 paragrafoetan finkatukoak izango dira, langile bakoitzari gertakari profesionalengatik dagokion kotizazio-aldaeraren arabera.

Prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuen langabeziagatiko kotizazio-oinarria lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen gertakari dagokien gutxieneko oinarria izango da.

Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Bereziko langileen jarduera uzteagatiko babesari dagokion kotizazio-oinarria araubide horretan dauden langileek hautatu dutena izango da, bai eta adierazitako Araubide Berezian zehaztutako Norberaren Konturako Nekazaritzako Langileen Sistema Bereziko langileena ere.

Itsasoko Langileen Araubide Berezian, lehen taldean sartuta dauden langile autonomoei jarduera bertan behera uzteagatik ezartzen zaien kotizazio-oinarria ere haiek aukeratutakoa izango da. Bigarren eta hirugarren taldeetan sartuta dauden langile autonomoei Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren agindu bidez ezarriko zaie kotizazio-oinarria, eta urriaren 21eko 47/2015 Legearen 11. artikuluan zehaztuta dauden

koefiziente zuzentzaileak ere aplikatu ahalko zaizkie (47/2015 Legea, Itsas- eta Arrantza-sektoreko Langileen Gizarte-babesa arautzen duena).

2. Arau honek indarra hartu eta hurrengo hilabetearen lehenengo egunetik aurrera, honako hauek izango dira kotizazio-tasak:

A) Langabezia-gertakariari dagokionez:

a) Kontratazio mugagabea, lanaldi partzialeko kontratu mugagabeak eta aldizkako lan-kontratu finkoak barne; era berean, iraupen mugatuko kontratazioa, honako modalitate hauetan: praktikaldikoak, prestakuntzakoak eta ikaskuntzakoak, txandakakoak eta bitarteko kontratuak. Azkenik, kontratu-modalitatea edozein izanda ere, desgaitasunen bat duten langileekin egindako kontratuak: ehuneko 7,05. Ehuneko horretatik, ehuneko 5,50 enpresaburuaren kontura izango da, eta ehuneko 1,55 langilearen kontura.

b) Iraupen mugatuko kontratazioari dagokionez:

1.a Lanaldi osoko iraupen mugatuko kontratazioaren kasuan: ehuneko 8,30; hortik ehuneko 6,70 enpresaburuaren kontura izango da, eta ehuneko 1,60 langilearen kontura.

2.a Lanaldi partzialeko iraupen mugatuko kontratazioaren kasuan: ehuneko 8,30; hortik ehuneko 6,70 enpresaburuaren kontura izango da, eta ehuneko 1,60 langilearen kontura.

Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean zehaztutako Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian bilduta dauden besteren konturako behin-behineko langileen kotizazio-tasa aurreko b) letraren 1. tartekian finkatutakoa izango da lanaldi osoko iraupen mugatuko kontratazioen kasuan. Iraupen mugatuko kontratu zehatzei edota desgaitasunen bat duten langileei, berriz, aurreko a) letran aurreikusitakoa aplikatuko zaie.

B) Soldatak Bermatzeko Funtzari kotizatzeari dagokionez, ehuneko 0,20 enpresaren kontura.

Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean zehaztutako Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian, Soldatak Bermatzeko Funtserako kotizazio-tasa ehuneko 0,10 izango da, eta enpresaren kontura izango da oso-osorik.

C) Lanbide Heziketagariko kotizazioari dagokionez, ehuneko 0,70. Ehuneko horretatik, ehuneko 0,60 enpresaren kontura izango da, eta ehuneko 0,10 langilearen kontura.

Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean zehaztutako Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian, Lanbide Heziketarako kotizazio-tasa ehuneko 0,18 izango da. Ehuneko horretatik, ehuneko 0,15 enpresaren kontura izango da, eta ehuneko 0,03 langilearen kontura.

D) Jarduera uzteagariko babesari dagokionez, tasa ehuneko 2,20 izango da.

Hamaika. Prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuetan kotizatzea.

Arau honek indarra hartu eta hurrengo hilabetearen lehenengo egunetik aurrera, prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuetan enpresaburuak eta langileak ordaindu beharreko kuotak (gertakari arruntengatik, gertakari profesionalengatik, langabeziagatik, Soldatak Bermatzeko Funtsera eta Lanbide Heziketagariko) Araubide Orokorreko gutxieneko oinarria handitzen den ehuneko berean handituko dira, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko.

Hamabi. Prestakuntza jasotzen ari diren ikertzaileen kotizazioa.

Urtarrilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretuaren aplikazio-eremuan dauden eta prestakuntza jasotzen ari diren ikertzaileen kotizazioari dagokionez, lehenengo bi urteetan aurreko zenbakian jasotako arauak aplikatuko dira prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuetan, gertakari arruntengatik eta lanbide-gertakariengatik kotizazioan.

Zenbaki honetan aurreikusitako kotizazio-sistemak ez du eraginik izango jaso beharreko prestazio ekonomikoen zenbatekoa zehazteko unean; horri dagokionez, Araubide Orokorreko 1. kotizazio taldeari dagokion gutxieneko oinarriaren zenbatekoa aplikatzen jarraituko da.

Hamahiru. Kotizazioak suhiltzaileen erretiro-adina aurreratzearekin lotuta dituen berezitasunak.

Martxoaren 14ko 383/2008 Errege Dekretuak aipatzen dituen suhiltzaileei dagokienez —arau horrek Administrazio eta erakunde publikoen zerbitzurako suhiltzaileen erretiro-adina murrizteko koefizientea ezartzen du—, gertakari arruntengatiko kotizazio-oinarriari kotizazio-tasa gehigarria aplikatuko zaio, hala enpresaren, nola langilearen kasuan.

2018an, aurreko paragrafoan aipaturiko kotizazio-tasa gehigarria ehuneko 10,60 izango da. Ehuneko horretatik, ehuneko 8,84 enpresaren kontura izango da, eta ehuneko 1,76 langilearen kontura.

Hamalau. Kotizazioak ertzainen erretiro-adina aurreratzearekin lotuta dituen berezitasunak.

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginak hogeigarren xedapen gehigarrian aipatzen dituen ertzainei dagokienez, gertakari arruntengatiko kotizazio-oinarriari kotizazio-tasa gehigarria aplikatuko zaio, hala enpresaren, nola langilearen kasuan.

2018an, aurreko paragrafoan aipaturiko kotizazio-tasa gehigarria ehuneko 9,20 izango da. Ehuneko horretatik, ehuneko 7,67 enpresaren kontura izango da, eta ehuneko 1,53 langilearen kontura.

Hamabost. Aurreko zenbakietan xedatutakoa salbu, Gizarte Segurantzaren sistema osatzen duten araubideetako gutxieneko oinarriak edo oinarri bakarrak ezin izango dira Araubide Orokorreko gutxieneko oinarria baino txikiagoak izan, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 19. artikulua aplikatzearen ondorioz.

Hamasei. 2018an, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean bilduta dauden enplegatu publikoen gertakari guztiengatiko kotizazio-oinarria 2010eko abenduan zegoen bera izango da; betiere, enplegatu publiko horiei maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuaren zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatu bazaie, eta haien lan-edota zerbitzu-harremanak indarrean badirau. Nolanahi ere, jasotako ordainsariak direla eta, zenbateko horrek handiagoa beharko lukeenean, azken hori hartuko da hileko kotizazioa egiteko oinarri gisa.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren ondoretarako, 2010eko abenduko kotizazio-oinarriari hilabetetik gorako sortzapen-aldia duten ordainsarien zenbatekoak kenduko zaizkio, hala badagokio, edota, aldian behingoak ez izanik, oinarri hori hainbanaketara jo gabe aplikatu duten zenbatekoak.

Hamazazpi. Enpleguko eta Gizarte Segurantzako ministroari ahalmena ematen zaio artikulua honetan aurreikusitakoa aplikatzeko eta garatzeko behar diren arauak emateko.

131. artikulua. *Funtzionarioen eskubide pasibo eta mutualitate orokorretarako 2018rako kotizazioak.*

Bat. 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoreekin, honako hauek izango dira Estatuak Estatuko Funtzionario Zibilen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziari egingo dizkion kotizazio- eta ekarpen-tasak —araubide berezi hori Administrazio Zibileko Funtzionarioen Mutualitateak (MUFACE) kudeatzen du, ekainaren 23ko 4/2000 Legegintzako Errege Dekretuan aipaturikoak—, arau horretako 12. artikuluan adierazitako prestazioak finantzatzeko, xedapen horretako h) letran jasotakoa izan ezik:

1. MUFACEn sartuta dauden funtzionario aktiboen eta parekoen kotizazio-ehunekoa eskubide pasiboak kotizatzeke 2017rako ezarritako hartzeko arautzaileen gaineko ehuneko 1,69 izango da, ehuneko 1,60 handituta.

2. Estatuak egin beharreko ekarpena, 4/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 35. artikuluan araututa dagoena, eskubide pasiboak kotizatzeke 2017rako ezarritako hartzeko arautzaileen gaineko ehuneko 6,72 izango da, ehuneko 1,60 handituta. 6,72ko tasa horretatik, 4,10 Estatuak aktiboagatik egindako ekarpenari dagokio, eta 2,62 kotizatzeke betebeharretik salbuetsita dagoen pentsiodunak egindako ekarpenari.

Bi. 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoreekin, honako hauek izango dira Estatuak Indar Armatuaren Gizarte Segurantzako Araubide Bereziari egingo dizkion kotizazio- eta ekarpen-tasak —araubide berezi hori Indar Armatuetako Gizarte Institutuak (ISFAS) kudeatzen du, ekainaren 9ko 1/2000 Legegintzako Errege Dekretuan aipaturikoak—, arau horretako 9. artikuluan adierazitako prestazioak finantzatzeko, xedapen horretako f) letran jasotakoa izan ezik:

1. ISFASen sartuta dauden militar aktiboen eta antzekoen kotizazioaren eta ekarpenaren ehunekoa eskubide pasiboak kotizatzeke 2017rako ezarritako hartzeko arautzaileen gaineko ehuneko 1,69 izango da, ehuneko 1,60 handituta.

2. Estatuak egin beharreko ekarpenaren zenbatekoa, Indar Armatuaren Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren (1/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) 30. artikuluan araututakoa, eskubide pasiboak kotizatzeke 2017rako ezarritako hartzeko arautzaileen gaineko ehuneko 11,01 izango da, ehuneko 1,60 goratuta. 11,01eko tasa horretatik, 4,10 Estatuak aktiboagatik egindako ekarpenari dagokio, eta 6,91 kotizatzeke betebeharretik salbuetsita dagoen pentsiodunak egindako ekarpenari.

Hiru. 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, honako hauek izango dira Estatuak Justizia Administrazioiko Funtzionarioen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziari egingo dizkion kotizazio- eta ekarpen-tasak —araubide berezi hori Mutualitate Judizial Orokorrak (MUGEJU) kudeatzen du, ekainaren 23ko 3/2000 Legegintzako Errege Dekretuan aipaturikoak—, arau horretako 12. artikuluan adierazitako prestazioak finantzatzeko, xedapen horretako f) letran jasotakoa izan ezik:

1. MUGEJUUn sartuta dauden Justizia Administrazioiko langile aktiboen eta parekoen kotizazio-portzentajea eskubide pasiboak kotizatzeke 2017rako ezarritako hartzeko arautzaileen gaineko ehuneko 1,69 izango da, ehuneko 1,60 handituta.

2. Estatuak egin beharreko ekarpena, 3/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 23. artikuluan araututa dagoena, eskubide pasiboak kotizatzeke 2017rako ezarritako hartzeko arautzaileen gaineko ehuneko 5,18 izango da, ehuneko 1,60 handituta. 5,18ko tasa horretatik, 4,10 Estatuak aktiboagatik egindako ekarpenari dagokio, eta 1,08 kotizatzeke betebeharretik salbuetsita dagoen pentsiodunak egindako ekarpenari.

Lau. 2018an, aurreko zenbakietan xedatutakoari jarraituz, Estatuko Klase Pasiboen Araubidearen eta Funtzionarioen Araubide Berezien eremuan dauden langileen eskubide pasiboen kuotaren zenbatekoa eta funtzionarioen mutualitateei dagokiena zehazteko, ehuneko 3,86ko eta ehuneko 1,69ko tasa aplikatuko da, hurrenez hurren, eskubide pasiboak kotizatzeke 2017rako ezarritako hartzeko arautzaileen gainean, ehuneko 1,6 handituta. Hona hemen xehetasunak:

Estatuko funtzionario zibilen, Indar Armatuetako kideen, karrera judizialeko eta fiskaleko kideen, Justizia Administrazioiko letraduen kidegoko kideen eta Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden kidegoetako kideen eskubide pasiboen hileko kuotak.

Enplegatutako Publikoaren Oinarritako Estatutuaren taldea/azpitaldea	Hileko kuota, eurotan
A1	111,90

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren taldea/azpitaldea	Hileko kuota, eurotan
A2	88,07
B	77,12
C1	67,64
C2	53,51
E (30/1984 Legea) eta profesionalen multzoak (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua)	45,62

Estatuko Administrazio Zibileko Funtzionarioen Mutualitate Orokorrari, Indar Armatuetao Gizarte Institutuari eta Mutualitate Judizial Orokorrari kotizatzeo hileko kuotak.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren taldea/azpitaldea	Hileko kuota, eurotan
A1	48,99
A2	38,56
B	33,76
C1	29,61
C2	23,43
E (30/1984 Legea) eta profesionalen multzoak (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua)	19,98

Adierazitako hileko zenbateko horiek bikoiztuta ordainduko dira ekainean eta abenduan.

Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bateginaren 23.1 artikuluaen lehenengo paragrafoaren azken tartekian aipatutako salbuespena kontuan hartuta, eta bertan xedatutakoarekin bat etorri, karrerakoak ez diren militar profesionalak eta Osagarrien nahiz Itsas Erreserben eskaletako militarrek ehuneko berrogeita hamarreen minoratuta ordainduko dituzte eskubide pasiboei dagozkien hileko kuotak.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

I

Lehenengo xedapen gehigarria. *Aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren edo gastu-arauaren helburua betetzen ez duten autonomia-erkidegoei dirulaguntzak ematea edo haiekin hitzarmenak sinatzea.*

Bat. Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 20.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, lege hau indarrean jartzen denetik, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 2.1 artikuluan adierazitako Administrazio zentraleeo azpisektorea edo Gizarte Segurantzako Administrazioen azpisektorea osatzen duten subjektuek Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren nahitaezko txosten loteslea beharko dute, aldekoa, dirulaguntzak ematea edo hitzarmenak sinatzea baimendu aurretik, baldin eta dirulaguntza edo hitzarmen horiek aurrerago aipatzen den moduan aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren edo gastu-arauaren helburua bete ez duten autonomia-erkidego bateko Administrazioarekin, artikulua horretan xedatutakoaren arabera definitutakoarekin, egitekoak badira; betiere, horrelakoan bidez, Administrazio zentraleeo edo Gizarte Segurantzako Administrazioen azpisektoreek autonomia-erkidego ez-betetzailari baliabideak transferitzen badizkiote, azken horri gastuak egiteko konpromisoa sortzen badiote, edota bi egoerak aldi berean gertatzen badira.

Aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren edo gastu-arauaren helburua bete ez dela joko da, hala ondorioztatua denean Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroak Gobernuari aurkeztutako azken txostenetik, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza

Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 17. artikuluko 3. eta 4. zenbakietan xedatutakoa betez.

Bi. Halaber, dirulaguntzak emateko edo hitzarmenak sinatzeko, beharrezkoa izango da aldeko txostena izatea —nahitaezkoa eta loteslea—, baldin eta Nazioko Gobernuak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 19. artikuluan ezarritakoaren arabera, autonomia-erkidego bati ohartarazpena egiten badio, aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren edo gastu-arauaren helburua ez betetzeko arriskuan dagoela ikusiz gero. Muga hori ohartarazpena egiten den unetik aurrera aplikatuko da.

Hiru. Aurreko zenbakietan aurreikusitako kasuetan, sinatuta dauden eta betearazten ari diren hitzarmenak luzatu edo aldatu ahal izateko, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren aurretiko eta aldeko txostena beharko da.

Halaber, dirulaguntzak ematea aldatzeko, araudian hala aurreikusita egonez gero, ezinbestekoa izango da Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren aurretiko eta aldeko txostena.

Lau. Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzak igorriko du aurreko zenbakietan aipatzen den Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren txostena. Txostena prestatzean, besteak beste irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

a) Zenbatean desbideratu den egonkortasunaren, zor publikoaren edo gastu-arauaren helburutik. Bi zenbakiaren kasuan, desbideratzeak ohartarazpena eragin zuen arrazoiari egingo dio erreferentzia.

b) Desbideratze horren zergatiak.

c) Dirulaguntzak edo hitzarmenak defizitean edo zor publikoan izandako eragina eta helburua.

d) Gastua finantzatzeko proposatutako modua.

e) Dirulaguntzen kasuan, edo dirulaguntza bat izapidetzean edo betearaztean Administrazioen arteko lankidetzak bideratzeko autonomia-erkidego bateko Administrazioarekin sinatutako hitzarmenen kasuan, dirulaguntza hori emateko prozedura.

Bost. Konferentzia Sektorialak kredituen banaketari buruzko akordioa onartu baino lehen —Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 86.2 artikuluan dago araututa—, baldin eta akordio horretan xedapen honen Bat zenbakian araututako ez-betetze egoeran dauden autonomia-erkidegoak biltzen badira, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzak txosten bat igorriko du, nahitaezkoa eta loteslea; txosten horretan, xedapen honetako lau zenbakian aurreikusitako irizpideak balioetsiko ditu autonomia-erkidego horiei dagokienez. Txosten horrek, halaber, ondoreak sortuko ditu Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 20.3 artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

Bigarren xedapen gehigarria. *Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura finantzatutako mailegu eta aurrerakinak.*

Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetze aldera, zuzenean edo zeharka Estatuaren Aurrekontu Orokorren 8. kapituluaren kontura finantzaturiko mailegu eta aurrerakinak emateko, honako arau hauek bete beharko dira:

a) Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroak berariazko baimena ematean salbu, maileguak eta aurrerakinak ezin izango dira eman antzeko epemuga duten tresnetan Estatuak igorritako Zorrek duen interes-tasa baino txikiagoan.

Norgehiagoka-prozeduren bidez eman beharreko mailegu eta aurrerakinen kasuan, aipaturiko baldintza deialdia onartu aurretik bete beharko da.

Espedientean, dagokion organo kudeatzaileak justifikatu egin beharko du interes-tasaren zehaztapena. Adierazitako erreferentziarekin zuzeneko loturarik egiterik ez bada, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiaren txostena ere aurkeztu beharko da.

Arau hori ez da aplikatuko honako kasu hauetan:

- Langileei emandako aurrerakinak.
- Erkidegoaren funtsekin itzul daitezkeen aurrerakinak.
- Interes-tasa lege-mailako arauen bidez araututa daukaten mailegu edo aurrerakinak.

b) Maileguen edo aurrerakinen onuradunek egiaztatu beharko dute egunean daukatela aurrez Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura eskuratutako beste edozein mailegu edo aurrerakin itzultzeko betebeharraren ordainketa. Gastua kudeatzen duen zentroari dagokio, ordainketa egin aurretik, baldintza horiek betetzen direla egiaztatzea. Beste modu batera egiaztatu ezin duenean, onuradunaren erantzukizunpeko adierazpena eskatuko du, edota organo eskudunaren ziurtagiria, Administrazio Publiko bat baldin bada.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Aurrekontu luzatuaren gastu-eragiketak 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei egozte.*

Bat. 1. Aurrekontu luzatuaren kargura egindako gastu-eragiketak lege honen bidez baimendutako kredituei egotziko zaizkie. 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorretan ez dagoenean aurrekontu luzatua dagoen kreditu bera edo, halakorik izanda, haren zuzkidura behar adinakoa ez denean kasuan kasuko gastu-eragiketak ministerio-sailaren edo Estatuko administrazioeko sektore publikoko organismoaren kredituei egotzeko, xedapen honen hurrengo zenbakietan adierazitako prozedurari jarraituko zaio.

Prozedura hori aplikatzekoa izango zaie, halaber, indarreko araudiaren arabera aurrekontu luzatua erregistratu beharrekoak ziren eta 2017ko aurrekontuari egotzi zaizkion gastu-konpromisoak eta bestelako eragiketei, baldin eta egozpen hori egin ez bada.

2. Kontabilitate-bulegoak 2018ko aurrekontuetako aurrekontu-kredituei egozterik izan ez diren eragiketen zerrenda bat eskuratuko du, zeinean ukitutako espedienteak zehaztuko baitira. Zerrenda hori dagokion zerbitzu kudeatzaileari igorriko zaio, adieraziz hogeita hamar eguneko epean bulego horri komunikatu beharko dizkiola zerrendan ageri diren eta kontabilitate-erregistroa egin gabe dauden eragiketak direla-eta egin beharreko jarduketak.

3. Jarduketa horiek eragiketak deuseztatzea edo urtekoak doitzea eskatzen baldin badute, zerbitzu kudeatzaileak haiek egiaztatzen dituzten ziurtagiriak eta kontabilitate-dokumentuak igorri beharko ditu.

4. Baldin eta jarduketa horiek berekin baldin badakarte aurrekontu-aldaketen espedienteak izapidetzea, eta horiek ez baldin badira egiaztatu aurrez aipatutako hogeita hamar eguneko epea amaitu baino lehen, zerbitzu kudeatzaileak kontabilitate bulegoari komunikatu beharko dizkie —kreditu transferentziak direnean izan ezik— aurrekontuaren beste kreditu batzuetan erregistratu behar diren kreditu-atxikipenak, erregistratzeko dauden eragiketen zenbateko berarekin. Zerbitzu kudeatzaileak kreditu-atxikipen horiek aplikatuko dizkie zerbitzu publikorako nahaste txikiena sortzen duen minorazioa dakarten kredituei. Behin aurrekontu-aldaketak onetsita eta erregistratzeko dauden eragiketak egotzita, aurreko kreditu-atxikipenak ezeztatuko dira.

5. Hogeita hamar eguneko aipatutako epea iraganik, zerbitzu kudeatzaileak ez badizkio kontabilitate-bulegoari komunikatu kontabilitate-erregistroa egin gabe dauden eragiketak direla-eta egin beharreko jarduketak, kontabilitate-bulego horrek ofizioz erregistratuko ditu kreditu-eragiketak, eragiketa horiek egiten duten zenbateko berarekin. Kreditu-atxikipen horiek aurrekontuko zein kapitulari dagozkien, kapitulu horren barruan kontabilitate-bulegoak zehazten dituen kredituei aplikatuko zaizkie, eta nagusiki programa beraren barruan. Kontabilitate-bulegoak zerbitzu kudeatzaileari komunikatuko dizkie ofizioz egin dituen kreditu-atxikipenak.

6. Erregistratzeko dauden eragiketei buruzko behin betiko jarduketak zehazten diren unera arte, zerbitzu kudeatzaileak kontabilitate-bulegoari eskatu ahalko dio ezeztatu dituzten aurreko zenbakietan adierazitako kreditu-atxikipenak, baldin eta, aldi berean, bulego horrek kreditu-atxikipen berriak erregistratzen baditu, zerbitzu kudeatzaileak jasotako komunikazioaren arabera, ezeztatu beharreko kredituaren atxikipenei dagokien zenbateko

berarekin, kredituak atxikita gera daitezen minorazioak zerbitzu publikorako nahaste txikiak sortzen dituen zuzkiduretan.

7. Kreditu-atxikipenei eta kreditu-atxikipenen ezeztatzei buruzko kontabilitate-informazioaren sistemaren erregistroa, aurreko 4., 5. eta 6. zenbakietan aipatutakoa, kontabilitate-bulegoek egingo dute, erregistratzeko dauden eragiketa guztien behin betiko egozpenaren gaineko kontrol eraginkorra egin ahal izateko.

Bi. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak zehazten dituen aurrekontu-aldaketak, lege honek indarra hartu arte egindakoak, eraginkorrak izango dira 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorretan. Aldaketak lege horren diru-sarreraren eta gastuen egoera-orrietan txertatutako aurrekontu-egituraren arabera aplikatuko dira.

Laugarren xedapen gehigarria. *Estatuak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari emandako maileguak.*

Gizarte Segurantzaren betebeharrei estaldura emate aldera eta haren aurrekontu-oreka bideratu ahal izateko, Gobernuak, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren txostenarekin, baimena eman ahalko du Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari maileguak emateko, 13.830.090 mila euroko urteko gehieneko zenbateko batera arte. Mailegu horiek ez dute interesik sortuko eta haien ezereztea 2019tik hasi eta hamar urteko gehieneko epean gertatuko da.

Bosgarren xedapen gehigarria. *EGEF funtsak xurgatzea.*

Eskualde Garapeneko Europako Funtsa (EGEF) behar bezala xurgatzen dela ziurtatzeko, 2014-2020 aldirako, 27. ataleko («Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa») 7. kapituluaren («Kapital-transferentziak») kontsignatutako aurrekontu-kredituen kontura finantzaturiko dirulaguntzak eta laguntzak emateko aurreikusita zenbateko osoari dagokionez, honako entitate eta programa hauetarako: «Ikerketarako Estatu Agentzia» izeneko 303 Entitatea, «Ikerketa zientifiko eta teknikoaren sustatu eta koordinatzea» izeneko 463 B programan, 170.000,00 mila euro erreserbatuko dira 2018ko ekitaldian EGEF funtsarekin batera finantzatutako jarduketak finantzatzeko.

Deialdi berri horietatik eta aurreko ekitaldietan egindako deialdietatik eratorritako gastuaren aurrekontua betearaztean, eskualdez eskualde sailkatu behar da gastua, kontabilitate-kudeaketa arautzen duen araudian aurreikusitako dokumentazio osagarria betez; guztia ere, Ordezko Kontu-hartzaitzak artikulu honetan aurreikusitakoaren jarraipena egiteko aukera izan dezan.

Era berean, helburu horretara bideratuko da 30.000,00 mila euroko zuzkidura, 27.12.467C.749.07 aplikazioan kontsignatua («CDTI zentroari, EGEF funtsarekin batera finantzatutako I+G+b proiektuak gauzatzeko»); bertako kreditua ordainduko da Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroak (CDTI) EGEF funtsarekin batera finantzatutako proiektuetan egindako gastua justifikatzen duen heinean.

Horretarako, kreditu horiek aplikatzen zaizkien deialdi edo jarduketetan, bai Ikerketarako Estatu Agentziak bai CDTI zentroak hainbat eskualdetan eragiketarako finantzatzera bideratutako diru-kopuruari buruz informatuko dute.

Seigarren xedapen gehigarria. *Diruzaintzaren geldikina Herri Administrazioaren Institutu Nazionala erakunde autonomoaren erabilera askeko geldikinera intsuldatzea.*

Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren mende dagoen Herri Administrazioaren Institutu Nazionala (HAIN) erakunde autonomoari baimena ematen zaio diruzaintza-geldikinaren atxikitako zatia aldatzeko atxiki gabeko bere osagaiari, 2017ko ekitaldiaren amaieran erabili gabe zeuden zenbatekoetan; gehienez ere, 302.410,00 euro. Zenbateko horiek HAINi Enplegurako Prestakuntza Planak gauzatzeko sustatzaile gisa emandako funtsetakoak eta Administrazio publikoetan enplegurako trebakuntza-programarekin zerikusia duten jarduerak osagarrietara zuzendutakoak izango dira.

Zazpigarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzari emandako maileguak ezerezteko epea luzatzea.*

2018tik aurrera, hamar urtera luzatzen da Estatuak Gizarte Segurantzari emandako mailegua ezerezteko epea; aipatutako mailegua, 125.443.000.000 pezetakoa (753.927.614,10 euro), 1998rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 65/1997 Legearen 11.Hiru artikuluan aipatutakoa da.

Zortzigarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileen, autonomia-erkidegoen eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren arteko lankidetzaz-hitzarmenak, aldi baterako ezintasuna kontrolatzeko eta jarraipena egiteko.*

Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileek autonomia-erkidegoekin eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalarekin aldi baterako ezintasuna kontrolatzeko eta jarraipena egiteko egindako lankidetzaz-hitzarmenetan, autonomia-erkidegoek eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalak garatu beharreko jarduerak finantzatzeko aurreikusitako zenbateko osora arteko aurrerakina xedatu ahal izango da.

Ondore horietarako, aurreko paragrafoan aipatutako hitzarmenak formalizatu baino lehen, Ministro Kontseiluak baimena eman beharko du. Helburu horrekin, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren titularrak, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren txostena jaso ostean, dagokion proposamena egingo dio Ministro Kontseiluari.

Bederatzigarren xedapen gehigarria. *Administrazio Publikoen edo irabazi-asmorik gabeko erakundeen titulartasuneko osasun-erakundeek Gizarte Segurantzarekin dituzten zorrak ordaintzea.*

Administrazio publikoen edo irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko nahiz pribatuen titulartasunaren mende dauden osasun-erakundeek, 1995erako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 41/1994 Legearen hogeita hamargarren xedapen gehigarrian aurreikusitako luzamenduaren babesean daudenez, hogeita hiru urterako eskainitako gabetasuna luzatzea eskatu ahalko diote Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorriari, baita gehienez hamar urterako eskainitako luzamendua —urteroko amortizazioekin— zabaltzea ere.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren osasun erakundeak hartzekodunen lehiaketako egoeran daudela deklaritzen denean, lege honek indarra hartzen duenetik aurrera luzamendua iraungita geratuko da deklarazio horren egunetik.

Hamargarren xedapen gehigarria. *Erakunde arautzaileen aurrekontuak.*

Erakunde horien aurrekontu-autonomiaren printzipioetan aurrera egingo da erakunde arautzaileen eraldaketa-esparruan.

Hamaikagarren xedapen gehigarria. *Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroaren (CDTI) aurrekontua betearazteko arauak.*

Bat. 2018ko ekitaldian, CDTI zentroari maileguak eta aurrerakinak ematerakoan, lege honen bigarren xedapen gehigarrian Estatuaren Aurrekontu Orokorren 8. kapituluaren kontura finantzatzen diren mailegu eta aurrerakineterako ezarritako arauak bete beharko dira.

Bi. Aipatutako xedapen gehigarriaren a) letran xedatutako baimena ez da beharrezkoa izango, baldin eta maileguei eta aurrerakinei aplikatu beharreko interes-tasa deialdia onartu aurreko hilabetean edo, hala badagokio, eman aurreko hilabetean, Espainiako Bankuak argitaratutako urtebeterako euriborraren interes-tasaren berdina edo handiagoa bada.

Hiru. Hiru hilean behin, CDTI zentroak egindako eragiketen berri emango dio Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari, aurreko zenbakietan araututako mugak betetzen dituela egiaztatzearen.

Hamabigarren xedapen gehigarria. *Ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-politikaren mailegu eta aurrerakinak.*

2018ko ekitaldian, 46. politikako («Ikerketa, garapena eta berrikuntza») kredituen konturako maileguak eta aurrerakinak emateko, ez da beharrezkoa izango lege honen bigarren xedapen gehigarriaren a) letran xedatutako baimena («Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura finantzatutako maileguak eta aurrerakinak»); betiere, maileguei eta aurrerakinei aplikatu beharreko interes-tasa deialdia onartu aurreko edo, hala badagokio, eman aurreko hilabeteari dagokionez Espainiako Bankuak argitaratutako urtebeterako euriborraren interes-tasaren berdina edo handiagoa bada.

Hamahirugarren xedapen gehigarria. *Aktiboak Berreskuratu eta Kudeatzeko Bulegoak lortutako baliabideen xedeekiko atxikipen-ehunekoa.*

Indarra bakar-bakarrik 2018an izango duela, ezartzen da Prozedura Kriminalaren Legearen seigarren xedapen gehigarriaren 3. zenbakian aipatutako eta urriaren 23ko 948/2015 Errege Dekretuaren 2. artikuluan garatutako xedeekiko atxikipenaren ehunekoa Aktiboak Berreskuratu eta Kudeatzeko Bulegoak lortutako baliabideen ehuneko 50ekoa izango dela.

Hamalagarren xedapen gehigarria. *Irakasleen prestakuntza, hobekuntza eta mugikortasuna sustatzeko beka eta dirulaguntzak itzultzea.*

Irakasleen prestakuntza, hobekuntza eta mugikortasuna sustatzeko beka eta dirulaguntzak —Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak emandakoak, irailaren 4ko ECD/1619/2013 Aginduan ezarritakoaren araberrako deialdietan; ECD/1619/2013 Aginduan ezartzen dira Ikerketa Zientifiko eta Teknikorako eta Berrikuntzarako 2013-2016ko Estatuko Planean jasotako Talentua eta Talentuaren Enplegarritasuna sustatzeko Estatuko Programaren prestakuntzaren eta mugikortasunaren arloetako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak—, bai eta aseguruaren primen ordainketa ere, itzultzearen ondorioz sortzen diren diru-sarrerek kreditua sortu ahalko dute gastuen egoeraren gaineko 18.06.463A.788.01 aplikazioan, ministerioko saileko titularrak ebazpena emanda.

Hamabosgarren xedapen gehigarria. *Beka eta ikasketetarako laguntza pertsonalizatuak itzultzea.*

Beka eta ikasketetarako laguntza pertsonalizatuak itzultzearen ondoriozko diru-sarrerek, aurrekontu-ekitaldian sortutakoek, kreditua sortu ahal izango dute gastuen egoerako 18.08.323M.482.00 aplikazioan ministerio-sailaren ebazpen baten bitartez, beka eta laguntza horiek Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak eman dituen ministro-sail horrek egindako deialdien bidez, bat etorritik abenduaren 21eko 1721/2007 Errege Dekretuan xedatutakoarekin; errege-dekretu horrek beka eta ikasketetarako laguntza pertsonalizatuaren araubidea ezartzen du.

Hamaseigarren xedapen gehigarria. *Film luzeak amortizatzeko dirulaguntzen azken deialdiko ordainketen araubidea.*

Maiatzaren 14ko 6/2015 Errege Lege Dekretuak —6/2015 Errege Lege Dekretua, abenduaren 28ko 55/2007 Legea, Zinemarena, aldatzen duena eta Estatuaren aurrekontuan hainbat aparteko kreditu eta kreditu-gehigarri sartzea eta zerga arloko beste neurri batzuk hartzea onartzen duena— iragankor bakarrean ezartzen duenaren arabera, 2018an argitaratuko da film luzeak amortizatzeko dirulaguntzen azken deialdia.

2018an eta 2019an egingo diren bi ordainketa bidez betearaziko da deialdi horretan emandako dirulaguntzen ordainketa. Emakida-ebazpenean ordainketa bakoitzaren zenbatekoa finkatuko da. Lehen, gutxienez ere, onuradun bakoitzari onartu zaion dirulaguntza osoaren 100eko 50 izango da.

Hamazazpigarren xedapen gehigarria. *Energiaren ikuspuntutik efizientea eta jasangarria den mugikortasuna laguntzeko jarduketaren finantzaketa.*

Bat. Ondoreak 2018tik aurrera dituela, eta indarraldi mugagabez, Gobernuari baimena ematen zaio mugikortasunaren aldeko jarduketarako laguntzen sistema bat ezar dezan, energia-efizientziako, jasangarritasuneko eta ordezkio energien erabilera sustatzeko irizpideetan oinarritua, horren barne dela energia-azpiegitura egokiak sortzea. Jarduketa horiek EGEF funtsen bidez finantzatu ahalko dira.

Bi. Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuak (IDAE) hartuko du bere gain aurreko paragrafoak aipatzen duen laguntzen sistemaren kudeaketa. Laguntzen sistemaren finantzaketarako, zuzkidura bat jasoko da Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko Ministerioaren aurrekontuan.

Hemezortzigarren xedapen gehigarria. *Alderdi politikoen funtzionamendu-gastuetarako eta segurtasun-gastuetarako Estatuaren urteko dirulaguntzak, 2018rako.*

Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoaren (uztailaren 4ko 8/2007) sei garren xedapen gehigarrian adierazitakoan oinarrituta, 2018an, alderdi politikoen funtzionamendu-gastuetarako Estatuaren dirulaguntza (16.01.924M.485.01 aurrekontu-aplikazioa, «Alderdi politikoa finantzatzea») 52.704,14 mila eurokoa izango da, eta alderdi politikoen segurtasun-gastuetarako urteko diru-esleipena (16.01.924M.484 aurrekontu-aplikazioa, «Alderdi politikoa urteko esleipena, segurtasun-gastuak ordaintzeko»), berriz, 2.706,20 mila eurokoa.

II

Hemeretzigarren xedapen gehigarria. *Tropako militar eta marinel profesionalak.*

Ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31n, tropako militar eta marinel profesionalak 79.000 izango dira gehienez.

Defentsa Ministerioari baimena ematen zaio lege hau onesten denetik aurrera kideak hautatzeko eta errekrutatzekeo prozesuak abiaraz ditzan.

Hogeigarren xedapen gehigarria. *Karrera judizialera eta fiskalera jotzeko lan-eskaintza publikoa.*

2018an, karrera judizialean eta fiskalean sartzeko lan-eskaintza publikoak ezin izango du gainditu 300 lanpostuko gehieneko muga; lanpostu horiek aldi baterako enplegua pixkanaka ordeztara eta Justizia Administrazioaren beharrei erantzutera bideratuko dira.

Lanpostu horiek berekin ekartzen dute Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 306.1 artikulua aipatzen dituen aurrekontuaren baliabideak zehaztea.

Hogeita batgarren xedapen gehigarria. *ENAIReko lanpostuen baimen gehigarria.*

ENAIRe enpresa-erakunde publikoak 2018an 70 lanpostuko ezohiko eskaintza izango du, aurrez Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak baimena emanda, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren eta Funtzio Publikoko Idazkaritzaren bitartez. Lanpostu horiek gehituko zaizkie hogeita bederatzigarren xedapenaren araukin bat ezartzen diren gainerako lanpostuei.

Eskaintza gehigarri berezi hori ez da beteko, baldin eta, betez gero, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak erakundeari 2017an baimendu dion soldata-masa handitzen bada.

Hogeita bigarren xedapen gehigarria. *Sociedad Estatal Servicios y Estudios para la Navegación Aérea y la Seguridad Aeronáutica S.M.E. M.P. S.A erakundeari baimendutako kontratuak.*

Sociedad Estatal Servicios y Estudios para la Navegación Aérea y la Seguridad Aeronáutica S.M.E. M.P. S.A (SENASA) erakundeak, salbuespen moduan, 109 lan-kontratu mugagabe egin ahalko ditu 2018an, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren eta Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzaren bitartez, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren baimena aurrez jasota. Lanpostu horiek gehituko zaizkie hogeita bederatzigarren xedapenaren arauekin bat ezartzen diren gainerako lanpostuei.

Hogeita hirugarren xedapen gehigarria. *ADIFen lan-eskaintza publiko berezia.*

Administrador de Infraestructuras Ferroviarias (ADIF) entitate publikoak 183 lanpostuko ezohiko eskaintza izango du 2018an, aurrez Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak baimena emanda, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren eta Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzaren bitartez. Lanpostu horiek gehituko zaizkie hogeita bederatzigarren xedapenaren arauekin bat ezartzen diren gainerako lanpostuei.

Hogeita laugarren xedapen gehigarria. *Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioen funtzionarioen eskalako ezohiko eskaintza gehigarria.*

Toki-administrazioen funtzionarioen eskalako lanpostuak betetzeko, aurrekontuz zuzkitutako eta hutsik dauden lanpostuen % 30 lanpostu betetzeko ezohiko eskaintza gehigarria baimentzen da. Behin-behinean edo bitartekoen bidez beteta dauden lanpostuen ehuneko 8 duten azpieskaletan bete beharko dira lanpostuok.

Hogeita bosgarren xedapen gehigarria. *Defentsako eta Guardia Zibileko unibertsitate-zentroetako irakasleak.*

Bat. Dagokion gastu-aurrekontuaren I. kapituluaren aurrekontu-baliabideak errespetatuta, lege honen 19. artikuluan ezarritako mugak ez zaizkie Defentsako unibertsitate-zentroetako irakasleei aplikatuko, harik eta horrelako zentroetan ematen dituzten unibertsitate-titulazioak ezartzeko prozesua amaitzen den arte.

Horretarako, 2018an, Gobernuak, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak proposatuta, 29 lanpostuko lan-eskaintza publikoa baimenduko du, aurreko paragrafoan aipatutako zentroetako irakasleek bete ditzaten, abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 52. artikuluan ezarritako modalitatean (6/2001 Lege Organikoa, Unibertsitatei buruzkoa).

Bi. Defentsako eta Guardia Zibileko unibertsitate-zentroek aldi baterako irakasleak kontratatu ahalko dituzte, gradu-tituluak irakasteko, 6/2001 Lege Organikoaren 49., 50., 53. eta 54. artikuluetan ezarritako modalitateekin bat etorrira. Halaber, lege honetan eta Estatuaren aurrekontu Orokorren hurrengo legeetan aldi baterako kontratazioari buruzko ezarritakoa ere bete beharko dute.

Hiru. Aurreko ataletan ezarritakoa baino lehen, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak, Defentsa Ministerioak edo Barne Ministerioak proposatuta, egokia denean, gradu-titulu horiek ematen dituzten irakasleen plantillak onartu beharko ditu, eta langileen lan-lotura eta ordainsariak zehaztuko ditu.

Hogeita seigarren xedapen gehigarria. *Ceutan eta Melillan dauden zentroetako hezkuntza-plantillak handitzea.*

Ceuta eta Melilla hiri autonomoetako hezkuntza-eskumenak gauzatzean biltzen diren inguruabar espezifikoerri errepertatuz, Gobernuak, erabilgarri dituen datuen arabera eta lege honetan ezarritako irizpideei jarraikiz kalkulaturata, lurralde horretako irakasle funtzionarioen kidegoei dagokien berrezarpen-tasari gehituta, kolektibo horri 2019rako ezarritako berrezarpen-tasaren % 25 aurreratu ahalko du.

Hogeita zazpigarren xedapen gehigarria. *Espainiako Zibersegurtasun Institutu Nazionalari (INCIBERi) baimendutako kontratuak.*

Estatuko Instituto Nacional de Ciberseguridad de España S.A. M.P. merkataritza-sozietateak, salbuespen moduan, 70 lan-kontratu mugagabe egin ahalko ditu, hiru urteko planean, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak aurrez baimenduta, Aurrekontuen eta Gastuen Idazkaritzaren eta Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzaren bitartez. Lanpostu horiek gehituko zaizkie hogeita bederatzigarren xedapenaren arauekin bat ezartzen diren gainerako lanpostuei.

Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria. *Estatuko Administrazio Orokorraren mendeko organismoetako osasun-zentro eta -zerbitzuetako estatutupeko langileen plantillak aldatzea.*

Estatuko Administrazio Orokorraren mendeko organismoetako osasun-zentro eta -zerbitzuetako estatutupeko langileen plantillak aldatzeko, aurrez Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren bidez, aldeko txostena beharko du, baldin eta, aldaketa horien ondorioz, handitzen badira lanpostuen kopurua edo lanpostu horien kostua, edota osasun-langileen lanpostuak kudeaketa-langileen lanpostu bihurtzen badira, edo alderantziz.

Hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. *Merkataritza-sozietate publikoetako eta enpresa-entitate publikoetako langileak kontratatzea.*

Bat. 1. Lege honen 18. artikuluaen Bat zenbakian aipaturako merkataritza-sozietate publikoek eta enpresa-entitate publikoek langile berriak kontratatu ahal izango dituzte; betiere, xedapen honetan ezarritako mugak eta baldintzak betez.

2. Muga horiek ezin izango dira aplikatu, funtzionarioak edo langile lan-kontratudunak kontratatu behar direnean, zeinek aurrez Estatuko, autonomiako edo tokiko sektore publikoarekiko harreman finko eta mugagabea baitzeukaten, eta enpresa-erakunde publikoa edo merkataritzako sozietatea sektore horretan sartuta bazegoen. Era berean, muga horiek ezin izango zaizkie aplikatu betetzeko zailak diren eremuei, ezta prestasun bereziko erreserbagileei ere, baldin eta, erreserbagileek, kontratua egin arte, prestasun-ordainsaria jasotzen bazuten, apirilaren 24ko 8/2006 Legearen 19.1 artikuluan ezarritako zenbatekoari eta baldintzei jarraikiz (8/2006 Legea, Tropako Militarren eta Marinelena). Apartatu honetan ezarritakoaren babesean egindako kontratuak antzinasun-osagarria jasotzen jarraitzeko eskubidea sortuko dute, kontratua gauzatzen den datatik aurrera, jatorrizko ministerio-sail, erakunde publiko, sozietate, fundazio edo partzuergoan jasotzen zen zenbateko berean.

3. Ezin izango da aldi bateko kontrataziorik egin, honako kasu hauetan izan ezik: salbuespen kasuetan, presakoak eta geroraezinak diren beharrei erantzun behar zaienean edo azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32. artikuluan ezarritako baldintzen arabera egiten direnean (Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen bitartez, Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak).

4. Zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten edo lege honen 19.Bat.3 artikuluan zerrendaturako jarduerak egiten dituzten fundazioek gehienez ere aipaturako arauan kasuan kasuko sektorerako ezarritako berrezarpen-tasa izango dute, baldintza beretan,

tasa horren beharra justifikatuta dagoenean zerbitzua egoki emateko edo jarduera aurrera eramateko.

5. Azken hiru ekitaldietatik bitan etekinak izan dituzten merkataritza-sozietate publikoek eta enpresa-entitate publikoek —aurreko zenbakian jasotakoez beste batzuek— kontratu mugagabeak egin ahal izango dituzte, haien berrezarpen-tasaren ehuneko 100 izanik muga; tasa hori lege honen 19.Bat.7 artikuluan ezarritako arauen arabera kalkulatu da.

Gainera, azken hiru ekitaldietatik bitan etekinak izan ez dituzten merkataritza-sozietate publikoek eta enpresa-entitate publikoek —aurreko zenbakian jasotakoez beste batzuek— kontratu mugagabeak egin ahal izango dituzte, haien berrezarpen-tasaren ehuneko 75 izanik muga; tasa hori lege honen 19.Bat.7 artikuluan ezarritako arauen arabera kalkulatu da.

6. Horrez gain, merkataritzako sozietate publikoek eta enpresa-erakunde publikoek kontratu mugagabeak sinatu ahalko dituzte, berrezarpen-tasa osoaren ehuneko 5ekoaren baliokidea den lanpostuen kopurua eskainita, eta efektiboak indartu behar dituzten eremuetan edo sektoreetan erabiliko dira.

Ehuneko gehigarri horri lehentasuna duten sektoreetan erabiliko da, bai eta honako egoera hauetako bat gertatzen denean ere: zerbitzu publiko berriak ezartzea; jarduera turistikoaren ondoriozko urtaroko jarduera handitzea; edo langile askok erretiroa hartzea planeatuta egotea.

7. Gainera, merkataritzako sozietate publikoek eta enpresa-erakunde publikoek tasa gehigarria erabili ahalko dute, aurrekontu-zuzkidura duten lanpostuen aldi baterakotasuna egonkortzeko, baldin eta lanpostuok gutxienez 2017ko abenduaren 31ren aurreko hiru urteetan aldi baterako eta etengabe beteta egon badira.

Egonkortzeko prozesuak 2018. urtetik 2020. urtera onartu eta argitaratu beharko dira. Hautaketa-prozesuak egituratzean uneoro bermatuta egongo da honako printzipio hauek betetzea: lehia librekoa, berdintasuna, merezimendua, gaitasuna eta publikotasuna. Horrez gain, negoziazio kolektiboaren xede izan ahalko dira beti.

Prozesu horien ebaztetik ezin izango da eratorri, inolaz ere, ez gastuaren ez langileen handitzerik, eta prozesu hauetan guztietan, nahitaez, egiturazkoak diren lanpostuak eskaini beharko dira, aldi baterako lotura duten langileek betetzen dituztenak.

Bi. Estatuko merkataritza-sozietateen eta enpresa-entitate publikoen kasuan, langile berriei kontratu mugagabea egiteko, Bat zenbakian xedatutakoa betetzeaz gain, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren —Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren eta Funtzio Publikoko Idazkaritzaren bitartez— eta akziodun maioritarioaren aldeko txostena beharko da.

Halaber, aipatutako sozietateen eta enpresa-entitate publikoen aldi baterako kontrataziorako, xedapen honen Bat zenbakian ezarritako baldintzez gainera, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren baimena beharko da, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren eta Funtzio Publikoko Idazkaritzaren bitartez. Baimen hori lortze aldera, urteko lehen seihilekoan, enpresa-sozietate eta -erakunde publikoek, akziodun maioritarioaren edo haiek barne hartzen dituen ministerioaren edo erakunde autonomoaren bitartez, ministerioari bidali beharko diote ekitaldirako aurreikusi dituzten aldi baterako kontratazio-beharren zerrenda; hargatik eragotzi gabe ekitaldian geroago sortzen diren premiei erantzun ahal izateko kontratazioak egiteko baimena ere eskatu ahal izatea.

Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzak jarduketa-oinarri edo -irizpide komunak ezarri ahalko ditu hautapen prozesuetan, lehia librearen, berdintasunaren, publikotasunaren, merezimenduaren eta gaitasun printzipioen aplikazioa gauzatzeko, bai eta prozedura elektronikoa ezartzeko ere.

Estatuko merkataritza-sozietateek eta enpresa-entitate publikoek aurreko ekitaldian zerbitzuak eman dituzten aldi baterako langile guztiei buruzko informazioa igorri beharko diote Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari, urteko lanegun kopurua eta horien kostua zehaztuz; informazio horrekin batera, soldata-masa baimentzeko eskaera ere igorri beharko diote.

Hiru. Aparteko kasuetan, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak, Aurrekontuen eta Gastuen Idazkaritzaren eta Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzaren bitartez, baimena eman ahalko du, aurrez aipatutako mugen gainetik, kontratazioak egiteko; hain zuzen ere, akziodun maioritarioak onetsi dituen eta Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Ordezko Batzordearen aldeko txostena duten plangintza tresna estrategikoak betetzeko behar diren kontratazioak.

Lau. Xedapen gehigarri honen Bat paragrafoan ezarritakoak oinarritzko izaera du, eta Konstituzioaren 149.1.13 eta 156.1 artikuluen babesean ematen da.

Hogeita hamargarren xedapen gehigarria. *Sektore publikoko fundazioetako langileak kontratatzea.*

Bat. 1. Sektore publikoko fundazioek langile berriak kontratatu ahal izango dituzte; betiere, xedapen honetan ezarritako mugak eta baldintzak betez.

2. Muga horiek ezin izango dira aplikatu, funtzionarioak edo langile lan-kontratudunak kontratatu behar direnean, zeinek aurrez Estatuko, autonomiako edo tokiko sektore publikoarekiko harreman finko eta mugagabea baitzeukaten, eta enpresa-erakunde publikoa edo merkataritzako sozietatea sektore horretan sartuta bazegoen. Era berean, muga horiek ezin izango zaizkie aplikatu betetzeko zailak diren eremuei, ezta prestasun bereziko erreserbagileei ere, baldin eta, erreserbagileek, kontratua egin arte, prestasun-ordainsaria jasotzen bazuten, apirilaren 24ko 8/2006 Legearen 19.1 artikuluan ezarritako zenbatekoari eta baldintzei jarraikiz (8/2006 Legea, Tropako Militarren eta Marinelena). Zenbaki honetan ezarritakoaren babesean egindako kontratuak antzinasun-osagarria jasotzen jarraitzeko eskubidea sortuko dute, kontratua gauzatzen den datatik aurrera, jatorrizko ministerio-sail, erakunde publiko, sozietate, fundazio edo partzuergoan jasotzen zen zenbateko berean.

3. Ezin izango da aldi baterako langilerik kontratatu, ez bada aparteko kasuetan eta larrialdikoak eta ezin geroratzekoak diren beharrezkoak.

4. Zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten edo lege honen 19.Bat.3 artikuluan zerrendatutako jarduerak egiten dituzten fundazioek gehienez ere aipatutako arauan kasuan kasuko sektorerako ezarritako berrezarpen-tasa izango dute, manu horretan ezarritako baldintza beretan, tasa horren beharra justifikatuta dagoenean zerbitzua egoki emateko edo jarduera aurrera eramateko.

Gainerako fundazio publikoek kontratu mugagabeak egin ahal izango dituzte, haien berrezarpen-tasaren ehuneko 75 izanik muga; tasa hori lege honen 19.bat.7 artikuluan ezarritako arauen arabera kalkulatu da.

5. Horrez gain, fundazioek kontratu mugagabeak sinatu ahalko dituzte, berrezarpen-tasa osoaren ehuneko 5ekoaren baliokidea den lanpostuen kopurua eskainita, eta efektiboak indartu behar dituzten eremuetan edo sektoreetan erabiliko dira.

Ehuneko gehigarri horri lehentasuna duten sektoreetan erabiliko da, bai eta honako egoera hauetako bat gertatzen denean ere: zerbitzu publiko berriak ezartzea; jarduera turistikoaren ondoriozko urtaroko jarduera handitzea; edo langile askok erretiroa hartzea planeatuta egotea.

6. Gainera, aurreko zenbakietan ezarritakoaz gain, merkataritzako sozietate publikoek eta enpresa-erakunde publikoek tasa gehigarria erabili ahalko dute, aurrekontu-zuzkidura duten lanpostuen aldi baterakotasuna egonkortzeko, baldin eta lanpostuok gutxienez 2017ko abenduaren 31ren aurreko hiru urteetan aldi baterako eta etengabe beteta egon badira.

Egonkortzeko prozesuak 2018. urtetik 2020. urtera onartu eta argitaratu beharko dira. Hautaketa-prozesuak egituratzean uneoro bermatuta egongo da honako printzipio hauek betetzea: lehia librea, berdintasuna, merezimendua, gaitasuna eta publikotasuna. Horrez gain, negoziazio kolektiboaren xede izan ahalko dira beti.

Prozesu horien ebaztetik ezin izango da eratorri, inolaz ere, ez gastuaren ez langileen handitzerik, eta prozesu hauetan guztietan, nahitaez, egiturazkoak diren lanpostuak eskaini beharko dira, aldi baterako lotura duten langileek betetzen dituztenak.

Bi. Estatuko sektore publikoko fundazioen kasuan, langileei kontratu mugagabea egiteko, Bat zenbakian xedatutakoa betetzeaz gain, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren —Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren eta Funtzio Publikoko Idazkaritzaren bitartez— aldeko txostena beharko da.

Halaber, aipatutako fundazioen aldi baterako kontratazioak, xedapen honen Bat zenbakian ezarritako baldintzez gainera, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren baimena eskatuko du, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren eta Funtzio Publikoko Idazkaritzaren bitartez. Baimen hori lortze aldera, urteko lehen sei hilekoan, saileko organo eskudunak edo fundazioari atxikita dagoen entitateak ministerioari bidali beharko diote ekitaldirako aurreikusi dituzten aldi baterako kontratazio-beharren zerrenda; hargatik eragotzi gabe ekitaldian geroago sortzen diren premiei erantzun ahal izateko kontratazioak egiteko baimena ere eskatu ahal izatea.

Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzak jarduketa-oinarri edo -irizpide komunak ezarri ahalko ditu hautapen prozesuetan, lehia librearen, berdintasunaren, publikotasunaren, merezimenduaren eta gaitasun printzipioen aplikazioa gauzatzeko, bai eta prozedura elektronikoa ezartzeko ere.

Estatuko sektore publikoko fundazioek aurreko ekitaldian zerbitzuak eman dituzten aldi baterako langile guztiei buruzko informazioa igorri beharko diote Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari, urteko lanegun kopurua eta horien kostua zehaztuz; informazio horrekin batera, soldata-masa baimentzeko eskaera ere igorri beharko diote.

Hiru. Xedapen gehigarri honen Bat paragrafoan ezarritakoak oinarritzko izaera du, eta Konstituzioaren 149.1.13 eta 156.1 artikuluen babesean ematen da.

Hogeita hamaikagarren xedapen gehigarria. *Sektore publikoko partzuergoetako langileak kontratatzea.*

Bat. 1. Zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten edo lege honen 19.Bat.3 artikuluan zerrendatutako jarduerak egiten dituzten partzuergoek gehienez ere aipatutako arauan kasuan kasuko sektorerako ezarritako berrezarpen-tasa izango dute, manu horretan ezarritako baldintza beretan, tasa horren beharra justifikatuta dagoenean zerbitzua egoki emateko edo jarduera aurrera eramateko.

2. Nagusiki sektore publikoa —lege honen 18. artikulua den Bat zenbakian definitua— osatzen duten administrazioen eta organismoen partaidetza duten partzuergoek, baldin eta aplikatzekoa den legediaren arabera langile propioak kontratatu ahal badituzte, eta aurreko zenbakian sartuta ez badaude, kontratu mugagabeak egin ahalko dituzte, beren berrezarpen-tasaren ehuneko 75eko muga ezarrita. Tasa hori lege honen 19.Bat.7 artikulua den arauen arabera kalkulatu behar da.

3. Muga horiek ezin izango dira aplikatu, funtzionarioak edo langile lan-kontratudunak kontratatu behar direnean, zeinek aurrez Estatuko, autonomiako edo tokiko sektore publikoarekiko harreman finko eta mugagabea baitzeukaten, eta partzuergoa sektore horretan sartuta bazegoen. Era berean, muga horiek ezin izango zaizkie aplikatu betetzeko zailak diren eremuei, ezta prestasun bereziko erreserbagileei ere, baldin eta, erreserbagileek, kontratua egin arte, prestasun-ordainsaria jasotzen bazuten, apirilaren 24ko 8/2006 Legearen 19.1 artikuluan ezarritako zenbatekoari eta baldintzei jarraikiz (8/2006 Legea, Tropako Militarren eta Marinelena). Apartatu honetan ezarritakoaren babesean egindako kontratuek antzinasun-osagarria jasotzen jarraitzeko eskubidea sortuko dute, kontratua gauzatzen den datatik aurrera, jatorrizko ministerio-sail, erakunde publiko, sozietate, fundazio edo partzuergoan jasotzen zen zenbateko berean.

4. Horrez gain, partzuergoek kontratu mugagabeak sinatu ahalko dituzte, berrezarpen-tasa osoaren ehuneko 5ekoaren baliokidea den lanpostuen kopurua eskainita, eta efektiboak indartu behar dituzten eremuetan edo sektoreetan erabiliko dira.

Ehuneko gehigarri horri lehentasuna duten sektoreetan erabiliko da, bai eta honako egoera hauetako bat gertatzen denean ere: zerbitzu publiko berriak ezartzea; jarduera turistikoaren ondoriozko urtaroko jarduera handitzea; edo langile askok erretiroa hartzea planeatuta egotea.

5. Gainera, aurreko zenbakietan ezarritakoaz gain, partzuergoek tasa gehigarria erabili ahalko dute, aurrekontu-zuzkidura duten lanpostuen aldi baterakotasuna egonkortzeko, baldin eta lanpostuok gutxienez 2017ko abenduaren 31ren aurreko hiru urteetan aldi baterako eta etengabe beteta egon badira.

Egonkortzeko prozesuak 2018. urtetik 2020. urtera onartu eta argitaratu beharko dira. Hautaketa-prozesuak egituratzean uneoro bermatuta egongo da honako printzipio hauek betetzea: lehia libre, berdintasuna, merezimendua, gaitasuna eta publikotasuna. Horrez gain, negoziazio kolektiboaren xede izan ahalko dira beti.

Prozesu horien ebaztetik ezin izango da eratorri, inolaz ere, ez gastuaren ez langileen handiterik, eta prozesu hauetan guztietan, nahitaez, egiturazkoak diren lanpostuak eskaini beharko dira, aldi baterako lotura duten langileek betetzen dituztenak.

6. Ezin izango da aldi baterako langilerik kontratatu, ez bada aparteko kasuetan eta larrialdikoak eta ezin geroratzekoak diren beharriaztarako.

Bi. Bat zenbakian aipatutako partzuergoetan, zeinetan Estatuko sektore publikoak partaidetzaren gehiengoa baitu, langileei kontratu mugagabea egiteko, Bat zenbakian xedatutakoa betetzeaz gainera, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren — Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren eta Funtzio Publikoko Idazkaritzaren bitartez— aldeko txostena beharko da.

Halaber, aipatutako partzuergoen aldi baterako kontratazioak, xedapen honen Bat zenbakian ezarritako baldintzez gainera, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren baimena eskatuko du, Aurrekontuen eta Gastuen Idazkaritzaren eta Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzaren bitartez. Baimen hori lortze aldera, urteko lehen seihilekoan, saileko organo eskudunak edo partzuergoari atxikita dagoen entitateak ministerioari bidali beharko diote ekitaldirako aurreikusitako aldi baterako kontratazio-beharren zerrenda; hargatik eragotzi gabe ekitaldian geroago sortzen diren premiei erantzun ahal izateko kontratazioak egiteko baimena ere eskatu ahal izatea.

Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzak jarduketan oinarri edo -irizpide komunak ezarri ahalko ditu hautapen prozesuetan, lehia librearen, berdintasunaren, publikotasunaren, merezimenduen eta gaitasun printzipioen aplikazioa gauzatzeko, bai eta prozedura elektronikoa ezartzeko ere.

Partzuergoek aurreko ekitaldian zerbitzuak eman dituzten aldi baterako langile guztiei buruzko informazioa igorri beharko diote Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari, urteko lanegun kopurua eta horien kostua zehaztuz; informazio horrekin batera, soldata-masa baimentzeko eskaera ere igorri beharko diote.

Hiru. Xedapen gehigarri honen Bat paragrafoan ezarritakoak oinarritzko izaera du, eta Konstituzioaren 149.1.13 eta 156.1 artikuluen babesean ematen da.

Hogeita hamabigarren xedapen gehigarria. *Estatuko Sektore Publikoko zuzendaritzako langileak.*

Estatuko sektore publikoaren eremuan dauden zuzendaritzako langileen lanpostuen kopurua ezin izango da handiagoa izan aurreko urtean zegoena baino. Lanpostu horiek arlo hauetakoak izango dira: ministro-sailak, erakunde autonomoak, estatu-agentziak, erakunde publikoak, enpresa-entitate publikoak, Estatuko merkataritza-sozietateak eta, nagusiki, Estatuko sektore publikoa osatzen duten administrazioen eta organismoen partaidetza duten partzuergoak.

Halere, sortu berriko erakundeek edo zentroek, azkeneko hiru ekitaldietako bitan irabaziak izan dituzten Estatuko merkataritza-sozietateek eta enpresa-entitate publikoek, zabalpen prozesuan daudenek, eta azkeneko hiru ekitaldietako bitan aurrekontu-emaiza positiboa izan duten Estatuko sektore publikoko fundazioek zuzendaritzako langileen kopurua handitu ahalko dute, aurrez Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak baimena emanda, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren bitartez. Inolaz ere ezin izango dira gauditako kasuan kasuko zuzendaritzako kideen gehieneko kopurua, martxoaren 5eko 451/2012 Errege Dekretuak, enpresa-sektore publikoko eta beste erakunde batzuetako arduradun eta zuzendari nagusien ordainsari-araubidea jasotzen duenak, eta hura garatzeko ministerio-aginduek egindako sailkapenari jarraituz.

Artikulu honen ondoretarako, zuzendaritzako langiletzat hartuko dira martxoaren 5eko 451/2012 Errege Dekretuak zehaztutakoak.

Hogeita hamahirugarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzarekin elkarlanean jarduten duten mutualitateetako eta horien zentro mankomunatueta zuzendarien eta gainerako langileen ordainsariak.*

Bat. Gizarte Segurantzarekin elkarlanean jarduten duten mutualitateetan zein horien zentro mankomunatueta zuzendari kudeatzaileek eta eginkizun betearazleak betetzen dituzten langileek edozein kontzeptutan jasotzen dituzten ordainsariak Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) 88. artikuluan ezarritakoaren mende egongo dira, eta 18. bi artikuluan ezarritako gehieneko ehunekoan handitu ahalko dira, gehienez, 2017an jasotako zenbatekoen aldean.

Bi. Aipaturiko 88. artikuluan ezarritakoa ezertan eragotzi gabe, mutualitateetako eta horien zentro mankomunatueta gainerako langileen ordainsariak Estatuko sektore publikoko lan-kontratudun langileei dagokienez xedatutakoaren mende geratuko dira, eta, zehazki, lege honen 23. artikuluan ezarritakoaren eta ekainaren 10eko HAP/1057/2013 Aginduan ezarritakoaren mende; agindu horren bidez, 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legearen 27. Hiru artikuluan soldata-masa baimentzeko araututako prozeduraren forma, irismena eta ondoreak zehazten dira, Estatuko merkataritza-sozietateetarako, Estatuko sektore publikoko fundazioetarako eta nagusiki Estatuko sektore publikoa osatzen duten administrazioen eta organismoen partaidetza duten partzuergoetarako.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondoretarako, osasun-arloko langileei dagokien soldata-masarako baimena ematen denean, aintzat hartu ahalko dira kolektibo horren ordainsarien berezitasunak, zerbitzuak ematen dituzten eremu geografikoetako lan-merkatuko inguruabarren ondoriozkoak. Gainera, inguruabar horiek osasun-arloko profesionalen kategoria jakin batzuen ordainsaritan zuzeneko eragina izan dezakete.

Hiru. Abenduaren 26ko 35/2014 Legearen seigarren xedapen iragankorrean aurreikusitakoarekin bat, lege hori indarren jartzean mutualitateetako eta horien zentro mankomunatueta langileek jasotako ordainsarien artean egon litekeen aldea handiagoa izanez gero Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren 88. artikuluan aurreikusitakoa ezarritako lortutakoa baino, 2018ko ekitaldian heren batean xurgatuko da, eta langile horiek jasotzen duten gehiegizko ordainsariari ez zaio aplikatuko aurreko bi zenbakietan ezarritako gehikuntza.

Lau. Aurreko zenbakietan aurreikusitako mugak aplikatzeko ondoretarako, konputagarriak izango dira mutualitateen ondare historikotik edo ondare horri lotutako entitateetatik datozen ordainsariak ere.

Hogeita hamalagarren xedapen gehigarria. *Bake-epaitegietako bake-epaileen eta idazkarien jardueragatiko konpentsazio ekonomikorako moduluak.*

Bat. Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 101. artikuluan xedatutakoari jarraituz izendatutako bake-epaileek ordainsari hauek jasoko dituzte urtean, udalerriko zuzenbidezko biztanle kopuruaren arabera:

	Euroak urte bakoitzeko
1 eta 1.999 biztanle artean	1.110,82
2.000 eta 4.999 biztanle artean	1.666,13
5.000 eta 6.999 biztanle artean	2.221,46
7.000 eta 14.999 biztanle artean	3.332,12
15.000 biztanle edo gehiago	4.442,80

Bi. Bake-epaitegi batean idazkari-lanak egiten dituzten langileek, Justizia Administrazioaren zerbitzura ari diren kidegoetakoek izan ezik, ordainsari hauek jasoko dituzte urtean, udalerriko zuzenbidezko biztanle kopuruaren arabera:

	Euroak urte bakoitzeko
1 eta 499 biztanle artean	550,10
500 eta 999 biztanle artean	817,10
1.000 eta 1.999 biztanle artean	978,90
2.000 eta 2.999 biztanle artean	1.140,59
3.000 eta 4.999 biztanle artean	1.464,13
5.000 eta 6.999 biztanle artean	1.787,66

Hiru. Ordainsari horiek dagozkien aurrekontu-aplikazioen kontura finantzatuko dira, eta hiru hilean behin ordainduko dira; zehazki, martxoan, ekainean, irailean eta abenduan.

Hogeita hamabosgarren xedapen gehigarria. *Toki-korporazioetako kideen ordainsari-araubidea.*

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.bis artikuluan ezarritakoari jarraituz, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen idazketari jarraituz, eta kontuan hartuta lege honen 20. artikuluan xedatutakoa, ordainsari- eta bertaratze-kontzeptu guztiengatik toki-korporazioetako kideek guztira jaso dezaketzen gehieneko kopuruaren muga segidan jasotakoa izango da, betiere biztanle-kopuruari erreparatuta, alde batera utzita zerbitzu berezietako egoeran dauden karrerako funtzionarioek — horretarako eskubidea dutelako— jasotzeko dituzten hiru urtekoak. Hona hemen muga:

Biztanleak	Erreferentzia – Euroak
500.000 baino gehiago	103.540,15
300.001 eta 500.000 bitartean	93.186,14
150.001 eta 300.000 bitartean	82.832,12
75.001 eta 150.000 bitartean	77.655,62
50.001 eta 75.000 bitartean	67.301,61
20.001 eta 50.000 bitartean	56.947,59
10.001 eta 20.000 bitartean	51.770,08
5.001 eta 10.000 bitartean	46.593,58
1.000 eta 5.000 bitartean	41.416,06

1.000 biztanletik beherako toki-korporazioen kasuan, honako eskala hau aplikatuko da, arduraldiari begiratuta:

Arduraldia	Erreferentzia – Euroak
Arduraldi partziala, % 75ekoa	31.062,05
Arduraldi partziala, % 50ekoa	22.778,63
Arduraldi partziala, % 25ekoa	15.531,53

Hogeita hamaseigarren xedapen gehigarria. *Atzerrian destinatuta dauden langileen zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainak.*

Etenda gelditzen da Zerbitzuen Ondoriozko Kalte-ordainei buruzko maiatzaren 24ko 462/2002 Errege Dekretuaren 26.3 artikulua eraginkortasuna.

Hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria. *Estatu-agentzien errendimendurako pizgarriak.*

23.hiru artikuluan ezarritakoa gorabehera, estatu-agentzien kudeaketa-kontratuak betearaztearen ondorio diren errendimendurako pizgarrien zenbateko globalen gehieneko muga hauxe izango da: Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren bitartez, aurreko urtean kontzeptu horiengatik baimendu dizkien zenbatekoak, lege honen 18.bi artikuluan ezarritako gehieneko handitzearekin.

Hogeita hemezortzigarren xedapen gehigarria. *Militarren egoera administratiboa aldatzea.*

Bat. Irailaren 16ko 15/2014 Legea, Sektore publikoa arrazionalizatu eta administrazioa eraberritzeko beste zenbait neurri buruzkoa eta azaroaren 19ko 39/2007 Legea, Karrera Militarrena, aldatzen duena onartzen den egunean sektore publikoan zerbitzuak emateagatik eszedentzia-egoeran dauden karrerako militarrek, Defentsa Ministerioari eskatu ahalko diote beren egoera administratiboa aldatzea eta Administrazio Zibilean zerbitzu emateko egoera —Karrera Militarren Legearen 113.bis artikuluan araututa dago— hartzea, baldin eta edo edozein administrazioetako beste kidego edo eskala batean zerbitzu aktibora ez badira, edo haietan zein sektore publikoko beste erakunde edo entitate batzuetan zerbitzu emateagatik militarrei aplikatzen zaien araubide juridikoa ez den beste bat badute. Horretarako, hiru hilabeteko epea izango dute, lege hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

Egoera administratiboaren aldaketa egiteko, ez da beharrezkoa izango azaroaren 19ko 39/2007 Legearen 113. artikuluko 2. apartatuan ezarritako zerbitzuen denbora-tarteak beteta izatea.

Bi. Xedapen honetan ezarritakoa betez, Administrazio Sektore publikoan zerbitzuak emateagatik eszedentzia-egoeran emandako epea zenbatu ahalko da, zerbitzu-denbora, hiru urtekoak eta eskubide pasiboak zenbatze aldera.

Hogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria. *Estatuko Administrazio Orokorren gastua mugatzea.*

Ministerio-sailek proposatzen duten edozer jarduketa berrik ezin izango du handitu Administrazioaren zerbitzura dauden langileen gastu garbia.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, eta Estatuko Administrazio Orokorreko ikerkuntzako erakunde publikoetako eskala zientifikoetako funtzionarioentzat 14/2011 Legearen 25. artikuluko 5. apartatuan eta zazpigarren xedapen gehigarriaren 1., 2. eta 3. apartatuetan ezarritakoa garatzen duen erregelamendu-araua onartzea ahalbidetzeko ondorio bakarretarako (ekainaren 1eko 14/2011 Legea, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzkoa), aipatutako erakunde horiek beren kargura dituzten langileen gastu garbia handitu ahalko dute eta, edonola ere, 2018ko urtarrilaren 1a izango da ordainsari-sistemaren ondorio ekonomikoak sortzeko data.

Era berean, debeku horretatik salbuetsita daude Barne Ministerioaren, Polizia Nazionaleko Sindikatuen eta Guardia Zibileko elkarte profesionalen arteko akordioa, 2018ko martxoaren 12koa, aplikatzeko hartu behar diren neurriak.

Berrogeigarren xedapen gehigarria. *2012ko abenduko aparteko ordainsaria eta ordainsari gehigarria berreskuratzea.*

Bat. Aurrekontu Egonkortasuna Bermatzeko eta Lehiakortasuna Bultzatzeko Neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretua betetzearen ondorioz, aparteko ordainsaria eta berariazko osagarriaren ordainsari gehigarria edo ordainsari gehigarri baliokideak, 2012ko abenduari dagozkionak, kentzeagatik egiazki jaso ez diren zenbatekoak osorik ordaindu ez dituzten administrazioek eta sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateek itzulketa hori onetsi ahalko dute, xedapen honetan zehaztutako irismenarekin eta mugekin, itzulketa hori onets dezaten, beren egoera ekonomiko-finantzarioa kontuan hartuta.

Bi. Itzulketa egingo da honako hauetan jasotako modu berean eta adierazitako baldintzak betez: 2015erako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 26ko 36/2014 Legearen hamabigarren xedapen gehigarria; irailaren 11ko 10/2015 Errege Lege Dekretuaren 1. artikulua —errege lege-dekretu horren bidez Estatuaren Aurrekontuan kreditu bereziak eta kreditu-gehiarriak eman eta enplegu publikoaren arloko eta ekonomia pizteko beste neurri batzuk hartzen dira—; eta 2016rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren urriaren 29ko 48/2015 Legearen hamabigarren xedapen gehigarria.

Hiru. Xedapen honek oinarrizko izaera du, eta Konstituzioaren 149.1.18, 149.1.13 eta 156.1 artikuluen babesean ematen da.

Berrogeita batgarren xedapen gehigarria. *Estatuko oinarrizko arauetan aurreikusi gabeko zenbatekoetan minoratu diren ordainsariak berrezartzea.*

Bat. Administrazioek eta sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeek, baldin eta aurreko ekitaldietan beren langileen ordainsariak minoratu badituzte Estatuako oinarrizko arauetan eskatu ez diren zenbatekoetan edo Estatuaren Aurrekontu Orokorren legeetan aurreikusitako gehieneko ordainsari-igoerak aplikatu ez badituzte, minorazioa baino lehen indarrean zeuden zenbatekoak edo aurrekontuei buruzko legeetan baimendutako igoerara iritsi arte bidezkoak direnak berrezarri ahalko dituzte.

Bi. Neurri horren aplikazioan sortzen diren kopuruak ez dira hartuko Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean araututa dauden ordainsari-gehikuntzat.

Hiru. Soilik defizitaren eta zorraren helburuak, bai eta gastu-araua ere, betetzen dituzten administrazioek eta erakundeek onetsi ahalko dute neurri hori, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 17. artikulua 3. eta 4. zenbakietan jasotako moduan.

Berrogeita bigarren xedapen gehigarria. *Erantzukizun zibileko aseguruak kontratatzea.*

Aseguruak hitzartu ahalko dira, Estatuako Administrazio Orokorren, haren erakunde autonomoen, entitate kudeatzaileen eta Gizarte Segurantzaren zerbitzu komun en zerbitzura lan egiten duten langileen erantzukizun zibil profesionala estaltzeko, baldin eta babes hori eduki beharra sortzen duten inguruabarrak biltzen badira, eta, betiere soldata masa, lege honetan ezarritako terminoetan, inola ere gaintzen ez badute.

Saileko, erakundeko, entitateko edo zerbitzuko titular egokiari dagokio aurreko paragrafoaren eremuan sartutako funtzio eta kontingentzia egokiak zehaztea.

Berrogeita hirugarren xedapen gehigarria. *Administrazio publikoei eta haien mendeko entitateei erantzukizunak eskatzea lan-kontratazioaren erabilera dela eta.*

Bat. Administrazio publikoetako eta haien sektore publikoko lan-kontratupeko langileen kontratuak —kontratu horien iraupena edozein dela ere— Langileen Estatutuan eta lan-kontratazioa arautzen duen gainerako araudian ezarritako aginduei eta baldintzei jarraikiz egin beharko dira, eta, gainera, Estatuaren Aurrekontu Orokorren kasuan kasuko legearen aurreikuspenei jarraituz, eta aplikatzekoak izango zaizkie enplegu publikora sartzeko aplikatzen diren berdintasun, publikotasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak, eta edonola ere errespetatu beharko dira Administrazio Publikoen Zerbitzuko

Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legeak, bai eta bateraezintasunei buruzko gainerako araudiak ere, xedatutakoa.

Bi. Administrazio publiko bakoitzeko eta haien sektore publiko instrumentala osatzen duten entitateetako langileen arloko organo eskudunak izango dira araudi horren betetzearen arduradunak, eta zaintza berezia egingo dute aldi baterako lan-kontratu bat kontratu mugagabe ez-finko bihurtzea ekar dezakeen aldi baterako lan-kontratazioaren irregulartasun oro saihesteko. Halaber, langileen arloko aipatutako organoek ezin izango diote lan-kontratudun mugagabe ez-finkoaren izaera eman aldi baterako kontratua duten langileei, ez eta kasuan kasuko administrazioarekin kontratu administratibo bat daukaten enpresetako langileei ere, salbu eta hori ebazpen judizial batetik eratorri denean.

Hiru. Arlo honetako jarduketa irregularrek bigarren zenbakian aipatutako organoen titularrei erantzukizunak eskatzea eragingo dute, administrazio publiko bakoitzean indarrean den araudiari jarraituz.

Lau. Administrazio publikoek, zeinek bere esparruan, sustatuko dute halako jarduketa-irizpide batzuk egon daitezela non bideratuko baitute xedapen hau bete dadila eta langileen arloan eskumena duten organo desberdinen jarduketa koordinatua egin dadila.

Bost. Xedapen hau, zeinak indarraldi mugagabea baitu eta ondoreak sortuko baititu indarrean jarri ondoren egiten diren jarduketetan, Konstituzioaren 149.1.18 artikulua babesean ematen da, administrazio publikoen araubide juridikoari eta administrazio guztien erantzukizunen sistemari dagokienez.

III

Berrogeita laugarren xedapen gehigarria. *Alarguntza-pentsioaren oinarri arautzaileari aplikatu ahal zaion ehuneko kasu zehatz batzuetan handitzea.*

65 urte edo gehiagoko alarguntza-pentsiodunen pentsioaren oinarri arautzaileari aplikatu ahal zaion ehunekoa, Gizarte Segurantzaren sistema eguneratzeari, egokitzeari eta modernizatzeari buruzkoa den abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen hogeita hamargarren xedapen gehigarrian ezarrita, ehuneko 56 izango da, baldin eta pentsiodunek beste pentsio publiko bat jasotzen ez badute. Ehuneko hori lege hau indarrean jarri eta hurrengo hilabetearen lehen egunetik aurrera aplikatu ahalko da.

Gehikuntza hori % 60 izango da, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Berrogeita bosgarren xedapen gehigarria. *Estatuaren Klase Pasiboen Araubidean jasotako alarguntza-pentsio zehatz batzuk berrikustea.*

Lege hau indarrean jarri aurretik indarrean dauden alarguntza-pentsioei, Estatuaren Klase Pasiboen Legearen testu bategineko 39.3 artikuluan eta hemeretzigarren xedapen gehigarrian ezarrita dagoen ehunekoaren gehikuntza, eskakizun guztiak beteta, aplikatu behar bazaie, ofizios berrikusiko dira, eta lege hau indarrean jarri eta hurrengo hilabetearen lehen egunetik aurrera ondorio ekonomikoak izango dituzte.

Aurreko paragrafoan ezarritako berrikuspena Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko Langileen eta Pentsio Publikoen Kostuen Zuzendaritza Nagusiak eta Defentsa Ministerioko Langileen Zuzendaritza Nagusiak egingo dute; bakoitzak, bere eskumenen arloan.

Berrogeita seigarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzako familia-prestazioak.*

2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, honako hauek izango dira Gizarte Segurantzaren familia-prestazioen zenbatekoa, modalitate ez-kontributiboan, eta haietara sartzeko diru-sarreraren mugako zenbatekoa, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren VI. tituluaren I. kapituluaren araututakoari jarraituz:

Bat. 353.1 artikuluan ezarritako esleipen ekonomikoaren zenbatekoa urtean 291,00 eurokoa izango da.

Bi. 353.2 artikulua arabera, honako zenbateko hauek esleituko dira desgaitasuna duen zaintzapeko seme edo alaba bakoitzeko:

a) 1.000,00 euro, norberaren ardurapeko seme-alabaren edo adingabearen desgaitasun-gradua ehuneko 33koa edo gehiagokoa denean.

b) 4.561,20 euro, kargupeko seme-alaba 18 urtetik gorakoa denean eta ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasun-maila duenean.

c) 6.842,40 euro, kargupeko seme-alabak 18 urte baino gehiago dituen, ehuneko 75eko edo gehiagoko desgaitasun-maila duenean, eta, anatomiako atalak edota funtzionalitatea galdu dituela-eta, inoren laguntza behar duenean eguneroko ekintzarik funtsezkoenak gauzatzeko, hala nola jantzeko, lekualdatzeko, jateko edo antzekoetarako.

Hiru. Seme edo alaba jaiotako edota adoptatzeagatik 358.1 artikulua ezartzen duen prestazioaren zenbatekoa 1.000,00 eurokoa izango da familia ugarien kasuan, guraso bakarrek familien kasuan eta desgaitasuna duten amen kasuan.

Lau. 352.1.c) artikulua lehen eta bigarren paragrafoek aipatzen duten zaintzapeko seme edo alaba edo adingabe bakoitzeko esleipena jasotzeko eskubidea izateko diru-sarreraren muga urtean 11.953,94 eurokoa izango da, eta 17.991,42 eurokoa familia ugarien kasuan; zenbateko horri 2.914,12 euro gehituko zaizkio laugarrenetik aurrerako seme edo alaba bakoitzeko, laugarren hori barne.

Berrogeita zazpigarren xedapen gehigarria. *Azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako desgaitasunik duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bateginean jasotako sorospen ekonomikoak eta laguntza-pentsioak.*

Bat. 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bateginean jasotako sorospen ekonomikoek honako zenbateko hauek izango dituzte, sorospen motaren arabera:

	Euroak, hilabeteko
Gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko sorospena	149,86
Beste pertsona baten laguntzarako sorospena	58,45
Mugikortasunerako eta garraio-gastuak konpentsatzeko sorospena.	65,30

Bi. 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, uztailaren 21eko 45/1960 Legean eta uztailaren 24ko 2620/1981 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera aitortutako pensio asistentzialak hilean 149,86 eurokoak izango dira. Ekainean eta abenduan, zenbateko bereko aparteko bi ordainsari ere ordainduko dira.

Hiru. Laguntza-pentsioak berraztertu egingo dira aldian-aldian, onuradunek laguntzak jaso ahal izateko baldintzak betetzen jarraitzen dutela egiaztatuz; hala egin ezean, eskubidea iraungitzat joko da, eta bidegabeki jasotako kobrantzak itzultzeko agindua emango. Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak berrikuspen-prozedurak abiarazi ahalko ditu, eragindako gastuaren doikuntza ekonomikoa eta aurrekontu-doikuntza egiteko. Prozedura horien emaitzak aipatutako ministerio-sailari komunikatuko zaizkio.

Berrogeita zortzigarren xedapen gehigarria. *Indar Armatuetako Gizarte Segurantzako Araubide Bereziko baliaezintasun handiagatik prestazioak 2018rako handitzea.*

Indar Armatuetako Gizarte Segurantzako Erregimen Bereziko baliaezintasun handiagatik prestazioak, 2017ko abenduaren 31ra arte sortutakoak, ehuneko 1,6 handituko dira 2018an.

Berrogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. *Martxoaren 18ko 3/2005 Legeak ezarritako laguntza ekonomikoa eguneratzea.*

2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, martxoaren 18ko 3/2005 Legearen babesean Gerra Zibila dela-eta adingabeak zirenean atzerrira joan ziren espainiar jatorriko herritarrei, bizitzako urte gehienak Espainiatik kanpo garatu zutenei, aitortutako prestazio ekonomikoen zenbatekoa, urtean, hauxe izango da: 7.316,47 euroren eta onuradun bakoitzak 3/2005 Legearen 2. artikulua a), b) eta c) paragrafoek aipatutako pentsioengatik jasotzen duen urteko zenbatekoaren arteko aldea, edota 7.316,47 euroren eta 3/2005 Legearen 2. artikulua d) paragrafoak aipatutako onuradunek urtean jasotzen dituzten diru-sarreraren arteko aldea.

Berrogeita hamargarren xedapen gehigarria. *Giza immunoeskasiaren birusa (GIB) daukatentzako gizarte-laguntzak.*

2018an, giza immunoeskasiaren birusa (GIB) daukatenei aitortutako hileko zenbatekoa zehazteko —zenbateko horiek Osasun-sistema publikoan egindako jarduketan ondorioz giza immunoeskasiaren birusa (GIB) daukatenei laguntzak emateko maiatzaren 28ko 9/1993 Errege Lege Dekretuaren 2.1 artikulua b), c) eta d) letretan daude ezarrita—, aipaturiko letretan araututako proportzioak aplikatuko dira, 623,04 euroko zenbatekoa oinarri hartuta.

Berrogeita hamaikagarren xedapen gehigarria. *Pentsioen gehikuntza osagarria.*

Bat. 2018an, Gizarte Segurantzaren sistemak ordaintzen dituen ordaindutakoaren arabera pentsioak eta Estatuaren Klase Pasiboen pentsioak % 1,35 handituko dira, lege honetako 35. artikuluan ezarritako igoera aplikatzeaz gain.

Gehikuntza hori aplikatzeko, kontuan hartuko da lege honetako 35. artikulua arabera egin den 2018ko urtarrilaren 1eko errealizazioaren ondorioz sortzen den pentsioaren zenbatekoa.

2019an Toledoko Itunaren Erabakien Jarraipena eta Ebaluazioa egiteko Batzordearen akordioak lortuko ez balitz, Gizarte Sistemak ordaintzen dituen ordaindutakoaren arabera pentsioei, bai eta Estatuaren Klase Pasiboen pentsioei ere, ehuneko gehigarri bat aplikatuko zaie, zehazki, urte horretarako finkatu den pentsioen errealizazio-indizearen —urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko 58. artikuluan ezarritako errealizazio-indizea— eta ehuneko 1,6 kopuruaren arteko ehuneko baliokidea.

Pentsiodunak pentsio publiko bat edo gehiago jasotzen baldin baditu, xedapen gehigarrian ezarritako gehikuntzak ezin izango du inola ere ekarri pentsioen baturak lege honetan ezarritako pentsio publikoen gehieneko muga gainditzea.

Bi. 2018an, Klase Pasiboen pentsioen gutxieneko zenbatekoak % 2,75 handituko dira, lege honetako 42. artikuluan ezarritakoa aplikatzeaz gain. Zehazki, honako zenbateko hauek ezarriko dira, urteko zenbatekoaren, pentsio motaren eta titularrak bete behar dituen eskakizunen arabera:

Pentsio mota	Zenbatekoa		
	Ezkontidea ardurapean — Euro urtean	Ezkontiderik gabe: pertsone bakarreko unitate ekonomikoa — Euro urtean	Ezkontidearen ardurarik ez — Euro urtean
Erretiro-pentsioa edo erretiroa	11.348,40	9.196,60	8.727,60
Alarguntza-pentsioa	9.196,60		

Pentsio mota	Zenbatekoa		
	Ezkontidea ardurapean – Euro urtean	Ezkontiderik gabe: pertsona bakarreko unitate ekonomikoa – Euro urtean	Ezkontidearen ardurarik ez – Euro urtean
Alarguntza-pentsioa ez den pentsio familiarra, N pentsioaren edo pentsioen onuradun kopurua izanik	<u>8.964,20</u> N		

Hiru. 2018an, Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioen gutxieneko zenbatekoak % 2,75 handituko dira, lege honetako 43. artikuluan ezarritakoa aplikatzeaz gain. Zehazki, honako zenbateko hauek ezartzen dira, urteko zenbatekoa, pentsio mota eta titularrak bete behar dituen eskakizunak kontuan hartuta:

Pentsio mota	Titularrak		
	Ezkontidea ardurapean – Euro urtean	Ezkontiderik gabe: pertsona bakarreko unitate ekonomikoa – Euro urtean	Ezkontidearen ardurarik ez – Euro urtean
Erretiroa			
Hirurogeita bost urteko titularra	11.348,40	9.196,60	8.727,60
Hirurogeita bost urtetik beherako titularra	10.638,60	8.603,00	8.132,60
Baliaezintasun handiko hirurogeita bost urteko titularra	17.022,60	13.795,60	13.091,40
Ezintasun iraunkorra			
Baliaezintasun handia	17.022,60	13.795,60	13.091,40
Absolutua	11.348,40	9.196,60	8.727,60
Guztira: Hirurogeita bost urteko titularra	11.348,40	9.196,60	8.727,60
Guztira: Hirurogei urtetik hirurogeita lau urtera bitarteko titularra	10.638,60	8.603,00	8.132,60
Guztira: Gaixotasun arrunta duen hirurogei urtetik beherako titularra	5.720,40	5.720,40	5.666,78
Partziala, lan-istripuen araubidekoa: Hirurogeita bost urteko titularra	11.348,40	9.196,60	8.727,60
Alarguntza			
Familia-zamak dituen titularra		10.638,60	
Hirurogeita bost urteko titularra edo 100eko 65eko edo gehiagoko desgaitasuna duena		9.196,60	
Hirurogei urtetik hirurogeita lau urtera bitarteko titularra		8.603,00	
Hirurogei urtetik beherako titularra		6.966,40	

Pentsio mota	Euro urtean
Zurztasuna	
Onuradun bakoitzeko	2.809,80
100eko 65eko edo gehiagoko desgaitasuna duen 18 urtetik beherako onuradun bakoitzeko	5.530,00
Zurztasun absolutuan, gutxienekoa urtean 6.966,40 eurokoa izango da, eta onuradunen artean banatuko da, hala badagokio.	
Senideen alde	
Onuradun bakoitzeko	2.809,80
Alargun edo umezurtz pentsiodunik ez badago:	
Hirurogeita bost urteko onuradun bakarra	6.791,40

Pentsio mota	Euro urtean
Hirurogeita bost urtetik beherako onuradun bakarra	6.400,80
Hainbat onuradun: Bakoitzari esleitutako gutxienekoa urtean 4.156,60 euroko zenbatekoa onuradunen kopuruaren artean hainbanatuta ateratzen den zenbatekoan handituko da.	

Lau. 2018an, honako zenbateko hauek % 2,75 handituko dira, lege honetako 42., 43., 44. eta 45. artikuluetan ezarritakoa aplikatzeaz gain. Honako zenbateko hauek ezartzen dira:

1. Diru-sarrereren muga, osagarri ekonomikoak gutxienekoen arabera onartzeko:

Klase Pasiboen pentsioetan: 7.347,99 euro urtean.

Gizarte Segurantzaren pentsioetan:

Ardurapeko ezkontiderik gabe: 7.347,99 euro urtean.

Ezkontidea, ardurapean 8.571,51 euro urtean.

2. Gizarte Segurantzako pentsioak, asistentzia-mailako modalitatean: 5.321,40 euro urtean.

3. Deuseztatuta dagoen Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruko pentsioak:

– Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruko pentsioak ez dira konkurrenteak: 5.887,00 euro urtean.

– Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruko pentsioak, Gizarte Segurantzako sistemaren erregimenen bateko alarguntza-pentsioekin edo pentsio hauekin batera ematen direnean, eta, gainera, alarguntzako beste edozein pentsio publikorekin batera ematen direnean: 5.714,80 euro urtean.

Bost. 2018an pentsio publikoak jasotzeko gehieneko muga % 1,35 handituko da, lege honetako 38., 40. eta 41. artikuluetan ezarritakoa aplikatzeaz gain. Honako zenbateko hauek ezartzen dira: 36.609,44 euro urtean edo 2.614,96 euro urtean.

Berrogeita hamabigarren xedapen gehigarria. *Gobernu arteko nazioarteko erakundeetan lan egiten eman diren denboraldiak zenbatzea, Gizarte Segurantzak ordaintzen dituen kotizaziopeko pentsioak onartzeko eta kalkulatzeko.*

Gizarte Segurantzak ordaintzen dituen kotizaziopeko pentsioak onartzeko eta kalkulatzeko ondorioetarako, Europar Batasuneko estatu kide bateko gobernu arteko nazioarteko erakundeetan lan egiten eman diren denboraldiak zenbatuko dira, erregelamenduz ezarritako terminoetan.

Berrogeita hamahirugarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzako Sistema Eguneratzeari, Egokitzeari eta Modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen hogeita zortzigarren xedapen gehigarriaren aplikazioa geroratzea.*

Geroratu egiten da Gizarte Segurantzako Sistema Eguneratzeari, Egokitzeari eta Modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen hogeita zortzigarren xedapen gehigarrian jasotakoaren aplikazioa.

Berrogeita hamalagarren xedapen gehigarria. *Prestazio ekonomikoa, aldi baterako ezintasun-egoeran dauden administrazio publikoen, mendeko organismo eta erakundeen eta konstituzio-organoen zerbitzupeko langileentzat.*

Bat. Administrazio Publiko bakoitzak, negoziazio kolektiboa aurrez eginda, zehaztu ahalko ditu Administrazio Publikoaren edo haren mendeko erakunde eta entitate publikoen zerbitzura lan egiten duten langileen ordainsariak, aldi baterako ezintasun-egoeran

daudenean. Halaber, gaixotasunaren ziozko lizentzia jaso duten funtzionarioen ordainsariak ere zehaztu ahalko ditu, honako arau hauek betez:

1. Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko funtzionarioei, estatutupeko langileei eta langile lan-kontratudunei ordainsari osagarria ezarri ahalko zaie lan-ezintasunaren egoeran dauden lehen egunetik. Osagarri hori, Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorraren prestazioari gehituta, gehienez ere, lan-ezintasuna hasi zen hilabeteari dagozkion ordainsari finkoen ehuneko ehuneko zenbatekora iritsi ahalko da.

2. Mutualismo Administratiboaren Araubidean sartuta dauden funtzionarioei dagokienez, haien araudian ezarritako ordainsari-araubidearen arabera, Administrazio Publiko bakoitzak erabaki ahalko du, lan-ezintasunaren ziozko sorospenarekin batera eta negoziazio kolektiboa aurrez eginda, langileek lan-ezintasunaren ziozko sorospena kontuan hartzen ez duen denboraldian ere lan-ezintasuna hasi zen hilabeteari dagozkion oinarritzko ordainsarien eta ordainsari osagarrien ehuneko ehuneko zenbatekoa jaso dezaten. Lan-ezintasunaren ziozko sorospena jasotzen duten bitartean, langileak kudeatzen dituen organoak sorospena osatu ahalko du, negoziazio kolektiboa aurrez eginda, lan-ezintasuna hasi zen hilabetean langileak jasoko zituen ordainsarien ehuneko ehuneko zenbatekoa gehienez jaso dezan arte.

Lan-ezintasunaren sorospena aplikatzen hasi den denboraldian egungo araudi arautzaileak ezarritakoa beteko da.

Bi. Aurreko ataletan ezarritakoa erabakitzeko, hainbat ordainsari-egoera osatu ahalko dira, lan-ezintasuna edo lan-ezintasunaren iraupena eragin duen kontingentzia kontuan hartuta. Hala ere, dagokion Gizarte Segurantzaren araubideak ezin izango du inola ere kaltetu kolektibo bat edo beste. Horren harira, bai bidezkoak diren prestazioak edo sorospenak, bai dagokion administrazioak ordaindu behar dituenak zenbatuko dira; horretarako, langileari dagokion administrazioak, aurreko apartatuan ezarritakoarekin bat etorrira, onartu beharko du hartzeko zenbatekoen baliokidetasuna bermatzen duten ordainsariak ordaintzea.

Dagokion administrazioak erabaki duen traturik onuragarriena eman beharko da kontingentzia profesionalen ondoriozko egoeretan edo haurdunei eragiten dieten egoeretan.

Hiru. Administrazio publikoek arautu behar dituzte lanera ez etortzeko egoerak, langileak gaixorik egoteagatik edo aldi baterako ezintasuna eragiten duen kausa bat gertatu delako; horretarako, baja-agiria edo dagokion ziurtagiria eskatu beharko da, lanera etortzen ez den lehen egunetik aurrera.

Lau. Administrazio publiko bakoitzak lanera ez agertzeko kontrol-plana diseinatuko du, eta herritarrei jakinarazi beharko die, Gardentasun Atariaren bitartez. Atari horretan lanera ez agertzeko datuak gutxienez sei hilez behin erakutsiko dira, kasua ere adierazita.

Bost. Xedapen honetan ezarritakoa Karrera Judizialeko eta Fiskaleko langileei, Justizia Administrazioiko Letradunen kidegoko langileei, Justizia Administrazioaren zerbitzurako kidegoetako funtzionarioei eta konstituzio-organoetako langileei aplikatuko zaie.

Sei. Estatuko Administrazioaren kasuan, xedapen honetako Bat eta Bi apartatueta jasotako erregulazioa Ministroen Kontseiluaren dekretu bidez onartuko da.

Zazpi. Xedapen honek oinarritzko izaera du, eta Konstituzioaren 149.1.7., 149.1.13. eta 149.1.18. artikuluen babesean ematen da.

Berrogeita hamabosgarren xedapen gehigarria. *Estatuaren Klase Pasiboen 2019ko Araubideko alarguntza-pentsioen oinarri arautzaileari aplikatu ahal zaion ehuneko handitzea.*

Beste pensio publiko bat jasotzen ez duten 65 urte edo urte gehiagoko alarguntza-pentsiodunen pensioaren oinarri arautzaileari aplikatu ahal zaion ehuneko zortzi edo lau puntu handituko da, hala dagokionean, 2019ko urtarrilaren 1ean. Araubide hori apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Estatuko Klase Pasiboen

Legearen testu bateginaren 39.3 artikuluan eta hemeretzigarren xedapen gehigarrian arautzen da.

Berrogeita hamaseigarren xedapen gehigarria. *1950etik 1985era Talidomidaren eragina izan duten pertsonei laguntzea.*

Bat. 1950-1985eko aldi haurdunaldian gorputzaren malformazioak izan zituztenei laguntza bat emango zaie, baldin eta malformaziook Talidomidaren ondorioz sortu zirenekin bat etortzen badira, eta malformazio horien zergatia beste enbriopatia edo nahasmendu kromosomiko batzuei ezin bazaie lotu; betiere haurdunaldia Espainian izan bada. Laguntza horiek bateragarriak izango dira onuradunak legez jasotzen dituen beste pentsio publiko batzuekin. Halaber, xede honetan ezarritakoen antzeko izaera eta xedea dituzten beste laguntza edo prestazio batzuk osatuko dituzte, eta, zehazki, abuztuaren 5eko 1006/2010 Errege Dekretuan ezarritako laguntzak (Errege Dekretu horrek arautzen du Espainian 1960-1965eko aldi haurdunaldian Talidomidaren eraginak jotako pertsonei laguntza emateko prozedura).

Bi. Laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, 12.000 euroko zenbatekoa organo eskudunek pertsona kaltetuari onartu dioten desgaitasunaren ehuneko puntu bakoitzaz biderkatu beharko da. Kontuan hartzeko puntuak izango dira laguntza eskatzeko eskaera aurkezteko datan onartuta daudenak.

Hiru. Espainian Talidomidaren eraginak jotako pertsonek eskubidea dute eguneko oinarrizko jarduerak egiteko behar dituzten prestazio farmazeutikoak eta ortoprotesikoak eskuratzeko, bai eta enbriopatiak sorrarazi zizkien lesioen ondoriozko urritasunak konpentsatzeko behar dituztenak ere, ordainketarik egin gabe.

Lau. Espainiako Gobernuak patentearen jabea den enpresari eta, hala dagokionean, farmakoa Espainian banatu zuten enpresei eskatuko die biktimei ordaina emateko behar den lankidetzak ekonomikoa eman dezatela eta egindako kaltea onar dezatela. Lankidetzak horren xedea pertsona kaltetuei aitortutako zenbatekoak era neurritsuan handitzea izango da.

Bost. Gobernuari ahalmena ematen zaio, xedapen gehigarri honetan ezarritakoa garatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

IV

Berrogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria. *Diruaren legezko interesa.*

Bat. Diruaren legezko interes-tasaren aldaketari buruzko ekainaren 29ko 24/1984 Legearen 1. artikulua ezarritakoaren arabera, diruaren legezko interes-tasa ehuneko 3,00 izango da 2018ko abenduaren 31ra arte.

Bi. Epe horretan, Tributuei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 26.6 artikulua adierazitako berandutze-interesa ehuneko 3,75 izango da.

Hiru. Epe horretan, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 38.2 artikulua adierazitako berandutze-interesa ehuneko 3,75 izango da.

Berrogeita hemezortzigarren xedapen gehigarria. *Estatuaren bermea, kultura-intereseko artelanetarako.*

Bat. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta atxikitako erakunde publikoen eskumen eskusiboko erakundeetan erakusteko aldi baterako lagatako artelanei edo artelan-multzoei dagokienez, Estatuak emandako konpromisoen zenbateko oso metatua, une oro, 2.250.000 mila eurokoa izango da gehienez 2018ko ekitaldian, Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3. zenbakian ezarritakoaren arabera. Gehieneko zenbateko horretan ez da sartuko xedapen gehigarri honen bi puntuan jasotako zenbatekoa.

Erakusketa berean jarriko diren artelanetarako edo artelan-multzoetarako 2018an lehen aldiz emandako konpromiso espezifikoen gehieneko muga 231.000 mila eurokoa

izango da. Artelanak lagatzaileei itzuli ondoren, eta erakusketen arduradunek emandako bermea gorabeherarik gabe bukatu dela egiaztatutakoan, konprometitutako zenbatekoek utzi egingo diote konprometituta egoteari, eta beste erakusketa bati eman ahal izango zaizkio.

Salbuespen gisa, gehieneko muga hori 231.000 mila eurotik gorakoa izan ahal da, Ministro Kontseiluak hala erabakitzen duenean Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren ekimenez, Ekonomiako, Industriako eta Lehiakortasuneko ministroaren proposamenari jarraituz.

Artelan batean gehienez konprometitutako zenbatekoa 100.000 mila eurokoa izango da Estatuaren Bermeak estaltzeko ondorioetarako.

Bi. Thyssen-Bornemisza Bilduma Fundazioak Espainian dituen egoitzetan erakutsi beharreko artelanei dagokienez, fundazio horri emandako konpromiso espezifikoen gehieneko muga 500.000 mila eurokoa izango da 2018an. Konpromiso horiek kontratu honen barruan emango dira: «Artelanak mailegatzeko kontratua; alde batetik, Thyssen-Bornemisza Bilduma Fundazioaren, eta, bestetik, Omicron Collections Limited, Nautilus Trustees Limited, Coraldale Navigation Incorporated, Imiberia Anstalt-en, eta Carmen Thyssen-Bornemisza baroisaren artekoa».

Hiru. 2018an, Estatuaren Bermea aplikatzekoa izango da Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak, Ondare Nazionaleko Administrazio Kontseiluak eta «Sociedad Estatal de Acción Cultural SA (AC/E)» sozietateak antolatutako erakusketetan ere, Estatuako Administrazio Orokorra titularra den erakundeetan egiten badira. Halaber, Lázaro Galdiano Fundazioak bere museoaren egoitzan antolatutako erakusketei ere aplikatuko zaie Estatuaren Bermea.

Berrogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria. *Espainiako ekonomia nazioartekotzearen arriskuak Estatuaren kontura estaltzea.*

Lege honen indarraldian zehar, Espainiako ekonomia nazioartekotzearen arriskuak — epe laburreko poliza irekiak salbu— Estatuaren kontura estaltzeko kontratazio berrietarako muga gehienez ere 9.000.000 mila eurokoa izango da; albuespen izango dira dokumentu-kredituei dagozkienak, horiek Compañía Española de Seguros de Crédito a la Exportación, Sociedad Anónima (CESCE) sozietateak jaulki ahal izango baititu.

Hirurogeigarren xedapen gehigarria. *Atzerrian inbertsio espainiarra sustatzeko espainiar interesa duten funtsak zuzkitzea.*

Bat. Lege honen indarraldian, Kanpo Inbertsioetarako Funtsaren zuzkidura urtean 10.000,00 mila eurokoa izango da indarreko ekitaldian. Kanpo Inbertsioetarako Funtsaren Batzorde Betearazleak gehienez ere 300.000,00 mila euroko eragiketak onartu ahal izango ditu ekitaldi horretan.

Bi. Lege honen indarraldian Enpresa Txiki eta Ertainaren Kanpo Inbertsioetarako Eragiketen Funtsaren zuzkidura 2.000,00 mila eurokoa izango da indarreko ekitaldian. Enpresa Txiki eta Ertainaren Kanpo Inbertsioetarako Eragiketen Funtsaren Batzorde Betearazleak gehienez ere 35.000,00 mila euroko eragiketak onartu ahal izango ditu ekitaldi horretan.

Hirurogeita batgarren xedapen gehigarria. *Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuaren (IDAE) eta Turismo Estatu Idazkaritzaren abalak.*

Bat. Baimena ematen zaio Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuari (IDAE) 2018ko ekitaldian 50.000,00 mila euro bitarteko abalak eman ditzan, Energia Efizientziaren Funts Nazionalaren (FNEE) kargura, Kreditu Ofizialeko Institutuaren (ICO) funtsekin emandako maileguen arriskuaren % 50 estaltzeko, IDAEk eta ICOK «ICO-IDAE Energia Efizientzia 2017-2018» linea aurrera eramateko sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren esparruan.»

Bi. Turismoko Estatu Idazkaritzari baimena ematen zaio 2018an 15.000,00 mila euro arteko abalak mailegatzeko, Turismo Azpiegiturak modernizatzeko Estatuaren Finantza Funtsean zorduntzeko, eta, zehazki, Kreditu Ofizialeko Institutuaren funtsetan zorduntzeko ostalaritza-sektoreko enpresei eman zaizkien maileguen arriskuaren % 50 estaltzeko, IDAEk eta ICOK «ICO-IDAE Energia Efizientzia 2017-2018» linea aurrera eramateko sinatutako lankidetzaz hitzarmenaren esparruan. Turismoko Estatu Idazkaritza lankidetzaz hitzarmen horri atxikiko zaio, xedapen honetan ezarritakoa garatzeko.

Hirurogeita bigarren xedapen gehigarria. *Aduana-zergarik gabeko Eremuko Partzuergoen Konpentsazio Funtza sortzea.*

Aduana-zergarik gabeko Eremuko Partzuergoen Konpentsazio Funtza sortzea, horrela deituta (Aduana-zergarik gabeko Eremuko Partzuergoen Konpentsazio Funtza). Funtsaren xedea aduana-zergarik gabeko eremuko partzuergoen baliabideak berriro banatzea izango da.

Funtza Estatuako Administrazio Orokorrari atxikitzen zaio. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak atxikita dauka funtsaren kudeaketa, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Idazkariordetzaren bitartez.

Une bakoitzean indarrean dauden aduana-zergarik gabeko eremuko partzuergoak funtsari atxikita egongo dira.

Xede hori betetze aldera, aduana-zergarik gabeko eremuko partzuergoen urteko ekarpenak izango dira funtsaren sostengu bakarra. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren aginduak ezarriko du ekarpenen zenbatekoa, eta aduana-zergarik gabeko eremuko partzuergoek derrigorrean bete beharko dute. Ekarpenen zenbatekoa kalkulatzeko erreferentziatzat hartuko dira 1/1999 Legegintzako Errege Dekretuak araututako finantza-baliabidetik eratorritako diru-sarrerak. Hauxe izango da ehunekoa: likidatu den azken ekitaldian baliabide horrek izan duen zenbatekoaren % 4 gutxienez; eta % 12, gehienez. Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeek ehuneko horiek aldatu ahalko dituzte.

Funtsaren baliabideak banatu aurretik eskaera arrazoitua eman beharko du dagokion partzuergoak. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren Aginduaren bitartez baimendu beharko da.

Idazkariordetzaren 2017ko uztailaren 11ko ebazpenean aduana-zergarik gabeko eremuko partzuergoetako Estatuko ordezkari berezien koordinazio-taldea arautzen da. Talde horri entzungo zaio, funtsaren baliabideak finkatzeko eta banatzeko.

Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren Aginduaren bitartez, ekarpenak egiteko eskakizunak, funtsak banatzeko eta hartzeko baldintzak eta funtsaren funtzionamenduari lotutako beste alderdi batzuk garatuko dira.

Hirurogeita hirugarren xedapen gehigarria. *Oinarri teknologikoa duten enpresei finantza-laguntza ematea. Partaidetza-maileguak.*

Familien aurrezpena eta enpresa txiki eta ertainak suspertzeko presako zerga-neurriak onartzen dituen abenduaren 13ko 6/2000 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren 2. zenbakian sortutako finantzaketa-ildorako Estatuaren ekarpenaren zenbatekoa 20.500,00 mila eurokoa izango da. Zenbateko hori 27.16.433M.821.11 aurrekontu-aplikazioaren kargura finantzatuko da.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako kredituaz xedatzeko egin beharreko edozein egintza edo negozio juridiko onartu baino lehen, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren aldeko txostena beharko da; txosten horrek adieraziko du egintza edo negozio juridiko horrek beharrezko diren eskakizunak betetzen dituela, Europako egitura-funtsen bidez finantzatu ahal izateko.

Hirurogeita laugarren xedapen gehigarria. *Gazte ekintzaileei finantza-laguntza ematea.*

Estatuak 2011rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 22ko 39/2010 Legearen hogeita hirugarren xedapen gehigarrian sortutako finantzaketa-ildoari egindako ekarpena 20.500,00 mila eurokoa izango da, eta zenbateko hori 27.16.433M.821.12 aurrekontu-aplikazioaren kargura finantzatuko da.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako kredituaz xedatzeko egin beharreko edozein egintza edo negozio juridiko onartu baino lehen, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren aldeko txostena beharko da; txosten horrek adieraziko du egintza edo negozio juridiko horrek beharrezko diren eskakizunak betetzen dituela, Europako egitura-funtsen bidez finantzatu ahal izateko.

Hirurogeita bosgarren xedapen gehigarria. *Enpresa txiki eta ertainei finantza-laguntza ematea.*

Estatuak 2005erako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 2/2004 Legearen hogeita bosgarren xedapen gehigarrian sortutako finantzaketa-ildoari egindako ekarpena 57.500,00 mila eurokoa izango da, eta zenbateko hori 27.16.433M.821.10 aurrekontu-aplikazioaren kargura finantzatuko da.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako kredituaz xedatzeko egin beharreko edozein egintza edo negozio juridiko onartu baino lehen, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren aldeko txostena beharko da; txosten horrek adieraziko du egintza edo negozio juridiko horrek beharrezko diren eskakizunak betetzen dituela, Europako egitura-funtsen bidez finantzatu ahal izateko.

Hirurogeita seigarren xedapen gehigarria. *Autonomia eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren Azpiegiturak eta Zerbitzuak Sustatzeko eta Garatzeko Laguntza Funtsa.*

Bat. Autonomia eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren Azpiegiturak eta Zerbitzuak Sustatzeko eta Garatzeko Laguntza Funtsak, 2009rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren 2/2008 Legearen hirurogeita batgarren xedapen gehigarrian sortutakoak, eta jarduera horretan aritzen diren enpresei finantza-laguntza emateko xedea duenak, 5.000 mila euroko zuzkidura izango du 2018ko ekitaldian, Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioak emanda. Zuzkidura hori Estatuko Industria Partaidetzarako Sozietateari (SEPI) ordaindu eta transferituko zaio, 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura.

Bi. Ekonomia eta Ogasun Ministerioak, Osasun eta Gizarte Politika Ministerioak eta Estatuko Industria Partaidetzarako Sozietateak (SEPI) 2009ko ekitaldirako sinatutako hitzarmenean ezarriko dira funtsa kudeatzeko prozedura eta baldintzak, bai eta hark eman beharreko finantzaketa aukeratu, eman eta kontrolatzeko irizpideak eta prozedurak ere; nolana ere, erakunde sinatzaileek hobeto funtzionatzeko beharrezkotzat jotzen dituzten aldaketak egin ahal izango dituzte.

Hiru. Funtzak aurreko deialdietako geldikinak erabili ahal izango ditu geroko deialdietan enpresei eman beharreko finantzaketan. Funtzak, deialdi berrietan enpresei eman beharreko finantzaketan, emandako finantzaketaren amortizazioek eta finantza-mozkinek sortutako baliabideak erabili ahal izango ditu.

Lau. Funtzak helburu bera izango duten autonomia-erkidego baten esparrura mugatuko diren beste funts batzuk sortzera bideratu ahal izango du bere baliabideen zati bat. Horretarako, aipatutako hitzarmenean aurreikusitako Inbertsio eta Jarraipen Batzordeak, aurrez, aho batez hartu beharko du erabakia. Funtz berri horiek, aldean arteko hitzarmen bidez eratuta, honako hauek emandako baliabideak izango lituzkete: Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioaren Funtzak emandakoak, dagokion autonomia-erkidegoak emandakoak eta interesa izan dezaketen entitate ekonomiko-finantzarioek emandakoak.

Bost. Funtsa 2022ko irailaren 30ean likidatzen denean, Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura jasotako zuzkidura Altxor Publikoan sartuko du SEPIk, finantza-

eragiketa kobraezinei dagokiena kenduta, horrelakorik balego, baita funtsak sorreratik izandako kudeaketa-gastuak ere, gehi bertan sartutako zenbatekoek sor ditzaketen finantza-mozkinak.

Sei. Funts honek ez du nortasun juridikorik. Funtsaren erantzukizunak entitate kudeatzaileak haren kontura hartu dituenak baino ez dira izango. Era berean, Funtsaren balizko hartzekodunek ezin izango dituzte euren kredituak diru bihurtu, entitate kudeatzailearen ondarearen kontura.

Hirurogeita zazpigarren xedapen gehigarria. *ADIF-Alta Velocidad enpresa-entitate publikoa zorpetzea.*

ADIF-Alta Velocidad entitate publikoak Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren baimena beharko du zorpetze-eragiketak egiteko, eragiketa horiek formalizatzeko modua edozein izanda ere, lege honetan aurreikusitako entitatearen gehieneko zorpetze-mugaren barruan; hori guztia, Kontu Nazionalen Europako Sistema arautzen duen araudi berrira egokitzeko, bai eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arloan hartutako konpromiso eta helburuak betetzeko ere.

Baimenak emateko, arau hauek bete beharko dira, eragiketa mota aintzat hartuta:

1. Eragiketek entitatearen jarduketa- eta/edo inbertsio-plan eta -programetan ezarrita egon beharko dute.
2. Epe laburreko zorraren saldo bizia ezin izango da aldatu 2018ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31 arte, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak zehaztutako zenbatekoan baino handiagoan.
3. Urtebetetik gorako epemuga duen zorpetze-eragiketa bakoitzak Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren baimena beharko du.
4. Baimen-espeditentea Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari igorriko dio ADIF-Alta Velocidad enpresak, egin beharreko eragiketak deskribatzen dituzten agiri guztiekin, eta zehaztu du zein ondorio izan ditzaketen eragiketa horiek entitatearen jardun-eta/edo inbertsio-plan nahiz -programetan, Europako Erkidegoaren funtsak xurgatzeko orduan, edota ADIF-Alta Velocidad enpresak bere gain hartutako beste finantza-betebehar batzuen betetzean.

V

Hirurogeita zortzigarren xedapen gehigarria. *Portuko Agintaritzek lortutako zenbait errenta salbuestea.*

2017ko urtarrilaren 1etik aurrera hasiko diren zergaldietan ondorioak izanik, eta indarraldi mugagabez, Portuko Agintaritzek ibilgetuko elementuak eskualdatzeagatik lortzen dituzten errentak salbuetsita egongo dira sozietateen gaineko zerga ordaintzetik, baldin eta lekualdatzearen zenbateko osoa Estatuko portuek edo kreditu-erakunde ofizialek emandako kredituak amortizatzeko erabiltzen bada, eta kredituok xedearekin edo helburu espezifikoarekin lotuta zeuden ibilgetuko elementuetan egiteko inbertsioak finantzatzeko eman badira.

Hirurogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. *Nortasun agiri nazionala eta pasaporteak egiteko tasen bilketa lotzea*

Nortasun agiri nazionala eta pasaporteak egiteko tasen bilketa lotzea Nortasun-agiri nazionala eta pasaporteak egiteko tasen bilketa indarraldi mugagabez lotzen zaio Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionala-Monetaren Errege Etxeak egindako jardueren finantzaketari, Barne Ministerioaren zentroek dokumentu horiek igortzeko egiten dituzten kudeaketa-enkarguak bete ahal izateko. Honako ehuneko hauek ezartzen dira:

Tasak	Lotzeko ehunekoa
013 tasa, pasaporte egiteagatik	% 57
014 tasa, NANA egiteagatik	% 88

Hirurogeita hamargarren xedapen gehigarria. *Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari egiteko transferentziaren helburua 6.1.b) (Ordainlekua) kentzearen ondorioz elektrizitate-sisteman murriztu diren diru-sarrerak konpentsatzea da.*

Bat. 2018an soilik ondorioak izanik, eta 6.1.b) (Ordainlekua) kentzearen ondorioz elektrizitate-sisteman egin diren murrizketak konpentsatze aldera, Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko Ministerioak Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari 40.000 mila euroko kreditua transferituko dio, 20.18.000X.736 partidan.

Bi. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari transferitu zaion zenbatekoa (aurreko paragrafoan aipatua) batera sartuko da, diru-sarrera gisa, erakunde horrek kudeatzen duen elektrizitate-sistemaren likidazio-sisteman.

Hirurogeita hamaikagarren xedapen gehigarria. *Lehentasunezko mezenasgo-jarduerak.*

Bat. Irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarrii buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 22. artikuluan ezarritakoarekin bat, 2018an honako mezenasgo-jarduera hauek izango dute lehentasuna:

1.a Cervantes Institutuak sare telematikoen, teknologia berrien eta bestelako bitartekoen bidez espainiar hizkuntza eta kultura sustatu eta zabaltzeko egindakoak.

2.a Deporte Joven Fundazioak, Kirol Kontseilu Gorenarekin elkarlanean, «Espainiak lehiatzen du: enpresan zein kirolean» proiektuaren esparruan egindakoak, Espainiako ETE-en bultzada eta proiektzioa laguntzeko Estatuan zein nazioartean, kirola bultzatzeko, eta enpresaburua sustatzeko kirolaren balioei lotutako hazkunde-motor gisa.

Aurreko paragrafoan adierazitako jardueretara zuzendutako dohaintza, emate eta ekarpenek urtean 50.000 euroko muga izango dute emaile bakoitzeko; betiere, dohaintza, donazio eta ekarpen horiek, xedapen gehigarri honen Bi zenbakiari jarraituz, aipatutako 49/2002 Legearen 19., 20. eta 21. artikuluetan ezarritako kenkarien ehunekoak eta mugak ehuneko bost puntu igotzeko onura jaso dezaketenean.

3.a Espainiako Liburutegi Nazionalak kulturaren eta zientzia-ikerketaren arloko xedeak eta eginkizunak betez egindakoak; xede eta eginkizun horiek honako arau hauetan daude ezarrita: Espainiako Liburutegi Nazionala arautzen duen martxoaren 24ko 1/2015 Legean eta Espainiako Liburutegi Nazionalaren Estatutua Onartzen duen abenduaren 9ko 640/2016 Errege Dekretuan.

4.a Arte eszenikoak eta musikalak sustatzeko, bultzatzeko eta zabaltzeko, administrazio publikoek egindako edo lagundutako jarduerak.

5.a Pradoko Museo Nazionalak egindakoak, Pradoko Museo Nazionala arautzen duen azaroaren 25eko 46/2003 Legeak eta Pradoko Museo Nazionalaren Estatutua Onesten duen martxoaren 12ko 433/2004 Errege Dekretuak ezarritako xedeak lortzeko.

6.a Lege honen XIII. eranskinean ageri diren Espainiako Ondare Historikoko ondasunak kontserbatzea, zaharberritzea edo birgaitzea.

7.a Administrazio publikoek Informazioaren Gizartea sustatzeko egindako proiektu eta jarduerak; bereziki, zerbitzu publikoak Interneteko zerbitzu informatiko eta telematikoen bidez eskaintzeko xedea dutenak.

8.a Administrazio publikoek boluntarioei prestakuntza eta sustapena emateko diruz lagundutako programak.

9.a Genero-indarkeria errotik kentzeko, Administrazio publikoek diruz lagundutako edo elkarlanean egindako programak.

10.a Aparteko Azpiegitura Zientifiko eta Teknikoen (ICTS) Mapa nazionaleko azpiegiturretan ikertu, garatu eta berritzea; mapa hori Zientziaren, Teknologiararen eta

Berrikuntzaren Politika Kontseiluak onartu zuen, 2014ko urriaren 7an, eta azpiegiturak lege honen XIV. eranskinean daude zerrendatuta.

11.a Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioaren proposamenari jarraituz, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak aitortutako erakundeek 2013-2020 aldirako Zientzia eta Teknologiaren eta Berrikuntzaren Espainiako Estrategian gizartearen erronkak konpontzeko finantzaturako edo egindako ikerketa, garapena eta berrikuntza.

12.a Zientzia eta Teknologiarako Espainiako Fundazioak zientziaren eta berrikuntzaren kultura zabaltzeko, komunikatzeko eta sustatzeko egindakoak.

13.a Estatuko Administrazio Orokorren I+G politikatik heldutako jarduketak sustatu eta finantzatzeko Ikerketarako Estatu Agentziak egindakoak.

14.a Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziak pobrezia aurka borrokatzeko eta garatzeko bidean dauden herrialdeetan giza garapen iraunkorra lortzeko egindakoak.

15.a Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziak beste herrialdeekin kultura- eta zientzia-harremanak sustatu eta garatzeko egindakoak, baita Espainiako kultura kanpoan sustatzeko egindakoak ere.

16.a Ekainaren 25eko 1027/1993 Errege Dekretuan jasota dauden hezkuntza kanpoan sustatzeko jarduerak (1027/1993 Errege Dekretua, Kanpoko Hezkuntza Jarduera arautzen duena).

17.a ONCE Fundazioak «Oportunidad al Talento» beka-programen esparruan egindako jarduerak, baita erakunde horrek Arte Garaikidearen Biurtekoaren esparruan, «Cambio de Sentido» kultura-espazioan eta «El Mundo Fluye» erakusketa ibiltarian gauzatutako kultura-jarduerak ere.

18.a ONCE Fundazioak «Treinta Aniversario de la Fundación ONCE del Perro Guía» ekitaldiaren esparruan egiten dituen jarduerak.

19.a «Pacto Iberoamericano de Juventud» aplikatzeko egiten diren jarduerak.

20.a Genero-indarkeriaren umezurtzentzako Soledad Cazorla Beketarako Funtzak (Mujeres Fundazioa) aurrera eramandakoak.

Bi. Aipatutako 49/2002 Legearen 19., 20. eta 21. artikuluetan ezarritako kenkarien ehunekoak eta mugak ehuneko bost igoko dira aurreko paragrafoan jasotako jardueri dagokienez.

Hirurogeita hamabigarren xedapen gehigarria. *«50 Edición del Festival Internacional de Jazz de Barcelona» programari aplikatu behar zaizkion zerga-onurak.*

Bat. «50 Edición del Festival Internacional de Jazz de Barcelona»ren programa aparteko interes publikoa duen gertakiritzat hartuko da Irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren ondoretarako.

Bi. Laguntza-programak 2018ko uztailaren 1etik 2020ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoko plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Hirurogeita hamahirugarren xedapen gehigarria. *«Centenarios del Real Sitio de Covadonga» programari aplikatu ahal zaizkion zerga-onurak.*

Bat. «Centenarios del Real Sitio de Covadonga» programa aparteko interes publikoa duen gertakiritzat hartuko da Irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga-araubideari eta

mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren ondoretarako.

Bi. Laguntza-programak 2018ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Hirurogeita hamalagarren xedapen gehigarria. *«Campeonato Mundial Junior Balonmano Masculino 2019» programari aplikatu ahal zaizkion zerga-onurak.*

Bat. «Campeonato Mundial Junior Balonmano Masculino 2019» programa interes publiko handiko ekitaldizat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legeak, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoak, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntza-programak 2018ko uztailaren 1etik 2020ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Hirurogeita hamabosgarren xedapen gehigarria. *«Campeonato Mundial Balonmano Femenino 2021» programari aplikatu ahal zaizkion zerga-onurak.*

Bat. «Campeonato Mundial Balonmano Femenino 2021» programa interes publiko handiko ekitaldizat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legeak, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoak, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertaera horri laguntzeko programak 2019ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Hirurogeita hamaseigarren xedapen gehigarria. *«Andalucía Valderrama Masters» programari aplikatu ahal zaizkion zerga-onurak.*

Bat. «Andalucía Valderrama Masters» programa interes publiko handiko ekitaldizat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legeak, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoak, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntza-programak 2018ko uztailaren 1etik 2020ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Hirurogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria. *«La Transición: 40 años de Libertad de Expresión» programari aplikatu ahal zaizkion zerga-onurak.*

Bat. «La Transición: 40 años de Libertad de Expresión» programa interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legeak, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoak, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntza-programak 2018ko uztailaren 1etik 2020ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Hirurogeita hemezortzigarren xedapen gehigarria. *«Barcelona Mobile World Capital» programari aplikatzeko zerga-onurak.*

Bat. «Barcelona Mobile World Capital» programa interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legeak, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoak, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntza-programak 2018ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31 arte iraungo du.»

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Hirurogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria. *«Ceuta y la Legión, 100 años de unión» gertakariaren ospakizunari aplikatu ahal zaizkion zerga-onurak.*

Bat. «Ceuta y la Legión, 100 años de unión» programa aparteko interes publikoko ekitalditzat hartuko da, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntza-programak 2018ko uztailaren 1etik 2020ko irailaren 20a arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Laurogeigarren xedapen gehigarria. *«Campeonato del Mundo de Triatlón Multideporte Pontevedra 2019» programari aplikatu ahal zaizkion zerga-onurak.*

Bat. «Campeonato del Mundo de Triatlón Multideporte Pontevedra 2019» programa interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legeak, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoak, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntza-programak 2018ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Laurogeita batgarren xedapen gehigarria. *«Bádminton World Tour» programari aplikatu ahal zaizkion zerga-onurak.*

Bat. «Bádminton World Tour» programa interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legeak, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoak, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntza-programak 2018ko ekainaren 1etik 2021eko maiatzaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Laurogeita bigarren xedapen gehigarria. *«Nuevas Metas» programari aplikatu ahal zaizkion zerga-onurak.*

Bat. «Nuevas Metas» programa interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legeak, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoak, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntza-programak 2018ko uztailaren 1etik 2021eko ekainaren 30a arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Laurogeita hirugarren xedapen gehigarria. *«Barcelona Equestrian Challenge (3. edizioa)» programari aplikatu ahal zaizkion zerga-onurak.*

Bat. «Barcelona Equestrian Challenge (3. edizioa)» programa interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legeak, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoak, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntza-programak 2019ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Laurogeita laugarren xedapen gehigarria. *«Universo Mujer II» programari aplikatu ahal zaizkion zerga-onurak.*

Bat. «Universo Mujer II» programa interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legeak, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoak, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntza-programak 2019ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Laurogeita bosgarren xedapen gehigarria. *«Logroño 2021, nuestro V Centenario» programari aplikatu ahal zaizkion zerga-onurak.*

Bat. «Logroño 2021, nuestro V Centenario» programa aparteko interes publikoko ekitalditzat hartuko da, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntza-programak 2018ko urriaren 1etik 2021eko irailaren 30a arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Laurogeita seigarren xedapen gehigarria. *«Centenario Delibes» programari aplikatu ahal zaizkion zerga-onurak.*

Bat. «Centenario Delibes» programa interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legeak, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoak, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntza-programak 2019ko uztailaren 1etik 2021eko ekainaren 30a arte.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Laurogeita zazpigarren xedapen gehigarria. *«Año Santo Jacobeo 2021» programari aplikatu ahal zaizkion zerga-onurak.*

Bat. «Done Jakueren 2021. Urte Santua» programa aparteko interes publikoa duen gertakiritzat hartuko da Irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren ondoretarako.

Bi. Laguntza-programak 2018ko urriaren 1etik 2021eko irailaren 30a arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea egiaztatzeko, Consejo Jacobeo erakundeak xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Laurogeita zortzigarren xedapen gehigarria. *«VIII Centenario de la Catedral de Burgos 2021» programari aplikatu ahal zaizkion zerga-onurak.*

Bat. «VIII Centenario de la Catedral de Burgos 2021» programa interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legeak, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoak, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntza-programak 2018ko abenduaren 1etik 2021eko azaroaren 30a arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Laurogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. *«Deporte Inclusivo» programari aplikatu ahal zaizkion zerga-onurak.*

Bat. «Deporte Inclusivo» programa interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legeak, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoak, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntza-programak 2018ko uztailaren 1etik 2021eko ekainaren 30a arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Laurogeita hamargarren xedapen gehigarria. *«Plan 2020 de Apoyo al Deporte de Base II» programari laguntzeko zerga-onurak.*

Bat. «Plan 2020 de Apoyo al Deporte de Base II» interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legeak, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoak, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntza-programak 2019ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Laurogeita hamaikagarren xedapen gehigarria. *«España, Capital del Talento Joven» programari aplikatzeko zerga-onurak.*

Bat. «España, Capital del Talento Joven» programa interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legeak, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoak, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntza-programak 2018ko uztailaren 1etik 2020ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Laurogeita hamabigarren xedapen gehigarria. *«Conmemoración del Centenario de la Coronación de Nuestra Señora del Rocío (1919-2019)» ekitaldiari aplikatu ahal zaizkion zerga-onurak.*

Bat. «Conmemoración del Centenario de la Coronación de Nuestra Señora del Rocío (1919-2019)» ekitaldia interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legeak, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoak, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntza-programak 2018ko irailaren 1etik 2020ko irailaren 30a arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Laurogeita hamahirugarren xedapen gehigarria. *«Traslado de la Imagen de Nuestra Señora del Rocío desde la Aldea al Pueblo de Almonte» gertakariari aplikatu ahal zaizkion zerga-onurak.*

Bat. «Traslado de la Imagen de Nuestra Señora del Rocío desde la Aldea al Pueblo de Almonte» gertakaria aparteko interes publikoa duen gertakaritzat joko da, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren pizgarri fiskalei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntza-programak 2018ko irailaren 1etik 2020ko irailaren 30a arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Laurogeita hamalagarren xedapen gehigarria. *«Camino Lebaniego» programari aplikatu ahal zaizkion zerga-onurak.*

Bat. «Camino Lebaniego» programa interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legeak, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriari buruzkoak, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntza-programak 2019ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Laurogeita hamabosgarren xedapen gehigarria. *«Año Europeo del Patrimonio Cultural (2018)» programari aplikatzeko zerga-onurak.*

Bat. «Año Europeo del Patrimonio Cultural (2018)» programa aparteko interes publikoa duen gertakaritzat hartuko da irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriari buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren ondoretarako.

Bi. Laguntza-programak 2018ko uztailaren 1etik 2018ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Laurogeita hamaseigarren xedapen gehigarria. *«Expo Dubai 2020» ekitaldiari aplikatuko zaizkion zerga-onurak.*

Bat. «Expo Dubai 2020» ekitaldiari aplikatu ahal zaion zerga-onuren programa interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legeak, irabazi-asmorik

gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoak, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntza-programak 2019ko urriaren 1etik 2021eko urriaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea ziurtatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Laurogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria. *«Enfermedades Neurodegenerativas 2020. Año Internacional de la Investigación e Innovación» programari aplikatzeko zerga-onurak.*

Bat. «Enfermedades Neurodegenerativas 2020. Año Internacional de la Investigación e Innovación» programa aparteko interes publikoa duen gertakaritzat hartuko da Irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren ondoretarako.

Bi. Laguntza-programak 2018ko irailaren 1etik 2020ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta programekin bat etortzea ziurtatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da planak eta jarduera espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, aipatu 49/2002 Legean ezarritakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak aipatutako 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Laurogeita hemezortzigarren xedapen gehigarria. *«Camino de la Cruz de Caravaca» programari aplikatu ahal zaizkion zerga-onurak.*

Bat. «Camino de la Cruz de Caravaca» programa interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legeak, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoak, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntzeko programak 2017ko irailaren 1etik 2019ko abuztuaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea egiaztatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da jarduketa espezifikoak plan eta programetan garatzeaz eta zehazteaz, 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituz.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan ezarritako gehienekoak izango dira.

Laurogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria. *«UNESCOk Santa María de Guadalupeko Errege Monasterioa Gizadiaren Ondare izendatu izanaren XXV. urteurrena» ospatzeari aplikatzeko zerga-onurak.*

Bat. «UNESCOk Santa María de Guadalupeko Errege Monasterioa Gizadiaren Ondare izendatu izanaren XXV. urteurrena» ospatzeko ekitaldia aparteko interes publikoa duen gertakaritzat hartuko da Irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren ondoretarako.

Bi. Laguntza-programak 2018ko abenduaren 8tik 2020ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat etortzea egiaztatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Organo eskuduna arduratuko da planak eta jarduera espezifikoen programak garatzeaz eta gauzatzeaz, aipatu 49/2002 Legean ezarritakoaren arabera.

Bost. Programa honen zerga-onurak aipatutako 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Ehungarren xedapen gehigarria. «AUTOMOBILE BARCELONA 2019» ekitaldiari aplikatzeko zerga-onurak.

Bat. «AUTOMOBILE BARCELONA 2019» ekitaldia aparteko interes publikoa duen gertakarizat hartuko da, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Laguntza-programak 2018ko irailaren 1etik 2021eko irailaren 1a arte iraungo du.

Hiru. Administrazio-organo eskudunak ziurtatuko ditu programaren helburuen eta planen arabera egindako gastuak eta inbertsioak. Organo hori abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27.2.b) artikuluan ezarritakoari jarraikiz eratuko da.

Lau. Gertakaria behar bezala garatzea ziurtatzen duten jarduketak gauzatu beharko dira. Xedapen honetako Hiru apartatuan aipatzen den organo eskuduna jarduera zehatzak garatzeaz eta zehazteaz arduratuko da.

Bost. Programa honen zerga-onurak abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan lehenengo zenbakiaren bigarren lerrokadan aurreikusitako muga kalkulatzeko orduan, kontuan hartuko dira gertakariko programak eta jarduerak gauzatzeaz arduratzen diren organo eskudunari, titulartasun publikoko erakundeei edota aipatutako 49/2002 Legearen 2. artikuluan zehaztutako erakundeei enpresa babesleek edo laguntzaileek babes modura emandako zenbatekoak.

Ehun eta batgarren xedapen gehigarria. *Ex ante funtsean egiten diren ekarpenen zerga-araubidea, Funtsa 575/2013 (EB) Erregelamenduaren 113.7 artikuluan ezarritako babes-sistema instituzionaletako baten esparruan eratuta.*

2017ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldien ondorioetarako, 2013ko ekainaren 26koa den Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 575/2013 (EB) Erregelamenduaren 113.7 artikuluan ezarritako babes-sistema instituzionaletako baten esparruan *ex ante* funts bat osatu bada, eta funtsak bermatzen badu babes-sistema instituzionalak likidezia eta kaudimena sustatzeko eta suntsiarazpenari aurrea hartzen laguntzeko neurrietarako zuzeneko funts erabilgarriak edukitzea, funtseko kideek funts horretan egiten dituzten ekarpenak ez dira integratuko, *ex ante* funtsaren edo ekarpenak jasotzen dituen erakundearen zerga-oinarrian, sozietateen gaineko zergaren ondorioetarako. (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 575/2013 (EB) Erregelamendua, kreditu-erakundeen eta inbertsio-enpresen zentzuzko eskakizunei buruzkoa eta 648/2012 (EB) Erregelamendua aldatzekoa).»

Ehun eta bigarren xedapen gehigarria. *Abenduaren 23ko 1/1999 Legegintzako Errege Dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoa efektibo egitea (1/1999 Legegintzako Errege Dekretuak indarreko zerga-sistemara egokitzen du portuko baseei, eremuei eta*

aduanazergarik gabeko biltegiei buruzkoa den 1929ko ekainaren 11ko Errege lege-dekretuaren 9. oinarriaren hirugarren paragrafoan ezarritako baliabidearen araudia).

Abenduaren 23ko 1/1999 Legegintzako Errege Dekretuaren 2. artikuluan ezarritako baliabidea ezartzen da Bartzelonako, Kanaria Handiko, Tenerifeko, Sevillako eta Santanderreko aduanazergarik gabeko eremuetako partzuergoetan (1/1999 Legegintzako Errege Dekretuak indarreko zerga-sistemara egokitzen du portuko baseei, eremuei eta aduanazergarik gabeko biltegiei buruzkoa den 1929ko ekainaren 11ko Errege lege-dekretuaren 9. oinarriaren hirugarren paragrafoan ezarritako baliabidearen araudia).

Ehun eta hirugarren xedapen gehigarria. *Gizarte-interesekotzat jotzen diren interes orokorreko jarduerari dirua esleitzea.*

Bat. Lege hau indarrean jarri eta gero zergaldia amaitu duten zergadunek sozietateen gaineko zergaren arabera ordaindu duten kuota osoaren % 0,7 erabiliko du Estatuak, gizarte-interesekotzat hartutako interes-orokorreko jarduerak diruz laguntzeko, baldin eta zergadunek hori egiteko borondatea adierazten badute.

Bi. Ondore horietarako, zergaren kuota osotzat hartuko da aitortu den guztizko kuota osoa, sozietateen gaineko zerga arautzen duen legean ezarritako terminoen arabera.

2018ko ekitaldiari dagokion diru kopuruaren behin betiko likidazioa 2020ko apirilaren 30a baino lehen egingo da; 2019ko azaroaren 30ean, berriz, behin-behineko likidazioa egingo da, dirulaguntzak emateko prozedurari alde zuzenetik ekin ahal izateko.

Dirulaguntza horietarako bideratzen diren zenbatekoak —Estatuaren eremuko erakundeen proiektuak finantzatzeko erabiliko dira beti— kudeatzeko eta emateko, erregelamenduz ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

VI

Ehun eta laugarren xedapen gehigarria. *Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen manu jakin batzuen aplikazioa etetea.*

2018. urtean, etenda geratzen da Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen honako manu hauen aplikazioa: 7.2 artikulua, 8.2.a) artikulua, 10. artikulua eta 32.3 artikuluen lehen paragrafoa.

Ehun eta bosgarren xedapen gehigarria. *Arauk etetea.*

2018ko ekitaldian, ondoriorik gabe gelditzen da Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzko eta Atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren 2 ter 4 artikuluan xedatutakoa.

Ehun eta seigarren xedapen gehigarria. *Gizarte-interesekotzat jotzen diren interes orokorreko jarduerari dirua esleitzea.*

Estatuak, erregelamenduz zehaztutako moduan, gizarte-interesekotzat jotzen diren interes orokorreko jarduerak diruz laguntzera bideratuko du 2018ko ekitaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuota osoaren ehuneko 0,7; betiere, horretarako asmoa espresuki azaldu duten zergadunei dagokienez.

Ondore horietarako, zergaren kuota osotzat hartuko da Estatuak kuota osoaren eta kuota autonomiko osoaren arteko batura, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duen Legean xedatutakoari jarraituz.

2018ko ekitaldiari dagokion diru kopuruaren behin betiko likidazioa 2020ko apirilaren 30a baino lehen egingo da; 2019ko azaroaren 30ean, berriz, behin-behineko likidazioa egingo da, dirulaguntzak emateko prozedurari alde zuzenetik ekin ahal izateko.

2018ko aurrekontuetan gizarte-interesekotzat jotzen diren interes orokorreko jardueri esleitutako zenbateko osoa honako ehuneko hauek aplikatuta banatuko da: 100eko 77,72 Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioari; 100eko 19,43 Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioari, eta 100eko 2,85 Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari. Ehuneko horiek 2018ko ekitaldian bertan egindako behin betiko likidazioaren gainean aplikatuko dira.

Administrazio eskudunek kudeatuko eta emango dituzte dirulaguntza horietara bideratutako zenbatekoak.

Ehun eta zazpigarren xedapen gehigarria. *Kataluniako Generalitateari eskualdatutako aldirietako eta eskualdeko zerbitzuengatik konturako ordainketak baimentzea.*

Bat. 2014rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 22/2013 Legearen hirurogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren Bat zenbakian ezarritakoa aplikatzekoa izango da bidaiariak aldiriko nahiz eskualdeko trenbidez garraiatzeko zerbitzuen kostu garbian, zerbitzu horien eginkizunak Kataluniako Generalitateari eskualdatu bazitzaizkion eta 2017an Renfe Viajeros SAK eman bazituen.

Bi. Ordain-agindua emango dira Renfe-Operadorak egindako likidazio-proposamenen gainean Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiak dagokion finantza-kontrolako txostena eman ostean; bertan, bereziki egiaztatuko du diru-sarrerak eta gastuak egozteko irizpideak hitzarmen honetan ezarritakoen antzekoak direla: «Estatuko Administrazio Orokorren eta Renfe-Viajeros SA Estatuko merkataritza-sozietatearen arteko kontratua, Estatuko Administrazio Orokorren eskumeneko «aldirietako», «distantzia erdiko» eta «zabalera metrikoko» bidaiarien trenbideko garraioko zerbitzu publikoak 2016ko aldirian emateko», 2017. urterako luzatuta. Txosten hori 2018ko irailaren 30a baino lehen eman beharko da.

Horretarako, Renfe-Viajeros SAK Estatuko Administrazio Orokorreko Kontu-hartzailetzaren eskura jarri beharko ditu, gutxienez ere hiru hilabete lehenagotik, bai likidazio-proposamena, bai hura egiaztatzeko behar zen informazio eta dokumentazio guztia ere, horren barne direla Generalitatek onetsitako tarifa-neurriak ustiatzetik heldutako defizitaren gaineko eraginak balioestea eta zenbatzea bideratzen duten azterlanak.

Kataluniako Gobernuak bere eskumenez baliatuz hartutako erabakien ondorioz Renfe Viajeros SARI sortzen zaion ustiapen-defizit handiagoa ez da konpentsatuko; arestian aipatutako kontratuaren ondoretarako kontuan hartutakoak ez diren tarifa-politika edo kalitate-estandar, konpromiso eta baldintzei dagokienean.

Hiru. Bi zenbakian aipatutako finantza-kontrolari buruzko txostena aintzat hartu ondoren egingo da ordain-agindua, 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren honako aurrekontu-aplikazio honen kontura, eta zenbateko honetan: 17.39.441M.447 «Renfe Viajeros SARI, Kataluniako Autonomia Erkidegoari eskualdatutako aldirietako eta eskualdeko garraio-zerbitzuak, likidatu gabe daudenak, 2017ko ekitaldiari dagozkionak, konpentsatzeko», 176.023,00 mila euro.

Lau. Aurreko zenbakian aipatutako transferentzia honako akordio hauen bidez onartutako metodologiaren esparruan erabakitzen diren behin betiko likidazioen konturako zenbatekotzat hartuko da: Estatua-Kataluniako Gobernuak Ekonomia eta Zerga Gaietarako Batzorde Mistoaren 2009ko abenduaren 22ko akordioa, Renfe-Operadorak Bartzelonan emandako bidaiarien trenbidezko aldirietako garraio-zerbitzuak balioestekoa, eta Estatua-Kataluniako Gobernuak Ekonomia eta Zerga Gaietarako Batzorde Mistoaren 2010eko azaroaren 17ko akordioa, eskualde-zerbitzuen balioespenari buruzkoa.

Bost. Behin betiko likidazioa egin ostean, aurreko zenbakian xedatutakoa betez ordaindutako konturako zenbatekoari dagokionez ateratzen den alde positiboa edo negatiboa hurrengo ekitaldietan emandako zerbitzuengatik egin beharreko transferentziak handitzera edo minoratzera bideratu ahal izango ditu Estatuko Administrazio Orokorrek.

Ehun eta zortzigarren xedapen gehigarria. *Ikatzaren sektoreko neurriak.*

Bat. Gobernuak, meatzaritzako eskualdeetako ekonomia bermatzeko, sustatuko du lankidetzarako esparru-hitzarmenak sina daitezela Energia, Industria eta Agenda Digitaleko Ministerioaren eta ikatz-meatzaritzaren itxierak ukitutako autonomia-erkidegoen artean, Ikatz-meatzaritzako eskualdeen ekonomia bultzatzeko laguntzen oinarri arautzaileak ezartzen dituen abuztuaren 1eko 675/2014 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, meatzaritza-jardueraren ondorioz andeatutako eremuetarako azpiegitura-proiektuak eta lehengoratzeko proiektuak garatuz.

Bi. Salbuespen gisa esparru-hitzarmen horietan aurreikusi ahalko da likidatzeko dauden ikatzaren arloko ondoz ondoko plan sektorialen proiektuetako jarduketa gehigarriak sar daitezela, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak horretarako baimena emanda, betiere Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko araudia guztiz beteta.

Hiru. Halaber, Gobernuak babes-mekanismo batzuk sustatuko ditu, 20 milioi euroko zenbatekoarekin, ikatz-zentral termikoen ingurumenerako emisioak gutxitzeko, Europar Batasunaren estatu-laguntzei buruzko araudian ezarritako baldintzak eta mugak betez.

Ehun eta bederatzigarren xedapen gehigarria. *Hidrokarburoen gaineko zergaren aldaketaren eragina Nahikotasun Globalaren Funtsean.*

Zerga eta Finantza Politikako Kontseilua aurrez erabakita, hidrokarburoen gaineko zergaldien aldaketak, lege honetako 82. artikuluekin bat etorrita onartuta, ez dira izango abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 21. artikuluetan ezarritako Nahikotasun Globalaren Funtsa berrikustea eskatzen duten kasuetako bat (22/2009 Legea, araubide erkideko autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa-sistema arautzen duena eta zerga-arau batzuk aldatzen dituena).

Ehun eta hamargarren xedapen gehigarria. *Lege honen VII. tituluko I. kapituluan aipatutako Estatuaren tributua-sarreraren bilakaera-indizea kalkulatzeko irizpideak, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 121. artikuluan ezarritakoarekin bat.*

Toki-erakundeek Estatuaren tributuetan —zehazki, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 121. artikuluan xedatutakoetan— duten partaidetzaren konturako ordainketak kalkulatzeko, 2004tik 2018a arteko Estatuaren tributua-sarreraren bilakaeraren behin-behineko indizea abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 20. artikuluan ezarritako irizpideen arabera zehaztuko da. Irizpide horiek honako hauek dira:

1. Estatuaren 2018ko tributua-sarrerak Estatuak ekitaldi horretan bildutako diru-kopuruaz osaturik daude, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, balio erantsiaren gaineko zerga eta zerga bereziengatik autonomia-erkidegoei lagatako tributua-baliabideak salbuetsita, 22/2009 Legearen 20. artikuluan ezarritako moduan.

2. Estatuaren 2004ko tributua-sarrerak kalkulatzeari dagokionez, 22/2009 Legearen 20. artikuluan ezarritako homogeneotasun-irizpideak erabiliko dira. Hau da, autonomia-erkidegoen 2004. urteko konturako ekarpenaren simulazioa egingo da, 2018. urteari dagozkion lagapen-baldintzetan. 2002. urtearen likidazioa kalkulatzeko, autonomia-erkidegoek 2018. urteko lagapen-baldintzetan izandako behin betiko errendimenduaren eta lagapen-baldintza horien arabera egindako ekarpenen arteko aldea erabiliko da.

Lege honen VII. tituluko I. kapituluan arautzen diren eta aurrekoarekiko desberdinak diren gainerako bilakaera-indizeak zehazteko, abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, eta, hala badagokio, 2007. oinarri-urtea dagozkion urtearekin ordezkaturiko da.

Ehun eta hamaikagarren xedapen gehigarria. *Estatuaren tributu-sarrerren bilakaera-indizea kalkulatzeko irizpideak, toki-erakundeek 2016an Estatuko tributuetan izandako partaidetzaren likidazioa egiteko.*

Toki-erakundeek Estatuaren tributuetan duten partaidetzaren 2016. urteari dagokion behin betiko likidazioa egiteko, eta Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 121. artikuluan ezarritakoa aplikatzeko, 2004tik 2016a arteko Estatuko tributu-sarrerren bilakaera-indizea abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 20. artikuluan ezarritako irizpideen arabera zehaztuko da —lege horrek araubide erkideko autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa-sistema arautzen du eta zerga-arau batzuk aldatzen ditu—. Irizpide horiek honako hauek dira:

1. Estatuaren 2016ko tributu-sarrerak Estatuak ekitaldi horretan bildutako diru-kopuruaz osaturik daude, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, balio erantsiaren gaineko zerga eta zerga bereziengatik autonomia-erkidegoei lagatako tributu-baliabideak salbuetsita, 22/2009 Legearen 20. artikuluan ezarritako moduan.

2. 2004ko edo 2006ko Estatuaren zerga-sarrerren kalkuluari dagokionez, 22/2009 Legearen laugarren xedapen iragankorreko e) letran ezarritako irizpideak erabiliko dira, eta 2004a edo 2006a —zein dagokion— hartuko da oinarri-urte gisa.

Ehun eta hamabigarren xedapen gehigarria. *Ceuta eta Melilla hirien aldeko konpentsazio eta laguntzak taldekatzea.*

Bat. Estatuaren Aurrekontu Orokorren 32. ataleko 942N programan, Ceuta eta Melilla hiriei lege-mailako arauetan aitortzen zaizkien konpentsazio eta laguntzen multzoa taldekatzen da. Ondore horietarako, taldekatu egiten dira honako hauei estaldura ematen dieten zuzkidurak:

– Lege honen 121. artikuluan aipatzen diren gatzgabetze-instalazioen funtzionamendu-gastuengatik konpentsazioa.

– Ekoizpenaren, zerbitzuen eta inportazioaren gaineko zergaren diru-bilketa likidoa bermatzeko konpentsazioa; zerga hori Ceuta eta Melilla hirietako inportazioen, tabakolaboreen eta karburante zein petrolio-erregaien karga osagarriaren gainekoa da, Zerga, Administrazio eta Gizarte Arloko Neurriek buruzko abenduaren 30eko 53/2002 Legearen 11. artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztuta, lege honen 103. artikulua aplikatzekoa denean.

Bi. Estatuaren Aurrekontu Orokorren 32. atalean taldekatu ahalko dira Ceuta eta Melilla hiriek aparteko eta egiturazko beharrei erantzuteko jasotzen dituzten beste laguntzak eta dirulaguntzak, gizarte-zerbitzuen, hezkuntzaren, enplegu-sustapenaren eta etxebizitzaren arlokoak, aurrez dagokion kreditu-transferentzia eginez bilduta dauden kontzeptutik atal horretako 942N programan dagokionera.

Kreditu-transferentzia kredituak kontsignatuta dauden aurrekontuari dagokion ministerio-sailaren ekimenez egingo da, eta Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroak baimenduta.

Aurreko paragrafoan adierazitako laguntzak dagokion tresna arautzaileak xedatutako moduan emango dira. Dirulaguntza zuzenen kasuan, kontuan hartuko dira, batetik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 28. artikuluan zehaztutakoa, eta, bestetik, horren garapen-erregelamendua onesten duen Errege Dekretua (uztailaren 21eko 887/2006). Tresna arautzaile horretan bertan, xedapen gehigarri honetan adierazitako taldekatzea ere jaso beharko da, hala dagokionean.

Hiru. Xedapen honetan aipatzen den taldearen zenbateko osoa 76.500 mila eurokoa izango da 2018ko ekitaldirako, eta independente eta bateragarria izango da Ceuta eta Melilla hiriei dagokien finantzaketari dagokionez, finantzaketa autonomikoaren eta tokikoaren sistema erkideak aplikatzearen ondorioz, eta 2018rako Estatuaren Aurrekontu

Orokorren 32. ataleko 942N programan hirietan jarduketak finantzatzeko bildutako aurrekontu-kredituari dagokionez.

Lau. Arau honetan adierazitako konpentsazio eta laguntzen taldeak ez du aldatetarik eragingo aurrekontu-, kudeaketa- eta kontrol-araubidean, taldekatutako kontzeptuei dagozkien gastuak aplikatzearen ondorioz.

Ehun eta hamahirugarren xedapen gehigarria. *Madrilgo, Bartzelonako, Valentziako eta Kanarietako bidaiarien garraio publiko erregularra finantzatzera zuzendutako dirulaguntza izendunak emateko modua arautzea.*

Bat. 2018ko ekitaldirako, Madrilgo Garraioen Eskualde Partzuergoari, Bartzelonako Garraio Metropolitanoaren Agintaritzari, Valentziako Garraio Metropolitanoaren Agintaritzari eta Kanarietako Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoari zuzendutako dirulaguntza izendunak, Estatuko Administrazio Orokorrek eman beharrekoak, Ogasuneko estatu idazkariaren ebazpen bidez emango dira; guztia ere, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 22.2.a) eta 28. artikuluetan xedatutakoaren babesean.

Bi. Estatuko Administrazio Orokorrek bidaiarien lurreko garraio publiko erregularren sistemaren beharrak finantzatzera bideratuko ditu dirulaguntza horiek, honako jardun-eremu hauetan:

– Madril: Madrilgo Garraio Publiko Erregularren Eskualde Partzuergoa sortzeko maiatzaren 16ko 5/1985 Legean zehaztutako esparrua.

– Bartzelona: Kataluniako Gobernuaren maiatzaren 28ko 151/2002 Dekretuak onetsitako Bartzelonako Garraio Metropolitanoaren Agintaritzaren estatutuen 1. artikuluan zehaztutako esparrua.

– Kanariak: Kanarietako Autonomia Erkidegoaren eremua.

– Valentzia: Valentziako Garraio Metropolitanoaren Agintaritzaren jardun-eremua, araudi arautzailearekin bat etorruta.

Hiru. Ordain-agindua honako aurrekontu-aplikazio hauen kontura egingo dira, eta honako zenbateko hauetan:

– Madril: 32.01.441M.454 «Madrilgo Garraioen Eskualde Partzuergoari, bidaiarien garraio erregularra finantzatzeko», 126.894,00 mila euro.

– Bartzelona: 32.01.441M.451 «Bartzelonako Garraio Metropolitanoaren Agintaritzari, bidaiarien garraio erregularra finantzatzeko», 109.301,52 mila euro.

– Valentzia: 32.01.441M.455 «Bartzelonako Garraio Metropolitarraren Agintaritzari, bidaiarien garraio erregularra finantzatzeko», 10.000,00 mila euro.

– Kanariak: 32.01.441M.453 «Kanarietako Autonomia Erkidegoari, Kanarietako uharteetako bidaiarien garraio erregularrari dagozkion beharrak finantzatzeko», 47.500,00 mila euro.

Lau. Dirulaguntza, 2018ko urtarriletik ekainera arte, hileroko ordainketa aurreraturen bidez emango da; ordainketa horiek aurrekontu-kontsignazioaren hamabirenaren baliokideko zenbatekoa izango dute.

2018ko uztailetik aurrera, dirulaguntzaren ordainketa egin aurretik honako hauek hartuko dira kontuan: bost zenbakian adierazitako likidazioa eta 2018ko lehen seihilekoari dagozkion ordainketa aurreratuen moduan emandako zenbatekoak, seirenetako hileko ordain-aginduen bidez.

Bost. 2018ko uztailaren 15a baino lehen, hiru paragrafoan adierazitako hartzaileek honako ziurtagiri hauek igorriko dizkiote Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiar:

– Madril:

A) Madrilgo Autonomia Erkidegoaren ziurtagiria, 2018ko ekainaren 30a arte Madrilgo Garraio Publiko Erregularren Eskualde Partzuergoari 2017ko ekitaldiko aurrekontuen kontura aitortutako betebeharren eta egindako ordainketa materialen gainekoa.

B) Madrilgo Udalaren ziurtagiria, 2018ko ekainaren 30a arte Madrilgo Garraio Publiko Erregularren Eskualde Partzuergoari 2017ko ekitaldiko aurrekontuen kontura aitortutako betebeharren eta egindako ordainketa materialen gainekoa.

Bi administrazioek egindako ordainketen batura aitortutako betebeharren zenbateko berekoa izanez gero, 2018ko ekitaldiko Estatuaren Aurrekontu Orokorretan kontsignatutako ekarpena behin betiko bihurtuko da, eta ordain-agindua emango da, lau zenbakiaren bigarren paragrafoan adierazitakoaren arabera.

Bi administrazioek egindako ordainketen batura aitortutako betebeharren zenbatekoa baino txikiagoa izanez gero, Estatuko Administrazio Orokorren behin betiko ekarpena eragiketa honen bidez kalkulatu da: 2018ko ekitaldiko Estatuaren Aurrekontu Orokorretan kontsignatua zati aitortutako betebeharrak egitean ateratako emaitzaz (biak 2017ko aurrekontuen kontura), eta horren ordain-agindua egingo da lau zenbakiaren bigarren paragrafoan adierazitakoaren arabera; betiere, ateratzen den zenbatekoa egindako ordainketa aurreratuena baino handiagoa bada. Bestela, zenbatekoa zehaztu, eta itzultzeko eskatuko da.

– Bartzelona:

A) Kataluniako Gobernuaren ziurtagiria, 2018ko ekainaren 30a arte Autoritat del Transport Metropolità-Bartzelonako Garraio Metropolitanoaren Agintaritzari 2017ko ekitaldiko aurrekontuen kontura aitortutako betebeharren eta egindako ordainketa materialen gainekoa.

B) Bartzelonako Udalaren ziurtagiria, 2018ko ekainaren 30a arte Autoritat del Transport Metropolità-Bartzelonako Garraio Metropolitanoaren Agintaritzari 2017ko ekitaldiko aurrekontuen kontura aitortutako betebeharren eta egindako ordainketa materialen gainekoa.

Bi administrazioek egindako ordainketen batura aitortutako betebeharren zenbateko berekoa izanez gero, 2018ko ekitaldiko Estatuaren Aurrekontu Orokorretan kontsignatutako ekarpena behin betiko bihurtuko da, eta ordain-agindua emango da, lau zenbakiaren bigarren paragrafoan adierazitakoaren arabera.

Bi administrazioek egindako ordainketen batura aitortutako betebeharren zenbatekoa baino txikiagoa izanez gero, Estatuko Administrazio Orokorren behin betiko ekarpena eragiketa honen bidez kalkulatu da: 2018ko ekitaldiko Estatuaren Aurrekontu Orokorretan kontsignatua zati aitortutako betebeharrak egitean ateratako emaitzaz (biak 2017ko aurrekontuen kontura), eta horren ordain-agindua egingo da lau zenbakiaren bigarren paragrafoan adierazitakoaren arabera; betiere, ateratzen den zenbatekoa egindako ordainketa aurreratuena baino handiagoa bada. Bestela, zenbatekoa zehaztu, eta itzultzeko eskatuko da.

– Kanariak:

Kanarietako Autonomia Erkidegoko Kontu-hartzailletza Nagusiaren ziurtagiria, 2018ko ekainaren 30a arte 2017ko ekitaldiko aurrekontuen kontura uharteetako kabildoei lehenengo oinarrian aurreikusitako xedeari erantzuteko aitortutako obligazioen eta egindako ordainketa materialen gainekoa.

Egindako ordainketen zenbatekoa aitortutako betebeharren zenbateko berekoa izanez gero, 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorretan kontsignatutako ekarpena behin betiko bihurtuko da, eta ordain-agindua emango da, lau zenbakiaren bigarren paragrafoan adierazitakoaren arabera.

Egindako ordainketen batura txikiagoa izanez gero aitortutako betebeharren zenbatekoa baino, Estatuko Administrazio Orokorren behin betiko ekarpena eragiketa honen bidez kalkulatu da: 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorretan kontsignatua zati aitortutako betebeharrak egitean ateratako emaitzaz (biak 2017ko aurrekontuen kontura), eta horren ordain-agindua egingo da lau zenbakiaren bigarren paragrafoan adierazitakoaren arabera; betiere, ateratzen den zenbatekoa egindako ordainketa

aurreratuena baino handiagoa bada. Bestela, zenbatekoa zehaztu, eta itzultzeko eskatuko da.

– Valentzia:

Estatuko Administrazio Orokorraren ekarpenak Valentziako Generalitatearena eta ukitutako tokiko administrazioena osatuko du. Generalitatearen eta tokiko administrazioen 2018ko zenbatekoa ezin izango da aurreko ekitaldikoa eta Estatuko Administrazio Orokorrarena baino txikiagoa izan. Hiri-garraio kolektiboari buruzko lege bat eman ezean, apartatu honetan aipatzen den dirulaguntzaren aldia amaitutakoan, administrazio guztien ekarpenak garraio-sistema horren finantza-orekan izan duen eragina ebaluatuko da. Ebaluazio horren emaitza izan liteke, hala dagokionean, Estatuaren 2019rako eta 2020rako ekarpena 10 milioi euro handitzea, aurreko ekitaldikoarekin erkatuta, eta, gehienez ere 10.000 mila eurokoa izanik, urte horietako bakoitzean.

Sei. Estatuko Administrazio Orokorrak emandako dirulaguntza horiek bateragarriak dira helburu bera duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, horrelakoak edozein Administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk emanda ere, izan Estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko organismoenak.

Zazpi. Estatuko Administrazio Orokorrak egin beharreko ordainketa aurreratuak aseguratuko, ez da berme, abal edo kauziorik aurkeztu beharrik izango.

Zortzi. Aurreko paragrafoetan aurreikusten ez denerako, Dirulaguntzei buruzko azaroren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta garatzeko araudian xedatutakoa aplikatuko da.

Bederatzi. Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiak neurri egokiak hartuko ditu, xedapen honetan dirulaguntza hauei dagozkien kredituen kudeaketari buruz adierazitakoa betetzeko.

Ehun eta hamalagarren xedapen gehigarria. Autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa-araubideetako baliabideetan kenkariak edo atxikipenak aplikatzeko irizpideak.

Bat. Autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa-araubideetako baliabideetan kenkarian edo atxikipenean hainbat zor pilatzen direnean, eta zor horiek autonomia-erkidego bati edo autonomia-estatutua duen hiri bati eragiten diotenean, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiak zor likidoen, epez kanpokoen eta galdagarrien ondoriozko kenkariak edo atxikipenak aplikatuko ditu aurrena, autonomia-erkidegoek edo autonomia-estatutua duten hiriek nahiz horien mendeko zuzenbide publikoko entitateek Estatuko Ogasun Publikoaren aurrean dauzkatena, Estatuari dagozkion tributuengatik eta Gizarte Segurantzari egin beharreko kotizazioengatik.

Bi. Aurreko zenbakian aurreikusitako akordioak aplikatu ostean, ordena honetan aplikatuko dira gainerako kenkariak edo atxikipenak:

1.a Estatuko sektore publikoarekiko zor likidoen, epez kanpokoen eta galdagarriei dagozkienak.

2.a Gainerako kenkariak edo atxikipenak, baldin eta horien gaineko akordioak Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusian jaso badira.

Hiru. Bat zenbakian aurreikusitako kenkariak edo atxikipenak hainbanatu egingo dira tributuek eragindako zorren zenbatekoan eta Gizarte Segurantzari egin beharreko kotizazioen zorren zenbatekoan, kenkarian edo atxikipenean eragina badute. Bi kategoria horietako bakoitzean, bai eta xedapen honen Bi zenbakian aurreikusitakoetan ere, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusian sartu diren dataren arabera aplikatuko dira kenkariak edo atxikipenak; hala, aplikatzen

aurrenekoak data goiztiarrena dutenak izango dira, legez ezarritako mugak betetzea ezertan eragotzi gabe.

Lau. Aurreko zenbakietan ezarritakoaren ondoretarako, aintzat hartuko dira kudeaketa-organoek kenkaria edo atxikipena egiteari begira onartutako akordioak; betiere, akordio horiek ordainketak egin beharreko hilaren aurrekoaren hamabosgarren eguna baino lehen sartu badira Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusian.

Bost. Baldin eta, xedapen hau aplikatzearen ondorioz, ezin badira kendu edo atxiki kontuan hartu beharreko atxikipen-akordio guztiak betetzeko behar adina baliabide, ordaindu gabe gelditzen den zenbatekoa murriztu edo atxiki egingo da autonomia-erkidegoari edo autonomia-estatutua duen hiriari egiten zaion hurrengo ordainketan, finantzaketa-araubideak aplikatuz, xedapen honetan adierazitako arauen arabera.

Sei. Administrazio publikoen hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia kalkulatzeko metodologia eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan aurreikusitako finantzaketa-araubideen baliabideak atxikitzeko baldintzak eta prozedurak garatzen dituen uztailaren 25eko 635/2014 Errege Dekretuaren 10.1 artikuluan adierazitako atxikipenaren xede den zenbatekoa hauxe izango da: aipatutako errege-dekretuaren 8.2 artikuluan aipatutako atxikipenaren xede den zenbatekoari xedapen honetan kenkariak eta atxikipenak egiteko ezarrita dauden irizpideak aplikatzearen ondorioz lortutakoa.

Ehun eta hamabosgarren xedapen gehigarria. *Ondasun higiezinaren gaineko zergaren hobaria Lorca udalerrirako (Murtzia).*

Bat. 2011ko maiatzaren 11n Lorcan (Murtzia) izandako lurrikarek eragindako kalteak konpontzeko premiazko neurriak onartzeko maiatzaren 13ko 6/2011 Errege Lege Dekretuaren 12. artikulua ondasun higiezinaren gaineko zergan araututako salbuespenerako ezarritako baldintza berekin, ehuneko 50eko hobaria emango da 2018ko ekitaldiari dagozkion zerga horren kuotetan.

Bi. Hala dagokionean, legez aurreikusitako gainerako hobariak aplikatu ondoren geratzen den kuotari aplikatuko zaio hobaria.

Hiru. Xedapen honetan aurreikusitakoak Lorcako Udalaren diru-sarreretan eragiten duen murrizketa Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura konpentsatuko da, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) 9. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Ehun eta hamaseigarren xedapen gehigarria. *Hiri autonomoen eta Autonomia Estatutua duen hirien aurrekontuaren superabitaren erabileraren arau bereziak.*

Bat. Arau honen indarraldian, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 32. artikuluan ezarritako terminoetan, aurrekontuaren superabita aplikatuzetik salbuesita egongo dira honako eskakizun hauek betetzen dituzten hiri autonomoak eta Autonomia Estatutua duen hiriak (2/2012 Legea, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa):

a) Aurreko ekitaldian superabita edukitzea, kontabilitate nazionalako terminoetan; bai eta aurrekontuaren egonkortasun-arau guztiak betetzea ere, ezarritako termino guztietan. Gastu-araua betetzen ez baldin badute, xedapen hau aplikatu aurretik, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzak baimendu beharko du.

b) Zor publikoko helburua eta abenduaren 22ko 8/1980 Lege Organikoaren 14.2 artikuluan ezarritako eskakizunak betetzea (8/1980 Lege Organikoa, Autonomia Erkidegoak Finantzatzeari buruzkoa). 14.2 artikuluan ezarritako eskakizunak betetzen ez baldin badituzte, xedapen hau aplikatu aurretik, Ogasuneko Estatu Idazkaritzak baimendu beharko du.

c) Xedapen hau aplikatu aurreko 6 hilabeteetan batez besteko ordainketari buruzko datuek berankortasun-araudia bete beharko dute.

d) Likideziaren ezohiko mekanismoen baldintzak bete izana egiaztatzea, aplikagarriak baldin baziren.

Bi. Hala denean, dagokion autonomia-erkidegoak edo Estatutu Autonomoa duen hiriak 2017an izan duen superabita, kontabilitate nazionaleko terminoetan adierazita, finantzaketaren ikuspegitik balio-bizitzan jasagarriak diren inbertsioetarako erabili ahalko da. Inbertsio horiek izango dira xedapen honetako hurrengo apartatueta zehaztuta dauden eskakizunak eta parametroak betetzen dituztenak.

Aldez aurretiko eskakizun gisa, superabitaren saldoaren ehunekoa indarreko zorpetze-eragiketak amortizatzeko erabili beharko da. Ehuneko horren balioa izango da dagokion autonomia-erkidegoak 2018ko ekitaldian, kontabilitate nazionaleko terminoetan adierazita, defizita ez izateko behar duen balioa.

Era berean, aribideko urteko aurrekontuaren betearazpenaren aurrerapenari buruzko datuak kontuan hartuko dira, finantzaketaren ikuspegitik jasagarria den inbertsioa egiteko aukera zehazte aldera.

Hiru. «Finantzaketaren ikuspegitik jasagarria den inbertsio»tzat hartuko da epe luzean finantza publikoen jasagarritasunean eta ekonomiaren balizko hazkundean eragin positiboa, zuzena eta egiaztagarria duena. Zehatz-mehatz, manu honen babesean egin behar den inbertsioak ondorio onak izan beharko ditu klima-aldaketan, energiaren eraginkortasuna areagotzen lagundu beharko du, edo gastu errepikakorrek ez egitea edo hurrengo ekitaldietan aurrezkiak izatea ahalbidetuko du, betiere autonomia-erkidegoaren eskumenen eremuan.

Lau. Xedapen honen arabera egiten den inbertsioaren balio-bizitzak eta finantzaketaren ikuspegitik jasagarria den inbertsioari eusteak ezin izango dute arriskuan jarri autonomia-erkidegoaren aurrekontu-egonkortasuna, ezta finantza-jasagarritasuna ere.

Bost. Geldikina edo superabita ezin izango da erabili altzariak edo tresnak erosteko.

Sei. Egindako inbertsioaren ondoriozko gastuari dagokion espedientearen hasiera eta sortutako obligazio ekonomiko guztiak aitortzea ekitaldia amaitu baino lehen egin beharko da.

Hala eta guztiz ere, ezinezkoa bada inbertsio-proiektu jakin bat oso-osorik ekitaldi honetan exekutatzeko, beste aukera bat ere badago: baimendutako gastutik falta den zatia hurrengo ekitaldian aitortzea eta aurreko urteko diruzaintza-geldikinetik finantzatzea. Zenbateko hori helburu horri lotuta geratuko da, eta toki-korporazioak ezingo du defizitrik eduki hurrengo urtean.

Zazpi. Finantzaren ikuspegitik jasagarria den inbertsioa 25 milioi eurotik gorakoa baldin bada, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak aurrez baimendu beharko du derrigorrean.

Zortzi. Xedapen honen arabera izapidetu diren gastu-espedienteak aldez aurretik fiskalizatu beharko dira.

Izapidetzen den gastu-espedientearen, berariazko memoria ekonomiko bat jaso beharko da, azaltzeko ea inbertsioak norainoko ondorioak izan ditzakeen aurrekontuetan eta ekonomiaren arloan, balio-bizitza amaitzen zaion arte. Autonomia-erkidegoko organo kontu-hartzaileak txostena egingo du memoria ekonomikoan jaso diren aurrekontuari buruzko ondorioen sendotasunaren eta euskarriaren gainean, aurreko ataletan zehaztutako irizpideak kontuan hartuta. Edonola ere, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiari bidaliko dio txosten hori, eta Kontu-hartzailetza Nagusiak horri buruzko beste txosten bat egin ahalko du.

Xedapen honetan ezarritakoari jarraikiz, ezin izango da inbertsiorik egin, baldin eta kontu-hartzaile eskudunen fiskalizazio-txostenak aldekoak ez badira.

Bederatzi. Urtero-urtero, aurrekontuaren kitapenarekin batera, aurreko paragrafoetan jasotako irizpideak zenbateraino bete diren azalduko da, eta jendaurrean aurkeztuko da.

Hamar. Autonomia-erkidegoko kontu-hartzaileak Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari eman beharko dio xedapen hau aplikatuz egiten diren inbertsioen berri.

Hamaika. Xedapen honen arabera finantzaketaren ikuspegitik jasagarriak diren inbertsioetan egiten den gastua ez da zenbatuko Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza

Iraunkortasunari buruzko Legearen 12. artikuluan zehaztutako gastu-araua aplikatzeko ondorioetarako.

Ehun eta hamazazpigarren xedapen gehigarria. *EAEko kupoa konpentsatzeko ordainketen instrumentazio operatiboa.*

Bat. 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera eta indarraldi mugagabez, ordain-aginduen aurrekontu-instrumentazioa zenbateko gordinen arabera egingo da, baldin eta ordainketa EAEko kupoa konpentsatzeko edo minoratzeko egiten bada, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen laugarren xedapen gehigarrian (12/2002 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia-ituna onartzen duena) eta abenduaren 28ko 11/2017 Legearen hirugarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan (11/2017 Legea, Euskadiko Kupoa zehazteko metodologia onartzen duena 2017-2021 bosturterako) ezarritako kasuetan.

Bi. Ordaindu-agindu horiei dagozkien obligazioak honako aurrekontu-kreditu hauetan aitortuko dira, kasu bakoitzean dagokion moduan:

a) 17.020.453A.752 kredituan («Euskal Autonomia Erkidegoari, 12/2002 Legearen laugarren xedapen gehigarria eta horrekin bat datozen xedapenak aplikatuta»), Trenbideko Hegoaldeko Saihesbidea eraikitze 2017ko uztailaren 12ko hitzarmenaren eta EAEko trenbide-sare berria eraikitze 2017ko abenduaren 27ko hitzarmenaren ondoriozko trenbide-inbertsioei lotuta.

b) 32.01.941O.452 kredituan («Euskal Autonomia Erkidegoari, kupoa konpentsatzeko, aurreko bosturterakoak erregularizatzearen ondorioz (CMCE Akordioa, 2017ko maiatzaren 17koa)»), Euskadiko Kupoa zehazteko metodologia 2017-2021 bosturterako onartzen duen abenduaren 28ko 11/2017 Legearen zortzigarren xedapen gehigarriari lotuta.

Aurreko a) eta b) ataletan zehaztutako ordainketak formalizazioan egingo dira, deskontuarekin, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiak zehazten duen kontzeptuan.

c) 19.101.000X.409 kredituan, abenduaren 28ko 11/2017 Legearen hirugarren xedapen gehigarriari lotuta (11/2017 Legea, Euskadiko Kupoa zehazteko metodologia 2017-2021 bosturterako onartzen duena).

Kasu horretan, ordainketa Altxor Publikoaren alde egingo da, eta, kontabilitateari dagokionez, diru-sarrerak Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiak zehazten duen kontzeptuan aplikatuko dira.

Hiru. Euskal Autonomia Erkidegoaren trenbideko sare berria eraikitze 2017ko abenduaren 27ko hitzarmenaren laugarren klausularen azken paragrafoan ezarritakoaren arabera aplikatu daitezkeen eguneratzeak egiteko, ADIF-Alta Velocidad enpresa-erakunde publikoak edo Sustapen Ministerioak diru-sarrera egin beharko dute —Ministerioa bada, formalizazioan egin beharko du— Altxor Publikoan, eta zenbatekoa izango da Jarraipen eta Koordinazio Batzordeak akordio hori hartu aurreko eguneratzeen zenbateko baliokidea.

Lau. Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzak, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiak aurrez txostena eginda, artikulua honetan ezarritakoa aplikatzeko behar diren garapen-ebazpenak eman ahalko ditu.

Ehun eta hemezortzigarren xedapen gehigarria. *Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoak, seigarren xedapen gehigarriaren 1.b) letran ezarritakoa interpretatzea.*

Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoak, seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatze aldera, lege organiko horren lehenengo xedapen gehigarriaren esparruan instrumentatzen diren finantza-neurri berezien efektua kendu behar zaio gastu orokorretarako bideratuta dagoen diru-zaintzaren geldikinari; eta efektu hori bat dator hornitzaileei ordainketak egiteko finantza-funtsean indarrean eta likidazio-egoeran dauden mailegu formalizatuen urteko-kuoten zenbatekoarekin, bai eta tokiko erakundeak finantzatzeko funtsaren

konpartimentuekin ere (zehazki, aipatutako diru-zaintzari dagokion ekitaldiko konpartimentuekin).

VII

Ehun eta hemeretzigarren xedapen gehigarria. *Askotariko ondorioak dituen adierazle publikoa (IPREM) 2018rako zehaztea.*

Lanbide arteko gutxieneko soldataren erregulazioa arrazionalizatzeko eta haren zenbatekoa areagotzeko ekainaren 25eko 3/2004 Errege Lege Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, askotariko ondorioak dituen errentaren adierazle publikoak (IPREM) zenbateko hauek izango ditu 2018an:

- a) Eguneko IPREMak, 17,93 eurokoa.
- b) Hileko IPREMak, 537,84 euro.
- c) Urteko IPREMak, 6.454,03 euro.
- d) Ekainaren 25eko 3/2004 Errege Lege Dekretuan ezarritakoari jarraikiz, lanbide arteko gutxieneko soldataren ordezkari IPREM erreferentzia ezarri den kasuetan, urteko IPREMaren zenbatekoa 7.519,59 eurokoa izango da arauk urte osoko lanbide arteko gutxieneko soldatari egiten diotenean erreferentzia, eta aparteko ordainsariak berariaz kanpo uzten ez badituzte; azken horiek berariaz kanpo utziz gero, zenbatekoa 6.454,03 eurokoa izango da.

Ehun eta hogeigarren xedapen gehigarria. *Gazte Bermea Sistema Nazionalan inskribatuta dauden gazteei laguntzeko dirulaguntza, baldin eta prestakuntzako eta ikasketarako kontratu bat sinatzen badute.*

Bat. Xedapen orokorrak.

1. Xedapen gehigarri honetan Gazte Bermea Sistema Nazionaleko gazte onuradunak aktibatze eta laneratzeko neurri bat arautzen da, maila txikiagoko prestakuntza duten gazteei dirulaguntza emateko, baldin eta Bi apartatuan ezarritako baldintzak betetzen badituzte (urriaren 15eko 18/2014 Legearen IV. tituluko I. kapituluaren arabera da Gazte Bermea Sistema Nazionala; 18/2014 Legeak hazkuntza, lehiakortasuna eta efizientzia sustatzeko urteko neurriak onartzen ditu).

2. Xedapen gehigarri honetan ezarritako dirulaguntza ekonomikoa ez zaie aplikatuko urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartzen duen Enpleguaren Legearen testu bateginaren 10.4.b) artikuluan ezarritako enplegu- eta prestakuntza-programa publikoen esparruan lantegi-eskolekin, ikas-ekinezko prestakuntzako ikastegiekin eta enplegu-lantegiekin sinatzen diren proiektuetan egiten diren prestakuntzako eta ikasketarako kontratuei.

3. Gazte Enplegurako Ekimenak eta Europako Gizarte Funtsak neurri hori finantzatzen lagundu ahalko dute.

4. Xedapen honetan ezarritako neurria bateragarria izango da autonomia-erkidegoek beren kudeaketa-eremuan ezarri ahal dituzten enplegua sustatzeko beste neurri batzuekin.

Bi. Onuradunak.

1. Urriaren 15eko 18/2014 Legearen IV. tituluko I. kapituluaren 2. atalean araututa dagoen Gazte Bermea Sistema Nazionalan inskribaturik dauden gazteak dirulaguntzaren onuradunak izan ahalko dira, baldin eta laguntza ekonomikoaren eskaera bosgarren apartatuko 1 zenbakian ezarritako epean aurkezten badute, eta eskaeraren egunean honako eskakizun hauek betetzen badituzte:

- a) Gazte Bermea Sistema Nazionalaren onuraduna izatea, c) apartatuan ezarritako prestakuntzarako eta ikasketarako kontratua sinatzea.

b) Honako titulu hauek ez edukitzea, c) apartatuan ezarritako prestakuntzarako eta ikasketarako kontratua sinatzean.

1. Batxilergoko titulua.
2. Erdi-mailako teknikariaren titulua.
3. Batxilergoko titulua baino maila handiagoko titulu ofizial bat.
4. Arestian aipatutako titulazio horien baliokideak diren titulu ofizial aitortuak, indarreko hezkuntza-sistema arautzen duten legeekin bat etorrita.
5. 2. edo 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiria.

c) Prestakuntzako jarduera bat hasteko eta egiteko konpromisoa hartzea eta, horretarako, zerbitzuak ematen hastea, prestakuntzako eta ikasketzako kontratu baten bidez. Kontratuak gutxienez urtebetea iraungo du.

Hiru. Prestakuntzarako eta ikasketarako kontratuaren eskakizunak, garapena eta jarraipena.

1. Prestakuntzarako eta ikasketarako kontratuak xedapen honetan ezarritakoaren arabera egingo dira, eta xedapen honetan zehaztu ez dena erabakitzeko, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartzen duen Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauetan ezarritakoari ere. Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoak ezarritako eredia erabili beharko da, kontratua egiteko.

2. Enpresak, edo, hala dagokionean, heziketa-zentroak prestakuntza-jarduera baimentzeko eskaeran adierazi beharko dute kontratuan xedapen honetan ezarritako onurak betetzen direla.

3. Xedapen honetan ezartzen den prestakuntzarako eta ikasketarako kontratua egin ahal izateko, kontratuan ezarritako prestakuntzako jarduerak Gazte Bermea Sistema Nazionalaren gazte onuradunak trebatzeko xedea eduki beharko du, eta, horretarako, trebakuntza eta enpresako lan-jarduera ordaindua txandakatuko dira. Ildo horretatik, kontratua egiteko ezinbesteko baldintza da trebakuntza hori behar bezalakoa izatea profesionaltasun-ziurtagiri osoak lortzeko, edo, prestakuntzarako eta ikasketarako kontratuaren araudi espezifikoan prestakuntzako eduki gisa zehatz daitezkeen beste prestakuntzako ibilbide batzuk egiteko.

2. mailako edo 3. mailako ziurtagiriak baldin badira, dirulaguntzaren gazte onuradunak 34/2008 Errege Dekretuaren 20.2 artikuluan prestakuntza eskuratzeko ezarritako eskakizunak bete beharko ditu (urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuak Profesionaltasun Ziurtagiriak arautzen ditu). Dirulaguntzaren gazte onuradunak prestakuntza eskuratzeko eskakizunak betetzen ez baditu, kontratuan ezarritako prestakuntzan gako-konpetentziak lantzeko prestakuntza-ekintzak bildu beharko dira. Ekintzok gainditzeak bide eman beharko du profesionaltasun-ziurtagiri osoak lortzeko.

4. Prestakuntzarako eta ikasketarako kontratuan ezarritako prestakuntza-ekintzak azaroaren 8ko 1529/2012 Errege Dekretuaren 21. artikuluan arautzen den prestakuntza-jarduerarako akordioan xedatutakoaren arabera egin beharko dira (1529/2012 Errege Dekretua, prestakuntzarako eta ikasketarako kontratua garatzekoa eta bitariko lanbide-hezkuntzaren oinarriak ezartzekoa).

Ondore horietarako, gazte onuradunak profesionaltasun-ziurtagiriei lotutako prestakuntza ematen duen ikastegi edo prestakuntza-zentro batean egin beharko du prestakuntza. Horrek guztiak enplegurako lanbide-heziketaren sistema arautzen duen araudiarekin eta profesionaltasun-ziurtagiriekin arautzen duenarekin bat etorri beharko du.

5. Xedapen honen babesean egiten diren prestakuntzarako eta ikasketarako kontratuei lotutako profesionaltasun-ziurtagiri osoak lortzeko prestakuntzaren jarraipena eta kontrola azaroaren 8ko 1529/2012 Errege Dekretuaren 25.3 artikuluan ezarritakoaren arabera egin beharko dira.

Lau. Laguntzeko dirulaguntzaren zenbatekoa.

1. Gazte onuradunek jaso ahalko duten dirulaguntzari aplikatuko zaio honako apartatu hauetan ezarritakoa:

2. Laguntzaren zenbatekoa une oro indarrean dagoen hileko eragin anitzeko errenten adierazle publikoaren ehuneko 80 izango da.

3. Prestakuntzarako eta ikasketarako kontratuaren iraupenean jasoko du dirulaguntza, eta gehienez ere 18 hilabete iraungo du. Ehuneko 33ko desgaitasuna gutxienez aitortuta duten pertsonen dirulaguntzak gehienez ere 36 hilabete iraungo du, pertsona bakoitzaren arabera egokitu den prestakuntza-planaren arabera.

4. Dirulaguntza jasotzeko eskubidea bi apartatuan ezarritako eskakizunak betetzen direnean sortuko da. Laguntza hori onartzeak izaten dituen ondorio ekonomikoak Gizarte Segurantzari alta eskatzean hasiko dira; betiere, baldin eta eskaera Bost apartatuko 1. zenbakian ezarritako epean egiten bada.

Epe horretan eskatzen ez baldin bada, ondorio ekonomikoak eskaera egin eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira, eta eskaera epe eta modu egokietan eginez gero, dirulaguntza jasotzen hasi beharko zuen egunetik eta benetan egin den eguna arte iragan diren egunak (biak barne) kenduko zaizkio dirulaguntzaren iraupenari.

5. Dirulaguntza prestakuntzarako eta ikasketarako kontratu batzuk egiteko eskatu ahalko da, eta gehienez ere hiru kontratu egiteko; horrez gain, kontratuetan bete beharko dira Hiru apartatuan ezarritako eskakizunak eta jasotzen diren laguntza guztien iraupena ezin izango da izan apartatu honetako 3. zenbakian ezarritakoa baino handiagoa.

6. Dirulaguntzaren aldizkako ordainketa Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoaren bitartez egingo da, hogeita hamar eguneko hileko kuotetan, eskubidea sortzen den hilabetearen osteko hilabetean. Eskatzaileak edo hartzaileak adierazi duen finantza-erakundeko kontuan egingo da ordainketa, bera kontu horren titularra bada.

7. Gazte onuradunak edo Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoak ez dute kotizatuko Gizarte Segurantzari, dirulaguntza hori jasotzeagatik.

Bost. Eskaera.

1. Gazte onuradunen egoitza non dagoen, leku horri dagokion Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoaren prestazio-bulegoan aurkeztu beharko dute Lau apartatuan ezarritako dirulaguntza. Eskaeran adierazi beharko dituzte jakinarazpenak egiteko datuak eta, hala dagokionean, dirulaguntza ordaintzeko datuak; horretarako, hamabost egun balioduneko epea izango dute, prestakuntzarako eta ikasketarako kontratuaren hasieratik zenbatzen hasita.

2. Dirulaguntza horretarako inprimakia Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoaren webgunean (www.sepe.es) erabilgarri egongo da.

3. Eskaeran erantzukizunpeko adierazpena jasoko da, Bi apartutako b) letran zerrendatutako titulurik edo ziurtagiririk ez edukitzea aitortzeko.

4. Ez da dokumentu gehigarri beharko, eskaera egiteko; hargatik eragotzi gabe nork bere burua nortasun nazionalako agiriaren edo Espainian lege bizi diren atzerritarren nortasun-agiriaren bidez identifikatzea eta, hala dagokionean, ehuneko 33ko desgaitasuna gutxienez aitortuta duela ziurtatzea.

Sei. Kudeatzea eta ebaztea

1. Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoko probintzia-zuzendariei dagokie gazteei laguntzeko dirulaguntza onartzeko eskubidea aitortzeko edo ukatzeko ebazpena ematea.

2. Gazteei laguntzeko dirulaguntza aitortze aldera, langileak, prestakuntzarako edo ikasketarako kontratua adierazita, Gizarte Segurantzari alta eskatu duen egiaztatuko da. Halaber, Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publiko eskudunak prestakuntzako jarduera Hiru apartatuan ezarritako baldintzen arabera baimendu duen ere ziurtatuko da.

3. Ebazpenak lan-arloko jurisdikzio-organoei aurkaratu ahalko dira, Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoan erreklamazioa aurkeztu ondoren, lan-arloko jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legearen 71. artikuluan ezarritako moduan.

Zazpi. Gazteei laguntzeko dirulaguntzan baja eskatzea.

1. Prestakuntzarako eta ikasketarako kontratuaren amaierak behin betiko baja emango dio dirulaguntzari.

2. Dirulaguntza bidegabe jaso duten gazte onuradunek dirulaguntzaren zenbatekoa itzuli beharko dute. Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartu duen Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko 295. artikuluan eta garapen-araudian langabezia-prestazioetarako ezarrita dagoenari jarraikiz itzuliko da dirua.

3. Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoak eskatu beharko du bidegabe jaso diren zenbatekoak itzultzeko, bai eta bide jaso diren zenbatekoak langabezia-prestazioan konpentsatzeko ere.

Zortzi. Bateragarritasunak.

1. Gazteei laguntzeko dirulaguntza bateragarria izango da kontratazioa sustatzeko pizgarriekin, prestakuntzarako eta ikasketarako kontratuak halakorik sortzen badu.

2. Gazteei laguntzeko dirulaguntza eta langabezia-prestazioak kobratzea ez da bateragarria izango.

Bederatzi. Ebaluazioa.

Xedapen honetan ezartzen den neurriaren emaitzak aztertze aldera, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak neurriaren ebaluazioa egingo du, Gazte Bermea Sistema Nazionalaren eta Europako Gizarte Funtsaren esparruan aplikatzen hasi eta 18 hilabeteko epean, neurriaren eraginkortasuna zehazte aldera.

Ehun eta hogeita batgarren xedapen gehigarria. Ehun eta hogeigarren xedapen gehigarrian ezarritako dirulaguntzaren gazte onuradunekin egiten diren prestakuntzarako eta ikasketarako kontratuak mugagabe bihurtzeagatik ematen den hobaria.

Bat. Xedapen orokorrak.

1. Xedapen gehigarri honetan Gazte Bermea Sistema Nazionalako gazte onuradunak aktibatze eta laneratzeko neurri bat arautzen da (urriaren 15eko 18/2014 Legearen IV. tituluko I. kapituluaren arautzen da Gazte Bermea Sistema Nazionala; eta 18/2014 Legeak hazkuntza, lehiakortasuna eta efizientzia sustatzeko urgentziazko neurriak onartzen ditu). Zehazki, kontingentzia arruntengatik ordaindu behar diren enpresa-kuotei aplikatzeko hobari espezifiko bat ezartzen da, ehun eta hogeigarren xedapen gehigarrian ezarritako dirulaguntza jaso duten gazteekin egindako prestakuntzarako eta ikasketarako kontratuak mugagabe bihurtzea sustatzeko.

2. Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoaren aurrekontuetan zordunduko da neurri hori, eta Gazte Enplegurako Ekimenak eta Europako Gizarte Funtsak neurria finantzatzen lagundu ahalko dute.

3. Xedapen honetan ezarritako neurria bateragarria izango da autonomia-erkidegoek beren kudeaketa-eremuan ezarri ahal dituzten enplegua sustatzeko neurriekin. Edonola ere, xedapen honetan ezarritako hobariaren konkurrentziaren ondorioetarako, aplikagarria izango da hazkundera eta enplegua hobetzeko abenduaren 29ko 43/2006 Legearen 7.3 artikuluan ezarritakoa.

Bi. Onuradunak.

1. Ehun eta hogeigarren xedapen gehigarrian ezarritako dirulaguntza jaso duten gazteekin egindako prestakuntzarako eta ikasketarako kontratuak mugagabe bihurtzen badituzte, enpresek eta langile autonomoek hiru apartatuan ezarritako hobaria jasotzeko eskubidea edukiko dute. Kontratuaren hasierako iraupena amaitzean edo, kontratu mota horretarako legez ezarritako gehieneko iraupena bete arte, ondoz ondoko luzapenak amaitzean mugagabe bihurtu ahalko dute lan-kontratua.

2. Kooperatibetako eta lan-sozietateetako bazkide langileak edo lan-bazkideak eta laneratzeko enpresak ere hobariaren onuradunak izan ahalko dira, baldin eta ehun eta hogeigarren xedapen gehigarrian ezarritako prestakuntzarako eta ikasketarako kontratuak gizartean baztertze-egoeran dauden langileekin egiten badituzte, eta, aurreko apartatuan ezarritako baldintza beretan, lan-kontratu mugagabe bihurtzen badituzte. Gizartean baztertze-egoeran dauden langileek bat etorri beharko dute abenduaren 13ko 44/2007 Legeak 2. artikuluan aipatzen dituenekin (44/2007 Legeak laneratzeko-enpresen erregimena arautzen du).

Hiru. Hobari espezifikoaren zenbatekoa eta iraupena.

1. Gizarte Segurantzari kontingentzia arruntengatik ordaindu behar zaizkion enpresa-kuotei aplikatzeko hobariaren zenbatekoa hilean 250 eurokoa izango da (3.000 euro urtean).

2. Hobari espezifiko hau hiru urteko aldiari aplikatuko da, ehun eta hogeigarren xedapen gehigarrian ezarritako dirulaguntzaren gazte onuradunekin egin diren prestakuntzarako eta ikasketarako kontratuak lan-kontratu mugagabe bihurtu eta gero zenbatzen hasita.

3. Xedapen honetan ezarritako hobaria enpresak behin bakarrik baliatu ahalko du, ehun eta hogeigarren xedapen gehigarrian ezarritako dirulaguntzaren gazte onuradun bakoitzeko, baldin eta gazte horren prestakuntzarako eta ikasketarako kontratua lan-kontratu mugagabea bihurtzen badu, enpresak langile bakoitzeko jasotzen duen hobari bakoitzaren aldia alde batera utzita.

4. Kontratua mugagabe bihurtzen badu, arduraldi osokoa izan beharko du. Kontratuaren erudia Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoak ezarritakoa izango da.

5. Hobari espezifiko hori gehitu ahalko zaio uztailaren 6ko 3/2012 Legearen 3. artikuluan prestakuntzako eta ikasketarako lan-kontratuak mugagabe bihurtzeagatik ezartzen den hobariari (3/2012 Legea, Lan-merkatua erreformatzeko premiazko neurriei buruzkoa), Bost apartatuan ezarritako muga betiere kontuan hartuta.

Lau. Hobariaren araubidea.

1. Enpresak bidegabeko azkentze-erabakiak kontratua bihurtu aurreko sei hilabeteetan hartu baldin baditu, ezin izango du xedapen honetan ezarritako hobaria aplikatu.

Mugak lege hau indarrean jarri ondoren azkendutako kontratuei soilik eragingo die, eta kontratua azkendu dieten langileen lanbide-talde bereko lanpostuak lantoki berean betetzeko.

2. Enpresak langile kontratatua postu berean laneratuta eduki beharko du kontratua bihurtu eta hiru urteko epean gutxienez. Era berean, kontratua aldatuta, mugagabeko enpleguaren maila handitu beharko du, eta lortutako maila berri osoari eutsi beharko dio hobariak irauten duen aldi osoan.

3. Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak enplegu mugagabearen maila eta enpleguaren guztizko maila aztertuko ditu hobaridun kontratua egin eta handik 6 hilabetera. Horretarako, baldintza hori betetzen ote den aztertu beharreko hilabeteari dagokion langile mugagabeen batez bestekoa eta langile guztien batez bestekoa aztertuko dira.

4. Enplegu-mailari eusteko ondorioetarako, ez dira aintzat hartuko honako hauek: arrazoi objektiboengatik edo diziplinazko kaleratzeengatik azkendutako lan-kontratuak, azkentzeak bidegabe deklaratu ez badira; zuzenbidearen kontrako deklaratu ez diren kaleratze kolektiboak; langileen dimisioagatik, heriotzagatik, erretiroa hartzeagatik, ezintasun iraunkor oso edo absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik azkendutakoak, eta hitzartutako epea amaitu delako, kontratuaren xede den obra edo zerbitzua burutu delako edo frogaldian kontratua deuseztatu delako azkendutakoak.

5. Betebehar horiek bete ezean, aplikatutako hobariak itzuli egin beharko dira.

6. Apartatu honetan sartzan ez diren kasuetan, hazkundea eta enplegua hobetzeko abenduaren 29ko 43/2006 Legearen I. kapituluko 1. atalean jasotako aurreikuspenak aplikatuko dira, 2.7 eta 6.2 artikuluetan zehaztutakoa izan ezik.

7. Abenduaren 29ko 43/2006 Legearen I. kapituluko 1. atalean, oro har, bildutako salbuesenez gain, xedapen honetan aurreikusitako Gizarte Segurantzaren kuotetako hobariak ez dira aplikatuko, baldin eta kontratatutako langileen jarduera erabakigarria bada Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean ezarritako sistema berezietako edozeinetan sartzeko.

8. Hiru apartatuan ezarritako hobaria jaso ahal izateko zerga-betebeharrak egunean izateko baldintza dagokion ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da, organo eskudunak modu telematikoan egindako ziurtagiria izanik. Ziurtagiri horrek sei hilabeteko indarraldia izango du eta, ondorio guztietarako, baldintza hori betetzat hartuko da langileari alta eman zaion unean egindako ziurtagiria positiboa baldin bada.

9. Hobariak kontrolatzearen, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak honako datu hauek jakinaraziko dio Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoari hilean behin: zenbat langilek jaso duten hobari hori Gizarte Segurantzako kuotetan, langile horien kotizazio-inarriak eta zenbateko murrizketak aplikatzen zaizkien.

10. Aldizkakotasun horrekin berarekin, Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoko Zuzendaritza Nagusiak honako informazio hau emango dio Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren Zuzendaritza Nagusiari: jakinarazi zaizkion kontratu-bihurtzeetatik zenbatek jaso duten hobaria kuotan, eta haien kotizazioei eta aplikatu zaizkien murriztapenei buruzko informazioa. Azken informazio horrek behar adinakoa izan behar du Hiru apartatuan hobariak behar bezala aplikatzen direla kontrolatzeko, erakunde bietan adosten diren urteko jardun bateratuko planetan ezarritako irizpideekin bat etorrita.

Bost. Bateragarritasunak.

Hobari hori bateragarria izango da kontratua bihurtzeak sortzen dituen pizgarri mota guztiekin. Pizgarrien baturak ezin izango du inola ere gainditu enpresak Gizarte Segurantzari dirulaguntzaren gazte onuradun bakoitzarekin egindako kontratu bakoitzeko ordaindu behar dion kuotaren ehuneko 100.

Sei. Ebaluazioa.

Lortu diren emaitzak aztertze aldera eta xedapen honetan biltzen den neurriaren eragina zehazte aldera, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak neurriaren ebaluazioa egingo du, Gazte Bermea Sistema Nazionalaren eta Europako Gizarte funtsaren esparruan neurria aplikatzen hasi eta 18 hilabeteko epean.

Ehun eta hogeita bigarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzako kotizazioko hobariak, haurdunaldiko arriskua edo edoskialdi naturaleko arriskua izateagatik lanpostua aldatzean eta gaixotasun profesionala izatean.*

Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 26. artikulua aurreikusitakoaren arabera, haurdunaldiko arriskua edota edoskialdi naturaleko arriskua dagoela eta, langilea bere egoerarekin bateragarria den lanpostu edota funtzio batera lekualdatuz gero, lanpostu edo funtzio berri horretan dirauen bitartean sortutako kuotei dagokienez, enpresak Gizarte Segurantzaren kotizazioan gertakari arruntengatik egin behar duen ekarpenean ehuneko 50eko hobaria aplikatuko da.

Hobari hori bera aplikatu ahal izango da, erregelamenduz zehaztutako moduan eta baldintzetan, gaixotasun profesionalaren ondorioz enpresaren barruan lanpostua aldatzean, edota beste enpresa batean hastean, langilearen egoerarekin bateragarria den jarduera gauzatzeko.

Ehun eta hogeita hirugarren xedapen gehigarria. *Aldizkako kontratu finkoak dauzkaten langileen jarduera-aldia luzatzen laguntzeko neurriak, turismo-sektorean eta turismo-jarduerari lotutako merkataritza- eta ostalaritza-sektoreetan.*

Bat. Turismo-sektorean bildutako jardueretan aritzen diren enpresek, bai eta turismo-sektore horri lotutako merkataritza- eta ostalaritza-sektoreetakoek ere —sektore publikoko

enpresak alde batera utzita— urte bakoitzeko otsailean, martxoan eta azaroan ekoizpen-jarduerarik sortzen badute, eta hilabete horietan altan hasi eta/edo mantentzen badute aldizkako kontratu finkoak dituzten langileen okupazioa, ehuneko 50eko hobaria aplikatu ahal izango dute hilabete horietan langile horien gertakari arrunten Gizarte Segurantzako enpresa-kuotetan, bai eta langabezia, FOGASA eta lanbide-heziketaren baterako bilketaren kontzeptuen kuotetan ere.

Bi. Xedapen gehigarri honetan adierazitakoa 2018ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31a arte aplikatuko da.

Ehun eta hogeita laugarren xedapen gehigarria. *Enplegurako lanbide-heziketa finantzatzea.*

Bat. Beste finantzaketa-iturri batzuk ezertan eragotzi gabe, lanbide-heziketako kuotatik eratorritako funtsak irailaren 9ko 30/2015 Legeak araututako enplegurako lanbide-heziketaren sistemaren gastuak finantzatzera zuzenduko dira —lege horrek Lan Arloko Enplegurako Lanbide Heziketaren Sistema arautzen du—, baita enplegurako eta prestakuntzarako programa publikoak finantzatzera ere; hori guztia, enpresek eta langile landunek zein langabeek lan-merkatuaren beharrei erantzuten dien prestakuntza jaso dezaten, eta ezagutzan oinarritutako ekonomia garatzen lagun dezaten.

Bi. Aurreko zenbakian aurreikusitako funtsen ehuneko 50, gutxienez, hasiera batean honako hauek egiteko behar diren gastuak finantzatzera bideratuko da: lana duten langileei, lehenetsunez zuzendutako prestakuntza-ekimenak egiteko behar diren gastuak; irailaren 9ko 30/2015 Legean esleitzen zaizkien eginkizun berriak garatzeko gizarte eragileei zuzendutako ekintzetako gastuak —behar den erregelamendu-garapenaren bidez osatuko da haien arautzea—, eta Enpleguan Prestatzeko Estatuko Fundazioaren funtzionamendu- eta inbertsio-gastuak.

Zenbaki honetan honako hauek sartzten dira berariaz: enpresen prestakuntza programatuko ekimenak; prestakuntzarako banakako baimenak; lanean ari diren langileentzako prestakuntza-eskaintza, eta administrazio publikoetako prestakuntza.

2018rako, salbuespen moduan, gehienez ere 15.337,50 mila euroko zenbatekoa bideratuko dira gizarte-eragileei zuzendutako prestakuntza-ekintzak finantzatzera, irailaren 9ko 30/2015 Legean ezartzen zaizkien eginkizun berriak gara ditzaten

Administrazio publikoetako prestakuntza finantzatzeko, apartatu honen lehen paragrafoan adierazitako zenbatekoaren 100eko 6,165 bideratuko da. Negoziazio kolektiboari eta gizarte-elkarrizketari lotutako eginkizunak administrazio publikoetan garatzeko prestakuntza finantzatzera bideratutako zenbatekoak ere sartzten dira zifra horretan.

Zenbateko horri, aldeztatik, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen arabera kupoa kalkulatzeko erabilitako egozpen-indizeari dagokion ehuneko minoratuko zaio, eta zuzkidura bereizi gisa sartuko da Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoaren gastu-aurrekontuan, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari atxikita dagoen Herri Administrazioaren Institutu Nazionalari diruzko ekarpena egiteko hiru ordainketaren bidez; hurrenez hurren, otsailean, apirilean eta ekainean. Herri Administrazioaren Institutu Nazionalaren aurrekontuan, lurraldez lurralde banatuta azalduko dira autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei euren enplegatu publikoen etengabeko prestakuntza finantzatzeko dagozkien funtsak. Funts horiek Herri Administrazioaren Institutu Nazionalak ordainduko ditu, autonomia-erkidego eta hiri autonomo bakoitzari transferentzia izenduna eginez, Euskal Autonomia Erkidegoari izan ezik.

Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoak funtzionamendu- eta inbertsio-gastuak finantzatzeko funtsak ordainduko dizkio Enpleguan Prestatzeko Estatuko Fundazioari. Ordainketa hori laurdenka egingo da, hiruhileko bakoitzeko bigarren hamabostaldi naturalean. Fundazioak, urtero, eta hurrengo ekitaldiko apirilaren 30a baino lehen, bere funtzionamendurako esleitu zaizkion funtsen kontura egindako gastuen kontabilitate-justifikazioa aurkeztu beharko dio Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoari, eta justifikatu gabeko kopuruen itzulketa uztailaren 31 baino lehen egin beharko du.

Gainerako ehuneko 50a honako hauek finantzatzera bideratuko da, hasiera batean: nagusiki langabezian dauden langileei zuzendutako prestakuntza-ekimenak betetzeko behar diren gastuak, enplegu-prestakuntzako programa publikoak, eta prestakuntza-zentroen sare publikoaren bidez emandako ezohiko prestakuntza; guztia ere, lanean nahiz langabezian dauden langileei zuzendutako kalitatezko prestakuntza-eskaintza bermatzearren, irailaren 9ko 30/2015 Legearen 6.5.e) artikuluan ezarritakoarekin bat.

Prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuari datxekion prestakuntza-jarduera finantzatzean, langileek jasotzen duten prestakuntza eta haren ezaugarriak arautzen dituen erregelamendu-araudian ezarritakoa beteko da.

Hiru. Estatutuaren bidez enplegu-politika aktiboen arloan eskumenak bereganatuta dauzkaten autonomia-erkidegoek funtsen transferentziak jasoko dituzte Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoarengandik, erkidego horiek enplegurako lanbide-heziketaren arloan kudeatzen dituzten dirulaguntzak finantzatzeko, aplikagarri den araudian ezarritakoaren arabera dagokion zenbatekoan.

Lau. Lanbide-heziketaren gertakariagatik kotizatzen duten enpresek kreditu bat izango dute beren langileen prestakuntzarako, Lan Arloko Enplegurako Lanbide Heziketaren Sistema arautzen duen irailaren 9ko 30/2015 Legearen 9. artikuluan xedatutakoaren arabera. Kreditu horren zenbatekoa enpresak lanbide-heziketaren kontzeptuan 2017an ordaindutako diru kopuruari hobari-ehuneko bat aplikatzearen ondorioz lortzen den kopurua izango da. Enpresaren tamainaren arabera, hauek izango dira aipatutako hobari-ehunekoak:

- a) 6 eta 9 langile artean dituzten enpresak: ehuneko 100.
- b) 10 eta 49 langile artean dituztenak: ehuneko 75.
- c) 50 eta 249 langile artean dituztenak: ehuneko 60.
- d) 250 langile edo gehiago dituztenak: ehuneko 50.

1 eta 5 langile artean dituzten enpresek, portzentaje baten ordeztan, 420 euroko hobari-kreditua izango dute enpresa bakoitzeko. Era berean, aipatu arauak ezarritakoaren arabera, 2018. urtean lantoki berriak irekitzen dituzten enpresek eta enpresa sortu berriek prestakuntza-kreditua jaso ahal izango dute, baldin eta beren plantillan langile berriak hartzen badituzte. Aurreko kasu horietan, enpresek izango duten hobari-kreditua langile berri bakoitzeko 65 eurokoa izango da.

2018an beren langileei prestakuntzarako banakako baimenak ematen dizkieten enpresek prestakuntzarako hobari-kreditu gehigarri bat izango dute, zenbaki honen lehen paragrafoan ezarrita dagoenaren arabera legokiekeen urteko kredituaz gain. Kreditu gehigarriaren zenbatekoa Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren agindu bidez ezarritako irizpideak aplikatuz ateratzen den kopurua izango da. Aipatutako baimenak ematen dituzten enpresen multzoari emandako kreditu gehigarriak ezin izango du enplegurako lanbide-heziketarengatik Gizarte Segurantzako kotizazioetan egindako hobariak finantzatzeko Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoak daukan aurrekontuan ezarrita dagoen kredituaren ehuneko 5 baino handiagoa izan.

Ehun eta hogeita bosgarren xedapen gehigarria. *Enpleguari buruzko Legearen testu bateginaren (urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen) 18. artikulua h) letran ezarritako zerbitzu eta programen kudeaketa.*

Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoak, urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Enpleguari buruzko Legearen testu bateginaren 18.h) artikuluan xedatutakoarekin bat, bere gastu-aurrekontuaren kreditu-erreserbaren kontura finantzaturiko zerbitzu eta programak kudeatuko ditu, barnean 19.101.000-X.400, 19.101.000-X.401, 19.101.000-X.403, 19.101.000-X.410, 19.101.000-X.411, 19.101.000-X.431, 19.101.241-A.441, 19.101.241-B.442, 19.101.241-A.482 eta 19.101.241-B.482 aplikazioak hartuta, eta hainbat azpi-kontzepturen bitartez bereizita, enplegu-politika aktiboen eremu funtzionalen arabera, honako jarduketak hauek finantzatzeko:

a) Autonomia-erkidegoa baino eremu geografiko handiago bati eragiten dioten zerbitzu eta programak, horietan parte hartzen duten langabeei edo langileei beste autonomia-erkidego edo herrialde batera lekualdatzea behartzen badiete, eta koordinazio bateratua gauzatu behar badute.

b) Autonomia-erkidego batena baino eremu geografiko handiagoko exekuzio-eremua duten programak, haietan parte hartzen duten langabetu eta langileen mugigarritasun geografikoa eskatzen ez dutenak, koordinazio bateratua behar dutenean; betiere, Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta programa horiek exekutatu diren autonomia-erkidegoen artean akordioa eginda.

c) Enplegu-eskatzailleen zein lanean ari diren pertsonen lanbidea hobetzera zuzendutako zerbitzu eta programak, Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta Estatuko Administrazio Orokorraren edo haren erakunde autonomoen arteko lankidetzaren bitartez; kalitateko enplegua sortzen eta langileen aukerak hobetzen dituzten prestakuntza-jarduerak burutzea izango dute helburutzat, batik bat Estatuko planen, estrategien edo programen esparruan, eta interes orokorreko eta gizarte-intereseko obrak eta zerbitzuak egikaritzea, Estatuaren eskumen eskusiboekin lotuta.

d) Bitartekaritza-zerbitzu eta -programak eta enplegu-politika aktiboak: langile etorkinen laneratzea xede baldin badute, haien jatorrizko herrialdeetan gauzatura, eta migrazio-fluxuen antolamendua erraztuz.

e) Epe jakin baterako ezartzen diren ezohiko programak, Estatuko lurralde osoari eragiten diotenean; halakoetan, nahitaezkoa izango da modu zentralizatuan kudeatzea, bai programen eraginkortasuna bermatzeko, bai onuradun guztiek horiek eskuratzeko nahiz aprobetxatzeko aukera berdinak izan ditzaten.

Adierazitako kasuetan, aurrekontu-erreserba horrek enplegu-politika aktiboen kudeaketa-erreserba gisa jarduten du, Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoaren alde, nahiz eta autonomia-erkidegoek lanaren, enpleguaren eta prestakuntzaren arloetan eskumenak bereganatuta izan.

Enpleguari buruzko Legearen testu bateginaren 21.4 artikuluan xedatutakoarekin bat, kreditu-erreserba osatzen duten funtsak ez dira banatuko kudeaketa-eskumenak esleituta dituzten autonomia-erkidegoen artean.

Ehun eta hogeita seigarren xedapen gehigarria. *Uztailaren 11ko 20/2007 Legearen zenbait manuren aplikazioa geroratzea (20/2007 Legea, Langile Autonomoaren Estatutuarena).*

Uztailaren 11ko 20/2007 Legearen 1.1 artikuluko lehen paragrafoan, 24. artikulua bigarren paragrafoan eta 25.4 artikuluan ezarritakoa indarrean jartzeko unea geroratzen da, jarduera lanaldi partzialean egiten duten beren konturako langileei dagokien guztian (20/2007 Legea, Langile Autonomoaren Estatutuaren Legea).

VIII

Ehun eta hogeita zazpigarren xedapen gehigarria. *Estatuaren finantza-ekarpena, urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enpleguari buruzko Legearen testu bateginaren hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoa aplikatuz.*

Urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enpleguari buruzko Legearen testu bateginaren hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, Estatuak 2018. urtean, 42 milioi euro jarriko ditu enplegua handitzeko neurriak aurrera eramateko.

Garatu behar diren neurri zehatzak, bai eta Kanarietarako Enplegu Plan Berezirako aipatutako ekarpena ere, Estatuko Administrazio Orokorrak eta Kanarietako Autonomia Erkidegoak egin beharreko lankidetzak hitzarmen baten bitartez gauzatu dira.

Ehun eta hogeita zortzigarren xedapen gehigarria. *Elikagaien Ordainketa bermatzeko Funtza.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondorioak izanik eta indarraldi mugagabez, Elikagaien Ordainketa bermatzeko Funtza, 2007rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren 42/2006 Legearen berrogeita hirugarren xedapen gehigarrian eraturik (abenduaren 28ko 42/2006 Legean), izenaz aldatu eta Elikagaien Ordainketa bermatzeko Funtza, N.J.G.F, deituko da, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 137. artikuluan eta laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorrira (40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena).

Ehun eta hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. *Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legean Elizaren Ondasun Higigarrien Inbentarioari dagokionez finkatutako epea aldatzea.*

2018an ere aplikagarria izango da 2017rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legearen ehun eta hamahirugarren xedapen gehigarrian ezarritako baimena, Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legean elizaren ondasun higigarrien inbentarioari buruzko epea aldatzeko lotuta; aparteko interes publikoko gertaeren tasak eta zerga-onurak aldatzeko abenduaren 29ko 4/2004 Legearen bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari lotuta; Zerga, Administrazio eta Gizarte Arloko Neurrien abenduaren 30eko 42/1994 Legearen lehenengo xedapen iragankorrari lotuta; eta Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen bosgarren xedapen iragankorrari lotuta.

Ehun eta hogeita hamargarren xedapen gehigarria. *Sektore elektrikoa 2018ko ekitaldian finantzatzeko ekarpenak.*

Bat. Indarra bakar-bakarrik 2018ko aurrekonturako duela, berotegi efektuko gasen emisio-eskubideen enkanteen bidezko diru-sarreraren diru-bilketa efektiboaren ehuneko 90 —horri buruzkoa da 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legearen bosgarren xedapen gehigarriaren 1.b) zenbakia— 20.18.000X.737 aplikazioaren («Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari, sektore elektrikoaren kostuak finantzatzeko, Energia Iraunkortasunerako Zerga Neurriei buruzko abenduaren 27ko 15/2012 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren b) letraren arabera») hasierako kredituan ezarritako zenbatekoa gainditzen duenean, kreditu bat sortu ahalko da, amaierako kredituan 450 milioi euroko muga duena.

Bi. Indarra bakar-bakarrik 2018ko aurrekontuan duela, Energia Iraunkortasunerako Zerga Neurriei buruzko Legean jasotako tributuen diru-sarreraren diru-bilketa efektiboak — horri buruzkoa da 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legearen bosgarren xedapen gehigarriaren 1.a) zenbakia— 20.18.000X.738 aplikazioaren («Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari, sektore elektrikoaren kostuak finantzatzeko, Energia Iraunkortasunerako Zerga Neurriei buruzko abenduaren 27ko 15/2012 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren a) letraren arabera») hasierako kredituan ezarritako zenbatekoa gainditzen duenean, kreditu bat sortu ahalko da, hasierako kreditu horrekiko dagoen aldearen zenbatekoarekin.

Hiru. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroaren erabakiaren bidez emango da baimena Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Aurrekontuan aurreko bi zenbakietan aipatutako kreditua eta dagozkion kreditu-gehiak sortzeko.

Ehun eta hogeita hamaikagarren xedapen gehigarria. *Landa-azpiegituretarako lanak interes orokorreko zat jotzea.*

Honako landa-azpiegitura hauek (bide naturalak egitekoak) interes orokorreko zat jotzen dira:

- Gaztelako bigarren mailako trenbideko bide naturala (Gaztela eta Leon).

- Soriaren Ekialdeko Errege Abelbidearen bide naturala (Gaztela eta Leon, Gaztela-Mantxa, Madril eta Andaluzia).
- Pirinioen hegoaldeko isurialdeko bide naturala (Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa, Aragoi eta Katalunia).
- Palentziako Erromanikoaren bide naturala Kantabriako kostaldera luzatzea (Gaztela eta Leon eta Kantabria).
- Kostaldeko bide naturalak eta ur-errotak (Huelva) Zilarrezko Bidearekin konektatzea (Extremadura).
- Tajuña ibaiaren bide naturala (Madril eta Gaztela-Mantxa).
- Guadiato ibaiaren bide naturala (Gaztela-Mantxa, Andaluzia eta Extremadura).
- Eo ibaiaz, Oscos lurraldeaz eta Burón lurraldeaz osatutako erreserbaren eraztuneko bide naturala (Galizia eta Asturias).
- Tajo ibaiaren bide naturala (Aragoi, Gaztela-Mantxa, Madril eta Extremadura).
- Guadiana ibaiaren bide naturala (Gaztela-Mantxa, Extremadura eta Andaluzia).
- Ebro ibaiaren bide naturala (Kantabria, Gaztela eta Leon, Errioxa, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa, Aragoi eta Katalunia).
- Val de Zafán-Teruelgo tartearen bide naturala. (Aragoi eta Katalunia).
- Carlos III kanalaren bide naturala (Andaluzia eta Murtzia).
- Malagako Bide Handiaren bide naturala eta loturak (Andaluzia).
- Kanaria Handiko eta Lanzaroteko bide naturala.
- Turia-Cabriel bide naturala Gaztela-Mantxara luzatzea (Valentziako Erkidegoa eta Gaztela-Mantxa).
- Gaztelako kanalaren bide naturala (Gaztela eta Leon).
- Duero Ibaiaren Bidearen bide naturala (Gaztela eta Leon).
- Madrilgo Iparraldeko Mendilerroaren bide naturala eta Soriaren Mendebaldeko Errege Abelbidearekin lotzea (Madrilgo Erkidegoa eta Gaztela eta Leon).
- Atlantikoko bide naturala eta Kantabriako bide naturalarekin lotzea (Galizia, Asturias, Kantabria eta Euskal Autonomia Erkidegoa).
- Guadix-Almendricos bide naturala (Andaluzia eta Murtzia).

Xedapen honetan interes orokorrekotzat jotzen diren jarduketak egin ahal izateko, dagokion ministerioko sailean aurrekontu-baliabide erabilgarriek egon beharko dute.

EHun eta hogeita hamabigarren xedapen gehigarria. *Ureztatzera bideratutako azpiegitura hidraulikoetarako lan jakin batzuk interes orokorrekotzat jotzea.*

1. Honako obra hauek interes orokorrekotzat hartzen dira:

a) Ureztatzeko bihurketa-lanak: Gaztela-Mantxan:

– Laguntzeko ureztatzea, Morako eremu ureztagarrian olibadi tradizional batean (guztientzako intereseko lanak), Mora eta Mascarque udal-mugarteetan (Toledo).

b) Bernedo-ko eremuan ureztatua hobetzeko lanak (Araban), Obekuri urmaeletik (Trebifnu K.–Burgos).

– Zerealen, hazitarako pataten eta erremolatxen laborantzari laguntzeko ureztatzea.

c) Rojo ibaia eta Berantevilla eremuko ureztatua hobetzeko lanak (Burgos-Araba), Baroja-ko zundaketatik (Araba).

– Baroja-ko zundaketatik (Araba) hartzea eta San Martin de Zar herriko urmaelera garraiatzea (Burgos), zerealen, hazitarako pataten eta erremolatxen laborantza ureztatzeko, laguntza gisa.

2. Artikulu honetan jasotako obrek berekin ekarriko dituzte deklarazio hauek:

- a) Onura publikoarena, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 9., 10. eta 11. artikuluetan xedatutako ondorioetarako.
- b) Presako okupazioarena, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikulua aipatutako ukitutako ondasunen okupazioaren ondorioetarako.

3. Interes orokorrekotzat jo eta gero, lanak egiteko gauzatu behar diren nahitaezko desjabetzeak egin ahalko dira, eta ukitutako ondasunak presaz okupatu ahalko dira.

Xedapen honetan interes orokorrekotzat jotzen diren jarduketak egin ahal izateko, dagokion ministerioko sailean aurrekontu-baliabide erabilgarriek egon beharko dute.

Ehun eta hogeita hamahirugarren xedapen gehigarria. *Hornidura-lanak interes orokorrekotzat jotzea.*

Ávila hiriko hornidura bermatzeko, Las Cogotas urmaela ustiatzeko lanak interes orokorrekotzat jotzen dira.

Ehun eta hogeita hamalagarren xedapen gehigarria. *Garagardogintza Sareari lotutako Hornidura Teknikoen Funtsa zuzkitzea.*

2018an, funtsaren zuzkidura gehienez ere 80.000 mila eurokoa izango da, eta 27.12.467C.870.03 aplikazioaren kontura.

Funtsaren zuzkiduraren bitartez, Garapen Teknologiko eta Industrialerako Zentroan (CDTI) Garagardogintza Sarearen I+G+b proiektuak finantzatzen direnean osa daitezkeen arriskuak babestuko dira. Babes hori maileguen bitartez gauzatutako laguntzen bidez emango da.

Ehun eta hogeita hamabosgarren xedapen gehigarria. *Espainiako Gazteriaren Kontseilua erakunde autonomoa desegitea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik, desegintzat hartuko da Espainiako Gazteriaren Kontseilua erakunde autonomoa. Erakundearen ondasun, eskubide eta betebeharrak Gazteriaren Institutuan subrogatuko dira, irailaren 16ko 15/2014 Legean ezarritakoarekin bat etorrita (15/2014 Legea, sektore publikoaren arrazionalizazioari eta administrazio-erreformarako beste neurri batzuei buruzkoa).

Ehun eta hogeita hamaseigarren xedapen gehigarria. *Jarduketen hasiera jakinaraztea, presako izapideen araubidearen bitartez.*

Hondamendiak, arriskubide larria osatzen duten egoerak edo defentsa nazionalari eragiten dioten beharrak gertatzen baldin badira, eta Administrazioak berehala jardun behar badu, kontratazio-organoak jarduketak hasteko unean bertan horren berri emango dio Ordezko Kontu-hartzaitzari. Ordezko kontu-hartzaitzaren eskumen organikoak edo lurralde-eskumenak bat etorri beharko dute jarduketaren ondoriozko gastua onartu behar duen agintaritzaren eskumenarekin. Horretan hauxe beteko da: 9/2017 Legearen 120. artikuluan ezarritako salbuespenezko araubidea (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora).

Dagokion kontrol-organoari bidaltzen zaion komunikazioan jarduketen xedea eta gastuaren zenbatekoa azaldu beharko dira (gastua izango da egindako kreditu-atxikipen egokiari edo aurrekontua aldatzeko espedientearen hasierari lotuta dagoena).

Ehun eta hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria. *Sektore publikoan bidegabeko koadratzeak gauzatzeagatik egiten den kaltea ziurtatzea ondare-erantzukizunari buruzko prozeduretan.*

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 91.2 artikuluan eta urriaren 1eko 40/2015 Legearen 34. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, funtzionario publiko batek edo haren senideek ondare-erantzukizunari buruzko prozedura bat hasten badute, Estatuaren Klase Pasiboen araubidean bidegabeko koadratze batek haien pentsioaren aitopeneari eragiten baitio erretiroa hartzean edo hiltzean, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko Langileen eta Pentsio Publikoen Kostuen Zuzendaritza Nagusiak edo Defentsa Ministerioko Langileen Zuzendaritza Nagusiak, bakoitzak bere eskumenen barruan, ziurtagiri bat igorriko dute, eta zegokion pentsioaren hileko eta urteko zenbatekoa jasoko dituzte. (39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena).

Ehun eta hogeita hemezortzigarren xedapen gehigarria. *Energia berriztagarriko iturriekin energia elektrikoa sortzeko instalazioetan inbertsioak egiteko laguntzen deialdia.*

Bat. 2018tik aurrera aurrekontuan ondorioak izanik, energia elektrikoa sistema elektrikoarekin lotutako energia berriztagarrien iturriekin ekoizteko instalazioetan inbertsioak egiteko laguntzak emateko prozeduretarako deialdia egin ahalko da, lege honek indarra hartu arte sortu den superabit elektrikoaren kargura, EGEF funtsekin batera finantzatu daitezkeen proiektuetan. Sistema elektrikoaren kargurako gehieneko zenbatekoa 60 milioikoa izango da.

Bi. Baimena ematen zaio Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko ministroari, Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Ordezko Batzordearekin akordioa eginda, behar diren xedapenak eman ditzan laguntzen sistema hori aplikatzeko eta kontrolatzeko, sistema elektrikoarekin lotutako energia berriztagarrien iturriekin sortzen den energia elektrikoa ekoizteko instalazioei dagokienez.

Ehun eta hogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria. *Sektore Elektrikoaren superabitaren erabilera.*

Bat. 2018ko aurrekontuan, salbuespenez, sistema elektrikoaren diru-sarreraren superabitak erabili ahalko dira sektore elektrikoaren araudiari buruzko auzietako ebazpenak betearazteko kalte-ordainak, Estatuaren Aurrekontu Orokorren kargura ordaindu behar direnak, ordaintzeko, baldin eta horrela erabakitzen bada Energia, Turismo eta Agenda Digitalaren ministroaren agindu baten bidez, Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Ordezko Batzordeak erabakia hartu ondoren.

Bi. Indarraldi mugagabek, sistema elektrikoaren bidezko diru-sarreraren superabitak sistemaren zorra amortizatzeko erabili ahalko dira, edo, bestela, sistema elektrikoaren aldizkako diru-sarrera integraltzat hartu ahalko dira, aipatutako zorra amortizatzeko balio parekideak izanik.

Ondorio horietarako, Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko ministroaren aginduz, zenbatekoak, baldintzak eta aplikazio- edo integrazio-epeak onartuko dira.

Ehun eta berrogeigarren xedapen gehigarria. *Penintsulaz kanpoko lurraldeetan sortzeak dakarren gainkostua likidatzea.*

Bat. 20.18.000X.739 partidan («Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari, Sektore Elektrikoari buruzkoa den abenduaren 26ko 24/2013 Legearen hamabosgarren xedapen gehigarrian aipatzen den elektrizitatea sortzeak dakartzen gainkostuari aurre egiteko») 687.100,00 mila euroko zuzkidura dago, abuztuaren 1eko 680/2014 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorrira (680/2014 Errege Dekretua, penintsulatik kanpoko lurraldeetako sistema elektriko isolatuetan energia elektrikoa ekoizteko jardueraren aparteko kostuen —Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura finantzatuak— aurrekontu,

aitorpen, likidazio eta kontrola egiteko prozedura arautzen duena). Honako kontzeptu hauek sartzen dira partida horretan:

a) Penintsulatik kanpoko lurraldeetako sistema elektrikoetan elektrizitatea sortzeko jardueraren gainkostuaren kalkuluaren ehuneko berrogeita hamarra 755.025.371,32 eurokoa da, 2018ko ekitaldian.

b) 2014ko ekitaldian benetan eragin zen gainkostuaren ehuneko berrogeita hamarraren eta ekitaldi horretan kontura entregatu zen konpentsazio-oinarri gisa erabili zen kalkuluaren arteko desbideratzea: 67.925.371,32 eurokoa, behin betiko kuantifikazioa, Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenaren bidez zehaztuta.

Bi. Likidazioak egiteko ardura duen erakundeak penintsulatik kanpoko lurraldeetako sistema elektrikoetan elektrizitatea sortzeak 2018ko ekitaldian dakarren gainkostua ordaintzeko, baliabide hauek erabiliko ditu: batetik, aipatutako 687.100.000,00 euroko zenbatekoa erabiliko du (2018ko aurrekontu-partidakoa); eta, bestetik, 67.925.371,32 euroko zenbatekoa. Azken hori abuztuaren 1eko 680/2014 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat sortutako kontu berezitik ateratzen da (680/2014 Errege Dekretua, penintsulatik kanpoko lurraldeetako sistema elektriko isolatuetan energia elektrikoa ekoizteko jardueraren aparteko kostuen —Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura finantzatuak— aurrekontu, aitorpen, likidazio eta kontrola egiteko prozedura arautzen duena).

Ehun eta berrogeita batgarren xedapen gehigarria. *Gizarte Txartel Unibertsala sortzea.*

Bat. Gizarte Txartel Unibertsala informazio-sistema gisa sortzen da, administrazio publikoek bultzatzen dituzten gizarte-babeserako politikak hobetzeko eta koordinatzeko.

Administrazio publikoek borondatez hartuko dute parte sistema horretan; hargatik eragotzi gabe gaur egun RPSP osatzen duen informazioa igorri behar izatea.

Honako hauek izango dira Gizarte Txartel Unibertsalaren sistemaren erabilerak:

– Eduki ekonomikoko gizarte-prestazio publikoen identifikazio-datuak eta aplikazio-eremuan eta onuradunen eremuan sartutako egoera subjektiboak kudeatzea, datu-banku automatizatua eratuz.

– Ukitutako entitateen eta erakundeen artean datuak lagatzea eta datuen ezagutzak koordinatzea, haiek kudeatzen dituzten gizarte-prestazio publikoak errazago aitortzeko eta gainbegiratzeko.

– Administrazio publikoek eta, sisteman integratuta izanik, eduki ekonomikoko gizarte-prestazio publikoak kudeatzen dituzten sektore publikoko beste erakunde batzuek sarbidea izatea eta kontsultak egin ahal izatea.

– Ustiapen estatistikoa, gizarte-politika publikoak hobetzera bideratutako azterlan ekonomikoak egiteko.

Bi. Gizarte Txartel Unibertsalean honako datu hauek bilduko dira: kotizaziopeko gizarte-prestazioei eta kotizazio gabeko gizarte-prestazioei buruzkoak, baliabide publikoen kontura finantzatuta dauden eduki ekonomiko prestazioei buruzkoak. Horrez gain, informazio parametrikoa eta eguneratua bilduko du, xedapen gehigarri honetako 4. apartatuan ezarritako egoera subjektiboari buruz. Informazio horretan oinarrituta, funtzionalitateak eta zenbait utilitate eskainiko dizkie administrazio publikoei eta herritarrei.

Erregelamendu bidez arautuko da herritarrek sistemaren funtzionalitateak eta erabilerak baliatzeko prozedura. Horrela, herritarren eskura egongo dira, gizarte-prestazio publikoen eta sisteman sartutako egoera subjektiboaren titularrei enpresek eskaintzen dizkieten zerbitzuak eta produktuak.

Hiru. Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioari, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren bidez, esleitzen zaio erregistroa eta Gizarte Txartel Unibertsalaren eta txartelaren funtzionalitateen euskarria izango den informatika-sistema administratzea,

kudeatzea eta mantentzea, xedapen gehigarri honetan eta erregelamenduaren bidezko garapena egiteko arauetan bildutako aginduekin bat etorrira.

Lau. Bi apartatuan zerrendatu diren eta Gizarte Txartel Unibertsalean sartuta dauden gizarte-prestazio publikoen kudeaketaz arduratu behar duten administrazio publikoek, entitateek eta erakundeek Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari eman beharko dizkiote gizarte-prestazio ekonomikoaren titularren identifikazio-datuak eta, haietarako eskubidearen aitortpena eta eskubideari eustea eragiten edo baldintzatzen duten neurrian, onuradunen, ezkontideen eta familia-unitateetako gainerako kideen identifikazio-datuak, ordaindutako prestazioen zenbatekoak eta motak, bai eta emakidak edo aitortpenak noiztik aurrera izan dituen ondorioak ere. Gainera, datuok eguneratuta egon beharko dute.

Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren mendeko organo eskudunek edo, hala dagokionean, foru-aldundiek urteko ekitaldi bakoitzean Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari emango diote ukitutako herritarren errenta-mailen gaineko informazioa.

Era berean, desgaitasunaren, mendekotasunaren, enplegu-eskaeraren, familia ugarien, gazte-bermearen, langile autonomoen arloetan eta garrantzitsua den edozein egoera subjektibotan eskumena duten administrazio publikoek, entitateek eta erakundeek Gizarte Txartel Unibertsala erabiltzen baldin badute, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari emango diote egoera horiei buruzko informazio eguneratua, Gizarte Txartel Unibertsalean sartuta dauden herritarrei buruz.

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak eta Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiak lankidetzaren mekanismoak erabakiko dituzte, Gizarte Txartel Unibertsalean eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalan bildutako datuak koherenteak izan daitezen. Datuen elkarrekiko trukea ahalbidetzeko prozedura erregelamendu bidez ezarriko da, eta dirulaguntzei buruzko datuak baino ez dira emango.

Bost. Gizarte Txartel Unibertsalaren sisteman sartzen diren eta Bi apartatuan zerrendatutako gizarte-prestazio publikoen kudeaketaz arduratzen diren administrazio publikoek, entitateek eta erakundeek eskuragarri izango dute herritarrek jasotzen dituzten prestazio ekonomiko publikoari buruzko informazioa. Horrela, haiek kudeatzen dituzten prestazio ekonomiko publikoak onartu eta gainbegiratu ahalko dituzte. Era berean, herritarrak kontsultatu ahalko du Gizarte Txartel Unibertsalean bere buruari buruz bilduta dauden datu guztiak, erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan.

Sei. Gizarte Txartel Unibertsalaren sisteman bildutako datuen tratamendua interes publikoan oinarritzen da. Sistema integratu bat ezartzen da, non eduki ekonomikoko gizarte-prestazio publiko guztiak, kontuan hartu diren eta herritarrei eragiten dieten egoera subjektiboekin batera, bilduta baitaude, herritarren mesederako izango delakoan. Halaber, pertsona fisikoaren datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudiaren mende egongo da sisteman bildutako informazioa.

Zazpi. 2. apartatuan zehaztu diren eduki ekonomikoko gizarte-prestazio publikoak mailaka sartuko dira Gizarte Txartel Unibertsalaren informazio-sisteman, erregelamenduzko araudian ezartzen diren epeekin, baldintzekin eta prozedurekin bat etorrira.

Zortzi. Estatuko Administrazio Orokorreko, autonomia-erkidegoetako, Tokiko Administrazioetako, Gizarte Txartel Unibertsalean sartuta dauden gizarte-prestazio publikoen kudeaketaz arduratzen diren enpresa publikoetako eta Estatuan ordezkariak handieneko sindikatu- eta enpresa-erakundeetako ordezkariak osatutako batzorde batek zainduko du sistemak behar bezala funtziona dezan. Gutxienez urtean behin bilduko dira eta Errege Dekretu bidez zehaztuko dira haren osaera eta funtzionamendua.

Era berean, jarraipen-batzordeak eratu ahalko dira, autonomia-erkidego bakoitzaren eremuan.

Bederatzi. Gobernuari baimena ematen zaio xedapen gehigarri hau aplikatzeko eta garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan, dagokion Konferentzia Sektorialari aurrez jakinarazita.

Ehun eta berrogeita bigarren xedapen gehigarria. *Laguntza juridikorako hitzarmenak.*

Lege hau indarrean jarri eta gero, urriaren 1eko 40/2015 Legearen laugarren xedapen gehigarriari jarraikiz, horretan ezarritakora egokitu behar duten erakundeek jarraitu egingo

dute Justizia Ministerioarekin duten laguntza juridikorako hitzarmena edukitzen, indarraldi mugagabez (40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena).

Ehun eta berrogeita hirugarren xedapen gehigarria. *Lankidetzeta-hitzarmen jakin batzuen indarraldia.*

Estatuko Administrazio Orokorrari baimena ematen zaio Kanarietako Autonomia Erkidegoarekin honako hitzarmen hauek egin ditzan, 40/2015 Legearen 49. artikuluan ezarritako denbora-mugak gainditu arren (urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena):

1. Errepideen arloko hitzarmena: hitzarmena betearazteko sei urteko epea ezartzen da; eta hiru urtekoa, likidatzeko.
2. Auzitegi Gorenaren epaiak betearazteko hitzarmena, Estatuko Administrazio Orokorrak eta Kanarietako Gobernuak 2006ko urtarrilaren 31n sinatutako errepideen arloko hitzarmenaren betearazpenari buruzkoak. Hitzarmen hori aldatu zuten 2009ko azaroaren 17ko eta 2017ko abenduaren 29ko eranskinek: zortzi urteko iraupena ezartzen da.
3. Estatuko Administrazio Orokorrak eta Kanarietako Gobernuak 2006ko urtarrilaren 31n sinatutako errepideen arloko hitzarmenaren eranskina, 2009ko azaroaren 17ko eta 2017ko abenduaren 29ko eranskinek aldatuta, haren indarraldia 2021eko abenduaren 31 arte luzatzeko.

Ehun eta berrogeita laugarren xedapen gehigarria. *Sektore publikoko lanaldia.*

Bat. Lege hau indarrean jarri ondoren, sektore publikoko lanaldi orokorra urtean zenbatetsiko da. Asteko batezbestekoa hogeita hamazazpi ordu eta erdikoa izango da, ezarrita dauden edo, hala dagokionean, ezar daitezkeen lanaldi bereziak gorabehera.

Ondore horietarako, honako hauek dira Sektore Publikoa osatzen dutenak:

- a) Estatuko Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoetako administrazioak eta Tokiko Administrazioa osatzen duten erakundeak.
- b) Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileak eta zerbitzu erkideak.
- c) Erakunde autonomoak, enpresa-erakunde publikoak, administrazio-agintaritza independenteak eta berezko nortasuna juridikoa duen zuzenbide publikoko erakunde oro, administrazio publiko bati edo beste erakunde publiko bati atxikita edo haren mende egon zein ez, bai eta unibertsitate publikoak ere.
- d) Urriaren 1eko 40/2015 Legeak 118. artikuluan zehazten dituen partzuergoak (40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena).
- e) Fundazioak, baldin eta sektore publikoko erakunde batek edo zenbaitek egin badu, zuzenean nahiz zeharka, haiek eratzeko behar den ondarea osatzeko ekarpenen gehiengoa, edo haien fundazio-ondarea, % 50etik gorako portzentajea, erakunde horiek emandako edo lagatako ondasunez edo eskubidez eratuta badago.
- f) Merkataritza-sozietateek, baldin eta haien kapital sozialean, zuzenean nahiz zeharka, % 50etik gorako partaidetza badute apartatu honetako a) eta e) bitarteko letretan aipatutako erakundeek.

Bi. Aurrekoa gorabehera, administrazio publiko bakoitzak bere lan-egutegietan, negoziazio kolektiboa aurrez eginda, orokorrean ezarri den lanaldia ez den beste lanaldi arrunt bat ezarri ahalko du; edo, funtzio, zeregin eta sektore-eremu bakoitzari erreparatuta, beste urteko banaketa bat egitea, lanaldi motari, txandakako edo gaueko lanaldiei eta lanaldi bereziki nekagarriari arreta berezia emanda; eta, betiere, aurreko aurrekontu-ekitaldian aurrekontuen egonkortasunari, zor publikoari eta gastu-arauari buruzko helburuak bete baziren. Aurrekoa ezin da oztopo izan administrazio bakoitzak aldi baterako enplegu publikoa gehienez ere eremu bakoitzeko egiturazko lanpostuen % 8 izateko helburua bete dezan.

Tokiko erakundeei aplikatu ahal zaizkien araudiarekin bat etorrira, eta apartatu honetan ezarritakoaren arabera, lanaldiaren eta ordutegiaren estatu-erregulazioa osagarria izango da, baldin eta erakundeok bere lanaldiaren eta lan-ordutegiaren erregulazioa onartzen badute, betiere negoziazio kolektiboaren bidez aurrez adostuta.

Hiru. Era berean, aurreko atalean ezarritako eskakizunak betetzen dituzten administrazio publikoek zuzenbide publikoko edo pribatuko erakundeei eta haien mendeko erakundeei baimena eman ahalko diete beste lanaldi arrunt batzuk ezartzeko, baldin eta aurrekontu-egonkortasunaren helburuen betetzeari, zor publikoari edo gastu-arauari eragiten ez badiete, eta, horrez gain, ezin izango dio eragin aurreko Bi apartatuan aldi baterako enplegu publikoari buruz ezarritako helburuari ere.

Lau. Indargabetu egiten dira akordioetan, itunetan edota indarreko hitzarmenetan ezarrita dauden edo ezar daitezkeen xedapenak, xedapen honetan ezarritakoaren aurkakoak badira.

Bost. Administrazio publiko bakoitzak, negoziazio kolektiboa aurrez eginda, erabileraren libreko ordu-poltsa bat arautu ahalko du, eta ordu horiek metatu ahalko dira, harik eta urteko lanaldiaren % 5 bete arte. Ordu horiek berreskuratu ahalko dira ezarritako denboraldian, eta era arrazoituan baliatuko dira pertsona zaharrak, desgaitasuna duten pertsonak edo adingabeko seme-alabak zaintzeko, kasu bakoitzaren ezaugarrien arabera. Dagokion administrazioak honako alderdi hauek arautu beharko ditu: ordu-poltsa hori erabiltzeko aukera zer denboralditan sortuko den, poltsa metatzeko mugak eta baldintzak eta orduak berreskuratzeko epea.

Era berean, langileek 12 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasun duten seme-alabak zaindu behar badituzte, lanaldi jarraituko sistema espezifiko bat ezarri ahalko da.

Sei. Xedapen honek oinarritzko izaera du, eta Konstituzioaren 149.1.7., 149.1.13. eta 149.1.18. artikuluen babesean ematen da.

Ehun eta berrogeita bosgarren xedapen gehigarria. *Industria elektroiintentsiboek izan dituzten kostu gehigarrien konpentsazioa.*

Bat. Lege honek indarra hartzen duenetik ondoreak izanik, baimena ematen zaio Gobernuari, Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko ministroaren ekimenez eta Gai Ekonomikoetarako Gobernu Batzorde Eskuordetuak txostena emanda, bigarren apartatuaren arabera zehazten diren industria elektroiintentsiboek emateko laguntzen sistema bat ezar dezan, energia-trantsizioaren helburuak lortzeko izan dituzten kostuak murrizteko, Europar Batasunaren araudiarekin bat etorrira.

Bi. Laguntza horiek eskuratu ahalko dituzten enpresen kolektiboa erregelamendu bidez zehaztuko da, elektrizitatearen erabileraren intentsitateari eta hirugarren herrialdeekiko merkataritzaren intentsitateari erreparatuta, betiere estatu-laguntzak emateko gidalerro aplikagarrietan ezarritako mugen barruan.

Hiru. Bigarren apartatuan aipatzen diren industriek ordaindu behar dituzten kostuei Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko Ministerioak egingo dituen ekarpenak zuzenean eman ahalko dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 22.2.b) artikulua (dirulaguntzak emateko prozedurari buruzkoak) ezarri bezala.

Laguntzen sistema hori Energiaren Estatu Idazkaritzaren horretarako ezarritako aurrekontu-partidaren kargura finantzatu da.

Ehun eta berrogeita seigarren xedapen gehigarria. *Salgaiak airez eta itsasoz garraiatzeko konpentsazioen sistemari banana gehitzen zaio.*

Bat. Indarraldi mugagabez, banana gehitzen zaio salgaiak garraiatzeko konpentsazioen araubideari, 170/2009 Errege Dekretuaren azken xedapenetako lehenaren 2. apartatuan baimentzen duen moduan.

Ondorio horietarako, urte bakoitzeko Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean aurrekontu-kontzeptu independente bat, salgaiak garraiatzeko ematen diren gainerako konpentsazioetatik bereizita, sartu beharko da, eta kontzeptu horretan zehaztuko da

bananen garraioari dagozkion konpentsazioen zenbatekoa. Xede horretarako erabiltzen den zenbatekoa proportzioz banatuko da jasotako eskaeren artean.

Bi. Konpentsazioa aplikatuko zaio bananak Kanarietatik Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako lurraldeetara eta Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko akordioa sinatu duten gainerako estatueta airez edo itsasoz garraiatzeko pleitaren kostuari. Kanariar Uharteen arteko garraioa salbuetsita dago konpentsazio horietatik.

Hiru. Salgaien hartzaileak edo igortzaileak izango dira laguntzen onuradunak.

Lau. Bananak garraiatzeko konpentsazioak emateko deialdia, oro har, urte bakoitzeko lehen seihilekoan egingo da, Azpiegitura, Garraio eta Etxebizitzako estatu-idazkariaren ebazpenaren bidez. Europako Batzordearen baimena jaso eta hurrengo hilabetean egingo da konpentsazio horiek jasotzeko 2018ko deialdia.

Bost. Konpentsazioak eskatzen dituztenek 170/2009 Errege Dekretuaren 9. artikuluan bildutako dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Sei. Kanarietako Autonomia Erkidegoko Gobernuaren Ordezkaritzak ebatziko ditu aurkezten diren eskabideak eta dagozkien gastu-proposamenak. Halaber, aurreko urte naturalean egindako garraioei dagozkien obligazioak onartu eta aitortu ahalko ditu, ekitaldiko aurrekontu-kredituaren guztizko zenbatekoa mugatzat hartuta.

Zazpi. Artikulu honetan arautzen ez dena era osagarrian arautuko du 170/2009 Errege Dekretuan ezarritakoak. Kanarietako Autonomia Erkidegoko Gobernuaren Ordezkaritzari baimena ematen zaio konpentsazioen onarpenari buruz behar diren azalpenak eman ditzan.

Zortzi. Artikulu honetan arautzen diren konpentsazioak 2017ko urtarrilaren 1etik egin diren garraioei aplikatuko zaizkie.

Ehun eta berrogeita zazpigarren xedapen gehigarria. Hobaria, Kanarietako Autonomia Erkidegoko, Balear Uharteetako eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoetako herritar egoiliarak Espainiako gainerako lurraldeetara joateko eta handik itzultzeko garraioari esleituta.

Bat. Gobernuari baimena ematen zaio, 2018an eta indarraldi mugagabez, Kanarietako Autonomia Erkidegoko, Balear Uharteetako eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoetako herritar egoiliarak Espainiako gainerako lurraldeetara (aurrerantzean, «Penintsulatik kanpoko lurraldeak») joateko eta handik itzultzeko garraioari esleitutako hobariaren ehunekoa igo dezan. Zehazki, hauxe izango da hobariaren zenbatekoa;

a) Penintsulatik kanpoko lurraldeen eta Estatu Espainoleko gainerako lurraldeen artean bidaiariak airez garraiatzeko zerbitzu erregularren hobariaren ehunekoa zerbitzu erregularren tarifaren ehuneko 75 izango da, joateko edo joan-etorriko zuzeneko bide bakoitzeko.

b) Penintsulatik kanpoko lurraldeen eta Estatu Espainoleko gainerako lurraldeen artean bidaiariak itsasoz garraiatzeko txartelei aplikatu ahal zaien hobariaren ehunekoa zerbitzu erregularren tarifaren ehuneko 75 izango da, joateko edo joan-etorriko zuzeneko bide bakoitzeko.

Bi. Europar Batasuneko araudiari eta tarifa-askatasunaren printzipioari dagokienez, lehiaren arloko eskumena duten agintaritzek zaindu beharko dute bidaiariei zerbitzu ematen dieten enpresek, prezioak igotzeko asmoz, kolusio-itunik egin ez dezaten. Interes orokorreko premiazko arrazoiak daudenean, erreferentziako gehieneko prezioak ezarri ahalko dituzte, nahitaez zerbitzu publikokoak izan behar duten lineetan.

Ehun eta berrogeita zortzigarren xedapen gehigarria. Salgaien garraiorako dirulaguntzak.

Ekainaren 27ko 3/2017 Legeak, 2017rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrenak, Penintsulako autonomia-erkidegoen eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoen arteko salgaien garraiorako Dirulaguntzei buruzko ehun eta hogeita bederatzigarren xedapen gehigarriko bat eta hiru apartatuetan ezartzen dituen ehunekoak 2016ko urtarrilaren 1etik egin diren garraioei aplikatu ahalko zaizkie. Kanarietako Autonomia Erkidegoetako eta Balear

Uharteetako Gobernuaren Ordezkaritzei baimena ematen zaie 2016ko urtarrilaren 1etik egin diren garraioei emandako konpentsazioez gain, konpentsazio osagarriak eman ditzaten.

Ehun eta berrogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. *Energia-eraginkortasuna sustatzeko zerbitzuen kontratazioa.*

Estatuko sektore publikoaren esparruan, energia-eraginkortasuna sustatzeko gutxienez sei milioi euroko kontratua baimendu baino lehen, Ekonomia eta Ogasun Ministerioari txosten bat egiteko eskatu beharko zaio eta loteslea izango da. Txosten horretan, ministerioak iritzia eman beharko du kontratuak aurrekontuari eta finantza-konpromisoei dagokienez dakartzan ondorioei buruz, bai eta aurrekontuen egonkortasunaren helburua lortzeari begira daukan eraginari buruz ere, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera (2/2012 Lege Organikoa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa).

Horretarako, kontratazio-organoak, kontratuaren iraunaldi osoan zehar, kontratuko finantza- eta aurrekontu-alderdiei buruzko informazio osoa eman beharko du, finantzaketa lortzeko mekanismoei eta erabiltzea aurreikusten diren bermeei buruzkoa barne.

Kontratu hauetan, kontratazio-espeditentea edo kontratuaren aldaketa onartu aurretik ere, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren txostena lortu beharko da, baldin eta, zenbatekoa edozein izanda ere, kontratua finantzatzeko estatuaren edozein eratako laguntza edo ekarpen aurreikusten bada, edo maileguak edo diru-aurrerakinak ematea aurreikusten bada.

Ehun eta berrogeita hamargarren xedapen gehigarria. *Laguntza, Santiagoko Partzuergoak Donejakueren 2021. Urte Santua eta Santiago de Compostelako katedrala sustatzeko proposatzen dituen jarduerak antolatzeke.*

Santiagoko Partzuergoa Santiago hiriko Errege Patronatuko organo instrumentala da, eta Gobernuak partzuergoari laguntzen dio, Santiago hiriak eta Santiago de Compostelako Katedralak osatzen duten kultura-ondarea zaintzen eta indarberritzen; alderdi historiko-artistikoak eta arkitekturari buruzkoak zaintzen; balio europazaleak zabaltzen eta Donejakue bideari lotutako turismo- eta kultura-jarduerak garatzen eta indartzen.

Horretarako, Donejakueren 2021. Urte Santuari lotutako ezohiko jarduerak garatzeko behar diren jarduketak xedatuko dira.

Ehun eta berrogeita hamaikagarren xedapen gehigarria. *Lurraldeko administrazioei emateko pizgarriak.*

Zerga eta Finantza Politikako Kontseiluak edo, hala dagokionean, Tokiko Administrazioaren Batzorde Nazionalak eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independentek aurrez txostena eginda, Gobernuak lurraldeko administrazioei emateko pizgarriak onetsi ahalko ditu, zerga-arauak eta helburu espezifikokoak zenbateraino bete dituzten. Horrela, zorrak itzultzeko kuotak itzultzegatik eragin diren baliabide txikiagoek zor-tasaren gainean duten eragina murriztuko da.

Pizgarri horiek Estatuaren kredituen zenbateko osoari edo zati bati eragin ahalko diote, bai eta finantza-baldintzei ere.

Ehun eta berrogeita hamabigarren xedapen gehigarria. *Zerbitzu digital zehatz batzuen gaineko zerga.*

Lege hau indarrean jarri eta hiru hilabetera, Gobernuak Gorte Nagusiei lege-proiektu bat bidaliko die, zerbitzu digital zehatz batzuen gaineko zerga berri bat arautzeko. Horren oinarria Europako Batzordeak 2018ko martxoaren 21ean aurkeztu zuen zerbitzu digitalen gaineko zergaren proposamena da; halaber, kontuan hartu da Kongresuak 161/002996 Legez besteko proposamena onartu zuela, multinazional teknologikoen benetako

tributazioa bermatze aldera (proposamena apirilaren 18ko *Gorte Nagusietako Aldizkari Ofizialean* argitaratuta dago).

Ehun eta berrogeita hamahirugarren xedapen gehigarria. *EFE Agentzia finantzatzea.*

Lege hau indarrean egon bitartean, Estatuko Administrazio Orokorrak Agencia EFE SAU agentziari 51.000 mila euro transferituko dio, zerbitzu publikoaren funtzioak eta betebeharrak betetzeagatik. Transferentzia behin betiko likidazioaren kontura egingo da, behin ekitaldia amaituta, eta azaroaren 8ko 9/2017 Legearen berrogeita hamahirugarren xedapen gehigarrian —Estatuko titulartasuna duten albisteen zerbitzu publikoa arautzen du— ezarritako agindua betez onartzen diren erregelamenduzko xedapenetan ezartzen den metodologiaren arabera egingo da (9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuena).

Ehun eta berrogeita hamalagarren xedapen gehigarria. *Hezkuntza-inklusioa bermatze aldera, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioari aplikatu ahal zaizkion baldintzak, hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleei laguntzak emateko deialdietan.*

Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren II. Tituluan ezarritako ekitatearen printzipioa hezkuntzan bermatzen jarraitze aldera (2/2006 Lege Organikoa, Hezkuntzari buruzkoa), 2/2006 Lege Organikoaren 72.2 eta 83. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorrira, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleentzako banakako laguntzak emateko urteko deialdietan aurreikuspen espezifikokoak sartuko ditu II. titulu horretako I. kapituluko hirugarren eta laugarren ataletan aipatzen diren kolektiboentzat. Aurreikuspen horiek osatuko dituzte lehen eta bigarren ataletako ikasleentzat jada indarreko araudietan ezarrita daudenak. Aurrekontu-baliabideekin bat etorrira, aurreikuspen horiek mailaka ezarriko dira 2019-2020ko deialdiaren osteko deialdietan. Hurrengo deialdi horietan, edonola ere, banakako laguntza jasotzeko eskubidea sortzen duen egoera era frogagarrian egiaztatzeko baldintzak eta modua ezarri beharko dira.

Laguntza horiek emateko, behin ziurtatuta hezkuntza-laguntzaren beharra dagoela, onuradunaren familia-unitatearen eskakizun ekonomikoari eskusiboki erreparatuko zaie.

Ehun eta berrogeita hamabosgarren xedapen gehigarria. *2017rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legearen azken xedapenetako hemeretzigarrenak abenduaren 18ko 22/2009 Legearen bigarren xedapen gehigarrian egin zuen aldaketak gastu-arauan izan dituen ondorioak (22/2009 Legea, Araubide Erkideko Autonomia Erkidegoen eta Autonomia Estatutudun Hirien Finantzaketa Sistema arautzekoa eta zenbait tributu-arau aldatzekoa).*

2017rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legearen azken xedapenetako hemeretzigarrenak abenduaren 18ko 22/2009 Legearen bigarren xedapen gehigarrian egin zuen aldaketaren izaera eta apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 12.4 artikuluan ezarritako diru-bilketaren gehikuntza iraunkorrena berdina izango dira (22/2009 Legea, Araubide Erkideko Autonomia Erkidegoen eta Autonomia Estatutudun Hirien Finantzaketa Sistema arautzekoa eta zenbait tributu-arau aldatzekoa; 2/2012 Lege Organikoa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa).

Ehun eta berrogeita hamaseigarren xedapen gehigarria. *Banda zabala Asturiasera luzatzea.*

2018ko ekitaldian, belaunaldi berriko banda zabala luzatzeko laguntzen programarako deialdian 4.073.417 euro bideratuko dira, eta lehentasuna emango zaio Asturiasko Printzerriko Autonomia Erkidegoan jarduketak finantzatzeari.

Ehun eta berrogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria. *Trafikoaren arloko aztertzaileak, Nafarroako Foru Komunitatean.*

«Estatuko Administrazio Orokorraren Administrazio Kidego Administrazio Orokorrean irispide libreko sistemaren bidez sartzeko hautaketa-prozesua. Trafikoaren arloko espezialitatea. Kidegoaren kodea: 1135I» arautuko duten oinarriak 2018ko urtarrilaren 26ko BOEn argitaratu ziren. Nafarroako Foru Komunitatean aspalditik gertatu da trafikoaren arloko behar adina aztertzaile ez izatea, eta horrek arazo larriak ekartzen dizkie erakundeei eta herritarrei.

Desberdintasun-egoera hori konpontze aldera, aipatutako hautaketa-prozesu horretako gutxienez 5 lanposturen destinoak Nafarroako Foru Komunitateko probintziako trafiko-buruzagitza izan beharko du.

Ehun eta berrogeita hemezortzigarren xedapen gehigarria. *Nafarroako Foru Komunitateko Irakasleen Kidegoen erretiroa.*

1. Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren zazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren irakasleen kidegoetako karrerako funtzionarioek, Nafarroako Foru Komunitatearen mende daudenean, abenduaren 30eko 31/1991 Legearen hogeita bederatzigarren xedapen gehigarriaren arabera edo apirilaren 12ko 7/2007 Legearen zortzigarren xedapen iragankorraren arabera kidego horietan sartu zirenek eta, 13/2010 Errege-lege Dekretuaren 20. artikulua indarrean jarri aurretik, Klase Pasiboen araubidea ez den Gizarte Segurantzaren beste araubide batean edo aurreikuspen-araubide batean sartu zirenek, borondatezko erretiroa eskatzen dutenean, Estatuaren Klase Pasiboen Araubidean sartzeari aukeratu ahalko dute, eta araubide horretako irakasle kidegoetako karrerako funtzionarioen baldintza berak izango dituzte, baldin eta ziurtatu egiten badute azken funtzionario horiek bete behar dituzten indarreko eskakizunak haiek ere betetzen dituztela.

2. Xedapen gehigarri honetan araututako erretiroa borondatezkoa denez gero, ez zaio aplikatuko Estatuko Klase Pasiboei buruzko Legearen indarreko testu bateginaren lehen xedapen iragankorrean ezarritakoa.

3. Gizarte Segurantzako erregimenen arteko kuoten zenbaketari buruzko apirilaren 12ko 691/1991 Errege Dekretuaren seigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako Batzordeak, nolahi ere, Gizarte Segurantzak Estatuko Klase Pasiboen Erregimenari lotzea erabakitzen duten irakasleen kidegoetako langileei dagokienez egin beharreko konpentsazio ekonomikoa finkatuko du, Gizarte Segurantzako gainerako erregimenetan kotizatutako urteen arabera.

Ehun eta berrogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria. *Nafarroako Foruzaingoko kideei erretiro-adina murrizteko koefizienteak aitortzea.*

Gizarte Segurantzako Estatu Idazkaritzaren bitartez hasi da Nafarroako Foruzaingoko kideei erretiro-adina murrizteko koefizienteen aitortpenerako izapideak betetzeko egin behar den prozedura, azaroaren 18ko 1698/2011 Errege Dekretuaren babesean (1698/2011 Errege Dekretua, Gizarte Segurantzaren sisteman koefiziente murriztaileak ezarri eta erretiro-adina aurreratzeko erregimen juridikoa eta prozedura orokorra arautzen dituen). Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak jarduketa eta izapide egokiak eginda eta azterlanak aztertuta, Gobernuak, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako ministroak proposatuta, dagokion Errege Dekretua onartuko du ahal bezain laster, Nafarroako Foruzaingoko kolektibo horrek eskatuta.

Ehun eta hirurogeigarren xedapen gehigarria. *Ibilgailuen euspen-sistemari aplikatzeko irizpideak.*

Lege hau indarrean jarri eta hiru hilabetera, Sustapen Ministerioak onartu beharko ditu 35/2014 Zirkular Aginduan egin behar diren aldaketak (35/2014 Zirkular Agindua ibilgailuen euspen-sistemiari aplikatzeko irizpideei buruzkoa da), INVIVE MOTOS indizeen arabera,

biktimen kopuru handiena metatu duten erabilera aktiboko gune eraikietan motoziklistak babesteko sistema era orokortuan eta lehenetsian ezartzeko eta sistema horiek seguruenak izan daitezen (I. mailakoak eta 70. motakoak).

Ehun eta hirurogeita batgarren xedapen gehigarria. *Interes orokorreko obrak.*

Honako obra hauek interes orokorrekotzat hartzen dira:

- 1) Illa de Arousa araztea eta saneatzea.
- 2) Sanxexo araztea eta Raxó saneatzea.
- 3) Ponteaeras herriko hondakin-uren araztegia handitzea eta hobetzea. 1. fasea.

Ehun eta hirurogeita bigarren xedapen gehigarria. *Interes orokorreko obrak.*

Bat. Interes orokorrekotzat hartu dira V. eranskinean («Gaztela eta Leongo Juntarekiko lankidetzaren protokolo orokorra, saneatzeko eta arazteko lanen eremuko lanen lankidetzarako protokolo orokorra finkatzeko: Uren Kalitatea zaintzeko Plan Nazionala gauzatzea: Saneatzea eta araztea 2007-2015») bildutako obrak. Estatuko Administrazio Orokorrak dauka obrak gauzatzeko esleipena:

- 1) Valladolideko Quintanilla de Onésimo herriko hondakin-uren araztegi berria.
- 2) Valladolideko Villanueva de Duero herriko hondakin-uren araztegi berria.
- 3) Valladolideko Aldeamayor herriko hondakin-uren araztegi berria.
- 4) Salamancako Villavieja de Yeltes herriko hondakin-uren araztegi berria eta loturak.
- 5) Segoviako Ayllón herriko hondakin-uren araztegi berria eta hustubidea.
- 6) Zamorako San Cristóbal de Entreviñas herriko hondakin-uren araztegi berria.
- 7) Palentziako Astudillo herriko hondakin-uren araztegi berria.
- 8) Valladolideko Esguevillas herriko hondakin-uren araztegi berria.
- 9) Valladolideko Valoria la Buena herriko hondakin-uren araztegi berria.

Bi. Xedapen gehigarri honetan jasotako obrek berekin ekarriko dituzte deklarazio hauek:

- a) Onura publikoarena, eta ondasunak okupatu eta eskubideak eskuratzeko beharrarena, nahitaezko desjabetzea eta aldi baterako okupazioa gauzatzeko, dagokion legerian ezarritakoarekin bat etorrita.
- b) Presako okupazioarena, Nahitaezko desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikulua aipatutako ukitutako ondasunen okupazioaren ondorioetarako.

Ehun eta hirurogeita hirugarren xedapen gehigarria. *Interes orokorreko obrak.*

Bat. Interes orokortzat hartu dira Anexo V.A eranskinean («Ingurumen Ministerioaren, Iparraldeko Konfederazio hidrografikoaren eta Asturiasko Printzerriaren arteko lankidetzaren hitzarmena, Uren Kalitatea zaintzeko Plan Nazionala Asturiasko Printzerrian gauzatzeko: Saneatzea eta araztea 2007-2015») jasota dauden hiru obrak, hiriko hondakin-urak hondartzaren eremuan isurtzen diren aglomerazioei lotuta. Estatuko Administrazio Orokorrak dauka obrak gauzatzeko esleipena:

- 1) Asturiasko Tapia de Casariego saneatzea eta hondakin-uren araztegia.
- 2) Asturiasko Bañugues eta Antromero saneatzea eta Gozón (4. fasea) saneatzea.
- 3) Asturiasko Villaviciosa herriko saneamenduari gehitzea, ezkerreko aldean.

Bi. Xedapen gehigarri honetan jasotako obrek berekin ekarriko dituzte deklarazio hauek:

- a) Onura publikoaren deklarazioa eta ondasunak okupatu eta eskubideak eskuratzeko beharraren deklarazioa, nahitaezko desjabetzea eta aldi baterako okupazioa gauzatzeko, dagokion legerian ezarritakoarekin bat etorrita.

b) Presako okupazioarena, Nahitaezko desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikulua aipatutako ukitutako ondasunen okupazioaren ondorioetarako.

Ehun eta hirurogeita laugarren xedapen gehigarria. *Tokiko administrazioen mendeko tokiko polizien kidegoetako kideei erretiro-adina aurreratzeari lotutako kotizazioen arloko berezitasunak.*

Kolektibo horren erretiro-adina murrizteko koefizientea ezartzen duen erregelamenduzko araua indarrean jartzen denetik, tokiko administrazioen mendeko tokiko polizien kidegoetako kideei kotizazio mota gehigarria aplikatu ahalko zaie kontingentzia aruntengatiko zerga-oinarriaren gainean, bai Administrazioari, bai funtzionarioei.

Aurreko paragrafoan aipaturiko kotizazio-tasa gehigarria ehuneko 10,60 izango da. Ehuneko horretatik, ehuneko 8,84 administrazioaren kontura izango da; eta ehuneko 1,76, funtzionarioaren kontura.

Ehun eta hirurogeita bosgarren xedapen gehigarria. *Tokiko polizien kidegoaren berrezarpen-tasa.*

Lege honen 19. artikuluan ezarritakoaz gain, eta administrazio publikoek segurtasun eta ordena publikoaren arloan bete behar dituzten funtzioak bermatze aldera, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko 206.1 artikuluan ezarritakoa aplikatzen baldin bada, eta, ondorioz, tokiko polizien erretiro-adina aurreratzen baldin bada, tokiko erakundeek 2018an berrezarpen-tasa gehigarria baliatu ahalko dute, baina kolektibo horri aplikatzeko baino ez. Ekitaldi honetan eta 2019ko ekitaldian erretiro-adinaren aurrerapen horren ondorioz aurreikusten diren bajen kopuruaren arabera zehaztuko da tasa hori. Tasa gehigarri hori deskontatuko da 2019ko eta 2020ko ekitaldietan aplikatzekoa izango den tasatik.

Ehun eta hirurogeita seigarren xedapen gehigarria. *Azpiegitura publikoak lizitatzeko konpromisoa.*

Estatuaren Aurrekontu Orokorraren lege hau indarrean jarrita, honako konpromiso hauek hartzen ditu Espainiako Gobernuak:

1. Autonomia-erkidegoetan hartu dituen lizitazio- eta gauzatze-konpromisoak eta egutegiak betetzea: errepide- eta trenbide-arloetan (abiadura handia, sare arrunta eta aldirikoak, errepideetan aipatutako integrazio-programak barne hartuta), aireportuko eta portuko arloetan, bai eta etxebizitzaren eta garraiobideen arloetan ere.

2. Sustapeneko ministroak hiru hilez behin Senatuan agertzea, Espainiako Gobernuak lurralde bakoitzean azpiegituren, garraioen eta etxebizitzaren arloetan hartu dituen konpromisoen betetze-egoeraren kontu eta berri eman dezan.

Ehun eta hirurogeita zazpigarren xedapen gehigarria. *Aragoiko Autonomia Erkidegoko Prebentzio, Suhiltzaile eta Salbamendu Zerbitzuko langileak.*

Lege honetako 19.Bi artikuluan ezarritakoaz gain, Aragoiko Autonomia Erkidegoko administrazio publikoari tasa gehigarri bat baimentzen zaie, Prebentzio, Suhiltzaile eta Salbamendu Zerbitzuko langileei aplikatzeko, baldin eta, aurrekontu-zuzkidura izanik, beharrezkoak badira martxoaren 7ko 1/2013 Legea —Prebentzio, Suhiltzaile eta Salbamendu Zerbitzuak erregulatzeko eta koordinatzeko— betetzeko; zehazki, Prebentzio, Suhiltzaile eta Salbamendu Zerbitzuetan parkeen eta subparkeen antolaketari eta egiturari dagokienez, eta baldin eta Aragoiko Gobernuak erregelamenduz zehazten baditu langileen, instalazioen eta tresnen gutxieneko zuzkidurak, betiere kontuan hartuta lege honen aplikazioak dakarren presa eta salbuespen-egoera.

Hautatze-prozesu horien artikulazioa —nolanahi ere lehia askearen, berdintasunaren, merezimenduaren, gaitasunaren eta publikotasunaren printzipioen betetzea bermatuko ditu— Estatuko Administrazio Orokorraren lurralde-esparru bakoitzean, autonomia-

erkidegoetan eta toki-erakundeetan negoziatu ahalko da, eta haien garapenean administrazioen arteko koordinazioa bideratzen duten neurriak hartu ahalko dira.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengo xedapen iragankorra. *Estatuko sektore publikoaren zerbitzupeko langileen bizilekuagatiko kalte-ordaina.*

2018an, Estatuko sektore publikoko langile aktiboen bizilekuagatiko kalte-ordaina orain arte bezala ordainduko da hala onartuta duten Estatuko lurraldeetan, eta 2017ko abenduaren 31n indarrean zeuden zenbateko berdinetan, 18.Bi artikuluan ezarritako gehikuntza aplikatuta.

Nolanahi ere, bizilekuagatiko kalte-ordainaren onuradunek jasotzen duten zenbatekoa handiagoa bada Estatuko sektore publikoko langileentzat ezarritakoa baino, gehikuntzarik gabe jasotzen jarraituko dute 2018an, edota aipatutako langileentzat ezarritako zenbatekora iristeko dagokion gehikuntzarekin.

Bigarren xedapen iragankorra. *Osagarri pertsonalak eta iragankorrak.*

Bat. Osagarri pertsonalek eta iragankorrek eta antzeko izaera duten gainerako ordainsariek euren berriazko araudian eta dagokien Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean ezarritakoa beteko dute.

Bi. 1985erako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 50/1984 Legearen 13. artikuluan xedatutakoari jarraituz abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aplikazio-eremuko langileei aitortutako osagarri pertsonalek eta iragankorrek aurreko urteko abenduaren 31n zuten zenbateko bera izango dute, eta lanpostu-aldaketak eragindako hobekuntzek, halakorik egonez gero, xurgatu egingo dituzte.

Lanpostu-aldaketak ordainsarien murrizketa ekartzen duen kasuetan ere, eutsi egingo zaio sistema berria aplikatzearen ondorioz ezarritako osagarri pertsonal iragankorrari, eta haren xurgatzeari egotziko zaizkio lanpostu-aldaketak eragin ditzakeen hobekuntzak.

Aurreko paragrafoetan aurreikusitako xurgatzea egiteko, lege honetan ezartzen den ordainsari orokorren gehikuntza bere zenbatekoaren ehuneko 50ean soilik zenbatuko da. Horri dagokionez, soldatak —hamalau hilabete-saritan—, destino-osagarriak eta berriazko osagarriak izaera hori dutela joko da.

Aitzitik, hirutekoak, produktibitate-osagarria eta aparteko zerbitzuengatiko haborokinak ez dira kontuan hartuko.

Hiru. Indar Armatuak, Guardia Zibileko eta Polizia Nazionaleko langileei, Gizarte Segurantzako Administrazioaren funtzionarioei eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionaleko estatutupeko langileei aitortutako osagarri pertsonalek eta iragankorrek, bai eta halakoak jasotzeko eskubidea duten gainerako langileei aitortutakoek ere, aurreko Bi paragrafoan ezarritako arau berberak bete beharko dituzte.

Lau. Atzerrian destinatutako langileei aitortutako osagarri pertsonalak eta iragankorrak Estatuan lan egiten duten langileentzat ezarritako arau berberak aplikatuz xurgatuko dira; nolanahi ere, ukitutako funtzionarioak destino-herrialdea aldatzean, bertan behera utzi ahal izango da.

Hirugarren xedapen iragankorra. *Gizarte Prestazio Publikoen Erregistroa.*

Gizarte Prestazio Publikoen Erregistroa Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalean eratuta dago, eta institutuak kudeatzen du. Erregistroari dagokionez, indarrean jarraituko dute Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategineko 72. artikuluan ezarritako baldintzek, bai eta martxoaren 1eko 397/1996 Errege Dekretuan ezarritakoek ere. Hortaz, errege-dekretu horretako 9. artikuluan aipatzen den katalogoan jasotako erakundeei, organismoei eta enpresei zerbitzu emango die, harik eta, lege honetako ehun eta berrogeita batgarren xedapen gehigarria garatuz, Gizarte Txartel Unibertsala arautuko duen erregelamenduzko arauan ezartzen den eguna arte.

Funtzionamenduan hasi eta gero, Gizarte Prestazio Publikoen Erregistroaren gaur egungo edukia Gizarte Txartel Unibertsalean sartuko da. Martxoaren 1eko 397/1996 Errege Dekretuak eta urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuten Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategineko 72. artikuluan araututa dago Gizarte Prestazio Publikoen Erregistroa.

Laugarren xedapen iragankorra. *Erreklamazio ekonomiko-administratiboen araubide iragankorra, Klase Pasiboen arloan.*

Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren eskumeneko pentsio eta eskubide pasiboen onarpenaren eta ordainketaren arloetako erreklamazio-ekonomikoak lege hau indarrean jarri baino lehen emandako egintzen eta ebazpenen aurka jarri baziren, eman ziren egunean indarrean zeuden arauen arabera bideratuko dira, auzia amaitu arte.

Bosgarren xedapen iragankorra. *Telekomunikazio-operadoreen tasa orokorra.*

Maiatzaren 9ko 9/2014 Legearen I. eranskineko 1. apartatuan aipatzen den operadore-tasa orokorra lege hau indarrean jarri baino lehen likidatu ez baldin bada, azken xedapenetako hirurogeita hamabigarrenean ezarritakoaren arabera likidatuko da.

Seigarren xedapen iragankorra. *Matrikula turistikoaren araubidea.*

Lege hau indarrean jartzen denean, irailaren 10eko 1571/1993 Errege Dekretuaren babesean matrikula turistikoa duten ibilgailuen eta ontzien jabeek ibilgailuok eta ontziok ahal izango dituzte, harik eta baimendutako epea amaitu arte, eta, gehienez ere 2018ko abenduaren 31 arte (1571/1993 Errege Dekretuak matrikula turistikoaren erregelamentazioa barne merkatuaren zerga-armonizazioaren ondorioetara moldatzen du).

Zazpigarren xedapen iragankorra. *Prestazio ekonomikoa, aldi baterako ezintasun-egoeran dauden administrazio publikoen, mendeko organismo eta erakundeen eta konstituzio-organoen zerbitzupeko langileentzat.*

Administrazio publikoek aldi baterako ezintasun-egoeran dauden administrazio publikoetako langileen ordainsariak zehaztu arte, lege honetako berrogeita hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuko 9. artikuluan eta abenduaren 27ko 17/2012 Legearen hogeita hemezortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoak aplikagarria izaten jarraituko du (20/2012 Errege Lege Dekretuak aurrekontuen egonkortasuna bermatzen du; eta 17/2012 Legea 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrena da). Erregulazio berria indarrean jarri eta gero, arau bi horiek ezin izango zaizkie aplikatu dagokion administrazioari, ezta administrazioen mendeko erakunde eta entitateei ere.

Zortzigarren xedapen iragankorra. *Fiskaltzako kargudun zehatz batzuek 2018an jaso behar dituzten 2017ko ordainsariak.*

2018an soilik indarrean egonik, honako taula honetan jasota dauden Fiskaltzako kideek (Estatuko fiskal nagusia salbuetsita, lege honen 27. artikuluko bost apartatuko 4. zenbakian arautzen baita), 2017ko urtarrilaren 1eko ondorio berak izanik, ekainaren 27ko 3/2017 Legearen 27. artikuluko bost apartatuko 3. zenbakian aipatzen diren Auzitegi Goreneko magistratuen ordainsari berak jasoko dituzte (3/2017 Legea 2017rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrena da); horrez gain, urtean bi paga jasoko dituzte (bata ekainean eta bestea abenduan). Hona hemen zenbatekoak:

Ministerio Fiskaleko kide zehatz batzuk	Zenbatekoa, eurotan
Auzitegi Goreneko fiskalburuordea	6.992,92

Fiskalburu ikuskatzailea, Konstituzio Auzitegiaren aurreko Fiskaltzako fiskalburua eta Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzako fiskalburua	6.992,92
Kontuen Auzitegiko Fiskaltzako fiskalburuak, Estatuko fiskal nagusiaren Idazkaritza Teknikoko eta Laguntza Unitateko fiskalburuak, Fiskaltza berezietako fiskalburuak (drogaren, ustelkeriaren eta kriminaltasun antolatuen aurkakoak) eta Auzitegi Goreneko salako fiskalak	6.873,19

Abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aplikazio-eremuan bildutako funtzionarioei aplikatu beharreko aparteko ordainsariei buruzko araudiaren araberakoak izango dira zenbateko horiek.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Lehenengo xedapen indargabetzailea. *Indargabetu egiten da urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 72. artikulua.*

Hirugarren xedapen iragankorrean ezarritakoa gorabehera, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 72. artikulua indargabetzen da (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako legea).

Bigarren xedapen indargabetzailea. *Kendu egiten da abenduaren 17ko Zergei buruzko 58/2003 Legearen hamaikagarren xedapen gehigarriko 1.c) apartatua.*

Kendu egiten da abenduaren 17ko Zergei buruzko 58/2003 Legearen hamaikagarren xedapen gehigarriko 1. apartatuko c) letra.

Hirugarren xedapen indargabetzailea. *Matrikula turistikoaren araubidea indargabetzea.*

Bat. Maiatzaren 21eko 7/1993 Errege lege-dekretuaren bigarren xedapen gehigarria indargabetzen da (Errege Lege-dekretuak balio erantsiaren gaineko zerga, garraibide jakin batzuen gaineko zerga berezia, Kanarietako zeharkako zerga orokorra, Kanariar Uharteetako ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko ariela eta salgaien sarreraren gaineko ariel irlatarraren tarifa berezia egokitzeko eta aldatzeko premiazko neurriak ezartzen ditu).

Bi. Indargabetu egiten da Matrikula turistikoari buruzko araudia barne-merkatuaren harmonizazio fiskalaren ondorioei egokitzeko den irailaren 10eko 1571/1993 Errege Dekretua.

Laugarren xedapen indargabetzailea. *Ekainaren 29ko 2/2012 Legearen hirurogeita hamaikagarren xedapen gehigarria indargabetzea (2/2012 Legea, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrena).*

Indargabetu egiten da 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen hirurogeita hamaikagarren xedapen gehigarria.

AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetako lehena. *Urtarrilaren 8ko 4/1986 Legea, Sindikatu-ondare metatuko ondasunak lagatzeari buruzkoa, aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da urtarrilaren 8ko 4/1986 Legea, Sindikatu-ondare metatuko ondasunak lagatzeari buruzkoa. Honela geratzen da idatzita:

Bat. Aldatu egiten da urtarrilaren 8ko 4/1986 Legearen zazpigarren artikuluko 3. zenbakia. Honela idatzita geratzen da:

«3. Sindikatu-ondare metatuan sartuta dauden ondasunak besterentzearen ondoriozko zenbatekoa honetarako erabiliko da: balio baliokideko ondasunak erosteko; eraikuntza-obrak egiteko; sindikatu-ondare metatuko ondasunak zaintzeko, eraldatzeko eta egokitzeko; eta, oro har, lege honetan eta beraren erregelamendu betearazlean ezarritako xedeetarako.

Era berean, lege honetako bederatzigarren xedapen gehigarrian aipatutako errentamenduak ordaintzeko erabiliko da.»

Bi. Gehitu egin zaio bederatzigarren xedapen gehigarria 1986ko urriaren 8ko 4/1986 Legeari. Honela idatzita geratzen da:

«Bederatzigarren xedapen gehigarria. *Errentamenduak.*

Pertsonen eta ondasun higiezinaren segurtasuna bermatzeko eta lege honi lotutako xedeetarako espazioen premiei erantzuteko, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako ministroak ondasun higiezinak alokatu ahalko ditu, langileen sindikatuari eta enpresa-erakundeei horien erabilera lagatzeko, lege honetako hirugarren artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

Honako kasu hauetan baliatu ahalko da eskumen hori:

a) Geroraezina den egitura-obra bat egin behar delako, gizarte-solaskideei laga zitzaizen sindikatu-ondare metatuari atxikitako eraikin bat hustu behar denean, obraren amaierako harrera egin arte.

b) Lege honen xedeak bete ahal izateko, Estatuaren titulartasuneko eraikinek lantoki gisako erabilera bermatzeko bizigarritasun-baldintzak betetzen ez dituztenean, eta eraikin horiek birgaitzeko obrak egitea ezinezkoa denean.

Errentamendu-kontratuek gehienez ere bost urteko indarraldia izango dute.

Edonola ere, errentan hartutako ondasun higiezinak erabilera horietarako lagatzen direnean, lege honetan ezarritako prozedura bete beharko da.»

«Azken xedapenetako bigarrena. *Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bategina (apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) aldatzea.*

Aldatu egiten da apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Estatuko Klase Pasiboei buruzko Legearen testu bategina. Honela:

Bat. Aldatu egiten da Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bateginaren 14. artikulua. Honela idatzita geratzen da:

«14. artikulua. *Administrazio-egintzak errekurtsoen bidez aldatzea.*

1. Langileen eta Pentsio Publikoen Kostuen Zuzendaritza Nagusiak bere eskumenaren mendeko klase pasiboei buruz hartzen dituen erabakiek bide administratiboa amaituko dute, eta errekurtsoa aurkeztu ahalko da Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan, uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoarekin bat etorrita (29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena). Administrazioarekiko auzien bidera jo baino lehen, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko da Langileen eta Pentsio Publikoen Kostuen Zuzendaritza Nagusian.

2. Langileen eta Pentsio Publikoen Kostuen Zuzendaritza Nagusiak bere eskumenaren mendeko klase pasiboei buruz hartzen dituen erabakien aurkako errekurtsok aurkeztu ahalko dituzte interesdunek, aurreko artikuluetan ezarritakoari jarraikiz. Defentsa Ministerioan aurkeztu ahalko dituzte, dagokion administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu aurretik.

3. Edonola ere, eskubide pasiboak aitortzeko edo aldatzeko eskaerak ez dira inola ere errekurtsu gisa onartuko, baldin eta argudiatzen badute eskubideak ukatzeko edo mugatzeko ebazpenaren oinarritzat hartu zen pertzepzioen

bateraezintasuna edo konkurrentzia ezabatu dela, edo kontuan hartu ez ziren edo erabaki primitiboa eman zenean ezagunak ez ziren egitateak eta eskubideak daudela; hargatik eragotzi gabe testu honetan bilduta dauden eskubide horien iraugitze-arauei buruzko arauak.»

Bi. Aldatu egiten da Estatuko Klase Pasiboei buruzko Legearen testu bateginaren 39. artikulua 3 zenbakia. Honela idatzita geratzen da:

«3. Aurreko arauen arabera zehazten den oinarri arautzaileari 100eko 50eko ehuneko finkoa aplikatuko zaio, alarguntza-pentsioaren zenbatekoa lortzeko.

Ehuneko hori 100eko 25 izango da, baldin eta eskubidearen eragilea hil bada, zerbitzu-egintzan edo zerbitzu-egintzaren ondoren zerbitzurako erabilezintzat aitortu eta gero, eta zegokion ezohiko pentsioa beraren alde adierazi ondoren.

Aurreko paragrafoetan ezarritakoa gorabehera, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan, ehuneko horiek 4 edo 2 puntu handituko dira, baldin eta onuradunak betekizun hauek betetzen baditu:

a) 65 urte edo gehiagokoa izatea.

b) Espainiako edo atzerriko beste pentsio bat ez jasotzea.

b) Langile autonomo gisa edo besteren konturako lanen ondoriozko diru-sarrerarik ez jasotzea.

d) Kapitalaren, jarduera ekonomikoen edo ondare-irabazien etekinek ez gainditzea dagokion Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean gutxieneko alarguntza-pentsioaren onuraduna izateko ezartzen den diru-sarreraren muga, urtean zenbatuta; betiere pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan errenta horietarako ezarrita dagoen kontzeptuarekin bat etorrira.»

Hiru. Aldatu egiten da Estatuko Klase Pasiboei buruzko Legearen testu bateginaren 48. artikulua 3 zenbakia. Honela idatzita geratzen da:

«3. Hala eta guztiz ere, ezohiko pentsioa terrorismo-egintza batek eragin baldin bazuen, eskubide pasiboen sortzailearen seme-alabek zurtasun-pentsioa jasotzeko eskubidea izango dute, baldin eta hogeita hiru urtetik beherakoak badira, bai eta adin hori bete arte edo eskubideon eragilea hil arte lan oro egiteko ezintasun-egoeran bazeuden.

Umezurtzak besteren konturako edo bere kasako irabazizko lanik egiten ez badu, edo, horrelako lanik eginda ere, urtean zenbatuta, une bakoitzean ezarrita dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoa baino diru-sarrera txikiagoak izaten baditu, zurtasun-pentsioaren onuraduna izan ahalko da, baldin eta, eskubideon sortzailea hil zenean, hogeita bost urtetik beherakoa bazen. Umezurtza ikasketak egiten ari bada, eta ikasturtean zehar hogeita bost urte betetzen baditu, zurtasun-pentsioa jasotzen jarraituko du hurrengo ikasturtea hasi ondorengo hilaren lehenengo eguna arte.

Hogeita hiru urtetik gorako umezurtza, hogeita bost urtekoa izan aurretik, lan oro egiteko ezintasun-egoeran geratzen bada, zurtasun-pentsioaren onuraduna izan ahalko da, betiko. Ondorio horietarako, aplikagarria izango da testu honetako 41. artikuluko 3. zenbakian ezarritakoa.»

Artikuluaren gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Lau. Xedapen gehigarri berria eransten zaio, hemeretzigarrena, Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bateginari. Honela idatzita geratzen da:

«Hemeretzigarren xedapen gehigarria. *Alarguntza-pentsio zehatz batzuen ehuneko handitzea.*

Alarguntza-pentsioaren zenbatekoaren oinarri arautzaileari aplikatu ahal zaion 4 puntuko gehikuntza, 39.3 artikulua azken paragrafoan ezarrita, 1984ko

abenduaren 31n indarrean zegoen legeriaren babesean ezarrita dauden alarguntza-pentsio arruntei ere aplikatu ahalko zaie, eskakizun berak ezarrita.

Gerrari lotutako legeria bereziaren babesean sortu diren alarguntza-pentsio arruntak direnean, honako baldintza hauek bete beharko dira, gehikuntza hori gauzatzeko:

Pentsioaren zenbatekoa ehuneko zehatz bat aplikatuz kalkulatzen baldin bada, 39.3 artikuluan ezarritakoaren arabera handituko dira, bai eta artikuluko horretan ezarritako eskakizunen arabera ere.

Gizarte Segurantzako sisteman 65 urtetik gorakoentzat ezarritako alarguntza-pentsioen gutxienezko zenbateko bera duten pentsioek pentsio horiei ezartzen zaien gehikuntza bera izango dute.»

Azken xedapenetako hirugarrena. *Kanarietako Araubide Ekonomiko eta Fiskalaren alderdi fiskalak aldatzeari buruzko ekainaren 7ko 20/1991 Legea aldatzea.*

Honako aldaketa hauek sartzen dira Kanarietako Araubide Ekonomiko Fiskaleko zenbait alderdi aldatzen dituen ekainaren 7ko 20/1991 Legean:

Bat. Aldatu egiten da 9. artikuluko 9. zenbakia. Honela idatzita geratzen da:

«A) Administrazio publikoek eta apartatu honetako C) eta D) letretan aipatzen diren erakundeek zuzenean, kontraprestaziorik gabe edo zerga motako kontraprestazioaren bidez egiten dituzten ondasun- eta prestazio-emateak.

B) Ondorio horietarako, honako hauek hartzen dira administrazio publikotzat:

a) Estatu Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoetako administrazioak eta Tokiko Administrazioa osatzen duten erakundeak.

b) Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileak eta zerbitzu erkideak.

c) Erakunde autonomoak, unibertsitate publikoak eta Estatu-agentziak.

d) Berezko nortasun juridikoa duen zuzenbide publikoko erakunde oro, aurrekoen mendekoa, independentzia funtzionala edo legeak aitortutako autonomia berezia badu, eta sektore edo jarduera jakin bat kanpotik arautzeko edo kontrolatzeko eginkizunak esleituta badauzka.

Ez dira administrazio publikotzat hartuko Estatuaren enpresa-entitate publikoak eta autonomia-erkidegoen zein toki-erakundeen mendeko organismo parekatuak.

C) Sektore publikoko erakundeek, organismoek eta entitateek egindako mandatuak betez egin diren zerbitzuak ez dira egongo zergaren mende, baldin eta, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 32. artikuluan ezarritakoaren arabera, mandatu egin duen botere esleitzailaren baliabide propiotzat hartzen badira, aipatutako 32. artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

D) Halaber, ez dira zergapetuta egongo sektore publikoko edozein erakunde, organismo edo entitatek emandako zerbitzuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 3.1 artikuluan aipatutako moduan, zerbitzu horiek haien gaineko administrazio publikoei edo administrazio publiko horien mendeko den beste bati zuzentzen zaizkienean, administrazio publiko horiek zerbitzu horien gaineko titulartasun osoa dutenean.»

E) C) eta D) letretan zergatik salbuesten diren eragiketak bezala, zerbitzuen erakundeen artean egiten direnak ere salbuestita egongo dira, baldin eta erakundeok Administrazio Publikoaren mendekoak badira.»

Bi. Aldatu egiten da 22. artikuluko 2. zenbakiko b) letra. Honela idatzita geratzen da:

«b) Zergari lotutako eragiketen prezioari zuzenean lotutako dirulaguntzak.

Entregatutako unitate kopuruaren arabera edo egindako zerbitzuen bolumenaren arabera ezarritako dirulaguntzak zergapetutako eragiketen prezioari zuzenean lotuta egongo dira, betiere eragiketa egin aurretik finkatzen direnean.

Ez dira barne hartuko Europako Erkidegoko produktuez edo EEEn merkatuan eskuragarri daudenez hornitu ahal izateko dirulaguntzak, Kanariar Uharteen urrutitasunari eta uhartetasunari lotutako berariazko aukeren programan aurreikusi bezala.

Hala eta guztiz ere, administrazio publikoek honako hauek finantzatzeko egiten dituzten diru-ekarpenak ez dira hartuko prezioari lotutako dirulaguntzat, eta ez dute inola ere osatuko artikuluko honetako 1. zenbakian aipatzen den kontraprestazioaren zenbatekoa:

- a') Zerbitzu publikoen edo kultura sustatzeko zerbitzuen kudeaketa, baldin eta eskumenaren distorsio handirik ez badago, kudeatzeko modua edozein izanda ere.
- b') Interes orokorreko jarduerak, baldin eta hartzaileak ezin badira identifikatu, edo ez badute inolako kontraprestaziorik ordaintzen.»

Hiru. Kendu egiten da 22. artikuluan 3. zenbakiko e) letra.

Lau. Aldatu egiten da 28. artikuluko 5. zenbakia. Honela idatzita geratzen da:

«5. Lege honetako 9.9. artikuluan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz zergapetutako eta zergapetu gabeko eragiketak batera egiten dituzten subjektu pasiboek eragiketa batzuk eta besteak batera gauzatzeko eskuratutako ondasunengatik eta zerbitzuengatik jasandako kuotak kendu ahal izango dituzte, zergapeko eragiketak gauzatzeko erabilitako ondasunei eta zerbitzuei dagozkien kuotak egozteko arrazoizko irizpide homogeen baten arabera. Ondorio horietarako, lege honetako 29.4.2. artikulua aipatutako eragiketak ere sartzen dira. Irizpide horri denboran eutsi beharko zaio, arrazoizko kausengatik hura aldatu behar izanez gero izan ezik.

Ondore horietarako, subjektu pasiboak bere jarduera osoaren ondorioz urte natural bakoitzean lortzen dituen diru-sarreraren guztizkoan zergaren mendeko ondasunen eta zerbitzuen emateek hartzen duten eta urte natural bakoitzean zehazten den zenbateko osoaren proportzioari —Kanarietako zeharkako zerga orokorra kanpo utzita— erreparatu ahalko zaio.

Irizpide horren aplikazioak emandako kalkulua behin-behinean zenbatetsi ahalko da, aurreko urte naturaleko datuen arabera, urte bakoitzaren amaieran dagokion erregularizazioa egin beharko bada ere.

Aurrekoa hala izanik ere, lege honetako 9.9. artikulua aipatutako zerga kanpoko eragiketak gauzatzeko bakarrik diren ondasunen edo zerbitzuen eskuraketengatik edo inportazioengatik jasandako edo ordaindutako kuotak ezingo dira ezein proportziotan kendu.

Apartatu honetan aipatutako kenkariak ere lege honetako II. tituluko I. kapituluaren jasotako baldintzetara eta betekizunetara egokituko dira, eta, bereziki, hainbanaketa-arauari buruzkoetara.

Zenbaki honetan ezarritakoa ezin izango zaie aplikatu zerbitzu publikoen kudeaketa-jarduerari lege honetako 22.2.b) artikuluko a') letran aipatutako baldintzetan.»

Azken xedapenetako laugarrena. *Uztailaren 10eko 851/1992 Errege Dekretua, ekintza terroristen ondorioz sortutako ohiz kanpoko pentsio batzuk arautzen dituen, aldatzea.*

Bat. Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da ekintza terroristen ondorioz sortutako ohiz kanpoko pentsio batzuk arautzen dituen uztailaren 10eko 851/1992 Errege Dekretuaren 13.2 artikuluan c) letra. Honela idatzita geratzen da:

«c) Pentsioaren sortzailearen seme-alabak, filiazioaren lege-ezaugarriak edozein izanda ere, baldin eta gutxienez hemezortzi urtekoak badira, eta, pentsioaren sortzailea hil aurretik edo seme-alabak hemezortzi urte bete aurretik, lan oro egiteko desgaitasuna bazuten.

Pentsioaren sortzailearen seme-alabak besteren konturako edo bere kasako irabazizko lanik egiten ez badu, edo, horrelako lanik eginda ere, urtean zenbatuta, une bakoitzean ezarrita dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoa baino diru-sarrera txikiagoak izaten baditu, zurtasun-pentsioaren onuraduna izan ahalko da, baldin eta, eskubideon sortzailearen heriotza-egunean hogeita bost urtetik beherakoa bada.

Umezurtza ikasketak egiten ari bada eta ikasturtean zehar hogeita bost urte betetzen baditu, zurtasun-pentsioa jasotzen jarraituko du hurrengo ikasturtea hasi ondorengo hilaren lehenengo egunera arte.»

Bi. Aurreko zenbakian ezarritakoak errege-dekretuaren maila izango du, eta maila bereko arau baten bidez aldatu ahal izango da.

Azken xedapenetako bosgarrena. *35/1995 Legea, abenduaren 11koa, Indarkeriazko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntzekoa eta sorostekoa, aldatzea.*

Aldatu egin da 35/1995 Legea, abenduaren 11koa, Indarkeriazko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntzekoa eta sorostekoa. Aldaketek lege hau indarrean jartzen denetik aurrera izango dituzte ondorioak, indarraldi mugagabez.

Bat. Aldatu egiten da abenduaren 11ko 35/1995 Lege Organikoaren 2. artikuluko 1. zenbakia. Honela geratzen da idatzita:

«2. artikulua. *Onuradunak.*

1. Delitua egiten denean, honako herritar hauek jaso ahalko dute dirulaguntza: Espainiako herritarrek, Europar Batasuneko estatu kide bateko herritar nazionalak edo, Espainiako herritarrek ez izan arren, Espainian bizi ohi direnek edo beste estatu bateko nazionalak diren herritarrek, baldin eta estatu horretan espainiar herritarrei antzeko laguntzak ematen bazaizkie.

Era berean, genero-indarkeriaren biktimaren kasuan abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan ezarritako baldintzak biltzen badira, eta betiere emakumeen aurkako indarkeria-egintzaren ondoriozko delituak direnean, beste estatu batekoak diren baina Estatu Espainolean dauden emakume nazionalak dirulaguntzak jaso ahalko dituzte (1/2004 Lege Organikoa, Genero-indarkeriaren Kontrako Babes Osorako Neurriei buruzkoa).

Honako frogabide hauek erabili beharko dira, genero-indarkeriaren biktime izatea egiaztatzeko:

- a) Kondena ezartzen duen epaiaren bidez.
- b) Erruztatua biktimari ez hurbiltzeko debekua edo erruztatuaren behin-behineko espetxeratzea kautela-neurri gisa ezartzen duen ebazpen judiziala.
- c) Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 23. artikuluan ezarritako moduan.

Heriotza gertatuz gero, zeharkako biktimek eskatu ahalko dute aurreko apartatuetan ezarritakoa, hildakoaren nazionalitatea edo ohiko bizilekua alde batera utzita.»

Artikuluaren gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Bi. Aldatu egiten dira abenduaren 11ko 35/1995 Legearen 6. artikuluko 1. eta 2. apartatuak. Honela idatzita geratzen dira:

«6. artikulua. *Laguntzen zenbatekoa zehazteko irizpideak.*

1. Laguntzen zenbatekoak ezin izango du gainditu epaian ezarritako kalteordaina. Zenbateko hori zehazteko, honako arau hauek aplikatuko dira, betiere aipatutako zenbatekoa gainditu gabe:

a) Aldi baterako ezintasun-egoera gertatzen baldin bada, jaso behar den zenbatekoa askotariko ondorioak dituen errentaren adierazle publikoaren (IPREM) zenbateko bikoitzaren baliokidea izango da, lehen sei hilabeteak igaro ondoren, ukitutakoak egoera horretan ematen duen denboran.

b) Ezintasuna dakarten lesioak gertatzen baldin badira, lesioak edo osasun-kaltea sendotzen diren egunean indarrean dagoen askotariko ondorioak dituen errentaren adierazle publikoari lotuta egongo da jaso behar den zenbatekoa, eta ezintasun-mailaren arabera izango da, honako eskala honi jarraikiz:

Ezintasun iraunkor partziala: berrogei hileko kuota.

Ezintasun iraunkor osoa: hirurogei hileko kuota.

Erabateko ezintasun iraunkorra: laurogeita hamar hileko kuota.

Baliaezintasun handia: ehun eta hogeita hamar hileko kuota.

c) Heriotza gertatuz gero, gehienez ere ehun eta hogeita hamar hileko kuota, eta zenbatekoa heriotza gertatzen den egunean indarrean dagoen askotariko ondorioak dituen errentaren adierazle publikoarena izango da.

2. Aurreko atalean ezarritako gehieneko zenbatekoen gainean koefiziente zuzentzaileak aplikatuz ezarritako da laguntzaren zenbatekoa, erregelamendu bidez ezartzen den moduan, honako alderdi hauek kontuan hartuta:

a) Biktimaren eta onuradunaren egoera ekonomikoa.

b) Ekonomiaren ikuspegitik, biktimaren eta onuradunaren mende dauden pertsonen kopurua.

c) Biktimak jaso zuen eragina edo kaltea, lege honen 6.1.b) artikuluan aipatzen diren egoeren artean, biktimari gertatu zitzaion gertaeraren mugetan.

Lege honen 2.1 artikuluan ezarritako baldintzetan genero-indarkeriaren biktimak izan diren emakumeek jaso behar duten laguntzaren zenbatekoa, aurreko apartatuetan ezarritakoaren arabera kalkulatuta, ehuneko hogeita bost handituko da. Heriotza gertatuz gero, adinez txikiak diren onuradunei edo desgaitasuna duten adinez nagusiak diren onuradunei emateko laguntza ehuneko hogeita bost handituko da.»

Artikuluaren gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Hiru. Abenduaren 11ko 35/1995 Legearen 7. artikuluari 4. zenbakia gehitzen zaio. Honela idatzita geratzen da:

«7. artikulua. *Ekintzen preskripzioa.*

[...]

4. Aurreko apartatuetan ezarritakoa gorabehera, emakumea lege honen 2.1 artikuluan ezarritako baldintzetan genero-indarkeriaren biktima izan bada, laguntzak eskatzeko epea hiru urtekoa izango da.»

Artikuluaren gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Lau. 35/1995 Legearen 10. artikulua 1. zenbakiari azken paragrafo bat gehitzen zaio. Honela idatzita geratzen da:

«10. artikulua. *Behin-behineko laguntzak ematea.*

1. Zigor arloko prozesua amaituko duen ebazpen judizial irmoa eman aurretik, behin-behineko laguntzak eman ahalko dira, baldin eta biktimaren edo onuradunen egoera ekonomiko prekarioa ziurtatzen bada.

Delituaren biktimaren egoera ekonomikoa prekarioa dela zehazteko irizpideak erregelamendu bidez ezarriko dira, behin-behineko laguntzak jaso ahal izateko ondorioetarako.

Delituaren biktima lege honen 2.1 artikuluan ezarritako baldintzen arabera genero-indarkeriaren biktimatza hartzen baldin bada, behin-behineko laguntzak eman ahalko dira, biktimaren edo onuradunen egoera ekonomikoa edozein dela eta.»

Artikuluaren gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Azken xedapenetako seigarrena. *Estatu Ituna genero-indarkeriaren arloan betetzea.*

2017ko irailaren 28an Diputatuen Kontseiluak onartu zuen Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren bidez lortutako adostasun-maila handiari eusteko eta itunaren bideragarritasuna bermatzeko, honako erabaki hauek jaso dira 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorretan:

Estatu Ituna dela eta, Estatuko Administrazio Orokorrek neurri handiagoak edo neurri berriak bete behar ditu genero-indarkeriaren arloan. Ildo horretatik, lege-proiektu honen bidez, 80 milioi euro gehitu dira Estatuko Administrazio Orokorrek bete behar dituen neurri handiagoei edo neurri berriei lotutako aurrekontu-partidetan.

Estatuaren Aurrekontu Orokorretatik transferentzia finalisten bidez 20 milioi euroko gehikuntza bidaliko zaizkie udalei, udalek Estatu Itunari jarraikiz bete behar dituzten eskumen handiagoei edo berriei aurre egin ahal diezaieten.

Estatuaren Aurrekontu Orokorretatik 100 milioi euroko gehikuntza bidaliko zaizkie autonomia-erkidegoei, Estatu Itunari jarraikiz bete behar dituzten eskumen handiagoei edo berriei aurre egin ahal diezaieten.

Azken xedapenetako zazpigarrena. *Urtarrilaren 10eko 5/1996 Legea, Zuzenbide publikoko erakunde jakin batzuk sortzeari buruzkoa, aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, zuzenbide publikoko erakunde jakin batzuk sortzeari buruzkoa den urtarrilaren 10eko 5/1996 Legearen 15. artikulua aldatzen da. Honela geratzen da idatzita:

«15. artikulua. *Organo artezkariak eta langileak.*

1. [...]

2. Sozietateko lehendakaria eta lehendakariordea goi-mailako kargudunak izango dira, eta Gobernuak errege-dekretu bidez izendatuko ditu, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak proposatuta. Kontzeptu guztiak kontuan hartuta, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroak ezarriko ditu dagozkien ordainsariak.

Sozietateko lehendakariordeak lehendakaria ordeztuko du, hutsuneak, absentziak edo gaixotasunak gertatuz gero. Halakoetan lehendakariak edo Kontseiluak eskuordetzen dizkion eginkizunak beteko ditu.

3. Honako kide hauek osatuko dute Administrazio Kontseilua: Estatu Sozietateko lehendakariak, lehendakariordeak eta gehienez ere Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroak izendatutako 14 aholkulari.»

Gainerako apartatuak beren horretan idatzita geratzen dira.

Azken xedapenetako zortzigarrena. *Azaroaren 27ko 52/1997 Legea, Estatuari Laguntza Juridikoa emateari buruzkoa, aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, Estuari eta Erakunde Publikoei Laguntza Juridikoa emateari buruzko azaroaren 27ko 52/1997 Legearen 7. artikuluari beste idazketa bat ematen zaio. Honela idatzita geratzen da:

«7. artikulua. *Akzio prozesala erabiltzea.*

1. Lege berezietan ezarritakoa gorabehera, Estatuaren abokatuak modu baliodunean akzioetan edo errekursoetan atzera egin, kereilak ukatu edo kontrako alderdien eskaerei amore eman ahal izateko, Estatuko Abokatutza Orokorra–Estatuaren Zerbitzu Juridikoko Zuzendaritzaren berariazko baimena jaso beharko du, eta zuzendaritza horrek aurrez beti jaso beharko du dagokion sailaren, erakundearen edo entitate publikoaren txostena.

2. Gaiaren arabera eskuduna den unitateak bidali beharko du txostena eta, hala dagokionean, prozesuaren xedea den organo egileak ere bai. Txostenetan akzio prozesala erabiltzea arrazoitzen duten zio juridikoak bildu beharko dira. Prozesuetan Ogasun Publikoaren eskubideei lotutako milioi eurotik gorako eskaerak ebazten baldin badira, dagokion sailak, erakundeak edo entitateak, amore emateko edo atzera egiteko proposamenarekin batera, memoria bat aurkeztu beharko du, Ogasun Publikoan izango dituen ondorioen kalkulua bertan jasota. Gaiaren arabera eskumena duen entitateak bidali beharko du memoria hori.»

Azken xedapenetako bederatzigarrena. *Azaroaren 27ko 54/1997 Legea, Sektore Elektriakoari buruzkoa, aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondorioak izanik, eta indarraldi mugagabez, Sektore Elektriakoari buruzkoa den azaroaren 27ko 54/1997 Legearen zazpigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuaren amaieran beste paragrafo bat gehitzen da (Sektore elektriakoari buruzkoa den abenduaren 26ko 24/2013 Legeak adierazi du 54/1997 Legea indarrean dagoela). Honela idatzita geratzen da:

«3. [...]

Geldiarazi diren eraikuntza-proiektuen titularrei xedapen gehigarri honetako bigarren apartatuan ezarritako konpentsazioa ematen zaienean, haiei lotuta eta besterentzeke dauden aktiboak baldin badaude, Ministerioaren agindu bidez erabaki ahalko da aktibo horiek eta, bereziki, lotutako lursailak, epatzeak eta azpiegiturak administrazio publiko bati eskuordetzea edo lagatzea, agindu horretan ezarritako baldintzetan.»

Apartatuaren gainerako zatia berdin idatzita geratzen da.

Azken xedapenetako hamargarrena. *Abenduaren 23ko 1/1999 Legegintzako Errege Dekretuaren 2. artikulua aldatzea (1/1999 Legegintzako Errege Dekretuak indarreko zerga-sistemara egokitzen du portuko baseei, eremuei eta aduana-zergarik gabeko biltegiei buruzkoa den 1929-06-11ko Errege lege-dekretuaren 9. oinarriaren hirugarren paragrafoan ezarritako baliabidearen araudia).*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondorioak izanik, eta indarraldi mugagabez, abenduaren 23ko 1/1999 Legegintzako Errege Dekretuaren 6., 7. eta 8. artikulua beste era batean idazten dira (1/1999 Legegintzako Errege Dekretuak indarreko zerga-sistemara egokitzen du portuko baseei, eremuei eta aduana-zergarik gabeko biltegiei buruzkoa den 1929-6-11ko Errege lege-dekretuaren 9. oinarriaren hirugarren paragrafoan ezarritako baliabidearen araudia). Honela idatzita geratzen dira:

«6. artikulua. *Baliabidea partzuergoarentzat likidatzeko prozedura*

Zerga Administrazioiko Estatu Agentziako organo eskudunak jakin bezain laster Administrazioaren edo aduana-zergarik gabeko eremuetan ezarritako erakundeei dagozkien autolikidazioak Altxor Publikoan sartu direla, baliabidearen likidazio egokiak egingo ditu diru-sarreraren aurrekontuaren kontura, eta haren aldeko ordain-agindua igorriko du. Ordain-aginduan gehituko ditu subjektu pasiboek sartu dituzten berandutze-interesak, baina zehapenak edo gainkarguak kanpo utzita.

Urteko aitorten-likidazioaren emaitza dirua itzultzea baldin bada, sozietateen gaineko zergaren itzulketa subjektu eta ekitaldi bakoitzeko, lehenik eta behin, subjektu pasibo horrek egin dituen ordainketa zatikatuen kargura egingo da, partzuergoak eta Altxor Publikoak ordainketa horietan parte hartu duten proportzioan.»

«7. artikulua. *Baliabidea kalkulatzeko prozedura, aduana-zergarik gabeko eremuan eta eremutik kanpo jarduerak egiten direnean.*

Sozietateen gaineko zergari buruzkoa den azaroaren 27ko 27/2014 Legearen VII. tituluko VI. kapituluaren ezarritako araubidea aplikatu ahal zaien erakundeei edo sozietate-taldeek aduana-zergarik gabeko eremuan eta eremutik kanpo jarduerak egiten dituztenean, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak —subjektu pasiboaren eta aduana-zergarik gabeko eremuko partzuergoaren arabera eskumena duen Zerga Administrazioiko Estatu Agentziako ikuskaritza-organismoak aurrez egin beharko du entitateek eta taldeek aduana-zergarik gabeko eremuan garatzen duten jarduerari buruzko txostena— erabakiko du autolikidazioen bidez eta Administrazioak ordainketa zatikatuen eta sozietateen gaineko zergaren urteko aitorten-likidazioaren kontzeptuetan egindako likidazioen bidez osatu diren diru-sarreretan partzuergoari dagokion baliabidearen zenbatekoa, 4. artikuluan ezarrita dagoenarekin bat etorrita (4. artikuluan erakunde eta talde horientzat mugatzen da baliabidea).

4. artikuluan ezarritakoa aplikatze aldera, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak behin-behinean erabakiko du partzuergoaren parte-hartzea, finkatu zen azken urteko aitorpenean izan zuen proportzio bera baliatuta.

Sozietateen gaineko zergaren urteko aitorten-likidazioa aurkeztu eta gero, ikuskaritza-organoko eskudunak txosten bat igorriko du, partzuergoari egotzi ahal zaion diru-bilketaren ehunekoari buruzkoa. Txosten hori aduana-zergarik gabeko eremuko partzuergoari bidaliko zaio, eta egokitzen jotzen dituen alegazioak egin ahalko ditu. Horren ondorioz, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziako organo eskudunak egingo ditu diru-sarreraren aurrekontuaren alde edo kontura egin behar diren likidazioak, berandutze-interesak inola ere sartu gabe.»

«8. artikulua. *Baliabidea aplikatzea.*

Aduana-zergarik gabeko eremuko partzuergoen konpentsazio funtsaren ekarpena egin ondoren, gehienez ere geldikinaren 100eko 25 erabiliko da, partzuergoaren funtzionamenduaren gastuetarako. Gainerakoa aduana-zergarik gabeko eremuan inbertsioak egiteko erabiliko da, bai eta aduana-zergarik gabeko eremuetako partzuergoak osatzen dituzten lurralde-administrazioen sustapen-jardueretarako ere.

Diru-bilketaren geldikina ekitaldi batean erabiltzen ez badute, aduana-zergarik gabeko eremuko partzuergoek hurrengo ekitaldietan erabili ahalko dute, xede beretarako.»

Azken xedapenetako hamaikagarrena. *Ekainaren 23ko 3/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen Gizarte*

Segurantzako Araubide Bereziari buruzko indarreko lege-xedapenen testu bategina aldatzea.

Lege hau indarrean jartzen denetik ondorioak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da ekainaren 23ko 3/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziari buruzko indarreko lege-xedapenen testu bateginaren 15. artikuluko 2. eta 3. apartatuak. Honela idatzita geratzen da:

«15. artikulua. *Osasun-laguntzaren onuradunak.*

[...]

2. Araubide honetako mutualista baten konturako onuradun-izaera zehazteko, Mutualismo Judizialaren Araubidean xedatutakoa beteko da; horrek, halaber, mutualista aktibo edo erretirodunen alargunei zein umezurtzei osasun-laguntza emateko kasuak eta baldintzak ere ezarriko ditu.

MUGEJUK mutualista baten konturako onuradun aitortzea edo mantentzea ez da bateragarria izango aseguratua edo onuraduna izatearekin, Osasun Sistema Nazionalaren bitartez osasun-laguntzari dagokionez, azken hori horretarako eskudunak diren gainerako erakunde publikoetako batek aitortuta.

3. MUGEJUK ez die inola ere osasun-laguntzako prestaziorik bere kontura emango mutualisten senideei edo antzekoei, baldin eta horiek ez badaude onartuta mutualismo judizialaren onuradun modura, salbu eta jaioberria ama mutualista edo onuraduna denean eta adopzioko edo harrerako kasuetan, lehen hamabost egunetan erditzeko unetik, harreraren erabaki administrazio edo judizialek edo adopzioa eratzeke ebazpen judizialek.»

Artikuluaren gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Azken xedapenetako hamabigarrena. Ekainaren 23ko 4/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi den Estatuko Funtzionario Zibilen Gizarte Segurantzaren Legearen testu bategineko 10. xedapen gehigarria aldatzea.

Lege hau indarrean jartzen denetik ondorioak izanik eta indarraldi mugagabez, ekainaren 23ko 4/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi den Estatuko Funtzionario Zibilen Gizarte Segurantzaren Legearen testu bategineko 10. xedapen gehigarriari 4. eta 5. apartatuak gehitzen zaizkio. Honela idatzita geratzen dira:

«4. Estatuko Funtzionario Zibilen Mutualitate Orokorrak, ebazpen arrazoituaren bidez eta interesdunari aurrez entzunda, zuzenean berrikusi ahalko ditu prestazioak onartzeko egintzak, honako inguruabar hauetako bat gertatzen denean:

a) Errakuntza materialak, egitatezko errakuntzak edo errakuntza aritmetikoak zuzendu behar direnean.

b) Egiaztatzen baldin bada prestazioa mutualisten edo onuradunen adierazpenetan datuak omitituz, informazioa behar bezala zehaztu gabe edo datuak faltsutuz lortu dela.

c) Egintza aldizkako berrikuspen baten mende edo baldintza zein eskakizun bat betetzearen mende baldin badago, eta, hartara, berrikusi ahal bada, edo behin-behinekoa baldin bada, edo baldintza baten arabera baldin bada, eta, behin berrikuspen hori eginda, egiaztatzen denean bidegabea dela, edo dagokion baldintza edo eskakizuna urratzen dela.

5. Bidegabeko prestazioak egin direlako, Estatuko Funtzionario Zibilen Mutualitateari kopuru batzuk itzuli behar bazaizkio, eta prestazioen zorduna, aldi berean, mutualitateak kudeatzen dituen prestazio ekonomikoetako baten hartzailea bada, mutualitateak, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan, deskontuak

egin ahalko ditu prestazio horietatik, onuradunaren zorra konpentsatzeko, salbu eta zordunak ordainketa bakarrez zor osoa ordaintzea erabakitzen duenean.»

Xedapenaren gainerakoa bere horretan idatzita geratzen da.

Azken xedapenetako hamahirugarrena. *Abenduaren 29ko 14/2000 Legea, zerga-, administrazio- eta gizarte-neurriei buruzkoa, aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondorioak izanik, eta indarraldi mugagabez, Zerga, Administrazio eta Gizarte Arloko Neurriei buruzko abenduaren 29ko 14/2000 Legearen 53. artikulua Bi apartatua aldatzen da. Honela idatzita geratzen da:

«Bi. Honako hauek Estatuko Segurtasuneko Azpiegituren eta Ekipamenduaren Kudeatzailetzaren eginkizunak dira:

1. Barne Ministerioaren ondare higiezinaren arloko eta ondare higiezinaren hirigintza-baldintzen arloko gidalerroak garatzea, Estatuko segurtasunaren azpiegitura-planak egiteko eta segurtasun-xedeei lotutako ondasun higiezinetan esleituta dituen eginkizunak betetzeko.

2. Hirigintza-planeamenduari buruzko proposamenak egitea, Estatuko Segurtasunaren azpiegitura-planak koordinatzea eta garatzea, bai eta tokiko korporazioekin eta autonomia-erkidegoekin lankidetzak akordioak egitea ere.

3. Udalekin elkarlanean aritzea, dauden higiezinari eta kuartelei eragiten dieten hiri-antolamenduko planetan. Lankidetzak horretan eta aurreko apartatuan aipatu diren proposamenetan planeamenduekin koordinatzen saiatu beharko da, azpiegitura-planak gauzatzen laguntzeko.

4. Estatuko segurtasun-xedeei lotutako ondasun higiezinak eraikitzeko, handitzeko, eraldatzeko eta zaintzeko obrak, formulatu diren azpiegitura-planekin bat etorrira; hargatik eragotzi gabe Azpiegituren eta Espetxe-ekipoen sozietateari (Sociedad de Infraestructuras y Equipamientos Penitenciarios) eta Barne Ministerioako organo kudeatzaileei ere obra batzuk eskatu ahal izatea.

5. Estatuko segurtasunaren xedeei lotutako ondasun higiezinak besterentzea, beraren eskura utzi badira; horretarako, ondasunak saldu edo trukatu ahalko ditu, dagokien planen arabera, erakundearen xedek betetzeko baliabideak lortze aldera.

6. Azpiegiturak, armak eta materialak erostea, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek erabil ditzaten, Segurtasuneko Estatu Idazkaritzak onartutako planen eta programen arabera, eta idazkaritzak aginduta; hargatik eragotzi gabe Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak eta Guardia Zibilaren Zuzendaritza Orokorrek bere eskumenak ere baliatzea.

7. Beraren eskura uzten diren ondasun higiezinak kostubidez besterentzea, erakundearen xedek betetzeko baliabideak lortze aldera.

8. Beraren esku jarritako ondasun higiezinak kudeatuz, indarrean dauden politika publikoak —bereziki, etxebizitza-politika— garatzen eta exekutatzeko laguntzea, administrazio eskudunekin lankidetzan. Horretarako, itunak, protokoloak edo hitzarmenak sinatu ahal izango ditu administrazio horiekin, haien helburua izango delarik salmentan, alokairuan edo etxebizitzarako irispenerako beste edozein modutan gehieneko prezioa tasatzea ahalbidetzen duen babes-araubideren baten mendeko etxebizitzak eraikitzea bultzatzea.»

Artikuluaren gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Azken xedapenetako hamalauugarrena. *Abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa, Unibertsitatei buruzkoa, aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa, Unibertsitatei buruzkoa. Honela idatzita geratzen da:

81.3.b artikuluko 1. apartatua honela idatzita geratzen da:

«1. Graduko ikasketak: lehenengoz matrikulatzean, kostuen 100eko 0 eta 25 artean ordainduko da prezio publikoen bidez; 100eko 30 eta 40 artean, bigarrenaz matrikulatzean; 100eko 65 eta 75 artean, hirugarrenez matrikulatzean, eta, 100eko 90 eta 100 artean, laugarrenez edo gehiagotan matrikulatzean.»

Artikuluaren gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Azken xedapenetako hamabosgarrena. *Maiatzaren 26ko 15/2003 Legearen III. eranskina aldatzea (15/2003 Legeak karrera judizialeko eta fiskaleko ordainsariak arautzen ditu).*

2018ko urtarrilaren 1etik ondorioak izanik, eta indarraldi mugagabez, maiatzaren 26ko 15/2003 Legearen III. eranskina (karrera judizialeko kideen osagarri espezifikoa) aldatzen da, Auzitegi Nazionaleko Apelazio Salako presidenteari eta magistratuei nekagarritasun-osagarria aitortzeko; zehazki, 628,30 eurokoa, hilean (15/2003 Legea, karrera judizialeko eta fiskaleko ordainsariak arautzen dituen).

Azken xedapenetako hamaseigarrena. *Uztailaren 7ko 21/2003 Legea, Aire Segurtasunari buruzkoa, aldatzea.*

Hurrengo hilabetearen 1. egunetik aurrera ondorioak izanik, eta indarraldi mugagabez, uztailaren 7ko 21/2003 Legearen hamazazpigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatua beste era batean idazten da (21/2003 Legea, Aire Segurtasunari buruzkoa). Honela idatzita geratzen da:

«3. Prestazioaren zenbatekoa, «P», honako formula hau aplikatzearen emaitza da:

$$«P» = «q» \times «m»$$

Non:

«q» esleitutako geldialdi-ordutegi bakoitzeko 0,45 €-ko zenbatekoa den, eta bideratutako ordutegi bakoitzeko 0,23 €-ko zenbatekokoa.

eta «m»:

a) Aireportu-kudeatzaile bakoitzerako, esleitutako ordu-tarteen multzoa edo eskainitako ordutegiak, kasuko aireportuan eta hilabete natural bakoitzaren amaierako programazioan, koordinatzailearen erregistroan jasotakoari jarraituz.

b) Aire-operadore bakoitzerako, esleitutako ordu-tarteen edo eskainitako ordutegien guztizko kopurua, hilabete natural bakoitzaren amaierako programazioan dagoena, koordinatzailearen erregistroan jasotakoari jarraituz.»

Azken xedapenetako hamazazpigarrena. *Azaroaren 3ko 33/2003 Legea, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa, aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, azaroaren 3ko 33/2003 Legea aldatzen da (33/2003 Legea, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa). Honela idatzita geratzen da:

Bat. Aldatu egiten da 10. artikuluen 4. zenbakiaren b) letra, eta honela idatzita geratzen da:

b) Zaintzari, babes juridikoari, defentsari, inbentarioari, kontserbazioari eta Estatuaren ondarearen ondasunak eta eskubideak behar bezala erabiltzea eskatzen duten gainerako jarduketei lotutako eginkizunak betetzea, ondasun eta eskubideok lotuta badituzte edo haien administrazioa eta kudeaketa egin behar badituzte. Ildo

horretatik, ondasun eta eskubide horiei ezartzen zaizkien zergei buruz, sail bakoitza zergapekotzat hartuko da, abenduaren 17ko 58/2003 Legearen 35.4 artikuluaekin bat etorrira (58/2003 Legea, Zergei buruzkoa).»

Apartatuaren gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Bi. 10. artikulua 5. apartatuaren f) letra gehitu da. Honela idatzita geratzen da:

«f) Zaintzari, babes juridikoari, defentsari, inbentarioari, administrazioari, kontserbazioari eta Estatuaren ondarearen ondasunak eta eskubideak behar bezala kudeatzea eskatzen duten gainerako jarduketei lotutako eginkizunak betetzea. Ondasun eta eskubide horiei ezartzen zaizkien zergei buruz, zergapekotzat hartuko da, abenduaren 17ko 58/2003 Legearen 35.4 artikuluaekin bat etorrira (58/2003 Legea, Zergei buruzkoa).»

Apartatuaren gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Hiru. Aldatu egiten da 10. artikulua 6. zenbakiaren b) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«b) Zaintzari, babes juridikoari, defentsari, inbentarioari, kontserbazioari eta erakundearen edo hari atxikitako ondasunak eta eskubideak behar bezala erabiltzea eskatzen duten gainerako jarduketei lotutako eginkizunak betetzea, ondasun eta eskubideak lotuta baditu edo haien administrazioa eta kudeaketa egin behar baditu. Horren harira, ondasun horiei ezartzen zaizkien zergei buruz, erakundeak zergapekotzat hartuko dira.»

Apartatuaren gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Lau. Aldatu egiten da 30. artikulua, eta 4. eta 5. apartatuak gehitzen dira. Honela idatzita geratzen dira:

«4. Estatuko Administrazio Orokorraren betebeharrak ekonomikoak era efektiboan gauzatu ahal izateko, ondare-ondasun edo -eskubide bat enbargatu edo nahitaez gauzatu baldin bada, ondare-elementuaren edo -balioaren galera sail arduradunaren kredituen kontura konpentsatu beharko da, aurrekontu-esleipena berriro eginda. Ondorio horietarako, kreditu-transferentzia bat izapidetuko da, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroak onartuta, Estatuko Ondarearen Zuzendaritza Nagusiaren ekimenez eta Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Idazkariordetzak proposatuta. Zenbatekoa esleitutako ondasunaren edo eskubidearen tasazio-balioaren baliokidea izango da, sail arduradunaren kredituetatik eta 923A aurrekontu-programako kredituetara (923A, «Estatuaren Ondarea kudeatzea»). Transferentzia efektiboa izango da ondasuna edo eskubidea galdu zen ekitaldiaren hurrengo ekitaldiko lehen hiruhilekoan. Transferentzia horiek ez dira egongo azaroaren 26ko 47/2003 Legearen 52. artikuluan ezarritako murrizketen mende (47/2003 Lege Orokorra, Aurrekontuei buruzkoa).

5. Zerga-zorrak direla eta, Estatuko Administrazio Orokorraren ondare-ondasun eta -eskubideen aurka egiten diren enbargo-eginbideetan zergapeko bakarraren zorrak baino ezin izango dira metatu.»

Artikulua gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Azken xedapenetako hemezortzigarrena. *Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Diru Laguntzei buruzkoa, aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik aurrera ematen diren dirulaguntza guztietan aplikatzeko, indarraldi mugagabez, beste xedapen gehigarri bat (hogeita seigarrena)

eransten zaio azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrari (38/2003 Lege Orokorra, Diru Laguntzei buruzkoa). Honela idatzita geratzen da:

«Hogeita seigarren xedapen gehigarria. *Zuzenbide pribatuaren arabera arautzen diren Estatuko sektore publikoko erakundeek ematen dituzten dirulaguntzak eta beste laguntza batzuk.*

1. Zuzenbide pribatuaren arabera arautzen diren Estatuko sektore publikoko erakundeek egiten dituzten diru-entregak dirulaguntzatzat hartuko dira beti. Administrazio-ahalak baliatuz egingo dira dirulaguntzen emateak eta gainerako jarduketak, urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako ondorioetarako (39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena), bai eta urriaren 1eko 40/2015 Legearen ondorioetarako (40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubidea Juridikoarena); hortaz, administrazio publikoek ematen dituzten dirulaguntzei aplikatzen zaien araubide juridiko bera aplikatuko zaie dirulaguntza horiei ere.

2. Urriaren 1eko 40/2015 Legearen laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorrita (40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubidea Juridikoarena), honako hauek dira egungo berezitasunak izaten jarraituko duten laguntzak:

a) Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroak (CDTIk) ematen dituen maileguak, baldin eta kredituaren zenbatekoaren heren bat itzuli ezin bada. Mailegu horiek lege honetako seigarren xedapen gehigarrian ezarritako araubidearen arabera bideratuko dira.

b) ICEX España Exportación e Inversiones entitate publikoak ematen dituen laguntzak, enpresei laguntzeko nazioarteko azoketan, zuzeneko misioetan, jardunaldi teknikoetan, mintegietan, kongresuetan, konbentzioetan edo antzeko jardueretan taldeka parte har dezaten, Europar Batasuneko araudiaren kontrakoak izan ezean.

Edonola ere, lege honetako 8., 18. eta 20. artikuluetan aipatzen diren printzipio orokorrak eta informazio-printzipioak aplikatu ahalko zaizkie.

Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroak (CDTIk) eta ICEX España Exportación e Inversiones entitate publikoak ematen dituen maileguak eta laguntzak apartatu honetako a) eta b) letretan jasota ez badaude, lege honetan jasotako araubide orokorraren arabera bideratuko dira.»

Azken xedapenetako hemeretzigarrena. *Azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorra, Aurrekontuei buruzkoa, aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da azaroaren 26ko 47/2003 Legea.

Bat. Aldatu egiten da Aurrekontuen 47/2003 Lege Orokorraren 52. artikuluko 3. apartatua. Honela idatzita geratzen da:

«3. Transferentziek ezin izango dute inola ere sortu dirulaguntza izendunentzako krediturik, ezta dauden kredituak handitu ere, salbu eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren arabekoak direnean, edo sektore publikoko beste erakunde batzuei emateko dirulaguntzak edo ekarpenak direnean.»

Artikuluaren gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Bi. Aldatu egiten da Aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren 73. artikulua 1 apartatua. Honela idatzita geratzen da:

«1. Honako fase hauek izango ditu Estatuaren, haren erakunde autonomoen, Estatuko sektore publikoa osatzen duten eta aurrekontu mugatua duten erakundeen eta Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileen eta zerbitzu erkideen gastu-aurrekontuaren kudeaketak:

- a) Gastua onartzea.
- b) Gastua egiteko konpromisoa.
- c) Betebeharra aitortzea.
- d) Ordainketa egiteko agintzea.
- e) Ordainketa materiala egitea.»

Artikulu honetako gainerako apartatuak bere horretan geratzen dira idatzita.

Hiru. Aldatu egin da Aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren 90. artikulua. Honela idatzita geratzen da:

«90. artikulua. *Altxor Publikoa.*

Honako hauek osatzen dute Altxor Publikoa: finantza-baliabideek (dirua edo Estatuko Administrazio Orokorraren baloreak edo kredituak izanda ere), haren erakunde autonomoek eta Estatuko administrazio-sektore publikoko gainerako erakundeek, 2.2.d) eta h) eta 2.3. artikuluetan jasotako subjektuak kanpo utzita, aurrekontu-eragiketak izanik zein ez.»

Lau. Aldatu egiten da IV. tituluko IV. kapituluaren izenburua. Honela idatzita geratzen da:

«IV. KAPITULUA

Sektore publiko instituzionala osatzen duten erakundeen eta entitateen zorpetzea eta erakunde autonomoen diru-zaintzaren kudeaketa»

Bost. 111. artikulua beste era batean idazten da. Honela idatzita geratzen da:

«111. artikulua. *Estatuko instituzio-sektore publikoko erakundeek eta entitateek zorra jaulkitzea eta zorpetzeko eragiketak egitea.*

1. Erakunde autonomoek ezin izango dute zorpetze-eragiketarik ituntzea, Estatuaren Aurrekontu Orokorraren Legeak, eragiketen baldintzak eta ezaugarri bereziak kontuan hartuta, baimena eman ezean, eta kasu horretan legean ezarritako terminoen eta mugen arabera egingo dira.

Muga hori betetze aldera, erakundeak osatutako diru-zaintzaren posizio aktiboek ez dute kenkaririk eragingo.

Erakunde autonomoek ituntzen dituzten zorpetze-eragiketak titulu honetako II. kapituluan ezarritakoak arautuko ditu, aplikagarria den alderdietan, salbu eta eragiketak baimentzen dituen Estatuaren Aurrekontu Orokorraren Legeak bestela ezarri ezean.

2. Era berean, Estatuko sektore publiko instituzionala osatzen duten gainerako erakunde eta entitateek —Estatuko Administrazio Orokorrari atxikitako fundazioak eta Estatuko merkataritza-sozietateak alde batera utzita— beren ustiatze- eta kapital-aurrekontuetan zorpetzeko baimena baldin badute, dagokien Estatuaren Aurrekontu Orokorraren Legean berariazko baimena eman ezean ezin izango dute zorpetze-eragiketarik egin, eta betiere lege horretan ezarritako mugen barnean, salbu eta aurrekontu-ekitaldi berean itundu eta deuseztatzen diren kreditu-eragiketak direnean.

3. Estatuko sektore publiko instituzionaleko organismo eta erakundeek, Kreditu Ofizialeko Institutuak izan ezik, bete egin beharko dituzte Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Ordezko Batzordeak finkatzen dituen finantza-zuhurtasunaren printzipioak. Estatuko merkataritza-sozietate kotizatuak ez beste erakunde eta organismoentzat finkatutako printzipioak —horrelakoak baloreen bigarren mailako merkatu ofizial batean negoziazioaren mende badaude—, gutxienez ere, aipatutako kreditu-eragiketa horiek mugatu ahal izango diren finantza-kostuaren gehieneko mugei zein finantza-deribatuen erabileraren mugei buruzkoak izango dira».

4. Lege honetako 98. artikuluan ezarritako eskumenak dagokion Estatuko sektore publiko instituzionaleko erakundeko edo entitateko presidente edo zuzendariarenak direla jo behar da.

Fundazioek egingo dituzten eragiketak baldin badira, eskumen horiek dagokion fundazioko patronatuarenak direla joko da.

Merkataritza-sozietateak baldin badira, Akziodunen Batzar Nagusiarenak direla joko da.»

Sei. Aldatu egiten da Aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren 130. artikulua 1. apartatua. Honela idatzita geratzen da:

«1. Estatuaren Kontu Orokorra Estatuko sektore publikoa osatzen duten erakundeen urteko kontuak kontsolidatuz osatuko da. Honako hauek bilduko ditu: balantze kontsolidatua, ondare-emaizta ekonomikoaren kontua, ondare garbi kontsolidatuaren aldaketan egoera, eskudiruaren fluxuen egoera kontsolidatua, aurrekontu kontsolidatuaren likidazio-egoera eta memoria kontsolidatua.

Estatuaren Kontu Orokorrak ondare- eta finantza-egoerari, ondare-emaizta ekonomikoari eta Estatuko sektore publikoaren aurrekontuaren gauzatzeari buruzko informazioa eman beharko du.

Estatuaren Kontu Orokorrarekin batera autonomia-erkidegoei laga zaizkien zergak kudeatzeko kontuak ere aurkeztuko dira, abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 60. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira (22/2009 Legeak araubide erkideko autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa-sistema arautzen du, eta zerga-arau batzuk aldatzen ditu).»

Artikuluaren gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Zazpi. Apartatu berria (4.a) eransten zaio Aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren 136. artikuluari. Honela idatzita geratzen da:

«4. Estatuko Administrazio Orokorraren kontua Kontu Auzitegira bidali aurretik, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailtza Nagusiak aurrekontuan inputatzeke dauden ekitaldiko gastuen laburpen-txostena egingo du, eta, funtsean, lege honetako 159. artikuluko 1. apartatuko g) letran araututako kontrol-jarduketan emaitza izango da. Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailtza Nagusiak txosten hori argitaratuko du urtero aurrekontu-administrazioaren atarian; zehazki, «sektore publikoaren urteko kontuen erregistroa» kanalean.»

Zortzi. Aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren 149. artikulua 2. apartatua beste era batean idazten da. Honela geratzen da idatzita:

«149. artikulua. *Aplikazio-eremua.*

[...]

2. Ministroen Kontseiluak, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailtza Nagusiak proposatuta, era arrazoituan erabaki ahalko du finantza-kontrol iraunkorra aplikatzea, eginkizun kontu-hartzailearen ordez. Zehazki, honako kasu hauetan:

a) Zehazten diren gastuei buruzko espediente motetan eta, hala dagokionean, zehazten diren erakunde eta organismoetan.

b) Erakundearen jarduera osoari edo kudeaketa-arlo batzuei buruz, erakunde autonomoek egiten dituzten jardueren ezaugarriek kontrol hori egitea justifikatzen dutenean.»

Artikuluaren gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Bederatzi. Beste era batean idazten da Aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren 158. artikulua. Honela idatzita geratzen da:

«158. artikulua. *Aplikazio-eremua.*

1. Finantza-kontrol iraunkorra izaten duten erakundeak eta organismoak:

a) Estatuko Administrazio Orokorra.

b) Erakunde autonomoak.

c) Enpresa-entitate publikoak.

d) Administrazio-agintaritza independenteak, haien berariazko legerian kontrakoa ezarri ezean.

e) Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileak eta zerbitzu erkideak.

f) Gizarte Segurantzarekin elkarlanean jarduten duten mutuak eta zentro mankomunatuak, baldin eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren 100. artikuluan ezarritako kasuetako batean badaude.

g) Lege honetako 2.2.i) artikuluan jasotako zuzenbide publikoko estatu-organismo eta erakundeak, salbu eta legeria espezifikoan kontrakoa ezarri ezean.

2. Ministroen Kontseiluak, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak proposatuta, eta Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailtza Nagusiaren ekimenez, erabaki ahalko du lege honetako 2. artikuluko 2. apartatuko i) letran jasotako enpresa-erakunde publiko zehatz batzuetan Auditorien Urteko Planean ezarritako jarduketak egitea finantza-kontrol iraunkorraren ordeez.»

Hamar. Beste era batean idazten dira 47/2003 Legearen 161. artikuluen 2. eta 3. apartatuak. Honela idatzita geratzen dira:

«161. artikulua. *Jardun-planak eta neurri zuzentzaileen jarraipena.*

[...]

2. Jardun Plana egingo da, eta Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailtza Nagusiari bidaliko zaio ministerioko saileko titularrak finantza-kontrolaren gaineko txostenak jaso eta hiru hilabeteko epean. Bertan bilduko dira sailak, bere eskumener arabera, hartu dituen neurriak, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailtza Nagusiak egindako txostenean agerian utzi diren ahulguneak, hutsuneak, akatsak eta ez-betetzeak zuzentzeko; eta, hala dagokionean, hartutako neurriak osatzeko egiteke dauden jarduketaren egutegia ere zehaztuko da. Sailak ziurtatu beharko du egiteke dauden jarduketak abiarazten diren; eta, benetan abiarazten baldin badira, horren berri eman beharko dio Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailtza Nagusiari.

3. Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailtza Nagusiak aztertuko du Jardun Plana hutsuneak zuzentzeko egokia den; eta, hala dagokionean, lortutako emaitzak ere aztertuko ditu.

Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailtza Nagusiak uste baldin badu Jardun Planean proposatutako neurriak ez direla egokiak edo neurri gehiago behar direla, arrazoiak emanez jakinaraziko dio dagokion ministerioko saileko titularrari, eta titularrak hilabeteko epea edukiko du plana aldatzeko, jakinarazitakoari jarraikiz. Aldiz, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailtza Nagusiak uste baldin badu

ahuleziak, hutsuneak, akatsak edo ez-betetzeak larriak direla, eta neurri zuzentzaileak ez direla egokiak, Ministroen Kontseiluari jakinaraziko dio, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren bidez, egiazta dezan. Era berean, Jardun Plana aurreko apartatuan ezarritako epean bidaltzen ez baldin bada, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailatza Nagusiak, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren bidez, Ministroen Kontseiluari jakinaraziko dio.

Horrez gain, informazio hori sartuko da lege honetako 146.1 artikuluan aipatutakoa betez egiten den txosten orokorrean.»

Artikuluaren gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Hamaika. Beste era batean idazten da Aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren 163. artikulua. Honela idatzita geratzen da:

«163. artikulua. *Eremua.*

Lege honetako 165. artikuluan aipatzen den Auditorien Urteko Planean ezarritakoaren arabera, auditoria publikoa Estatuko sektore publikoko erakunde eta organismo guztiei egingo zaie; hargatik eragotzi gabe funtzio kontu-hartzaileari eta finantza-kontrol iraunkorrari dagozkien jarduketak eta uztailaren 20ko 22/2015 Legean ezarritako auditoria pribatuaren mendeko jarduketak, merkataritza-legeriak Estatuko merkataritza-sozietateei ezarriak, ere egitea (22/2015 Legea, Kontu Auditoritzarena).»

Hamabi. Beste era batean idazten da Aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren 168. artikulua. Honela idatzita geratzen da:

«168. artikulua. *Urteko kontuen auditoretzaren eremua.*

Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailatza Nagusiak urtero egingo du urteko kontuen auditoria. Honako erakunde eta entitate hauek ikuskatuko ditu:

a) Erakunde autonomoak, enpresa-erakunde publikoak, administrazio-agintaritza independenteak, lege honetako 2.2.i) artikuluan aipatzen diren zuzenbide publikoko estatu-erakunde eta -entitateak, 2.2.d) artikuluan aipatzen diren partzuergoak, transferiturik ez dauden unibertsitate publikoak eta Gizarte Segurantzarekin elkarlanean jarduten duten mutuak, haien zentro mankomunatuekin batera.

b) Estatuko sektore publikoko fundazioak, haien araubide espezifikoa auditoria egiteko betebeharra ezarrita baldin badago.

c) Estatuko merkataritza-sozietateak eta Estatuko sektore publikoko fundazioak, baldin eta, auditoria jasotzeko betebeharra ezarrita egon ez arren, Auditorien Urteko Planean sartu badira.

d) Nortasun juridikorik gabeko funtsak, haien berariazko legerian kontrakoa ezarri ezean.»

Hamahiru. Beste era batean idazten da Aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren bigarren xedapen gehigarria. Honela idatzita geratzen da:

«Bigarren xedapen gehigarria. *Auditorien Urteko Plana egiten laguntzea.*

Lege honetako 165. artikuluan aipatzen den Auditorien Urteko Plana gauzatzeko, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailatza Nagusiak laguntza eskatu ahalko die auditoretza-sozietateei edo kontu-auditoreei, eta Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailatza Nagusiak zehaztutako arauak eta jarraibideak bete beharko dituzte. Zehazki, independentzia babesteko arauak eta eragina sortu ahal duten auditoreen bateraezintasunari buruzkoak bete beharko dituzte.

Salbuespen moduan, auditoria jaso behar duen entitateak auditoria kontratatu eta ordaindu ahalko du, arrazoiak emanez eta Estatuko Administrazioaren Kontu-

hartzailletza Nagusiak aurrez baimenduta. Halaber, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailletza Nagusiak ezarriko ditu kaudimen-irizpideak, kontratisten bateragarritasun-baldintzak, kontratistak hautatzeko balorazio-irizpideak eta lana egiteko baldintza teknikoak; eta datu horiek kontratazio-dokumentuetan jaso beharko dira.

Auditore kontratatuak ezin izango dira kontratatu hamar urtetik gorako ondoko ondoko kontratazioetan, auditoria-lanak erakunde berean egiteko. Ondoren berriro kontratatu ahalko dira, aurreko aldia bukatu eta bi urteko epea amaitu ostean. Era berean, hasierako kontratua egin eta bost urteko epea amaitu eta gero, auditoretza-sozietateetako auditoreak eta auditore kontratatuak txandakatu beharko dira, eta aipatu berri den bost urteko aldia amaitu eta hiru urteko epea igaro baino lehen ezin izango dute erakunde horretan egin auditoria-lanik, kontratazioaren gehieneko epeak indarrean jarraituz gero.»

Hamalau. Beste era batean idazten da Aurrekontuei buruzko Lege Orokorren bederatzigarren xedapen gehigarria. Honela idatzita geratzen da:

«Bederatzigarren xedapen gehigarria. *Merkataritza-sozietateak eta sektore publikoaren kontrolpeko beste erakunde batzuk.*

Estatuak autonomia-erkidegoekin edo toki-erakundeekin hitzarmenak egitea sustatuko du, Estatuko sektore publikoko erakundeek, autonomia-erkidegoen edo toki-erakundeen administrazioak edo haiei lotutako edo haien mendeko erakundeek parte-hartze gutxiengoduna duten merkataritza-sozietateen aurrekontu-, finantza-, kontabilitate- eta kontrol-araubidea koordinatzeko, baldin eta haietan duten parte-hartzea, batera hartuta, gehiengoduna bada edo beren kontrol politikoa badakar.

Merkataritza-sozietate horiek derrigorrean aurkeztu behar dizkiote urteko kontuak Kontu Auzitegiari, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailletza Nagusiaren bidez, baldin eta Estatuko sektore publikoaren partaidetzaren ehunekoa berdina edo handiagoa bada gainerako administrazio publiko bakoitzarena baino; horrez gain, autonomia-erkidego bakoitzak duen araudian ezarritakoa ere bete behar dute. Kontuak emateko prozedurari dagokionez, lege honetan xedatutakoa aplikatuko da.

Aurreko lerrokadetan xedatutakoa fundazio publikoei eta beste forma juridiko batzuei ere aplikatuko zaie, baldin eta, haietan, Estatuko sektore publikoaren parte-hartzea gainerako administrazio publiko bakoitzaren berdina edo handiagoa bada, betiere autonomia-erkidego bakoitzaren berezko araudian xedatutakoa alde batera utzi gabe.»

Hamabost. Beste era batean idazten da Aurrekontuei buruzko Lege Orokorren hogeita hirugarren xedapen gehigarria. Honela idatzita geratzen da:

«Hogeita hirugarren xedapen gehigarria. *Kreditu-atxikipenak, kontratu zentralizatuak finantzatzeko kreditu-transferentzietako espedienteak direla eta.*

«Kontratazio Zentralizatua» izeneko 923R Programari egotzi behar zaizkion kredituen kargura finantzatutako kontratu zentralizatuetan, kontratu zentralizatuaren organo hartzailearen aurrekontutik kreditu-transferentzia eginez finantzatzen direnean, organo kudeatzaile eskudunak ziurtagiri bat eskatuko du aurrekontu-kredituan saldo erabilgarria egoteari buruz, eta kreditu-transferentzietarako behar den kreditu-atxikipena egingo du, indarreko ekitaldiaren kargura, eta, halaber, hurrengo ekitaldietako kreditu-atxikipena egingo du, ukitutako ondorengo ekitaldietako bakoitzari dagokion zenbatekoa zehaztuta.

Aipatutako kreditu-atxikipenak erregistratuta, organo kudeatzaileak eragiketarako bakoitzaren kasuan kasuko ziurtagiriak igorriko dizkio Kontratazioa Arrazionalizatzeko eta Zentralizatzeko Zuzendaritza Nagusiari.

Ekitaldi bakoitzaren hasieran, hasten den ekitaldiari dagozkion urteko ordainketak, aurreko urteetan egindako urte anitzeko kreditu-atxikipenei dagozkienak, aurreko paragrafoetan adierazitakoari jarraituz, «Kontratazio Zentralizatua» izeneko 923R Programari hasieran esleitutako aurrekontu-zuzkiduretan jaso ez badira, automatikoki bihurtuko dira transferentzietarako kreditu-atxikipenen kontabilitate-informazioko sisteman, aurrekontu-aldaketa horiek izapidetzeko ondoreetarako. Ondore horietarako, Kontratazioa Arrazionalizatzeko eta Zentralizatzeko Zuzendaritza Nagusiak jakinaraziko ditu aurreko urteetan egin diren eta transferentzietarako kreditu-atxikipen gisa inputatu behar diren kreditu-atxikipenak, bai eta deuseztatu egin direnak ere.»

Azken xedapenetako hogeigarrena. *Martxoaren 5eko 1/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Higiezinaren Katastroari buruzko Legearen testu bategina aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da martxoaren 5eko 1/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Higiezinaren Katastroari buruzko Legearen testu bategina. Honela idatzita geratzen da:

Bat. Aldatu egiten da Higiezinaren Katastroari buruzko Legearen testu bateginaren 3. artikuluko 1. apartatua. Honela idatzita geratzen da:

«1. Ondasun higiezinaren katastroko deskribapenak bere ezaugarri fisikoak, ekonomikoak eta juridikoak izango ditu, eta, horien artean, katastroko lokalizazioa eta erreferentzia egongo dira, azalera, erabilera edo destinoa, lantze edo aprobeixamendu mota, eraikuntzen kalitatea, irudikapen grafikoa, merkatuko erreferentzia-balioa, katastro-balioa eta katastro-titularra, zerga-identifikazioko zenbakiarekin edo, hala badagokio, atzerritarraren identitate-zenbakiarekin. Higiezinak Jabetzako Erregistroarekin koordinatuta daudenean, erregistroko kodearekin batera sartuko da egoera hori.»

Artikuluaren gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Bi. Aldatu egiten da Higiezinaren Katastroari buruzko Legearen testu bateginaren hirugarren xedapen gehigarriko 2. apartatua. Honela idatzita geratzen da:

«Hirugarren xedapen gehigarria. *Katastroa erregularizatzeko prozedura.*

Katastroaren Zuzendaritza Nagusiak zehazten dituen udalerrietan eta aldietan aplikatuko da katastroa erregularizatzeko prozedura. Gainera, *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu beharko da. Hala eta guztiz ere, organo berak arrazoi emanez erabaki ahalko du ebazpen horretan ezarritako epea aldatzea, eta hori ere *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu beharko da.

Ebazpena *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu ondoren, eta horretan aipatutako epean, dagokion arauan aurreikusitako epetik kanpo aurkezten diren aitorpenak ez dira izapidetuko, 13. artikuluan araututako aitorpen bidezko txertatze-prozedurarekin bat. Hala ere, 36. artikuluan ezarritako lankidetzaren betebeharrak betetzeko, horietan jasotako informazioa eta horrekin batera dauden dokumentuak entregatu direla ulertuko da, eta kontuan hartuko dira katastroa erregularizatzeko prozeduraren ondorioetarako.

Erregularizatu beharreko jarduerak izapidetzetik kanpo utziko dira, lankidetzaren formularen bitartez.»

Hiru. Bederatzigarren xedapen iragankorra eransten zaio Higiezinaren Katastroari buruzko Legearen testu bateginari. Honela idatzita geratzen da:

«Bederatzigarren xedapen iragankorra. *Merkatuko erreferentzia-balioa zehazteko araubide iragankorra:*

Lege honetako azken xedapenetako hirugarrenean ezartzen den erregelamenduzko garapena onartu arte, higiezinaren merkatuari buruzko urteko txosten bat egingo da, erreferentzia-balioa zehazteko, eta balio-moduluak zehazteko oinarria izango da.

Honela zehaztuko dira gidalerro eta irizpide espezifikoak:

a) Hiri-ondasun higiezinak eta landa-lurzoruan dauden eraikuntzak direnean, katastro-balioak indarreko arauen arabera kalkulatu dira, eta aplikazio-moduluak urtero finkatu dira.

b) Landa-lurzoruan eraikuntzarik ez badago, laborantza bakoitzaren balio-moduluak aplikatu dira, eta urtero finkatu dira udalerriri bakoitzeko; kokapenari, agronomiari eta sozio-ekonomiari lotutako faktore objektiboak zuzenduko dituzte, aipatu den higiezinaren merkatuari buruzko urteko txostenak horrela jokatzea justifikatzen duenean.»

Lau. Azken xedapen bat, hirugarrena, eransten zaio Higiezinaren Katastroari buruzko Legearen testu bateginari. Honela idatzita geratzen da:

«Azken xedapenetako hirugarrena. *Merkatuko erreferentzia-balioa.*

Erregelamenduz zehazten den moduan, Katastroaren Zuzendaritza Orokorrek era objektiboan eta katastroan dauden datuak baliatuz kalkulatu du higiezin bakoitzaren merkatuan duen erreferentzia-balioa. Erreferentzia balio hori izango da fede-emaile publikoek egindako transakzioetan jakinarazten dituzten prezioen azterketaren emaitza; gainera, prezio horiek erkatuko dituen erabilgarri dituen gainerako informazio-iturriekin.

Ondorio horietarako, balio-mapa bat egingo du, eta bertan balorazio homogeneoa duten lurralde-eremuak zehaztuko ditu. Eremu horiei esleituko dizkio eremu horietan adierazgarriak diren produktu higiezinaren balio-moduluak eta gutxienez hilean behin Katastroaren Zuzendaritza Nagusian argitaratuko du, ebazpena eman ondoren.»

Azken xedapenetako hogeita batgarrena. *Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondorioak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren hirugarren xedapen iragankorraren bigarren apartatua. Honela idatzita geratzen da:

«Hirugarren xedapen iragankorra. *Ondasun higiezinaren gaineko zergaren hobariak.*

2. Udalek, katastro-balio berriak indarrean jarri baino lehen, balorazio kolektiborako prozeduraren ondorioz, Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 74.5 artikuluan ezarritako hobaria —zehazki, zerga-, administrazio- eta gizarte-alorreko neurri fiskalei buruzkoa den abenduaren 29ko 14/2000 Legeak eman zion idazkeraren arabera— aplikatzen baldin bazuten, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 68.1 artikuluan aipatutako aldian hobari hori aplikatzen jarraitu ahalko dute.»

Xedapenaren gainerakoa bere horretan idatzita geratzen da.

Azken xedapenetako hogeita bigarrena. *Apirilaren 24ko 8/2006 Legea, Tropako Militarren eta Marinelen, aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da Tropako Militarren eta Marinelen 8/2006 Legearen 20. artikuluko 3. apartatua (apirilaren 24ko 8/2006 Legea). Honela idatzita geratzen da:

«3. Defentsa Ministerioari atxikitako kidegoetan eta eskaletan sail horretako eta haren erakunde autonomoetako langile lan-kontratadun gisa sartzeko deialdietan, lan-eskaintza publikoaren arabera argitaratuta, gutxienez lanpostuen ehuneko 50 tropako militarrei eta marinelei gordeko zaizkie, baldin eta, gutxienez, zerbitzuan bost urte eman badute, bai eta prestasun bereziko erreserbagileei ere, baldin eta deialdiak argitaratu arte, prestasun-ordainsaria lege honetako 19.1 artikuluan zehaztutako zenbatekoan eta baldintzetan jasotzen bazuten.»

Artikuluaren gainerakoa bere horretan idatzita geratzen da.

Azken xedapenetako hogeita hirugarrena. *5.000 biztanletik beherako udalerrietan enplegu autonomoa sustatzea.*

Lege hau indarrean jarri eta hurrengo hilabeteko lehen egunetik aurrera ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da Langile Autonomoaren Estatutuaren 20/2007 Legea (uztailaren 11ko 20/2007 Legea). Honela aldatzen da:

Bat. Aldatu egiten da Langile Autonomoaren Estatutuaren uztailaren 11ko 20/2007 Legearen 31. artikuluko 1. apartatua. Honela idatzita geratzen da:

«31. artikulua. *Langile autonomoen Gizarte Segurantzako kuotetan aplikatu ahal diren murrizketak eta hobariak.*

1. Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian hasierako alta ematen duten norberaren konturako langileek edo langile autonomoek, edo altaren ondorio-dataren aurre-aurreko bi urteetan araubide horretan alta-egoeran egon ez direnek, eskubidea izango dute gertakari arruntengatik egin behar duten kotizazioan —aldi baterako ezintasuna barne— hilero 50 euroko murriztapen bat izateko altaren ondorio-dataren ondorengo hamabi hilabeteetan, baldin eta dagokien gutxieneko oinarria aintzat hartuta kotizatzea aukeratzen badute.

Ordezko aukera gisa, aurreko paragrafoan aurreikusitako betekizunak betetzen dituzten eta dagokien gutxieneko kotizazio-oinarria baino handiago bat hautatzen duten norberaren konturako langileek edo autonomoek gertakari arrunten kuota ehuneko 80 murriztu ahal izango dute altaren ondorio-dataren ondorengo lehen 12 hilabeteetan. Hauxe izango da murriztuko duten kuota: dagokion gutxieneko kotizazio-oinarriari une bakoitzean indarrean den gutxieneko kotizazio-tasa (aldi baterako ezintasuna barne) aplikatuz atera dena.

Aurreko bi paragrafoetan aurreikusitako 12 hilabeteko hasierako aldiaren ondoren, eta hautatutako kotizazio-oinarria gorabehera, artikuluko honetan aurreikusitako neurria baliatzen duten norberaren konturako langileek jarraian adierazitako murriztapenak eta hobariak aplikatu ahal izango dituzte gertakari arrunten kuotan. Hauxe izango da murriztuko den edo hobaria jasoko duen kuota: dagokion gutxieneko kotizazio-oinarriari une bakoitzean indarrean den gutxieneko kotizazio-tasa (aldi baterako ezintasuna barne) aplikatuz atera dena, 12 hilabetera arteko gehieneko aldi, harik eta altaren ondorio-datatik hasi eta 24 hilabeteko gehieneko aldia bete arte, eskala honen arabera:

a) Kuotaren ehuneko 50eko murriztapena, apartatu honen lehen bi paragrafoetan aurreikusitako hasierako aldiaren osteko sei hilabeteetan.

b) Kuotaren ehuneko 30eko murrizketa, a) letran adierazitako aldiaren osteko hiru hilabeteetan.

c) Kuotaren % 30eko hobaria, b) letran adierazitako aldiaren osteko hiru hilabeteetan.

Norberaren konturako langileek edo langile autonomoek bizilekua eta jarduera 5.000 biztanletik beherako udalerrri batean egiten baldin badute, betiere udal-errola jardueraren hasieran eguneratuta bazegoen, hasierako 12 hilabeteko epean apartatu honetako lehen bi paragrafoetan ezarri diren kontingentzia arruntengatik kuotetan murrizketak egin eta gero (aldi baterako lan-erregimena ere bai), eskubidea izango dute hurrengo 12 hilabeteetan ere pizgarri horiek baliatzeko. Kasu horietan ez dira aplikatuko aurreko letretan ezarri diren hasierako epea amaitu ondorengo 12 hilabeteetako murrizketak eta hobariak.

Hasierako epea amaitu ondorengo 12 hilabeteetan murrizketa horiek baliatzeko, honako baldintza hauek bete beharko ditu norberaren konturako langileak edo langile autonomoak:

1.) 5.000 biztanletik beherako udalerrri batean erroldatuta egotea, Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezia hasierako alta eskatzen dueneko udal-errolako datu ofizialen arabera, horrek eragiten baitu artikulua honetan ezarritako pizgarria jasotzeko eskubidea.

2.) Zerga Administrazioako Estatu Agentziak edo foru-ogasunek duten zerga nahitaez ordaindu behar duten erroldan alta eskatu izana, eta udalerrriak, non jarduera egiten baitu, 5.000 biztanletik beherakoa izan beharko du, udal-errolako datuen arabera.

3.) Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezia alta, artikulua honetan azaldutako pizgarria jasotzeko eskubidea sortzen duena, eskatu eta hurrengo bi urteetan jarduera autonomoa edo norberaren konturako jarduera udalerrri horretan egiten jarraitzea, eta alta eskatu eta hurrengo lau urteetan udalerrri horretan erroldatuta jarraitzea.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak murrizketa horren kontrola egingo du. Horretarako, Estatistikako Institutu Nazionalak eta zerga-administrazioek zerbitzu erkide horren eskura utzi beharko dituzte murrizketa aplikatzeko eskatzen diren eskakizunak betetzen ote diren ziurtatzeko behar dituen baliabideak eta informazioa.

Eskakizunak bete ezean, norberaren konturako langileak edo langile autonomoak pizgarria aplikatzeagatik ordaindu ez dituen kopuru guztiak itzuli beharko ditu, eskakizunak bete ez direla egiaztatu eta hurrengo hilabeteko lehen egunetik aurrera.»

Bi. Aldatu egiten da Langile Autonomoaren Estatutuaren uztailaren 11ko 20/2007 Legearen 32. artikuluko 1. apartatua. Honela idatzita geratzen da:

«32. artikulua. *Gizarte Segurantzarekiko kuota-murriztapenak eta -hobariak desgaitasuna duten pertsonentzat, genero-indarkeriaren biktimantzat eta terrorismoaren biktimantzat, norberaren konturako langile gisa hasten badira.*

1. Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezia hasierako alta ematen duten pertsonak, edo altaren ondorio-dataren aurre-aurreko bi urteetan Araubidean alta-egoeran egon ez direnak, ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasuna badute, edo genero-indarkeriaren edo terrorismoaren biktimak badira, 50 euro ordainduko dituzte hileroko altaren ondorio-dataren ondorengo 12 hilabeteetan gertakari arrunten kuota gisa —aldi baterako

ezintasuna barne—, baldin eta dagokien gutxieneko oinarria aintzat hartuta kotizatzea aukeratzen badute.

Ordezko aukera gisa, aurreko paragrafoan aurreikusitako betekizunak betetzen dituzten eta dagokien gutxieneko kotizazio-oinarria baino handiago bat hautatzen duten norberaren konturako langileek edo autonomoek gertakari arrunten kuota murriztu ahal izango dute altaren ondorio-dataren ondorengo lehen 12 hilabeteetan. Hauxe izango da murriztuko duten kuota: dagokion gutxieneko kotizazio-oinarriari une bakoitzean indarrean den gutxieneko kotizazio-tasa (aldi baterako ezintasuna barne) aplikatuz ateratzen denaren ehuneko 80.

Aurreko bi paragrafoetan aurreikusitako 12 hilabeteko hasierako aldiaren ondoren, eta hautatutako kotizazio-oinarria gorabehera, artikulua honetan aurreikusitako neurria baliatzen duten norberaren konturako langileek hobari bat aplikatu ahal izango dute gertakari arrunten kuotan. Hauxe izango da hobaria jasoko duen kuota: dagokion gutxieneko kotizazio-oinarriari une bakoitzean indarrean den gutxieneko kotizazio-tasa (aldi baterako ezintasuna barne) aplikatuz ateratzen denaren ehuneko 50, 48 hilabetera arteko gehieneko aldi, harik eta altaren ondorio-datatik hasi eta bost urteko gehieneko aldia bete arte.

Norberaren konturako langileek edo langile autonomoek bizilekua eta jarduera 5.000 biztanletik beherako udalerriri batean egiten baldin badute, betiere udal-errola jardueraren hasieran eguneratuta bazegoen, hasierako 12 hilabeteko epean apartatu honetako lehen bi paragrafoetan ezarri diren kontingentzia arruntengatik kuotetan murrizketak egin eta gero (aldi baterako lan-ezintasunarengatik ere bai), eskubidea izango dute hurrengo 12 hilabeteetan ere pizgarri horiek baliatzeko. Kasu horietan, ehuneko 50eko hobaria (aurreko paragrafoan ezarrita) hasierako 24 hilabeteak igaro ondoren aplikatuko da, eta, gehienez ere, 36 hilabeteko epean, bost urteko aldia bete arte, ondorioak sortu zituen alta-egunetik zenbatuta.

Hasierako epea amaitu ondorengo 12 hilabeteetan murrizketa horiek baliatzeko, honako baldintza hauek bete beharko ditu norberaren konturako langileak edo langile autonomoak:

1.) 5.000 biztanletik beherako udalerriri batean erroldatuta egotea, Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian hasierako alta eskatzen dueneko udal-errolako datu ofizialen arabera, horrek eragiten baitu artikulua honetan ezarritako pizgarria jasotzeko eskubidea.

2.) Zerga Administrazioako Estatu Agentziak edo foru-ogasunek duten zerga nahitaez ordaindu behar duten erroldan alta eskatu izana, eta udalerririak, non jarduera egiten baitu, 5.000 biztanletik beherakoa izan beharko du, udal-errolako datuen arabera.

3.) Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian alta, artikulua honetan azaldutako pizgarria jasotzeko eskubidea sortzen duena, eskatu eta hurrengo bi urteetan jarduera autonomoa edo norberaren konturako jarduera udalerriri horretan egiten jarraitzea, eta alta eskatu eta hurrengo lau urteetan udalerriri horretan erroldatuta jarraitzea.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak murrizketa horren kontrola egingo du. Horretarako, Estatistikako Institutu Nazionalak eta zerga-administrazioek zerbitzu erkide horren eskura utzi beharko dituzte murrizketa aplikatzeko eskatzen diren eskakizunak betetzen ote diren ziurtatzeko behar dituen baliabideak eta informazioa.

Eskakizunak bete ezean, norberaren konturako langileak edo langile autonomoak pizgarria aplikatzeagatik ordaindu ez dituen kopuru guztiak itzuli beharko ditu, eskakizunak bete ez direla egiaztatu eta hurrengo hilabeteko lehen egunetik aurrera.»

Azken xedapenetako hogeita laugarrena. *Karrera Militarri buruzko 39/2007 Legea, azaroaren 19koa, aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, azaroaren 19ko 39/2007 Legeari hamahirugarren xedapen gehigarria eransten zaio (39/2007 Legea, Karrera Militarri buruzkoa). Honela idatzita geratzen da:

«Hamahirugarren xedapen gehigarria. *Lanpostuak militar osagarriei gordetzea.*

Apirilaren 24ko 8/2006 Legearen 20. artikuluko 3. apartatuan ezartzen da tropako militar eta marinela profesionalen lanpostuak gorde behar zaizkiela (8/2006 Legea, Tropako Militarren eta Marinelen Legea), eta baldintza hori militar osagarriei ere zabalduko zaie, baldin eta Indar Armatuetan bost urtetik gorako zerbitzua eman badute.»

Azken xedapenetako hogeita bosgarrena. *Irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testu batgina aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da 2/2011 Legegintzako Errege Dekretua, irailaren 5ekoa, Estatuko Portuei eta Merkataritza Nabigazioari buruzkoa. Honela idatzita geratzen da:

Bat. Beste era batean idazten da 19. artikuluen 1. zenbakiaren b) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«b) Portu Agintaritzen tasen ondorioz sortutako sarreraren ehuneko laua, eta, kontabilitate-ondorioetarako, tasa horiek ustiatze-gastuaren izaera izango dute, eta Portu Agintaritzentzako eta hiru hilabeteko aldizkakotasunarekin likidatuko dira.

Balearetako eta Kanarietako uharte-erregioetako eta Ceutako, Melillako eta Sevillako portu-agintaritzak baldin badira, ekarpen hori ehuneko bi izango da.»

Artikuluaren gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Bi. Beste era batean idazten da 159. artikuluen 3. zenbakiaren b) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«b) Gehienez ere ekitaldiko emaitzaren ehuneko 12 eta gutxienez ere ehuneko 4, honako hauek kanpo utzi arren, emaitza positiboa baldin bada: ibilgetuaren amortizazioak; aktibo ez-zirkulatuaren besterentzeagatik eta bajengatik sortzen den emaitza; finantza-gastuak aktiboan gehitzeagatik osatzen diren diru-sarrerak; kapitaleko dirulaguntzak emaitzeara eta ohikoak ez diren beste emaitza batzuetara intsuldatzea; Konpentsazio Funtsean eman den eta funtsetik jaso den zenbatekoa eta nabigazioa sustatzeko Dirulaguntzen tasa.

Funtsean Banaketarako Batzordeak aplikatuko du b) letran ezartzen den ehuneko, Portu Agintaritzen eta Estatuko Portuen finantza-premia globalen arabera, Portu Agintaritzen lehia-egoerak ezberdinak direlako, agintaritzak bazterkeriaz ez tratatzeko printzipioan oinarrituta. Ehuneko hori ehuneko 50ean murriztuko da Kanarietako eta Balearetako uhartetietako eta Ceutako, Melillako eta Sevillako Portu Agintaritzen kasuan.»

Artikuluaren gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Hiru. Aldatu egin da 217. artikulua. Honela idatzita geratzen da:

«217. artikulua. *Oinarrizko zenbatekoa.*

Salgaiaren tasaren oinarrizko zenbatekoaren balioa (M) 2,65 € izango da portu-agintaritza guztientzat. Balio hori berrikusi ahal izango da Estatuaren Aurrekontu

Orokorren Legean edo, hala badagokio, ondorio horietarako onartzen den beste batean portuko, logistikako eta garraioko, baita garraiatutako produktuetako ere, kostuen bilakaeraren arabera, portu-nodoaren eta ekonomiaren lehiakortasunari lotutako beharrak aintzat hartuta.»

Azken xedapenetako hogeita seigarrena. *Uztailaren 5eko 17/2011 Legea, Elikagaien Segurtasunari eta Nutrizioari buruzkoa, aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik, eta indarraldi mugagabez, Elikagaien Segurtasunari eta Nutrizioari buruzko 17/2011 Legearen X. kapituluko lehen ataleko 58. artikuluan egiten diren honako aldaketa hauek (uztailaren 5eko 17/2011 Legean):

Aldatu egiten da X. kapituluko lehen ataleko 58. artikuluko 1. apartatuko g), h) eta i) epigrafeetan jasotako tasen zenbatekoa. Honela idatzita geratzen da:

«1. Honako hauek izango dira 55. artikuluko 1. apartatuan ezarritako kontzeptuengatik sortzen diren tasen zenbatekoak:

[...]

g) Elikadura-osagarriak lehen aldiz merkaturatu direla jakinarazi ondoren egiten den azterlana eta ebaluazioa egiteagatik: 125,63 euro.

h) Aurreko g) letran aipatutako produktuetan aldaketa esanguratsuak egiteagatik: 95,86 euro.

i) Aurreko g) letran aipatutako produktuetan aldaketa txikiak egiteagatik: 59,76 euro.»

58. artikulua gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Azken xedapenetako hogeita zazpigarrena. *Ekainaren 29ko 2/2012 Legea, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrena, aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legearen hirurogeigarren xedapen gehigarria (ekainaren 29ko 2/2012 Legea). Honela idatzita geratzen da:

«Hirurogeita hamargarren xedapen gehigarria. *Marbellako Udalak Gizarte Segurantzarekin eta Estatuko Ogasun Publikoarekin ordaintzeke dituen zorrak.*

Bat. Marbellako Udalak eta haren mende dauden zuzenbide publikoko entitateek Gizarte Segurantzarekin eta Estatuko Ogasun Publikoarekin zorrak dituzte ordaintzeke. Apirilaren 7ko 421/2006 Errege Dekretu bidez Udala desegin baino lehen sortu ziren zorrak. Zorren ordaintze gehienez ere 40 urteko epean zatikatuko da, Estatuaren diru-sarreretan parte hartzeko egiten duten transferentzien deskontuen bidez. Eragiketari % 1eko interesa aplikatuko zaio.

Bi. Zatikapenaren epe osoaren iraupena murriztuta, zatiketak ordaintzeko ezarritako epea baino lehen ezerezten baldin badira, aurreratutako ezerezte horri aplikatuko zaio Marbellako Udalak eta haren mende dauden zuzenbide publikoko entitateek eta udala titular gisa duten merkataritza-sozietateek jaso duten edozein kalte-ordain kobrantza, baldin eta jurisdikzio-agindu zibilen edo penalen bidez (ebazpen judizial irmo bat emanda) aitortuta bazituzten.

Kalte-ordain horiek udalari ondasunak edo eskubideak emanez gauzatu baldin badira, ondasun eta eskubideok lotuta egongo dira zatikatutako zorraren ordaintzari, eta, Zergei buruzko Lege Orokorren 172. artikuluan eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera, zuzenean exekutatu dira. Udalaren osoko bilkuraren erabakiaren bidez, arau horretatik kanpo utzi ahalko dira udaleko gizarte-zerbitzuak emateko erabiltzen diren

eskubideak edo ondasunak, baina horrek ez du inola ere ekarriko ordaintzeke dagoen eta zatikatu den zorra txikiagotzea.

Xedapen gehigarri honetan xedatu ez den guztia era osagarrian arautuko du Zergei buruzko Lege Orokorrean, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean edo Aurrekontuen Lege Orokorrean ezarritakoak.

Hiru. Aurreko atalean bildutako arauak aplikatzeagatik sortzen diren zatiketen ezerezteari aplikatuko zaio Estatuko Administrazio Orokorraren alde egin behar diren isunen eta gainerako ordaintzen zenbatekoa, zeinak idazkari judizialek, transferentzia-agindu bidez, Altxor Publikoaren diru-sarreretakako kontu berezian («Estatuaren aldeko isunak eta ordaintetako» izenekoan) sartzen baitituzte; eta, hala dagokionean, konfiskatu diren ondasunen eta eskubideen produktua, aurreko apartatuan aipatu diren jurisdikzio-agindu zibilen edo penalen bidez (ebazpen judizial irmoak emanda) Estatuko Administrazio Orokorrari aitortzen bazaizkie. Azken kasu horretan, ondasunak edo eskubideak zuzenean exekutatu dira Zergei buruzko Lege Orokorrearen 172. artikuluan eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrearen 34. artikuluan ezarritakoaren arabera, Marbellako Udalak gizarte-zerbitzu publikoak emateko erabili nahi dituen ondasunak eta eskubideak izan ezik. Halakoetan, Estatuko Administrazio Orokorrak doan laga ahalko die eskubide eta ondasun horien erabilera, azaroaren 3ko 33/2003 Legeak ezarritako baldintzetan (33/2003 Legea, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa), eta horrek ez du berekin ekarriko aipatutako zatiketako ezereztea. Xedapen gehigarri honetan xedatu ez den guztia era osagarrian arautuko du Zergei buruzko Lege Orokorrean, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean edo Aurrekontuen Lege Orokorrean ezarritakoak.

Lau. 2018an hitzarmen bat egin ahalko da onura publikoko edo interes publikoko proiektuak Marbellako udalerrian egin ahal izateko. Proiektuok Estatuko Administrazio Orokorraren alde aitortutako edo sartutako zenbateko osoen edo partzialen bidez gauzatu dira; zehazki, Estatuaren Aurrekontu Orokorren 2/2012 Legearen (ekainaren 29ko 2/2012 Legearen) hirurogeita hamargarren xedapen gehigarriko Hiru artikuluan aipatzen dira, eta betiere zorrak ezerezteko erabiltzen ez badira, apartatu horretan ezarritako terminoetan. Apartatu honen ondorioetarako, aplikagarria izango da azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzkoa.»

Azken xedapenetako hogeita zortzigarrena. *Urriaren 29ko 17/2013 Legea, uharteetako eta penintsulaz kanpoko sistema elektrikoetan hornidura bermatzekoa eta lehia gehitzekoa, aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, urriaren 29ko 17/2013 Legearen 2. artikulua aldatzen da (17/2013 Legea, uharteetako eta penintsulaz kanpoko sistema elektrikoetan hornidura bermatzekoa eta lehia gehitzekoa).

Urriaren 29ko 17/2013 Legearen 2. artikuluari 5. apartatua gehitzen zaio. Honela idatzita geratzen da (17/2013 Legea, uharteetako eta penintsulaz kanpoko sistema elektrikoetan hornidura bermatzekoa eta lehia gehitzekoa):

«5. 2018an, salbuespen moduan, sistemako operadoreak agerian uzten badu bost urteko epean hornidura era eraginkorrean bermatzeko potentzia gehiago beharko dela, Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko Ministerioak, bateragarritasunaren aldeko ebazpena egin beharrik gabe, premia horiei erantzuteko ezinbestekoa den neurrian eta denbora-tarte mugatuan, ordainsarien araubide gehigarria onartu ahalko die Europar Batasunaren edo Estatuaren araudia betetzeko edo funtzionatzen jarraitzeko inbertsio gehiago egin behar duten eta jada martxan dauden azpiegituri.»

Azken xedapenetako hogeita bederatzigarrena. *Ministroen Kontseiluaren 2013ko abenduaren 20ko Erabakia aldatzea, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetz*

Orokorrak zenbait erakunde publikori aplikatu behar dien kontrol ekonomiko-finantzarioaren erregimenari buruzkoa.

2018ko irailaren 1etik ondorioak izanik, eta indarraldi mugagabez, BOSGARREN apartatua gehitzen zaio Ministroen Kontseiluaren 2013ko abenduaren 20ko Erabakiari. Hauxe dio hitzez hitz:

«BOSGARRENA: LEHENENGO apartatua ezarritakoa gorabehera, ikerkuntzako organismo publikoen jarduketek eragiten badituzte EBko edo nazioarteko erakundeetatik datozen funtsen bidez osoan edo zati batean finantzatu behar diren gastuak eta ordainketak, jarduketok funtzio kontu-hartzailearen ordeztu, finantza-kontrol iraunkorraren mende egongo dira, Aurrekontuen Lege Orokorren 149. artikuluko 2. apartatuan ezarritakoarekin bat etorrira.»

Azken xedapenetako hogeita hamargarrena. *Abenduaren 23ko 22/2013 Legea, 2014rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrena, aldatzea.*

2018ko urtarrilaren 1etik ondorioak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da abenduaren 23ko 22/2013 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarria. Honela idatzita geratzen da:

«Sociedad Estatal Loterías y Apuestas del Estado SAK lankidetzaz eta babesletza-akordioak sinatu eta finantzatu ahal izango ditu Espainiako Gurutze Gorriarekin eta Minbiziaren Kontrako Borrokarako Espainiako Elkartearekin, bai eta lehenago sinatu ziren akordioak ere finantzatu, akordioetan ezarritako baldintza beretan. Akordio horietan ezarritako baldintzetan emango du finantzaketa, aipatutako erakunde bakoitzari honako ekarpen ekonomikoa bermatuz: azken lau ekitaldietan bi erakundeen alde egindako zozketen ondorioz banaka jasotako diru-sarreraren batez bestekoaren adinakoa. Era berean, Caritas Española erakundearekin lankidetzaz eta babesletza-akordioak sinatu eta finantzatu ahalko ditu, arestian aipatutakoari jarraikiz, Minbiziaren Kontrako Borrokarako Espainiako Elkarteak jaso behar duen urteko zenbateko baliokidea bermatuta. Hitzarmenak sinatu aurretik, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroaren aldeko txostena jaso beharko da.

Horretaz gain, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren aldeko txostena aurrez jasota, Sociedad Estatal Loterías y Apuestas del Estado SAK, akordioak sinatu eta finantzatu ahal izango ditu beste erakunde batzuekin; besteak beste, gizarte-, kultura- eta kirol-jarduerak sustatzeko. Halaber, aurrez sinatutako horrelako akordioak finantzatu ahal izango ditu.

Aurreko bi paragrafoetan xedatutako ekarpenak ekitaldian ezin izango dira izan, guztira, Sociedad Estatal Loterías y Apuestas del Estado SAK aurreko ekitaldian ostean lortu zuen etekinen ehuneko 2.»

Azken xedapenetako hogeita hamaikagarrena. *Abenduaren 26ko 24/2013 Legea, Sektore Elektrikoari buruzkoa, aldatzea.*

Aldatu egiten da abenduaren 26ko 24/2013 Legea, Sektore Elektrikoari buruzkoa. Honela geratzen da idatzita:

Azken xedapenetako hirugarrenari 6. apartatua gehitzen zaio. Honela idatzita geratzen da:

«6. Gobernuari baimena ematen zaio energia-erkidegoak titular gisa dituzten energia sortzeko azpiegiturak ordainsarien tratamendu berezia eduki ahal dezaten, energia sortzeko merkatuan jarraitu ahal izateko ezinbesteko baliabidetzat hartuta. Horren harira, energia-erkidegoak titular gisa dituzten energia sortzeko azpiegiturak dira irabazi-asmorik gabeko erakundeak, pertsona fisikoak, enpresa txikiak edo ertainak, zeinen akziodunak edo kide maioritarioak pertsona fisikoak, tokiko edo probintziako erakundeak edo beste enpresa txiki eta ertain batzuk baitira.»

Azken xedapenetako hogeita hamabigarrena. *Maiatzaren 9ko 9/2014 Lege Orokorra, Telekomunikazioei buruzkoa, aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, Telekomunikazioei buruzkoa den maiatzaren 9ko 9/2014 Lege Orokorraren I. eranskineko 1. apartatuko 1. epigrafea (Operadoreen tasa orokorra) beste era batean idazten da. Honela idatzita geratzen da:

«1. Operadoreei zerbitzu unibertsala finantzatzeko ezar dakiekeen ekarpen ekonomikoari kalterik egin gabe, 25. artikuluan eta III. tituluan zehazten den moduan, operadore guztiek urteko tasa bat ordaindu beharko dute. Tasa hori ez da izango ustiaketaren sarrera gordinen milako 1etik gorakoa, eta sortutako gastuak ordaintzera bideratuta egongo da (kudeaketako, kontroleko eta exekuzioko gastuak barne), 68. artikuluan adierazitako araugintzako agintaritzak nazionalak Lege honetan ezarritako araubide juridikoa aplikatzearen ondorioz. Zehazki, Ministerioko sailtako zuzendaritza-organoek eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak egiten dituzten langileria-gastuak eta gastu arruntak izango dira ordaindu beharko direnak. Gastu horiek haien eginkizunak betez eragingo dituzte, eta Telekomunikazioen Araugintzako Agintaritzak Nazional gisa lege honetan ezarri den araubide juridikoa aplikatzearekin lotura zuzena edukiko dute.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren ondorioetarako, diru-sarrera gordintzat joko dira lege honen aplikazio-esparruan sartzen diren komunikazio elektronikoen sareak ustiatzearen eta zerbitzuak ematearen ondorioz operadoreak orotara lortzen dituen sarrerak. Horrenbestez, ez dira sarrera gordintzat joko operadore batek emandako zerbitzuei dagozkienak, baldin eta horien zenbatekoa komunikazio elektronikoen sareak ustiatzen edo zerbitzuak ematen dituzten operadoreen zerbitzuak ordaintzeko helburuarekin jasotzen badu erabiltzaileen aldetik.»

Azken xedapenetako hogeita hamahirugarrena. *Irailaren 16ko 15/2014 Legea, Sektore Publikoa arrazionalizatu eta administrazioa eraberritzeko beste zenbait neurri buruzkoa, aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da irailaren 16ko 15/2014 Legearen 21. artikuluko 2. apartatua (15/2014 Legea, Sektore Publikoa arrazionalizatu eta administrazioa eraberritzeko beste zenbait neurri buruzkoa). Honela idatzita geratzen da:

«2. Honako hauek izango dira Espainiako Gazteriaren Kontseilua osatuko dutenak: gazte-elkarteak; gazte-elkarteek eratutako federazioak; gainerako erakundeetako gazte-atalak; autonomia-eremuko gazteria-kontseiluak edo erakunde baliokideak, baldin eta nortasun juridiko propioa badute, eta dagokien autonomia-erkidegoan edo hiri autonomoan aitortuta badaude; legez onartu diren erakunde sozialak, baldin eta haien estatutuetan argi eta esplizituki jaso bada xede sozialetako bat gazteei zuzendutako programak eta jarduketak era jarraituan garatzea dela, eta, betiere, baldin eta haiek guztiek antolaketaren eta barne-funtzionamenduaren araubidean ezarritako eskakizunak betetzen badituzte.»

Gainerako apartatuak beren horretan idatzita geratzen dira.

Azken xedapenetako hogeita hamalagarrena. *Abenduaren 26ko 36/2014 Legea, 2015erako Estatuaren Aurrekontu Orokorrena, aldatzea.*

2018ko urtarrilaren 1etik ondorioak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da 2015erako Estatuaren Aurrekontu Orokorren 36/2014 Legea (abenduaren 26ko 36/2014 Legea). Honela idatzita geratzen da:

Bat. Beste idazketa bat ematen zaio 36/2014 Legearen hamaikagarren xedapen gehigarriari. Honela idatzita geratzen da:

«Hamaikagarrena. *Kredituak zentralizatzea.*

1. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroak emandako ministerio-agindua onartutakoan, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen testu bateginaren 229.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorruta, hala dagokionean eta kontratu bakoitzaren espedienteaz izapidetzen hasi aurretik, Kontratazioa Arrazionalizatzeko eta Zentralizatzeko Zuzendaritza Nagusiak lege horren 3.1 artikuluko a), b), c), d), e) eta g) letretan aipatutako erakundeei eta organismoei jakinaraziko die kontratuaren xedearen banaketaren arabera dagokien kreditu-atxikipenaren zenbatekoa.

2. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroak onartuko ditu, Kontratazioa Arrazionalizatzeko eta Zentralizatzeko Zuzendaritza Nagusiaren ekimenez, eta Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Idazkariordetzaren proposamenari jarraituz, organo hartzailearen aurrekontutik egin beharreko kreditu-transferentzien izapidetzeak, honako aurrekontu-programa honi egotzi beharreko gastuak finantzatzeko: «Kontratazio zentralizatua» izeneko 10. ataleko 923R aurrekontu-programari («Kontratazio zentralizatua»), edota, aplikatzekoa den aurrekontu-araubidearen arabera transferentzia hori egiterik ez dagoenean, kreditua sortuz honako aurrekontu-zerbitzu honetan: 01 Aurrekontu-zerbitzuan («Kontratazioa Arrazionalizatzeko eta Zentralizatzeko Zuzendaritza Nagusia»), «Kontratazio zentralizatua» izeneko 10. ataleko 923R Programan («Kontratazio zentralizatua»), kontratu zentralizatuaren xede den hartzaileak egindako diru-sarreretatik.

3. Beren aurrekontuen finantzaketa orokorrerako edo bereizi gabeko finantzaketarako Estatuko Administrazio Orokorraren transferentziak jasotzen ez dituzten organismo edo erakundeek ekitaldiaren lehen hiruhilekoan transferitu beharko dizkiote altxor publikoari zerbitzu zentralizatuari dagozkien zenbatekoak. Ondore horietarako, Kontratazioa Arrazionalizatzeko eta Zentralizatzeko Zuzendaritza Nagusiak transferitu beharreko zenbatekoak komunikatuko dizkie organismo horiei.

4. Kreditua zentralizatzeko sistema horiek bateratuko dira zerbitzu eta aurrekontu-programa horiei Estatuaren Aurrekontu Orokorreran esleitzen zaien hasierako zuzkidurarekin.

5. «Kontratazio zentralizatua» izeneko 923R Programaren kredituak kudeatzeko organo arduraduna Kontratazioa Arrazionalizatzeko eta Zentralizatzeko Zuzendaritza Nagusia da. Organo horretako titularra Kontratazio Zentralizatuaren Batzarreko burua izango da, zuzendaritza orokor horri atxikita dagoen kide anitzeko organoa da, eta Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 229.5 artikulua arabera (azaroaren 8ko 9/2017 Legea), kontratazioa zentralizatzeko estatu-sistemaren kontratazio-organoa ere bai.»

Bi. 36/2014 Legearen «“Salamancako Unibertsitatearen VIII. mendeurrena”» ospatzea deritzon berrogeita hamabosgarren xedapen gehigarriko bi apartatua beste era batean idazten da. Honela idatzita geratzen da:

«Bi. Ekitaldi horri laguntza emateko programak 2015eko azaroaren 1etik 2020ko apirilaren 30a arte iraungo du.»

Hiru. 36/2014 Legearen «“Kantabria 2017, Liébana Jubileu-urteari” aplikatzeko zaizkion zerga-onurak» deritzon berrogeita hamazazpigarren xedapen gehigarriko bi apartatua beste era batean idazten da. Honela idatzita geratzen da:

«Bi. Gertaera horri laguntzeko programak 2015eko apirilaren 16tik 2018ko abenduaren 31 arte iraungo du.»

Azken xedapenetako hogeita hamabosgarrena. *Urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Enpleguari buruzko Legearen testu bategina aldatzea.*

Aldatu egiten da urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Enpleguari buruzko Legearen 41. artikuluko 4. apartatua, eta 5. apartatua gehitzen da. Honela idatzita geratzen dira:

«4. Enplegu-zerbitzu publikoetan inskribatutako langabezia-prestazioen eta -sorospenen onuradunek, behin jarduera-konpromisoa hartu ondoren, laneratze-ibilbidean erabakitako lan-politika aktiboetan parte hartu beharko dute, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginean xedatutakoa gorabehera. Enplegu-zerbitzu publiko eskudunek egiaztatuko dute ezen langabezia-prestazioen eta -sorospenen onuradunek betetzen dituztela jarduera-konpromisoaren ondoriozko betebeharrak, eta, zigorrik ezarri bazaie, jakinarazi egin beharko diote Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoari edo Itsasoko Gizarte Institutuari, hala dagokionean, ezartzen zaien unean, hark zigorra betearaz dezan.

Enplegu-zerbitzu publiko eskudunek, halaber, egiaztatuko dute ezen onuradun horiek betetzen dutela enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egoteko betebeharra, eta Estatuako Enplegu Publikoaren Zerbitzuari edo Itsasoko Gizarte Institutuari, hala balegokio, elektronikoki jakinarazi beharko dizkiote betebeharrak horren hutsegiteak, gertatzen diren unean edo ezagutzen dituzten unean.»

«5. Jardun-konpromisoak berekin ekartzen du lana aktiboki bilatzea, honela definituta: lana bilatzeko estrategiak erabiltzea eta norberaren enplegarritasuna hobetzea, lana eskatzen duen pertsonak laneratzeko edo lan-merkatuan duen egoera hobetzeko aukerak handiagoak izan ditzan.

Prestazio edo sorospenaren onuradunak enplegu-zerbitzu publiko eskuduneari egiaztatu beharko du lana aktiboki bilatzen duela. Enplegu-zerbitzu publikoan dokumentuen bidezko justifikazioa gorde beharko du, geroago fiskalizatzeko eta jarraipena egiteko.

Enplegu-zerbitzu publikoek elektronikoki jakinarazi beharko dute interesduna aktiboki ari dela lan bila. Jakinarazpen hori egiteko bide egokia Enplegu Zerbitzu Publikoaren Informazio Sistema da (SISPE), 12. artikuluan araututa dagoenarekin bat etorrita, Enplegu eta Lan Gaietarako Konferentzia Sektorialean ezarritako jardun-akordioen edota protokoloen esparruan. Enplegu Zerbitzu Publikoaren Informazio Sistemaren Zuzendaritza Batzordeak erabakita, jardun-konpromisoa eta ziurtapena egiaztatzeke eskakizunak zehaztuko dira, eta Estatuako Enplegu Publikoaren Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez formalizatuko da.»

Azken xedapenetako hogeita hamaseigarrena. *Irailaren 29ko 38/2015 Legea, Trenbide Sektorearena, aldatzea.*

Lege hau indarrean jarri eta hurrengo hilabeteko lehen egunetik aurrera, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da irailaren 29ko 38/2015 Lege Orokorra, Trenbide Sektorearena. Honela:

Bat. Aldatu egiten da irailaren 29ko 38/2015 Lege Orokorraren 99. artikuluko 2. apartatua (38/2015 Legea, Trenbide Sektorearena). Honela idatzita geratzen da:

«2. Kanon-modalitateak banaka edo taldean likidatu ahal izango dira, subjektu pasibo eta aldi bererako.»

Artikuluaren gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Bi. Laugarren paragrafoa eransten zaio irailaren 29ko 38/2015 Legearen lehen xedapen iragankorraren 2. apartatuari (38/2015 Legea, Trenbide Sektorearena). Honela idatzita geratzen da:

«Bidaia-irak garraiatzeko trenbide-zerbitzuen xedea turismoa denean, zerbitzuok legearen 97. artikuluko VL1 zerbitzu motan sailkatzen dira.»

Xedapenaren gainerakoa bere horretan idatzita geratzen da.

Azken xedapenetako hogeita hamazazpigarrena. *40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da urriaren 1eko 40/2015 Legearen azken xedapenetako hamargarreneko Zortzi apartatuko a) letraren bigarren paragrafoko lehen tartekia. Paragrafoa honela idatzita geratzen da:

«Itsas konpainien kasuan, erregelamenduzko aldia amaitu ondorengo bi hilabete epean aurkeztuko dituzte likidazioak, Merkataritza Nabigazioko Zuzendaritza Nagusiak, ezohiko arrazoiak direla-eta, baimen espresua eman ezean. Likidazio horietan, aurreko likidazioen fitxategietan arrazoi justifikatuak direla medio barne hartu ezin izan diren azken sei hilabeteetako ontziratze hobaridunak sartu ahal izango dira.»

Gainerako apartatuak beren horretan idatzita geratzen dira.

Azken xedapenetako hogeita hemezortzigarrena. *Aldatzea urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsi zen Langileen Estatutuen Legearen testu bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsi zen Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina eta urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina.*

Bat. Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsi zen Langileen Estatutuen Legearen testu bateginaren 48.7 artikulua. Honela idatzita geratzen da:

«7. Lege honetako 45.1.d) artikulua araberako seme-alabaren jaiotza, adopzioa, adopzio aurreko zaintza eta harrera dagoenean, langileak kontratua aitatasunagatik bost astez eteteko eskabidea izango du; erditze, adopzio, adopzio aurreko zaintza edo harrera anizkoitza dagoenean, berriz, etenaldia bi egun gehiago luzatuko da seme-alaba bakoitzeko, bigarrenetik aurrera. Lan-kontratuaren etete horrek ez du zerikusirik 4. eta 5. zenbakietan araututako batera hartzeko atsedenaldiekin.

Erditzearen kasuan, etenaldia beste gurasoari dagokio bakar-bakarrik. Adopzioaren, adopzio aurreko zaintzaren edo harreraren kasuetan, eskubide hori gurasoetarik batek bakarrik izango du, interesdunek egindako aukeraren arabera; hala ere, 5. zenbakian araututako atsedenaldia oso-osoan gurasoetarik batek bakarrik duenean, gurasotasunaren ondoriozko atsedenal-di-eskubidea beste gurasoak bakarrik egikaritu ahal izango du.

Eskubide honetaz baliatzen den langilea, semea edo alaba jaiotzeagatik legeaz edo konbentzionalki aurreikusitako baimena amaitzen denetik edo adopzioa eratzeko ebazpen judiziala ematen denetik, edo adopzio aurreko zaintza edo harrera egiteko erabaki administratiboa edo judiziala ematen denetik, 4. eta 5. apartatuaren ezartzen diren arrazoiengatik kontratu-etenaldia amaitu arte edo etenaldi hori amaitu eta berehala baliatzen hasi ahal izango da.

Etenaldia jarraitua izango da, onartutako etenaldi osoaren azken astea izan ezik. Enpresaburua eta langilea ados jarrita, langileak beste une batean hartu ahalko du, bereizita, seme-alaba jaio edo aurreko paragrafoetan aipatzen diren ebazpen judizial edo erabaki administratiboa eman eta hurrengo bederatz hila beteetan. Erabaki hori etenaldiaren hasieran hartuko da.

Apartatu honek aipatutako kontratu-etetea izango da lanaldi osokoa zein lanaldi partzialekoa, gutxienez ehuneko berrogeita hamarrekoa, enpresaburuaren eta langilearen aurretiazko akordioarekin, eta erregelamendu bidez ezarritakoarekin bat etorritik. Edonola ere, etenaldi osoan lanaldiaren araubide bera ezarriko da, baita aurreko paragrafoan aipatutako aste bereizi horretan ere.

Langileak enpresaburuari eskubide hori baliatuko duela jakinarazi beharko dio, behar besteko aurrerapenarekin, hitzarmen kolektiboetan ezarritakoaren arabera.»

Bi. Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, beste era batean idazten da urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren hemeretzigarren xedapen gehigarriko 2. apartatua. Honela idatzita geratzen da:

«2. Orobat, aurreko zenbakian xedatutakoa aplikatuko da eskubideak lanaldi partzialean egikaritzen direnean 48.6 artikulua hiru paragrafoan eta 48.7 artikulua azken-aurreko paragrafoan ezarritakoari jarraikiz.»

Hiru. Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsi zen Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 49. c) artikulua lehen paragrafoa. Honela idatzita geratzen da:

«c) Seme-alabaren jaiotzagatik, adopzio aurreko zaintzagatik, harreragatik edo adopzioarengatik aitatasun-baimena: aitak edo beste gurasoak bost asteko baimen zabalgarria izango du, erditze-, adopzio-, adopzio aurreko zaintza- edo harrera anitzeko kasuetan, eta bi egun gehiago izango ditu, bigarrena eta gero jaiotzen den seme-alaba bakoitzeko. Baimena zenbatuko da jaiotza-egunetik, adopzio aurreko zaintza harrerako administrazio-erabakitik edo adopzioa eratzten duen ebazpen judizialek aurrera. Baimena jarraitua izango da, azken astea izan ezik. Aste hori bereizita hartu ahalko du langileak, beste une batean, seme-alaba jaio edo paragrafo honetan aipatzen diren ebazpen judizial edo erabaki administratiboa eman eta hurrengo bederatz hila beteetan, baimena hartu nahi duen gurasoak hala eskatzen badu, eta zerbitzu ematen duen administrazioak araudian ezarritako baldintzei jarraikiz baimena onartzen badio.

Era berean, araudi horretan ezarri ahalko da, aurrez eskatuz gero, baimenaren hasiera seme-alaba jaio edo lehen aipatu diren ebazpen judiziala edo erabaki administratiboa jakinarazi eta geroagoko une batean. Hala eta guztiz ere, beste gurasoaren baimena edo kontratuaren etenaldia (erditzegatik, adopzioagatik edo harrera egiteagatik) amaitu baino lehen, edo amaitu eta berehala.»

Lau. Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko 185. artikulua. Honela idatzita geratzen da:

«185. artikulua. *Prestazio ekonomikoa.*

Aitatasunagatik prestazio ekonomikoa sorospen bat izango da; sorospen hori zehaztuko da 179. artikulua amatasun-prestazioari begira ezarritakoaren arabera, eta ukatu, deuseztatu edo eten ahalko da amatasun-prestaziorako ezartzen diren arrazoi berberengatik.

Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 48.7 artikuluaen laugarren paragrafoan edo Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 49.c) artikuluaen lehen paragrafoko azken tartekian ezarritakoaren arabera, aitatasun-baimena eteten baldin bada, bereizitako baimen-aldiko azken astean jasoko da baimenaren lehen zatiketari zegokion sorospenenaren zenbatekoa.»

Bost. Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren beste azken xedapen bat gehitzen da, eta horrek azken xedapen bakarria aldatzen du. Honela idatzita geratzen dira:

«Azken xedapen bakarria. *Indarrean jartzea. Legegintzako errege-dekretu hau eta berak onartzen duen testu bategina 2016ko urtarrilaren 2an jarriko dira indarrean.*

Aurrekoa ezertan kendu gabe, Gizarte Segurantzari egindako ekarpen demografikoari dagokion amatasun-osagarria, testu bateginaren 60. artikuluan araututakoa, aplikatzekoa izango zaie, hartan aurreikusitako inguruabarrak gertatzen direnean, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen diren kotizaziopeko pentsioei.

Testu bateginaren 211. artikuluan arautzen den jasangarritasun-faktorea aplikatuko da noiz eta Toledoko Itunaren Erabakien Jarraipena eta Ebaluazioa egiteko Batzordean ados jartzen direnean sistemaren jasangarritasuna bermatzeko behar diren neurrien aplikazioari buruz. Hala eta guztiz ere, gehienez ere 2023ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.»

Azken xedapenetako hogeita hemeretzigarrena. *Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen duen uztailaren 21eko 7/2015 Lege Organikoa aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen duen uztailaren 21eko 7/2015 Lege Organikoa. Honela idatzita geratzen da:

Bat. Aldatu egiten da uztailaren 21eko 7/2015 Lege Organikoaren bosgarren xedapen gehigarria, eta honela idatzita geratzen da:

«Bosgarren xedapen gehigarria. *Erretiro-pentsioa.*

Justizia Administrazioako epaile, magistratu, abokatu fiskal, fiskal eta legelariei, unibertsitate-irakasleei eta jabetzaren erregistratzaileei, merkataritza-erregistratzaileei eta ondasun higigarrien erregistratzaileei, zeinak Estatuko Klase Pasiboen Araubidean sartuta baitaude, aplikatu egingo zaie apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bateginaren hamazazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa, baldin eta 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera erretiro-pentsioa sortu badute eta egitate kausatzaile horren unean gutxienez ere hirurogeita bost urte beteta badituzte; bai eta Auzitegi goreneko magistratuei ere, baldin eta data horretan emeritu gisa zerbitzuak ematen ari badira.

Kasu horietan, interesdunei portzentaje gehigarri bat aitortuko zaie hirurogeita bost urte bete zituzten egunetik pentsioaren egitate kausatzailea gertatu arte Estatuari emandako zerbitzu efektiboen urte bakoitzeko; horren zenbatekoa aipatutako datetatik lehenengoan ziurtatutako zerbitzu-urteen arabera izango da, betiere aurreko paragrafoan aipatutako xedapen gehigarrian ezarritako eskalaren arabera.»

Bi. Aldatu egiten da uztailaren 21eko 7/2015 Lege Organikoaren zortzigarren xedapen iragankorra. Honela idatzita geratzen da:

«Zortzigarren xedapen iragankorra. *Erretiro-pentsioa.*

2015eko urtarrilaren 1etik aurrera sortutako erretiro-pentsioen aitortpenak, zeinetan onuradunak lege honen bosgarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzak betetzen baitira, ofizioz berrikusiko dira, xedapen horretan ezarritakoari egokitzeko; horren ondore ekonomikoak egitate kausatzailearen hurrengo hilabetearen lehenengo egunetik aurrerakoak izango dira.

Halaber, ofizioz berrikusiko dira xedapen horretan aipatutako Auzitegi Goreneko magistratu eta fiskal emerituen erretiro-pentsioen aitortpenak, eta haien ondore ekonomikoak egoera horretan egoteari uzten dioten egunaren hurrengo hilabetearen lehenengo egunetik aurrerakoak izango dira.»

Azken xedapenetik berrogeigarrena. *Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondorioak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina, Bat apartatuan ezarritakoa izan ezik. Bat apartatuan ezarritakoa lege hau indarrean jarri eta hurrengo hilabeteke lehen egunetik aurrera izango ditu ondorioak, indarraldi mugagabez. Honela idatzita geratzen da:

Bat. Lege hau indarrean jarri eta hurrengo hilabetearen lehen egunetik aurrera ondorioak izanik, indarraldi mugagabez, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 229. artikuluko 3. apartatuan ezarritakoa beste era batean idazten da. Honela idatzita geratzen da:

«3. Artikulu honetan orokorrean ezarritakoa ezertan eragotzi gabe, ezarritako muga gainditu ahalko da hainbat zurtasun-pentsio alarguntza-pentsio batekin batera gertatzen direnean, azken hori kalkulatzeko oinarri arautzaileari aplikatzeko zaion portzentajea ehuneko 52koa denean. Hala eta guztiz ere, inoiz ezingo da gertatu zurtasun-pentsioen baturak oinarri arautzailearen ehuneko 48 gainditzea.»

Bi. Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, aldatu egiten da urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginako 282. artikuluko 2. apartatua. Honela idatzita geratzen da:

«2. Langabezia-prestazioa eta -sorospena, halaber, bateraezinak izango dira Gizarte Segurantzaren izaera ekonomikoko prestazioak jasotzearekin, salbu eta prestazio horiek bateragarriak zirenean prestazioa edo sorospena eragin zuen lanarekin.

Prestazioa eta sorospena bateragarriak izango dira edozein administrazio publikok ematen dituen gutxieneko errentekin, gizarte-soldatekin edo gizarte-laguntzako antzeko laguntzekin; hargatik eragotzi gabe horiek zenbatzea, diru-sarrera eskasak izateko edo familia-ardurak izateko eskakizunak betetzen diren zehazte aldera, 275. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.»

Hiru. Lege hau indarrean jartzen denetik ondorioak izanik, eta indarraldi mugagabez, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 352. artikuluan 1. apartatuko c) letra beste era batean idazten da. Honela idatzita geratzen da:

«c) Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean ezartzen den urteko kopurua baino urteko diru-sarrera handiagoak ez jasotzea, sarrera mota edozein izanda ere.

Zenbateko horri ehuneko 15 gehituko zaio norberaren ardurapeko seme-alaba edo adingabe bakoitzeko, bigarrenetik aurrera, bigarrena barne.

Aurrekoa gorabehera, familia ugariko kide badira, Familia Ugariak Babesteari buruzko azaroaren 18ko 40/2003 Legean xedatuari jarraituz, eskubidea izango dute, halaber, diru-esleipen bat jasotzeko beren ardurapeko seme-alaba bakoitzarengatik, horien urteko diru-sarrerak Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean ezartzen den urteko kopurua baino handiagoak ez badira, betiere, hiru seme-alaba badituzte ardurapean. Zenbateko horri lege horretan ezartzen den zenbatekoa gehituko zaio norberaren ardurapeko seme-alaba bakoitzeko, laugarrenetik aurrera (laugarrena barne).

Guraso biak elkarrekin bizi badira, bien diru-sarreraren batura aurreko paragrafoetan diru-sarrerarako ezarritako mugatik gora badago, ez zaie onuradun izaera aitortuko haietako bati ere. Arau bera aplikatuko da familia-harrera iraunkorraren kasuan edo adopzio-helburuko zaintzaren kasuan, familia-unitate bera osatzen duten bi pertsonak eratu badute.

Lehenengo bi paragrafoetan aipatzen diren urteko diru-sarreraren mugak urtero gaurkotuko dira Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean, aurreko ekitaldian ezarritako zenbatekoari dagokionez, gutxienez ere lege horretan Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioen gehikuntza orokorrerako ezartzen den portzentaje berean.

Hala eta guztiz ere, norberaren ardurapeko seme-alaba edo adingabeagatiko diru-esleipenen onuradun izan ahalko dira aurreko paragrafoetan aipatzen den zenbatekotik gorako urteko diru-sarrerak (edozein motatakoak) jasotzen dituztenak, baldin eta zenbateko horiek kopuru jakin bat baino txikiagoak badira. Kopuru hori da arestian aipatutako zenbatekoari honako hau gehitzearen emaitza: seme-alaba edo adingabe bakoitzeko ordainsariaren urteko kopurua bider onuradunen ardurapeko seme-alabaren edo adingabearen kopurua egitearen biderkadura.

Halakoetan, esleipenaren urteko zenbatekoa onuradunak jasotako diru-sarreraren eta aurreko lerrokadan adierazitakoa aplikatuta lortzen den kopuruaren arteko aldea izango da. Zenbateko hori onuradunaren ardurapeko seme-alabaren edo adingabearen eta ekitaldi bakoitzaren barruan esleipena jasotzeko eskubidea dagoen hileko ordainketen artean banatuko da.

Ez da diru-esleipenik aitortuko norberaren ardurapeko seme-alaba edo adingabeagatik, baldin eta aurreko paragrafoan aipatzen den aldea txikiagoa bada 353.1 artikuluan norberaren ardurapeko desgaitasunik gabeko seme-alaba edo adingabe bakoitzeko ezarritako esleipenaren hileko zenbatekoa baino.»

Artikuluaren gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Lau. Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, beste era batean idazten da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 353. artikulua. Honela idatzita geratzen da:

«353. artikulua. *Esleipenen zenbatekoa.*

1. 351.a) artikuluan aipatzen den diru-esleipenaren kopurua Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean finkatuko da, urteko zenbatekoan.

2. Horrez gain, lege horretan beste zenbateko espezifiko batzuk ezarriko dira, honako kasu hauek kontuan hartuta:

a) Norberaren ardurapeko seme-alabaren edo adingabearen desgaitasun-gradua ehuneko 33koa edo handiagoa denean.

b) Norberaren ardurapeko seme-alaba edo adingabea hemezortzi urtetik gorakoa bada, eta haren desgaitasun-gradua ehuneko 65ekoa edo handiagoa denean.

c) Norberaren ardurapeko seme-alabak hemezortzi urte baino gehiago dituenean, gutxienez ehuneko 75eko desgaitasun-gradua duenean, eta, galera

anatomiko edo funtzionalen ondorioz beste pertsona baten laguntza behar duenean eguneroko ekintzarik funtsezkoenak gauzatzeko, hala nola jantzeko, lekualdatzeko, jateko edo antzekoetarako.»

Bost. Hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria gehitzen da. Honela idatzita geratzen da:

«Hogeita zazpigarren xedapen gehigarria. *Aparteko langabezia-sorospena.*

1. Xedapen honetan arautzen den ezohiko langabezia-sorospenaren onuradunak izan ahalko dira lan-eskatzaille gisa izena ematen duten pertsonak, baldin eta, eskaera egiten dutenean, egoera hauetako batean badaude:

a) Xedapen hau indarrean jarri eta gero, testu bateginaren 274. artikuluan arautzen den langabezia-sorospena agortu eta, hartara, sorospen hori iraungita egotea.

b) Iraupen luzeko langabezia izatea, eta honako prestazio hauek agortuta eta iraungita edukitzea: langabezia-prestazioa edo langabezia-sorospena (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren III. tituluaren araututa daude); laneratzeko errenta aktiborako programari (RAI) lotutako dirulaguntzak (laguntza horiek premia ekonomiko bereziak eta enplegua aurkitzeko zailtasuna duten langabeei ematen zaizkie), programa hori azaroaren 24ko 1369/2006 Errege Dekretuan edo horren aurreko arauetan araututa dago; Babesaren eta Laneratzearen Aldi Baterako Programa (PRODI), abuztuaren 13ko 10/2009 Errege Lege Dekretuan araututa; Langabezia Babesa agortzen zaien Pertsonen Lanbide Prestakuntza Eguneratzeko Programa (PREPARA), enplegu egonkorreko trantsizioa sustatzeko eta langabeen lanbide-prestakuntza eguneratzeko premiazko neurriei buruzkoa den otsailaren 11ko 1/2011 Errege Lege Dekretuan eta programa hori luzatzen duten ondorengo errege lege-dekretuetan araututa; eta 2018ko maiatzaren 1ean lan-eskatzaille gisa izena eman izana. Baldintza hori betetzat joko da, nahiz eta langilea aipatutako datan enplegu-eskatzaille gisa izena emanda ez egon, inskripzioa etenda daukanean besteren konturako lan bat egiten ari delako; betiere, kontratuaren iraupena 90 egun baino gutxiagokoa izan bada.

Gainera, b) letran jasotako egoeran beharrezkoa izango da besteren konturako lan bat nahi gabe utzi izana, aitortutako azken eskubidea agortu aurretik.

Apartatu honen ondoreetarako, iraupen luzeko langabetzat hartzen da sorospena eskatu aurretiko hemezortzi hilabeteetan gutxienez 360 egunetan lan-eskatzaille gisa izena emanda egon izana.

2. Eskabidea aurkezten den egunean ziurtatuko beharko ditu honako eskakizun hauek betetzen dituela:

a) III. tituluaren arautzen den kontribuzio-mailako edo asistentzia-mailako langabezia-babeserako eskubidea ez izatea.

b) Erretiroa hartzeko adina beteta ez izatea, modalitatea ordaindutakoaren arabera izan zein ez.

c) Eskatzaillearen hileko errentak, horien iturria edozein dela ere, ez izatea lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 75 baino handiagoak —aparteko bi ordainsariren zati proportzionala kanpo utzita—, eta familia-ardurak egiaztatzea. Lege honetako 275. artikuluko 4., 3. eta 2. apartatuetan ezarritakoaren arabera egiaztatuko dira errentak eta familia-ardurak, hurrenez hurren.

d) Azken eskubidea agortu ondoren lan egin baldin badu, lan hori nahi gabe utzi izana.

3. Abenduaren 19ko 16/2014 Errege lege-dekretuan araututa dagoen Enplegua aktibatzeko Programan ezartzen den dirulaguntza jaso duten pertsonak ezin izango dute aparteko langabezia-sorospena jaso.

Era berean, lan-eskaeraren egunean besteren konturako lanaldi partziala edo lan-kontratua etenda duten pertsonak ezin izango dute sorospen hori jaso.

4. Aparteko langabezia-sorospenarekin batera, sorospena jasotzeko eskakizunak betetzen dituela egiaztatzeko dokumentuak ere aurkeztu beharko ditu eskatzaileak. Horrez gain, eskaera aurkezteak berekin ekarriko du jardun-konpromisoa ere hartzea (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren 300. artikuluan ezarrita dago). Eskaera egiteko eta eskubidea sortzeko, honako eskakizun espezifiko hauek bete beharko dira:

a) 1.a) apartatuko kasu bat baldin bada: hilabeteko itxarote-epean izena emanda egotea lan-eskatzaile gisa, aurreko sorospena amaitu zenetik zenbatuta; lan-eskaintzarik ukatu ez izana; sustatzeko, prestatzeko edo birmoldatzeko jarduera profesional bati ere uko egin ez izana, arrazoi justifikatua egon ezean; epe horretan lana aktiboki bilatzeko jarduerak egiten dituela ziurtatzea. Ezohiko sorospena jasotzeko eskubidea itxarote-epe hori amaitu eta hurrengo egunetik aurrera sortzen da, baldin eta hurrengo hamabost egun baliodunetan eskatzen bada. Eskaera aipatutako epea iraganda aurkezten baldin bada, eskubidea sortuko da eskaera egin eta hurrengo egunetik hasita, eta haren iraupena beheratuko da eskaera garaiz eta forman egin izan balitz eskubidea sortuko zen egunetik hasi eta egiazki eskaera egin den egunera arte iragan diren egunen arabera.

Enplegu-zerbitzu publikoek ez badute eskaera-egunik ziurtatu, eskaera ukatu egingo da, baina interesdunak beste eskaera bat egiteko eskubidea izango du. Halakoetan, eskubidea eskaera berria egin eta hurrengo egunetik aurrera sortuko da, eta eskubidearen iraupena ez da murriztuko eskaera bataren eta bestearen arteko epearen ondorioz.

b) 1.b) apartatuetan ezarritako kasuetako bat baldin bada, langileak ziurtatu beharko du eskaera-egunaren aurretiko hilabetean lana aktiboki bilatu duela. Aparteko langabezia-sorospena jasotzeko eskubidea eskaera egin eta hurrengo egunetik aurrera sortuko da.

Urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsi zen Enpleguari buruzko Legearen 41. artikuluan ezarritakoarekin bat etorruta, eskatzaileak lana bilatzeko politiken arloko enplegu-zerbitzu publiko eskudunetan ziurtatu beharko du lana aktiboki bilatu duela, eta lan-eskatzaile gisa zerbitzu horretan inskribatuta egon beharko du. Zerbitzu horretan dokumentu bidezko justifikazioa gorde beharko dute, geroago fiskalizazioa eta jarraipena egin ahal izateko.

5. Behin ebazpena emanda, aparteko sorospena jasotzeko eskubidea aitortuta, honako paragrafo hauetan ezarritakoaren arabera jaso ahalko dute onuradunek:

a) Sorospenaren gehieneko iraupena 180 egunekoa izango da, eta behin baino ezin izango da jaso.

b) Sorospenaren zenbatekoa une bakoitzean indarrean den hileko ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren ehuneko 80 izango da.

c) Estatuko enplegu-zerbitzu publikoak ordainduko du, aldiro, laguntza ekonomikoa, sortzapenaren hurrengo hilabetean.

6. Xedapen honetan berariaz ezarri ez denean, III. tituluan xedatutakoari jarraituko zaio.

7. Xedapen honek sei hilabeteko indarraldia izango du, indarrean jartzen denetik aurrera zenbatuta. Ondoren, sei hilabeteko aldiz luzatuko da automatikoki, langabezia-tasa ehuneko 15etik beherakoa izan arte, luzapena egin aurretik argitaratzen den Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera.»

Sei. Beste era batean idazten da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren hamaseigarren xedapen iragankorra. Honela idatzita geratzen da:

«Hamaseigarren xedapen iragankorra. *Kotizazio-oinarriak eta -tasak eta babes-jarduna Etxeko Langileentzako Sistema Berezian.*

1. Lege honen II. tituluko II. kapituluko bigarren atalean ezarritakoa ezertan kendu gabe, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean ezarritako Etxeko Langileentzako Sistema Berezian Gizarte Segurantzari egin beharreko kotizazioa honako arau hauen arabera egingo da:

a) Kotizazio-oinarrien kalkulua:

1.a 2012an, gertakari arruntengatiko eta profesionalengatiko kotizazio-oinarriak eskala honi jarraituz kalkulatu dira, etxeko langileek jasotako ordainsariaren arabera:

Tartea	Hileko ordainsaria	Kotizazio-oinarria
1.	Gehienez 74,83 euro hilean	90,20 euro hilean
2.	Gutxienez 74,84 euro hilean eta gehienez 122,93 euro hilean	98,89 euro hilean
3.	Gutxienez 122,94 euro hilean eta gehienez 171,02 euro hilean	146,98 euro hilean
4.	Gutxienez 171,03 euro hilean eta gehienez 219,11 euro hilean	195,07 euro hilean
5.	Gutxienez 219,12 euro hilean eta gehienez 267,20 euro hilean	243,16 euro hilean
6.	Gutxienez 267,21 euro hilean eta gehienez 315,30 euro hilean	291,26 euro hilean
7.	Gutxienez 315,31 euro hilean eta gehienez 363,40 euro hilean	339,36 euro hilean
8.	Gutxienez 363,41 euro hilean eta gehienez 411,50 euro hilean	387,46 euro hilean
9.	Gutxienez 411,51 euro hilean eta gehienez 459,60 euro hilean	435,56 euro hilean
10.	Gutxienez 459,61 euro hilean eta gehienez 507,70 euro hilean	483,66 euro hilean
11.	Gutxienez 507,71 euro hilean eta gehienez 555,80 euro hilean	531,76 euro hilean
12.	Gutxienez 555,81 euro hilean eta gehienez 603,90 euro hilean	579,86 euro hilean
13.	Gutxienez 603,91 euro hilean eta gehienez 652,00 euro hilean	627,96 euro hilean
14.	Gutxienez 652,01 euro hilean eta gehienez 700,10 euro hilean	676,06 euro hilean
15.	Gutxienez 700,11 euro hilean	748,20 euro hilean

Aurreko eskalako kotizazio-oinarriak handitu egingo dira 2012ko Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean Araubide Orokorren gutxieneko oinarriko ezar daitekeen handitzearen proportzioan.

2.a 2013an, gertakari arruntengatiko eta profesionalengatiko kotizazio-oinarriak eskala honi jarraituz kalkulatu dira, etxeko langileek jasotako ordainsariaren arabera:

Tartea	Hileko ordainsaria, aparteko ordainsarien proportzioa gehituta (euroak hilean)	Kotizazio-oinarria (euroak hilean)
1.	Gehienez 172,05	147,86
2.	172,06–268,80 bitartean	244,62
3.	268,81–365,60 bitartean	341,40
4.	365,61–462,40 bitartean	438,17
5.	462,41–559,10 bitartean	534,95
6.	559,11–655,90 bitartean	631,73
7.	655,91–753,00 bitartean	753,00
8.	Gutxienez 753,01	790,65

3.a 2014tik 2023a arte, eskalako hileko ordainsariak eta kotizazio-oinarriak urte horietako bakoitzean lanbide arteko gutxieneko soldata handitzen den proportzio berean eguneratuko dira.

4.a 2024tik aurrera, gertakari arruntengatiko eta profesionalengatiko kotizazio-oinarriak zehaztuko dira lege honen 147. artikuluan ezarritakoaren arabera; halere, kotizazioa ezin izango da txikiagoa izan legez ezartzen den gutxieneko oinarria baino.

b) Aplikatzekoak diren kotizazio-tasak:

1.a Gertakari arruntengatiko kotizaziorako, a) letran aipatutakoaren arabera egoki den kotizazio-oinarriaren gainean, honako kotizazio-tasa hauek aplikatuko dira:

2012an, kotizazio-tasa ehuneko 22 izango da; hortik, ehuneko 18,30 enpresaburuaren kontura izango da, eta ehuneko 3,70, berriz, langilearen kontura.

2013tik 2018ra, kotizazio-tasa urtero ehuneko 0,90 handituko da, eta haren zenbatekoa eta enplegatzailearen eta langilearen arteko banaketa kasuan kasuko Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean finkatuko da.

2019tik aurrera, kotizazio-tasa eta enpleguaren eta langilearen arteko banaketa kasuko Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko oro har ezartzen direnak izango dira.

2.a Gertakari profesionalengatiko kotizaziorako, a) letran aipatutakoaren arabera egoki den kotizazio-oinarriaren gainean legez ezarritako primen tarifen ezarritako kotizazio-tasa aplikatuko da, eta ateratzen den kuota langileak ordainduko du osorik.

2012tik 2023ra, 247. artikuluko a) letran aipatzen den partzialtasun-koefizientea, Etxeko Langileentzako Sistema Bereziari aplikatu ahal zaiona, zehazte aldera, bertan benetan lan egin diren orduak xedapen honetako 1.a) apartatuko 1., 2., eta 3. zenbakietan ezarritako kotizazio-oinarrien arabera zehaztuko dira, eta ekitaldi bakoitzean Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak Araubide Orokorreko gutxieneko ordu-oinarrirako ezarritako zenbatekoaz zatituko dira.

3. 251.a) artikuluan ezarritakoa 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.

4. 2012. urtetik 2023. urtera, etxeko langileek aldi horretan sortutako gertakari arrunten ondoriozko ezintasun iraunkorragatiko pentsioen eta erretiro-pentsioen oinarri arautzailea kalkulatzeko, sistema berezi horretan kotizatutako aldiei dagokienez, kontuan hartuko dira soilik egiazki kotizatutako aldiak, eta ez da aplikatzekoa izango 197.4 eta 209.1.b) artikuluetan ezarritakoa.»

Zazpi. Beste xedapen iragankor bat eransten da. Honela geratzen da idatzita:

«Hogeita hamargarren xedapen iragankorra. *Aparteko langabezia-sorospena jasotzea kasu zehatz batzuetan.*

2018ko martxoaren 1etik 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legea indarrean jartzen den eguna arte 274. artikuluan ezarritako langabezia-sorospena

agortu duten pertsonak izan ahalko dira hogeita zazpigarren xedapen gehigarrian arautzen den aparteko sorospenaren onuradunak; betiere, baldin eta azken egun hori eta hurrengo bi hilabeteetan eskatzen badute, eta 1.a) apartatuan zehaztutako kolektiboaren eskakizunak betetzen badituzte. Hala denean, aparteko sorospena jasotzeko eskubidea eskaera egin eta hurrengo egunean sortuko da.

Eskaera epetik kanpo, hau da, bi hilabeteke epe hori amaitu eta gero aurkezten baldin bada, eskubidearen iraupenari kenduko zaizkio epe hori amaitu zenetik eskaera benetan egin arte iragan ziren egunak.»

Azken xedapenetako berrogeita batgarrena. *Urriaren 29ko 48/2015 Legearen berrogeita hamargarren xedapen gehigarria aldatzea (48/2015 Legea, 2016rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrena).*

Bat. Lege hau indarrean jartzen denetik, eta indarraldi mugagabez, beste era batean idazten da urriaren 29ko 2016rako Estatuko Aurrekontu Orokorren 48/2015 Legearen berrogeita hamargarren xedapen gehigarria («Bartzelonako Lizeoko Antzoki Handia berrirekitzearen 20. urteurrena» eta «Societat d'Accionistes sortzearen bigarren mendeurrena» ospakizunari aplikatzeko zerga-onurak»). Honela idatzita geratzen da:

«Bi. Gertaera horri laguntzeko programak 2016ko uztailaren 1etik 2020ko abenduaren 31 arte iraungo du.»

Xedapenaren gainerakoa bere horretan idatzita geratzen da.

Bi. Lege hau indarrean jartzen denetik, eta indarraldi mugagabez, beste era batean idazten da 2016rako Estatuko Aurrekontu Orokorren 48/2015 Legearen «Prebenitu obesitatea. Arindu zure bizitza» proiektuari aplikatzeko zerga-onurak» deritzon hirurogeita laugarren xedapen gehigarriko Bi apartatua (urriaren 29ko 48/2015 Legea). Honela idatzita geratzen da:

«Bi. Laguntza-programak 2016ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31 arte iraungo du.»

Xedapenaren gainerakoa bere horretan idatzita geratzen da.

Azken xedapenetako berrogeita hamabigarrena. *Ekainaren 27ko 3/2017 Legea, Estatuaren 2017rako Aurrekontu Orokorrena, aldatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, aldatu egiten da ekainaren 27ko 3/2017 Legea, Estatuaren 2017rako Aurrekontu Orokorrena. Honela:

Bat. 2017rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren 3/2017 Legearen hogeita seigarren xedapen gehigarriko Bat apartatuko azken paragrafoa kentzen da.

Bi. Aldatu egiten da 3/2017 Legearen hogeita hamazazpigarren Bat apartatua. Honela idatzita geratzen da:

«Hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria. *Estatuko Aldizkari Ofizialaren Estatu Agentziaren Inprimategiko lan-kontratudun langileetatik batzuk Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionala-Diruaren Errege Etxean sartzea.*

Bat. *Estatuko Aldizkari Ofizialaren Estatu Agentziaren (AEBOE) Inprimategi Nazionalako lan-kontratupeko langile finkoak, jardunean daudenak eta lege honek indarra hartzen duen egunean Estatu Agentziaren Estatu Agentziaren hitzarmen kolektiboaren III. eta IV. talde profesioaletan sartuta izan eta jarduketa esparru, espezialitate eta eginkizun jakin batzuetan ari direnak —inprimaketa, azaleztatzea eta manipulazioa; azaleztatze industrialak; makineria mantendu eta konpontzea; mantentze-lan orokorra, mekanikoa eta elektroniko-elektrikoa; biltegia, banaketa eta logistika— fase bakarrean edo zenbait fasetan sartuko dira Diruaren*

eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionala-Diruaren Errege Etxean, lege honek indarra hatzen duenetik hasi eta 2018ko abenduaren 31 arte.

Langileak borondatea adierazi ezean, eta Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionala-Diruaren Errege Etxea ados egon ezean, honako hauei ez zaie aplikatuko aurreko paragrafoan ezarritakoa: I. azpitaldeko III. talde profesionaleko langileei; 1958. urtean edo lehenago jaio diren langileei; lege hau argitaratzen denean, enpresako batzordeko kideak edo sindikatu-ordezkariek diren langileei (enpresabatzordean ordezkaritza duten sindikatu guztiak barne); III. talde profesionaleko gidari-azpiespezialitatea duten langileei; eta IV. talde profesionaleko ekoizpen-espezialitatea duten langileei.

Sartze hori egin ondoren, Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionala-Diruaren Errege Etxearen hitzarmen kolektiboa aplikatuko zaie langile horiei, hurrengo zenbakian aipatzen diren berezitasunekin.»

Hiru. Aldatu egiten da 3/2017 Legearen hirurogeigarren xedapen gehigarriko Bi apartatua, «Barcelona World Race 4. edizioa»ri aplikatzeko zerga-onurei buruzkoa da. Honela idatzita geratzen da:

«Bi. Laguntza-programak 2020ko urriaren 1etik 2023ko urriaren 1a arte iraungo du.»

Lau. Aldatu egiten da 3/2017 Legearen hirurogeita laugarren xedapen gehigarriko Bi apartatua («Munduari lehenengo itzulia eman zion Fernando de Magallaesen eta Juan Sebastián Elkanoren espedizioaren V. urteurrena» ospakizunari aplikatzeko zerga-onurak»). Honela idatzita geratzen da:

«Bi. Laguntza-programak 2017ko maiatzaren 8tik 2020ko maiatzaren 7a arte iraungo du.»

Bost. Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, beste era batean idazten da 2017rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren 3/2017 Legearen hirurogeita bosgarren xedapen gehigarriaren Bi zenbakiko lehenengo paragrafoari (««Unescok Mérida Gizadiaren Ondare izendatu izanaren 25. urteurrena» ospakizunari aplikatzeko zerga-onurak»). Honela idatzita geratzen da (ekainaren 27ko 3/2017 Legearena):

«Bi. Gertaera horri laguntzeko programak 2017ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31 arte iraungo du.»

Sei. Aldatu egiten da hirurogeita hamazazpigarren xedapen gehigarriko Bi apartatua (««Almagroko Antzerki Klasikoko Nazioarteko Jaialdiaren 40. urteurrena» ekimenari aplikatzeko zerga-onurak»). Honela idatzita geratzen da:

«Bi. Gertaera horri laguntzeko programak 2017ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31 arte iraungo du.»

Zazpi. Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, beste era batean idazten da 2017rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren 3/2017 Legearen hirurogeita hemeretzigarren xedapen gehigarriko Bi apartatua (««Ordesako eta Monte Perdido Parke Nazionalaren I. mendeurrena» ospakizunari aplikatzeko zerga-onurak»). Honela idatzita geratzen da (ekainaren 27ko 3/2017 Legearena):

«Bi. Laguntza-programak 2017ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31 arte iraungo du.»

Zortzi. Aldatu egiten da ekainaren 27ko 3/2017 Legearen laurogeigarren xedapen gehigarriko Bi apartatua. Honela idatzita geratzen da:

«Laurogeigarren xedapen gehigarria. *«Picos de Europa Parke Nazionalaren I. mendeurrena» ospakizunari aplikatzeko zerga-onurak.*

Bi. Laguntza-programak 2017ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31 arte iraungo du.»

Bederatzi. Aldatu egiten da ekainaren 27ko 3/2017 Legearen ehun eta hogeigarren xedapen gehigarria. Honela idatzita geratzen da:

«Ehun eta hogeigarren xedapen gehigarria. *Irakaskuntza Bateratuen ikastetxeetako eta Lanbide Heziketako ikastetxeetako irakasleen kidegoetako funtzionarioen erretiroa.*

Irakaskuntza Bateratuen ikastetxeetatik (antzinako lanerako prestatzeko unibertsitateak) eta Lanbide Heziketako ikastetxeetatik (AISS) datozen irakasleen kidegoetako karrerako funtzionarioek —kidego horietan sartu ziren Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bategina onetsi zuen apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretua indarrean jarri baino lehen—, zeinak Gizarte Segurantzaren eta klase pasiboena ez den aurreikuspen araubideetan baitaude, aukera izango dute erretiro boluntarioa eskatzeko unean, Estatuko Klase Pasiboen Araubidean sartzeko, araubide horretara bildutako irakasleen kidegoetako karrerako funtzionarioen baldintza berdin-berdinetan, baldin eta azken horietarako indarrean dauden baldintza berak egiaztatzen badituzte.»

Hamar. 2017rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren 3/2017 Legearen «Uhartetako autonomia-erkidegoetan eta Ceutako eta Melillako hiri autonomoetan salgaiak garraiatzeko dirulaguntzak» ehun eta hogeita bederatzigarren xedapen gehigarriari Sei epigrafean erantzen zaio (ekainaren 27ko 3/2017 Legekoari). Honela idatzita geratzen da:

«Sei. Xedapen hau eta, zehazki, lehen eta hirugarren epigrafeetan ezarritako ehunekoak ere aplikagarriak izango dira, konpentsazio-eskaerei atzeraeraginez aplikatu ere, baldin eta 2018an ukitutako sektoreetako eskatzaileek aurkezten badituzte, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako garraioei lotuta badaude, eta indarreko araudien esparruko eskakizunak betetzen badituzte.»

Azken xedapenetako berrogeita hirugarrena. *Maiatzaren 12ko 8/2017 Errege Lege Dekretuko lehen xedapen gehigarria aldatzea. Xedapen horren bitartez salgaiak manipulatzeko portu-zerbitzua ematen duten langileen araubidea aldatzen da, honela:*

«Lehenengo xedapen gehigarria. Hitzarmenezko araudia.

1. Errege-dekretu honetako azken xedapenetako hirugarrenen bigarren apartatuan aipatzen den errege-dekretua indarrean jarri eta gehienez ere sei hilabeteko epean hitzarmenezko araudiak bertan eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 49. artikuluan xedatutakora moldatu beharko dira.

Epe hori amaitu eta gero, hitzarmen kolektiboetako xedapenak erabat deusezak izango dira, aurreko paragrafoan ezarritakoa betetzen ez badute, edo kontratatzeko askatasuna murrizten badute salgaiak manipulatzeko portu-zerbitzuaren eta merkataritzako portu-zerbitzuen eremuan, edota lehia mugatzen badute.»

Azken xedapenetako berrogeita laugarrena. *9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren*

26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.

Bat. Aldatu egiten da 32. artikulua 7. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

«7. Artikulu honen arabera jasotako mandatuak betetzeko, mandatuaren erakunde hartzaileek egiten dituzten negozio juridikoei arau hauek aplikatuko zaizkie:

a) Kontratua lege honen mende egongo da, bidezkoak diren terminoetan, negozioak egiten dituen erakundearen ezaugarriak eta negozioen mota eta balioa kontuan hartuta. Edonola ere, baliabide propioa botere esleitzaila ez denean, lege honetako hirugarren liburuko I. tituluan jasotako arauak aplikatuko zaizkio.

b) Baliabide propioak hirugarrenekin kontratatutako ahal dituen prestazio partzialen zenbatekoa ezin izango da izan mandatuaren ehuneko 50 baino handiagoa. Ez dira prestazio partzialtzat hartuko baliabide propioak beste enpresa batzuei erosten dizkienak, baldin eta hornidura edo zerbitzu lagungarriak edo instrumentalak badira, eta prestazio nagusiaren zati autonomoa edo bereizgarria ez badira, nahiz eta prestazio hori emateko behar den prozesuaren zati izan.

Letra honetan ezarritakoa ezin izango zaie aplikatu obra- edo zerbitzu-lagapen bat enkargatu zaien baliabide propioek egiten dituzten obra-kontratuei. Era berean ezin izango da aplikatu, ez zerbitzu publikoaren kudeaketa propio horretarako sortutako zuzenbide publikoko erakunde bidez egiten den kasuetan, ez zerbitzu publikoaren kudeaketa kapital osoa titulartasun publikokoa duen zuzenbide pribatuko sozietateren baten bidez egiten den kasuetan.

Sareen eta sistemen bateragarritasuna, komunikagarritasuna eta segurtasuna eta informazioaren osotasuna, fidagarritasuna eta konfidentzialtasuna bermatze aldera, baliabide publikoei zerbitzu informatikoak eta teknologikoak ematea enkargatu baldin bazaie, baliabide propioek xede horretarako egiten dituzten kontratuei ere ezin izango zaie aplikatu.

Salbuespen moduan, kontratazio-ehuneko hori gainditu ahalko da, baliabide propioak honako arrazoi hauek oinarri hartzen dituzten kasuetan: segurtasun-arrazoiak, prestazioaren ezaugarriak direla eta, prestazioaren gauzatzea gehiago kontrolatu beharra edo, presako arrazoiak direla eta, bizkorrago gauzatu beharra. Inguruabar horiek gertatu egiten direlako justifikazioa mandatu formalizatze dokumentuarekin batera aurkeztuko da, eta dagokion Kontratazio Plataforman argitaratuko da.»

Bi. Lege hau indarrean jartzen denetik ondoreak izanik, eta indarraldi mugagabez, berrogeita hamalagarren xedapen gehigarria sartzen da. Honela idatzita geratzen da:

«Berrogeita hamalagarren xedapen gehigarria. *Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemako agente publikoek egiten dituzten kontratuei aplikatu ahal zaien araubidea.*

Jardueraren ezaugarri bereziak direla eta, lege honetako 118. artikuluan ezarritako mugaren salbuespen gisa, Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemako agente publikoek egiten dituzten gehienez ere 50.000 euroko balio zenbatetsiko hornidura- edo zerbitzu-kontratuak kontratu txikitzat joko dira beti, baldin eta zerbitzu orokorrak emateko edo kontratazio-organoaren azpiegitura-zerbitzuetarako erabiltzen ez badira.

Ondore horietarako, honako hauek Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemako agente publikoak direla jotzen da, ekainaren 1eko 14/2011 Legean ezarritako terminoetan (14/2011 Legea, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarena): unibertsitate publikoak, ikerkuntzako organismo publikoak, fundazioak, partzuergoak eta Estatuko Administrazio Orokorreko gainerako agente betearazleak, beste administrazio publiko batzuen mende dauden antzeko

ikerkuntzako organismoak eta erakundeak, ikerkuntza biomedikoko fundazioak eta Osasun Sistema Nazionaleko zentroak, erakundeak eta partzuergoak.»

Azken xedapenetako berrogeita bosgarrena. *Zeharkako kostuak konpentsatzeko programaren deialdiaren onuradunak izan diren erakundeei emandako dirulaguntzen osagarria.*

2018ko ekitaldiaren ondoretarako baino ez, Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioari baimena ematen zaio zeharkako kostuak konpentsatzeko programaren deialdiaren onuradunak izan diren 136 erakundeei emandako dirulaguntzak osa ditzan. Berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen salerosketaren araubidea, Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioaren 2017ko uztailaren 27ko aginduaren bidez bideratuta (2017ko abuztuaren 1eko *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratuta), gehieneko 77.923.513,16 euroko zenbateko bateratua ezarrita.

Hirugarren xedapen gehigarriko Bi apartatuan ezarritakoarekin bat etorrita ematen da baimen hori, 27.16.422B.771 aplikazioaren aurrekontu-aldaketak 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorretan benetan gauzatutakoan, programa zuzkidura horren bitartez finantzatzen baita.

Honela kalkulatu da dirulaguntzaren zenbateko osagarria onuradun bakoitzeko: deialdiari lotutako ebazpenean aitortu zen ahalik eta laguntza handienari kenduko zaio azkenean ordaindu zen laguntzaren zenbatekoa, laguntza eman zen erabilgarri zegoen aurrekontuan oinarrituta.

Azken xedapenetako berrogeita seigarrena. *Indarrean jartzea.*

Bat. Lege hau indarrean jarriko da *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean.

Bi. Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legea argitaratu eta hurrengo egunean ehun eta berrogeita batgarren xedapen gehigarria indarrean jarri arren, Gizarte Txartel Unibertsalaren Sistema egun hori eta hiru hilabeteko epean benetan jarriko da funtzionamenduan.

Hiru. Ehun eta hogeigarren xedapen gehigarria, Gazte Bermea Sistema Nazionalean inskribaturik dauden eta prestakuntzako eta ikasketarako kontratu bat sinatzen duten gazteei emateko dirulaguntzari buruzkoa, *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo hilabetean jarriko da indarrean. Gazte Enplegurako Ekimena indarrean egon bitartean iraun egingo du.

Azken xedapenetako berrogeita zazpigarrena. *Erregelamendu bidezko garapena.*

Gobernuari ahalmena ematen zaio lege hau betearazteko eta garatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

Horrenbestez,
Lege hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikular zein agintariei.

Madriilen, 2018ko uztailaren 3an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN

I. ERANSKINA

Kredituen banaketa, programen arabera

(Miles de euros)

Clasif. por programas	Explicación	Cap. 1 a 8	Cap. 9	Total
421M	Dirección y Servicios Generales de Energía, Turismo y Agenda Digital	67.551,12		67.551,12
421N	Regulación y protección de la Propiedad Industrial	51.444,00		51.444,00
421O	Calidad y seguridad Industrial	3.506,71		3.506,71
422A	Incentivos regionales a la localización industrial	59.852,77		59.852,77
422B	Desarrollo industrial	59.919,98		59.919,98
422M	Reconversión y reindustrialización	871.454,98		871.454,98
423M	Desarrollo alternativo de las comarcas mineras del carbón	32.200,00		32.200,00
423N	Explotación minera	290.680,95		290.680,95
424M	Seguridad nuclear y protección radiológica	46.877,04		46.877,04
425A	Normativa y desarrollo energético	4.285.331,37		4.285.331,37
431A	Promoción comercial e internacionalización de la empresa	400.482,34		400.482,34
431N	Ordenación del comercio exterior	9.076,64		9.076,64
431O	Ordenación y modernización de las estructuras comerciales	9.517,62		9.517,62
432A	Coordinación y promoción del turismo	332.167,33		332.167,33
433M	Apoyo a la pequeña y mediana empresa	144.958,62		144.958,62
441M	Subvenciones y apoyo al transporte terrestre	1.551.230,40		1.551.230,40
441N	Subvenciones y apoyo al transporte marítimo	128.689,65		128.689,65
441O	Subvenciones y apoyo al transporte aéreo	303.585,02		303.585,02
441P	Subvenciones al transporte extrapeninsular de mercancías	75.247,03		75.247,03
451M	Estudios y servicios de asistencia técnica en Obras Públicas y Urbanismo	28.805,20		28.805,20
451N	Dirección y Servicios Generales de Fomento	917.936,23		917.936,23
451O	Dirección y Servicios Generales de Agricultura y Pesca, Alimentación y Medio Ambiente	130.451,12		130.451,12
452A	Gestión e infraestructuras del agua	1.130.524,64	78.373,02	1.208.897,66
452M	Normativa y ordenación territorial de los recursos hídricos	69.616,87		69.616,87
453A	Infraestructura del transporte ferroviario	412.713,61		412.713,61
453B	Creación de infraestructura de carreteras	1.456.844,89		1.456.844,89
453C	Conservación y explotación de carreteras	809.057,39		809.057,39
453M	Ordenación e inspección del transporte terrestre	21.443,83		21.443,83
453N	Regulación y supervisión de la seguridad ferroviaria	13.880,51		13.880,51
453O	Comisión de Investigación de Accidentes Ferroviarios	390,84		390,84
454M	Regulación y seguridad del tráfico marítimo	41.206,35		41.206,35
454O	Comisión de Investigación de Accidentes e Incidentes Marítimos	584,67		584,67
455M	Regulación y supervisión de la aviación civil	86.529,50		86.529,50
455O	Comisión de Investigación de Accidentes e Incidentes de Aviación Civil	1.468,08		1.468,08
456A	Calidad del agua	167.494,69	14.629,70	182.124,39
456B	Protección y mejora del medio ambiente	20.832,43		20.832,43
456C	Protección y mejora del medio natural	174.733,74		174.733,74
456D	Actuación en la costa	99.104,63		99.104,63

(Miles de euros)

Clasif. por programas	Explicación	Cap. 1 a 8	Cap. 9	Total
456M	Actuaciones para la prevención de la contaminación y el cambio climático	27.888,69		27.888,69
457M	Infraestructuras en comarcas mineras del carbón	45.000,50		45.000,50
462M	Investigación y estudios sociológicos y constitucionales	12.075,52		12.075,52
462N	Investigación y estudios estadísticos y económicos	5.717,02		5.717,02
463A	Investigación científica	720.521,94	10.000,00	730.521,94
463B	Fomento y coordinación de la investigación científica y técnica	2.981.143,71		2.981.143,71
464A	Investigación y estudios de las Fuerzas Armadas	210.977,48	620,00	211.597,48
464B	Apoyo a la innovación tecnológica en el sector de la defensa	467.610,00		467.610,00
465A	Investigación sanitaria	270.847,13		270.847,13
467B	Investigación, desarrollo y experimentación en transporte e infraestructuras	960,00		960,00
467C	Investigación y desarrollo tecnológico-industrial	1.459.654,06		1.459.654,06
467D	Investigación y experimentación agraria	53.151,99	353,24	53.505,23
467E	Investigación oceanográfica y pesquera	60.582,89	453,72	61.036,61
467F	Investigación geológico-minera y medioambiental	23.483,34		23.483,34
467G	Investigación y desarrollo de la Sociedad de la Información	140.416,01		140.416,01
467H	Investigación energética, medioambiental y tecnológica	89.979,23	450,00	90.429,23
467I	Innovación tecnológica de las telecomunicaciones	552.954,44		552.954,44
491M	Ordenación y promoción de las telecomunicaciones y de la Sociedad de la Información	29.117,69		29.117,69
491N	Servicio postal universal	120.790,00		120.790,00
492M	Defensa de la competencia en los mercados y regulación de los sectores productivos	59.986,70		59.986,70
492N	Regulación y vigilancia de la competencia en el Mercado de Tabacos	7.387,32		7.387,32
492O	Protección y promoción de los derechos de los consumidores y usuarios	13.762,35		13.762,35
493M	Dirección, control y gestión de seguros	15.704,70		15.704,70
493O	Regulación contable y de auditorías	8.129,63		8.129,63
494M	Administración de las relaciones laborales y condiciones de trabajo	52.790,01		52.790,01
495A	Desarrollo y aplicación de la información geográfica española	35.328,78	27,28	35.356,06
495B	Meteorología	128.957,86		128.957,86
495C	Metrolología	8.473,16		8.473,16
496M	Regulación del juego	6.611,70		6.611,70
497M	Salvamento y lucha contra la contaminación en la mar	152.535,00		152.535,00
911M	Jefatura del Estado	7.887,15		7.887,15
911N	Actividad legislativa	212.121,64	15,00	212.136,64
911O	Control externo del Sector Público	63.016,62		63.016,62
911P	Control Constitucional	23.866,87		23.866,87
911Q	Apoyo a la gestión administrativa de la Jefatura del Estado	6.182,90		6.182,90
912M	Presidencia del Gobierno	35.941,95		35.941,95

(Miles de euros)

Clasif. por programas	Explicación	Cap. 1 a 8	Cap. 9	Total
912N	Alto asesoramiento del Estado	11.388,65		11.388,65
912O	Relaciones con las Cortes Generales, Secretariado del Gobierno y apoyo a la Alta Dirección	31.067,51		31.067,51
912P	Asesoramiento del Gobierno en materia social, económica y laboral	8.040,41		8.040,41
912Q	Asesoramiento para la protección de los intereses nacionales	281.948,70		281.948,70
921N	Dirección y organización de la Administración Pública	24.988,97		24.988,97
921O	Formación del personal de las Administraciones Públicas	85.728,92		85.728,92
921P	Administración periférica del Estado	248.707,36		248.707,36
921Q	Cobertura informativa	68.451,49		68.451,49
921R	Publicidad de las normas legales	31.062,64		31.062,64
921S	Asesoramiento y defensa de los intereses del Estado	34.247,82		34.247,82
921T	Servicios de transportes de Ministerios	45.286,72		45.286,72
921U	Publicaciones	98,34		98,34
921X	Evaluación de la transparencia de la actividad pública	2.276,86		2.276,86
922M	Organización territorial del Estado y desarrollo de sus sistemas de colaboración	13.122,70		13.122,70
922N	Coordinación y relaciones financieras con los Entes Territoriales	17.508.285,55		17.508.285,55
923A	Gestión del Patrimonio del Estado	184.155,49		184.155,49
923C	Elaboración y difusión estadística	176.016,48		176.016,48
923M	Dirección y Servicios Generales de Hacienda y Función Pública	1.033.552,90		1.033.552,90
923N	Formación del personal de Economía y Hacienda	11.815,65		11.815,65
923O	Gestión de la Deuda y de la Tesorería del Estado	28.254,84	1,00	28.255,84
923P	Relaciones con Instituciones Financieras Multilaterales	428.789,06		428.789,06
923Q	Dirección y Servicios Generales de Economía, Industria y Competitividad	54.728,18		54.728,18
923R	Contratación centralizada	283.321,43		283.321,43
923S	Aportaciones al Mutualismo Administrativo	2.058.169,27		2.058.169,27
924M	Elecciones y Partidos Políticos	62.866,69		62.866,69
929N	Fondo de contingencia de ejecución presupuestaria	2.278.680,00		2.278.680,00
931M	Previsión y política económica	7.913,22		7.913,22
931N	Política presupuestaria	65.461,34		65.461,34
931O	Política tributaria	5.582,74		5.582,74
931P	Control interno y Contabilidad Pública	74.980,62		74.980,62
931Q	Control y Supervisión de la Política Fiscal	7.042,83		7.042,83
932A	Aplicación del sistema tributario estatal	1.088.740,38		1.088.740,38
932M	Gestión del catastro inmobiliario	110.456,59		110.456,59
932N	Resolución de reclamaciones económico-administrativas	29.351,13		29.351,13
941M	Transferencias a Comunidades Autónomas por participación en los ingresos del Estado	18.266.441,06		18.266.441,06
941N	Transferencias a Comunidades Autónomas por los Fondos de Compensación Interterritorial	582.430,00		582.430,00
941O	Otras transferencias a Comunidades Autónomas	685.395,96		685.395,96

(Miles de euros)

Clasif. por programas	Explicación	Cap. 1 a 8	Cap. 9	Total
942A	Cooperación económica local del Estado	37.268,17		37.268,17
942M	Transferencias a Entidades Locales por participación en los ingresos del Estado	16.335.691,16		16.335.691,16
942N	Otras aportaciones a Entidades Locales	218.901,57		218.901,57
943M	Transferencias al Presupuesto General de la Unión Europea	13.003.274,00		13.003.274,00
943N	Cooperación al desarrollo a través del Fondo Europeo de Desarrollo	381.000,00		381.000,00
951M	Amortización y gastos financieros de la deuda pública en euros	31.123.521,77	78.815.644,05	110.939.165,82
951N	Amortización y gastos financieros de la deuda pública en moneda extranjera	423.962,00	1.495.000,00	1.918.962,00
	TOTAL	368.368.027,68	81.416.068,11	449.785.095,79

II. ERANSKINA

Kreditu zabalgarriak

Honako kreditu hauek aitortutako betebeharreri dagokien kopurura arte zabal daitezkeen kreditutzat joko dira, lege ezarritako eta ezar daitezkeen formalitateak bete ondoren, hala adierazita daudenean Estatuaren Aurrekontuetan, erakunde autonomoen aurrekontuetan, eta lege honen bidez onartutako beste erakunde publikoen aurrekontuetan:

Lehena. *Atal eta programa guztiei aplikatzekoak.*

Bat. Honako hauek ordaintzea dutenak xede:

a) Gizarte Segurantzaren kuotak, indarrean dauden manuekin bat, eta Estatuak funtzionario publiko zibil edo militarren gizarte-aurreikuspeneko araubiderako egindako ekarpena, ekainaren 9ko 1/2000 eta ekainaren 23ko 3/2000 eta 4/2000 legegintzako errege-dekretuetan ezarritakoa.

b) Erakunde autonomoen gastu-aurrekontuetan Estatuaren alde ageri diren transferentzien kredituak, haiek kudeatzearen ondorio diren geldikinen zenbatekora arte.

c) Ebazpen irmoak ordaintzeko erabiltzen diren kredituak, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 106. artikuluko 1. apartatuan ezarritako baldintzetan (29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena).

Bigarrena. *Ondoren zehaztutako atal eta programetan aplikatzekoak.*

Bat. 07. atalean, «Klase Pasiboak»:

Pentsioen eta kalte-ordainen betebeharreri erantzuteko kredituak.

Bi. 12. atalean, «Kanpo Arazoetako eta Lankidetzarako Ministerioa»:

12.03.000X.431 kreditua, «Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziari ematekoa, ekainaren 28ko 7/2013 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan araututako gizarte-intereseko interes orokorreko jardueretarako».

Hiru. 13. atalean, «Justizia Ministerioa»:

a) 13.02.112A.226.18 kreditua, «Lan-arloa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legearen 116. artikulua ondozko erreklamazioei erantzuteko, baita aurreko ekitaldietako betebeharreri ere».

b) 13.02.112A.830.10 kreditua, «Aldeko epai judiziala duten langileentzako aurrerakin itzulgarriak».

Lau. 14. atalean, «Defentsa Ministerioa»:

a) 14.01.121M.489 kreditua, «Nazioarteko bake- eta segurtasun-operazioetan parte hartzen dutenentzako kalte-ordainei buruzko azaroaren 5eko 8/2004 Errege Lege Dekretua aplikatzearen ondorio diren kalte-ordainak».

b) 14.03.122M.128, 14.03.122M.228 eta 14.03.122M.668 kredituak, Indar Armatuak bakeari eusteko operazioetan parte hartzearen ondorio diren gastuak ordaintzeko.

Bost. 15. atalean, «Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioa»:

15.13.231G.875 kreditua, «Elikagaien Ordainketa Bermatzeko Funtsa».

Sei. 16. atalean, «Barne Arazoetako Ministerioa»:

a) 16.01.131M.483 kreditua, «Kalte-ordainak, laguntzak eta dirulaguntzak, honako hauetatik eratorriak: Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Osorik Babesteko irailaren 22ko

29/2011 Legetik, eta 29/2011 Legearen Erregelamendua onesten duen irailaren 6ko 671/2013 Errege Dekretuaren 11. artikulutik».

b) 16.01.131M.487 kreditua, «Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 32. artikulutik 37. artikulura eta Espainiako lurraldean nazioarteko bidaiak egiten ari diren garraio bideak babesteko abenduaren 26ko 52/1984 Legea aplikatzearen ondorio diren kalte-ordainak».

c) 16.01.134M.461, 16.01.134M.471 16.01.134M.472, 16.01.134M.482, 16.01.134M.761, 16.01.134M.771 eta 16.01.134M.782 kredituak, ezbeharrek, hondamendiek eta larrialdiko egoerek eragindako mota orotako beharrei erantzuteko.

d) 16.01.924M.227.05 kreditua, «Hauteskunde-prozesuak eta herri-galdeketak».

e) 16.01.924M.485.02 kreditua, «Alderdi politikoen hauteskunde-gastuetarako dirulaguntza (Hauteskunde Araubide Orokorren buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa)».

Zazpi. 17. atalean, «Sustapen Ministerioa»:

a) 17.20.441P.478 kreditua, «Salgaiak Penintsulatik kanpoko lurraldeetara eta lurralde horietatik airez edo itsasoz garraiatzeko dirulaguntzak, indarreko legeriarekin bat etorrira».

b) 17.38.453B.602 kreditua, «Obra publikoak emateko kontratuak ebatztearen ondorioei aurre egiteko».

d) 17.32.441N.481 kreditua, «Penintsulakoak ez diren egoiliarrei Penintsulara itsasoz joateagatiko eta itzultzeagatiko eta uharteen arteko ibilbidetarako hobaria ordaintzeko».

d) 17.34.441O.483 kreditua, «Aireko trafikoa erregularra diruz laguntzea».

Zortzi. 18. atalean, «Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa»:

18.11.337B.631 eta 18.11.337C.621 kredituak, «kulturako 100eko 1»en ondorio diren inbertsioetarako hasierako kontsignazioaren (Espainiako Ondare Historikoari buruzko 16/1985 Legearen 68. artikulua eta ekainaren 25eko 16/1985 Legea zati batez garatzeko urtarrilaren 10eko 111/1986 Errege Dekretuaren 58. artikulua, otsailaren 8ko 162/2002 Errege Dekretuaren artikulua bakarrak emandako idazketan) eta 1988rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren 33/1987 Legearen 20. artikulua hiru zenbakiak aipatutako kreditu-atxikipen indargabetu gabeen arteko alderako.

Bederatzi. 19. atalean, «Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa»:

a) 19.07.231B.483.01 kreditua, «Jatorriz espainiarrak izanik, Espainiara itzuli direnentzako zahartzaroagatiko pentsio asistentziala».

b) 19.101.241A.487.03 kreditua, lan-kontratuak eginez enplegua sustatzeko neurriei heldutako Gizarte Segurantzaren kotizazioetan hobariak finantzatzera zuzendua, aurreko ekitaldietako betebeharrak barne.

c) 19.101.251M.480.00 kreditua, langabezia-prestazio kontributiboak finantzatzera zuzendua, aurreko ekitaldietako betebeharrak barne.

d) 19.101.251M.480.01 kreditua, langabezia-sorospena finantzatzera zuzendua, aurreko ekitaldietako betebeharrak barne.

e) 19.101.251M.480.02 kreditua, Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorreko Nekazaritzako besteren konturako Langileentzako Sistema Bereziko behin-behineko langileen langabezia-sorospena finantzatzera zuzendua, aurreko ekitaldietako betebeharrak barne.

f) 19.101.251M.487.00 kreditua, langabezia-prestazio kontributibo onuradunen kuotak finantzatzera zuzendua, aurreko ekitaldietako betebeharrak barne.

g) 19.101.251M.487.01 kreditua, langabezia-sorospenaren onuradunen kuotak finantzatzera zuzendua, aurreko ekitaldietako betebeharrak barne.

h) 19.101.251M.487.05 kreditua, Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorreko Besteren Konturako Langileen Sistema Bereziko behin-behineko langileen langabezia-

sorospenaren onuradunen kuotak finantzatzera zuzendua, aurreko ekitaldietako betebeharrak barne.

i) 19.101.251M.488.01 kreditua, Laneratzeko Errenta Aktiboa finantzatzera zuzendua, aurreko ekitaldietako betebeharrak barne.

j) 19.101.251M.488.02 kreditua, Enplegua aktibatzen Programan bildutako laguntza ekonomikoa finantzatzera zuzendua, aurreko ekitaldietako betebeharrak barne.

k) 19.101.251M.488.03 kreditua, Gazte Bermea Sistema Nazionalen izena emandako gazteentzako laguntza osagarria finantzatzeko, aurreko ekitaldietako obligazioak barne.

Hamar. 20. atalean, «Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko Ministerioa»:

a) 20.18.425A.443 kreditua, «IDAeri. Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko Ministerioari laguntza tekniko eta ekonomikoaren arloko jarduketak finantzatzeko, prozedura administratibo, judicial edo arbitrajekoetan (20/2012 Errege Lege Dekretuaren hamabigarren xedapen gehigarria)».

b) 20.18.425A.821.07 kreditua, «IDAeri, energiaren eraginkortasuna eta energia berriztagarriak sustatzeko».

Hamaika. 23. atalean, «Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa»:

a) 23.01.416A.440 kreditua, «Aseguruen Konpentsaziorako Partzuergoari, Nekazaritzako Aseguru Konbinatuko galerak estaltzeko».

b) 23.01.451O.485 kreditua, «Ekainaren 28ko 7/2013 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan araututako gizarte-interesekotzat jotzen diren interes orokorreko jardueretarako».

c) 23.01.000X.414.00 kreditua, «Nekazaritza Aseguruen Estatuko Entitateari (ENESA), Nekazaritza Aseguruen Urteko Planeko dirulaguntzetarako eta aurreko planen likidaziorako», ENESAren aurrekontuan sortzen diren beharrei haren diruzaintza-geldikinen bidez erantzun ezin zaien neurrian.

d) 23.113.416A.471 kreditua, «Nekazaritza Aseguruen Urteko Plana eta aurreko planen likidazioa».

Hamabi. 25. atalean, «Lehendakaritzako eta Lurralde Administrazioetarako Ministerioa».

25.04.921P.830.10 kreditua, «Nahitaez desjabetzeko epaimahaikideentzako aurrerakinak».

Hamahiru. 26. atalean, «Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa»:

a) 26.16.231F.454 kreditua, «Ekainaren 28ko 7/2013 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan erregulatutako gizarte-interesekotzat jotzen diren interes orokorreko eta eskumen autonomikoko jardueretarako».

b) 26.16.231F.484 kreditua, «Ekainaren 28ko 7/2013 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan erregulatutako gizarte-interesekotzat jotzen diren interes orokorreko jardueretarako».

c) 26.22.232C.480 kreditua, «Emakumeentzako gizarte-laguntzak (abendua 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikulua)».

Hamalau. 27. atalean, «Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa».

a) 27.02.923Q.226.10 kreditua, «Nazioarteko zuzenbideko arbitrajeetatik eratorritako gastuak», Nazioarteko Tratatuaren aurreikusitakoaren arabera egin behar izan diren ordainketen arabera.

b) 27.03.931M.892 kreditua, «Egonkortasunerako Europako Mekanismoarako (MEDE) ekarpena», bere Gobernadore Kontseiluak, bere Administrazio Kontseiluak edo zuzendari exekutiboak eskatutako ordainketen arabera, MEDE Eratzeko Tratatuan aurreikusitakoari jarraituz.

c) 27.04.923O.351 kreditua, «Altxorrek emandako abalen arriskuen estaldura, aurreko ekitaldietako arriskuak barne».

d) 27.04.923O.355 kreditua, «Altxor Publikoaren aurrean abalak betearazteak eragindako konpentsazioak».

e) 27.04.923O.891 kreditua, «4/2016 Errege Lege Dekretua. Ebazpen Batzar Bakarrari, 1. artikuluan ezarritakoaren arabera».

f) 27.04.923O.951 kreditua, «Metalezko txanpona zirkulazio negatiboan jartzea».

h) 27.09.431A.444 kreditua, «Ekintzaileei eta beren Nazioartekotzeari Laguntzeko irailaren 27ko 14/2013 Legearen babesean baimendutako eta Kreditu Ofizialeko Institutuaren bidez ordaindutako eragiketek eragindako aldeak estaltzeko».

i) 27.09.431A.874 kreditua, «Nazioartekotze Arriskuen Erreserba Funtzari (FRRI)».

Hamabost. 32. atalean, «Lurralde Erakundeekiko beste finantza-harreman batzuk»:

a) 32.01.941O.450 kreditua, «Euskal Autonomia Erkidegoarentzako finantza-kompentsazioa, tabako-laboreen gaineko zerga bereziak eragindakoa, aurreko ekitaldiko behin betiko likidazioa barne».

b) 32.01.941O.455 kreditua, «Estatuak Euskal Autonomia Erkidegoko poliziaren erretiro aurreratuaren kostuari dagokionez egindako finantzaketa».

c) 32.01.941O.456 kreditua, «Autonomia-erkidegoentzako konpentsazioak. Autonomia Erkidegoak Finantzatzeko Lege Organikoaren 6.2 artikulua».

d) 32.02.942N.461.00 eta 32.02.942N.461.01, 32.02.942N.464.01, 32.02.942N.464.03 kredituak, toki-korporazioen alde legez ezarrita dauden edo ezarriko diren beste eskubide batzuegatik.

Hamasei. 34. ataleko kredituak («Europar Batasunarekiko finantza-harremanak») handitu egin daitezke, Espainiak Europar Batasunaren aurrean hartu dituen edo har ditzakeen konpromisoen arabera, konpromiso horietako finantza-xedapenen arabera, edota nekazaritzako ordainarazpenek, Batasunaz kanpoko muga-zerga ordaindu beharreko aduana-eskubideek eta azukrearen zein isoglukosaren kotizazioek eragindako diru-bilketaren arabera.

Hamazazpi. 36. atalean, «Lurralde-erakundeak finantzatzeko sistemak»:

a) 36.20.941M.452.00 kreditua, «Lehiakortasun Funtza», 36.20.941M.452.01, «Lankidetzeta Funtza» eta 36.20.941M.452.02, «Finantzaketa-sistemaren likidaziorako beste kontzeptu batzuk».

b) 36.21.942M.468 kreditua, «Toki-korporazioek Estatuaren diru-sarreretan duten partaidetzaren behin betiko likidazioa, aurreko ekitaldiei dagokienez, eta Toki Finantzaketarako Eredu Berriaren ondorio diren konpentsazioak», aipatutako behin betiko likidazio horrek eskatzen duen neurrian.

c) Autonomia-erkidegoek beren gain hartutako zerbitzuek eragindako kostuegatik haiei egin beharreko transferentziei aurre egiteko gaitzen diren kredituak.

Hirugarrena.

Aurrekontu honetako kreditu guztiak, Europako Erkidegoen aurrean hartutako finantzaketa eskusiborako konpromisoen edo baterako finantzaketarako konpromisoen arabera.

Laugarrena.

Gizarte Segurantzaren aurrekontuan, Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren gastu-programetan beharrezkoak diren kredituak, kreditu-aldaketek haien gainean dauzkaten ondorioak islatzeko, Estatuaren Aurrekontu Orokorren azpisektoreen arteko transferentzien egoera-orrian adierazten direnak.

III. ERANSKINA

Estatuko instituzio-sektore publikoko erakundeei eta entitateei baimentzen zaizkien kreditu-eragiketak.

	Milaka euro
Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioa	
Bartzelonako aduana-zergarik gabeko eremuko Partzuergoa ¹	6.000,00
Cádizeko aduana-zergarik gabeko eremuko Partzuergoa ¹	11.500,00
Santanderreko aduana-zergarik gabeko eremuko Partzuergoa ¹	2.000,00
Estatuko Industria Partaidetzarako Sozietatea (SEPI) ²	550.000,00
Sustapen Ministerioa	
ADIF Abiadura Handia ³	1.890.000,00
Portuko Errepide Irisgarritasuna Finantzatzeko Funtza	14.400,00
Estatuko portuak eta portu-agintaritzak ⁴	34.200,00
RENFE Operadorea ⁵	250.000,00
Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa	
Kreditu Ofizialeko Institutua (ICO) ⁶	5.900.000,00
Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa	
Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa	16.500,00
Dueroko Konfederazio Hidrografikoa	11.000,00
Guadalquivirreko Konfederazio Hidrografikoa	24.887,36
Segurako Konfederazio Hidrografikoa	10.000,00
Tajoko Konfederazio Hidrografikoa	7.000,00

¹ Zifra hori aurrekontu-ekitaldian kreditu-erakundeekin hartuko den zorra da; egin behar diren itzulketak alde batera utzita.

² Zifra hori kreditu-erakundeekiko epe laburreko zein luzeko zorren eta errenta finkoko balore-igorpeneko zorren gehieneko gehikuntza garbitzat hartuko da, aurrekontu-ekitaldiko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

³ Muga hori finantza-erakundeekiko eta errenta finkoko baloreen jaulkipenengatiko epe luzeko zorren (xedapen-datan hamabi hilabetetik gorako epemuga daukatenak) gehieneko gehikuntza garbitzat hartuko da, aurrekontu-ekitaldiko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

Muga horretan ez da sartuko xedapen-datan edo hasierako erregistroaren datan hamabi hilabeteko edo gutxiagoko epemuga duen zorrik.

⁴ Aurrekontu-ekitaldian kreditu-erakundeekiko hartu ahal izango den gehieneko zenbatekoa. Muga horrek ez du eraginik izango urtearen barruan hitzartzen eta amortizatzen diren eragiketetan, ezta epe laburrera eta luzera hartutako zorra birfinantzatzeko eragiketetan ere. Nolanahi ere, kreditu-erakundeekiko zor biziaren zenbatekoa ezin izango da, abenduaren 31n, 1.681.332 mila eurotik gorakoa izan.

⁵ Kopuru hori kreditu-erakundeekiko epe laburreko zein luzeko zorren gehieneko gehitze garbitzat hartuko da, aurrekontu-ekitaldiko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean.

⁶ Muga horrek ez du eraginik izango urtearen barruan hitzartzen eta amortizatzen diren diruzaintza-eragiketetan, ezta epe laburrera eta luzera hartutako zorra birfinantzatzeko eragiketetan ere.

IV. ERANSKINA

Ikastetxe itunduak sostengatzeko funts publikoak banatzeko modulu ekonomikoak

Lege honen 13. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, hezkuntza-maila eta hezkuntza-modalitate guztietako itunpeko ikastetxeetarako, honela xedatzen dira ikastetxe bakoitzeko urteko zenbatekoak eta modulu ekonomikoen banaketa; xedapen hauek 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte egongo dira indarrean:

	Euroak
HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA	
Irakasleen soldatak, gizarte-kargak barne	28.488,24
Gastu aldakorrak	3.877,47
Beste gastu batzuk	6.071,46
URTEKO ZENBATEKO OSOA	38.437,17
HEZKUNTZA BEREZIA * (nahitaezko eta doako mailak)	
I. Oinarrizko/Lehen Hezkuntza.	
Irakasleen soldatak, gizarte-kargak barne	28.488,24
Gastu aldakorrak	3.877,47
Beste gastu batzuk	6.476,27
URTEKO ZENBATEKO OSOA	38.841,98
Langile osagarriak (logopedak, fisioterapeutak, hezkuntzako laguntzaile teknikariak, psikologo-pedagogoak eta gizarte-langileak), urritasunaren arabera:	
– Urritasun psikikoak	20.645,17
– Autismoa edo nortasun-arazo larriak	16.746,42
– Entzumen-urritasunak	19.209,53
– Hainbat urritasun	23.841,77
II. Helduarora igarotzeko prestakuntza-programak.	
Irakasleen soldatak, gizarte-kargak barne	56.976,45
Gastu aldakorrak	5.087,56
Beste gastu batzuk	9.226,29
URTEKO ZENBATEKO OSOA	71.290,30
Langile osagarriak (logopedak, fisioterapeutak, hezkuntzako laguntzaile teknikariak, psikologo-pedagogoak eta gizarte-langileak), urritasunaren arabera:	
Urritasun psikikoak	32.962,88
Autismoa edo nortasun-arazo larriak	29.483,21
Entzumen-urritasunak	25.539,69
Hainbat urritasun	36.654,33
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA	
I. Lehen maila eta bigarren maila¹	
Irakasleen soldatak, gizarte-kargak barne	34.185,87
Gastu aldakorrak	4.561,53
Beste gastu batzuk	7.892,96
URTEKO ZENBATEKO OSOA	46.640,36
I. Lehen maila eta bigarren maila²	
Irakasleen soldatak, gizarte-kargak barne	40.144,75
Gastu aldakorrak	7.708,27
Beste gastu batzuk	7.892,96

	Euroak
URTEKO ZENBATEKO OSOA	55.745,98
II. Hirugarren eta laugarren mailak	
Irakasleen soldatak, gizarte-kargak barne	45.497,38
Gastu aldakorrak	8.736,04
Beste gastu batzuk	8.711,79
URTEKO ZENBATEKO OSOA	62.945,21
BATXILERGOA	
Irakasleen soldatak, gizarte-kargak barne	54.864,51
Gastu aldakorrak	10.534,63
Beste gastu batzuk	9.603,99
URTEKO ZENBATEKO OSOA	75.003,13
HEZIKETA-ZIKLOAK	
I. Irakasleen soldata, gizarte-kargak barne.	
1. taldea. Erdi-mailako heziketa-zikloak, 1.300-1.700 ordu bitartekoak.	
Lehen maila	50.946,53
Bigarren maila	–
2. taldea. Erdi-mailako heziketa-zikloak, 2.000 ordukoak.	
Lehen maila	50.946,53
Bigarren maila	50.946,53
3. taldea. Goi-mailako heziketa-zikloak, 1.300-1.700 ordu bitartekoak.	
Lehen maila	47.027,57
Bigarren maila	–
4. taldea. Goi-mailako heziketa-zikloak, 2.000 ordukoak.	
Lehen maila	47.027,57
Bigarren maila	47.027,57
II. Gastu aldakorrak	
1. taldea. Erdi-mailako heziketa-zikloak, 1.300-1.700 ordu bitartekoak.	
Lehen maila	6.879,71
Bigarren maila	–
2. taldea. Erdi-mailako heziketa-zikloak, 2.000 ordukoak.	
Lehen maila	6.879,71
Bigarren maila	6.879,71
3. taldea. Goi-mailako heziketa-zikloak, 1.300-1.700 ordu bitartekoak.	
Lehen maila	6.835,19
Bigarren maila	–
4. taldea. Goi-mailako heziketa-zikloak, 2.000 ordukoak.	
Lehen maila	6.835,19
Bigarren maila	6.835,19
III. Beste gastu batzuk	
1. taldea. Prestakuntza Zikloak:	
– Kirol-jarduera fisikoak natura-ingurunean bideratzea.	
– Animazio turistikoa.	
– Estetika pertsonal apaingarria.	
– Ingurumen-kimika.	
– Aho-hortzetako higijena.	

	Euroak
Lehen maila	10.552,10
Bigarren maila	2.467,89
2. taldea. Prestakuntza Zikloak:	
– Idazkaritza.	
– Sakonera ertaineko urpekaritza.	
– Irudi-laboregia.	
– Merkataritza.	
– Merkataritza-kudeaketa eta marketina.	
– Kontsumitzailearentzako zerbitzuak.	
– Errotaritza eta zereal-industriak.	
– Laborategia.	
– Farmaziako produktuak eta antzekoak fabrikatzea.	
– Erizaintzako zaintza osagarriak.	
– Dokumentazio sanitarioa.	
– Larru-zurraketak.	
– Ehuna hobetzeko prozesuak.	
Lehen maila	12.829,96
Bigarren maila	2.467,89
3. taldea. Prestakuntza Zikloak:	
– Zuraren eta kortxoaren transformazioa.	
– Farmaziako produktuak fabrikatzeko eragiketak.	
– Plastikoa eta kautxua transformatzeko eragiketak.	
– Oregintzako eta papergintzako industriak.	
– Plastikoa eta kautxua.	
– Ehuna hobetzeko eragiketak.	
Lehen maila	15.269,46
Bigarren maila	2.467,89
4. taldea. Prestakuntza Zikloak:	
– Paperaren eta kartoiaren manipulazioa eta azaleztatzea.	
– Arte grafikoetan inprimatzea.	
– Galdaketa.	
– Azaleko tratamenduak eta tratamendu termikoak.	
– Oinetakogintza eta larrukigintza.	
– Harigintza eta zulo-brodatuzko ehungintza.	
– Puntuzko ehungintza.	
– Harigintzako eta zulo-brodatuzko ehungintzako prozesuak.	
– Puntuzko ehungintzako prozesuak.	
– Beiragintza eta transformatuak fabrikatzeko eragiketak.	
– Beirazko produktuen fabrikazioa eta transformazioa.	
Lehen maila	17.666,32
Bigarren maila	2.467,89
5. taldea. Prestakuntza Zikloak:	
– Obrak eta planak gauzatzea.	
– Irudi pertsonalerako aholkularitza.	
– Erradioterapia.	
– Animazio soziokulturala.	
– Gizarte-integrazioa.	

	Euroak
Lehen maila	10.552,10
Bigarren maila	3.990,86
6. taldea. Prestakuntza Zikloak:	
– Oliba-olioak eta ardoak.	
– Merkataritza-jarduerak.	
– Administrazio-kudeaketa.	
– Lorezaintza eta loreak.	
– Abeltzaintza eta abere-osasuneko laguntza.	
– Natura-ingurunearen aprobetxamendua eta kontserbazioa.	
– Basoko lanak eta natura-ingurunearen kontserbazioa.	
– Paisajismoa eta landa-ingurunea.	
– Basoen eta natura-ingurunearen kudeaketa.	
– Animazio soziokulturala eta turistikoa.	
– Marketina eta publizitatea.	
– Nekazaritzako eta abeltzaintzako enpresen kudeaketa eta antolaketa.	
– Natura- eta paisaia-baliabideen kudeaketa eta antolaketa.	
– Administrazioa eta finantzak.	
– Zuzendaritzarako laguntza.	
– Itsas arrantza eta garraioa.	
– Itsasertzeko arrantza eta nabigazioa.	
– Itsas garraioa eta itsas zabaleko arrantza.	
– Itsas nabigazioa, arrantza eta garraioa.	
– Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen ekoizpena.	
– Ikus-entzunezkoen, irratsaioen eta ikuskizunen ekoizpena.	
– Salmenten eta merkataritza-espazioen kudeaketa.	
– Nazioarteko merkataritza.	
– Garraioaren kudeaketa.	
– Errepideko garraio-ibilgailuak gidatzea.	
– Garraioa eta logistika.	
– Igeltsero-lanak.	
– Hormigoi-lanak.	
– Eraikuntza.	
– Eraikuntza-obren kontrola eta antolaketa.	
– Eraikuntza-makineria erabiltzea eta mantentzea.	
– Obra zibileko proiektuak.	
– Hirigintza-proiektuen eta topografia-eragiketen garapena.	
– Betaurreko-optika.	
– Turismo-ostatuaren kudeaketa.	
– Jatetxe-zerbitzuak.	
– Karakterizazioa eta makillaje profesionala.	
– Karakterizazioa.	
– Ile-apainketa eta -estetika.	
– Ile-apainketa.	
– Estetika integrala eta ongizatea.	
– Estetika.	
– Estetika eta edergintza.	
– Estilismoa eta ile-apainketako zuzendaritza.	
